Euskal Autonomia Erkidegoa

MEMORIA

Sozioekonomikoa 2017

CES EGAB

Consejo Económico y Social Vasco

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordea

HOBEKUNTZA MOTELA

Atsegin handiz aurkezten dizuet berriz ere Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen Txosten Sozioekonomikoa. Urtero argitaratzen den dokumentu landua da eta edizioz edizio izen handia lortzen joan da kontsulta tresna bezala gure inguruneko ekonomia eta gizartearen bilakaera eta joerak ezagutu nahi dituzten pertsonen artean. Txosten honek zuhurtziaz eta zehaztapenez jasotzen du 2017. urtean izandako gizarte eta ekonomiaren eremuko hainbat datu. Informazio estatistikoak dira eta iturri fidagarrietatik datoz, behar bezala alderatuak egoteaz gain. Nolanahi ere, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordea osatzen duten ekonomia eta gizarte eragileek bakarka aztertzen dituzte bateratze lana egin baino lehen. Eztabaida konstruktiboa egiten da, eragile multzoak duen ikuspegi partekatua harmonizatzeko. Hala, erakundeei babes handienarekin erabakiak hartzen laguntzen zaie eta, aldi berean, herritarren kontzientziazio eta partaidetza handiagoa sustatzen da. EGABren txosten sozioekonomikoek duten balio erantsi nagusia datuekin batera doazen gogoetak dira, hau da, gure kontsulta organoko eragileek partekatzen dituzten interpretazioak.

Txosten honek, oro har, 2017. urtea euskal ekonomiarako positiboa izan dela baieztatzen du. Ekonomia jarduerak gora egin du eta enplegua ere hazi da. Bultzada kontsumoan eta ekipo ondasunen inbertsioan, berriz, txikiagoa izan da. Halaber, zenbait alerta dago berehalako etorkizunari begira, hala nola, Brenta igotzea. Horiek susperraldi ekonomikoa atzeratzea eragin dezakete, gure ekonomikoak energia mendekotasuna baitu. Urritasun kezkagarria da hori, Europako eta Espainiako batez bestekoaren gainean gaudelako. Eremu honetan jada oinarri batzuk jarri ditugu energia ereduaren aldaketarantz aurrera egiteko. Helburua iraunkor eta eraginkorragoa izatea da. Modu berean, gure produkzio egituraren alderdirik ahulenetariko bat zuzen dezakegu: dimentsio txikia. Izan ere, behin eta berriz ohartarazi du EGABk ahulezia hori. Halaber, beste esku hartze eremu batzuei ere aurre egin behar zaie lehenbailehen eta nire ustez modu egokian azpimarratzen dira Txosten Sozioekonomiko honetan.

Krisialdiaren lau urte (2009-2013) ilunetan zehar EAEn enpleguaren hamarrena baino gehiago galdu zen. Ehun mila lanpostu baino gehiago. Harrezkero, enplegua sortu dugu, baina krisialdiaren aurreko mailara iritsi gabe. Emaitza positiboarekin egindako ahaleginak 2017. urtean jarraitu zuen eta, horren harira, lan merkatuko markatzaile gehienek onera egin dute. Halaber, bilakaera positiboa erakutsi dute Autonomia Erkidegoan bizi baldintzak irudikatzen dituzten adierazle nagusiek, nahiz eta kasu honetan ere krisiaren aurreko mailara ez iritsi. Hala eta guztiz ere, gure gizartearen babes sistema europar herrialde nagusienetakoekin pareka daiteke. Aurrekoaren harira, gure erkidegoan helburua gizarte ongizatea da, hezkuntza eta osasunari emandako gastu publikoan islatzen den bezala. Sistema honen etorkizuneko iraunkortasuna bermatu nahi badugu, balio partekatua dela ezagutu behar dugu eta, ondorioz, gizarte osoari dagokio. Hori ere behin eta berriz azpimarratzen du Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako

Batzordeak. Dena den, iraunkortasun hori geroz eta mehatxatuagoa dago biztanleria pixkana zahartzen ari baita eta lurraldean aberastasuna sortzeko gaitasun lehiakorra gutxitu ere bai. Euskadin demografi geldialdia oso kezkagarria da. Europan arazoa orokortuta dago, baina gure kasuan larria da. Hala, jaiotzen eta heriotzen arteko desberdintasuna ondoz ondo laugarren urtez 2017. urtean negatiboa izan zen.

Dena den, saldo negatiboa migrazio mugimenduekin orekatzen da. Horiek txikiak izan arren, oraindik positiboak dira. Halaber, eremu horretan oharra egitea bidezkoa da, nahiz eta kuantitatiboki talde txikia aipatu, gizartearen ikuspegitik garrantzitsua delako. Goi mailako prestakuntza eta titulazioa duten pertsonen migrazio saldo negatiboari buruz ari naiz. Azken urteetan berretsitako joera da eta mantenduz gero, giza kapital garrantzitsua gal daiteke, horrek dakartzan gizarte eta ekonomia inplikazioekin. Beraz, arreta eskaini behar diogu: zergatik gertatzen da? Erantzun horren arabera, alderantzikatzeko neurriak hartu beharko dira.

Ezin dut amaitu aurkezpen labur hau 2017ko Txosten Sozioekonomiko hau egia bihurtu duten pertsonei nire esker on zintzoa jakinarazi gabe. Bereziki, eskertu nahi diet EGABn dokumentua gauzatzez arduratu diren Batzordeko kideei, lan denboran egindako etengabeko ahaleginarengatik. Guztien ekarpen baliotsurik gabe hain lan ederra aurkeztea ezinezkoa litzateke. Esker onak eta balioztapena Jon Barrutia EGABko Txosten Sozioekonomikoa idaztez arduratu den Batzordeko buruan eta gainerako kideetan pertsonalizatu nahi ditut: Silvia Ara, Oskar Arenas, Raúl Arza, Maribel Ballesteros, Lore Bilbao, Inmaculada Gallastegui (azkeneko urteetan modu paregabean Batzorde honen buru izan dena), Ana García, Olatz Jaureguizar, Gregorio Martín, Pablo Martín, Pedro Martínez de Alegría, Juan Luis Martínez Ordorika, Virginia Múgica, Javier Muñecas, Mikel Ruiz, Carlos Trevilla, Pedro Luis Ustarroz eta Mari Cruz Vicente, baita Euskadiko EGABn azterlan eta proiektuetarako Leire Ozerin eta Arantza Unzurrunzaga arduradunak ere, koordinazio eta idazte lanengatik.

Francisco José Huidobro Burgos
Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen burua

INDIZEA

I. KAPITULUA- DEMOGRAFIA EAEN

1.	OINARRIZKO ADIERAZLE DEMOGRAFIKOEN BILAKAERA	3
	1.1. POPULAZIOAREN BEREZKO MUGIMENDUA	3
	1.1.1. Jaiotzak	
	1.1.2. Heriotzak	
	1.2. MIGRAZIO-MUGIMENDUAK	5
	1.2.1. Migrazio-mugimenduen estatistika	
	1.3. EZKONTZAK	8
	1.3.1. Ezkontzak	
	1.3.2. Ezkontza desegiteak	
2.	IMMIGRAZIOA EAE-N	10
	2.1. TESTUINGURUA: IMMIGRAZIOA EUROPAR BATASUNEAN	10
	2.2. MIGRAZIOAK EAE-REN DINAMIKA DEMOGRAFIKOAN DUEN ERAGINA	10
	2.3. BIZIKIDETZA. 2017KO BAROMETROA	13
3.	LABURPENA ETA GOGOETAK	16

II. KAPITULUA- KANPOKO INGURUNE EKONOMIKOA 20

1.	KANPOKO INGURUNE EKONOMIKOA	21
	1.1. FAKTORE EKONOMIKO NAGUSIAK	21
	1.2. EUROPAR BATASUNA. EUROGUNEA	23
	1.3. ESPAINIAKO EKONOMIA ETA AUTONOMIA ERKIDEGOAK	29
	1.3.1. Espainiako ekonomia	
	1.3.2. Autonomia erkidegoak	
2.	EAE-KO ABAGUNE EKONOMIKOA	31
	2.1. BILAKAERA OROKORRA	31
	2.2. BARNE-ESKARIAREN AGREGATUAK	36

2.3. KANPO-ESKARIA 38

2.4. ATZERRIKO INBERTSIOA 40

2.4.1 Atzerriko inbertsioa EAEn
2.4.2. Euskal inbertsioa atzerrian

3. EKOIZPEN SEKTOREAK 47

3.1. ENPRESA-EGITURA ETA -DEMOGRAFIA 47

3.1.1. Enpresa-egitura
3.1.1. Enpresa-demografia

3.2. LEHEN SEKTOREA 53

3.2.1. Nekazaritza, abeltzaintza eta baso-ustiapena
3.2.2. Arrantza 25

3.3. INDUSTRIA 56

3.4. ERAIKUNTZA 63

3.5. ZERBITZUAK 65

3.5.1. Merkataritza
3.5.2. Ostalaritza
3.5.3. Finantza-sektorea

4. SEKTORE PUBLIKOA 74

4.1. DIRU-SARRERAK 74

4.2. GASTUAK 77

4.3. AURREKONTUKO SALDOA 79

4.4. SEKTORE PUBLIKOAREN ZORPETZEA 80

4.5. ERAKUNDEEN TRANSFERENTZIAK 81

4.6. ENPLEGUA ADMINISTRAZIO PUBLIKOETAN 84

5. PRODUKZIOAREN AZPIEGITURAK 86

5.1. GARRAIOA: AZPIEGITURAK ETA TRAFIKOA 86

5.1.1. Azpiegiturak
5.1.2. Lur, trenbide, aire eta itsasoko trafikoa

5.2. ENERGIA: EKOIZPENA ETA KONTSUMOA 93

6. ZIENTZIA, TEKNOLOGIA ETA BERRIKUNTZA 97

6.1. I+G+B JARDUERAK 97

6.1.1. I+G+B-KO EUSKAL SISTEMAREN ADIERAZLE NAGUSIAK
6.1.2. I+G Jarduera
6.1.3. Berrikuntza jarduerak
6.1.4. Europako Berrikuntza Adierazleen Panela, IUS European Innovation Scoreboard (EIS), 2017
6.1.5. 2014-2020ko Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren planaren jarraipena

6.2. INFORMAZIOAK ETA KOMUNIKAZIOAK ETA TEKNOLOGIA 111

6.2.1. Familien eta populazioaren IKTen ekipamenduak eta erabilerak
6.2.2. IKTen ekipamenduak eta erabilerak EAEko enpresetan
6.2.3. Interneten erabilera EAEko herritar eta enpresetan
6.2.4. Merkataritza elektronikoa EAEn
6.2.5. Administrazio elektronikoa

7. EKONOMIA: LABURPENA ETA GOGOETAK

III. KAPITULUA: LAN MERKATUA EAEN 136

1. JARDUERAREN, OKUPAZIOAREN ETA LANGABEZIAREN BILAKAERA 138

1.1. JARDUERA 138

1.2. OKUPAZIOA 139

1.2.1. Okupazioaren kopuruak
1.2.2. Afiliazioa Gizarte Segurantzan

1.3. LANGABEZIA 145

1.3.1. Langabeziaren kopuruak
1.3.2. LANBIDEk (Enpleguko Euskal Zerbitzua) erregistraturiko langabezia

2. KONTRATAZIOEN BILAKAERA, ALDI BATERAKO KONTRATUEN AMAIERA ETA IRAIZPENAK 153

2.1. KONTRATAZIOAREN EGOERA 153

2.2. ERREGULAZIO-ESPEDIENTEEN ETA IRAIZPEN KOLEKTIBOEN BILAKAERA 159

2.2.1. Banako iraizpenak
2.2.2. Laneko erregulazio-espedienteak
2.2.3. Iraizpenen bilakaera agregatua

3. LAN HARREMANAK 162

3.1. NEGOZIAZIO KOLEKTIBOA: SOLDATA IGOERA ETA LANALDIA 162

3.2. LAN-GATAZKAK 163

3.3. LANALDIA ETA LAN EGIN GABEKO ORDUAK 164

4. SOLDATAK EAE-N 167

4.1. SOLDATEN EGITURARI BURUZKO 2014KO INKESTAREN EMAITZAK 167

4.2. 2016KO LAN-KOSTUEI BURUZKO INKESTAREN EMAITZAK 168

4.3. LANEKO PREZIOEN INDIZEAREN (LPI) EMAITZAK 2015 169

4.4. SOLDATEN BANAKETA: 2016KO EPA-REN EMAITZAK 170

5. ENPLEGURAKO POLITIKAK 173

5.1. ENPLEGURAKO POLITIKA AKTIBOAK 173

5.1.1. 2014-2016ko Enplegu Planaren Balantzea. 2017-2020ko Enplegu Plan Berria.
5.1.2. LANBIDE-REN JARDUERA
5.1.3. PAESen beste kopuru batzuk 2015ean
5.1.4. Etengabeko trebakuntza

5.2. ENPLEGURAKO POLITIKA PASIBOAK 179

5.2.1. Langabeziako estaldura eta prestazioen jasotzaileak
5.2.2. Gastua eta sarrera langabezian

5.3. EZINDUEN ETA BAZTERKETA ARRISKUAN DAUDEN PERTSONEN ENPLEGURAKO ETA GIZARTE-LANEKO INKLUSIORAKO POLITIKAK 182

5.3.1. Ezinduen enplegu arrunta
5.3.2. Enplegu Zentro Bereziak
5.3.3. Laneratze-enpresak

6. LAN OSASUNA 187

7. LAN-MERKATUA EAE-N: LABURPENA ETA GOGOETAK 190

IV. KAPITULUA

BIZI-BALDINTZAK ETA GIZARTE-BABESA EAEN 199

1. BIZI BALDINTZAK 201

1.1. EAE-KO BIZI-BALDINTZAK EUROPAKO INGURUNEAN: “AROPE” TASA 201

1.1.1. Pobrezia atalasearen azpitik dagoen biztanleria
1.1.2. Gabezia material larria
1.1.3. Oso lan intentsitate txikiko biztanleria

1.2. BIZI-BALDINTZEI BURUZKO 2016KO INKESTAREN EMAITZAK 205

1.2.1. Errenta
1.2.2. Gabezia materiala

1.3. 2016KO PGDI: DESBERDINTASUN-ADIERAZLEAK 208

1.4. BIZITEGI BAZTERKETA LARRIA: ETXERIK GABEKO PERTSONAK 211

1.5. FAMILIAK ETA LAN-BIZITZA, BIZITZA PERTSONALA ETA FAMILIA BATERATZEA 214

1.5.1. Bateratzeko beharrak
1.5.2. Familiei laguntzeko politika publikoak

2. GIZARTE BABESA 223

2.1. GIZARTE BABESAREN KONTUA 223

2.2. GIZARTE SEGURANTZAREN PRESTAZIOAK 225

2.2.1. Transferitu gabeko kudeaketa duten prestazioak
2.2.2. Transferitutako kudeaketa duten gizarte segurantzaren prestazioak: Kotizaziorik gabeko prestazioak

2.3. POBREZIAREN ETA GIZARTE BAZTERKETAREN KONTRAKO NEURRIAK EAE-N 229

2.3.1. Gizarteratze Planak: 2014-2016ko Planaren balantzea eta 2017-2021eko Plan berria
2.3.2. Diru-sarrerako Bermatzeko Sistemaren prestazioak
2.3.3. Gizarteratzea errazteko programak: hirugarren sektoreko jarduerak sustatzeko jarduerak

2.4. MENDEKOTASUNAREN ARRETA 238

2.4.1. Datu ofizialak. IMSERSOren 2017ko balantzea
2.4.2. Sektorearen balantzea. Mendekotasunaren behatokia

2.5. EAE-KO GIZARTE AURREIKUSPENEKO SISTEMA OSAGARRIAK 241

2.5.1. Magnitude nagusiak
2.5.2. Zerga araubidea

3. BIZI-BALDINTZAK ETA GIZARTE BABESA: LABURPENA ETA GOGOETAK 245

V. KAPITULUA BIZI KALITATEA EAEN

1. HEZKUNTZA ETA KULTURA 257

1.1. UNIBERTSITATEZ KANPOKO IRAKASKUNTZAK 257

1.1.1. 2017/2018 ikasturteko datuen aurrerapena
1.1.2. Lanbide Heziketako Prestakuntza-zikloak: matrikulaturiko ikasleak

1.2. UNIBERTSITATEKO IRAKASKUNTZAK 261

1.3. HEZKUNTZA-ADIERAZLEAK 264

1.3.1. Eskolaratzea eta hezkuntza-ingurunea
1.3.2. Hezkuntza finantzaketa.
1.3.3. Hezkuntza-adierazleak
1.3.4. Unibertsitate adierazleak

1.4. KULTURA 278

1.4.1. Arte eta kulturako industriei buruzko estatistika
1.4.2. Finantzaketa gastua kulturan

1.4.3. Familien gastua kulturaren kontsumoan
1.4.4. “Guggenheim Museoaren XX. urteurrena”. Balantzea

2. EAE-KO INGURUNE NATURALAREN EGOERA 285

2.1. AIREAREN KALITATEA 285

2.2. UR GEZA BILTZEA ETA KONTSUMITZEA 286

2.3. HONDAKINEN SORRERA ETA KUDEAKETA 287

2.3.1. Hiriko hondakinak
2.3.2. Hondakin arriskutsuak eta ez arriskutsuak

2.4. INGURUMENAREN BABESA ETA MANUFAKTURA-INDUSTRIA 290

3. OSASUNA ETA OSASUN SISTEMA 292

3.1. OSASUN EGOERA 292

3.1.1. Bizi itxaropena
3.1.2. Buruko osasuna. Depresio sintomatologia
3.1.3. Heriotza-tasa

3.2. OSASUN FAKTORE ERABAKIGARRI EZ MEDIKOAK 299

3.3. OSAKIDETZAREN LAGUNTZA JARDUERA 301

3.4. OSASUN PRIBATUKO ARRETAKO ESTATISTIKA: ASEGURU LIBREKO ERAKUNDEAK 304

3.5. OSASUN SISTEMAREN FINANTZAZIOA ETA GASTUA 304

3.5.1. Osasunaren kontua
3.5.2. Eusko Jaurlaritzaren Osasun Sailaren gastua
3.5.3 Osakidetzaren gastua

3.6. 2013-2020KO OSASUN PLANAREN EBALUAZIOA 307

4. ETXEBIZITZA 314

4.1. ETXEBIZITZA ESKAINTZA 314

4.1.1. Salgai dauden etxebizitzen eskaintza eta prezioak
4.1.2. Alokairuko araubidea
4.1.3. Etxebizitzaren prezioen erkaketa, autonomia erkidegoen arabera
4.1.4. Eraikuntza eta etxebizitza

4.2. ALOKAIRUA EAE-N. ESTATUAREKIKO ETA EB-REKIKO ERKAKETA 320

4.3. ETXEBIZITZA ESKARIA 322

4.3.1. Etxebizitza beharrak eta eskaria
4.3.2. Familien finantza-ahalegina
4.3.3. ETXEBIDEn erregistraturiko etxebizitza babestuaren eskaria 2016an

4.4. HIGIEZINEN ARLOKO JARDUERA: ETXEBIZITZEN SALEROSKETA 326

4.5. ETXEBIZITZA POLITIKA 327

4.5.1. Eusko Jaurlaritzaren etxebizitza politika
4.5.2. Foru Aldundien etxebizitza politika

VI. KAPITULUA

ARAUGINTZA EAEN

DEFINIZIOEN GLOSARIOA

I. KAPITULUA

Demografia EAEn

Kapitulu honek, lehenik eta behin, biztanleriaren berezko mugimenduari (jaiotzak eta heriotzak), migrazio-mugimenduei eta ezkontzei (ezkontzak eta desegiteak) buruzko oinarrizko adierazle demografikoen datu nagusiak ematen ditu, betiere Estatuan eta Europar Batasunean izandakoarekin erkatuta. Ondoren, Euskadiko migratzaileen azken zifrak emango dira (demografikoak, bizikidetza eta ongizatekoak eta inpaktu ekonomikokoak).

Nazio Batuen erakundeak eskura dauzkan azken datuek diotenez, munduan 7.433 milioi biztanle zeuden 2016an (+%1,1 2015aren aldean). Bestalde, EUROSTATEN zenbatespenen arabera, Europar Batasunean 511,8 milioi biztanle daude, 2017ko urtarrileko datuen arabera, hain zuzen 2016ko urtarrilean baino 1,5 milioi gehiago. Milako 3ko hazkunde horri esker -milako 3,5ekoa izan zen aurreko urtean-, beste urte batez eutsi ahal izan zaio 1960tik gertatu izan den etengabeko hazkunderako joerari, egungo Batasunaren populazioa 400 milioi biztanlekoa zenetik. Bilakaera positibo hori berriro ere immigrazioaren portaeraren ondorioa izan da; izan ere, berezko hazkundea (jaiotza eta heriotzen arteko alde positiboa) zerokoa izan da, Europar Batasunean aurreko urtean positiboa izan ondoren.

I.0.1. TAULA. EAE-KO EGUNGO BIZTANLERIAREN BILAKERA. 2011-2017

	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2017*	16-17 ald.*
ARABA	319.227	322.557	321.417	321.932	323.648	324.126	326.373	+2.247
BIZKAIA	1.155.772	1.158.439	1.156.447	1.151.905	1.148.775	1.147.576	1.147.649	+73
GIPUZKOA	709.607	712.097	713.818	715.148	716.834	717.832	719.183	+1.351
EAE	2.184.606	2.193.093	2.191.682	2.188.985	2.189.257	2.189.534	2.193.205	+3.671

Iturria: EIN. Biztanleen Udal Errolda.
**** Behin-behineko datuak.***

EAEn, Biztanleen Udal Erroldak[1] emandako 2017ko urtarrileko azken datuen arabera, EAEko biztanleriak pixka bat gora egin du azken urtean, %0,2, eta 2.193,205 biztanle ditu (+%0,2 2016aren aldean), hots, aurreko urtean baino 3.671 gehiago. Lurralde Historikoei dagozkien datuek erakusten dutenez, biztanleria hazi egin da Gipuzkoan (1.351 biztanle gehiago, +%0,9) eta Araban (+%0,7, 2.247 biztanle gehiago); Bizkaian, berriz, berdintsu eusten zaio (73 biztanle gehiago).

Datozen urteetarako eginiko aurreikuspenen arabera, EAEk ere Estatu osoan biztanleriaren jaitsierarako joera orokorra izango du. EINen biztanleriaren gaineko azken aurreikuspenen arabera, 2016-2031 aldirako, gure Erkidegoaren erreferentziako datan %3,7ko galera izango du biztanleriak. Estatuan, berriz, %-1,2ko batez bestekoa izango da[2].

Kopuru horiekin batera, gainera, EAEn erroldaturiko atzerritarren %8,9ko pisua dugu (eta %8,9 atzerrian jaiotakoak kontuan hartuz gero, hots, nazionalizaturikoak barne); 2014ko urtarrilaren 1ean, berriz, %8,6 zen. Epealdi berean, proportzio bertsuan eutsi dio atzerritarren populazioak Estatuan (%13,2 ingurua), baina EAEko datua orain ere oso urruti dago Espainiako batez bestekotik -errolda azkenengoz eguneratu zenean, 6 milioi atzerritar ziren-.

[1] *Biztanleen Udal Erroldako zifrak ez dira hertsiki konparagarriak Populazioaren eta Etxebizitzaren Zentsukoarekin, metodologia ezberdina darabiltelako. Udal Errolda erregistro administratiboa da, eta Espainian dauden 8.000 udalei dagokie hura eratzea, mantentzea eta kudeatzea.*

[2] *Aurreikuspenei buruzko informazio gehiago nahi izanez gero, 2016ko Memoriako atal espezifikora jo beza irakurleak.*

[3] *Ikuspegiren (Immigrazioaren Euskal Behatokia) metodologia aldaketak direla-eta, kapitulu honetan aurkezturiko datuak sartu zituen 2016an EAEn bizi diren etorkizunen azterketetan, atzerritarren jaioterriari dagozkionez (ez nazionalitateari dagokionez). Horregatik, kapitulu honetako 2.2. ataleko serie historikoak 2016ko Memorian berrikusi ziren eta adierazle berrira egokitu.*

1. OINARRIZKO ADIERAZLE DEMOGRAFIKOEN BILAKAERA

1.1. POPULAZIOAREN BEREZKO MUGIMENDUA

Euskal Autonomia Erkidegoan 2016ko behin-behineko datuek hazkunde begetatibo negatiboa erakusten dute (jaiotza eta heriotzen arteko aldea), saldo positiboak izandako 9 urteren ondoren: urte horretan 18.240 jaiotza gertatu dira, aurreko urtean baino % 3,2 gutxiago, eta 21.223 heriotza, 2015ean baino % 1,3 gutxiago. Horren ondorioz, berezko hazkundea -2.983 izan da, hots, milako -1,4koa 2016ko saldoa negatiboa da, beraz, jaiotzek gora egin arren heriotzen igoera handiagoa baita.

I.1.1. TAULA. *EAE-KO POPULAZIOAREN BEREZKO MUGIMENDUA*

	Jaioak	Tasa	Heriotzak	Tasa	Hazkunde begetat.	Tasa
2009	20.928	9,7	19.624	9,1	1.304	0,6
2010	21.159	9,7	19.357	8,9	1.802	0,8
2011*	21.180	9,7	19.832	9,1	1.348	0,6
2012*	20.533	9,4	20.281	9,3	252	0,1
2013*	19.118	8,8	19.692	9,0	-574	-0,2
2014*	19.378	8,9	20.157	9,3	-779	-0,4
2015*	18.851	8,7	21.509	9,9	-2.658	-1,2
2016*	18.240	8,4	21.223	9,8	-2.983	-1,4

(*) Behin-behineko datuak. Tasak mila biztanleko.
Iturria: EUSTAT. Jaiotzen eta Heriotzen Estatistikak, eta geuk eginikoa.

Ohikoa denez, joera desberdina da lurraldeak aintzakotzat hartuz gero: Bizkaiak, 2015. urtean 2.479 biztanle galduta, 2016an berriro ere galdu du 2.608 biztanle, behin-behineko datuen arabera. Bestalde, Arabak urte horretan joera positiboari eutsi dio, eta biztanleria 386 pertsonan hazi da (+392 2015ean); aitzitik, Gipuzkoak 761 biztanleko saldo negatiboa dauka (-571 2015ean).

1.1.1. Jaiotzak

Jaiotzetan jaitsierak ageri dira hiru lurraldeetan: 2016an, EAEko jaiotzen batez besteko jaitsiera %3,2 izan zen. Araban 3.074 haur jaio ziren (-%2,7 2015ekoaren aldean). Bizkaian, berriz, 9.151 jaiotza izan ziren, aurreko urtean baino %-1,9 gutxiago, eta Gipuzkoan, azkenik, 6.015 jaiotza (%-5,4):

Emaitza horien ondorioz, jaiotza-tasa 8,4 milakoa da EAEn (8,7koa 2015. urtean). 1976an kopuru hori milako 19,7tik gorakoa zen, eta Estatuko batez bestekotik gorago zegoen. Gaur egun, EAEk estatuko eta EBko batez bestekoak (milako 8,7 eta 10 EBn) baino tasa baxuagoei eusten die Lurraldez lurralde, Arabak milako 9,5eko jaiotza-tasa du –hiru lurraldeetatik handiena-, Bizkaiak 8koa –txikiena- eta Gipuzkoak milako 8,4koa.

I.1.2. TAULA. JAIOTZAK ETA HERIOTZAK MILA BIZTANLEKO EB-N. 1975 ETA 2016 ARTEKO ERKAKETA

	JAIOTZAK		HERIOTZAK	
	1975	2016	1975	2016
28KO EB	*14,7*	*10,0*	*10,7*	*10,0*
ALEMANIA	*9,9*	*9,3*	*12,6*	*11,2*
AUSTRIA	*12,4*	*10,0*	*12,7*	*9,2*
BELGIKA	*12,2*	*10,8*	*12,2*	*9,5*
BULGARIA	*16,6*	*9,1*	*10,3*	*15,1*
ZIPRE	*16,3*	*11,1*	*9,8*	*6,4*
DANIMARKA	*14,2*	*10,8*	*10,1*	*9,2*
ESLOVAKIA	*20,6*	*10,6*	*9,5*	*9,6*
ESLOVENIA	*16,6*	*9,9*	*10,1*	*9,5*
ESPAINIA	*18,8*	*8,7*	*8,4*	*8,8*
ESTONIA	*14,9*	10,7	11,6	11,7
FINLANDIA	13,9	9,6	9,3	9,8
FRANTZIA	14,1	11,7	10,6	8,8
KROAZIA	:	9,0	:	12,4
GREZIA	15,7	8,6	8,9	11,0
HERBEHEREAK	13,0	10,1	8,3	8,7
HUNGARIA	18,4	9,7	12,4	13,0
IRLANDA	21,1	13,5	10,4	6,4
ITALIA	14,9	7,8	10,0	10,1
LETONIA	14,2	11,2	12,2	14,6
LITUANIA	15,7	10,7	9,5	14,3
LUXENBURGO	11,1	10,4	12,2	6,8
MALTA	18,8	10,2	9,5	7,6
POLONIA	19,0	10,1	8,7	10,2
PORTUGAL	19,8	8,4	10,8	10,7
ERRESUMA BATUA	12,4	11,8	11,8	9,1
TXEKIAR ERRP.	19,1	10,7	12,4	10,2
ERRUMANIA	19,6	9,6	9,3	13,0
SUEDIA	12,6	11,8	10,8	9,2
EAE	**19,1**	**8,4**	**7,1**	**9,8**

Iturriak: EUROSTAT eta EUSTAT.

Horrez gain, jaiotza-tasak oso desberdinak dira amaren herritartasuna kontuan hartzen bada. Espainiako nazionalitateko amen artean, %5,2 egin zuen behera jaiotza kopuruak; atzerriko amenak, berriz, %4,6 egin zuen behera. 2016an bizirik jaio ziren 18.240 haurretatik 3.902k ama atzerritarra dute, alegia, jaiotakoen %21,4k (%19,8 2015ean), atzerriko herritartasuna duten biztanleen proportzioa txikiagoa denean, dagoeneko ikusi den moduan. Jatorriko herrialderik ohikoenak Maroko (769 ama), Errumania (324) eta Bolivia (237) dira.

Beste urte batez, azpimarratu behar da ama ezkongabeengandik jaiotakoen portzentajea gero eta handiagoa dela.[4] 2016. urtean ezkontzatik kanpo jaiotakoak 7.860 izan ziren, guztien % 43,1 (% 41,6 aurreko urtean) eta %0,3ko igoera 2015eko datuen aldean. Bizkaia izan zen EAEn ehuneko handiena izan zuen lurraldea (%45), eta Araban eta Gipuzkoan balio erlatibo txikiagoak izan ziren (%41,7 eta %40,8 hurrenez hurren). Egungo ehunekoa aurreko hamarkadakoarekin (%23,2 2005ean) alderatuz gero, ikusten da ama ezkongabeengandik jaiotako haurren ratioa ia bikoiztu egin dela.

I.1.1. GRAFIKOA. JAIOTZA-TASEN BILAKAERA LURRALDE HISTORIKOEN ARABERA ETA AMA EZKONGABEARENDANDIK JAIOTAKOEN EHUNEKOAREN BILAKAERA.



Iturria. EUSTATen eta JAIOTZEN INKESTAKO datuekin eginikoa.

Lurraldeen arabera, Bulgariako, Estoniako eta Esloveniako (% 58 inguru) mailen eta Zipreko (% 16,6) edo Greziako (bizirik jaiotakoen %8,8) mailen artekoak dira EBko ezkondu gabeko emakumeengandik jaiotakoen ehunekoak (2015eko datuak). Batasuneko batez bestekoa %42 zen 2014an (eskuragarri dugun azken datua), eta bertatik kanpo, nabarmentzekoa da Islandiako ratio handia. Bertan, 2012an jaiotakoen %66,9 amak ezkongabeak izan ziren.

Bestalde, EUROSTATen datuen arabera, 2016an guztira 5,1 milioi jaiotza izan ziren EBn (milako 10), 2014an eta 2015ean izandako berdintsuak, 5 urtez behera egin ondoren Jaiotza-tasarik handienak Irlandan (milako 13,5) eta Suedian eta Erresuma Batuan izan dira (milako 11,8 kasu bietan). Tasarik txikiena, aldiz, Portugalen izan da (milako 7,8) eta, bigarren postuan, Italian (milako 8,4). Espainian milako 9,2koa da, arestian esan denez.

Azken urteetan jaiotza-tasa jaisteari mesede egin dion faktoreetako bat, jakina den bezala, amatasuna pixkanaka atzeratu izana da. 2016an joera bera egon da, eta haurrak izan zituzten emakumeen %81,1ek 30 urte edo gehiago zituzten. Talderik ugariena 30 eta 34 urte arteko emakumeei dagokie, jaiotza guztien % 36,7arekin.

Ondoren, 35-39 urteko amek izandako haurren jaiotza kopurua dator (%34,9), eta 25 eta 29 urte arteko taldea (% 13,3) nabarmen gainditzen du. Ama nerabeak guztizkoaren %1,2 dira. Espainiar nazionalitateko amen batez besteko adina 34,1 urtekoa izan zen. Ama atzerritarrena, berriz,

I.1.2. GRAFIKOA. JAIOTZEN BILAKAERA AMAREN ADINAREN ARABERA. EAE



Iturria: EUSTAT. Jaiotzen Estatistika.

[4] *Ama ezkongabeengandiko jaiotza eta ezkontzatik kanpokoen jaiotza izateak ez du esan nahi, ezinbestean bikoterik ez dagoela, bikotea egon baitaiteke ezkontza behar izan gabe eta ezkontzatik at.*

30,8 urtekoa (33,4 emakume guztiak hartuta). Halaber, lehen haurra izan duten amen batez besteko adina, 2016an, 32,5 urtekoa da.

1.1.2. Heriotzak

Heriotzei dagokienez, 2016an 21.223 lagun zendu ziren EAEn, aurreko urtean baino % 1,3 gutxiago; haietatik, % 50 gizonak eta % 50 emakumeak. 2016an izandako heriotzen %29,8 tumoreen ondorioz gertatu ziren. Haien atzean, zirkulazio sistemaren gaitzak datoz, % 27, eta hirugarren tokian, urrunago, arnas eritasunak, % 9,7 orotara[5].

I.1.3. GRAFIKOA. EAE-N HILDAKO PERTSONEN BATEZ BESTEKO ADINAREN BILAKAERA SEXUAREN ARABERA.



Iturria: EUSTAT. Heriotzen Estatistika.

Europar Batasuneko kopuruak direla eta, 2016an 5,13 milioi heriotza izan ziren, hots, aurreko urtean baino 100.000 lagun gutxiago (milako 10,0ko tasa gordinaren ondorioz). Horrenbestez, berezko hazkundea (jaiotzak ken heriotzak) nulua izan zen Europar Batasunean (-15.900 lagun inguru). Lurraldez lurralde, 2.688 lagun hil ziren Araban, 11.759 Bizkaian eta 6.776 Gipuzkoan.

Halaber, EUSTATen Heriotzen Estatistikak hauxe erakutsi du: 2016an heriotza-tasa milako 9,8 zen (milako 9,9, 2015ean). Hildakoen batez besteko adina 80 urtekoa zen EAEn, 76,6 gizonezkoena eta 83,4 emakumezkoena, bizitza luzeagoa izaten baitute emakumeek. Hala, azken hamarkadan gure autonomiako bizi-esperantza gizonentzat 3,9 urte handitu da eta emakumeentzat, berriz, 2,5. Gainera, 2016an EAEn hildako pertsonen 294k 100 urte edo gehiago zituzten, eta horietatik %84,3 emakumezkoak ziren. 100 urte beteta hiltzen diren pertsonen ehunekoa, %1,4, ia bikoiztu egin da azken hamarkadan (gehieneko kopurua 2015ean izan zen, 344 lagun).

1.2. MIGRAZIO-MUGIMENDUAK

1.2.1. Migrazio-mugimenduen estatistika

"Migrazio Mugimenduei buruzko 2016ko Estatistikak"[6] zenbatu zuenez, urte horretan gure erkidegoak 8.871 biztanle irabazi zituen (2015ean izandakoa baino nabarmen handiagoa, orduan 3.362 biztanle gehiago zituelako). Lurraldeen arabera, Bizkaiak 4.320 lagun gehiago ditu, Arabak 1.474 eta Gipuzkoak 3.077.

EAEren eta gainerako autonomia-erkidegoen artean izandako mugimenduei dagokienez, 2016. urtean 1.974 pertsonako saldo positiboa izan zen, hau da, immigrazioak gehiago izan ziren emigrazioak baino. Bestalde, atzerriko herrialdeekiko saldoa negatiboa da (-6.897), atzerrira pertsona gehiago doazelako beste herrialde batzuetatik datozenak baino (iaz 2.415 izan ziren).

[5] *Memoria honetako "Osasuna eta osasun sistema" deritzon V.3 kapituluan, zehazki aztertzen dira euskal biztanleriaren heriotzaren kausak.*
[6] *2000-2014ko seriea, EUSTAT berriz ere zenbatetsita 2016an hainbat iturri erabiliz, gehienbat erroldakoak.*

EAEren eta gainerako autonomia-erkidegoen artean izandako mugimenduei dagokienez, EUSTATen datuek erakusten dute, 90eko hamarkadan jaitsiera handia izan ondoren, nazioarteko migrazio-fluxuen saldo positiboa EBn datu positiboan egonkortu zela 2003tik hona, finkaturiko datuen arabera.

I.1.3. TAULA. MIGRAZIO-SALDOEN BILAKAERA EAE-N

	ATZERRIAR EKIN	ESTATUAREKIN	GUZTIZKO MIGRAZIO-SALDOA / KANPOKOA*			
			EAE	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA
2010	1.439	3.727	**5.166**	1.078	2.153	1.935
2011	1.554	6.638	**8.192**	2.386	3.490	2.316
2012	-5.468	5.241	**-227**	-1.714	-935	2.422
2013	-5.176	3.220	**-1.956**	82	-3.426	1.388
2014	-2.207	5.809	**3.602**	1.326	81	2.195
2015	2.415	947	**3.362**	555	970	1.837
2016	6.897	1.974	**8.871**	1.474	4.320	3.077

(*) Estatuarekiko eta atzerriko herrialdeekiko migrazio-saldoarekin batuketa.
Iturria: EUSTAT. "Migrazio-mugimenduen estatistika".

2016an migrazio saldoa 1,54 milioi lagunekoa (+1,83 milioi aurreko urtean) izan da; migrazio-tasa gordina milako 3koa izan da 28-EBrako eta milako 3,5ekoa eurogunerako. Saldo positiboaren %50,3 Alemaniari dagokio, eta %16,1 Erresuma Batuari. Bestalde, Batasuneko zortzi herrik (Bulgaria, Grezia, Kroazia, Lituania, Letonia, Hungaria, Portugal eta Errumania) migrazio-saldo negatiboak dauzkate.

Bestalde, 2016. urtean, 217.064 lagunek - aurreko urteko datu bertsua- bizileku aldaketaren bat egin zuten EAEn (EAEko biztanleen %9,9k); aipaturiko mugikortasun horren %44,4 udal beraren barruan izan zen (96.478 joan-etorri guztira). Erkidego barneko mugikortasunak (jatorria eta helmuga EAEko udalerrien artean) 49.205 mugimendu gehiago dakartza. Gainontzekoetan, 40.126 mugimendu kanpoko immigrazioari dagozkio (jatorria erkidegotik kanpo eta helmuga EAEn, horietatik 19.060 atzerrikoak dira) eta 31.255 kanpoko emigrazioari (jatorria EAEn eta helmuga hortik kanpora), eta haietatik 12.163k helmuga atzerrian dute (+%1,4 2015earen aldean).

I.1.4 GRAFIKOA. EAE-KO MIGRAZIO-SALDOEN BILAKAERA



Iturria. EUSTAT. Migrazio-mugimenduen Estatistika.

2016an EAEko mila biztanletik 33ri eragin zien kanpoko edo erkidegoaz kanpoko mugikortasun geografikoak (Araban milako 38,2ri, Bizkaian milako 31,7ri eta Gipuzkoan milako 32,2ri). Tasa horiek baxu samarrak dira gainerako autonomia erkidegoekin alderatuz gero, batez beste mila biztanleko 37 ingurukoak baitira. Estatu Autonomia Erkidego guztiek, Kataluniak, Madrilek, Errioxak, Nafarroak eta U. Balearrek izan ezik, biztanle gehiago ematen diote EAEri handik jasotzen dutena baino; EAEko migratzaileentzat erakarpen-gune diren erkidegoak, berriz, hauexek dira ordena honen arabera Madril, Gaztela eta Leon, Katalunia, Kantabria, Andaluzia eta Nafarroa. Sei erkidego horien artean, EAE uzten duten pertsonen %40 jasotzen dute.

Bestalde, atzerriko nazionalitateko pertsonen immigrazioak, 2016an, 22.351 pertsona bildu zituen, 2015ean baino 3.641 gehiago. Horietatik 6.602 beste erkidego batzuetakoak dira, eta 15.749 atzerritik datoz zuzenean. Atzerritarren emigrazioak, berriz, 13.681 izan ziren 2016an, 2015ean baino 59 gehiago.

Azkenik, Migrazio Mugimenduen Estatistikak agerian uzten duenez, etorkinen eta migratzaileen batez besteko adina desberdina da (33,3 eta 36,1 urte hurrenez hurren), baina kasu bietan 21-40 urtekoek migrazioen erdia egiten dute, eta mugimenduak egiten dituztenen generoa kontuan hartuz gero, etorkinen %51 gizonak dira (%49 emakumeak). Emigrazioetan, sexuen arteko alde handiagoa da: %54 gizonak eta %46 emakumeak.

I.1.5. GRAFIKOA. EAE-KO MIGRAZIO-SALDOEN BILAKAERA IKASKETA MAILAREN ARABERA (5 URTETIK GORAKOAK)



Iturria: EUSTAT. Emigrazio-mugimenduen Estatistika. Datu-bankua

Migratzaileen titulazioari dagokionez, EUSTATen estatistikak erakusten duenez, EAEko migrazio-saldoa 2016an positiboa izan zen (hots, Erkidegorako etorkin gehiago etorri zirela emigratzen zutenak baino epealdi horretan) oinarrizko mailetan, lanbide heziketan (LHko maila guztiak), bigarren hezkuntzan eta erdiko/goiko hezkuntzan (diplomaturak, ingeniaritza teknikoak, irakasle-ikasketak, erizaintza eta maila bereko beste batzuk), eta negatiboa goi-mailako titulazioetan (graduak, lizentziaturak, graduatu ondokoak, masterrak, doktoretzak eta espezializazioa).

I.1.5. grafikoan ageri denez, migrazio-mugimenduen zati handi bat, kontsideraturiko seriean, oinarrizko ikasketak dituzten pertsonei dagokie nagusiki (beteak edo bete gabeak) eta, gainera, bilakaera markatzen duen lerroa oso aldakorra izan, ziklo ekonomikoaren araberakoa: saldo positibo handiak krisiaren aurreko urteetan eta jaitsiera handiak gure ekonomiaren daturik okerrenak izan ziren urteetan. Saldo positiboetara itzuli da azken hiru urtean, migrazio-mugimenduen joera orokorrarekin bat, migrazioen multzorako emaitzetan ageri den legez.

I.1.4. TAULA. GOI MAILAKO TITULAZIOA DUTEN PERTSONEN MIGRAZIO-MUGIMENDUEN BILAKAERA ETA 5 URTETIK GORAKO BIZTANLE GUZTIEKIKO ERKAKETA. EAE.

	GOI-MAILAKO IKASKETAK DITUZTENAK			5 URTETIK GORAKOAK		
	IMMIGRAZIOA	EMIGRAZIOA	SALDOA	IMMIGRAZ.	EMIGRAZ.	SALDOA
2008	3.498	2.163	1.335	42.317	28.456	13.861
2009	2.817	2.249	568	36.221	30.482	5.739
2010	2.814	1.963	851	36.345	32.091	4.254
2011	1.655	1.211	444	38.513	31.405	7.108
2012	5.463	3.930	1.533	32.358	33.080	-722
2013	3.736	3.886	-150	31.765	34.031	-2.266
2014	4.086	4.213	-127	33.101	30.384	2.717
2015	3.772	4.677	-905	33.655	31.178	2.477
2016	3.793	4.288	-495	37.650	29.722	7.928
2008-16	31.634	28.580	3.054	321.925	280.829	41.096
2013-16	15.387	17.064	-1.677	136.171	125.315	10.856

Iturria: EUSTAT. "Migrazio-mugimenduen estatistikak". Geuk egina.

2016an, 5 urtetik gorako pertsonen migrazio saldoa +7.928 lagunekoa da, eta horietatik 3.747k oinarrizko ikasketak zituzten, 3.539k bigarren mailakoak eta gainerakoek lanbide edo unibertsitateko ikasketak.

Azken kopuruei dagokienez, goi-mailako titulazioek dute bakarrik saldo negatiboa, -495 lagunekoa (+181 maila ertainetan edota goi-mailakoetan). Azken urtean, goi-mailako titulazioa dutenen 4.288 emigrazio izan ziren (5 urtetik gorako emigrazioen %14,4) eta 3.793 immigrazio (guztizkoaren %10,1). Hortaz, -495 laguneko saldoa dago; migrazio-saldoa, berriz, positiboa da, hain zuzen ere +7.928.

Goi mailako titulazioetan saldo positiboak izan dituzte betidanik, baina beste ikasketa mailak baino txikiagoak dira. Hala ere, lau urtez jarraian datu negatiboak izan dituzte (irteera gehiago sarrerak baino), halako moldez non 2013-2016 aldian gure Erkidegoak goi-mailako ikasketak dituzten 1.677 pertsona galdu baititu. 2008-2016 aldia kontsideratuz gero, aldiz, +3.054ko saldo metatua da, guztizko igoeraren %7,4

1.3. EZKONTZAK

1.3.1. Ezkontzak

Ezkontzen Estatistika", Jaiotzenarekin eta Heriotzenarekin batera, Biztanleriaren Mugimendu Naturala da. EUSTATen arabera, 2016. urtean EAEn 78.028 ezkontza izan ziren, 2015ean baino %1,9 gehiago. Haien artetik 7.848 sexu diferenteko pertsonen artean izan ziren (114 ezkontza gehiago eta %1,5eko igoera) eta 180 sexu bereko pertsonen artean (+%23,3). Emakumeen artean 101 izan ziren, eta 79 gizonen artean Hots, %23,3ko igoera aurreko urtearen aldean.

Bestalde, azken urteetan ezkontza zibiletan izandako igoera handia nabarmendu behar da; izan ere, 1990ean %23 izatetik 2016an %80,9ra izatera igaro da. Lurraldez lurralde, Bizkaian izan zuten ezkontza zibilek pisurik handiena (%84), ondoren Gipuzkoan (%81,3) eta Araban (%79). Guztira, EAEn 2016an 6.346 elkartze zibil egon dira, 1.491 ezkontza katoliko eta beste erlijio batzuetakoak, berriz, 11 izan dira.

Gainera, nabarmentzekoa da ezkontzeko adina atzeratzeko joerak dirauela. Izan ere, erreferentziako urtean, ezkondu ziren gizonezko ezkongabeen batez besteko adina 36,7 urte zen, eta emakumezkoena, berriz, 34,6. Azken 25 urteetan, senarren batez besteko adina 7,6 urtetan igo da, eta emazteenak 7,7. Eta, ezkontza aurretiko egoera zibila kontuan izanik, gizon ezkongabeak %86,5 izan ziren, emakume ezkongabeen proportzio bera.

I.1.5. TAULA. EZKONTZAK EUROPAR BATASUNEAN. ADIERAZLEAK 1.000 BIZTANLEKO.

	EZKONTZAK		DIBORTZIOAK	
	2014	2015	2014	2015
27-EB	4,2*	:	1,9**	:
ALEMANIA	4,8	4,9	2,1	2,0
AUSTRIA	4,3	:	1,9	1,9
BELGIKA	3,6	3,6	2,2	2,2
BULGARIA	3,4	3,9	1,5	1,5
ZIPRE	6,3	7,2	2,2	2,1
DANIMARKA	5,0	5,1	3,4	2,9
ESLOVAKIA	4,9	5,3	1,9	1,8
ESLOVENIA	3,2	3,1	1,2	1,2
ESPAINIA	3,4	3,6	2,2	2,1
ESTONIA	4,7	5,2	2,4	2,6
FINLANDIA	4,5	4,5	2,5	2,5
FRANTZIA	3,7*	:	1,9	1,9
GREZIA	4,9	5,0	1,3	:
KROAZIA	4,6	4,7	1,4	1,4
HERBEHEREAK	3,9	3,8	2,1	2,0
HUNGARIA	3,9	4,7	2,0	2,1
IRLANDA	4,8	4,8	0,6**	:
ITALIA	3,1	3,2	0,9	1,4
LETONIA	6,3	6,9	3,1	2,6
LITUANIA	7,6	7,6	3,3	3,2
LUXENBURGO	3,0	3,6	2,6	2,4
MALTA	6,7	7,0	0,8	0,9
POLONIA	5,0	5,0	1,7	1,8
PORTUGAL	3,0	3,1	2,1	2,3
ERRESUMA BATUA	4,3	:	1,9	1,7
TXEK. ERREP.	4,3	4,6	2,5	2,5
ERRUMANIA	5,9	6,3	1,4	1,6
SUEDIA	5,5	5,5	2,7	2,5
EAE	**3,4**	**3,3**	**1,9**	**1,9**

Iturriak: EUROSTAT, EUSTAT eta EIN.
**2011ko datuak.*
*** 2013ko datuak.*

EAEko ezkontzen tasa, 2016an, 3,4koa da 1.000 biztanleko (3,3 2015ean), Estatukoa baino txikiagoa (3,7 2015ean), eta Europar Batasuneko batez bestekoa baino txikiagoa; izan ere, milako 4,2koa zen 2011n. Hona hemen ezkontza tasa handiena duten Europako herrialdeak, 2015erako behin-behineko datuekin: Lituania (7,6), Zipre (7,2) eta Letonia (6,9). Ratiorik txikienekoak, berriz, hauexetan: Portugalen eta Eslovenian (3,1 ezkontza 1.000 biztanleko) eta Italia (3,2 1.000 biztanleko).

I.1.6 GRAFIKOA. EAE-KO EZKONTZA ZIBILEN PORTZENTAJEAREN BILAKAERA



Iturria: EUSTAT. Ezkontzen Estatistika

1.3.2. Ezkontza desegiteak

EINen "Baliogabetzeen, banantzeen eta dibortzioen estatistika"[7] delakoak dibortzioen eta banantzeen igoera erakusten du, bai gure erkidegoan, bai estatuan. Zehazki, 2016an EAEn 3.863 dibortzio eta 144 banantze gertatu ziren. Baliogabetzeen urteko kopurua 5 ingurukoa zen batez beste informazioa dugunetik, eta 0 izan da 2016an.

Guztira, erreferentziako urtean 4.007 ezkontza desegin ziren, 2015ean baino %0,6 gehiago (Estatuan %0,3ko igoera izan da), hots, 1,9 desegite mila biztanleko. Estatuko batez bestekoa, berriz, 2,2 da milako. Desegite tasarik handiena izan duten autonomia erkidegoak Ceuta (2,7 milako), Valentziako Erkidegoa eta Katalunia (2,5 milako bietan) dira. Haustura tasarik txikienak, berriz, Gaztela eta Leonen eta Extremaduran daude (1,7 desegite mila biztanleko).

Nazioarteko konparazioa eginez, dibortzioen tasa gordina azken urteetan milako biaren ingurukoa da Europar Batasunean, baina maila ezberdinak daude: 0,6 milako Irlandan, 0,9 Maltan, eta 3,2 milako Lituanian eta 2,9 milako Danimarkan (EUROSTATen azken datuak, 2015. urtekoak).

2006tik aldaketa antzematen da desegite horien osaeran Estatuan oro har, eta nabarmen gure Erkidegoan. Izan ere, dibortzioen kopurua handitu eta banantzeena, berriz, jaitsi egin da, Kode Zibila eta Auziperatze Zibila banantzeen eta dibortzioen arloan aldatu dituen uztailaren 8ko 15/2005 Estatuko Legearen ondorioz. Arau horri esker, aurretik banandu barik lor daiteke dibortzioa. Autonomia erkidegoak erkatuta ikusten denez, legea aldatu aurretik zein ondoren EAE maila txikietan dago, erregistro gutxien izandako hirugarren erkidegoa izan baitzen.

I.17. GRAFIKOA. EZKONTZA-DESEGITEAK EAE-N. BANANTZEEN ETA DESEGITEEN BILAKAERA



Iturria: EIN. Baliogabetzeen, Banantzeen eta Dibortzioen estatistika.
(*) Elizako baliogabetzeak sartzen dira guztizko desegiteen barruan

EAEn banantzen edo dibortziatzen diren pertsonen profilari dagokionez, EINen datuek erakusten dute gehienak 40 eta 49 urte bitartekoak direla gizonezkoetan eta 30 eta 39 urte artekoa emakumezkoetan, eta emakumeen batez besteko adina 44,4 urtekoa izan zen. Gizonena, berriz, 44,3 urtekoa. Gainera, desegindako ezkontzen batez besteko iraupena 16,3 urtekoa da, eta kasuen %57an ezkontideek haurrak izan dituzte. Kasuen %47,2an, adingabeak dira.

[7] *Ezkontzen, banantzeen eta dibortzioen estatistika" Lehen Instantziako, Instrukzioko eta Emakumeenganako Indarkeriako Epaitegiek ezkontza-lotura desegiteko prozesuei buruz emandako informazioa oinarri hartuta egin da.*

2. IMMIGRAZIOA EAE-N

2.1. TESTUINGURUA: IMMIGRAZIOA EUROPAR BATASUNEAN

Nazioarteko migrazioak nazioarteko agenda politikoen gai erabakigarrienetakoa izatera pasatu dira epe laburrean. Gizartearen eta ekonomia orokorraren gaur egungo garaiaren ezaugarrietako bat dira.

Aurreko atalean ikusi dugunez, Europar Batasuneko biztanleria nabarmen hazi da azken urteetan (+1,5 milioi 2016an, milako 3), gehienbat immigrazioagatik; izan ere, horren ratio garbia, 2016an, berezko hazkundea (jaiotzak ken heriotzak) zero izan da. Migrazio-saldoa, berriz, positiboa izan da (milako 3). Hortaz, migrazio-mugimenduek, beste urte batez, funtsezko eragina dute Europar Batasuneko herrialdeetako biztanleen dinamikan.

I.2.1. GRAFIKOA. EB-KO HAZKUNDE DEMOGRAFIKOAREN BILAKAERA OSAGAIEN ARABERA. RATIOAK 1.000 BIZTANLEKO



Iturria: EUROSTAT.

2016ko urtarrilean, 34,3 milioi atzerritar bizi ziren 28ko EBn, biztanleriaren %6,7, gehi bizilekukoa ez den EBko beste herrialde batean jaiotako 18,5 milioi lagun. Horrez gain, EBtik kanpora jaiotako 34,3 milioi horietatik, 19,9 milioik (EBtik kanpora jaiotakoen %57,7) EBkoa ez den herrialde bateko herritartasuna zuen, eta 14,5 milioik (%42,3) erkidegoko herritartasuna eskuratu zuten. Hortaz, nazionalizazioen proportzio handiaren ondorioz, gero eta beharrezkoagoa da jaioterria aintzat hartzea etorkinen taldea aztertzerakoan, eta ez pertsona horien nazionalitatea (ikusi kapitulu honetako 2. orri-oina).

EUROSTATeko datuen arabera, EBn bizi diren atzerritarren %73,5 baino gehiago Alemanian, Espainian, Erresuma Batuan, Frantzian eta Italian bizi dira. EBko populazioaren %63 biltzen dute bost herrialde horiek.

EAEn ere fenomeno hori gertatu da, eta hazi egin da kultura-aniztasunaren aldetik, biztanle-talde berriak geroz eta gehiago sartzen ari baitira. Hurbileko gizarteetako mailak oraindik gainditu ez badira ere, EAEko atzerritarren immigrazioa nabarmen hazi da azken urteetan, eta aniztasun handia ekarri du horrek. Berez, ekonomiarena eta gizartearen epe luzerako joerak aldatu ditu epe laburrean gertatutako immigrazio jendetsuak: biztanleria zahartzeko joera geldiarazi ditu, belaunaldien berriztatzea erraztu eta gizartearen jokaera berriak sartu dira.

2.2. MIGRAZIOAK EAE-REN DINAMIKA DEMOGRAFIKOAN DUEN ERAGINA

Udal-erroldaren datuei jarraiki, 2017an Euskal Autonomia Erkidegoan egoitza duen atzerriko biztanleria 195.969 zen, eta hirugarren urtez jarraian handitu da, 7.373 pertsona gehiago (+%3,9), 2013-2014 bi urtekoan atzerakada txikia izan ostean eta 90eko hamarkadaren amaieran hasitako mugimendu handiaren ondoren.

Bizkaian bizi dira atzerritar gehien (95.146, guztizkoaren %48,6), 2016an baino %3,8 gehiago, eta ondoren Gipuzkoa dator 65.360 erroldaturekin (+%3,7) eta Araban 35.463 (+%4,6). Hortaz, atzerriko jatorriko biztanleen igoera gertatu da hiru lurraldeetan.

2005etik 2012ra bitartean, Euskal Autonomia Erkidegoan erroldatutako atzerriko biztanleak bikoiztu ziren eta urteko igoerarik handiena 2008. urtean izan zen, urte horretan erroldatutako atzerriko biztanleria 20.000 pertsonan hazi baitzen (ikusi 1.2.2. grafikoa). Krisiaren ondorioz 2013-2014 bi urtekoan jaitsiera izan ondoren, azken hiru urteen ezaugarri nagusia, beraz, talde horren igoera txikia izan da, baina ez da izan krisiaren aurreko oparoaldi ekonomikokoa bezain handia.

2017ko urtarrilean erroldatuta zeuden atzerriko jatorriko 195.969 pertsonak biztanleriaren %8,9 dira, 2016an baino hiru hamarren gehiago. Estatuan, berriz, %13,2ko ratioa zegoen 2017an, eta egonkor eutsi dio azken hiru urtekoan.

Eusko Jaurlaritzaren Immigrazioaren Euskal Behatokiak (Ikuspegi) egiten duen erroldako datuen aurrerapenari buruzko azterketan ageri denez (2017ko maiatzaren 65 zk.ko Aldizkarian), Euskadi izan da, 2017an, atzerriko biztanleen igoerarik handiena izan duena (+%3,9), eta ondoren Katalunia eta Nafarroa (+%2,8 eta +%2,5 hurrenez hurren). Estatuko batez bestekoa, berriz, %0,6ko igoera da. Hala ere, atzerriko biztanleen pisu erlatibo txikiena duten erkidegoen taldekoa da oraindik ere EAE.

I.1.2. GRAFIKOA. ATZERRIKO BIZTANLEEN GUZTIZKO URTE ARTEKO HAZKUNDEA EAE-N. 1999-2017



Iturria. IKUSPEGI, EINen datuekin

I..2.3. GRAFIKOA. ATZERRITAR JATORRIKO BIZTANLEEN EHUNEKOAREN BILAKAERA ESTATUAN ETA EAE-N.



Iturria: IKUSPEGI, EINen datuekin

I.2.4. GRAFIKOA. ATZERRIKO BIZTANLEEN EHUNEKOA GUZTIZKO BIZTANLERIAREKIKO, AUTOMOMIA ERKIDEGOEN ARABERA. 2016-2017



Iturria. IKUSPEGI, EINen datuekin

Immigrazioak gure erkidegoko dinamika demografikoan duen eragina ere aintzat hartu beharrekoa da: 1998 eta 2017 bitartean, 94.577 biztanle gehiago izan dira, eta hazkunde hori gertatu da atzerritarrak iritsi izanagatik. Izan ere, epealdi berean 26.334 erroldatu izatetik 195.969 izatera igaro dira atzerritarrak (+169.635). Epealdi berean, ordea, murriztu egin da biztanleria autoktonoa, 75.058 lagun gutxiago. Hortaz, Euskadin izandako biztanleriaren galerako dinamika iraultzea lortu du atzerritar jatorriko biztanleriak.

I.2.1. TAULA. BIZTANLERIAREN BILAKAERA EAE-N 1998-2017 ALDIAN: BIZTANLERIA AUTOKTONOA ETA ATZERRIKOA. URTEKO ALDAKUNTZA TASAK.

	GUZT. BIZT.	BIZT. AUTOKTONOAK		ATZERRIKO BIZT.		
		ABS.	% ALDAK.	ABS.	% ALDAK.	GUZT. BIZT. %
1998	2.098.628	2.072.294	-	26.334	-	1,3
1999	2.100.441	2.071.418	0,0	29.023	10,2	1,4
2000	2.098.596	2.063.453	-0,4	35.143	21,1	1,7
2001	2.101.478	2.057.655	-0,3	43.823	24,7	2,1
2002	2.108.281	2.052.413	-0,3	55.868	27,5	2,6
2003	2.112.204	2.044.675	-0,4	67.529	20,9	3,2
2004	2.115.279	2.037.073	-0,4	78.206	15,8	3,7
2005	2.124.846	2.030.818	-0,3	94.028	20,2	4,4
2006	2.133.684	2.025.590	-0,3	108.094	15,0	5,1
2007	2.141.860	2.019.664	-0,3	122.196	13,0	5,7
2008	2.157.112	2.014.628	-0,2	142.484	16,6	6,6
2009	2.172.175	2.012.538	-0,1	159.637	12,0	7,3
2010	2.178.339	2.010.957	-0,1	167.382	4,9	7,7
2011	2.184.606	2.009.567	-0,1	175.039	4,6	8,0
2012	2.193.093	2.009.321	0,0	183.772	5,0	8,4
2013	2.191.682	2.008.399	0,0	183.283	-0,3	8,4
2014	2.188.985	2.007.268	-0,1	181.717	-0,9	8,3
2015	2.189.257	2.005.060	-0,1	184.197	1,4	8,4
2016	2.189.534	2.000.938	-0,2	188.596	2,4	8,6
2017	2.193.205	1.997.236	-0,2	195.969	3,9	8,9
Ald., guzt.	**94.577**	**-75.058**	**-3.6**	**169.635**	**644,2**	-

Iturria: IKUSPEGI, EINen datuekin egina.

EAEko atzerritarrak ia erdi bana daude banatuta sexuaren arabera: % 47,7 gizonezkoak dira eta % 52,3 emakumezkoak, baina aldeak daude lurraldeen artean: Bizkaian handiagoa da emakumeen presentzia (%53,2). Araban, berriz, oreka dago bi sexuen artean, %50ean. Aldea dago sexuen artean, Bizkaian Latinoamerikako biztanleak direlako nagusi (emakumeak gehienak). Araban, berriz, afrikar gehiago dago, eta horien artean, gizonak dira nagusi.

Atzerritar jatorriko biztanleria eta atzerriko nazionalitateko biztanleria erkatuta ikusten denez, atzerriko nazionalitatekoa txikiagoa da atzerrian jaiotakoa baino, eta neurri handi batean, azken urteetan izandako nazionalizazioengatik gertatu da. Gaur egun, bi taldeen arteko aldea 53.000 pertsonatik gorakoa da, eta atzerriko nazionalitateko biztanleak atzerritar jatorriko pertsonen %72,7 dira: 2017ko urtarrilean 142.392 pertsona ziren.

I.2.5. GRAFIKOA. ATZERRITARRAK EAE-N. ATZERRIKO NAZIONALITATEA DUTEN PERTSONEN ETA ATZERRIAN JAIOTAKOEN ARTEKO ERLAZIOA. PORTZENTAJEA



Fuente: IKUSPEGI con datos de INE.

Bestalde, etorkinen jatorriko eskualdearen eta nazionalitatearen bilakaeraren azterketak erakusten duenez, horien osaera aldatuz joan da, baina ildo argiari eusten dio: gehienak orain ere Latinoamerikakoak dira (%46,7), eta ondoren EBko beste herrialde batzuetakoak (%19,5), pisua galduz joan direnak hain zuzen ere. Bestalde, jatorri afrikarren presentziak gora egin du 2003tik hona; hala, Magrebeko kasua nabarmentzen da (gaur egun %14). Asiar jatorriko biztanleei dagokienez, presentzia txikia bada ere, gora egin du pixka bat.

Herrialdeka, 2017an, lehenengo hamar garrantzitsuenen artean sei Latinoamerikakoak dira (Kolonbia, Bolivia, Ekuador, Nikaragua, Brasil eta Paraguai), hiru komunitarioak (Errumania, Portugal eta Frantzia), bat afrikarra (Maroko). Hamar jatorrien batura atzerritar jatorriko biztanleriaren %54,5 bada ere, 2008ra atzera eginez gero, pilaketa hori handiagoa zela ikusiko dugu, eta horrek jatorriko herrialde desberdinen presentzia handiagoa eta dibertsifikazioa erakusten ditu, gaur egun, EAEn bizi diren atzerritarren taldeen osaeran.

I.2.6. GRAFIKOA. ATZERRITAR JATORRIKO BIZTANLEEN JATORRIAREN EREMU NAGUSIEN PISUAREN BILAKAERA EAE-N, GUZTIZKOAREKIKO PORTZENTAJEAN



Iturria: EINen datuekin eginikoa

Gaur egun, eta 2014. urteaz gero, marokoarra da atzerriko nazionalitate nagusia EAEn, 21.345 erroldatu 2017an, hots, atzerriko jatorriko pertsona guztien %10,9 EAEn. Bigarren nazionalitatea Kolonbiakoa da, guztizkoaren %9,3.

I.2.7. GRAFIKOA. EAE-N BIZI DIREN ATZERRITARREN HAMAR JAIOTERRI NAGUSIEN BILAKAERA. 2007-2017



Iturria: IKUSPEGI, EINen datuekin.

Interesgarria da ikustea zelako bilakaera izan den hamar nazionalitaterik garrantzitsuenen presentzian 2007 eta 2017 bitartean: epealdi horretan gehien hazi diren jatorriak latinoamerikarrak izan dira –Nikaragua eta Paraguai- eta afrikar bat –Maroko-,. Bi europarrek (Portugal eta Frantzia), berriz, biztanleak galdu dituzte kontsideratuko aldian. Krisialdian (2009tik hasita), bereziki nabarmentzekoa da Nikaraguako jatorriko biztanleen igoera, eta 10 horietatik 8 emakumezkoak dira.

2.3. BIZIKIDETZA. 2017KO BAROMETROA

Ikuspegiren 2017ko urriko Barometroaren arabera, euskaldunentzat immigrazioa ez da arazo. %2,4k besterik ez du esaten bat-batean EAEko lehen arazoa denik (%5,2k 2016an), eta aipamenen guztizkoa, berriz, %12,6 da (%12,3 2016an). Norbera ukitzen duten arazoen artean, hona hemen gehien aipatzen diren arazoak: langabezia (%48,5) eta arazo ekonomikoak (%34,9), eta immigrazioa arazo nagusia da soilik inkestaturiko pertsonen %1,2arentzat (%5,2arentzat aipamen guztiak aintzat hartuz gero, gehienez hiru erantzun emanda).

I.2.8. GRAFIKOA. IMMIGRAZIOA HIRU ARAZO NAGUSIETAKO BAT DA. BAIEZKO ERANTZUNAREN PORTZENTAJEA. EAE.

Iturria. IKUSPEGI, 2017ko Barometroa

Enpleguari dagokionez, immigrazioak lan-merkatuan betetzen duen eginkizunari buruzko ikuspegi funtzionala eta utilitarista nabarmen jaitsi da krisiaren ondorioz: 2004an %80k uste zuen etorkinak behar genituela zenbait sektoretan lan egiteko. 2014an, berriz, %30,5ek uste du hala. Gorabehera txikiak izanda, ordea, 2015etik hasita badirudi gora egin duela berriz ere ikuspegi utilitarista horrek, 2017an %41,4an kokatu baita.

I.2.9. GRAFIKOA. IMMIGRAZIOA BEHARREZKOA DELA DIOTENEN PORTZENTAJEA, EGINIKO ADIERAZPENEN ARABERA



Iturria. IKUSPEGI, 2017ko Barometroa

Antzeko zerbait gertatu da baieztapen honekin: ekonomia hobeto dabil, migratzaileek betetzen dituztelako biztanle autoktonoek nahi ez dituzten lanpostuak. 2014an, %32,8 ados zegoen baieztapen horrekin (kontsideraturiko serie osoko ratiorik txikiena), eta 2017an %45,9raino igo da ehuneko hori.

Halaber, atzerritarrek osasun-laguntza eskuratzearen aldeko joera handia erakusten du euskal biztanleriak 2017an, 2016ko antzeko parametroetan (% 74, -4 puntu aurreko urtearen aldean), baita seme-alabek hezkuntza izatearen aldekoa ere (%75,8, +3,3 puntu). Alabaina, ia eskubide unibertsaltzat hartzen diren bi zerbitzu horietan izan ezik, euskal biztanle gehienek uste dute, aurreko urteetan bezala, egoera erregularizatuarekin lotuta egon behar duela gainerako eskubideak eskuratzeak. Ratioa %47,8koa da laguntza juridikoari dagokionez, %58,7 familia berriz batzeko, %62,6, boto eskubidea emateko eta %59,8 gizarte laguntzetan.

1.2.10 GRAFIKOA. ESKUBIDE HAUEK ESKURATU BEHARKO LITUZKETE ETORKINEK?



Iturria. IKUSPEGI, 2017ko Barometroa

Eta azkenik, immigrazio politikei dagokienez, euskal biztanleen %18,3k uste du 2017an ezin jar dakiokeela lege eragozpenik migratzaileak sartzeari (%19,2k 2016an), eta bitarteko guztiak jarrita sarrera hori galaraztearen aldekoa da %4,4 (%4,3 2016an). Gehienek uste dute, %43,4k, sartzen utzi behar zaiela lan-kontratua izatearen trukean (%45,3 2016an). %28, berriz, sartzearen aldekoa da, baina legezko beste beharkizun batzuk betetzen badituzte (familia berriz batzea, ikasleak, errefuxiatuak…) (%23,8 2016an).

I.2.11. GRAFIKOA. IMMIGRAZIO POLITIA EGOKIAGOA EUSKAL HERRITARREN ARABERA, 2017



Iturria. IKUSPEGI, 2017ko Barometroa

Halaber, esan beharra dago euskal gizarteak oraindik ere lana eta langile atzerritarrak lotzen dituela, halako moldez non enplegua dutenak (bizileku-baimena ematea) erregularizatzekoaren aldekoa baita (inkestaturiko pertsonen %42,7k uste du hala).

Azkenik, urteko inkestan bildutako datuak oinarri hartuta euskal biztanleriak immigrazioarekiko duen "*tolerantzia-indizea*" lantzen du , IKUSPEGIK. 2017ko Barometroak 2016koa baino pixka bat handiagoa duen indizea eman du (58,48 puntu aurreko urtean, berriz, 59,04), baina azken urteetan konfiantza berreskuratzeko joeraren ildotik; izan ere, serie historikoko handienetakoa da.

I.2.12. GRAFIKOA. IMMIGRAZIOAREKIKO TOLERANTZIA-INDIZEAREN BILAKAERA EAE-N

Iturria. IKUSPEGI, 2017ko Barometroa

KAPITULUKO ITURRIAK:

1. EIN: Biztanleen Udal Errolda. 2017ko urtarrileko datuak. Urterokoa. Koiunturala.

2. EUSTAT: Jaiotzen Estatistika. 2016. Urterokoa. Koiunturala.

3. EUSTAT: Heriotzen Estatistika. 2016. Urterokoa. Koiunturala.

4. EUROSTAT: Demografia estatisktika. 2016. Urterokoa. Koiunturala.

5. EUSTAT: Migrazio-mugimenduen estatistika. 2016. Urterokoa. Koiunturala.

6. EUSTAT: Ezkontzen estatistika. 2016. Urterokoa. Koiunturala.

7. EIN. Ezkontzen, banantzeen eta dibortzioen estatistika. 2016. Urterokoa. Koiunturala.

8. IKUSPEGI. Atzerriko biztanleriari buruzko azterketa. EINren mikrodatuekin eginikoa. 2017. Urterokoa. Koiunturala.

9. IKUSPEGI. 2017ko Barometroa, Aurrerapena. Geure inkesta. Urterokoa. Koiunturala.

3. LABURPENA ETA GOGOETAK

3.1. LABURPENA

EAEn, Biztanleen Udal Erroldak emandako 2017ko urtarrileko azken datuen arabera, EAEko biztanleriak pixka bat gora egin du azken urtean, %0,2, eta 2.193,205 biztanle ditu (+%0,2 2016aren aldean), hots, aurreko urtean baino 3.671 gehiago. Lurralde Historikoei dagozkien datuen arabera, biztanleria hazi egin da Gipuzkoan (1.351 biztanle gehiago, +%0,9) eta Araban (+%0,7, 2.247 biztanle gehiago); Bizkaian, berriz, berdintsu eusten zaio (73 biztanle gehiago).

Bestalde, EUROSTATEN zenbatespenen arabera, Europar Batasunean 511,8 milioi biztanle daude, 2017ko urtarrileko datuen arabera, hain zuzen ere 2016ko urtarrilean baino 1,5 milioi gehiago. Milako 3ko hazkunde horri esker -milako 3,5ekoa izan zen aurreko urtean-, beste urte batez eutsi ahal izan zaio 1960tik gertatu izan den etengabeko hazkunderako joerari, egungo Batasunaren populazioa 400 milioi biztanlekoa zenetik. Bilakaera positibo hori berriro ere immigrazioaren portaeraren ondorioa izan da; izan ere, berezko hazkundea (jaiotza eta heriotzen arteko aldea) zero da, aurreko urtean Batasunean positiboa izan ondoren.

Euskal Autonomia Erkidegoan 2016ko behin-behineko datuek berezko hazkunde negatiboa erakusten dute (jaiotza eta heriotzen arteko aldea), saldo positiboak izan ziren 9 urteren ondoren: urte horretan 18.240 jaiotza gertatu dira, aurreko urtean baino % 3,2 gutxiago, eta 21.223 heriotza, 2015ean baino % 1,3 gutxiago. Horren ondorioz, berezko hazkundea -2.983 izan da, hots, milako -1,4koa. 2016ko saldoa negatiboa da, beraz, jaiotzek gora begin arren heriotzen igoera handiagoa baita.

“Migrazio Mugimenduei buruzko 2016ko Estatistikak” zenbatu zuenez, urte horretan gure erkidegoak 8.871 biztanle irabazi zituen (2015ean izandakoa baino nabarmen handiagoa, orduan 3.362 biztanle gehiago zituelako). Lurraldeen arabera, Bizkaiak 4.320 lagun gehiago ditu, Arabak 1.474 eta Gipuzkoak 3.077.

Gainera, saldo positiboa da (hots, gure Erkidegoan etorkin gehiago erregistratu dira aldi berean emigratzen dutenak baino) oinarrizko maila guztietan, lanbide heziketan, bigarren hezkuntza eta maila ertainean/goi-mailan, eta negatiboak dira soilik goi mailako titulazioetan.

2016an, 5 urtetik gorako pertsonen migrazio saldoa +7.928 lagun da, eta horietatik 3.747k oinarrizko ikasketak zituzten, 3.539k bigarren mailakoak eta gainerakoek lanbide edo unibertsitateko ikasketak. Azken kopuruei dagokienez, goi-mailako titulazioek dute bakarrik saldo negatiboa, -495 lagunekoa (+181 maila ertainean edota goi-mailakoan). Azken urtean, goi-mailako titulazioa dutenen 4.288 emigrazio izan ziren (5 urtetik gorako emigrazioen %14,4) eta 3.793 immigrazio (guztizkoaren %10,1). Hortaz, -495 laguneko saldoa dago; migrazio-saldoa, berriz, positiboa da. Goi-mailako titulazioetan saldo positiboak izan dira betidanik, baina beste ikasketa maila baino txikiagoak dira. Hala ere, lau urtez jarraian datu negatiboak izan dituzte (irteera gehiago sarrerak baino), halako moldez non 2013-2016 aldian gure Erkidegoak goi mailako ikasketak dituzten 1.677 pertsona galdu baititu.

Bestalde, Udal-erroldaren datuei jarraiki, 2017an Euskal Autonomia Erkidegoan egoitza duen atzerriko biztanleria 195.969 zen, eta hirugarren urtez jarraian handitu da, 7.373 pertsona gehiago (+%3,9), 2013-2014 bi urtekoan atzerakada txikia izan ostean eta 90eko hamarkadaren amaieran hasitako mugimendu handiaren ondoren. 2017ko urtarrilean erroldatuta zeuden atzerritar jatorriko 195.969 pertsonak biztanleriaren %8,9 dira, 2016an baino hiru hamarren gehiago. Estatuan, berriz, %13,2ko ratioa zegoen 2017an, eta egonkor eutsi dio azken hiru urtekoan.

Herrialdeka, 2017an, lehenengo hamar garrantzitsuenen artean sei Latinoamerikakoak dira (Kolonbia, Bolivia, Ekuador, Nikaragua, Brasil eta Paraguai), hiru komunitarioak (Errumania, Portugal eta Frantzia), bat afrikarra (Maroko). Hamar jatorri horien batura atzerritar jatorriko biztanleriaren %54,5 bada ere, 2008ra atzera eginez gero, pilaketa hori handiagoa zela ikusiko dugu, eta horrek jatorriko herrialde desberdinen presentzia handiagoa eta dibertsifikazioa erakusten ditu, gaur egun, EAEn bizi diren atzerriko jatorriko taldeen osaeran. Gaur egun, eta 2014. urteaz gero,

marokoarra da atzerriko nazionalitate nagusia EAEn, 21.345 erroldatu 2017an, hots, atzerritar jatorriko pertsona guztien %10,9 EAEn. Bigarren nazionalitatea Kolonbiakoa da, guztizkoaren %9,3.

Herritarrek immigrazioari buruz duten iritziari dagokionez, IKUSPEGIK jakinarazi duenez, immigrazioa ez da arazo euskaldunentzat. %2,4k besterik ez du esaten bat-batean EAEko lehen arazoa denik, eta aipamenak guztira %12,6 dira (%12,3 2016an). Enpleguari dagokionez, immigrazioak lan-merkatuan betetzen duen eginkizunari buruzko ikuspegi funtzionala eta utilitarista nabarmen jaitsi da krisiaren ondorioz: 2004an %80k uste zuen etorkinak behar genituela zenbait sektoretan lan egiteko. 2014an, berriz, %30,5ek uste zuen hala. Gorabehera txikiak izanda, ordea, 2015etik hasita badirudi gora egin duela berriz ere ikuspegi utilitarista horrek, 2017an %41,4an kokatu baita. Antzeko zerbait gertatu da baieztapen honekin: ekonomia hobeto dabil, migratzaileek betetzen dituztelako biztanle autoktonoen nahi ez dituzten lanpostuak. 2014an, %32,8 ados zegoen baieztapen horrekin (kontsideraturiko serie osoko ratiorik txikiena), eta 2017ean %45,9raino igo da ehuneko hori, gorabeherak izanda.

3.2. GOGOETAK

Berriz ere Europar Batasunean, hirugarren herrialdeetatik datorren biztanleriaren ekarpenari esker, bere pisu demografikoari eutsi ahal izan zaio nazioarte mailan. Aldagai demografikoen bilakaerak erakusten duenez, azken finean, arazo garrantzitsua eta orokorra da Europa mailan.

Gure Erkidegoari dagokionez, Udal Erroldaren 2017ko urtarrileko datuek berresten dutenez, beste urtebetez, demografia ez aurrera ez atzera dago gaur egun. Nagusiki berezko hazkundearen bilakaeraren ondorioz (migrazio-saldoak positibo izateari eusten dio, igoera txikia bada ere), jaiotzen eta heriotzen arteko diferentzia negatiboa da lau urtez jarraian, eta gainera, azken urtean sakondu egin da, zeren eta jaiotzen kopuruak beherantz egiten jarraitzen baitu, eta heriotzen kopuruen gainetik egin du hala.

Batzorde onen ustez, oso kezkagarria da egoera, eta premiazko erantzuna behar du. Horregatik, azken urteetako memorietan, eredu orokorra eskatu izan du EAE osorako, horren gaineko politika publikoak bideratzeko, halako moldez non zeharkakoagoak eta koordinatuagoak izango baitira politikak; izan ere, funtsezkoak dira garapen sozialerako eta ekonomikorako. Ildo horretan, Eusko Jaurlaritzak konfiantza du honako bi hauek egungo egoera demografikoa iraultzea ahalbidetuko duten neurriak ekarriko dituztela: batetik, erakundeek 2018ko urtarrilean izenpeturiko "*Familien eta Haurren Aldeko Euskal Ituna*" delakoa, zeinaren xedea, beste helburu batzuen artean, egungo erronka demografikoari erantzutea baita, jaiotzak sustatuz, hain zuzen ere biztanleria zahartzea geldiarazte aldera; eta bestetik, Eusko Jaurlaritza lantzen ari den "*Familien eta Haurren Aldeko Euskal Estrategia*".

Eta, gure Erkidegoak berezko saldoaren joera negatiboa konpentsatzeko modua ematen duten migrazio-saldoei dagokienez, erreparatu beharreko gertaera bat ikusten dugu: goi-mailako titulazioak dituztenen migrazio-saldo negatiboa hain zuzen. Nahiz eta EAEtik irteten direnen kopurua oso handia ez izan, alde kualitatibotik, baldin eta azken urteetan izandako joerari eusten bazaio eta joera hori sakontzen bada, giza kapitala galtzea ekarriko du, eta horrek ondorioak dakartza gizarte eta ekonomia mailan. Hortaz, arreta jarri behar dugu gai horretan, eta horretarako, zergatik gertatzen ari den sakontzen saiatu behar dugu eta goi-mailako tituludun horiek atxikitzeko neurriak hartu.

Bestalde, atzerritar jatorriko biztanleriak gora egin du EAEn hirugarren urtez jarraian. Ildo horretan, ekonomiaren, demografiaren eta kulturaren aldetik duten ekarpena balioetsi beharra dago. Ildo horretan, beste urtebetez berretsi egin behar dugu euskal herritarrak jabetuta daudela etorkizunak beharrezkoak direla gure ekonomiaren eta gizartearen martxa onerako, zeren eta aniztasun aberasgarria bideratzen baitute, betiere berme demografikorako duten garrantzia ahaztu gabe, are gehiago kontuan hartzen badugu, ez bakarrik beste herrialde batzuetatik datozen pertsonak, baizik eta atzerritar jatorriko emakumeen jaiotza-tasa hemengoena baino handiagoa dela ere.

Aurreko bi atal horiek ikusita, batera kontsideratuta, ezinbestekoa da jarraipena egitea; izan ere, azaldutako joerak areagotuz gero, biztanleriaren egituraren eraketa kualitatiboa aldaraz baitezakete, baita dinamismorako oinarriak ere.

II. KAPITULUA

EAEko ekonomia

1. KANPOKO INGURUNE EKONOMIKOA

II. kapituluaren lehen atal hau hiru epigrafetan dago banatuta. Lehenik eta behin, munduko abagune ekonomikoa azaltzeko faktore ekonomiko nagusiak aztertuko dira, arlo ekonomiko nagusien arteko desberdintasunak aintzat hartuta. Bigarrenik, eurogunearen egoera zehatza aztertzen da, baita 28KO EBrena eta estatu kide bakoitzarena ere (Per capita BPGd-a, BPGd-aren egiazko hazkundea, langabezia-tasak, produktibitateak, inflazioa eta finantza publikoak). Azkenik, hirugarren epigrafeak, alde batetik, Estatuko egoera ekonomikoa aztertzen du (egoera makroekonomikoa, ordainketa-balantza, agente publikoen gastua, zerga-bilketa eta Estatuak aintzatetsitako betebeharrak), eta bestetik, autonomia erkidegoetan BPGd-aren eta langabezia-tasen aldetik gertaturikoari buruzko ikuspegi laburra emango da.

1.1. FAKTORE EKONOMIKO NAGUSIAK[1]

Munduko ekonomiak aurrerapen nabarmenari eutsi zion 2017ko bigarren zatian. NMFren zenbatespenen arabera, BPGaren hazkunde erreala %3,8 izan zen (2016an baino %½ gehiago eta handiena 2011. urtetik), eta nabarmen egin du gora nazioarteko merkataritzak.

Europako Banku Zentralaren eta Espainiako Bankuaren arabera, jardueraren hedapenaren finkatze horrekin batera, eremu geografiko nagusi gehienetan komuna den horrekin batera, egoera erosoagorako moneta-politikei eta finantza-baldintza oso onei eutsi zaie, eta politika fiskala ez da hain zorrotza izan. Horrez gain, mundu mailako merkataritza indartu egin da, inbertsioaren nolabaiteko gorakadarekin batera.

Izan ere, kontsumo pribatuak maila globalean hazkunderako funtsezko gakoa izaten jarraitzen badu ere, inbertsioak gorakada izan du, bereziki ekonomia aurreratuetan.

Ingurumari horretan, munduko produktuaren hiru laurden inguru sortzen dituzten herrialdeetatik bi heren 2016an baino bizkorrago hazi ziren 2017an (hazkundearen urte arteko igoera izan duten herrialdeen proportziorik handiena 2010. urtetik).

II.1.1. TAULA. ALDAGAI EKONOMIKO NAGUSIEN LABURPENA

	2016	2017
BPG (urteko ehunekoen aldakuntza)		
Mundukoa	**3,2**	**3,8**
Ekonomia aurreratuak (1)	1,7	2,3
AEB	1,5	2,3
Japonia	0,9	1,7
Euro gunea	1,8	2,3
Beste ekonomia aurreratu batzuk	2,3	2,7
Ekonomia goranzkorrak eta garapen bidean daudenak	4,4	4,8
Amerika Latinoa eta Karibea	-0,6	1,3
Brasil	-3,5	1,0
Mexiko	2,9	2,0
Estatu Independenteen Erkidegoa	0,4	2,1
Errusia	-0,2	1,5
Gainerakoa, Errusia alde batera utzita	1,9	3,6
Ekonomia goranzkorrak eta garapen bideko ekonomiak Asian	6,5	6,5
Txina	6,7	6,9
India	7,1	6,7
Ekonomia goranzkorrak eta garapen bidekoak Europan	3,2	5,8
Ekialde Erdia, Ipar Afrika, Afganistan eta Pakistan	4,9	2,6
Saharaz Azpiko Afrika	1,4	2,8
Ondasunen eta zerbitzuen munduko merkataritza *(Ondasun eta zerbitzuen munduko esportazioen eta inportazioen urteko %aren batez besteko aldakuntza)*	**2,3**	**4,9**
Kontsumitzailearentzako prezioak		
Ekonomia aurreratuak	0,8	1,7
Ekonomia goranzkorrak eta garapen bidekoak	4,4	4,0
Lehengaien prezioak *($) (abendu-abenduko aldakuntza)*		
Elikagaiak	5,2	-5,2
Industriako produktuak (metalak ez direnak)	25.0	-3,3
Industriako produktuak (metalak)	29.7	12,4
North Sea Brent petrolioaren prezioa *($/upela, abendu-abenduko aldak.)*	39,8	22,3

(1) Ekonomia aurreratuak: AEB, Kanada, Japonia, eurogunea, Erresuma Batua, Danimarka, Suedia, Norvegia, Zipre, berriki industrializatu diren Asiako ekonomiak, Israel, Islandia, Australia eta Zeelanda Berria. Berriki industrializaturiko Asiako ekonomiak: Hego Korea, Taiwan, Hong-Kong, Singapur.
(2) Interes-tasa bermerik gabeko maileguetatik egun batera.
Iturria: NMF "Munduko ekonomiari buruzko aurreikuspenak" (2018ko apirila) eta Ekonomia, Industria eta Lehiakortasun Ministerioa: "Ekonomia-adierazleen laburpena. Taulak eta grafikoak. 2018ko otsaila"

[1] *Hainbat iturritatik jaso da epigrafe honetan aurkezturiko informazioa: Nazioarteko Moneta Funtsa, Europako Banku Zentrala, Espainiako Bankua eta Ogasun eta Herri Administrazioen Ministerioa.*

Alabaina, NMFk uste du krisiaren zenbait ondorio, hala nola zor maila mundu osoan handitzea eta agintariek hazkunde indartsua eta inklusiboa sortzeko duten gaitasunari eta borondateari buruz herritarrek erakutsitako eszeptizismoa, iraunkorragoak direla ematen du.

Zehazki, ekonomia aurreratuen hazkundea, urte arteko kopuruetan eta bolumenean, %2,3koa izan zen. Aurreko urtean, berriz, %1,7koa izan zen, noiz-eta AEBetako BPGa %2,3 hazi baitzen (2016an baino 8 hamarren gehiago), eurogunean %2,3 (2016an baino 5 hamarren gehiago) eta Japonian %1,7 (%0,9 2016an).

Goranzko merkatuetako eta garapen bidean diren merkatuetako ekonomietan, 2016koa baino %0,4 handiagoa izan da hazkundea (%4,4tik %4,8ra). Alabaina, askotarikoa da taldearen barruko egoera. Europako goranzko ekonomietako hazkundea %5,8 izan zen (%3,2 2016an), Asiakoa %6,5 (2016ko ratio bera) eta Amerika Latinoan eta Karibean %1,3koa izan zen, 2016an %0,6ko jaitsiera izan ondoren. Errusiak, aldiz, %1,5eko gorakada izan zuen (aurreko urtean, berriz, %0,2ko jaitsiera), Brasil %1 hazi zen (2016ko %3,5aren aldean), Txina eta India %6,9 hazi ziren, hurrenez hurren (2016an baino bi hamarren gehiago) eta %6,7 (2016an baino 0,4 puntu gutxiago).

Nazioarteko merkataritzak (munduko inbertsioarekin lotuta, arestian esana dugunez) susperraldi nabaria izan zuen 2017an, bi urtez ahul izan ondoren, hain zuzen ere %4,9ko hazkunde erreal zenbatetsia izan artean, 2016ko ratioa baino %2,6 handiagoa. Hala, Atzeraldi Handiaren ondorengo aldirik handienean ikusitakoa ez bezala, produktuaren hazkundea baino handiagoa da hazkunderako erritmoa.

Prezioei dagokienez, petrolioa irailetik garestitu izanaren ondorioz, berriz ere egin du gora kontsumitzailearentzako prezioen inflazio maila orokorrak. Hala ere, ezkutuko inflazioa (erregaien eta elikagaien prezioak alde batera uzten dituena) egonkor eutsi zion. Izan ere, munduko jardueraren egoera ona hori ez dator bat inflazioaren presioen gorakadaren gaineko zantzu urriekin 2017. urtean.

Zehazkiago, Brent upelaren prezioak %22,3 egin zuen gora 2016ko abendu eta 2017ko abendu bitartean, bai eskari global handiagoagatik, bai Petrolioaren Herrialde Esportatzaileen Erakundeak 2018ko amaierara arteko eskaintzaren inguruan iragarritako murrizketengatik. Brent upelaren prezioa 65$ izan zen abenduan, preziorik handiena 2014tik hona. Elikagaien prezioek, bestalde, %5,2 egin zuten behera eta metalezkoak ez diren industriako produktuek %3,3. Industriako metalezko produktuek %12,4 egin zuten gora.

Ingurumari horretan, munduko produktuaren hiru laurden inguru sortzen dituzten herrialdeetatik bi heren 2016an baino bizkorrago hazi ziren 2017an (hazkundearen urte arteko igoera izan duten herrialdeen proportziorik handiena 2010. urtetik). Japoniako Bankuak ere, bestalde, esku hartzeko tasari eutsi zion 2017. urte osoan, 2016an itxi zuen moduan, hau da, -%0,10aren inguruan. Eta AEBetako Erreserba Federalak hiru alditan igoarazi zituen, martxoan %1aren inguruan, ekainean %1,25en eta abenduan %1,5ean[2].

II.1.2. TAULA. FINANTZA- ETA MONETA-BALDINTZAK

	2016	2017
Esku-hartzearen interes-tasa (denboraldi amaier)1		
EDB	0,00	0,00
AEB – funts federalen tasa objektiboa	0,75	1,50
Japonia – Call Money (1)	-0,10	-0,10
Erresuma Batua	0,25	0,50
Euroaren aldaketa-tasa (EUROAREN balio-irabaztearen (+) edo balio-galtzearen %, abend-ab)		
Euroko dolarra	-3,1	12,3
Euroko libra esterlina	16,3	4,5
Euroko yen japoniarra	-7,5	9,2
Burtsa: kotizazio-indizea (abend-ab. ehuneko ald.)		
Dow Jones (New York)	13,4	25,1
Nikkei	0,4	19,1
Euro Stoxx zabala	1,5	10,1
Ibex 35	-2,0	7,4

(1) Bermerik gabeko maileguetako egun baterako interes-tasa
(2) Japoniako esku-hartzearen tasa.
Iturria: Ekonomia, Industria eta Lehiakortasun Ministerioa. "Ekonomia-adierazleen laburpena. Taulak eta grafikoak. 2018ko otsaila"

Euroguneko diru-merkatuko interes-tasei dagokienez, urteko batez besteko balioa kontuan hartuta, epe guztietan murriztu ziren. Zehazki, hilabeterako Euriborraren bilakaera hauxe izan zen 2016 eta 2017 bitartean: -%0,34tik -%0,37ra; 3 hilabeterako Euriborra, berriz, -%0,26tik -%0,33ra 2016 eta 2017 bitartean; sei hilabeterako Euriborra -%0,24tik -%0,27ra 2017ko lehen hiruhilekoan eta laugarrenean; urtebeterako Euriborrak -%0,1arekin hasi eta -%0,19arekin bukatu zuen 2017ko lehen hiruhilekoan. Bestalde, Euroguneko kreditu-erakundeek

[2] *Ekonomia, Industria eta Lehiakortasun Ministerioaren 2018ko apirilaren 18ko Ekonomia-adierazleen Laburpenean (AEL) bildutako datuak.*

familiei eta IPSLH egoiliarrei EBB (UTB) maileguetan ematen dieten interes-tasak gora egin zuen kontsumoan, %8,14tik %8,3ra 2016 eta 2017 bitartean, baina behera egin zuen etxebizitzan, %2,19tik %2,05era hain zuzen.

Dibisen merkatuari dagokionez, AEBetako dolarraren truke tasa erreala urtean 1,184 $/€ izan zen. 2016ko abenduan, berriz, 1,054 $/€ izan zen. Hots, %12,3ko balio-igoera izan zuen euroak, %12,3koa hain zuzen. Euroak ere balio-igoera izan zuen yenarekiko eta libra esterlinarekiko.

Munduko burtsaren merkatuetan, IBEX 35ek urte arteko %21,4ko hazkundea izan zuen (2017ko abenduan 2016ko abenduarekiko), aurreko urteko %7,4aren aurrean; Nikkei %19,1 hazi zen noiz-eta 2016an %0,4 igo zenean; Dow Jonesek %25,1 egin zuen gora (+%13,4 2016. urtean); Euro Stoxx zabala, berriz, %10,1 hazi zen (%1,5 aurreko urtean).

1.2. EUROPAR BATASUNA. EUROGUNEA

Europako Banku Zentralaren (Urteko txostena, 2017, 2018ko apirilean argitaratua eta Ekonomia Buletina, 2018ko maiatzekoa) eta Espainiako Bankuaren (Adierazleen Laburpena, 2018ko maiatzaren argitaratua) datuen arabera, baina ekonomiaren susperraldia 2013an hasi zen pixkanaka eta neurrian. Denborarekin, ordea, finkatuz Joan da, eta 2017an eurogune osora iritsi da.

Izan ere, 2009-2010ean izandako susperraldi laburrean ez bezala, produktuaren hazkundea nahikoa desberdina izan zenean, egungoa orokorragoa da, eta balio erantsiaren hazkundearen gaineko tasen sakabanaketa txikiagoan islatu da herrialdeetan eta sektoreetan.

Hala, 2016 eta 2017 bitartean, BPGaren hazkunde-tasa, urte arteko kopuruetan eta bolumenean, eurogunean %2,4 izan da, Europako Banku Zentralaren arabera eta %2,5ekoa Espainiako Bankuaren arabera (ratiorik handiena 2007tik).

Eskariaren aldetik, kontsumo pribatuaren eta inbertsioaren hazkundea da aurrerapenaren oinarria, baita esportazioena ere. Izan ere, mundu mailan izandako susperraldiaren onura jaso dute, euroaren truke-tasaren ondoriozko kontrako zenbait eragin gorabehera.

Kontsumo pribatuaren urte arteko batez besteko hazkunde-tasa %1,8 da, baina urteko azken lauhilekoan nolabait moteldu dela ikusten da. Berez, emaitza gaurkotuagoak lortzeko adierazle kuantitatiboek emaitza desberdinak ematen dituzte, eta deigarria da txikizkako salmenten beherakada.

Inbertsioari dagokionez, enpresen inbertsioak goranzko bideari eutsi dio, finantzaziorako oso baldintza onei eta enpresen errentagarritasunaren hobekuntzari esker; eta eraikuntzako inbertsioak, 2015ean argi eta garbi hondoa jo ondoren, goranzko bidean jarraitu du.

Eskaintzaren aldetik, arestian esana dugunez, produktuaren hazkundea orokorra izan zen sektore ekonomiko guztietan. Industriako BEGaren hazkundea, urte arteko tasan, igo egin zen 2017an, %3,3aren inguruan kokatuta (hiruhilekoaren goranzko profila ageri da, lehen hiruhilekoan +%1,8, eta azkenean +%4,6koa da laugarrenean). Merkatuko zerbitzuen sektorean, berriz, %2,3aren ingurukoa izan zen, 2016an izandakoa baino handiagoa ere (hiruhilekoaren goranzko profila ageri da horretan ere, +%2,1arekin hasita lehen hiruhilekoan eta azkenean +%2,4 laugarrenean). Aldi berean, erakuntzaren balio erantsiak krisiaren aurreko mailaren azpitik jarraitu bazuen ere, susperraldian sartu zen, lehen hiruhilekoan %2,4an hasita eta azkenean %3,6 laugarren hiruhilekoan (urteko batez bestekoa: %3).

Lan-merkatuek susperraldian jarraitu zuten 2017an. Langabezia-tasak behera egiten jarraitu zuen 2017an, eta %9,1ean kokatu zen, 2009ko hasieratik izandako tasarik txikiena. Iraupen luzeko langabezia ere (langabezian gutxienez hamabi hilabete daramatzaten pertsonen kopurua, populazio aktiboaren portzentajean adierazia) jaitsi zen, baina krisiaren aurreko mailetatik gora jarraitzen du.

II.1.3. TAULA. EUROAREN EREMUKO EKONOMIA-ADIERAZLE NAGUSIAK (urteko aldakuntza-tasak)							
	2015	2016	2017	2017			
				I	II	III	IV
BPG merkatuko prezioetan	**2,0**	**1,8**	**2,5**	**2,1**	**2,4**	**2,7**	**2,8**
BARNEKO ESKARIA							
Gastua azken kontsumo pribatuan	1,8	1,9	1,8	**1,7**	**1,9**	**1,9**	**1,5**
Gastua azken kontsumo publikoan	1,3	1,8	1,2	1,0	1,1	1,4	1,4
IOF finkoa	3,1	4,5	3,2	4,1	3,5	2,5	3,0
KANPOKO ESKARIA							
BPGaren aldaketa-tasari ekarpena	0,1	-0,5	0,6	0,2	0,2	0,8	1,2
Esportazioak	6,1	3,4	5,4	4,8	4,5	5,8	6,6
Inportazioak	6,5	4,8	4,5	4,7	4,5	4,5	4,4
Egiazko BEG							
Nekazaritza	3,1	-1,2	0,8	0.5	0,1	0,9	1,8
Industria	3,6	1,9	3,3	1,8	3,0	3,9	4,6
Eraikuntza	0,1	1,6	3,0	2,4	3,1	3,0	3,6
Merkatuko zerbitzuak	1,4	1,7	2,3	2,1	2,2	2,4	2,4
Guztizko enplegua (urte arteko aldaketa-tasa)	1,0	1,3	1,6				
Langabezia-tasa (populazio aktiboaren g. %)	10,9	10,0	9,1	9,5	9,1	9,0	8,7
Iturria: Espainiako Bankua, adierazleen laburpena, 2018ko maiatzak 8							

EBko herrialdeen multzoari gagozkiola, EUROSTATen arabera, hona hemen egoera.

Per capita BPG, EAPan neurtua[3]. Analisia mailaren baldintzetan eta ez eboluzio-baldintzetan egiten da, EB28ren batez bestekoa kontuan hartuta; EB28=100.

Euroguneko[4] batez besteko berdinak edo handiagoak dituzten herrialdeak hauexek izan ziren 2016an: Luxenburgo (258), Irlanda (183), Holanda eta Austria (bakoitzak 128), Danimarka (124), Alemania eta Suedia (bakoitzak 123), Belgika (118), Finlandia (109) eta Erresuma Batua (107).

Eurogunearen azpitik baina %80aren goitik daude hauek: Frantzia (104), Italia (97),Malta (96), Espainia (92), Txekiar Errepublika (88), Zipre eta Eslovenia (bietan 83arekin).

BPGaren aldakuntza-tasa egiazko kopuruetan. Bai 28ko EBn, bai eurogunean, %2,4an kokatu zen 2017an (%2 eta %1,8 hurrenez hurren, aurreko urtean).

Hazkunde-tasarik handienak, %3aren gainekoak, herrialde hauetan izan dira: Irlanda (%7,8), Errumania (%6,9), Malta (%6,6), Eslovenia (%5), Estonia (%4,9), Polonia (%4,6), Letonia (%4,5), Txekiar Errepublika (%4,4), Hungaria (%4), Zipre (%3,9), Lituania (%3,8), Bulgaria (%3,6), Eslovakia (%3,4), Holanda (%3,2) eta Espainia(%3,1).

Ezein herrialdetan ez da aldakuntza-tasa negatiborik izan.

Langabezia-tasa. 2017an, 28ko EBn, %7,6 izan zen eta eurogunean %9,1 (arestian esana dugunez, tasarik txikiena 2009ko hasieratik.

Tasarik txikienak: Txekiar Errepublikan (%2,9), Alemania (%3,8), Malta (%4%, Hungaria (%4,2), Erresuma Batua (%4,4), Errumania, Polonia eta Holanda (%4,9 bakoitzean, Austria (%5,5), Luxenburgo (%5,6), Danimarka (%5,7) eta Estonia (%5,8).

[3] *EAP: erosahalmenaren parekotasuna*

[4] *19ko eurogunea: Alemania, Austria, Belgika, Zipre, Eslovakia, Eslovenia, Espainia, Estonia, Finlandia, Frantzia, Grezia, Irlanda, Italia, Lituania, Letonia, Luxenburgo, Malta, Holanda eta Portugal.*

%10aren inguruko tasak daude Zipren, Kroazian eta Italian. Eta horren gainetik, 28ko EBko langabezia-tasak izanik, Espainian (%17,2) eta Grezian (%21,5).

Kontsumorako Prezioen Indize Harmonizatua (KPIH) [5]**.** Eurogunean, KPIH %1,4 hazi zen 2016ko abendutik 2017ko abendura bitartean. Espainiako estatuak %1,2ko igoera izan zuen. Azterketa zabalagoa nahi izanez gero, ikus beza irakurleak kapitulu honetako II.2. atala *("Ekonomiaren abagunea"*).

II.1.4. TAULA. EUROPAR BATASUNAREN EKONOMIAREN BILAKAERA

	Biztanle bakoitzeko BPG (1)		Egiazko BPGaren hazkundea		Langabezia-tasa		Langabezia-tasa		Inflazioa (KPIH) (abend. abend. Aadak.)	Produktibitatea/langile eta lan egindako ordua (2)	
	2015	2016	2016	2017	2016	2017	2017	Helburua	2017	2015	2016
28ko EB	100	100	2	2,4	8,6	7,6	72,2	75	1,7	100	100
EUROG. (19)	106	106	1,8	2,4	10	9,1	71	:	1,4	107,2	107,1
BELGIKA	119	118	1,4	1,7	7,8	7,1	68,5	73,2	2,1	130,2	129,4
BULGARIA	47	49	3,9	3,6	7,6	6,2	71,3	76	1,8	44,2	45,4
TXEKIAR ER.	87	88	2,6	4,4	4	2,9	78,5	75	2,2	79,7	80,2
DANIMARKA	127	124	2	2,2	6,2	5,7	76,9	80	0,8	114,3	111,9
ALEMANIA	124	123	1,9	2,2	4,1	3,8	79,2	77	1,6	106,1	105,8
ESTONIA	75	75	2,1	4,9	6,8	5,8	78,7	76	3,8	70,9	71,8
IRLANDA	181	183	5,1	7,8	8,4	6,7	73	69	0,5	189,7	190,2
GREZIA	69	68	-0,2	1,4	23,6	21,5	57,8	70	1	83,2	80,9
ESPAINIA	91	92	3,3	3,1	19,6	17,2	65,5	74	1,2	102,2	101,9
FRANTZIA	105	104	1,2	1,8	10,1	9,4	70,6	75	1,2	115	114,8
KROAZIA	59	60	3,2	2,8	13,4	11,1	63,6	62,9	1,3	70,1	70,9
ITALIA	95	97	0,9	1,5	11,7	11,2	62,3	67	1	106,3	107,4
ZIPRE	82	83	3,4	3,9	13	11,1	70,7	75	-0,4	84,9	84,3
LETONIA	64	65	2,2	4,5	9,6	8,7	74,8	73	2,2	63,8	64,8
LITUANIA	75	75	2,3	3,8	7,9	7,1	76	72,8	3,8	73,3	72,1
LUXENBURGO	267	258	3,1	2,3	6,3	5,6	71,5	73	1,6	168,3	163,2
HUNGARIA	68	67	2,2	4	5,1	4,2	73,3	75	2,2	69,8	67,8
MALTA	93	96	5,5	6,6	4,7	4	71,4	70	1,3	95	95,6
HOLANDA	129	128	2,2	3,2	6	4,9	78	80	1,2	111,5	110,8
AUSTRIA	130	128	1,5	2,9	6	5,5	75,4	77	2,3	117,7	116,6
POLONIA	68	68	3	4,6	6,2	4,9	70,9	71	1,7	74	74,2
PORTUGAL	77	77	1,6	2,7	11,2	9	73,4	75	1,6	78,2	78
ERRUMANIA	56	58	4,8	6,9	5,9	4,9	68,8	70	2,6	58,7	61,6
ESLOVENIA	82	83	3,1	5	8	6,6	73,4	75	1,9	80,7	80,7
ESLOVAKIA	77	77	3,3	3,4	9,7	8,1	71,1	72	2	82,6	81,7
FINLANDIA	109	109	2,1	2,6	8,8	8,6	74,2	78	0,5	107,7	108,8
SUEDIA	125	123	3,2	2,4	6,9	6,7	81,8	80	1,7	114,2	113,7
ERRESUMA BATUA	108	107	1,9	1,8	4,8	4,4	78,2	:	3	101,3	101,1

(1) EAPan.28KO EB=100 (2) EAPan. 28KO EB=100
Iturria: EUROSTAT

Lan-produktibitatea (BPGaren (EAPan) eta enpleguaren arteko erlazio bezala kalkulatuta). Produktibitatea kontzeptua ekoizpenaren eta ekoizpena lortzeko erabilitako baliabideen arteko erlazioan datza, eta garrantzitsua da ekonomiaren lehiakortasuna neurtzeko. Kontzeptu erraza da, baina bere kalkulua zaila, zeren eta askotariko faktore determinanteak baitaude (landunen gaitasuna, kapitaleko ondasunen zuzkidura, baliabideen erabilera eraginkorra eta beste faktore batzuekin uztartuta erabiltzea hala nola erakundeen ingurukoak, legearen ingurukoak, etab.). Ondoren emango den analisia mailaren arabera egin da, ez bilakaeraren arabera, betiere 28ko EBko batez bestekoa kontuan hartuta; 28ko EB=100.

[5] *Kontsumoko Prezioen Indize Harmonizatuak (KPIH) Europar Batasuneko inflazioaren batez besteko komuna ematen du. Alderaketa homogeneo hauek lortzeko, KPIan biltzen diren eta haren %5 inguru hartzen duten kontsumoko partida jakin batzuk kanpoan utzi behar izan dira (horrela, adibidez, KPIHtik kanpo geratzen dira Osasun zerbitzuak, Irakaskuntza arautua, Sendagaiak eta diruz lagundutako farmaziako produktuak, eta abar)..*

2016an, eskuratu ditugun azken datuen arabera, 19ko euroguneko batez bestekoa 107,1 zen 100eko oinarrian. Hona hemen produktibitaterik handiena duten estatuak: Irlanda (190,2), Luxenburgo (163,2), Belgika (129,4), Austria (116,6), Frantzia (114,8), Danimarka (111,9), Suedia (113,7), Holanda (110,8), Finlandia (108,8) eta Italia (107,1).

Eurogunearen batez bestekoaren azpitik (107,1) baina 28ko EBko batez bestekoaren (100) gainetik daude Alemania (105,8), Espainia (101,9) eta Erresuma Batua (101,1).

Herri-finantzak: Egonkortasun eta Hazkuntza Itunaren xedapenekin bat, Estatu kideek bi balioen azpitik mantentzeko konpromisoa hartzen dute: %3ko defizit/BPG ratioa eta %60ko zor/BPG ratioa. Itun horretan, zuzenketa egiteko asmoak eraentzen du gehiegizko defizitaren protokoloa, hain zuzen ere defizit publiko handiegiak edo zor publiko handiegia berehala zuzentzeko xedez.

Euroguneko Herri Administrazioen zorrak berriz ere egin zuen behera 2017an ia estatu guztietan, Frantzian izan ezik (eutsi egiten zaio gutxi gorabehera), eta Luxenburgon (handitu egin da).

EUROSTATen, arabera, 2017an, 19ko eurogunearen multzoan, BPGaren gaineko zor publikoa %86,7 da. 2016an, berri, %89 izan zen.

%60ko atalasea gainditu da Finlandian (%61,4) Alemanian (%64,1), Irlandan (%68), Hungarian eta Eslovenian (bietan %73,6),Kroazian (%78), Austrian (%78,4), Erresuma Batuan (%87,7), Frantzian (%97), Zipren (%97,5), Espainian (%98,3), Belgikan (%103,1), Portugalen (%125,7), Italian (%131,8) eta Grezia (%178,6)..

Defizitari dagokionez, 19ko eurogunean, defizit publikoa BPGaren %1eko maila baliokidean kokatu zen. 2016an, berriz, %1,6 zen.

Soilik Espainiak gainditu zuen BPGaren %3ko maila (-%3,1). -%1,5 eta -%3 bitartean ditugu Irlanda, Estonia, Letonia, Finlandia, Austria, Eslovakia, Belgika, Polonia, Erresuma Batua, Hungaria, Italia; Frantzia, Errumania eta Portugal. Gainerakoetan superabita izan zen.

II.1.5. TAULA. HERRI FINANTZAK EB-N

	BPGaren gainean gobernuaren herri-zorraren %		Defizit/superabit publikoaren % BPGaren gainean (moneta nazional.)	
	2016	2017	2016	2017
28ko EB	83,3	81,6	-1,6	-1
Euro gunea (19)	89	86,7	-1,5	-0,9
Belgika	105,9	103,1	-2,5	-1
Bulgaria	29	25,4	0,2	0,9
Txekiar Er.	36,8	34,6	0,7	1,6
Danimarka	37,9	36,4	-0,4	1
Alemania	68,2	64,1	1	1,3
Estonia	9,4	9	-0,3	-0,3
Irlanda	72,8	68	-0,5	-0,3
Grezia	180,8	178,6	0,6	0,8
Espainia	99	98,3	-4,5	-3,1
Frantzia	96,6	97	-3,4	-2,6
Kroazia	80,6	78	-0,9	0,8
Italia	132	131,8	-2,5	-2,3
Zipre	106,6	97,5	0,3	1,8
Letonia	40,5	40,1	0,1	-0,5
Lituania	40,1	39,7	0,3	0,5
Luxenburgo	20,8	23	1,6	1,5
Hungaria	76	73,6	-1,7	-2
Malta	56,2	50,8	1	3,9
Holanda	61,8	56,7	0,4	1,1
Austria	83,6	78,4	-1,6	-0,7
Polonia	54,2	50,6	-2,3	-1,7
Portugal	129,9	125,7	-2	-3
Errumania	37,4	35	-3	-2,9
Eslovenia	78,6	73,6	-1,9	0
Eslovakia	51,8	50,9	-2,2	-1
Finlandia	63	61,4	-1,8	-0,6
Suedia	42,1	40,6	1,2	1,3
Erresuma Batua	88,2	87,7	-3	-1,9

Iturria: EUROSTAT

1.3. ESPAINIAKO EKONOMIA ETA AUTONOMIA ERKIDEGOAK

1.3.1. Espainiako ekonomia

EINek argitaraturiko Hiruhilekoetako Nazio Kontabilitatearen arabera, 2017ko laugarren hiruhilekoan, Espainiako ekonomiak 2013ko amaieran hasitako hedapena luzatu zuen. Hala, BPGaren urteko batez besteko hazkundea %3,1 izan zen 2017ko amaieran kopuru errealetan, 2016koa baino 2 hamarren txikiagoa baina euroguneko batez bestekoa baino puntu erdi handiagoa (%2,4, EUROSTATen eta EBZren arabera).

Estatuko eskariak hazkundearen eragile nagusia izateari eusten dio, BPGaren hazkundeari %2,8 ekarrita, 2016an baino hiru hamarren gehiago, hauexek bultzatuta: kontsumo pribatuaren jokabide onak (+%2,4, 2015ean baino 5 hamarren gehiago) eta ekipo-ondasunen inbertsioaren joera hobeak (+%6,1, urtebete lehenago %4,9koa izan ondoren). Kanpo-

eskariak hazkundeari egiten dion ekarpena 3 hamarrenekoa da, 2016an baino lau gutxiago, inportazioetan izandako susperraldia esportazioena baino handiagoa izan baita. Hala, barne-eskariak nahiz kanpo-eskariak ekarpen positiboak egin zizkioten 2017an BPGaren hazkundeari bigarren urtez jarraian.

Espainiako Bankuaren arabera, Kataluniako egoera politikoarekin loturiko ziurgabetasun handiagoaren ondorio txarrak nolabait esportazioko merkatua indartu izanarekin orekatu ziren. Izan ere, eskuratu dugun informazioarekin bat etorriz (nahikoa urria), gehienbat autonomia erkidego horretan metatu omen dira.

Eskaintzaren aldetik, industriaren eta eraikuntzaren hazkundea nabarmentzen da. Hala, urte osoan, urte arteko kopuruetan eta bolumenean, jarduera %3,7 hazi zen industrian (+%3,8 manufaktura-industrian, 2016an baino hiru hamarren gehiago) eta %4,9 eraikuntzan (2016an baino 3 puntu gehiago. Bestalde, zerbitzuen sektoreko BEGak %2,3 egin zuen gora, 2016an baino 4 hamarren gutxiago; eta igoerak izan ziren gainerako jarduera-adarretan, finantza- eta aseguru-jardueretan izan ezik: %1,5eko jaitsiera izan zen (2016ko jaitsiera baino handiagoa: -%0,8).

II.1.6. TAULA. ESTATUKO EGOERA MAKROEKONOMIKOA.
Urte arteko aldakuntza-tasak. Bolumen kateatua. Urtaro eta egutegi efektuetatik zuzendutako datuak.

	2016	2017	2016				2017			
			I H	II H	III H	IV H	I H	II H	III H	IV H
Gastua azken kontsumoan	2,5	2,2	2,8	2,7	2,3	2,1	1,9	2,2	2,1	2,5
Familien azken kontsumoaren gastua	2,9	2,4	3,2	3,2	2,7	2,7	2,2	2,4	2,4	2,5
HHAAetako azken kontsumoaren gastua	0,8	1,6	1,6	0,9	0,8	0,0	1,0	1,5	1,4	2,4
Kapital finkoaren eraketa gordina	3,3	5,0	4,3	3,6	2,7	2,7	4,9	3,9	5,6	5,6
IOF. Aktibo finko materialak	3,4	5,2	4,4	3,6	2,9	2,8	5,2	4,1	5,7	6,0
IOF. Aktibo finko materialak. Eraikuntza	2,4	4,6	2,2	2,3	2,1	3,1	4,5	4,3	5,1	4,8
IOF. Aktibo finko materialak. Ekipo-ondasunak eta aktibo landuak	4,9	6,1	7,6	5,5	4,1	2,5	6,1	3,9	6,6	7,7
IOF. Jabetza intelektualeko produktuak	2,7	3,7	3,8	3,4	1,6	2,1	3,5	2,9	5,0	3,3
NAZIO ESKARIA (*)	2,5	2,8	3,1	2,9	2,2	2,0	2,5	2,5	3,0	3,2
Kanpoko eskaria										
Ondasunen eta zerbitzuen esportazioak	4,8	5,0	4,5	6,2	3,8	4,5	5,6	4,5	5,6	4,4
Ondasunen eta zerbitzuen inportazioak	2,7	4,7	3,6	4,8	0,8	1,6	4,5	3,1	5,9	5,2
BARNEKO PRODUKTU GORDINA merkatuko prezioetan	**3,3**	**3,1**	**3,5**	**3,4**	**3,2**	**3,0**	**3,0**	**3,1**	**3,1**	**3,1**
Nekazaritza, abeltzaintza, basogintza eta arrantza	6,9	3,7	7,9	7,3	7,4	5,2	5,0	3,7	4,2	2,0
Industria	3,6	3,7	4,0	4,1	3,1	3,0	3,0	3,4	3,9	4,6
- Manufaktura-industria	3,5	3,8	5,2	4,0	2,7	2,3	2,6	3,5	4,3	4,7
Eraikuntza	1,9	4,9	1,2	1,2	2,3	2,8	4,5	4,9	4,9	5,4
Zerbitzuak	3,0	2,6	3,0	3,2	3,1	2,8	2,7	2,6	2,5	2,5
- Merkataritza, garraioa eta ostalaritza	3,8	3,2	3,8	4,2	3,7	3,5	3,7	3,3	3,1	2,9
- Informazioa eta komunikazioak	4,9	5,1	4,1	5,3	5,3	5,0	5,5	4,7	5,3	5,1
- Finantza- eta aseguru-jarduerak	-0,8	-1,5	-0,1	-2,2	-0,7	-0,3	-2,6	-0,4	-0,6	-2,2
- Higiezinen arloko jarduerak	1,5	1,3	0,7	1,4	2,0	1,8	1,7	1,3	1,1	1,1
- Jarduera profesionalak	7,0	6,2	7,2	6,9	7,0	6,8	6,2	6,4	6,2	5,9
- Herri-administrazioa, osasuna eta hezkuntza	2,0	1,4	2,4	2,3	2,0	1,3	1,3	1,2	1,3	1,6
- Jarduera artistikoak, olgetakoak eta bestelakoz.	1,5	1,7	1,9	2,0	1,2	0,9	1,5	1,4	1,8	2,2
Produktuen gaineko zerga garbiak	4,4	4,2	5,9	4,5	3,7	3,6	4,1	4,6	4,2	3,7
Lan-merkatua										
Lanaldi osoaren pareko lana										
Landunak	3,0	2,8	3,4	2,8	3,1	2,7	2,6	2,9	2,9	2,9
Soldatapekoak	3,3	3,1	3,8	3,1	3,2	2,9	2,8	3,2	3,2	3,3
16 urte edo zaharragoen langabezia-tasa (BAI)	19,6	17,2	21,0	20,0	18,9	18,6	18,8	17,2	16,4	16,6

(*) BPGaren hazkunderako ekarpena merkatuko prezioetan.
Iturria: EIN (Hiruhilekoetako kontabilitatea eta BJA) eta Espainiako Bankua. Espainia. Ekonomia-adierazle orokorrak

BPGaren bilakaeraren ildo beretik, %2,8koa izan zen LOPLko biztanleriaren batez besteko hazkundea 2017. urtean, Kontabilitate Nazionalaren arabera, 2016. urteko ratioa baino %0,2 gutxiago. Soldatapekoen aurrerapena %3,1ekoa izan zen, 2016ko ratioaren azpitik.

Bestalde, EINen Biztanleria Aktiboaren Inkestak (BAI) agerian uzten du langabezia-tasaren beherako joera (16 urtetik gorakoena), %17,2, eta beheranzko joera izan da urte osoan: lehen hiruhilekoan %18,8 hasi eta laugarrenean %16,6koarekin bukatu.

Ordainketa Balantzari dagokionez, 2017an berriz ere izan zuen ekonomiak finantzatzeko ahalmena. [6] Ekonomiaren finantzazio ahalmen hori (superabita) 23.081 milioi eurokoa izan zen, hots, BPGaren %2.

Estatuko administrazio publikoek defizitarekin bukatu zuten 2017. urtean, Nazio Kontabilitatearen arabera neurtua: 36.233 milioi (behin-behineko datuak), hots, BPGaren %4,5etik %3,1era igarotzea 2016 eta 2017 bitartean.

Banakapena eginez, administrazio zentralak nahiz autonomia erkidegoak eta Gizarte Segurantzak defizitarekin itxi zituzten kontuak: %1,9, %0,3 eta %1,5 hurrenez hurren. Tokiko korporazioek, berriz, superabita izan zuten, %0,6koa ekitaldian, 2016ko ratio bera.

II.1.7. TAULA. ESPAINIAKO EKONOMIAREN ORDAINKETEN BALANTZA (milioi euro)

	2015 b	2016 b	2017 b
BPG bb	1.079.998	1.118.522	1.163.662
Finantziazio gaitasuna/premia	18.052	23.829	23.081
BPGaren gainean (%)	1,7	2,1	2,0
Kontu korrontearen eta kapitalaren saldoa	19.245	24.166	24.792
Kontu korrontea	12.175	21.484	22.144
Ondasunak eta zerbitzuak	25.251	33.672	33.540
Errentak	-13.077	-12.189	-11.396
Kapital kontua	7.070	2.682	2.648
Finantza-saldoa	23.690	26.693	22.451
Guztira, Espainiako Bankua salbu	63.854	79.327	54.395
Zuzeneko inbertsioa	27.926	16.672	19.256
Zorroko inbertsioa	-6.796	38.292	15.955
Bestelako inbertsioak	43.736	26.985	21.241
Finantza-deribatu garbiak	-1.012	-2.622	-2.056
Espainiako Bankua	-40.164	-52.634	-31.944
Erreserbak	5.067	8.233	3.652
Eurosistemaren aurrean EB posizio garbia	-50.929	-59.707	-31.266
Bestelako BE	5.699	-1.159	-4.331

b. behin-behinekoa
Iturria: Espainiako Bankua: "Ekonomia-adierazleak"

II.1.8. TAULA. SALDO PUBLIKOA AGENTEEN ARABERA (milioi euro)

	Milioi €				BPGaren %			
	2014 b	2015 b	2016 b	2017 b	2014 b	2015 b	2016 b	2017 b
Administrazio publikoak Ahal. (+) /beharra. (-) Finantzazioa CNEren arabera	**-61.942**	**-57.004**	**-50.401**	**-36.233**	**-6,0**	**-5,3**	**-4.5**	**-3,1**
Administrazio Zentrala	-38.151	-39.846	-30150	-22.133	-3,7	-2,8	-2,7	-1,9
Autonomia erkidegoak	-18.500	-18.701	-9.341	-3.703	-1,8	-1,7	-0,8	-0,3
Tokiko korporazioak	5.472	4.581	6.847	6.812	0,5	0,4	0,6	0,6
Gizarte Segurantzaren administrazioak	-10.763	-13.038	-17.757	-17.209	-1,0	-1,2	-1,6	-1,5

b: behin-behinekoa
Iturria: Espainiako Bankua. "Estatistika buletina"

Diru-sarrerak direla eta zerga nagusietako zerga-bilketak, autonomia erkidegoen eta tokiko korporazioen partaidetza aintzat hartuta, hazkundea izan zuen berriro (+%4,3). Igoera gertatu da gehienbat zuzeneko zergen bilketan izandako %6,6ko hazkundeagatik (sozietateen gaineko zergan %6,8, PFEZ %6,4 eta "beste batzuk" partidak %9,7 igota); hala ere, zeharkakoek ere gora egin dute, baina neurri txikiagoan, %2,2 hain zuzen (BEZ %1,3, zerga bereziena %2,2 eta "beste batzuk" partida %4,5 igota).

Bestalde, Estatuak onartutako obligazioek %0,9 egin uzten beherantz, arrunten transferentzien (-%1,9), langileen (-%1,5) eta kapital transferentziak (-%1,9) kapituluak jaistearen ondorioz.

[6] *Ekonomiaren sektoreek sortutako aurrezpena eginiko inbertsioari aurre egiteko nahikoa ez denean sortzen da, eta Kontu Korronteko eta Kapitaleko Balantzak eta kanpoko egoiliarren inbertsioak batuta kalkulatzen da.*

II.1.9. TAULA. ESTATUAREN ZERGA-BILKETA (AAEEek eta Tokiko Korporazioek PFEZn, BEZn eta Zerga Berezietan duten partaidetza barne) (milioi euro)											
	Zuzeneko zergak				Zeharkako zergak				Guztira		
	Guztira	PFEZ	Sozietateak	Beste b.	Guztira	BEZ	Bereziak	Beste b.	Estatua	AAEE eta TTKK	**Guztira**
2012	96.152	70.631	21.435	4.086	71.594	50.464	18.209	2.921	75.643	92.102	**167.746**
2013	94.040	69.946	19.964	4.130	73.733	51.939	19.073	2.722	97.796	69.977	**167.773**
2014	95.571	72.655	18.694	4.221	78.225	56.166	19.104	2.956	101.933	71863	**173.796**
2015	97.789	72.346	20.649	4.795	82.726	60.305	19.147	3.275	107.354	73.161	**180.516**
2016	98.854	72.416	21.678	4.760	86.122	62.845	19.866	3.410	104.915	80.061	**184.976**
2017	105.402	77.038	23.143	5.221	87.518	63.647	20.308	3.563	104.541	88.379	**192.920**
15-16 ald.	1,1	0,1	5,0	-0,7	4,1	4,2	3,8	4,1	-2,3	9,4	2,5
16-17 ald.	6,6	6,4	6,8	9,7	1,6	1,3	2,2	4,5	-0,4	10,4	4,3

Iturria: Ekonomia, Industria eta Lehiakortasun Ministerioa. Ekonomia-adierazleen laburpena Taulak eta Grafikoak, 6.4. Beteb. 2018ko otsaila

II.1.10. TAULA. AURREKONTUAREN BETEARAZPENA: ESTATUAK AITORTURIKO BETEBEHARRAK (milioi euro)							
	Langileria*	Zerbit. eta ondas. erosketa	Interesak	Ohiko transferentziak *	Kapital transferentziak	Inbertsioak	**Guztira**
2012	15.449	3.529	26.059	96.700	4.658	7.195	**153.589**
2013	15.708	3.190	28.410	101.314	7.163	5.457	**161.242**
2014	15.640	3.307	31.818	95.367	8.630	5.161	**159.922**
2015	16.088	3.511	31.745	91.291	9.730	5.281	**157.645**
2016	16.205	3.286	32.063	87.005	7.843	3.932	**150.333**
2017	15.966	3.472	30.325	85.379	8.241	5.603	**148.987**
2014-15 ald.	0,7	-6,4	1,0	-4,7	-19,4	-25,5	-4,6
2015-16 ald.	-1,5	5,7	-5,4	-1,9	5,1	42,5	-0,9

(*) Estatuak ordaindutako pentsioen trataerari dagokionez 2014an sartutako aldaketarekiko datu bateratuak.
Iturria: Ekonomia, Industria eta Lehiakortasun Ministerioa. Adierazle ekonomikoen laburpena Taulak eta Grafikoak, 6.4. Beteb. 2018ko otsaila

1.3.2. Autonomia erkidegoak

EINen Eskualde Kontabilitatearen datu ofizialen arabera, biztanleko BPG izendunari erreparatuta, Madrilgo Erkidegoak izan zuen kopururik handiena, 33.809 euro biztanleko 2017an. Ondoren datoz EAE (33.088 euro), Nafarroa (30.914 euro) eta Katalunia (29.936 euro). Beste muturrean, Extremadura (17.262 euro biztanleko), Melilla (17.945 euro), Andaluzia (18.470 euro) eta Ceuta (19.524 euro). Estatuko batez bestekoa 24.999 euro da.

Hona hemen kopuruetan BPGaren hazkunderik handienak izan dituzten eskualdeak 2017an: Aragoi (%3,6), Asturias (%3,5), Madril (%3,4), Katalunia eta Murtzia (biak %3,3arekin), eta Valentziako Erkidegoa eta Kantabria (biak %3,2arekin). Horietan guztietan, estatuko batez betekoak baino hazkunde erreal handiagoa izan zuten

II.1.11. TAULA. BPG-AREN HAZKUNDEA, ENPLEGUA ETA LANGABEZIA-TASAK AUTONOMIA ERKIDEGOETAN							
	Langabezia-tasa (16-64 urte)		BPG Bolumenaren aldakuntza		Per capita BPG		
					2016 a	2017 z	
	2016	2017	2016 a	2017 z	Estatua = 100	Estatua = 100	Per capita €
GUZTIRA	**19,8**	**17,3**	**3,3**	**3,1**	**100**	**100**	**24.999**
ANDALUZIA	29,0	25,7	2,8	2,7	73,9	73,9	18.470
ARAGOI	14,9	11,7	2,7	3,6	108,4	109,6	27.403
ASTURIAS	17,8	13,9	1,8	3,5	86,6	88,2	22.046
U. BALEARRAK	14,0	12,6	3,8	2,7	104,1	103,1	25.772
U. KANARIARRAK	26,2	23,6	3,0	2,9	82,3	81,7	20.425
KANTABRIA	15,0	13,6	2,4	3,2	89,6	90,1	22.513
GAZTELA-LEON	16,0	14,2	3,6	1,9	94,4	94,2	23.555
GAZTELA-MANTXA	23,6	20,8	3,5	2,5	78,3	78,7	19.681
KATALUNIA	15,8	13,5	3,6	3,3	119,7	119,7	29.936
VALENTZIAKO E.	20,7	18,3	3,5	3,2	88,2	88,2	22.055
EXTREMADURA	27,6	26,4	2,3	2,4	68,8	69,1	17.262
GALIZIA	17,3	15,8	3,6	3,1	89,5	90,0	22.497
MADRIL	15,8	13,4	3,6	3,4	136,3	135,2	33.809
MURTZIA	19,9	18,1	3,2	3,3	82,5	82,3	20.585
NAFARROA	12,6	10,3	3,1	2,8	124,6	123,7	30.914
EAE	**12,7**	**11,4**	**2,9**	**3,1**	**132,0**	**132,4**	**33.088**
ERRIOXA	13,6	12,1	1,0	1,8	105,1	104,2	26.044
CEUTA	25,0	22,6	1,6	1,6	79,8	78,1	19.524
MELILLA	30,9	27,9	1,7	1,7	73,0	71,8	17.945

a: aurrerapena. z: zenbatespena.
Iturria: EIN. Eskualde Kontabilitatea eta BJA

BPGan (estatukoa %3,1 da). AE eta Galizia (bakoitzean %3,1eko hazkunde-tasarekin, hots, estatuko batez bestekoaren mailan) kokatu ziren Valentziako Erkidegoarekin eta Kantabriarekin batera.

Estatu osoko langabezia-tasa (16 – 64 urtekoena) %17,3 izan zen 2017an (2016an baino 2,5 puntu gutxiago). 2016 eta 2017 bitartean, berriz ere egin du behera langabezia-tasak autonomia erkidego guztietan. Hona hemen tasarik txikiena dutenak: Nafarroa (%10,3), EAE (%11,4), Aragoi (%11,7), Errioxa (%12,1), Balearrak (%12,6), Madril (%13,4), Katalunia (%13,5) eta Kantabria (%13,6). Handienak, berriz, Melillan (%27,9), Extremaduran (%26,4), Andaluzian (%25,7), U. Kanariarretan (%23,6), Ceutan (%22,6), Gaztela-Mantxan (%20,8), Valentziako Erkidegoan (%18,3) eta Murtzian (%18,1).

ITURRIAK:

1. **NMF**. *Munduko ekonomiari buruzko aurreikuspenak.* 2018ko apirila. 2017ko datuak. Abagunekoa. Urterokoa Abagunekoa.
2. **EKONOMIA, INDUSTRIA ETA LEHIAKORTASUN MINISTERIOA**
   Adierazle ekonomikoen laburpena. 2018ko otsaila. 2017ko datuak. Abagunekoa. Urterokoa. Kointurala.
   Adierazle ekonomikoen laburpena. *Taulak eta grafikoak.* 2018ko otsaila. 2017ko datuak. Urterokoa. Abagunekoa
3. **ESPAINIAKO BANKUA**
   Estatistikak. 2017ko datuak. Urterokoa. Abagunekoa. Estatistikak. 2017ko datuak. Urterokoa
   Estatistika buletina. 2017ko datuak. Urterokoa. Abagunekoa
4. **EUROSTAT**. Datu-basea. 2017. Urterokoa. Abagunekoa
5. **EUROPAKO BANKU ZENTRALA.**
   Urteko txostena. 2018ko apirila. Urterokoa. Abagunekoa
   Ekonomi buletina, 2018ko maiatza. Hilerokoa. Abagunekoa
6. **EIN.** Nazio Kontabilitatea. 2017. Urterokoa. Abagunekoa
7. **EIN.** Eskualde Kontabilitatea. 2017. Urterokoa. Abagunekoa
8. **EIN.** EPA. 2017. Urterokoa. Abagunekoa

2. EAE-KO ABAGUNE EKONOMIKOA

Kapitulu honetan, lehenik eta behin, EAEko abagune ekonomikoaren bilakaera orokorra aztertuko da. Bigarren epigrafean, zehatzago aztertuko da barne-eskariaren agregatuen bilakaera, eta hirugarrenean, berriz, kanpo-eskaria. Azkenik, laugarren atala atzerriko inbertsioei buruzkoa da, atzerritarrek gure Erkidegoan eginiko inbertsioaren nahiz EAEk atzerrian eginiko inbertsioaren gainekoa.

2.1. BILAKAERA OROKORRA

EUSTATen "*Hiruhileko Ekonomia Kontuak*" deritzenen arabera, EAEko ekonomiak %2,9ko hazkunde erreala izan zuen 2017an (2016an baino bi hamarren gutxiago), eta haren BPGd-a, kopuru korronteetan, 73.643 milioi izan zen guztira.

Hiruhilekoen profilak hazkunderako joera erakusten du urtean zehar, zeren eta lehen hiruhilekoa urte arteko %2,8ko aldakuntza-tasarekin hasi eta laugarrenean %3ko tasarekin bukatu baitzen.

Atzera eginez, 2015-2017 hirurtekoan %3aren inguruko hazkundea izan da.

II.2.1. GRAFIKOA. EAE-REN BPG. ALDAKUNTZA-TASAK BOLUMEN KATEATUAN. SEC 2010. 2015EKO OINARRIA



Iturria: EUSTAT. HEK

Lurralde historikoen arabera, BPGaren eboluzioa 2017. urtean, EUSTATen datuekin bat, positiboa izan da ere bai. Arabak du hazkunderik handiena (%3) , eta ondoren Bizkaia (%2,9) eta Gipuzkoa (%2,8) dator.

Ekoizpenaren hazkundea handiagoa da EAEn eurogunean baino (%2,9, %2,4aren aldean), eta Estatukoa baino txikiagoa (%3,1). EINren Eskualde Kontabilitateak ere aldakuntza errealeko tasa izan zuen 2017an (urtetik urterakoa) euskal ekonomiarako, %3,1ekoa hain zuzen ere, Estaturako ratio bera.

a) Eskaria

Eskariaren gaineko azterketak %3,0ko barne-eskariaren hazkundea izan zuen, eta BPGaren %3,0ko hazkunde gehituta, esan daiteke kanpo-eskariak ekarpen nulua duela BPGaren hazkundean.

Barne-eskariaren aldakuntza-tasa positiboa izan zen 2017 osorako, Amaierako Kontsumoko Gastuaren nahiz Kapitalaren Eraketa Gordinaren gehikuntza oinarri hartuta.

Lehenbizikoa %2,8ko tasarekin hazi da, lau urtez aldakuntza positiboak izanda, baina beherazko joera izan da azken hiru urteetan. 2017an, erregistro positiboak izan dira, bai familien amaierako kontsumoko gastuan (azken hiru urteetako erregistroak positiboak dira, baina beheranzko joera erakusten dute, eta 2017an %3aren inguruan kokatu dira), bai herri administrazioen azken kontsumoko gastuak (%2,49).

Bestalde, kapitalaren eraketa osoa %3,5eko tasarekin hazi da, hots, 2016an erregistraturikoa baino lau hamarren gehiago. Bi bilakaera desberdin ikusten dira kapitalaren eraketa osoan: ekipamendu-ondasunen hazkundea kapitalaren gainerako eraketa osoarena baino handiagoa da, eraikuntzarekin lotuagoa. Hala ere, lehenbizikoa motelduz badoa ere, bigarrena haziz doa. Hala, ondasun-ekipamenduen KEOren hazkundea %4,7koa da. 2016an, berriz, %5,3koa izan zen (eta %7,3 2015ean). Bestalde, eraikuntza-ondasunen KEOren hazkundea %2,7koa da. 2016an, aldiz, %1,8 izan zen.

Kanpoko sektorearen bilakaeran, esportazioetan nahiz inportazioetan, urtetik urterako batez besteko aldakuntza positiboa izan zen. Esportazioak %3 handitu dira, aurreko urtean %1,7 hazi ondoren; inportazioetan, berriz, %3,1, aurreko urtean %1,5 izan ondoren. Hala, esportazioetan %1,5eko hazkundea izan zuten urteko lehen hiruhilekoan, eta laugarrenean, berriz, %4,8koa. Inportazioetan, bestalde, lehen eta laugarren hiruhilekoen artean jaitsiera izan zen, hain zuzen %1,9tik %4,8ra.

II.2.1. TAULA. EAE-KO EGOERA MARKOEKONOMIKOAREN BILAKAERA. 2015eko oinarria. SEC 2010.
Urte arteko aldakuntza-tasa. Urtaroko eta egutegiko ondorioetatik zuzendutako datuak

	2013	2014	2015	2016	2017 a	I	II	III	IV
BPG erreala merkatuko prezioetan	**-1,7**	**1,6**	**3**	**3,1**	**2,9**	**2,8**	**2,9**	**3,0**	**3,0**
Araba	-1,6	2,1	2,9	3,0	3,0	2,9	3,1	2,8	3,2
Bizkaia	-1,6	1,4	2,7	3,4	2,9	2,9	2,9	3,1	2,8
Gipuzkoa	-1,9	1,7	3,4	2,8	2,8	2,5	2,7	2,8	3,2
Eskaria									
Kanpo-eskaria (hazkundea)	-2	1,5	3,2	3,0	3,0	2,9	2,7	3,1	3,1
Amaierako kontsumoko gastua	-1,1	1,9	3,1	2,9	2,8	2,9	2,6	2,9	2,8
Etxeetako amaierako kontsumoko gastua	-0,9	2,3	3,3	3,1	3,0	3,0	3,0	3,0	2,8
AA.PP.etako azken kontsumoko gastua	-1,8	0,7	2,1	2,3	2,4	2,6	1,2	2,7	2,9
Kapitalaren Eraketa Osoa (KEO)	-4,9	-0,2	3,8	3,1	3,5	3,0	3,2	3,9	3,8
Kapital Finkoaren Eraketa Osoa eta objektu baliotsuak	-5	-0,2	3,8	3,1	3,5	3,0	3,2	3,9	3,8
Ekipamendu ondasunetan	-3,6	3,3	7,3	5,3	4,7	4,2	5,4	4,5	4,6
Eraikuntzako ondasunetan eta beste b.	-5,7	-2	1,9	1,8	2,7	2,2	1,9	3,5	3,4
Izakinen aldaketa	.	.	.	.					
Kanpo-saldoa									
Ondasun eta zerbitzuen esportazioa	1	5,9	1	1,7	3,0	1,5	1,9	3,7	4,8
Estatuko gainerakoak	2	1,3	1,8	3,7					
Atzerria	0,2	9,8	0,2	0,1					
Ondasun eta zerbitzuen inportazioa	0,4	5,5	1,4	1,5	3,1	1,9	1,8	3,9	4,8
Estatuko gainerakoak	-1,8	1,9	-0,8	1,9					
Atzerria	3,3	10	4,1	1					
Eskaintza									
Lehen sektorea	-3,1	-20	13,1	2,0	-3,0	4,2	-1,9	-1,9	-11,9
Industria eta energia	-2,8	2,2	3,1	2,9	2,7	2,0	2,3	2,7	3,7
Manufaktura-industria	-2,5	2,6	4,1	3,7	2,8	2,2	2,7	2,5	3,7
Eraikuntza	-4,6	-1,7	1,1	1,8	2,5	2,1	1,9	3,0	3,1
Zerbitzuak	-1	1,7	3,5	2,8	3,1	3,0	3,2	3,1	2,9
Merkataritza, Ostalaritza eta Garraioa	-1,5	1,9	5	3,3	3,7	3,9	3,7	3,8	3,1
Administrazio publikoa, hezkuntza, osasuna eta gizarte zerbitzuak	0,7	2,6	1,5	2,1	2,7	2,3	3,1	2,6	2,9
...Gainerako zerbitzuak	-1,6	1	3,6	2,8	2,8	2,7	3,0	3,0	2,7
Balio erantsi gordina, oinarrizko prezioa	-1,7	1,4	3,3	2,7	2,9	2,7	2,9	3,0	3,0
Produktuen gaineko zerga garbiak	-1,6	3,8	0,2	6,8	3,0	3,3	2,4	3,0	3,2
BPG nominala merkatuko prezioetan	**-1,3**	**2,2**	**3,2**	**3,4**	**3,9**	**3,7**	**3,7**	**4,0**	**4,3**
Lanpostu baliokideak. GUZTIRA									
Nekazaritza, Abeltzaintza eta Arrantza	-5,5	-1,3	-1	0,6	0,1	0,4	0,5	2,8	-3,4
Industria	-4	-1	1,3	1,7	1,7	1,8	1,9	1,7	1,6
Eraikuntza	-11,9	-3,4	2,2	0,0	1,6	1,8	1,6	1,5	1,6
Zerbitzuak	-1,6	1	2,4	2,1	2,2	2,1	2,2	2,3	2,2
Guztira	**-2,9**	**0,2**	**2,1**	**1,9**	**2,1**	**2,0**	**2,1**	**2,1**	**2,0**

(a) Aurrerapena
Iturria: EUSTAT. Ekonomia Kontuak eta Hiruhileko Ekonomia Kontuak (2018ko otsaila)

b) Eskaintza

Eskaintzaren aldetik, aldakuntza positiboak izan dituzte lau jarduera-sektore handiek, eta Zerbitzuen sektorea nabarmentzen da, %3,1eko hazkundea lortu baitu. Tasa horretatik nahikoa gertu Industriaren sektorea dago; izan ere, %2,7ko hazkundea izan du urte osoan. Halaber, Eraikuntzan nahiz Lehen Sektorean, aldakuntza positiboak izan dira, %2,5ekoak.

Industriaren sektorean, Manufaktura-industriak eutsi dio bilakaera globalari, eta %2,8ko tasarekin hazi da; hiru urtez jarraian metatu dira igoerak. Zerbitzuen sektoreko bilakaera positiboan, hiru azpisektorek hartu dute parte, eta dinamikoena Merkataritza, Ostalaritza eta Garraio arloa da, %376ko hazkundearekin. Bigarren tokian, Gainerako zerbitzuak deritzenak dira, %2,8ko hazkundea lortuta. Azkenik, Administrazio Publikoa, Hezkuntza, Osasun eta Gizarte Zerbitzuen adarrak izan du hazkunderik txikiena, orotara %2,7koa.

c) Enplegua

Enpleguaren bilakaera, lanaldi osoko lanpostu baliokideetan neurtua, positiboa izan da; izan ere, zenbatetsitako hazkundea %2,1ekoa izan da, batez beste, 2017an. Enpleguaren jokabiderik onena zerbitzuen sektorean kokatu da, hain zuzen ere %2,2ko hazkundearekin 2016ko batez bestekoaren aldean. Aipatzekoa da ere industriaren sektorearen bilakaera, %1,7ko hazkundearekin, eta oso gertatu eraikuntzarena (%1,6). Lehen sektoreak ez du lanposturik desegin, eta %0,1eko tasarekin hazi da.

d) Errentak, lan-kostuak eta produktibitatea

Gure ekonomian sortutako balio erantsia, hasieran, balio hori sortzeko lagungarriak izan diren ekoizpen-faktoreen artean banantzen da, honelaxe: soldatapeko lanaren ordainsaria, soldatapekoa ez den lanerako ustiapeneko soberakin garbia, kapital finkoko kontsumoa urtean zehar ekoizpen-ekipamenduan izandako balio-galeragatik eta, azkenik, herri administrazioari dagozkion ekoizpenarekin eta inportazioarekin (diru-laguntzenak, garbiak) loturiko zergak. Bigarren mailan, errenta hori pertsonen eta familien artean banantzen da ekoizpen-faktore horien eta jasotako errentetan duten jabetzaren partaidetzaren arabera.

Produktuaren banaketa funtzionalari dagokionez, EUSTATen "*Ekonomia Kontuek*" erakusten dutenez, BPGaren prezio korronteetako %3,4ko hazkundea erreferentziatzat hartuta 2016an (behin-behineko datuak), zerga garbiek %5,4 egin zuten gora, soldatapekoen errentak %3,4, ustiapeneko soberakin garbiak %1,6 eta kapital finkoko kontsumoak, berriz, %7,6.

Estatuko errenten bilakaeraren analisiak erakusten duenez (horren BPGa %3,6 hazi zen 2016an prezio korronteetan), aurten soldatetako errentek proportzio txikiagoan egin dute gora, %2,9 hain zuzen. Ustiapeneko soberarekin eta errenta mistoaren baturak %4,9 egin du gora; eta diru-laguntzen zerga garbiek (BPGarekiko duten proportzioa berdina da EAEn, %10,3) %1,4 egin dute gora (EAEn, berriz, %5,4 izan da).

II.2.2. TAULA, ERRENTAREN BANAKETA EAE-N ETA ESTATUAN. 2015EKO OINARRIA.

	Milioi euro				Bertik. %			Urteko aldak. %		
	2013	2014	2015	2016 b	2014	2015	2016 b	13/14	14/15	15/16
EAE										
1. Soldatapekoen ordainsaria	31.784	32.027	32.818	33.934	48,2	47,9	47,9	0,8	2,5	3,4
2. Ustiapeneko soberakin garbia	19.666	20.394	21.819	22.161	30,7	31,9	31,3	3,7	7,0	1,6
3. Kapital finkoaren kontsumoa	7.121	6.961	6.935	7.464	10,5	10,1	10,5	-2,3	-0,4	7,6
4. Diru-laguntzen zerga garbiak	6.352	6.997	6.924	7.298	10,5	10,1	10,3	10,2	-1,0	5,4
BPG-A MERKATUKO PREZIOETAN	64.923	66.378	68.497	70.857	100,0	100,0	100,0	2,2	3,2	3,4
ESTATUA										
1. Soldatapekoen ordainsaria	485.315	491.643	517.773	532.852	47,4	47,9	47,6	1,3	5,3	2,9
2. + 3. Ustiapeneko soberakin gordina / Errenta misto gordina*	440.354	441.823	449.136	471.020	42,6	41,6	42,1	0,3	1,7	4,9
4. Diru-laguntzen zerga netoak	100.024	104.354	113.089	114.650	10,1	10,5	10,3	4,3	8,4	1,4
BPG MERKATUKO PREZIOETAN	1.025.693	1.037.820	1.079.998	1.118.522	100,0	100,0	100,0	1,2	4,1	3,6

Iturria: EUSTAT "Ekonomia Kontuak" eta EIN "Espainiako Nazio Kontabilitatea".
** Soberakin garbiaren eta kapital finkoko kontsumoaren batura da Ustiapeneko Soberakin Gordina edo Errenta Misto Gordina.*
EAEn, bi aldagaiak ematen ditu EUSTATek, baina ez EINek Estaturako.

Lan-kostuei dagokienez, EINren "*Laneko Kostuen Hiruhileko Inkesta. LKHI*" [7] delakoak erakusten duenez, EAEn, %1,2 egin zuen gora enpresen laneko kostuak[8] 2017ko laugarren hiruhilekoan 2016ko epealdi beraren aldean (Estatuko hazkundea %0,7koa izan zen), eta 3.114,6 euroan kokatzen da langileko eta hileko, hots, 445,8 euro gehiago Estatuan baino.

II.2.3. TAULA. LAN-KOSTUEN BILAKAERA. KOSTUA LANGILEKO ETA MILAKO

	EAE				ESTATUA			
	I	II	III	IV	I	II	III	IV
2016	2.837,2	2.958,1	2.919,2	3.078,1	2.481,5	2.589,1	2.444,8	2.650
2017	2.859,4	2.920,4	2.951,6	3.114,6	2.481,8	2.584,6	2.454,3	2.668,8
% 16-17	0,8	-1,3	1,1	1,2	0,0	-0,2	0,4	0,7

Iturria: EINren datuekin eginikoa. LKHI.

Azkenik, laneko itxurazko produktibitatea[9], hain zuzen ere BPGaren bilakaeraren (2017an %2,9 hazi zen) eta lanaldi osoko lanpostu baliokideetako batez besteko enpleguaren (EUSTATen HEKen arabera %2,1 hazi zen azken urtean) arteko erlazio gisa kalkulatua, hazi egin zen, zeren eta ekoizpenak enpleguak baino gehiago egin baitzuen gora, %0,8 kopuru errealetan 2017an, aurreko urtean baino ehuneko bi hamarren gutxiago[10].

II.2.4. TAULA. LANEKO ITXURAZKO PRODUKTIBITATE ERREALAREN BILAKAERA EAE-N (BOLUMEN KATEATUA)

	LEHEN SEKT	INDUSTRIA	ERAIKUNTZA	ZERBITZUAK	GUZT.
2013	2,4	1,2	7,3	0,6	1,2
2014	-18,7	3,2	1,7	0,7	1,4
2015	14,1	1,8	-1,1	1,1	0,9
2016*	1,4	1,2	1,8	0,7	1,2
2017*	-3,1	1,0	0,9	0,9	0,8

Iturria: EUSTATen Hiruhileko Ekonomia Kontuak oinarri hartuta eginikoa.
(*) Behin-behineko datuak.

Hazkunde horren oinarria sektore guztietako produktibitatean izandako hazkundea izan da, lehen sektorekoan izan ezik. Industriakoa %1 hazi da (2016an, berriz, pixka bat handiagoa izan zen, +%1,2), eraikuntzarena %0,9 hazi da (aurreko urtean handiagoa izan zen igoera: %1,8koa) eta zerbitzuena %0,9 (2016ko igoera baino bi hamarren goitik). Lehen sektoreko produktibitateak, berriz, %3,1 egin du behera.

[7] *Inkesta hori oinarri hartuta, Lan-kostuen Indize Harmonizatua egiten da, EB osoan laneko kostuen neurri konparagarria.*

[8] *Industria, eraikuntza eta zerbitzuak (etxeetako jarduerak izan ezik hala nola enplegatzaileak eta lurraldez kanpoko erakundeetakoak).*

[9] *Produktibitate kontzeptua, ekoizpenaren eta hori lortzeko erabilitako baliabideen arteko erlazioa izanik, garrantzitsua da ekonomiaren lehiakortasuna neurtzeko. Kontzepzio erraza izan arren, zaila da kalkulatzen, zeren eta askotariko faktore determinanteak baitaude (biztanle landunen prestakuntza, kapital-ondasunen zuzkidura, baliabide horien erabilera eraginkorra eta beste faktore batzuekin uztartuta erabiltzea -instituzionalak, legalak, etab.-). Horregatik, zenbatespena egin da laneko itxurako produktibitate kontzeptua erabilita, hainbat ikuspegitatik neurtua.*

[10] *Bolumen kateatuko indizeko produktibitate erreala, EUSTATen datuetatik zenbatetsia.*

EAEk Europako testuinguruan duen lehia-posizioa erkatzeko, laneko produktibitatea hartzen da aintzat, hain zuzen BPGaren (erosteko ahalmenaren parekidetasunaren arabera) eta enpleguaren arteko erlazioa den aldetik. Informazioa dagoenez gero, badu abantaila bat: erraza da konparaziozko analisiak egitea, baina kasu honetan, mailaren arabera egiten da analisia, ez bilakaeraren arabera.

II.2.5. TAULA. LANEKO PRODUKTIBITATEA LANGILE, HERRIALDE ETA URTE BAKOITZEKO (27KO EB=100). (EROSTEKO AHALMENAREKIN BALIOKIDEA)

	2013	2014	2015	2016
28ko EB	100,0	100,0	100,0	100,0
Euro gunea	107,2	107,3	107,2	107,1
Espainia	103,4	103,4	102,2	101,9
EAE	**123,7**	**124,8**	**122,3**	**123,3**

B: behin-behinekoa. Iturria: EUSTAT eta EUROSTAT.

Adierazle horren arabera, EAEk 123,3ko indizea du, hots, Estatukoa baino %21,4 handiagoa da, 28ko EBkoa baino %23,3 handiagoa eta eurogunekoa baino %16,2 gorago dago.

e) Kontsumorako prezioak

2017ko otsailean, Kontsumorako Prezioen Indizea (KPI) argitaratzen hasi zen EIN 2016ko oinarria hartuta. Hala, ordura arte indarrean zegoen 2011ko aurreko oinarriaren lekua hartu du[11].Datu horien arabera, prezioen igoera aurreko urtekoa baino pixka bat txikiagoa izan zen 2017. urtearen amaieran. Hala, 2017ko abenduan +%1,1 izan zen. 2016ko abenduan, berriz, +%1,5ekoa izan zen.

II.2.6. TAULA. KONTSUMORAKO PREZIOEN INDIZEA TALDE NAGUSIEN ARABERA, 2016KO OINARRIKO URTE ARTEKO ALDAKUNTZA-TASA. ABENDUETAN

	EAE		ESTATUA
	2016	2017	2017
00 Aurkibide orokorra	**1,5**	**1,1**	**1,1**
01 Elikagaiak eta alkoholik gabeko edariak	0,7	1,7	1,7
02 Alkoholdun edariak eta tabakoa	0,8	1,8	1,7
03 Jantziak eta oinetakoak	0,9	0,3	0,5
04 Etxebizitza, ura, elektrizitatea, gasa eta beste erregai b.	0,4	1,1	1,3
05 Altzariak, etxeko gauzak eta etxeko ohiko mantendurako produktuak	0,8	-0,7	-0,5
06 Osasuna	0,7	0,4	0,4
07 Garraioa	4,6	2,0	1,9
08 Komunikazioak	3,3	0,3	0,2
09 Aisia eta kultura	0,9	-0,3	-0,6
10 Irakaskuntza	1,0	1,6	0,7
11 Jatetxeak eta hotelak	1,3	1,8	1,9
12 Beste ondasun eta zerbitzu batzuk	1,8	0,5	0,7

Iturriak: EIN

Antzeko kopurua dugu Estatu osoan ere; izan ere, bost hamarreneko jaitsiera ageri da aurreko hilearen aldean, hots, urte osoko tasarik txikiena da.

Kontsumorako prezioen indizearen igoera txiki horretan eragin handia izan zuen energiaren prezioen joerak: 2017ko abenduko igoerak txikiagoak izan ziren aurreko urteko hile berekoaren aldean. Hala, erregaien nahiz elektrizitatearen urte arteko aldakuntzak txikiagoak izan ziren. Mugimendu horien ondorioz, garraio eta etxebizitza taldeak (produktu horien prezioen aldaketak gehien ukitzen dituenak dira) izan ziren inflazioaren jaitsieran gehien eragin zutenak. Horiekin batera, aisia eta kultura taldea izan zen; izan ere, balio negatiboak izan zituen, pakete turistikoen prezioen igoera txikiagoaren ondorioz.

Alabaina, urteko batez besteko inflazioa %2an kokatu zen, aurreko urteetakoa baino handiagoa.

[11] *Oro har, oinarri aldaketarekin egin diren aldaketei esker, hurbilketa hobea izan daiteke inflazioaren dinamikan, baina serieak desagregatuago hausturak zenbait erronka dakartza epe laburrera azterketa xehatuagoa egiteko.*

2016ko oinarri aldaketan, KPIaren oinarrizko zenbait alderdiren berrikuspena lantzen da. Horien artean nabarmentzekoa da kontsumo-eremuaren definizioa, Kontuen Europako Sistemari lotzen zaion (EKS), eta etxeetako gastua kopuru netoetan hartzen da (hots, familiek jasotzen dituzten dirulaguntzak eta kontraprestazioak kenduta), gordinetan izan beharrean; etxeen arteko transakzioak kendu eta ausazko jokoak sartzen ditu. Urte arteko artikuluen trataera ere aldatu da: kontsumoko otzarako gainerako produktuetakoa dela ezartzen du. Era berean, haztapenen egitura erabat berrikusi da eta artikulu berriak sartu dira, nagusiak izan behar zirenak kenduta. Halaber, ECOICOP (European Classification of Individual Consumption according to Purpose) hartu da aintzat. Azkenik, prezioen denborako serieen esteka egin da.

Haatik, ezkutuko inflazioak[12], prezioen joera erakusteko adierazle egokiagoa denak, ia egonkor eutsi zion +%1,1aren inguruan. Talde horren barruan, landutako elikagaiek aldakuntza nulua erakusten dute, zerbitzuek %1,7 egin dute gora eta industrialek %0,3.

Hondar-inflazioak, berriz, +%6,5eko batez besteko hazkundea izan du, erregaietan eta elikagai freskoetan gertaturiko igoeren ondorioz.

Bestalde, EBren Kontsumorako Prezioen Indize Harmonizatuaren[13] (KPIH) 2017ko abenduko datuek erakusten dutenez, Estatu osoan, %1,2ko hazkundea izan da 2016ko abenduaren aldean. 28ko EBn, berriz, prezioen igoera +%1,7koa izan da, eta euroguneko ratioa +%1,4koa izan da. Hortaz, gure Erkidegoak nahiz Estatuak EBBko erreferentziarekiko duten diferentziala ehuneko hiru hamarren negatibokoa izan da.

II.2.7. TAULA. KONTSUMORAKO PREZIOEN INDIZEAREN BANAKAPENA. 2016KO OINARRIA. URTE ARTEKO ALDAKUNTZA-TASAK. URTEKO B.B.

	2016	2017
INFLAZIOA GUZTIRA (%100)	**0,0**	**2,0**
EZKUTUKO INFLAZIOA (%82,6)	0,9	1,1
- Elikagai landuen KPI (%14,1)	0,9	0,0
- Ondasun industrialen KPI (%26,6)	0,8	0,3
- Zerbitzuetako KPI (%41,9)	1,1	1,7
HONDAR-INFLAZIOA (%17,4)	-4,2	6,5
- Landu gabeko elikagaien KPI (%6,8)	2,6	3,7
- Energiako KPI (%10,6)	-8,2	8,2

Iturria.- EUROSTAT

II.2.8. TAULA. KPIA. URTE ARTEKO ALDAKUNTZA-TASAK. 2015EKO OINARRIA (2015=100)

	2013 abendua	2014 abendua	2015 abend.	2016 abend.	2017 abend.
28ko EB	1,0	-0,1	0,2	1,2	1,7
Euro gunea	0,8	-0,2	0,2	1,1	1,4
Espainia	0,3	-1,1	-0,1	1,4	1,2

Iturria: EUROSTAT

Produktibitatea EBrekin, Estatuarekin eta EBko estatuekin konparatzeko azterketen eta KPIHren gaineko informazio gehiago izateko, jo beza irakurleak kapitulu honetara: "*II.1. Kanpoko Ingurune Ekonomikoa*".

2.2. BARNE-ESKARIAREN AGREGATUAK

Arestian esana dugunez, barne-eskarian hainbat urtez jaitsierak izanda, 2014an gora egin zuen, %1,5, eta %3,2 2015ean. Hala ere, azken bi urteetan %3ko batez besteko igoerari eusten zaio.

BPGaren hazkundea gertatu da, oinarri-oinarrian, barne-eskariaren jokabideagatik, ondoko taulan agerian gelditzen denez. Barne-eskariaren %3ko hazkundeak eta BPGaren %2,9ko igoerak ekarpen negatibo txikia eragin du kanpoko eskariak BPGan duen hazkundean.

II.2.2. GRAFIKOA. BARNEKO ETA KANPOKO ESKARIAK BPG-AREN HAZKUNDEARI EGINIKO EKARPENA.



Iturria: Eustat. Ekonomia Kontuak

Dagoeneko esana dugunez, amaierako kontsumoko gastuaren nahiz kapitalaren eraketa osoaren hazkundean oinarritu da Kanpo-eskariaren aldakuntza-tasa positiboa 2017 urte osoan. Alabaina, nabarmentzekoa da amaierako kontsumoko gastua nahiz etxeen amaierako kontsumoko gastua eta ondasun-ekipamenduen inbertsioen hazkundeak motelduz joan direla azken hiru urteetan.

[12] *Ezkutuko inflazioa adierazlea da, eta guztizko inflazioak baino zehaztasun handiagoarekin erakusten du kontsumoko prezioen aldagarritasuna. Produktu energetikoei eta landu gabeko produktuei (frutak, barazkiak…) dagokien zatia deskontaturik kalkulatzen da, hondar-inflazioa baitira.*

[13] *Kontsumorako Prezioen Indize Harmonizatuak (KPIH) Europar Batasuneko inflazioaren batez besteko komuna ematen du.*

Kanpo-eskariaren osagaien hiruhileko profilak erakusten duenez, 2017an, aldakuntza positiboak daude horietan guztietan, baina profil desberdinekin.

Alabaina, amaierako kontsumoko gastuaren bi osagaien bilakaera aztertzean ikusi dugunez, kontsumo pribatuak %3kok hazkundea izan du lehen hiru hiruhilekoetan eta behera egin du laugarrenean, 2 hamarren hain zuzen. Hala, herri administrazioen gastua, urteko lehen hiruhilekoan, %2,6ko aldakuntza-tasarekin hasi da, eta %1,2koa da bigarrenean, hirugarrenean berriz ere positiboagoa da eta laugarrenean, azkenik, %2,9ko hazkunde-ratioa izan da (hala ere, aintzat izan behar dugu magnitude horrek gorabehera handiak izan dituela bere bilakaeran, ordainketen egutegiak baldintzatuta).

II.2.3. GRAFIKOA. BARNEKO ESKARIA. ALDAKUNTZA ERREALEKO URTE ARTEKO TASAK



Iturria: EUSTAT. Ekonomia Kontuak

Inbertsioari dagokionez, hona hemen ondasun-ekipamenduen inbertsioaren hiruhilekoen profila: lehen hiruhilekoan %4,2ko hazkundea, bigarrenean %5,4raino iristen dena. Hirugarren hiruhilekoan, berriz, moteldu egiten da hazkundea (%4,5), eta berriz ere pixka bat hobetu laugarrenean (%4,6). Bestalde, gehienbat eraikuntzarekin loturiko ondasunen inbertsioa, urteko lehen hiruhilekoan, %2,2ko aldakuntza-tasarekin hasi zen, bigarrenean moteldu egiten da eta aldakuntza-tasa %1,9koa da. Bide positiboagora itzuli da hirugarren hiruhilekotik aurrera, eta laugarrenean, azkenean, %3,4ko hazkunde-ratioa izan da.

Erakutsitako informazioaren ildotik, EUSTATen emandako informazioaren arabera, nolabaiteko moteltzea erakusten dute kontsumoko eta inbertsiorako zenbait adierazle koiunturalek.

Hala, kontsumo pribatuko gastuaren hazkundeak jaitsiera txikia izan du. Kontsumoko ondasunen IPIa %2,2 hazi da, noiz-eta 2016an %0,3 egin zuzenean behera, eta txikizkako merkataritza indizea, prezio iraunkorretan, %0,8, 2016an baino 7 hamarren gutxiago.

Bestalde, hoteletako gau-emateen kopuruak (EAEko berezko bidaiariak baztertuta) %4,4 egin du gora, eta lau urtez jarraian hazkundeak metatu dituzte. Hala ere, 2016an (%10,8) eta 2015ean (%8,6) egiaztaturikoa baino ratio handiagoa erregistratu da. Alabaina, EAEko berezko bidaiarien hoteletako gau-emateen kopuruak %11,5 egin du behera berriz ere.

Inbertsio-adierazleei dagokienez, Ekipamendu-ondasunen Industria-ekoizpenaren indizeak %0,2 egin du behera. 2016an, berriz, %7,8ko igoera izan zen aldian, baino %1,3 gehiago.

II.2.9. TAULA. BARNE-ESKARIAREN ZENBAIT ADIERAZLEREN BILAKAERA (urteko arteko aldakuntza tasa)

	2014	2015	2016	2017 p
Kontsumo publikoaren adierazleak				
AA.PP.en kontsumoko gastuak (HEKen arabera)	0,7	2,1	2,3	2,4
Kontsumo pribatuaren adierazleak				
Kontsumo pribatuko gastua (HEKen arabera)	2,3	3,3	3,1	3,0
Kontsumorako ondasunen IPI	-1,5	4,9	-0,3	2,2
Txikizkako Merkataritzako Salmenten Indizea (p. k.)	0,0	1,7	1,5	0,8
Beste batzuk				
Gau-emateak hoteletan (EAEri dagozkionak aparte utzita)	4,0	8,6	10,8	4,4
Gau-emateak hoteletan (EAEko bidaiarienak)	4,3	5,7	-4,3	-11,5
Inbertsioaren adierazleak				
Ekipo-ondasunen IPI	2,2	7,3	7,8	-0,2

b: behin-behinekoa
Iturria: EUSTAT

2.3. KANPO-ESKARIA

"*Kanpo-merkataritzaren Estatistikak" (Aduanen erregistroetan oinarrituta)* atzerriarekin eginiko ondasunen kanpoko merkataritzari buruz eskainitako behin-behineko datuek erakusten dutenez, %10,5 hazi da esportazioen balio korrontea 2017an (23.856,7 milioi euro bilduta orotara, 2016an baino 2.261 gehiago), eta energiakoak ez direnetan %8,7 hazi da (guztizkoaren %90,08a) eta energiakoetan, berriz, %32,2koa izan da. Esportazioen urteko kopuru hori serie historikoko handiena da 1990. urteaz geroztik.

Bestalde, guztizko inportazioek %20,5 egin zuten gora (18.652,6 milioi euro guztira, 2016an baino 3.169 milioi euro gehiago), non energiakoen inportazioetan balioak, guztizkoaren %73,1ekoa denak, %11,4 egin zuten gora eta, energiakoak ez direnenak, berriz, %54,5 egin zuen gora.

EAEko energiakoak ez diren esportazioen aduana-sarien taldeko azterketan agerian gelditu denez, lehenik eta behin Ekipamendu-ondasunak nabarmentzen dira, esportaturiko guztizkoaren %48,2 (makinak, 4.602,7 milioi euro, eta garraio materiala, 6.898,4 milioi euro). Alabaina, garraio materialen esportazioa hazi egin da (%13,5); makina eta aparatuenak, berriz, %3,2. Aldi berean, nabarmentzekoa da metal komunen eta manufakturen esportazioa guztizkoaren %22,2 da, eta %15,1 hazi da. Aurreko esportazioetatik urrunago dagoen rankingean, plastikoak eta kautxua nabarmentzen dira, guztizkoaren %6,2 izanik, eta horren aldakuntza-tasa negatiboa da (-%4,4).

Energiakoak ez direnen esportazioei dagokienez, Ekipamendu-ondasunak ere nabarmentzen dira (makinak eta aparatuak, 3.439,9 milioi euro, eta garraio materiala, 1.317.2 milioi euro), hots, inportazio guztien %25,5. Izan ere, inportazioek gora egin dute bi kasuotan: makinak eta aparatuak (%3,1) eta garraio materiala (%11,7). Aldi berean, metal komunak eta horren manufakturak nabarmentzen dira, inportazio guztien %20,5 baitira, baina haien inportazioak behera egin du, %21,6 hain zuzen ere.

Kanpo-saldoak, 2017an, 5.204 milioi euroko superabita izan du (2016an bildutakoa baino 907,9 milioi euro gutxiago). BPGaren gaineko ehunekoetan adierazita, %7,1 da, 2016ko ratioa (%8,6) baino %1,5 txikiagoa.

Ondasun eta produktu energetikoen eta ez-energetikoen artean bereizita, esan daiteke saldo energetikoa defizitarioa (-2.813,6 milioi euro) izan zela. Energiakoak ez diren produktuenetan, berriz, atzera erregistratu da superabitata, 8.017,6 milioi eurokoa, hots, BPGaren %10,9, 2016an izandakoaren ratio bera.

Lurraldez lurralde, EUSTATen arabera, bilakaera berdina izan da 2017an. Hala, Araban gora egin dute inportazioek nahiz inportazioek, %6,0 eta %8,9 hurrenez hurren. Bizkaian ere gauza bera, %19,5eko igoera lehenengoetan eta %29,3koa bigarrenetan. Gipuzkoan joera bera, %4,3ko eta %%11,2ko hazkundeekin.

II.2.10. TAULA. EAE-KO ONDASUNEN ETA ZERBITZUEN KANPOKO MERKATARITZA ATZERRIAREKIKO (MIILIOI euro) (aduana-sarien atalen araberako sailkapena)

		ESPORTAZIOAK				INPORTAZIOAK				SALDOA	
		2016 (p)	2017 (b)	Bert. %	Aldak.	2016 (b)	2017 (b)	Bert. %	aldak.	2016 (b)	2017 (b)
		Milioi euro				Milioi euro				Milioi euro	
Guztira		**21.595,6**	**23.856,7**		**10,5**	**15.483,7**	**18.652,6**		**20,5**	**6.111,9**	**5.204,0**
TARIK-en (TARIFA INTEGRATU KOMUNITARIOA) MUGA-ZERGAKO TALDEEN SAILKAPENA)											
Prod. energetikoak (TARIK-en 27. kap.)		1.669,5	2.206,6	9,2	32,2	3.250,3	5.020,2	26,9	54,5	-1.580,8	-2.813,6
Produktu ez-energetikoak (Tarifen gainerako kapituluak)		19.926,1	21.650,0	90,8	8,7	12.233,4	13.632,4	73,1	11,4	7.692,7	8.017,6
MUGA-ZERGEN ATALEN ARABERAKO SAILKAPENA											
		M€	M€	Bert. %	Aldak.	M€	M€	Bert.%	Aldak.	M€	M€
1. Animalia biziak eta animalien produktuak	Nekazaritza produk.	242,9	241,4	1,0	-0,7	389,8	440,1	2,4	12,9	-146,8	-198,8
2. Landare-produktuak		50,2	63,0	0,3	25,4	132,7	117,0	0,6	-11,8	-82,5	-54,0

II.2.10. TAULA. EAE-KO ONDASUNEN ETA ZERBITZUEN KANPOKO MERKATARITZA ATZERRIAREKIKO (MIILIOI euro) (aduana-sarien atalen araberako sailkapena)											
3. Mea edo landare koipeak eta olioak		35,0	19,3	0,1	-44,8	159,1	209,4	1,1	31,7	-124,1	-190,1
4. Elikagai industrietako produktuak eta tabakoa		591,8	620,9	2,6	4,9	315,0	337,7	1,8	7,2	276,8	283,2
5. Mea produktu energetikoak*		1.737,7	2.285,8	9,6	31,5	3.411,4	5.177,4	27,8	51,8	-1.673,7	-2.891,7
6. Produktu kimikoak		546,8	574,9	2,4	5,1	1.092,3	1.232,3	6,6	12,8	-545,6	-657,4
7. Plastikoak eta kautx.		1.539,6	1.472,2	6,2	-4,4	823,8	910,7	4,9	10,5	715,8	561,5
8. Larruak, larrugintza eta horien manufaktura		5,8	6,4	0,0	9,3	21,4	21,5	0,1	0,5	-15,6	-15,1
9. Zura, landare-ikatza, kortxoa eta horien manufakturak		88,9	106,8	0,4	20,2	88,0	96,0	0,5	9,1	0,9	10,8
10. Papera		598,3	616,2	2,6	3,0	375,6	398,9	2,1	6,2	222,7	217,3
11. Ehungintza eta horren manufakturak		103,6	128,2	0,5	23,7	269,1	303,6	1,6	12,8	-165,5	-175,3
12. Oinezkoak eta jantzi-osagarriak		11,3	12,2	0,1	8,4	50,8	55,2	0,3	8,7	-39,5	-43,0
13. Eraikuntza mater., zeramika eta beira		298,8	321,3	1,3	7,5	132,0	148,9	0,8	12,8	166,8	172,4
14. Bitxigintza eta bis.		14,6	13,5	0,1	-8,0	41,9	56,5	0,3	34,8	-27,3	-43,0
15. Metal komunak eta horien manufakturak		4.609,8	5.306,1	22,2	15,1	3.148,9	3.828,4	20,5	21,6	1.460,9	1.477,7
16. Makinak eta aparatuak	Ondasun-ekip.	4.458,4	4.602,7	19,3	3,2	3.335,0	3.439,9	18,4	3,1	1.123,4	1.162,8
17. Garraio materiala		6.075,7	6.898,4	28,9	13,5	1.179,3	1.317,2	7,1	11,7	4.896,4	5.581,2
18. Optika eta zehaztasuneko tresnak eta aparatuak		186,8	212,6	0,9	13,8	297,4	321,4	1,7	8,1	-110,6	-108,8
19. Armak eta muniz., zatiak eta osagarriak		84,7	88,9	0,4	5,0	34,9	35,4	0,2	1,5	49,8	53,5
20. Askotariko salgaiak eta produktuak		177,2	182,6	0,8	3,0	180,0	201,4	1,1	11,9	-2,8	-18,8
21. Arte, bilduma edo antzinako objektuak		2,4	1,0	0,0	-60,2	1,1	1,4	0,0	23,3	1,3	-0,4
Sailkatu gabeak		135,3	82,4	0,3	-39,1	4,1	2,4	0,0	-41,7	131,3	80,0

** Muga-zergen atalen arabera, 5. atala, Produktu eta mea energetikoak eta bolumena, ez da TARIKen 27. kapituluaren berdina*
Iturria: EUSTAT. Kanpo-merkataritzaren Estatistika-ECOMEX..*

Area geografikoei jarraiki, 28ko EBri salmentak (eurogunerakoen %8,6) %9.4 hazi ziren 2017. urtean, eta esportazioetan, berriz, %13,4koa (eurogunetik datozenen %7,8).

Esportatzaileen rankingean lehen tokiak hartzen dituzten EBko herrialdeetan (hots, gure kanpo-merkataritzan pisu handiena dutenak) hazkundeak izan dira, eta bereziki nabarmentzen dira jomuga hauetakoak: Herbehereak (%24,1), Erresuma Batua (%16,6), Belgika (%12,9) eta Alemania (%12,4). Inportazioetan, nabarmentzekoa da Erresuma Batuetatik datozenetan (%62,8) –gehienak (%60) energetikoak – izandako gorakada handia eta Frantzia (%12,0), Irlanda (%10,1), Italia (%7,7) eta Alemania (%6,8) herrialdeetako hazkundeak.

Gainerako herrialdeetan, esportazioek gora egin dute Mexiko (+%37,7), Turkian (+%25,5) eta AEBn (+%18,5). Kontrakoetan, berriz, hauexetako inportazioen hazkundea nabarmentzen da: Norvegia (%155,8), Nigeria (%154,0) eta Mexiko (%40,5), horiek guztiak energiakoak. Txinak lehen tokiari eusten dio inportatzaileen rankingean (1.049 milioi).

II.2.11. TAULA. EAE-KO ESPORTAZIOEN JOMUGA ETA INPORTAZIOEN JATORRIA. BAZKIDE KOMERTZIAL NAGUSIAK (MILA eurotan)										
	ESPORTAZIOAK					INPORTAZIOAK				
	2016	2017 B	Pisua 2016	Pisua 2017	Aldak. 2016-17	2016	2017 b	Pisua 2016	Pisua 2017	Aldak. 2016-17
GUZTIRA	**21.595.648**	**23.856.666**	**100**	**100**	**10,5**	**15.483.749**	**18.652.648**	**100**	**100**	**20,5**
28KO EB	14.178.859	15.515.268	65,7	65,0	9,4	9.311.543	10.557.284	60,1	56,6	13,4
EUROGUNEA	11.294.105	12.261.630	52,3	51,4	8,6	7.651.732	8.251.696	49,4	44,2	7,8
ELGA	17.603.208	19.467.424	81,5	81,6	10,6	10.909.369	12.849.884	70,5	68,9	17,8
ALEMANIA	3.360.023	3.775.467	15,6	15,8	12,4	2.606.786	2.783.049	16,8	14,9	6,8
BELGIKA	873.615	986.550	4,0	4,1	12,9	321.866	387.119	2,1	2,1	20,3
FRANTZIA	3.583.929	3.693.804	16,6	15,5	3,1	1.618.008	1.812.194	10,4	9,7	12,0
IRLANDA	88.190	124.439	0,4	0,5	41,1	641.444	706.141	4,1	3,8	10,1
ITALIA	1.077.602	1.100.425	5,0	4,6	2,1	863.683	930.302	5,6	5,0	7,7
ERRESUMA B	1.296.686	1.511.955	6,0	6,3	16,6	814.135	1.325.744	5,3	7,1	62,8
TXINA	530.092	535.668	2,5	2,2	1,1	1.042.937	1.049.146	6,7	5,6	0,6
AEB	1.537.020	1.820.755	7,1	7,6	18,5	374.423	444.640	2,4	2,4	18,8
MEXIKO	474.688	653.771	2,2	2,7	37,7	500.857	703.918	3,2	3,8	40,5
NIGERIA	5.823	5.146	0,0	0,0	-11,6	183.963	467.235	1,2	2,5	154,0
NORVEGIA	157.148	193.038	0,7	0,8	22,8	185.299	473.956	1,2	2,5	155,8
HERBEHEREAK	608.647	755.168	2,8	3,2	24,1	582.843	650.117	3,8	3,5	11,5
TURKIA	366.332	459.801	1,7	1,9	25,5	128.629	137.092	0,8	0,7	6,6

B. behin-behineko datuak. Iturria: EUSTAT. Kanpo-merkataritzaren Estatistika

2.4. ATZERRIKO INBERTSIOA

Ekonomia eta Lehiakortasun Ministerioko Kanpoko Inbertsioen Erregistroaren datuen arabera[14], 2017. urtean, 2.616 milioi eurokoa izan zen EAEn atzerriko inbertsioa, gure Erkidegoak atzerrian inbertitu zituen 1.182 milioien aldean.

II.2.12. TAULA. ATZERRIKO INBERTSIOA EAE-N ETA EAE-KO INBERTSIOA ATZERRIAN: ERKAKETA (mila eurotan) (Atzerriko balioak dituzten enpresak deskontaturik)*							
	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2017 b
Atzerriko inbertsioa EAEn	528.404,9	430.489,4	1.095.889,5	1.411.089,0	834.650,8	1.531.813,8	2.616.062,9
EAEko inbertsioa atzerrian	5.403.289,2	444.752,0	1.308.679,5	726.330,67	510.354,5	3.222.871,6	1.182.034,6

** ABDE deskontatuta.*
b. behin-behineko datuak
Iturria: Kanpo-inbertsioen Erregistroa. Ekonomia eta Lehiakortasun Ministerioa eta geuk eginikoa

2.4.1 Atzerriko inbertsioa EAEn

Ekonomia eta Lehiakortasun Ministerioaren Kanpo-inbertsioen Erregistroko datuen arabera, atzerriko inbertsioa EAEn behera egin zuen 2016 eta 2017 urte bitartean, atzerriko balioak dituzten enpresak deskontaturik (ABDE[15]), %70,8 hain zuzen ere. Beraz, bi urtez jarraian igoerak izan ziren. Orotara, 2017. urtean EAEk 2.216 milioi euro jaso zituen. Horren zatirik handiena energia elektrikoa, gasa, lurruna eta aire egokitua hornitzeko sektoreari dagokio.

Estatuko datuaren gainean EAEk duen proportzioa hazi egin da: 2016ko %6tik 2017ko %11. Madrilgo Erkidegoak jasotzen duen inbertsioa deskontaturik, %28,3rainokoa da, %11 2016an.

[14] *Estatistika honek atzerriko inbertsiotzat jotzen du Estatuko inbertsioa eta, beraz, EBkoa eta ELGAkoa sartzen dira kopuru horietan.*

[15] *ABDE: bere sozietate xedean, Espainiako lurraldeko egoiliarrak ez diren erakundeen berezko funtsen balio nagusiak kudeatzeko eta administratzeko jarduera bildu behar da, betiere baliabide materialak eta giza baliabideak antolatuta. ABDEen zerga-araubidea dela-eta, zergak ordaintzetik salbuetsita daude Euskadiko egoiliarrak ez diren sozietateen dibidenduak eta sozietate horietako partaidetzen salmentaren ondoriozkoa errentak.*

Hala ere, 2017. urtean, EAEk hirugarren lekua hartu du inbertsio-bolumenean, Madrilen atzetik (14.520,5 milioi euro jasotzen baititu, ABDEak kenduta) eta Kataluniaren atzetik, 3.093 milioi euro jasotzen baititu.

II.2.4. GRAFIKOA. ATZERRIKO INBERTSIO GORDINA* EAE-N



**ABDEak deskontaturik. Iturria: Kanpoko Inbertsioen Erregistroa*

II.2.13. TAULA.ATZERRIKO INBERTSIO GORDINA* AA.EE.EN ARABERA (mila euro)

	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2017 b
Guztira	**28.731.931,1**	**14.728.846,2**	**17.270.768,2**	**20.379.848,8**	**24.784.982,0**	**25.601.737,9**	**23.757.635,3**
Andaluzia	636.734,1	612.909,5	346.837,5	342.589,5	593.672,6	456.080,1	428.037,1
Aragoi	38.342,4	151.294,2	168.692,1	113.774,4	79.148,7	37.827,6	83.364,4
Kantabria	20.122,5	22.032,6	15.545,3	8.782,9	8.946,6	20.342,0	1.106,7
Gaztela eta Leon	190.503,7	17.407,0	175.741,0	149.076,9	44.316,1	66.221,9	54.326,2
Gaztela-Mantxa	462.594,0	51.657,2	24.542,9	129.903,7	54.262,9	104.451,2	180.678,3
Katalunia	3.058.346,7	2.709.010,8	3.660.018,2	3.052.120,9	5.378.161,0	5.137.556,5	3.093.007,8
Ceuta eta Melilla	35,7	1.399,8	368,3	3.660,1	16.288,6	605,4	475,3
Madril	17.444.144,2	9.363.449,3	8.860.582,1	10.877.086,3	10.876.374,8	11.640.890,0	14.520.552,4
Valentzia	397.777,6	102.481,6	173.541,7	823.252,8	257.751,5	169.800,0	1.158.761,1
Extremadura	36.260,3	31.554,2	15.951,3	250.369,8	44.193,8	62.130,6	23.956,1
Galizia	219.165,1	184.421,5	227.334,9	54.796,3	86.109,1	102.379,5	106.053,0
U. Balearrak	424.682,4	294.768,1	784.149,0	272.781,9	274.707,8	570.961,1	318.327,8
U. Kanariarrak	90.993,5	70.431,6	45.428,3	147.743,0	87.587,7	43.791,0	187.345,4
Errioxa	2.549,6	10.267,5	62.219,3	3.358,3	30.751,2	7.618,7	25.442,6
Nafarroa	49.302,3	161.338,7	19.007,3	28.680,0	19.308,7	836.299,3	46.952,2
EAE	**528.404,9**	**430.489,4**	**1.095.889,5**	**1.411.089,0**	**834.650,8**	**1.531.813,8**	**2.616.062,9**
Asturias	505.266,8	62.737,4	872.497,6	487.173,4	1.510.222,8	292.492,4	31.698,4
Murtzia	72.065,1	24.572,4	52.622,2	43.853,6	517.169,3	67.210,9	37.685,9
ESLEITU BARIK	4.554.640,5	426.623,5	669.799,9	2.179.756,2	4.071.358,2	4.453.265,8	843.801,8

(*)Inbertsioa osoa ABDE gabe. b. behin-behineko datuak
Iturria: Kanpoko inbertsioen erregistroa. Ekonomia, Industria eta Lehiakortasun Ministerioa

Sektoreen ikuspegitik, bereziki nabarmenak dira guztizkoan duen pisuagatik honako hauetan eginikoak:

- Argindarraren, gasaren, lurrunaren eta aire egokituaren hornidura: EAEn eginiko inbertsioaren %86,4 eta Estatuan sektorearen eginikoaren %92,5.
- Informazioa eta komunikazioak: EAErako inbertsioen %9,7 dira eta sektore horrek Estatuan eginikoaren %12,6.
- Metalgintza eta metalezko produktuen fabrikazioa: EAEn eginiko inbertsioaren %2,2 eta sektore horretan Estatuan eginikoaren %27,1.

Lurraldeen aldetik, ELGAko herrialde batean kokatzen da, kasuen %99,1ean, inbertsioaren azken titularra bizi deneko herrialdea, 15eko EBko batean kasuen %96,1ean eta %2,2 Mexikokoa da.

15eko EBko herrialdeen artean, bereziki Alemania nabarmentzen da, 1.905.275 euroko inbertsioarekin (EAEn jasotako guztizko inbertsioaren %72,8).

Alemaniako inbertsio hori ia guztia Gamesa eta Siemens Wind Power bat-egiteari dagokio. 2017ko apirilaren 3an gauzatu zen bat-egitea.

II.2.14 TAULA. EAE-N EGINIKO INBERTSIO OSOA* ETA ESTATUAN EGINIKOAREN GAINEKO PARTAIDETZA SEKTOREEN ARABERA (mila €-tan)

	EAE			Estatua	Banaketa	Estatuar	ALDAKUNTZA EAE	
	2015	2016	2017 b	2017 b	EAE	ekiko %	%15-16	%16-17
A. Nek. Abel. Basog. eta Arrantz	0,0	0,4	2.922,5	313.166,3	0,1	0,9		664.093,2
B. Erauzketa-industriak	0,0	20.229,7	0,0	29.512,5	0,0	0,0		-100,0
C. Elikadura, edariak eta tabakoa	43.840,0	56.232,1	0,0	707.769,3	0,0	0,0	28,3	-100,0
C. Ehungintza eta jantzigintza	0,0	0,0	0,0	199.120,8	0,0	0,0		
C. Larrugintza eta zapatagintza	0,0	0,0	0,0	818,0	0,0	0,0		
C. Egurraren eta artelazkiaren industria, altzariak, saskigintza eta espartzugintza salbu	5,5	1,5	0,0	3.297,7	0,0	0,0	-72,7	-100,0
C. Papergintza eta arte grafikoen industria	3.505,4	0,0	0,0	14.013,8	0,0	0,0	-100,0	
C. Kokegintza eta petrolio-finketa	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0			
C. Ind. Kimikoak eta kautxu eta plastiko transf	34.249,4	4.102,7	0,0	486.884,6	0,0	0,0	-88,0	-100,0
C. Prod. Farmaze. Fabrik.	0,0	0,0	0,0	212.234,4	0,0	0,0		
C. Metalurgia eta produktu metalikoen fabrik.	66.378,7	99.558,5	537,3	495.081,0	0,0	0,1	50,0	-99,5
C. Prod. Informatikoen, elektronikoen eta optik. fabrik	3,0	345,2	0,0	81.843,8	0,0	0,0	11.406,7	-100,0
C. Material eta ekipamendu elektrikoaren fabrik.	6.716,7	5.100,0	4.387,2	208.161,2	0,2	2,1	-24,1	-14,0
C. BESG makineriaren eta ekipamenduaren fabrik.	3.463,4	6.733,2	767,7	263.851,3	0,0	0,3	94,4	-88,6
C. Ibilgailu motord. eta beste garraio-mat. batzuen fabrik	0,2	765.642,9	56.622,1	209.064,4	2,2	27,1	319.017.787,5	-92,6
C. Altzarien fabrik.	0,0	0,0	0,0	14.002,1	0,0	0,0		
C. Beste manufaktura batzuk	3,8	517,0	1,8	1.166.886,5	0,0	0,0	13.506,1	-99,7
C. Makineria-instala. Konponk.	2,4	0,0	0,0	1.244,9	0,0	0,0	-100,0	
D. Energia elektriko, gas, lurrun eta aire girotuaren hornidura.	0,0	324.239,7	2.258.988,1	2.440.930,0	86,4	92,5		596,7
E. Ur hornidura, saneam. jarduera, hondakinen kudeaketa eta deskutsatzea	8.235,0	0,0	0,0	616.976,7	0,0	0,0	-100,0	
F. Eraikuntza	234,6	8.553,1	111,9	2.188.764,4	0,0	0,0	3.545,8	-98,7
G. Handizkako merkataritza, txikizkakoa, ibilgailu motordun eta motorren konponketa.	39.085,4	18.370,5	11.228,7	1.924.903,5	0,4	0,6	-53,0	-38,9
H. Garraioa eta biltegiratzea	677,8	70,0	63,0	1.137.933,9	0,0	0,0	-89,7	-10,0
I. Ostalaritza	965,6	3,0	78,2	296.282,2	0,0	0,0	-99,7	2.497,0
J. Informazioa eta komunik.	31.531,1	156.162,1	248.587,1	1.968.589,7	9,5	12,6	395,3	59,2
K. Finantza- eta aseguru-jarduerak	34.748,8	3.095,0	32,6	2.557.756,8	0,0	0,0	-91,1	-98,9
L. Higiezinen arloko jarduerak	537.545,4	2.568,8	9.770,2	3.130.545,8	0,4	0,3	-99,5	280,3
M. Jarduera profesional, zientifiko eta teknikoak	2.059,6	53.919,7	4.154,3	1.442.497,9	0,2	0,3	2.518,0	-92,3
N. Jarduera administratiboak eta zerbitzu osagarriak	20.023,0	5.268,3	14.302,6	516.474,9	0,5	2,8	-73,7	171,5
O. Herri administrazioa eta defentsa	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0			
P. Hezkuntza	649,7	447,3	21,6	39.339,9	0,0	0,1	-31,2	-95,2
Q. Osasun eta gizarte zerb. jarduerak	403,0	500,0	2.986,1	715.762,0	0,1	0,4	24,1	497,2
R. Arte, aisialdi eta entretenitzeko jarduerak	322,8	3,0	0,0	209.564,9	0,0	0,0	-99,1	-100,0
S. Beste zerbitzu batzuk	0,6	150,2	500,0	164.357,1	0,0	0,3	24.925,0	233,0

II.2.14 TAULA. EAE-N EGINIKO INBERTSIO OSOA* ETA ESTATUAN EGINIKOAREN GAINEKO PARTAIDETZA SEKTOREEN ARABERA (mila €-tan)								
	EAE			Estatua 2017 b	Banaketa EAE	Estatuar ekiko %	ALDAKUNTZA EAE	
	2015	2016	2017 b				%15-16	%16-17
T. Etxeko jarduerak	0,0	0,0	0,0	3,0	0,0	0,0		
U. Lurraldetik kanpoko erakundeen eta organismoen jarduerak.	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0			
Inbertsioa, guztira	**834.650,8**	**1.531.813,8**	**2.616.062,9**	**23.757.635,3**	**100,0**	**11,0**	**83,5**	**70,8**

(*)Inbertsioa osoa ABDE gabe. bb. behin-behineko datuak
Iturria: Kanpoko inbertsioen erregistroa. Ekonomia, Industria eta Lehiakortasun Ministerioa

II.2.15 TAULA. EAE-KO INBERTSIO OSOA* ETA ESTATUEN GAINEKOAREN PARTAIDETZA, LURRALDEEN ARABERA (mila €-tan)									
		EAE			Estatua 2016 b	Banaketa EAE	Estatuar ekiko %	ALDAKUNTZA EAE	
		2015	2016	2017				%15-16	%16-17
Inbertsioa, guztira		834.650,8	1.531.813,8	2.616.062,9	23.757.635,3	100,0	11,0	83,5	70,8
Inbertsioaren azken titularraren bizilekuko herrialdea	E.L.G.A.	532.979,0	1.113.341,8	2.592.467,3	22.044.354,5	99,1	11,8	108,9	132,9
	15 EB	247.555,3	943.285,0	2.515.322,1	16.583.722,6	96,1	15,2	281,0	166,7
	28 EB	247.555,4	943.734,0	2.515.385,9	16.674.416,3	96,2	15,1	281,2	166,5
	Ipar Amerika	202.139,3	159.317,6	20.593,2	3.293.887,8	0,8	0,6	-21,2	-87,1
	Kanada	15,1	2,6	0,0	744.028,9	0,0	0,0	-83,1	-100,0
	AEB	202.124,2	159.315,1	20.593,2	2.549.858,8	0,8	0,8	-21,2	-87,1
	Latinoamerika	140.094,3	98.887,7	76.912,0	959.773,2	2,9	8,0	-29,4	-22,2
	Argentina	3,0	0,0	1,0	48.344,4	0,0	0,0	-100,0	
	Brasil	53.447,1	90.718,4	9.546,3	13.237,9	0,4	72,1	69,7	-89,5
	Txile	10,0	2.751,5	3,0	42.424,9	0,0	0,0	27.387,5	-99,9
	Mexiko	79.768,1	3.845,9	56.404,4	453.752,2	2,2	12,4	-95,2	1.366,6
	Asia eta Ozeania	3.669,7	518,2	371,4	696.519,6	0,0	0,1	-85,9	-28,3
	Txina	2.247,4	119,9	368,4	90.323,8	0,0	0,4	-94,7	207,3
	Arabiar Emirerriak	0,0	0,0	0,0	9.950,7	0,0	0,0		
	India	0,0	0,0	0,0	2.370,5	0,0	0,0		
	Japonia	0,0	0,0	0,0	71.307,0	0,0	0,0		
	Afrika	0,0	0,0	0,0	56,9	0,0	0,0		
	Paradisu fiskalak	3.302,4	450,0	23,1	306.623,5	0,0	0,0	-86,4	-94,9
	Errusia	234.376,6	1.890,0	0,0	65.143,5	0,0	0,0	-99,2	-100,0

(*)Inbertsio osoa ABDE gabe. b: behin-behineko datuak
Iturria: Kanpo-inbertsioen Erregistroa. Ekonomia, Industria eta Lehiakortasun Ministerioa

2.4.2. Euskal inbertsioa atzerrian

Euskal inbertsioa atzerrian, ABDEak deskontaturik, 201ko igoeraren ondotik, berriz ere itzuli da aurreko urteetan erregistraturiko mailetara. Zehazki, 2017an 1.182 milioi euro dira guztira, hots, %63,3ko jaitsiera aurreko urtearen aldean.



Hala, EAEk atzerrian eginiko inbertsioa Estatuaren guztizko inbertsioaren %6 izan zen 2017an, 2016an izandakoa %2,6 gutxiago. Madrilgo Erkidegoak egiten duen inbertsioa deskontatuz gero, ehuneko handiagoa dugu, %11 hain zuzen. Pisuan behera egin du: 2015eko %28,7tik 2017ko %11ra.

EAE laugarren tokian da AAEEn rankingean atzerrian eginiko inbertsioan. Hauexek ditu aurretik: Madril (9.031,2 milioi euro), Katalunia (6.543,4 milioi euro) eta Valentziako E. (1.545,2).

II.2.16. TAULA, ATZERRIAN EGJNIKO INBERTSIO GORDINA* AA.EE.en ARABERA (mila euro)

	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2017 b
Guztira	**33.429.339,1**	**17.857.208,1**	**25.894.774,8**	**31.710.193,0**	**31.675.599,8**	**37.261.978,6**	**19.760.809,0**
Andaluzia	883.345,8	146.651,2	366.031,7	1.800.637,6	634.181,8	132.152,1	73.146,8
Aragoi	211.762,4	232.738,4	651.681,5	40.601,2	32.599,9	136.827,2	307,7
Kantabria	4.980.455,4	1.625.967,8	449.253,2	6.069.954,9	567.416,1	62.982,6	162.794,6
Gaztela eta Leon	30.030,9	175.740,4	23.494,9	53.754,9	185.069,2	266.245,7	35.763,2
Gaztela-Mantxa	91.720,5	35.893,5	16.325,1	2.296,8	17.251,4	28.253,5	806,5
Katalunia	2.996.406,3	2.747.591,7	2.671.166,0	4.475.292,7	4.819.982,5	4.525.890,9	6.543.388,3
Ceuta eta Melilla		0,1					
Madril	17.297.543,4	11.190.291,8	17.247.318,5	17.240.841,6	22.626.635,6	26.031.828,8	9.031.490,9
Valentzia	432.991,7	266.559,5	225.794,3	373.798,1	194.922,1	99.675,6	1.545.177,5
Extremadura	1.213,3	2.258,0	1.230,0	49,4	0,0	4.153,9	0,0
Galizia	733.022,3	435.073,4	1.449.228,3	454.323,9	1.257.036,0	1.462.499,9	559.024,4
U. Balearrak	57.137,3	350.048,2	1.231.093,2	289.975,0	321.343,4	201.645,6	17.556,0
U. Kanariarrak	1.702,6	15.648,3	3.711,5	7.396,7	8.189,7	130.883,8	27.432,3
Errioxa	2.135,3	1.773,0	1.163,1	116,5	910,0	25,0	952,5
Nafarroa	27.221,4	27.430,9	48.043,5	33.547,3	20.393,9	89.297,0	106.571,5
EAE	**5.403.289,2**	**444.752,0**	**1.308.679,5**	**726.330,7**	**510.354,5**	**3.222.871,6**	**1.182.034,6**
Asturias	216.033,6	147.221,9	191.704,8	126.876,6	478.956,0	864.210,9	454.634,1
Murtzia	63.327,8	11.568,1	8.855,8	14.399,0	357,9	2.534,6	19.728,2

(*)Inbertsioa osoa ABDE gabe. b. behin-behineko datuak
Iturria: Kanpoko inbertsioen erregistroa. Ekonomia, Industria eta Lehiakortasun Ministerioa (*)

Sektoreen aldetik, hauexek nabarmentzen dira:

- Makineriaren konponketa eta instalazioa: EAEn eginiko kanpo-inbertsioaren %55,3 da eta Estatuak sektore horretan eginikoaren %99,8.
- Finantza- eta aseguru-jarduerak: EAEn eginiko kanpo-inbertsioaren %25,2 da eta Estatuak sektore horretan eginikoaren %14,5.
- Handizkako merkataritza, txikizkakoa, motordun ibilgailuen eta motozikleten konponketa: EAEko kanpoko inbertsioaren %5 eta Estatuak atzerrian sektore horretan eginikoaren %2,3.

Lurraldeen aldetik, EAEko inbertsioaren %72,3 ELGAko herrialdeetara dago bideratuta, %51,1 15eko EBko herrialdeetara (gehienbat Erresuma Batua eta Herbehereak) eta %4,8 AEBra. Beste zati handi baten jomugak: Peru (%15,9), Txina %(5,2) eta Australia (%2,6).

II.2.17. TAULA. EAE-REN INBERTSIOA * ETA ESTATUAK ATZERRIAN EGINIKOAREN GAINEKO PARTAIDETZA, SEKTOREEN ARABERA (mila €-tan)

	EAE			Estatua 2017 b	Banak. EAE	Estatu arekiko %	ALDAKUNTZA EAE	
	2015	2016	2017 b				%15-16	%16-17
A. Nek. Abel. Basog. eta Arrantz	218,9	15.521,8	0,0	236.940,9	0,0	0,0	6.992,1	-100,0
B. Erauzketa-industriak	0,0	0,0	0,0	3.199.170,8	0,0	0,0		
C. Elikadura, edariak eta tabakoa	0,0	0,0	1.792,8	180.282,1	0,2	1,0		
C. Ehungintza eta jantzigintza	0,0	0,0	0,0	1.225,3	0,0	0,0		
C. Larrugintza eta zapatagintza	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0			
C. Egurraren eta artelazkiaren industria, altzariak, saskigintza eta espartzugintza salbu	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0			
C. Papergintza eta arte grafikoen industria	0,0	2.951,6	430,0	4.631,1	0,0	9,3		-85,4
C. Kokegintza eta petrolio-finketa	0,0	0,0	0,0	23.425,9	0,0	0,0		
C. Ind. Kimikoak eta kautxu eta plastiko transf	14.062,8	8.960,3	2.286,5	153.611,2	0,2	1,5	-36,3	-74,5
C. Prod. Farmaze. Fabrik.	0,0	0,0	0,0	28.813,7	0,0	0,0		
C. Metalurgia eta produktu metalikoen fabrik.	1.647,6	4.565,9	2.782,9	127.925,7	0,2	2,2	177,1	-39,1
C. Prod. Informatikoen, elektronikoen eta optik. fabrik	165.764,1	0,0	4.500,0	4.816,5	0,4	93,4	-100,0	
C. Material eta ekipamendu elektrikoaren fabrik.	27.324,7	7.575,2	1.021,3	34.382,6	0,1	3,0	-72,3	-86,5
C. BESG makineriaren eta ekipamenduaren fabrik.	21.915,5	2.298,0	432,5	78.698,2	0,0	0,5	-89,5	-81,2
C. Ibilgailu motord. eta beste garraio-mat. batzuen fabrik	63.635,6	169.762,3	49.211,6	816.412,6	4,2	6,0	166,8	-71,0
C. Altzarien fabrik.	0,0	0,0	0,0	1.357,9	0,0	0,0		
C. Beste manufaktura batzuk	190,0	29.053,7	2.694,5	286.090,7	0,2	0,9	15.188,2	-90,7
C. Makineria-instala. Konponk.	1.483,8	2.657.805,6	654.009,8	655.036,2	55,3	99,8	179.017,9	-75,4
D. Energia elektriko, gas, lurrun eta aire girotuaren hornidura.	22.513,9	0,0	26.116,1	1.014.284,4	2,2	2,6	-100,0	
E. Ur hornidura, saneam. jarduera, hondakinen kudeaketa eta deskutsatzea	124,7	0,0	0,0	576,2	0,0	0,0	-100,0	
F. Eraikuntza	22.778,7	46.227,4	16.048,2	1.255.095,2	1,4	1,3	102,9	-65,3
G. Handizkako merkataritza, txikizkakoa, ibilgailu motordun eta motorren konponketa.	13.177,2	11.871,0	59.634,7	2.557.231,4	5,0	2,3	-9,9	402,4
H. Garraioa eta biltegiratzea	20,0	7,4	36.249,0	3.764.860,4	3,1	1,0	-63,1	491.078,7
I. Ostalaritza	687,3	179,1	0,0	173.158,0	0,0	0,0	-73,9	-100,0
J. Informazioa eta komunik.	43.819,0	24,6	3.843,5	2.376.375,4	0,3	0,2	-99,9	15.517,6
K. Finantza- eta aseguru-jarduerak	106.617,6	195.268,0	297.349,9	2.051.264,0	25,2	14,5	83,1	52,3
L. Higiezinen arloko jarduerak	150,0	3.268,5	0,0	262.336,4	0,0	0,0	2.079,0	-100,0
M. Jarduera profesional, zientifiko eta teknikoak	3.917,1	67.321,2	22.349,1	111.513,0	1,9	20,0	1.618,7	-66,8
N. Jarduera administratiboak eta zerbitzu osagarriak	306,0	60,0	25,0	87.541,4	0,0	0,0	-80,4	-58,3
O. Herri administrazioa eta defentsa	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0			
P. Hezkuntza	0,0	0,0	0,0	28,0	0,0	0,0		
Q. Osasun eta gizarte zerbitzuen jarduerak	0,0	150,0	0,0	206.576,2	0,0	0,0		-100,0
R. Arte, aisialdi eta entretenitzeko jarduerak	0,0	0,0	1.257,3	49.599,1	0,1	2,5		
S. Beste zerbitzu batzuk	0,0	0,0	0,0	17.548,6	0,0	0,0		
T. Etxeko jarduerak	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0			
U. Lurraldetik kanpoko erakundeen eta organismoen jarduerak.	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0			
Inbertsioa, guztira	**510.354,5**	**3.222.871,6**	**1.182.034,6**	**19.760.809,0**	**100,0**	**6,0**	**531,5**	**-63,3**

(*)Inbertsio osoa ABDE gabe. bb: behin-behineko datuak
Iturria. Kanpo-inbertsioen Erregistroa. Ekonomia, Industria eta Lehiakortasun Ministerioa

II.2.18. TAULA. EAE-REN INBERTSIO OSOA* ETA ESTATUAK ATZERRIAN HERRIALDEKO EGINIKOAREN GAINEKO PARTAIDETZA (mila €)									
		2015	2016	2017 b	Estatua 2017 b	Banaketa EAE (%)	Estatua rekiko %	%15-16	%16-17
Inbertsioa, guztira		**510.354,5**	**3.222.871,6**	**1.182.034,6**	**19.760.809,0**	**6,0**	**6,0**	**531,5**	**-63,3**
Inbertsioaren behieneko Herrialdea	E.L.G.A.	**412.677,5**	**2.837.333,8**	**854.251,4**	**14.256.127,4**	**72,3**	**6,0**	**587,5**	**-69,9**
	15 EB	309.428,9	143.311,2	604.101,8	7.553.407,5	51,1	8,0	-53,7	321,5
	28ko EB	322.102,2	149.343,3	610.808,7	7.673.333,8	51,7	8,0	-53,6	309,0
	Ipar Amerika	**1.384,0**	**2.641.764,0**	**56.585,8**	**4.368.102,8**	**4,8**	**1,3**	**190777,5**	**-97,9**
	Kanada	0,0	317.000,4	0,0	1.567.386,1	0,0	0,0		-100,0
	AEB	1.384,0	2.324.763,6	56.585,8	2.800.716,6	4,8	2,0	167873,0	-97,6
	Latinoamerika	131.234,2	274.021,5	248.357,8	5.677.338,3	21,0	4,4	108,8	-9,4
	Argentina	218,9	3.614,0	2.380,0	148.712,6	0,2	1,6	1551,3	-34,1
	Brasil	45.027,6	151.795,4	47.796,4	1.055.079,8	4,0	4,5	237,1	-68,5
	Txile	675,8	2.133,8	2.863,4	180.671,9	0,2	1,6	215,7	34,2
	Mexiko	83.759,0	22.920,8	5.681,5	1.721.279,0	0,5	0,3	-72,6	-75,2
	Peru	979,0	83.888,9	187.843,0	377.902,2	15,9	49,7	8468,7	123,9
	Asia eta Ozeani	**47.080,0**	**123.595,8**	**110.655,3**	**969.490,6**	**9,4**	**11,4**	**162,5**	**-10,5**
	Txiina	41.480,8	51.617,3	61.774,1	95.132,1	5,2	64,9	24,4	19,7
	Hego Korea	13,6	0,0	0,0	6.731,2	0,0	0,0	-100,0	
	India	5.028,8	63.191,8	6.498,3	158.161,8	0,5	4,1	1156,6	-89,7
	Jaomia	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0			
	Taiwan	0,0	3.916,1	2.090,6	2.187,1	0,2	95,6		-46,6
	Qatar	0,00	1.563,32	2.606,31	2.671,32	0,2	97,6		66,7
	Tailandia	0,00	25,70	5.413,26	6.826,31	0,5	79,3		20963,3
	Australia	0,00	0,00	31.268,72	139.705,50	2,6	22,4		
	Afrika	306,0	32,0	3.915,8	66.161,2	0,3	5,9	-89,5	12140,8
	Paradisu fiskalak	**1.330,6**	**3.306,0**	**102,8**	**541.282,9**	**0,0**	**0,0**	**148,5**	**-96,9**

(*)Inbertsio osoa ABDE gabe. b. Behin-behineko datuak
Iturria: Kanpoko inbertsioen erregistroa. Ekonomia, Industria eta Lehiakortasuna

ITURRIAK:

- **EUSTAT**. Hiruhileko Ekonomia Kontuak. 2017. Hiruhilekoa. Koiunturala
- **EUSTAT.** Ekonomia Kontuak. 2016 (n-2 urtea). Urterokoa. Koiunturala
- **EIN.** Espainiako Hiruhileko Nazio Kontabilitatea. 2017. Hiruhilekoa. Koiunturala
- **EIN.** Espainiako Urteko Nazio Kontabilitatea. 2016 (n-2 urtea). Urterokoa. Koiunturala
- **EIN.** Espainiako Urte Eskualde Kontabilitatea. 20017. Urterokoa. Koiunturala.
- **EIN.** Kontsumorako Prezioen Indizea. 2017. Urterokoa. Koiunturala
- **EUROSTAT**. Datu-basea. 2017. Urterokoa. Koiunturala.
- **EUROSTAT**. News release euro indicators.
- **Eusko Jaurlaritza.** Ogasun eta Ekonomia Saila. Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza.
    - Abagunea klik batean. 2018ko urtarrileko eta martxoko buletinak.
- **Espainiako Bankua.** Estatistika Buletina. 2017. Hilekoa eta hiruhilekoa. Koiunturala
- **EIN.** Espainiako Eskualde Kontabilitatea. 2016. Ikuspegi funtzionala. Urterokoa. Koiunturala
- **EUSTAT**. Kanpo-merkataritzaren Estatistika-ECOMEX. 2017. Hilekoa. Koiunturala
- **Ekonomia, Industria eta Lehiakortasun Ministerioa.** Kanpo-inbertsioen Erregistroa. 2016. Hiruhilekoa. Koiunturala.

3. EKOIZPEN SEKTOREAK

Atal hau bost epigrafe handitan dago banatuta. Lehenik eta behin, enpresen Egitura eta Demografia aztertuko da, eta horri esker, informazioa lortu ahal izango da enpresetatik, jarduera ekonomikoak egiten dituzten unitateak diren aldetik. Bigarren epigrafeak lehen sektoreko magnitude nagusiak dakartza.Hirugarren atalean, sakon aztertuko da industriaren sektorea, eta horretarako, Kontu Ekonomikoez gain, koiunturako beste adierazle batzuk erabiliko dira hala nola Industri Produkzioaren Indizea (IPI), Industri Prezioen Indizea IPRI) eta EUSTATen Industria Estatistikako hainbat magnitude. Laugarren puntuaren ardatza eraikuntzaren sektorearen azterketa da, honako hauen bidez: Kontu Ekonomikoak, Eraikuntzaren Koiuntura Indizea (EKI), Eraikuntzako Kostuen Indizea (EKOI) eta EUSTATen Eraikuntzaren Estatistika. Eta azkenik, bosgarren atalak zerbitzuen sektorearen analisia jasotzen du, merkataritza eta ostalaritza azpisektoreei eta finantza-sektoreari buruzko azterlan zehatzekin.

Merkataritzaren azpisektorearen kasu zehatzean, Txikizkako Merkataritzaren Indizearen (IMI) eta Saltoki Handietako eta Elikadura Kateen Merkataritza Indizearen bilakaera aztertzen da; ostalaritzari dagokionez, EUSTATen turismo establezimendu hartzaileen Inkestako zenbait adierazle aztertzen dira; eta finantzen azpisektorea aztertzeko, askotariko adierazle multzoa erabili da, hala nola, banku zentralen esku-hartze motak, interes-tasak, hipoteka-krediduak, gordailuak eta burtsaren merkatuaren ikuspegia.

3.1. ENPRESA-EGITURA ETA -DEMOGRAFIA

3.1.1. ENPRESA-EGITURA

EUSTATen “Jarduera Ekonomikoen Direktorioak (JEGID)” establezimendu eta enpresa guztien informazioa biltzen du, EAEn jarduera ekonomikoak egiten dituzten unitateak diren aldetik; jarduera ekonomikoei buruzko oinarrizko informazio estrukturala ematen du, eta erreferentzia da sektoreko zentsuak eta inkestak egiteko; gainera, Erkidegoko establezimenduetako langileei buruzko azterketa ere ahalbidetzen du.Gaur egun, ez ditu biltzen etxeko langileei lana ematen dieten familien jarduerak, ezta lurraldez kanpoko erakundeak ere.

EUSTATen Jarduera Ekonomikoen Direktorioaren (JEGID) 2017ko urtarrilaren 1eko datuen arabera, guztira 158.806 enpresa[16] ziren jardunean EAEn (lehen sektorekoak barne), eta orotara 874.241 pertsonari ematen diete lana. Beraz, batez besteko tamaina 5,5 lanpostukoa da enpresako. 2016 eta 2017 bitartean, enpresa kopurua % 0,2 jaitsi da, baina enplegua %2,4 hazi da.

1.896 establezimendu eskasek, kopuru osoaren % 49,2k hain zuzen, 50 enplegu edo gehiago dituzte, guztira 430.384 lanpostu (guztien % 49,2, %48,8 2016an eta %48,3 2015ean). Aitzitik, 120.166 enpresa kopuru osoaren % 76 (%76,6 2016an) ez da iristen 3 lanpostura eta enplegu osoaren % 16,8 bakarrik hartzen dute (%17,4 2016an).

Euskadin diharduten enpresen antzinatasunari dagokionez, %32,7k 5 urte edo gutxiagoko antzinatasuna dute, eta %17,2k 2 edo gutxiago.

Egoitza soziala oraindik EAEn duten enpresa horien portzentajea % 97,6 da. Egoitza soziala EAEn duten enpresetatik (154.301), % 51,8 Bizkaian daude; % 34,4 Gipuzkoan eta % 13,9 Araban, non enpresen kopuruak berriz ere gora egin duen (+%0,6). Bizkaian eta Gipuzkoan, aldiz, behera egin du atzera (%0,3 eta % 0,6 hurrenez hurren).

[16] *Enpresa : establezimenduen jarduerari legezko euskarria ematen dien unitate juridikoa, hau da, beregaineko lege-nortasuna duen edozein elkarte, erakunde, organismo, pertsona fisiko edo edozein erakunde publiko edo pribatu, zeinaren ardurapean eta zuzendaritzapean jarduerak egiten baitira. 2012tik, lehen sektoreko enpresak biltzen ditu EUSTATen estatistikak.*

II.3.1. TAULA. ENPRESAK* EAE-N EGOITZAREN ETA ENPLEGUAREN ARABERA

	2012/1/1	2013/1/1	2014/1/1	2015/1/1	2016/1/1	2017/1/1	14-15 (%)	15-16 (%)	16-17 (%)
Guztira, enpresak (EAE eta ESTATUA)	**165.517**	**161.067**	**159.001**	**158.810**	**158.436**	**158.086**	**-0,1**	**-0,2**	**-0,2**
EGOITZA EAE-N	161.626	157.405	155.306	155.121	154.687	154.301	-0,1	-0,3	-0,2
--Araba	21.851	21.663	21.321	21.303	21.344	21.462	-0,1	0,2	0,6
--Gipuzkoa	56.491	55.249	53.940	53.497	53.225	52.928	-0,8	-0,5	-0,6
--Bizkaia	83.284	80.493	80.045	80.321	80.118	79.911	0,3	-0,3	-0,3
Egoitza beste AA.EE.etan	3.891	3.662	3.695	3.689	3.749	3.785	-0,2	1,6	1,0
EGOITZA EAE-N (%)	97,6	97,7	97,7	97,7	97,6	97,6			
EGOITZA beste AA.EE.etan (%)	2,4	2,3	2,3	2,3	13,8	13,9			
Guztira, enplegua	**873.121**	**855.093**	**849.335**	**843.816**	**854.114**	**874.241**	**-0,6**	**1,2**	**2,4**
B.b. tamaina	**5,3**	**5,3**	**5,3**	**5,3**	**5,4**	**5,5**			

**Salbu utzi dira etxeko jarduerak etxeko langileen enplegatzaileak eta beren erabilerarako ondasunen eta zerbitzuen ekoizleak diren aldetik, baita lurraldez kanpoko erakundeak ere. Iturria: EUSTAT. JEGID*

II.3.2. TAULA. EAE-KO ENPRESEN EGITURA ENPLEGUAREN ARABERA

	2015/1/1				2016/1/1				2017/1/1			
	Enpresak		Enplegua		Enpresak		Enplegua		Enpresak		Enplegua	
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
Guztira	**158.810**	**100**	**843.816**	**100**	**158.436**	**100**	**854.114**	**100**	**158.086**	**100**	**874.241**	**100**
=<2	121.792	76,7	150.069	17,8	121.319	76,6	148.761	17,4	120.166	76,0	147.097	16,8
3-5	20.003	12,6	73.097	8,7	19.896	12,6	72.723	8,5	20.141	12,7	73.680	8,4
6-9	6.985	4,4	50.145	5,9	7.050	4,4	50.584	5,9	7.325	4,6	52.508	6,0
10-14	3.312	2,1	38.808	4,6	3.339	2,1	39.071	4,6	3.387	2,1	39.595	4,5
15-19	1.764	1,1	29.526	3,5	1.797	1,1	30.073	3,5	1.853	1,2	30.979	3,5
20-49	3.149	2,0	94.675	11,2	3.191	2,0	96.389	11,3	3.318	2,1	99.998	11,4
50-99	994	0,6	68.579	8,1	1.014	0,6	70.516	8,3	1.033	0,7	71.243	8,1
100-249	550	0,3	84.545	10,0	556	0,4	85.867	10,1	587	0,4	90.882	10,4
250-499	146	0,1	49.484	5,9	158	0,1	53.659	6,3	152	0,1	51.629	5,9
>= 500	115	0,1	204.888	24,3	116	0,1	206.471	24,2	124	0,1	216.630	24,8

Iturria: EUSTAT, JEGID

II.3.1. GRAFIKOA. ENPRESEN EHUNEKOA HORIEN TAMAINAREN ARABERA, 2017



Iturria: EUSTAT

II.3.2. GRAFIKOA. ENPLEGUAREN BANAKETA (%) ENPRESAREN TAMAINAREN ARABERA, 2017



II.3.3. taulak erakusten duenez, Euroguneko batez besteko tamaina 5,2 lanpostukoa da enpresako (2015eko datuak), eta 28ko EBn 5,4, EAEkoaren antzekoa. Batez besteko horien gainean daude Alemania (10 lanpostu), Luxenburgo (9,9), Erresuma Batua (8,8), Danimarka (8, 2014ko datua) eta Austria (7,3) eta Kroazia (7).

II.3.3. TAULA. ENPRESEN BATEZ BESTEKO TAMAINA EB-N

	2013	2014	2015
28ko EB	5,4	5,5	5,4
EUROGUNEA		5,2	5,2
BELGIKA	4,5	4,4	4,4
BULGARIA	6,0	5,9	5,9
TXEKIAR ERR.	4,1	3,8	3,6
DANIMARKA	8,0	8,0	
ALEMANIA	8,2	9,9	10,0
ESTONIA	5,5	5,5	5,5
IRLANDA		5,6	5,6
GREZIA			3,3
ESPAINIA	3,9	3,9	3,9
FRANTZIA	5,0	4,7	4,6
KROAZIA	7,1	7,1	7,0
ITALIA	3,8	3,8	3,9
ZIPRE	4,7	4,5	
LETONIA	6,6	6,4	5,9
LITUANIA	6,4	5,8	5,4
LUXENBURGO	10,0	9,9	9,9
HUNGARIA	4,8	4,9	5,1
MALTA	4,2	4,3	
HOLANDA	5,3	5,2	5,1
AUSTRIA	7,0	7,1	7,3
POLONIA	4,6	4,7	4,7
PORTUGAL	3,7	3,8	3,8
ERRUMANIA	6,0	6,0	6,0
ESLOVENIA	4,4	4,4	4,3
ESLOVAKIA	3,8	3,5	3,5
FINLANDIA	5,6	5,5	5,5
SUEDIA	4,3	4,2	4,2
ERRESUMA BATUA	9,2	9,1	8,8

Iturria: EUROSTAT

Jarduera Ekonomikoen Direktorioaren Hemeretzi jarduera ekonomikoetatik (II.3.4 Taula ikusi), seik 10.000 enpresa baino gehiago ditu bakoitzak, hots, enpresa guztien % 70,5 eta, aldi berean, enpleguaren % 58,1. Nabarmentzekoak dira handizkako eta txikizkako merkataritza; motordun ibilgailuen eta motozikleten konponketa (enpresen % 22); jarduera profesional zientifiko eta teknikoak (enpresen % 13,8); eraikuntza (enpresen % 12,7); ostalaritza (enpresen % 8,2) eta manufaktura-industria (enpresen % 6,8).

2016 eta 2017 bitartean, enpresen kopururen jaitsierarik nabarmenak, besteak beste, sektore hauetan izan ziren: manufaktura-industria (-%2,6), Energia, gas, lurrun eta aire egokituaren hornidura (-%2,5), Handizkako eta txikizkako merkataritza; motordun ibilgailuen eta motozikleten konponketa (%2) eta Finantza- eta aseguru-jarduerak (-%1,2). Hazkunderik handienak, berriz, hauexetan: Hezkuntza (%5,2), Ur-hornidura, saneamenduko jarduerak, hondakinen kudeaketa kutsadura kentzea (%54,6) eta Arte, aisialdi eta entretenitzeko jarduerak (%3,8).

Hemeretzi jarduera ekonomikoetatik, zortzik enpleguaren % 78,6 hartzen dute. Nabarmentzekoak dira Manufaktura (% 19,5); Handizkako eta txikizkako merkataritza eta Motordun ibilgailuen eta motozikleten konponketa (% 15). Ondoren datoz Osasun-jarduerak eta Gizarte-zerbitzuak (%9,1), Herri-administrazioak, Defentsa eta Gizarte-segurantza (%8,8), Administrazio-jarduerak eta Zerbitzu osagarriak (%7,3), Jarduera profesionalak, zientifikoak eta teknikoak (%6,8), Ostalaritza (%6,5) eta Eraikuntza (%5,8).

Osasun-jarduerak eta Gizarte-zerbitzuak eta Herri-administrazioak, Defentsak eta Gizarte-segurantzak enpleguaren proportzio handiagoa hartzen dute (% 17,7), handizkako eta txikizkako merkataritzaren eta motordun ibilgailuen eta motozikleten konponketaren (% 14,8) gainetik eta manufaktura-industriarengandik hurbil (% 19,5).

Horrez gain, JEGIDeko zortzi jarduera ekonomikoetatik zazpik enpleguaren %78,6 hartzen dute, eta lanpostu gehiago izan dituzte 2016 eta 2017 bitartean. Eraikuntzak jarraitzen du lanpostuak galtzen (-%2).

Bestetik, enpresen kopurua murriztu egin da zenbait sektoretan, baina guztizko enplegua hazi da, edo alderantziz. Enpresen kopurua murriztu den baina enplegua hazi den sektoreen artean daude hauek: Manufaktura-industria (-%2,6 eta +%2,9, hurrenez hurren); Argindarraren, gasaren, lurraren eta aire egokituaren hornidura (-%2,5 eta +%0,4 hurrenez hurren), Handizkako eta txikizkako merkataritza; Motordun ibilgailuen eta motozikleten konponketa (-%2 eta % 1,5); ostalaritza (-% 0,4 eta % 2,7); administrazio-jarduerak eta laguntza-zerbitzuak (-%0,5 eta % 2,9); Herri-administrazioa, Defentsa eta Gizarte-segurantza (-% 0,5 eta % 2,7).

Enpresen kopurua hazi den baina enplegua murriztu den jardueren artean, baina lanpostu gutxiago izanda, soilik Informazioa eta komunikazioak daude (%1,9 eta -%1,3).

II.3.4. TAULA. EAE-KO ENPRESEN ETA LANPOSTUEN KOPURUAREN BILAKAERA JARDUERA-ADARRAREN ETA NORTASUN JURIDIKOAREN ARABERA

	ENPRESAK				LANPOSTUAK				B.B. LANPOST.	
	2016/1/1	2017/1/1	Pisua	16-17 (%)	2016/1/1	2017/1/1	Pisua	16-17 (%)	16/1/1	17/1/1
GUZTIRA	158.436	158.086	100,0	-0,2	854.114	874.241	100,0	2,4	5,4	5,5
A. Nekazaritza, abeltzaintza, basogintza eta arrantza	5.824	5.940	3,8	2,0	12.332	12.394	1,4	0,5	2,1	2,1
B. Erauzketa-industriak	40	40	0,0	0,0	392	390	0,0	-0,5	9,8	9,8
C. Manufaktura-industriak	10.979	10.692	6,8	-2,6	165.646	170.501	19,5	2,9	15,1	15,9
D. Energia elektrikoaren, gasaren, lurrunaren eta aire girotuaren hornidura	122	119	0,1	-2,5	1.800	1.807	0,2	0,4	14,8	15,2
E. Ur hornidura, saneamdu-jarduerak, hond. kudeaketa eta kutsadura garbitzea	237	248	0,2	4,6	4.509	5.363	0,6	18,9	19,0	21,6
F. Eraikuntza	20.138	20.020	12,7	-0,6	51.720	50.685	5,8	-2,0	2,6	2,5
G. Handizkako merkataritza, txikizkakoa, ibilgailu motordunen eta motorren kon.	35.473	34.746	22,0	-2,0	127.897	129.799	14,8	1,5	3,6	3,7
H. Garraioa eta biltegiratzea	10.434	10.515	6,7	0,8	39.036	40.895	4,7	4,8	3,7	3,9
I. Ostalaritza	13.058	13.006	8,2	-0,4	55.114	56.595	6,5	2,7	4,2	4,4
J. Informazioa eta komunikazioa	3.102	3.161	2,0	1,9	20.796	20.523	2,3	-1,3	6,7	6,5
K. Finantza- eta aseguru-arloko jard.	2.985	2.949	1,9	-1,2	19.721	19.091	2,2	-3,2	6,6	6,5
L. Higiezinen arloko jarduera	2.912	2.942	1,9	1,0	4.752	4.831	0,6	1,7	1,6	1,6
M. Jarduera profesionalak, zientifikoak eta teknikoak	21.647	21.761	13,8	0,5	57.818	59.305	6,8	2,6	2,7	2,7
N. Jarduera administratiboak eta zerbitzu lagungarriak	5.385	5.358	3,4	-0,5	62.385	64.202	7,3	2,9	11,6	12,0
O. Administrazio publikoa eta defentsa; derrigorrezko gizarte segurantza	433	431	0,3	-0,5	74.655	76.672	8,8	2,7	172,4	177,9
P. Hezkuntza	4.625	4.864	3,1	5,2	42.502	44.510	5,1	4,7	9,2	9,2
Q. Jarduera sanitarioak eta gizarte zerbitzuetakoak	8.939	9.030	5,7	1,0	76.877	79.821	9,1	3,8	8,6	8,8
R. Arte, aisialdi eta entretenitzeko jard.	3.246	3.368	2,1	3,8	12.857	13.527	1,5	5,2	4,0	4,0
S. Bestelako jarduerak	8.857	8.896	5,6	0,4	23.305	23.330	2,7	0,1	2,6	2,6
Pertsona fisikoa	93.782	93.390	59,1	-0,4	132.995	133.504	15,3	0,4	1,4	1,4
Sozietate anonimoa	5.891	5.576	3,5	-5,3	206.383	207.247	23,7	0,4	35,0	37,2
Erantzukizun mugatuko sozietatea	42.834	43.142	27,3	0,7	263.130	275.073	31,5	4,5	6,1	6,4
Beste sozietate eta elkarte batzuk	14.960	15.023	9,5	0,4	120.800	123.854	14,2	2,5	8,1	8,2
Beste sozietate bat*	6.881	7.010	4,4	1,9	52.147	54.195	6,2	3,9	7,6	7,7
Ondasunen erkidegoa	6.403	6.320	4,0	-1,3	18.900	18.775	2,1	-0,7	3,0	3,0
Sozietate kooperatiba	1.676	1.693	1,1	1,0	49.753	50.884	5,8	2,3	29,7	30,1
Beste forma juridiko batzuk	969	955	0,6	-1,4	130.806	134.563	15,4	2,9	135,0	140,9
Tokiko korporazioa	372	369	0,2	-0,8	26.366	27.979	3,2	6,1	70,9	75,8
Erakunde autonomoa edo haren parekoa. Erlijio erakundea	551	543	0,3	-1,5	28.144	28.009	3,2	-0,5	51,1	51,6
Estatuko eta AAEEetako administrazioen organoak	46	43	0,0	-6,5	76.296	78.575	9,0	3,0	1658,6	1827,3

** (Erregular kolektiboa, komandita, elkartea, sozietate zibila eta definitu gabeko beste mota batzuk)*
Iturria: EUSTAT, JEGID

Enpresako batez besteko tamaina, lehen ere aipatu dugun moduan, 5,5 lanpostukoa da. Herri-administrazioa eta defentsa eta gizarte segurantza alde batera utzita (177,9), enpresako batez besteko tamaina handiena ageri duten sektoreak hauek dira: Ur hornidura; saneamenduko, hondakinak kudeatzeko eta deskontaminazioko jarduerak (21,6); manufaktura-industria (15,9), energia elektrikoaren, gasaren, lurrinaren eta aire egokituaren hornidura (15,2) eta administrazio-jarduerak eta laguntza-zerbitzuak (12).

Pertsona juridikoari [17]dagokionez eta enpresa txikienak alde batera utzita (titularra pertsona fisikoa dutenak, batez beste 1,4 lagun enpresako), batez besteko tamaina 11,4 lagunekoa da (aurreko urteetako batez besteko baino pixka bat

[17]*Titularraren edo enpresaren nortasun juridikoa (IFK, IFZ, NAN), kategoria hauetan bilduta: Pertsona fisikoa; Sozietate anonimoa; Erantzukizun mugatuko sozietatea; beste sozietate eta sozietate elkarte batzuk (Erregular kolektiboa, komandita, elkartea, sozietate zibila eta definitu gabeko beste mota batzuk) eta beste forma juridiko batzuk (Tokiko korporazioa; Erakunde autonomoa edo haren parekoa. Erlijio erakundea; Estatuko eta edo autonomia erkidegoetako administrazio organoa). EUSTAT (Metodologia, Definizioak)*

handiagoa: 11,2), non sozietate anonimoek batez beste 37,2 langile dituzten (35 2015an) eta kooperatibek 30,1 lagun (29,7, 2016an).

EAEko enpresa jardueraren erdia baino gehiago (% 60) "pertsona fisiko" motako estaldura juridikopean egiten da, baina formula horrek enpleguaren % 15,3 baino ez du biltzen. Horrenbestez, "Pertsona juridiko"pean egiten den enpresa jarduera % 40,9koa da, eta enpresa horiek enpleguaren % 84,7 biltzen dute.

Pertsona fisikoak aintzat hartzen ez badira, enpresa jardueraren % 8,6 sozietate anonimoaren forma juridikoarekin egiten da; enpresa jardueren ia-ia bi heren (% 66,7) erantzukizun mugatuko sozietatearen forma juridikoaren pean egiten da; % 75,3 sozietate anonimoen eta erantzukizun mugatuko sozietateen artean banatzen da eta sozietate kooperatiboak enpresen % 2,6 dira eta enpleguaren % 6,9 hartzen dute.

Bestalde, 2017ko amaieran, 59.045 enpresa zeuden inskribatuta Gizarte Segurantzan eta EAEko 172.272 autonomo zeuden alta emanda.

Merkatuko edo enpresako ekonomia sozialaren egituraren (batez ere Sozietate Kooperatiboak eta Lan Sozietateak) analisiak erakusten du Sozietate Kooperatiboaren izaera juridikoa daukaten enpresen kopurua 1.693 izan dela 2017an, EUSTATen arabera. Gainera, 50.884 langile dauzkate; beraz, batez besteko lan-taldea 30,1 langilekoa da, lehenago ere esan dugunez.

2017an, abenduaren 31ko behin-behineko datuekin, Gizarte Segurantzan altan dauden 1.623 kooperatiba enpresa (aurreko urtean baino 24 gehiago) erregistratu ditu, guztira; horiek 59.290 langile zituzten. Horrek 36,5 langileko batez bestekoa dakar kooperatibako (EUSTATeko ratioa baino handiagoa), eta Estatuko batezbesteko handiena da, non batezbestekoa 15,3 den.

Bestalde, Eusko Jaurlaritzaren Gizarte-ekonomiaren Zuzendaritzaren Kooperatiben Erregistroak 1.940[18], kooperatiba zenbatu zituen 2017an, eta horietatik, erdia baino gehiago (1.092), lan elkartuko kooperatibak ziren.

II.3.5. TAULA. EAE-KO KOOPERATIBEN KOPURUAREN BILAKAERA, MOTEN ARABERA SAILKATUAK (XII-31N)

	2014	2015	2016	2017		2016-17	2007-17
				ABS.	%	ALDAK.	ALDAK.
GUZTIRA	**1.875**	**1.906**	**1.926**	**1.940**	**100,0**	**14**	**299**
NEKAZARITZA	113	114	114	112	5,8	-2	283
KONTSUMOA	36	36	36	38	2,0	2	6
ZERBITZUAK ETA BESTE	84	85	90	85	4,4	-5	9
ELKARLANA	1.107	1.107	1.099	1.092	56,3	-7	35
IRAKASKUNTZA	95	96	96	99	5,1	3	7
ETXEBIZITZA	350	376	396	421	21,7	25	197
KREDITUA	1	1	1	1	0,1	-	-
MISTOAK	43	44	46	45	2,3	-1	28
2. GRADUA EDO HAND	46	47	48	47	2,4	-1	4

Iturria: Kooperatiben Erregistroa. Lan eta Gizarte Politiketako Saila. EUSKO JAURLARITZA.

Gainera, beste 1.106 erakunde kooperatiba txikiak ziren (beren araubidea eta araudia dituztela, ekainaren 25eko 6/2008 Legea dela bide), halako moldez non EAEn, 2017. urtea amaitzean, 3.046 kooperatiba bildu baitziren guztira.

Hazkunderik handiena, aurreko ekitaldietan bezala, etxebizitza kooperatibetan erregistratzen da (+25); izan ere, kategoria horretan 197 kooperatiba gehiago bildu dira azken bederatzi urteotan.

Lan Sozietateei dagokienez[19], Gizarte Segurantzaren arabera, gure Erkidegoan kotizatzen dutenen kopuru osoa 600 da, hau da, 2016an baino 23 gutxiago (abenduaren 31ko datuak). Enpresa horiek 6.925 langile dauzkate (2016an baino

[18] *Ikusi Gizarte Segurantzaren eta EUSTATen datuekiko aldea.*

[19] *Haietan, sozietatearen kapitalaren gehiena langile bazkideena da. Bazkide bakoitzak gehienez eduki dezakeen kapital soziala ezin daiteke izan guztiaren herena baino handiagoa (partaidetza publikoarekin salbuespen batzuk gertatu ohi dira). Horregatik, gutxieneko bazkide kopurua 3 da. Kapital soziala akzio izendunetan banatzen denean, lan sozietate anonimoa da (SAL). Partaidetza sozialetan banatzen denean, izaera juridikoa lan-erantzukizun mugatuko sozietateena da (SLL). Nolanahi ere, bai akzioak bai partaidetzak bi taldetan banatzen dira: bazkide langileenak eta beste pertsona batzuenak.*

% 0,6 gehiago). Hala, batez besteko tamaina 11,5 langilekoa da sozietate bakoitzeko, Estatuko batez bestekoa (6,59 langile) baino askozaz ere handiagoa.

3.1.2. ENPRESA-DEMOGRAFIA

Enpresa-txandakatzeari buruzko azterlana (altak, bajak eta saldoa) funtsezkoa da enpresen dinamismoari buruzko ezaugarriak ondorioztatzeko, hots, enpresa berriak sortzeko ahalmenari buruzkoak[20].

II.3.6. TAULA. ENPRESEN ALTAK, BAJAK ETA SALDO GARBIA

	2013/1/1	2014/1/1	2015/1/1	2016/1/1	2017/1/1
Aurreko urtean dagoen enpresa kop*	165.517	161.067	159.001	158.810	158.436
Altak	14.977	16.144	17.690	17.485	16.179
Bajak	19.427	18.210	17.881	17.850	16.529
Saldo garbia	-4.450	-2.066	-191	-365	-350
Enpresen sorrera-tasa gordina (%)	9,0	10,0	11,1	11,0	10,2
Enpresen galera-tasa gordina (%)	11,7	11,3	11,2	11,2	10,4

** Aurreko urtea amaitzean eta hurrengoaren hasieran zenbatuta*
Iturria: Enpresen sorrerari eta galerari buruzko estatistika, Eustat.

EUSTATen "Enpresen sorrerari eta galerari buruzko estatistika"ri esker, sortzen eta denborarekin desegiten diren enpresen kopurua zenbatetsi daiteke. Informazio demografiko hori zuzenean lortzen da JEGIDetik, eta gainera, iraupenari eta galerari buruzko tasak ere lor daitezke.

2017ko urtarrilaren 1ean, enpresen kopurua murriztu egin da 16.179 enpresa berrik jarduera hasi dutelako eta 16.529 enpresek utzi dutelako euren jarduera. Horrela, saldo gordina -350ekoa da. Bestalde, enpresak sortzeko tasa gordina, urte zehatz bateko alten kopurua zati aurreko urtean zegoen enpresa-kopurua bezala kalkulatuta, % 10,2koa da; itxitako enpresa-tasa, aldiz, % 10,4koa izan zen. [21]

II.3.7. koadroan 2012. urtearen hasieran alta emanda zeuden eta hurrengo bost urteetan jardunean aritu diren enpresen bilakaera dago jasoa. Hala, 2012an sortutako enpresen % 45,9 aktibo mantentzen zen (15.791 guztira) bost urte geroago (7.241) eta alderantziz, enpresen % 54,1a desagertu zen (8.550).

Egoitza EAEn dutenak ardatz hartuta, era berean, 2012an sortutako enpresen %45,9k jardunean jarraitzen dute bost urteren buruan, eta %54,1 desagertu da (kopuru absolutuetan, 8.337 enpresa gutxiago). Enpleguan eragina negatiboa da (-7.185 lanpostu), baina enpresa-kopuruan baino arinagoa. Aurrera egitea lortu duten enpresetan dago hasierako lanpostuen % 75,2; hau da: lanpostuak galdu arren (lanpostu-kopurua 28.948tik 21.763ra jaitsi da), galera-portzentajea (%24,8 puntu) enpresa-kopuruaren bilakaera baino txikiagoa da, argi eta garbi (portzentajezko 54,1 puntu).

Lurralde historikoen arabera, Araban 2012an alta emandako enpresen % 44,1ek aktibo jarraitzen dute (hasierako lanpostuen % 83,9); Bizkaian % 45,3k (hasierako lanpostuen % 69,2) eta Gipuzkoan % 47,6k (hasierako lanpostuen % 80,3).

Gauzak horrela, 2012an alta egindako enpresetan, batez beste, 1,9 lagun zeuden lanean, eta gaur egun 3,1 lagun.

[20] *Kontuan hartu behar da jardueren alta eta bajako egoeren zati bat ondokoen ondorioz gertatzen direla: erregistroko aldaketa, izen-aldaketak, bategiteak, erosketa-eragiketak... Alta edo bajaren arrazoia ez baita jasotzen.*

[21] *Desagertze-tasan, bajekin kalkulatzen da zatidura.*

II.3.7. TAULA. ENPRESAK ETA ENPLEGATUAK, 2012/01/01EAN ALTAN EMANA ETA JARDUNEAN AZKEN BOST URTEAN

	Altak 2012/1/1ean		Jardunean									
			2013		2014		2015		2016		2017	
	Enpresak	Lanpost.	Enpresak	Lanpost	Enpresak	Lanpost.	Enpresak	Lanpost.	Enpresak	Lanpost.	Enpresak	Lanpost.
GUZTIRA	**15.791**	**32.267**	**13.679**	**30.759**	**11.315**	**28.675**	**9.570**	**26.215**	**8.347**	**25.240**	**7.241**	**24.116**
Egoitza EAEn	**15.409**	**28.948**	**13.347**	**27.444**	**11.041**	**25.522**	**9.338**	**23.508**	**8.152**	**22.733**	**7.072**	**21.763**
Araba	2.221	5.138	1.916	4.716	1.553	4.449	1.312	4.233	1.143	4.577	980	4.310
Bizkaia	8.236	14.951	7.056	14.401	5.894	13.188	4.973	11.922	4.326	11.063	3.735	10.340
Gipuzkoa	4.952	8.859	4.375	8.327	3.594	7.885	3.053	7.353	2.683	7.093	2.357	7.113
Biziraupen-tasa												
GUZTIRA	**100**	**100**	**86,6**	**95,3**	**71,7**	**88,9**	**60,6**	**81,2**	**52,9**	**78,2**	**45,9**	**74,7**
Egoitza EAEn	**100**	**100**	**86,6**	**94,8**	**71,7**	**88,2**	**60,6**	**81,2**	**52,9**	**78,5**	**45,9**	**75,2**
Araba	100	100	86,3	91,8	69,9	86,6	59,1	82,4	51,5	89,1	44,1	83,9
Bizkaia	100	100	85,7	96,3	71,6	88,2	60,4	79,7	52,5	74,0	45,3	69,2
Gipuzkoa	100	100	88,3	94,0	72,6	89,0	61,7	83,0	54,2	80,1	47,6	80,3

Iturria: EUSTAT. Enpresen sorrerari eta galerari buruzko estatistika

Aurreko urteetan legez, txandaketarik handiena establezimendu hauetan izan da: *Handizkako eta txikizkako merkataritza; motordun ibilgailuen motozikleten konponketa*, 2 lanpostu edo gutxiagokoak eta pertsona juridikoa formula juridikopean sortuta.

3.2. LEHEN SEKTOREA

EUSTATen "Kontu Ekonomikoen" datuen arabera (2018ko otsailekoak), 2017an, lehen sektorea (energia barne), 543,3 milioi eurorekin eta lanaldi osoko 12.477 lanposturekin (LOL), guztizko BPGaren % 0,7 izan da prezio korronteetan eta lanaldi osoko enpleguaren % 1,3.

3.2.1. NEKAZARITZA, ABELTZAINTZA ETA BASO-USTIAPENA

Ekonomiaren Garapenerako eta Azpiegituretarako Saileko Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Politikako Sailburuordetzaren Estatistika Organoak 2018ko martxoan argitaraturiko *Nekazaritzako makromagnitudeen bigarren aurrerapenaren* arabera, hona hemen nekazaritza sektorearen bilakaera xehatua.

Nekazaritzako Azken Produkzioa (nekazaritza, abeltzaintza, basogintza eta beste produkzio batzuk. Nekazaritzako azken produkzioaren balioa 2016an lorturikoa baino %2,3 handiagoa da, produkzioak gora egin duelako (%1,6 ingurua) eta prezioak ere handitu direlako (%3,9).

Nekazaritzako azken produkzioa. Nekazaritzako azken produkzioaren balioa, ohiko prezioetan, 2016an lorturikoa baino %0,7 txikiagoa da, produkzioak behera egin duelako (-%5,7) eta prezioek gora egin dutelako (%5,3 inguru).

Abeltzaintzako Azken Produkzioa. Abeltzaintzako azken produkzioaren balioa %4,9 hazi zen 2017an. Abeltzaintzako batez besteko prezioek %2,6 egin dute behera azken 3 urtean.

Basogintzako Azken Produkzioa. Basogintzako azken produkzioaren balioak %12,6 egin du gora. Suspertzeko joera gorabehera, merkatu berrietan sartzea eta berrikuntza eta produktu berriak garatzea oraindik erronka dira sektore honetan, orain zenbait urte higiezinen arloko krisiak sektorea gogor astindu ondoren.

Bitarteko kontsumoak. Bitarteko kontsumoek (gastuek) %2 egin zuten behera 2017an, etengabeko prezioen igoeragatik (+%0,4) eta bitarteko prezioen %1,5eko igoeragatik.

Ustiapenerako diru-laguntzak. 2017an, ustiapenerako guztizko diru-laguntzek %2,3 egin zuten behera, eta pisu txikiagoa zuten nekazaritzako guztizko errentarekiko: %19,8koa 2016an eta %19koa 2017an.

Amortizazioak. %1,1eko igoera izan zuten.

Nekazaritza errenta nominala edo balio arruntetakoa (BEG). Nekazaritza errenta kalkulatzeko Gastuak eta Amortizazioak kendu behar zaizkio Nekazaritzako Azken Produkzioaren (nekazaritza + abeltzaintza + basogintza + bestelakoak) eta Diru-laguntzen baturari. Joera horrek zikloak dituela uzten du agerian: Goranzkoa 1985 eta 2000 bitartean, beheranzkoa 2000 eta 2009 bitartean, eta berriz ere goranzkoa gaur egunera. 1985 eta 2007 bitartean, %68ko hazkundea izan zen.

Nekazaritza errenta erreala. Inflazioa kenduta ikusten denez, argi eta garbi beheranzkoa da nekazaritza ustiapenen erosteko ahalmena, azken urtean gorantz ari bada ere. 1985 eta gaur arteko jaitsiera %43koa da.

II.3.18. TAULA. NEKAZARITZAKO MAKROMAGNITUDEEN BILAKAERA (mila eurotan)

	2013 Behin bet.	2014 Behin bet.	2015 Behin bet.	2016 Aurrerapena	2017 Aurrerapena	2016-2017 aldak.
NEKAZARITZAKO AZKEN PROD.	**458.733,1**	**510.458,5**	**526.161,7**	**533.822,3**	**546.018,4**	**2,3**
Nekazaritzako azken produkzioa	233.956,0	250.584,4	280.557,5	293.658,3	291.594,5	-0,7
Zerealak	36.830,7	33.482,2	31.266,4	37.718,1	36.655,4	-2,8
Lekadunak	3.177,6	4.185,9	5.215,5	4.897,9	4.194,7	-14,4
Patata	9.370,5	9.322,6	10.287,4	12.968,8	11.829,8	-8,8
Erremolatxa	6.012,2	8.009,7	6.851,1	6.325,0	6.438,0	1,8
Industriako beste batzuk	1.755,8	1.452,8	2.391,1	2.233,0	2.027,9	-9,2
Barazkiak	67.166,8	67.100,8	74.547,6	72.748,1	73.075,1	0,4
Frutak	14.701,0	16.759,6	20.330,5	14.505,1	16.582,9	14,3
Mahastiak	75.492,1	92.521,8	107.199,4	120.567,7	118.401,8	-1,8
Beste batzuk	19.449,3	17.749,1	22.468,5	21.694,6	22.388,9	3,2
Abeltzaintzako azken produkzioa	177.342,0	194.154,3	179.900,8	176.332,0	184.965,4	4,9
Behi animaliak/haragia	62.205,3	69.856,9	56.818,5	58.803,3	61.273,2	4,2
Ardi-ahuntz anim./haragia	6.413,0	6.595,9	7.110,9	6.031,1	6.959,8	15,4
Txerri animaliak/haragia	2.475,4	3.437,1	3.514,9	3.259,0	3.707,7	13,8
Behi-esnea	61.179,5	64.358,6	59.852,1	59.754,9	60.114,8	0,6
Arrautzak	22.955,7	24.992,8	25.023,9	21.270,4	25.801,7	21,3
Beste batzuk	22.113,2	24.913,0	27.580,5	27.213,3	27.108,2	-0,4
Basogintzako azken produkzioa	37.585,1	45.312,0	46.587,8	44.716,4	50.342,9	12,6
Insignis pinuaren egurra	28.473,4	35.999,2	37.119,7	34.890,7	40.434,4	15,9
Beste batzuk	9.111,7	9.312,8	9.468,1	9.825,7	9.908,5	0,8
Beste produkzio batzuk	9.850,0	20.407,8	19.115,6	19.115,6	19.115,6	0,0
BITARTEKO KONTSUMOAK	184.041,2	187.165,3	195.801,2	192.609,2	196.382,9	2,0
DIRU-LAGUNTZAK	63.145,1	60.001,0	65.734,8	64.403,7	62.911,1	-2,3
AMORTIZAZIOAK	59.391,5	80.852,6	81.701,8	80.891,6	81.800,9	1,1
BEG bbs	274.691,9	323.293,2	330.360,4	341.213,0	349.635,5	2,5
BEG ald	**337.837,0**	**383.294,2**	**396.095,2**	**405.616,8**	**412.546,6**	**1,7**
NEKAZARITZAKO ERRENTA (BEG)	**278.445,5**	**302.441,6**	**314.393,4**	**324.725,2**	**330.745,7**	**1,9**

Iturria: Garapen Ekonomikoaren eta Azpiegituren Saileko Nekazaritza, Arrantza eta Elikagaien Politikako Sailburuordetzaren Estatistika Organoa

EAEko nekazaritza errentaren alderaketa balio errealetan (deflazioa aplikatuta) EBkoarekin eta Estatukoarekin alderatzea

Estatuarekin erkatuta (basogintza alde batera utzita), nekazaritza errenta errealak %0,7 egin zuen behera EAEn. Estatuan, aldiz, %1,7 egin zuen gora, Ministerioak nekazaritza errentari buruz eginiko bigarren aurrerapenean.

EAEn nekazaritzako eta abeltzaintzako azpisektoreetan EAEn lan egiten duten biztanleen zenbatespenek erakusten dutenez, %1,1eko igoera izan da. Ministerioak eginiko zenbatespenetan, berriz, %7,6 egin du gora landunen kopuruak. Hortaz, landun bakoitzeko nekazaritza errenta erreala %1,8 jaitsi da gure Erkidegoan, eta Estatuan ere behera egin du, baina %5,6.

II.3.9 TAULA. NEKAZARITZA ERRENTA ERREALAREN BILAKAERA (basogintza sartu barik)*(aldakuntza-tasak) 2016-17*

	EAE	ESTATUA
Nekazaritza errenta (termino errealetan)	**-0,7**	**1,7**
Nekazaritzako azken prod. (nekaz. eta abeltzaintza)	0,5	1,3
Nekazaritzako azken prod.	-1,6	-3,5
Abeltzaintzako azken prod.	4,0	9,6
Bitarteko kontsumoak	1,1	0,7
Diru-laguntzak	-3,2	-1,0
Nekazaritza errenta erreala / landuna	**-1,8**	**-5,6**

Iturria: Garapen Ekonomikoaren eta Azpiegituren Saileko Nekazaritza, Arrantza eta Elikagaien Politikako Sailburuordetzaren Estatistika Organoa

3.2.2. Arrantza

Ekonomia Garatzeko eta Lehiakortasuna Sustatzeko Sailaren Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Politika Sailburuordetzaren estatistika organoak argitaraturiko azken datuen arabera (2016ari buruzkoak), euskal arrantza-ontziteriak beherantz jarraitu zuen kopuruaren aldetik nahiz landunen aldetik. 2014an, 8 itsasontzi gutxiago izan ziren arrantza-ontziterian (aurreko urtean 12 gutxiago izan ziren), eta urtearen amaieran, guztira, 187 itsasontzi zeuden. Bestalde, enpleguen kopuruak ere behera egin du (itsasoan eta lehorrean), 2.112 lagun izatetik 2.027 izatera.

II.3.10. TAULA. EAE-KO ARRANTZAKO ITSASONTZI HANDIAK ETA TRIPULAZIOA

	2012	2013	2014	2015	2016
Itsasontzi handiak	236	220	207	195	187
Enplegatuak (itsasoan eta lehorrean)	2.626	2.363	2.229	2.112	2.027

Iturria: Ekonomia Kontuak. EAEko arrantza sektorearen makromagnitudeak et agaleren eta irabazien kontua, azpisektorearen arabera (hainbat urte). Garapen Ekonomikoaren eta Azpiegituren Saileko Nekazaritza, Arrantza eta Elikagaien Politikako Sailburuordetzaren Estatistika Organoa.

EAEko baxurako lonjetan 2016an egindako enkanteak guztira 45.453 tona izan ziren (2016an baino -%0,9 gutxiago). 79,2 milioi euro bildu dira, eta sarrerak 2015ekoak baino handiagoak izan dira, %16,5 handiagoak (67,9 milioi euro).

Enkantean jarritako arrainaren batez besteko salneurria 1,74 €/Kg izan da, 2015eko batez bestekoaren gainetik (1,48 €/kg.). Batez besteko salneurririk handiena atun gorriari dagokio (7,16 €/Kg), ondoren legatzari (3,83 €/kg) eta hegaluzeari (3,78 €/kg).

Lurraldez lurralde, Gipuzkoa nabarmentzen da enkantean jarritako arrain kantitatearen (Tm) nahiz enkanteko balioaren (eurotan) aldetik, guztizkoaren %55,6 eta %66 hurrenez hurren.

II.3.11. TAULA. EAEko BAXURAKO LONJETAN ENKANTEAN JARRITAKO ARRAINEN BILAKAERA

	2012	2013	2014	2015	2016
Kopurua, guztira (Tm) (a)	**55.870**	**45.800**	**49.111**	**45.876**	**45.453**
Gipuzkoa	31.453	24.454	27.411	26.669	25.487
Bizkaia	24.417	21.345	21.699	19.207	19.966
Mila € (b)	**80.743**	**65.488**	**65.702**	**67.939**	**79.174**
Gipuzkoa	51.112	39.062	38.970	43.087	52.348
Bizkaia	29.631	26.425	26.732	24.853	26.827
Batez besteko prezioa (€/kg) (b/a)	**1,45**	**1,43**	**1,34**	**1,48**	**1,74**

Iturria: Garapen Ekonomikoaren eta Azpiegituren Saileko Nekazaritza, Arrantza eta Elikagaien Politikako Sailburuordetzaren Estatistika Organoa

II.3.12. TAULA. EAE-KO BAXURAKO LONJETAN JARRITAKO ENKANTEAK, 2016									
	Antxoa	Atun gorria	Hegaluzea	Txitxarroa	Berdela eta betaundia	Sardina	Legatza	Beste espezie b.	Guztira
Kopurua, guzt. (Tm)	**14.596,8**	**634,4**	**6.106,3**	**2.682,2**	**10.248,4**	**7.483,4**	**353,0**	**3.348,6**	**45.453,0**
Gipuzkoa	8.194,8	584,3	5.037,1	640,8	5.163,9	3.791,6	221,6	1.852,8	25.487,0
Bizkaia	6.402,0	50,1	1.069,3	2.041,3	5.084,5	3.691,7	131,4	1.495,7	19.966,0
Mila €	**23.036,2**	**4.540,3**	**23.092,7**	**2.400,1**	**7.851,5**	**7.764,0**	**1.350,5**	**9.139,1**	**79.174,5**
Gipuzkoa	13.428,2	4.224,3	19.266,5	571,7	3.761,8	3.856,1	835,8	6.403,5	52.347,9
Bizkaia	9.608,1	316,0	3.826,2	1.828,4	4.089,6	3.907,9	514,7	2.735,6	26.826,6
Batez b. prezioa (€/kg)	**1,58**	**7,16**	**3,78**	**0,89**	**0,77**	**1,04**	**3,83**	**2,73**	**1,74**

Iturria: Garapen Ekonomikoaren eta Azpiegituren Saileko Nekazaritza, Arrantza eta Elikagaien Politikako Sailburuordetzaren Estatistika Organoa

3.3. INDUSTRIA

EUSTATen "*Ekonomia kontuak*" direlakoen arabera (2018ko otsailekoak), 2017an industriako sektorea guztizko BPGaren %21,8 zen prezio korronteetan eta guztizko enpleguaren %21,5 (LOE); izan ere, 16.061 milioi euroko BEGa du (energia barne) eta lanaldi osoko 200.325 lanpostu.

Ekonomia kontuek erakusten dutenez, 2017an, industriako BEGaren urte arteko aldakuntza-tasa errealak hobetuz doaz lehen hiruhilekoan izandako %2ko hazkundearen ondotik, azken hiruhilekoan %3,7 izanik. 2017 urte osoan, industriako BEGaren urte arteko aldakuntza erreala %2,7 da (2016an erregistraturiko ratioa baino %0,2 gutxiago eta 2015ekoa baino %0,4 gutxiago). Bestela esanda, 2015 eta 2017 bitartean hazkunde moteldu egin da tasetan.

II.3.13. TAULA. INDUSTRIAKO ENPLEGUAREN ETA BEG-AREN BILAKAERA (urte arteko aldakuntza-tasa)									
	2015	2016				2017			
	4H	1H	2H	3H	4H	1H	2H	3H	4H
Industriako BEGaren aldakuntza-tasak bol.	4,0	4,4	2,0	2,6	2,7	2,0	2,3	2,7	3,7
Industriako enpleguko aldakuntza-tasa (LOE*)	2,4	1,4	1,5	2,0	2,0	1,8	1,9	1,7	1,6

**Lanaldi osoko enplegua*
Iturria: EUSTAT, HEKT

EAEko industriako BEGaren urteko batez besteko hazkunde hori Estatukoa baino txikiagoa da. Izan ere, EINen arabera, %3,7 da Estatuan.

Enpleguari dagokionez, zifrek agerian uzten dutenez (arestian esana dugunez, lanaldi osoko 200.325 lanpostu), urte batezko besteko hazkundea %1,7 da, 2016an ikusitako ratio bera eta 2015ekoa baino hiru hamarren handiagoa. 2017ko hiruhilekoetako profila ikusita, hala ere, lanpostuen hazkundea moteldu egin da bigarren hiruhilekotik.

Sektorearen produktibitatearen batez besteko hazkundea %1ekoa da urtean.

II.3.14. TAULA. INDUSTRIAKO SEKTOREKO ADIERAZLEAK							
	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2017
BPG prezio korronteetan (milioiak)	15.357	14.680	14.283	14.391	15.020	15.419	16.061
Lanpostuak (LOE)*	212.541	201.069	193.070	191.050	193.550	196.890	200.325
BEG aldakuntza (erreala)	1,5	-5,2	-2,8	2,2	3,1	2,9	2,7
Enplegu aldakuntza	-1,4	-5,4	-4	-1	1,3	1,7	1,7
Produktibitatea (LOEn neurtuta)	2,9	0,2	1,2	3,2	1,8	1,2	1,0

**Lanaldi osoko enplegua*
Iturria: EUSTAT, Ekonomia Kontuak

II.3.3. GRAFIKOA. INDUSTRIAKO SEKTOREAREN BILAKAERA



Iturria: CET. EUSTAT

II.3.15. TAULA. INDUSTRIAKO AZPISEKTORE NAGUSIEK EAE-KO EKONOMIAN DUTEN PISUAREN BILAKAERA

	BPG-AREN BANAKETA			ENPLEGUAREN BANAKETA (Lanpostu baliokideak)		
	2014	2015	2016	2013	2014	2015
2. Erauzketa-industriak	0,3	0,3	0,3	0,2	0,2	0,2
3. Elikagaien, edarien, tabakoaren ind.	6,8	6,5	6,7	7,4	7,5	7,4
4. Ehuna, jantzigintza, larrua eta oinetakoak	0,7	0,6	0,7	1,3	1,2	1,1
5. Egurra, papera eta arte grafikoak	4,6	4,3	4,4	6,2	6,0	5,8
6. Kokea lortzeko eta petrolioa fintzeko fabrikak	0,3	2,8	2,8	0,5	0,5	0,5
7. Industria kimikoa/ 8. Produktu farmazeutikoak	3,0	3,2	3,4	2,4	2,4	2,4
9. Kautxua, plastikoak eta metalezkoak ez diren beste produktu batzuk	8,9	9,3	9,3	9,7	9,4	9,5
10. Metalurgia eta metalezko produktuak	**28,7**	**27,2**	**28,0**	**34,3**	**34,7**	**34,7**
11. Prod. Informatikoak eta elektronikoak	2,5	2,5	2,4	3,1	3,1	3,3
12. Material eta ekipamendu elektrikoa	4,8	4,0	3,9	5,3	5,0	4,7
13. Makineria eta ekipamendua	**10,5**	**10,7**	**10,8**	**10,4**	**10,7**	**10,9**
14. Garraio materiala	**9,7**	**10,2**	**10,6**	**8,6**	**8,5**	**8,5**
15. Altzariak eta bestelako manufakturak	4,1	4,3	4,4	6,6	6,6	7,0
16. Energia elektrikoa, gasa eta lurruna	12,3	11,4	9,7	1,2	1,1	1,2
17. Ur-horniketa eta saneamendua	2,8	2,4	2,6	2,9	3,1	2,9
Industria guztira(BPG prezio korronteetan eta lanaldi osoko enplegua	14.390.602	15.019.800	15.419.026	193.070	191.050	193.550

Iturriak: EUSTAT, Ekonomia Kontuak

GRAFIKOA II.3.4. INDUSTRIAKO BPG-AREN BANAKETA AZPI-SEKTOREEN ARABERA, 2016



Metalurgia eta metalezko produktuak
Makineria eta ekipamendua
Garraio materiala
Energia elektrikoa, gasa eta lurruna
Beste batzuk

Iturria: EUSTAT

II.3.5. GRAFIKOA. INDUSTRIAKO ENPLEGUAREN BANAKETA AZPI-SEKTOREEN ARABERA, 2015



Metalurgia eta metalezko produktuak
Makineria eta ekipamendua
Garraio materiala
Energia elektrikoa, gasa eta lurruna
Beste batzuk

Iturria: EUSTAT

Bestalde, EUSTATen "Industri Produkzioaren Indizeak (IPI) urteko batez besteko % 2,8ko hazkundea eman zuen 2017an (datu osoekin eta 2010eko oinarriarekin) EAE osorako, 2016an erregistraturikoa baino ehunekozko puntu 1 puntu txikiagoa.

Lurraldez lurralde, hazkunderik handiena Araban dago (%3,5, aurreko urteko hazkundea %7 izan zen), ondoren Gipuzkoan (%3,2, aurreko urteko hazkundea %0,6 izan zen) eta Bizkaian (%2,1, aurrekoan %0,3).

Ondasunen helburu ekonomikoa aztertuz, EUSTATen arabera, EAEn, aipatutako batez besteko hazkundearen jatorria ekipamendu-ondasunen produkzioaren hazkundean dago (% 13,9), iraunkorrak ez diren ondasunen hazkundean (% 5,5) eta energiakoetan (% 2,3). Ondasun iraunkorren eta ekipo-ondasunen produkzioa, aldiz, murriztu dira, -% 1,6 eta -% 0,2, hurrenez hurren.

IPIren analisi sektorialetik ondorioztatzen denez (datu osoekin), manufaktura-industriaren baitan, EAErentzat garrantzitsuenak diren hiru azpisektore industrialek berriz ere urte arteko batez besteko aldakuntza positiboak izan zituzten: Metalurgia (BPG industrialaren %28 eta enplegu industrialaren %34,7), Makineria eta ekipoa (BPG industrialaren %10,8 eta enplegu industrialaren %10,9) eta Garraio materiala (BPG industrialaren %10,6 eta enplegu industrialaren %8,5). Urteko batez besteko aldakuntza positiboak dituzte: metalurgia (+%4,9), garraio materiala (+%1,7) eta makineria eta ekipoa (+%1,1). Soilik metalurgian izandako aldakuntza da industriako batez bestekoa baino handiagoa (%2,8).

Hazkunderik handienak izan dituztenak: kautxua eta plastikoak (+%7,4), Industria kimikoa (+%5,6), Produktu informatikoak eta elektronikoak (%5.3) eta Metalurgia (aipaturiko +%4,9).

EINen 2018ko ekaineko behin-behineko datuen arabera, Estatuan, 2017ko abenduan, IPIren batez besteko aldakuntza %2,9 da 2016ko abenduarekiko (datu osoak dira eta oinarria 2015). EINen ratioa ere %4,4 da EAErentzat.

Bestalde, EUROSTATen datuen arabera, Industri Ekoizpenaren Indizearen batez besteko aldakuntza 2017an, 2018ko otsaileko datuekin, % 3 da eurogunean eta % 3,3koa EB28n.

II.3.16. TAULA. IPI-REN BILAKAERA LURRALDEEN ETA ONDASUNEN JOMUGA EKONOMIKOAREN ARABERA. 2010eko oinarria. Datu gordinak. Urteko batez besteko igoera

	Guztira EAE	Lurralde historikoak			Ondasunen jomuga ekonomikoa					
					Kontsumo-ondasunak			Ekipo-ondasunak	Bitarteko ondasunak	Energia
		Araba	Gipuzkoa	Bizkaia	Guztira	Iraunkorra	Ez iraunkorra			
2011	3,5	7,7	1	3,9	-0,7	0	-1	10,3	5,1	-7,8
2012	-5,6	-4,6	-7,3	-4,4	-3,8	-5,1	-3,3	-5,9	-7,2	-2
2013	-3,3	-2,7	-4,4	-2,5	-5	-10,8	-2,7	-3,3	-2,6	-3
2014	1,8	0,6	2,5	1,6	-1,5	-16	3,8	2,2	2,8	0,1
2015	3,5	1,1	4,8	3,4	4,9	17,7	1	7,3	1,3	1,4
2016	1,8	7	0,6	0,3	-0,3	-4,9	1,3	7,8	0,4	-3,9
2017b	2,8	3,5	3,2	2,1	2,2	13,9	-1,6	-0,2	5,5	2,3

b. behin-behinekoak. Iturria: EUSTAT IPI (2018ko martxoko datuak)

II.3.17.TAULA. IPI JARDUKERAKO AZPISEKTOREEN ARABERA. 2010eko oinarria. Datu gordinak. Urteko batez beteko hazkundea							
	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2017
IPI	3,5	-5,6	-3,3	1,8	3,5	1,8	2,8
2. Erauzketa-industriak	-21,7	-10,3	-18	9,7	-5,2	-17,4	3,5
3. Elikagaien, edarien, tabakoaren ind.	-2,8	0,7	0,5	4,1	1,3	1,8	-0,3
4. Ehuna, jantzigintza, larrua eta oinetakoak	6,8	-23,4	-14,4	5,7	-2	-1,5	-4,2
5. Egurra, papera eta arte grafikoak	5,5	-4,3	-2,6	6,1	6,4	0,4	-0,4
6. Kokea lortzeko eta petrolioa fintzeko fabrikak	-5,4	-6,5	14,6	16	5,4	1	1,5
7. Industria kimikoa/ 8. Produktu farmazeutikoak	-0,6	-12,4	-1,7	5,2	5	1,7	5,6
9. Kautxua, plastikoak eta metalezkoak ez diren beste produktu batzuk	2,6	-15	1,6	6,9	-6,2	6,9	-3,8
10. Metalurgia eta metalezko produktuak	1,9	-14,1	-6	0	-0,2	2,9	7,4
11. Prod. Informatikoak eta elektronikoak	5,3	-5	-2,9	2,6	1,2	-0,2	4,9
12. Material eta ekipamendu elektrikoa	12,5	1	-6,2	7,7	15,6	9,6	5,3
13. Makineria eta ekipamendua	0,5	-4,9	-7,9	-7,4	-0,5	-6,4	-0,7
14. Garraio materiala	15,2	-0,9	-0,3	1,8	6,8	2,1	1,1
15. Altzariak eta bestelako manufakturak	12,2	-9,5	-3,4	1,1	3,4	15,6	1,7
16. Energia elektrikoa, gasa eta lurruna	1,6	-9,5	-6	0,2	22,3	5,4	0,5
17. Ur-horniketa eta saneamendua	-8,2	-1,2	-6	-3,3	0,4	-5,2	2,5

b. behin-behinekoak. Iturria: EUSTAT IPI (2018ko martxoko datuak)

EUSTATen "Industri Prezioen Indizea" (IPRI) produktuak merkaturatzeko lehen urratsean industri prezioen bilakaeraren koiuntura-adierazlea da, hots, ekoizleak transakzioan benetako jasotako prezioena, zeharkako zergak eta diru-laguntza garbiak sartu barik (horrelakorik balego). Indize horrek 2017an %2,6 egin zuen gora gure Erkidegoan 2016ko abenduaren eta 2017ko abenduaren artean.

Igoerarik handienak, berriz: Metalurgia eta metalezko produktuak (%6), Produktu farmazeutikoak (%4,8), Energia elektrikoa, gasa eta lurruna (%4,2), Kokea eta petrolio finketa (%1,8), Makineria eta ekipoa (%1,7), eta Zura, papera eta arte grafikoak (%1,6). Sektore hauetan, berriz, behera egin dute prezioek: Erauzketa-industriak (-%2), Elikagaien, edarien eta tabakoaren industriak (-%0,7) eta Produktu informatikoak eta elektronikoak (-%0,2).

Manufaktura-industriaren barruan eta EAEko hiru azpisektore industrial garrantzitsuenetariko bakoitzean arreta jarriz, jotzen da Metalurgian eta metalezko produktuen industrian % 6ko hazkundea egon dela; Makinak eta ekipoan % 1,7koa eta Garraio materialean % 0,1.

Ondasunen jomugaren arabera, kontsumo iraunkorreko ondasunen prezioan izan ezik (nulua izan da aldakuntza), gainerakoetan aldakuntza positiboak izan dira. Handiena energiaren prezioan dago (%14,8), ondoren bitarteko ondasunen prezioan (%7,5), kontsumo ez iraunkorraren ondasunen prezioan (%2,3), eta ekipo-ondasunenean (%0,7).

2017ko otsaileko datuen arabera, Industri Prezioen Indizearen aldakuntza 2017ko abenduan, 2016ko abenduarekin alderatuta, +% 2,6koa da EAEn (EUSTATek emandako ratio bera). Estatuko aldakuntza, EINen arabera, %1,7 da. Bestalde, EUROSTATen 2018ko otsailekin datuen arabera, Industriako Prezioen Indizearen aldakuntza +%2,2 da 2017ko abenduan 2016ko abenduarekiko eurogunean eta +%2,4 28ko EBrekiko.

II.3.18. TAULA. ONDASUNEN JOMUGA EKONOMIKOAREN ETA JARDUERA AZPISEKTOREEN ARABERAKO IPRI. 2010 OINARRIA CNAE-2009 (aurreko abenduarekiko aldakuntza)								
	2010-IV	2011-IV	2012-IV	2013-IV	2014-IV	2015-IV	2016-IV	2017-IV
Aurkibide orokorra	**6,4**	**5,8**	**0,7**	**0,5**	**-3,6**	**-1,8**	**0,8**	**2,6**
Ondasunen jomuga ekonomikoa								
Kontsumo ondasunak	1,6	1,3	2,8	-0,4	-0,5	-0,4	1,6	1,6
---Kontsumo iraunkorreko ondasunak	0	1,7	-0,3	0,4	-1,3	-0,4	-0,1	0
---Kontsumo ez iraunkorreko ondasunak	2,3	1,1	3,9	-0,6	-0,2	-0,3	2,2	2,3
Ekipo ondasunak	0,7	1,3	1,4	0,8	-0,3	0,6	1,2	0,7
Bitarteko ondasunak	7,5	3,7	-0,6	-1,2	0	-2,2	-0,5	7,5
Energia	14,8	16,2	0,6	3,4	-15,7	-5,6	4,5	14,8
Jarduera-sektoreak								
-Erauzketa-industriak	-4,3	2,6	-5,2	-0,5	-1,9	0,8	-1,3	-2
--Erauzketa-industriak	-4,3	2,6	-5,2	-0,5	-1,9	0,8	-1,3	-2
-Manufaktura-industria	6,5	4,3	0,6	-0,4	-3,4	-2,5	2,2	2,4
--Elikagai, edari eta tabakoaren ind.	5,4	1,4	5,5	-1,6	-0,4	-0,8	3,2	-0,7
--Oihal prod., jantzigintza, larru prod. eta oinetakoak	2,3	-2,7	2,4	-0,8	-0,4	2,4	-0,5	0,4
--Zura, papera eta arte grafikoak	3	4,4	-1,8	0,8	0,2	0	-0,2	1,6
--Kokea lortzeko eta petrolioa fintzeko fabrikak	22,9	16,3	1	0,7	-22,6	-13,7	18,8	1,8
--Industria kimikoa	3,7	6,7	2,3	0,2	-1	-1,3	-1	0,2
--Produktu farmazeutikoak	-0,3	0,9	0,9	0,1	1,2	1,5	2,6	4,8
--Kautxua eta plastikoak	1,7	1,5	-0,4	5,3	-2,3	0,8	-3,1	0,9
--Metalurgia eta metalezko produktuak	**9,2**	**2,7**	**-0,5**	**-3**	**0,8**	**-4,1**	**0,5**	**6**
--Prod. informatikoak eta elektronikoak	-1,4	3,2	0,4	-2	1	-0,5	-0,1	-0,2
--Material eta ekipo elektrikoa	4,5	6,5	2,1	-2	-0,5	1	1,6	0,3
--Makineria eta ekipoa	**0,1**	**1**	**0,4**	**2,1**	**0,2**	**0**	**0,4**	**1,7**
--Garraio materiala	**0,8**	**2**	**-0,6**	**1**	**-0,5**	**1,6**	**1,1**	**0,1**
--Altzariak eta bestelako manufakturak	0	1,5	2,7	-0,7	-3,7	1,6	-1,9	2,4
-Energia elektrikoa, gasa eta lurruna	5,1	16,6	1,5	6	-4,4	3,1	-7,4	4,2
--Energia elektrikoa, gasa eta lurruna	5,1	16,6	1,5	6	-4,4	3,1	-7,4	4,2

Iturria: EUSTAT. IPRI.(2018ko martxoko datuak)

EUSTATen "Industria Estatistikaren" operazio estatistikoaren helburua da informazio ekonomikoa eskuratzea sektorearen makromagnitude nagusiak kalkulatzeko; hala, horrek erakusten du, 2018ko apirilean argitaratutako 2016ko datuekin, 2015 eta 2016 bitartean, sektore industrialaren faktore-kostuen gaineko BEGak % 4,5eko hazkunde izenduneko tasa erregistratu zuela, aurreko urteko % 3,4 baino gehiago. Bestalde, enplegua %1,9 hazi zen (bigarren urtez jarraian), inbertsioa %8,3 eta zergen ondorengoko eragiketa iraunkorren emaitzek (zergak baino lehenagoko emaitza ken etekinen gaineko zerga) %48,5 egin zuten gora. Ratio horiek izanda, bi urtez jarraian izan ditu hazkundeak industriaren sektoreak.

Hala eta guztiz ere, negozio-zifraren zenbateko garbia 53.574 milioi eurora heldu zen 2016an; horrek, EUSTATen arabera, % 2,4ko gutxikuntza nominala ekarri zuen. Hala, murrizketa hori horniduretako eta kanpoko zerbitzutako gastuen jaitsiera handiagoak arindu zuen, balio erantsiaren hazkundea erraztuz.

Lurraldez lurralde, enplegua eta BEG bb hiru lurraldeetan hazi ziren. Araban eta Bizkaian enplegua %2,9 eta %2,3 hazi ziren hurrenez hurren. Gipuzkoan, berriz, %1. BEG bb hiru lurraldeetan hazi da: Bizkaian %4,9, Gipuzkoan %4,6 eta Araban %3,7. Bestalde, negozioen kopuruaren aldakuntza antzekoa da, zeren eta Araban %5,5 hazi baita eta Bizkaian eta Gipuzkoa, berriz, behera egin baitu, %5,6 eta %3,4 hurrenez hurren.

II.3.19. TAULA. INDUSTRIAREN SEKTOREKO MAGNITUDEAK ATALEN ARABERA

		Banaketaren % (Industria = 100) 2015					2015/16 aldak.				
		BEG fk	Enplegua (perts.)	Inbertsioa	Negozioen zifra (salm. garbiak)	Zergen ondorengo emaitzak*	BEG fk	Enplegua	Inbertsioa	Negozioen zifra	Zergen ondorengo emaitzak
Guztira, industria		100	100	100	100	100					
	Mila euro	**14.154.616**	**198.141**	**1.994.468**	**53.574.121**	**2.658.593**	**4,5**	**1,9**	**8,3**	**-2,4**	**48,5**
B atala	Erauzketa-industria	0,2	0,2	0,2	0,3	-0,4	-31,0	-6,4	-27,2	-20,7	-441,7
C atala. Manufaktura industria	Elikagaien, edarien eta tabakoaren industria	6,4	7,4	7,3	7,9	8,0	-0,8	-0,4	-8,8	-5,1	2,1
	Ehungintza, ebak. larrug. eta oinet.	0,7	1,3	0,2	0,5	0,8	8,2	1,8	-27,3	0,4	8,7
	Zura, papera eta arte grafikoak	4,6	5,8	4,9	4,0	3,9	4,9	-0,6	59,1	1,9	27,7
	Kokea egite eta petrolioa fintzea	3,2	0,5	3,5	8,6	8,4	11,8	-2,7	-2,7	-15,2	12,8
	Industria kimikoa eta produktu farmazeutikoen fabrikazioa	3,3	2,4	2,5	2,9	5,4	11,6	4,7	-33,9	6,8	92,6
	Kautxua eta plastikoak	7,2	6,9	7,8	5,9	8,5	0,8	0,8	16,5	-0,6	12,2
	Ez metalezko beste produktu batzuk	2,1	2,5	2,6	1,6	0,1	-2,0	-1,9	51,8	-7,8	-181,4
	Metalurgia eta metalezko produktuak	27,8	33,9	27,6	24,2	14,9	5,9	1,3	14,7	-4,1	278,6
	Prod. Informatikoak eta elektr. eta optikoak	2,2	3,1	1,7	1,6	2,2	3,1	2,7	6,1	6,0	10,9
	Material eta ekipo elektrikoa (etxeko tresna elektrikoak barne)	3,4	4,5	2,0	3,2	-0,2	-5,0	-1,9	-40,4	-4,4	-113,0
	Makineria eta ekipoa	10,8	11,0	7,2	8,9	10,5	3,0	3,1	4,1	0,0	6,3
	Garraio materiala	10,4	9,3	10,9	13,7	7,3	9,4	8,1	10,6	21,9	-23,9
	Altzariak eta beste manufaktura b.	4,2	7,0	1,4	2,8	2,3	1,5	3,6	-16,3	2,3	-18,5
D atala	Energia elektrikoa, gasa eta lurruna	10,0	1,1	14,7	12,0	26,6	5,8	-2,4	55,1	-13,7	340,0
E atala	Ur hornidura eta saneamendua	3,2	3,1	5,5	1,8	1,8	7,9	5,4	-30,6	-1,4	-2,8

***Eragiketa guztien ustiapenaren eta finantzen emaitza barne**
Iturria: EUSTAT.Industria Estatistika

Atalen arabera, langileen %95,5 eta BEGfk-aren %86,5 manufaktura-industrian metatzen da (C atala). Energia elektrikoa, gasa eta lurruna (D atala) eta Ur hornidura eta saneamendua (E atala) enpleguaren %1,1 eta %3,1 eta BEG fk-aren %10 eta %3,2 dira hurrenez hurren. Bestalde, B atalak (erauzketa-industriak) enpleguaren %0,2 eta BEG fk-aren %0,2 besterik ez ditu hartzen.

EAEko manufaktura-industrian pisurik handiena duten adar/azpisektoreak ardatz hartuta nabarmentzekoa da garraio materialaren bilakaera positiboa, oso gainetik batez bestekotik enpleguan (%8,1), BEG fk-an (%9,4 eta salmentetan (%21,9). Bestalde, Makineria eta ekipoa eta Metalurgia eta metalezko produktuak deritzen ataletan %3,1eko eta %1,3ko hazkundeak ageri dira hurrenez hurren langileen aldetik; %3 eta %5,9koa hurrenez hurren BEG fk-an eta %0 eta -%4,1ekoa salmentetan.

Ondoko taulan (II.3.20), enpleguaren bilakaera, ikuspegi banakatua eta BEG kf bildu dira hiru jarduera-adar horietan.

II.3.20. TAULA. EAE-KO INDUSTRIAKO HIRU SEKTORE NAGUSIEN FAKTOREEN ETA ENPLEGUAREN KOSTUA						
	Enplegua			Faktore kostuen BEG		
	2015	2016	Aldak.	2015	2016	Aldak.
Metalurgia eta metalezko produktuak	66.324	67.179	1,3	3.720.030	3.939.119	5,9
25/26 Siderurgia/burd. Ez diren metalen produk.	10.222	9.648	-5,6	596.069	668.119	12,1
27 – Metalen galdaketa	6.643	6.775	2,0	411.047	419.345	2,0
28 – Metalezko eraikuntza	9.785	9.823	0,4	427.496	417.444	-2,4
29 – Forjaketa eta estanpazioa	6.473	6.790	4,9	422.896	455.156	7,6
30 – Ingeniaritza mekanikoa	18.498	19.089	3,2	992.458	1.059.410	6,7
31 – Metalezko artikuluak	14.703	15.054	2,4	870.064	919.645	5,7
Makineria eta ekipoa	21.204	21.857	3,1	1.490.194	1.535.118	3,0
35 – Erabilera orokorreko makinak	17.125	17.798	3,9	1.198.612	1.248.103	4,1
36 – Erreminta-makinak	4.079	4.059	-0,5	291.582	287.015	-1,6
Garraio materiala	17.002	18.371	8,1	1.347.312	1.474.242	9,4
37 – Motordun ibilgailuen fabrikazioa	9.847	11.362	15,4	788.548	906.165	14,9
38 - Ontzigintza	885	906	2,4	42.184	24.962	-40,8
39 – Bestelako garraio materiala	6.270	6.103	-2,7	516.580	543.115	5,1

Iturria: EUSTAT. Industria Estatistika

Eduki teknologikoari dagokionez[22], EUSTATen datuen arabera, 2016an eta aurreko urteetan bezala, enpleguaren zatirik handiena, faktore-kostuen gaineko BEGd eta salmenta garbiak eduki teknologiko ertain baxuko eta ertain altuko sektoreetan biltzen dira. Hala ere, 2011 eta 2016 bitartean, antzeman da maila teknologiko altuaren pisua handitu dela hiru adierazleetan.

Horrela, enpleguaren terminoetan, maila teknologiko ertain baxuko eta ertain altuko sektoreetan okupatutako langileak, hurrenez hurren, industriako enpleguaren guztizko kopuruaren % 47,4 eta % 26,4 dira, hurrenez hurren. Bilakaeraren aldetik, 2011 eta 2016 bitartean gora egin du maila teknologiko altuko eta ertain-altuko sektoreen pisuak, eta jaitsi egin da maila baxukoa eta maila ertainekoa.

Faktore-kostuen gaineko BEGaren terminoetan, maila teknologiko ertain baxuko eta ertain altuko sektoreetan biltzen da, hurrenez hurren, balio erantsiaren % 42,5 eta % 26,1. 2011 2015era, maila teknologiko altuko, ertain altuko eta ertain baxuko sektoreen pisua handitu da eta maila baxukoak behera egin du.

Bestalde, salmentarik gehienak eduki teknologiko ertain baxuko sektoreetan egiten dira (sektore industrialeko salmenten % 41,9) eta ertain altukoetan (% 26,3). Halaber, 2011 eta 2016 bitartean, eduki teknologiko ertain baxuko eta baxuko sektoreekin lotutako salmenten pisua murriztu da eta eduki teknologiko altuko sektoreetako salmentak hazi dira.

[22] *ELGAren sailkapenaren arabera (EUSTATek darabilena), hauexek biltzen ditu maila teknologiko altuak: 1. Produktu farmazeutikoen fabrikazioa, 2. Produktu informatikoen, elektronikoen eta optikoen fabrikazioa, eta 3. Aireontzien eta espaziontzien eraikuntza. Maila ertain-altuan, berriz, hauek 4. Industria kimikoa, 5. Armen eta munizioen fabrikazioa, 6. Material eta ekipo elektronikoenaren fabrikazioa, makinen eta ekipoen fabrikazioa eta ibilgailuen fabrikazioa, 7. Beste garraio material baten fabrikazioa, ontzigintza eta aireontzien eraikuntza izan ezik eta 8. Tresna eta hornidura medikoen eta odontologikoen fabrikazioa. Maila ertain-baxuan: 9. Euskarri grabatuen erreprodukzioa, 10. Kokea eta petrolioa fintzea, 11. Kautxuaren eta plastikoen produktuen fabrikazioa, metalezkoak ez diren beste produktu mineralen batzuen fabrikazioa. Metalurgia, 12. Metalezko produktuen fabrikazioa, makinak eta armak eta munizioak izan ezik, 13. Ontzigintza, eta 14. Makinen eta ekipoen konponketa eta instalazioa. Maila baxuan: 15. Elikagaien, edarien, tabakoaren, ehungintzaren eta ebaketaren industria. Larrugintza eta oinetakoen industria. Zurgintza eta papergintza eta kortxoaren industria, 16. Arte grafikoak, 17. Altzarien fabrikazioa, 18. Bestelako manufaktura-industriak; eta 19. Sailkatu barik.*

II.3.21. TAULA. INDUSTRIAK EAE-N DUEN EDUKI TEKNOLOGIKOA ELGA-REN SEKTOREEN ARABERA. (Guztizkoarekiko pisua)						
	2011	2012	2013	2014	2015	2016
Lanen ari diren langileak						
GUZTIRA (kopurua)	213.405	203.174	195.633	19.2387	194.458	198.141
Teknologia-maila altua	4,0	4,4	4,6	4,5	4,8	4,7
Teknologia-maila ertain altua	25,6	25,8	26,3	25,9	25,7	26,4
Teknologia-mila ertain baxua	47,8	47,7	47,1	47,5	47,8	47,4
Teknologia-maila baxua	18,1	17,7	17,6	17,3	17,3	17,0
Sailkatu gabe	4,4	4,5	4,4	4,7	4,4	4,5
Balio Erantsi Gordina faktore kostuetan						
GUZTIRA (kopurua)	14.789.069	13.983.941	12.950.224	13.101.641	13.542.946	14.154.616
Teknologia-maila altua	3,5	4,0	4,4	4,4	4,8	4,9
Teknologia-maila ertain altua	25,9	25,7	26,2	25,6	25,9	26,1
Teknologia-mila ertain baxua	41,0	40,7	40,1	40,2	42,5	42,5
Teknologia-maila baxua	14,4	13,6	14,3	13,9	13,5	13,1
Sailkatu gabe	15,1	16,1	15,1	15,9	13,4	13,5
Salmenta garbiak						
GUZTIRA (mila euro)	58.733.508	55.661.105	54.443.484	55.865.644	54.890.865	53.574.121
Teknologia-maila altua	2,9	3,2	3,5	3,3	3,5	4,0
Teknologia-maila ertain altua	23,5	23,2	22,6	22,0	23,5	26,3
Teknologia-mila ertain baxua	47,6	47,0	46,6	45,4	43,6	41,9
Teknologia-maila baxua	12,8	12,6	13,5	13,1	13,6	13,6
Sailkatu gabe	13,2	14,0	13,8	16,2	15,8	14,2

Iturria: EUSTAT.Industria Estatistika

3.4. ERAIKUNTZA

EUSTATen "Kontu Ekonomikoen" datuen arabera (2018ko otsailean argitaratutakoak), 2017an, eraikuntzaren sektorea, 3.920 milioi eurorekin eta lanaldi osoaren pareko gisa neurtutako 56.922 lanposturekin, guztizko BPGdren % 5,3 izan da eta lanaldi osoaren pareko guztizko enpleguaren % 6,1.

II.3.22.TAULA. BEG-AREN ETA ENPLEGUAREN BILAKAERA ERAIKUNTZAN (urte arteko aldakuntza-tasak)									
	2015	2016				2017			
	4H	1H	2H	3H	4H	1H	2H	3H	4H
BEGaren aldakuntza-tasa bol.	0,1	-0,2	3	2,2	2,4	2,1	1,9	3	3,1
Enpleguaren aldakuntza-tasa (LOE*)	2,6	-0,3	-0,1	0	0,5	1,8	1,6	1,5	1,6

**Lanaldi osoko enplegua*
Iturria: EUSTAT, HKE

Kontu horien arabera, sektorea urte arteko %2,1eko aldakuntza-tasarekin hasi zen urtea, bigarrenean hazkunde moteldu (%1,9), hirugarrenean suspertu (%3), eta laugarreneko hazkunde-tasa aurrekoaren antzekoa izan zen (%3,1). Hala, eraikuntzaren sektoreko BEGak urte arteko %2,5eko aldakuntza-tasa zuen 2017an, 2016koa baino %0,7 handiagoa eta 2015eko baino portzentajezko 1,4 puntu handiagoa.

Eraikuntzako BEGaren urteko batez besteko aldakuntza Estatuan, EINren arabera, %4,9koa zen.

Enpleguaren arloan, lanaldi osoko lanpostuen neurturiko horretan, EUSTATen Kontu Ekonomikoek urte arteko hazkunde tasaren jokabide hobea erakusten dute 2017an 2016an baino, baina erdiko bi hiruhilekoetan hazkundea nolabait moteldu dela ikusten da.

II.3.23. TAULA. ERAIKUNTZAREN SEKTOREAREN BILAKAERA

	Hiru Hilez Behingo Kontu Ekonomikoak. (Datu zuzenduak) Urte arteko aldakuntza tasak.			Eraikuntzaren koiuntura indizea Urteko batez besteko hazkundea			
	BPG bolumen kateatua	Lanpostuak guztira (LOE)	Produkti bitatea	Guztira	Eraikuntza	Obra zibila	Enplegua
				Ekoizpen indizea			
2011	-7,6	-9,9	2,3	-11	-10,2	-15,8	-8
2012	-7,7	-12,9	5,2	-16,4	-15,7	-21,3	-12,9
2013	-4,6	-11,9	7,3	-24	-25,2	-15,9	-12,9
2014	-1,7	-3,4	1,7	-4,6	-6,6	7,1	-5,6
2015	1,1	2,2	-1,1	-0,1	1,8	-10	-1,7
2016 b	1,8	0,0	1,8	2,4	4,9	-12,2	-0,7
2017 b	2,5	1,6	0,9	5,7	7,6	-8,1	1,3

b: behin-behinekoa. Iturria: EUSTAT

Hala, 2016ko urte osoko batez besteko aldakuntza nulua izan zen eta 2017koa, berriz, %1,6koa. Sektorearen produktibitatea % 0,9 handitu da.

II.3.6. GRAFIKOA. ERAIKUNTZA SEKTOREAREN BILAKAERA



Iturriae: CET. EUSTAT

EUSTATen "Eraikuntzaren Koiuntura-indizea"[23] eraikuntzaren sektoreko produkzioaren eta enpleguaren bilakaera aztertzen duen koiuntura-adierazlea da eta erakusten du hazkundea egon dela aurreko urtearekiko. Horrela, produkzioaren urteko batez besteko aldakuntza, 2017an, % 5,7koa izan da, eraikuntzaren indizearen hazkundearen zuzeneko emaitza (% 7,6ko hazkunde-tasa); izan ere, obra zibilak indizearen aldakuntza negatiboa eragin du, hain zuzen ere, -% 8,1ekoa. Enpleguak, hainbat urtetan jarraian jaitsierak izan ondoren, lehen aldiz dakar urte arteko batez besteko positiboa (%1,3) ; 2016an, berriz, -%0,7 izan zen.

EUROSTATen datuen arabera, 2018ko otsailean argitaratutakoak, Eraikuntzaren Produkzio Indizearen batez besteko aldakuntza, 2017an, +% 2,4koa da eurogunean eta +% 3,5ekoa EB28an.

[23] *Indize honek eraikuntza obra mota biak bereizten ditu: eraikinak egitea (eraikuntza iraunkor oro, bereizia edo independentea, etxebizitza familiar edo kolektiborako egiten dena, edo nekazaritzarako, industriarako, zerbitzuak emateko edo, oro har, jarduera bat egiteko —eskolak, siloak, eta abar— egiten dena) eta obra zibila (azpiegitura obra oro, eraikinak egitea ez dena, kolektiboki edo publikoki erabiltzeko dena).*

EUSTATen "Eraikuntzako Kostuen Indizea" aztertuko dugu orain. Abagune-adierazlea da. Kostu horien bilakaera neurtzen du, eraikuntza sektoreko lehengaien edo bitarteko kontsumoen (lehengaien eta materialen kostuen, energia kostuen eta askotako gastuen kostuen batura; hori sektoreko lehengai nagusien prezioen bidez zenbatesten da) eta langileria kostuen (soldata gordinen eta gizarte kotizazioen batura, sektoreko hitzarmen kolektiboen bidez zenbatetsia) indize baten bidez).

II.3.24. TAULA. EAE-KO ERAIKUNTZAKO KOSTUEN URTE ARTEKO ALDAKUNTZA-TASA (aurreko abenduarekiko aldakuntza)

	Kostuak			Lehengaien prezioak			Lanesku aren kost.
	Guzt.	Eraikuntza	Obra zibila	Guzt.	Eraikuntza	Obra zibila	
2011-IV	3,1	2,9	4,1	3,6	3,3	4,8	1,5
2012-IV	-0,6	-0,5	-0,8	-1	-1	-1,3	1
2013-IV	0,4	0,4	-0,1	0,2	0,3	-0,4	1
2014-IV	-1,2	-0,9	-2,6	-2	-1,7	-3,9	1,8
2015-IV	0,2	0,4	-1,1	0,2	0,4	-1,5	0,3
2016-IV	0,1	-0,1	1,1	-0,1	-0,3	1,2	0,7
2017-IV	0,4	0,4	0,9	0,2	0,1	0,8	1,1

Iturria: EUSTAT.EKI

Adierazle horrek ez du ahalbidetzen produkzioaren azken prezioari eragiten dioten kostu guztiak neurtzea, jakina, enpresa etekinaz gain, kapitalari lotutako faktoreak falta baitira.

2016ko abendutik 2017ko abendura, eraikuntzaren kostuak % 0,4 hazi dira; eskulanaren kostua % 1,1 hazi da eta lehengaien kostuak % 0,2.

Eraikuntza eta Obra Zibila deritzen azpisektoreetako kostuen bilakaera positiboa da, eta handiagoa da bigarrenekoak lehengoak baino. Obra zibilekoak %0,9 hazi dira eta eraikuntzakoak %0,4.

3.5. ZERBITZUAK

EUSTATen "Ekonomia Kontuen" datuen arabera (2018ko otsailean argitaratutakoak); 2017an, zerbitzuen sektorea, 45.824 milioi eurorekin eta lanaldi osoaren pareko 665.624 lanposturekin, guztizko BPGaren % 62,2 izan da eta lanaldi osoaren pareko guztizko enpleguaren % 71,2.

2017. urtean, EAEko zerbitzuen sektorea %3,1 hazi zen 2016aren aldean, 2016an baino %0,3 gehiago, baina 2015ean baino lau hamarren gutxiago. *Merkataritza, Ostalaritza eta Garraioa* sektorea %3,7 hazi da (2016an baino %0,4 gehiago), *Administrazio Publikoa, Hezkuntza, Osasuna eta Gizarte Zerbitzuak* %2,7 (2016an baino 6 hamarren gehiago) eta *Gainerako zerbitzuak %*2,8 (2016ko ratio bera). Zerbitzuen sektorearen BPGd-aren benetako hazkunde hori (%3,1) Estatuko osoaren antzekoa da, non, EINren behin-behineko datuen arabera, %2,6 egin zuen gora. Zerbitzuen sektoreko enpleguak (LOPL), EUSTATen arabera, %2,2 egin zuen gora urte arteko datuetan gure Erkidegoan, 2016an baino %0,1 gehiago. Produktibitatea, berriz, %0,0 hazi zen.

II.3.25. TAULA. ZERBITZUEN SEKTOREAREN BILAKAERA. Datu zuzenduak. Urte arteko aldakuntza-tasak

	Zerbitzuen BEG. Bolumen indizea				Lanpostuak (LOE)	Produktibitatea
	Guztira	Merkat., ostal. eta garraioa	Ad. Publ.. Hezkuntza, Osasun eta G. Zerbitzuak	Gainerako zerbitzuak		
2011	0,9	-0,8	3,4	0,7	0,5	0,4
2012	-0,4	-2,4	0,4	0,5	-1,6	1,2
2013	-1	-1,5	0,7	-1,6	-1,6	0,6
2014	1,7	1,9	2,6	1	1	0,7
2015	3,5	5	1,5	3,6	2,4	1,1
2016	2,8	3,3	2,1	2,8	2,1	0,7
2017	3,1	3,7	2,7	2,8	2,2	0,9

Iturria: EUSTAT

Zerbitzuen sektorearen barruan, berriz ere nabarmendu ziren Merkataritza eta ibilgailuen konponketa, BPGaren aldetik nahiz enpleguaren aldetik: Zerbitzuen sektorearen BPGaren % 15,7 2016an (eskuragarri dagoen azken datua) eta enpleguaren % 19,8 (2015eko datua).

Baita BPG korrontearen aldetik ere bai: Higiezinen arloko jarduerak (zerbitzuen sektoreko BPGaren %16,5), Jarduera sanitarioak (%7,9), Hezkuntza (%7,6), Administrazio publikoa eta defentsa (%7,4), Ostalaritza (%7,3), eta Garraioa eta biltegiratzea (%7). Eta enpleguaren aldetik: Hezkuntza (zerbitzuen sektoreko LOE guztien % 10,4), Laguntza zerbitzuak (%9), Herri-administrazioa eta defentsa (% 8,7), Ostalaritza (% 8,4), Jardueras sanitarioak (% 7,1), Garraioa eta biltegiratzea (%6,5) Kontsultoriak eta jarduera teknikoak (% 6,3).

2012 eta 2016 bitartean, BPGaren urteko batez besteko aldakuntza-tasa, kopuru errealetan, +1,7 izan zen. Aldakuntza negatiboa izan zuen jarduera-adar bakarra Finantza- eta aseguru-jarduerena izan zen (urteko -%0,9ko jaitsiera batez beste). Bestalde, hona hemen BPGaren hazkunde nagusiak: Telekomunikazioak (%3,9), Informatika (%2,8), Bestelako zerbitzuak (%2,6), Jolas eta kultur jarduerak (%2,5%, urteko batez besteko tasa).

Enpleguari dagokionez nulu hazkundea izan zen 2011 eta 2015 bitartean. Hona hemen jaitsiera nagusiak: Telekomunikazioak (-%5,9), Finantza- eta aseguru-jarduerak (-%4), Edizioa, irudia, irratia eta telebista (-%3,9), Ibilgailuen merkataritza eta konponketa (-%1,6). Aitzitik, sektore hauetan aurkitzen ditugu hazkunderik handienak: Gizarte zerbitzuen jarduerak (%2), Ikerketa eta garapena (%1,9) eta Ostalaritza eta informatika (bietan %1,7).

Zerbitzuen sektoreko prezioen urteko batez besteko igoera %0,4koa izan zen 2012 eta 2016 bitartean.

II.3.26. TAULA. EAE-K ZERBITZUEN SEKTOREAREN EGITURA ETA BILAKAERA

	ZEERBITZUEN SEKTOREAREN EGITURA										Urteko aldak. %		
	BPG korrontea (zerbitzuen sektoreko BEGarekiko)					Enplegua (zerbitzuen sektoreko enpleguarekiko %)					BPG*	Prezioak	Enpleg
	2012	2013	2014	2015	2016	2011	2012	2013	2014	2015	2012-16		2011-15
19. Ibilgailuen merkaturatzea eta konp.	15,8	15,7	15,8	15,7	15,7	20,9	20,4	19,6	19,4	19,8	2,1	-0,2	-1,4
20. Garraioa eta biltegiratzea	6,6	6,8	6,8	7,0	7,0	6,6	6,4	6,2	6,3	6,5	2,2	1,4	-0,5
21. Ostalaritza	6,8	6,8	6,9	7,0	7,3	7,8	8,0	7,9	8,1	8,4	2,3	1,6	1,7
22. Edizioa, irudia, irratia eta telebista	0,9	0,9	0,9	0,9	0,9	1,0	0,9	0,9	0,8	0,8	0,7	-0,8	-3,9
23. Telekomunikazioak	2,2	2,2	2,1	2,0	2,0	0,5	0,5	0,4	0,4	0,4	3,9	-4,6	-5,9
24. Informatika	1,6	1,5	1,5	1,6	1,6	1,9	1,9	1,9	1,9	2,0	2,8	0,6	1,7
25. Finantza- eta aseguru-jarduerak	6,1	5,6	5,8	5,6	5,6	3,2	3,0	2,9	2,8	2,7	-0,9	0,7	-4,0
26. Higiezinen arloko jarduerak	16,6	16,6	16,4	16,8	16,5	0,8	0,8	0,8	0,8	0,8	1,6	0,3	0,3
27. Aholkularitza eta jarduera teknikoak	7,1	6,9	6,7	6,6	6,7	6,3	6,3	6,1	6,1	6,3	0,6	0,2	0,1
28. Ikerketa eta garapena	1,0	0,9	0,9	0,9	1,0	1,0	1,1	1,1	1,1	1,1	1,6	-0,2	1,9
29. Beste jarduera profesional batzuk	1,1	1,1	1,1	1,1	1,1	1,7	1,7	1,6	1,7	1,8	1,6	0,8	0,9
30. Laguntza zerbitzuak	4,2	4,2	4,1	4,2	4,3	9,0	8,7	8,5	8,6	9,0	2,4	0,8	-0,1
31. Administrazio publikoa eta defentsa	7,4	7,7	7,8	7,5	7,4	9,0	8,8	8,8	8,7	8,7	1,9	0,1	-0,7
32. Hezkuntza	7,4	7,7	7,7	7,6	7,6	9,9	9,8	9,9	10,1	10,4	1,7	0,8	1,2
33. Jarduera sanitarioak	7,9	8,1	8,1	7,9	7,9	6,9	6,8	6,8	6,9	7,1	1,4	0,6	0,7
34. Gizarte zerbitzuen jarduerak	1,5	1,5	1,5	1,5	1,5	3,6	3,6	3,7	3,8	3,9	2,1	0,3	2,0
35. Jolas eta kultur jarduerak	2,1	2,2	2,3	2,2	2,3	1,9	1,9	1,9	2,0	2,0	2,5	1,3	1,1
36. Bestelako zerbitzuak	2,1	2,1	2,1	2,3	2,2	3,4	3,4	3,4	3,5	3,6	2,6	1,2	1,4
37.Etxeetako jarduerak	1,4	1,4	1,4	1,4	1,4	4,5	4,4	4,4	4,6	4,8	2,0	0,7	1,2
38. Lurraldez kanpoko erakundeak	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0			
Zerbitzuak guztira (BPG mila eurotan eta lanaldi osoko enpleguan)	40.603.694	40.381.762	41.174.557	42.713.574	44.182.413	636.883	626.662	616.627	622.737	637.482	1,7	0,4	0,0
Ekonomia, guztira (BPG mila eurotan eta lanaldi osoko enpleguan)	65.763.202	64.923.009	66.378.235	68.496.577	70.857.296	936.648	905.545	879.100	881.112	899.438	1,5	0,6	0,0

** BPG erreala (bolumen kateatuan) Iturria: EUSTAT. Ekonomia kontuak*

II.3.7. GRAFIKOA. ZERBITZUEN SEKTOREKO BPG-AREN BANAKETA JARDUERA-ADARREN ARABERA, 2016



Iturria: EUSTAT

II.3.8. GRAFIKOA. ZERBITZUEN SEKTOREKO BPG-AREN BANAKETA JARDUERA-ADARREN ARABERA, 2015



Iturria: EUSTAT

3.5.1. MERKATARITZA

EUSTATen "Ekonomia Kontuen" eskuragarri dauden azken datuen arabera, ibilgailuen merkaturatzearen eta konpontzearen sektoreak EAEko BPG korrontearen balioaren % 9,8 inguru hartzen du (6.935,6 milioi euro; 2016ko datua) eta enpleguaren % 14 inguru (lanaldi osoaren pareko 126.095 lanpostu; 2015eko datua).

Lehenik eta behin, EUSTATen "Txikizkako Merkataritza Indizea,(TMI)" aztertuko dugu. EAEko txikizkako merkataritzaren sektoreko merkataritzako eta laneko koiunturaren bilakaeraren zuzeneko adierazlea da, eta informazioa jaso deneko bi aldagaien jokabidearen azterketan du oinarria: "salmentak" eta "landunak".

Txikizkako merkataritzaren salmenten indize orokorrak %0,8ko hazkunde izan zuen EAE osoan 2016 eta 2017 bitartean, 2016an baino %0,7 gutxiago eta 2015ean baino %0,9 gutxiago.

Gehikuntza hori gertatu da gehienbat espezializatu gabeko elikagaien salmenten (%4), kontsumoko beste ondasun batzuen (%4,7) eta espezializatu gabeko produktuen (%4,1) igoeragatik. Aitzitik, behera egin dute produktu hauen salmentek: elikagai espezializatuak (-%5,1), pertsona hornitzeko produktuak (-%0,8) eta etxerakoak (-%0,5), baita autogintzarako erregaiak ere (-%2,7).

Lurraldez lurralde, 2016 eta 2017 bitartean, joera berari eutsi zioten guztiek, baina aldeak ikusten dira, zeren eta Arabako indize orokorra %0,5, hazi baita, Bizkaiko %0,6 eta Gipuzkoakoa %1,3.

EUROSTATen datuen arabera, Industri Prezioen Indizearen batez besteko aldakuntza, 2018an, %2,6 da eurogunean eta 28ko EBn, otsaileko datuen arabera.

II.3.27. TAULA. TXIKIZKAKO MERKATARITZAREN SALMETEN INDIZEAREN BILAKAERA *(urteko b.b. hazkundea prezio iraunkorretan)*

	LL.HH.			EAE										
					Elikadura			Gainerako produktuak					Autogintzarako erregaia	Zerbitzuen sektoreko indize orokorra
	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	**Indize orokorra EAE**	Guzt	Espezializatua	Ez espezializat	Guzt.I	Pertsona hornitzek oak	Etxe hornitzek oak	Beste konts. Ondas.	Ez espezializat.		
2011	-4	-3,2	-4,8	**-3,8**	-2,4	-2,9	-2,1	-4,1	-2,5	-4,6	-4,3	-8,2	-8,2	-3,4
2012	-3,5	-4,7	-5,2	**-4,7**	-2,3	-4,4	-1,2	-6,3	-5,9	-9,8	-4,6	-3,6	-5,6	-4,6
2013	-2,3	-3,7	-4,6	**-3,8**	-2,4	-0,2	-3,5	-5,4	-8,7	-6,7	-2,2	2,9	-0,8	-4,1
2014	1,1	-0,8	0,8	**0**	-2,2	-2,2	-2,2	1,7	2,9	2,8	-1	1	0,8	0
2015	4,9	0,5	2	**1,7**	1,4	-2,8	3,7	2,1	0,6	3,6	3,8	0,9	0,5	1,8
2016	1,2	1,4	1,9	**1,5**	2,9	-1,1	4,8	0,6	-1,1	3,2	0,8	1,2	0,7	1,6
2017 b	0,5	0,6	1,3	**0,8**	1,1	-5,1	4	1,2	-0,8	-0,5	4,7	4,1	-2,7	1,1

b: behin-behinekoa
Iturria: EUSTAT, TMI

Txikizkako merkataritzaren okupazioari buruzko datuek erakusten dutenez, %1eko igoera izan zen 2017an, 2016ko ratioa baino %0,1 handiagoa. Aurreko urtean legez, elikagaien dendetako enpleguan izandako gehikuntzagatik gertatu da hala (%3,3). Gainerako produktuen eta autogintzako erregaiaren merkataritzan, berriz, behera egin zuen enpleguak, -%0,5 eta -%2,1 hurrenez hurren, hots, jaitsiera 2016koa baino txikiagoa da (-%0,7 eta -%7,5).

II.3.28. TAULA. TXIKIZKAKO MERKATARITZAN DIHARDUEN PERTSONALAREN INDIZEA. EAE (urte arteko tasak)

	Indize orokorra	Elikadura	Gainerako produkt.	Autogintzarako erregaia
2011	-1,3	0,3	-2,5	4,1
2012	-3,2	-0,4	-5,2	4,1
2013	-3,9	-2,3	-5	-2,8
2014	-1,3	-2	-1	2,3
2015	0,1	-0,1	0	7,3
2016	0,9	3,8	-0,7	-7,5
2017 b	1	3,3	-0,5	-2,1

b: behin-behinekoa. Iturria: EUSTAT, TMI

Orain EUSTATen "Saltoki handietako eta elikagai-kateetako merkataritza indizea aztertuko dugu. Saltoki handietako eta elikagai-kateetako[25] merkataritzaren sektorearen salmenten bilakaera komertzialari eta langileei buruzko abagune-adierazlea da.

II.3.29. SALTOKI HANDIETAKO ETA ELIKAGAI-KATEETAKO MERKATARITZA INDIZEA (urte arteko tasak)

	LL.HH. indize orokorra			Salmentak			Landun pertsonala
	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	**Indize orokorra**	Elikadura	Gainerako produkt.	
2016	0,5	3,4	1,4	**2,3**	2,3	1,8	3,3
2017 b	1,7	1,7	2,4	**1,9**	2	1,4	3

b: behin-behinekoa.
Iturria: EUSTAT, Saltoki handietako eta elikagai-kateeetako merkataritza indizea

Indize horren arabera, EAEko saltoki handien eta elikagai-kateen salmentek gora egin zuten 2016 eta 2017 bitartean, %1,9 hain zuzen (2016an baino %0,4 gutxiago). Hazkundea gertatu da elikagaietan (%2) nahiz gainerako produktuetan (%1,4) izandako gehikuntzagatik. Langileen kopurua %3 handitu da epealdi berean.

[24] *2015etik, aldaketak antzeman ziren saltoki handietako kontsumitzaileek erosteko dituzten ohituretan, hain zuzen kontsumitzailearengandik hurbilago dauden beste banaketa modu batzuetara. Hori dela-eta, EUSTATek Saltoki Handietako Merkataritza Indizea argitaratzeari utzi eta saltoki handietako eta elikagai-kateetako merkataritza indizea ezarri zuen".*

[25] *Saltoki handiak dira 2.500 m2-ko edo handiagoko salmenta-eremua duten merkataritzako establezimenduak. Elikadura-katea deritzo, berriz, gutxienez hiru lokal eta 100 langile baino gehiago dituenari, saltoki handiak barne horrelakorik balego. Informazioa lurralde mailan ematen da 2015etik hasita.*

3.5.2. OSTALARITZA

EUSTATen Kontu Ekonomikoek eskura jarritako azken datuen arabera, Ostalaritza sektoreak EAEko BPGaren balioaren % 4,1 inguru hartzen du (3.317,7 milioi euro; 2016ko datua) eta enpleguaren % 5,9 inguru (lanaldi osoaren pareko 53.269 lanpostu; 2015eko datua).

EAEko hoteletan ostatu hartutako bidaiarien inguruko EUSTATen "Establezimendu turistiko hartzaileen Inkestaren" datuek erakusten dute[26], EAEko bidaiariak eta berezko ostatu-gauak zenbatuz, 2016 eta 2017 bitartean bidaiarien eta ostatu-gauen kopurua berriz hazi den arren, hazkunde-tasa moteldu egin da aurreko urtearen aldean. Bestalde, okupazio-mailaren hazkundea moteldu egin da[27], eta batez besteko egonaldiak egonkor eusten dio.

Zehazkiago, 2017an %3,6ko igoera izan zen bidaiarien sarreretan (%7,6, 2016an) eta %2,6koa gau-emateetan (%8,9, 2016an). Eskainitako hoteleko plazen kopurua %0,3 hazi da aurreko urtearen aldean (%2,4).

II.3.30. TAULA. BIDAIARIAK, GAU-EMATEAK, B.B. EGONALDIA, OKUPAZIO-MAILA ETA ESKAINITAKO HOTELEKO PLAZAK EAE-KO OSTALARITZAKO ESTABLEZIMENDUETAN

	Ostatua hartu duten bidaiariak	Guzt. Okupatut. plazak (igarotako gauak)	b.b. egonald egunet.	Okupazio-maila plaza bakoitzeko	Okupazio-maila gela bakoitzeko	Hoteletan eskainitako plazak
2011	2.420.997	4.574.989	1,9	46,0	55,2	9.953.058
2012	2.420.107	4.622.303	1,9	46,1	55,8	10.019.331
2013	2.368.080	4.478.672	1,9	44,3	53,8	10.115.592
2014	2.424.832	4.657.505	1,9	46,4	56,3	10.042.348
2015	2.637.385	5.041.338	1,9	49,8	60,5	10.122.621
2016	2.837.225	5.490.499	1,9	53	64,3	10.364.353
2017	2.940.493	5.635.712	1,9	54,2	65,4	10.399.052
15-16 ald.	7,6	8,9	0,0	6,4	6,3	2.4
16-17 ald.	3,6	2,6	0,0	2,3	1,7	0.3

Iturria: EUSTAT, Establezimendu turistiko hartzaileen inkesta

Ostatu hartutako bidaiarien kopurua hazi da atzerritik datozen bidaiaren kopurua ere hazi delako (% 8,5, aurreko hazkundeetara gehitzen dena:+%10,4 2016an eta +%10,6 2015ean) eta Estatukoen hazkundea (% 2,8, aurreko hazkundeetara gehitzen dena: +%9,8 2016an eta +%7,5 2015ean). Hala ere, EAEko berezkoetan igoerak izan dira atzera (-%8.5), bi urtez jarraian jaitsierak izanik.

II.3.9. GRAFIKOA. BIDAIARIEN SARRERAREN BILAKAERA EAE-N. OSTALARITZAKO ESTABLEZIMENDUAK



Fuente: EUSTAT

Hala, EAEko bertako bidaiariak alde batera utzita ikusten dugunez, gora egin du EAEko hoteletan ostatu hartutako bidaiarien kopuruak 2016 eta 2017 bitartean, %5,3 hain zuzen ere, eta guztira 2.627.923 lagun dira. Hortaz, batez besteko egonaldia 1,94 egunekoa da, eta antzerakoa da Estatuko bisitarien nahiz Estatutik kanpoko bisitarien kasuan.

[26] *Pertsonei ostatua emateko helburu nagusia duen establezimendua, maiztasunez eta profesionaltasunez, batzuekin edo batzuk gabe. Euskal Autonomia Erkidegoan kokaturiko osalaritzako establezimenduek –hotelak eta ostatua- eta landa-turismoko establezimenduek eta landa-etxeek osatzen dute ikerturiko biztanleria.*

[27] *Hile jakin bateko gau-emate guztien eta hoteleko plazak/geak (bidezkoa denmoduan) bider hile horretako egun kopurua egin behar da, ehunekotan emana.*

II.3.31. TAULA. BIDAIARI KOPURUAREN, GAU-EMATEEN ETA BATEZ BESTEKO EGONALDIAREN (EGUNETAN) BILAKAERA EAE-N, BIDAIARIAREN JATORRIAREN ARABERA												
	2015			2016			2017			Aldakuntza		
	Bidaiariak	Gau-emateaks	B.b. egonaldia (egun)	B	P	BE	B	P	BE	B (%)	P (%)	BE (Dif)
Guztira, EAE barik	2.267.233	4.420.729	1,95	2.495.805	4.896.359	1,96	2.627.923	5.109.651	1,94	5,3	4,4	-0,02
Estatua, EAE barik	1.272.935	2.501.232	1,96	1.397.909	2.757.533	1,97	1.437.105	2.797.668	1,95	2,8	1,5	-0,03
Atzerrit.	994.298	1.919.497	1,93	1.097.896	2.138.826	1,95	1.190.818	2.311.983	1,94	8,5	8,1	-0,01
EAEko bertakoak	370.152	620.609	1,68	341.420	594.140	1,74	312.570	526.061	1,68	-8,5	-11,5	-0,06
Iturria: EUSTAT, Establezimendu turistiko hartzaileei buruzko inkesta												

3.1.1. FINANTZA-SEKTOREA

EUSTATen Kontu Ekonomikoek eskura jarritako azken datuen arabera, Ostalaritza sektoreak EAEko BPGd-aren balioaren % 3,5 inguru hartzen du (2.457,7 milioi euro; 2016ko datua) eta enpleguaren % 1,9 inguru (lanaldi osoaren pareko 17.229 lanpostu; 2015eko datua.

Finantza-erakundeetan jarritako gordailuei dagokienez, Espainiako Bankuaren "Aldizkari Estatistikoaren" datuen arabera, Herri-administrazioen jabetzapekoen guztizko saldoa 3.226 milioi eurokoa izan zen EAEn 2017 amaitzean. Kopuru horrek %11,2ko igoera txikia ekarri zion urteko tasari, eta % 5,3 Estatuko gordailuetan. Beste sektore egoiliar batzuetako gordailuen (BSE) balioa 76.435 milioi eurokoa izan zen, hau da, horien balioak % 4,4ko igoera izan zuen aurreko ekitaldikoaren aldean, eta % 6,7ko ratioa estatuko guztizkoaren gainean.

Beste sektore egoiliar batzuen gordailuak modalitate desberdinen arabera aztertzen baditugu (agerikoa, epera eta aktiboen aldi baterako lagapena), hauxe ikusiko dugu: %71 ageriko gordailuak dira, %22,9 eperako gordailuak eta %2,1 aktiboen aldi baterako lagapenak (ALL). Nabarmentzekoa da ageriko gordailuetan izandako %66ko gehikuntza, hain zuzen ere 2017an interes-tasen egoeragatik.

II.3.32. TAULA. SEKTORE PRIBATUKO GORDAILUAK ETA ADMINISTRAZIO PUBLIKOENAK GORDAILU ENTITATEETAN (XII-31ko SALDOAK)										
	Milioi euro					Banak.	Estatua	Estatuko guztizk. %	Aldak. %	
	2013	2014	2015	2016	2017				2015-16	2016-17
Pribatua eta publik., guzt	73.729	72.269	74.676	76.117	79.661	100	1.207.827	6,6	1,9	4,7
Sektore publik., guzt.	2.660	2.822	2.907	2.902	3.226	4,0	60.910	5,3	-0,2	11,2
Sektore pribat., guzt.(BSE)	71.068	69.448	71.770	73.216	76.435	96,0	1.146.917	6,7	2,0	4,4
Ageriko gordailuak	23.175	24.883	29.633	34.084	56.570	71,0	867.075	6,5	15,0	66,0
Aurrezpen gordailuak	9.832	10.419	12.089	14.059					16,3	
Eperako gordailuak	38.062	34.145	30.048	25.073	18.219	22,9	261.973	7,0	-16,6	
ALL					1.646	2,1	27.869	5,9	1,9	
Iturria: Espainiako Bankuko Estatistika Buletina										

Kreditu-entitateek EEBko (UTB) familiei eta ISPLSHri emandako tasari dagokionez, Espainiako Bankuaren "Estatistika Aldizkariaren" datuen arabera, murriztu egin da, bai kontsumoaren kasuan, % 8,14tik % 8,3ra 2016 eta 2017 bitartean, baina behera egin du etxebizitzaren kasuan, %2,19tik %2,05era.

II.3.33. TAULA. KREDITU ENTITATEEK ETXEBIZITZEI ETA EZEIXGE-ei EMANDAKO INTERES TASA* (EBMko egoiliarrak)

	DMTE** (Definizio murriztuko tasa efektiboa)			UTB (urteko tasa baliokidea)		
	Haztatutako batez besteko tasa					
	Etxebizitza kreditua (a)	Kontsumo kreditua ***(b)	Beste xede b.	Etxebizitza	Kontsumoa	Beste xede b.
2011	3,58	8,57	5,94	3,66	9,11	6,29
2012	2,81	7,76	5,81	2,93	8,31	6,23
2013	2,99	8,90	5,58	3,16	9,52	5,92
2014	2,56	7,74	4,64	2,64	8,98	4,91
2015	1,98	7,56	3,77	2,31	8,43	4,28
2016	1,91	7,12	3,62	2,19	8,14	4,26
2017	1,83	7,24	3,36	2,05	8,30	4,02

** Etxeen zerbitzurako irabazteko asmorik gabeko erakundeak ** DMTEk ez du komisiorik, UTBk bai. *** 2010eko maiatzera arte, hura barne; zutabe honetan sartzen da kreditu-txartelen bidez emandako kreditua.*
(a) Zorpekoak, kreditu-lerroak eta ordainketa atzeratuko kreditu-txartelak eta "revolving" sartu gabe
(b) Zorpekoak eta kreditu-lerroak sartu gabe
Iturria. Espainiako Bankua. Estatistika Buletina

Behera egin du EAEko gordailu-entitateek 2017an emandako guztizko kredituaren saldo bizia, bi urtez jarraian hazkundeak izan ondoren. Hala, 71.564 milioi eurotik 70.862 milioi eurora igaro da (-%1). Jaitsiera hori gertatu da Herri Administrazioei (-%5,5) nahiz sektore pribatuari emandako kredituaren beherakadagatik, baina azken hori (guztizkoaren %90,7 da) askoz neurri txikiagoan jaitsi da (-%0,5).

II.3.34. TAULA. KREDITU ENTITATEEK SEKTORE PUBLIKOARI ETA PRIBATUARI EMANDAKO KREDITUA (saldoak 12/31n)

	Milioi euro						EAEko banaketa 2017	Estatua 2017	Estatua rekiko %	Aldak. % 2016-17
	2012	2013	2014	2015	2016	2017				
Guztira	79.338	73.237	69.177	70.037	71.564	70.862	100	1.273.446	5,6	-1,0
Adm. Publikoa	4.277	4.862	6.008	6.636	6.997	6.612	9,3	74.339	8,9	-5,5
Sektore pribatua (BSE)	75.062	68.375	63.169	63.400	64.566	64.250	90,7	1.199.107	5,4	-0,5

Iturria: Espainiako Bankua. Estatistika Buletina

Kredituko saldoei dagokienez, beste sektore egoiliar batzuetan, etxebizitza eskuratzeko hipoteka-maileguarekin, Espainiako Bankuaren datuekin Estatu osoaren aldean (ez dago daturik Autonomia Erkidegoen mailan), hauxe dugu: magnitude honek berriz ere egin zuen behera 2016 eta 2017 bitartean, %2,7 hain zuzen (511.253 milioi eurotik 497.700 milioi eurora).

II.3.35. TAULA. ETXEBIZITZA EROSTEKO HIPOTEKA-BERMEA DUTEN KREDITUAK ESTATUAN (IV. hiruhilekoa). SALDO BIZIAK.

	Milioi €	Aldakuntza-tasak
2011	612.657	-1,3
2012	594.405	-3,0
2013	569.692	-4,2
2014	552.613	-3,0
2015	526.105	-4,8
2016	511.253	-2,8
2017 (p)	497.700	-2,7

b. Behin-behinekoa. Iturria. Espainiako Bankua. Estatistika Buletina

Bestalde, Jabetza, Merkataritza eta Ondasun Higigarrien Erregistratzaileen Espainiako Elkargoaren datuek, EINren "Hipoteken Estatistikan" argitaratutakoak, adierazi egiten dute EAEn eratutako hipoteka kopurua % 0,4 hazi dela 2016 eta 2017 bitartean (behin-behineko datuen arabera). Hipotekatutako finka gainean emandako batez besteko zenbatekoa % 1,5 hazi da, 158.137 mila eurokoa izanda aurreko ekitaldiko 155.732 mila euroren aurrean. Hipoteka kopuruaren hazkunde hori (%0,4) gertatu da landa-finken (+%50,9) eta etxebizitzen (+%4,4) gaineko hipoteken igoeragatik. Hipotekaturiko etxebizitzaren gainean mailegutan emandako batez besteko zenbatekoa %1,4 murriztu da 131.593 eurotik 129.705 eurora.

II.3.36. TAULA. EAE-KO LANDA ETA HIRI FINKEN HIPOTEKAK												
	2015			2016			2017 b			Aldakuntza 2016-17		
	Kopurua	Zenbat. (Mila €)	B.b. zenbat. (€)	Kop.	Zenbat. (Mila €)	B.b. zenbat. (€)	Kop.	Zenbat. (Mila €)	B.b. zenbat. (€)	Kop.	Zenbat. (Mila €)	B.b. zenbat. (€)
HIPOTEK. GUZT.	20.608	3.107.328	150.783	21.884	3.408.034	155.732	21.967	3.473.806	158.137	0,4	1,9	1,5
Landa finkak	362	83778	231.431	293	50043	170.795	442	56315	127.410	50,9	12,5	-25,4
Hiri finkak	20.246	3.023.550	149.341	21.591	3.357.991	155.527	21.525	3.417.491	158.768	-0,3	1,8	2,1
Etxebizitzak	14.283	1.851.796	129.650	15.574	2.049.431	131.593	16.257	2.108.612	129.705	4,4	2,9	-1,4
Orubeak	302	330.533	1.094.480	309	456.960	1.478.835	284	529.486	1.864.387	-8,1	15,9	26,1
Beste hiri finka bat.	5.661	841.221	148.599	5.708	851.600	149.194	4.984	779.393	156.379	-12,7	-8,5	4,8

b: behin-behinekoa. Iturria: EIN Hipoteken Estatistika (Espainiako Jabetza, Merkataritza eta Ondasun Higigarrien Erregistratzaileen Espainiako Elkargoa)

Burtsari dagokionez, Espainiako Bankuaren "Estatistika Buletinaren" datuen arabera, IBEX-35 indizeak % 7,4 egin zuen behera 2016ko abendutik 2017ko abendura bitartean.

Madrilgo Burtsaren urteko batez besteko kapitalizazioa, 740.212 milioi euro orotara 2017an, % 10,9 hazi zen aurreko urtearen aldean, eta batez besteko kontratazio bolumena, 651.244 milioi euro, %0,02 jaitsi zen 2017an aurreko urtearekiko.

Bestalde, Bilboko Burtsaren 2000 indizeak 1.577,5 puntu izan zituen 2017ko abenduan, hau da, % 6,1 igo zen aurreko urteko abenduko datuekin alderatuta.

Bilboko Burtsaren kontratazio bolumena (erosketak eta salmentak), 2017an, 117.825,3 milioi euroan kokatu zen, hots, %7,9ko igoera 2016aren aldean.

II.3.37. TAULA. BALIOEN BIGARREN MAILAKO MERKATUA. MADRILGO BURTSA		
	KAPITALIZAZIOA (Sozietate egoiliarrak, milioi euro)	KONTRATAZIO BOLUMENA (milioi euro)
2013	595.395	698.744
2014	638.472	884.349
2015	663.027	960.807
2016	667.764	651.389
2017	740.212	651.244

Iturria: Espainiako Bankua. Estatistika Buletina

II.3.38. TAULA. BILBOKO BURTSA		
	Burtsaren indizea abenduaren 31n (2000 oinarria 1999ko abenduaren 31n)	KONTRATATZIO BOLUMENA (milioi euro)
2013	1.658,6	142.235,4
2014	1.669,0	174.583,8
2015	1.578,5	182.570,3
2016	1.486,2	109.248,1
2017	1.577,5	117.825,3

Iturria: Bilboko Burtsa

ITURRIAK:

1. **EUSTAT.** Jarduera Ekonomikoen Direktorioa (DIRAE). 2017. Urterokoa. Abagunekoa
2. **EUROSTAT**. Datu-basea. 2017. Urterokoa. Abagunekoa.
3. **EUSKO JAURLARITZA.** Lan eta Gizarate Politiketako Saila. 2017ko Kooperatiben Erregistroa. Urterokoa. Abagunekoa
4. **EUSTAT.** 2017ko enpresen sorkuntzari eta desegiteari buruzko estatistika. Urterokoa. Abagunekoa
5. **EUSTAT.** Ekonomia Kontuak. 2017. Urterokoa. Abagunekoa
6. **EIN.** Eskualde Kontabilitatea. 2017. Urterokoa. Abagunekoa
7. **EUSTAT.** Industriako Produkzioaren Indizea (IPI). 2017. Urterokoa. Abagunekoa
8. **EUSTAT.** Industriako Prezioen Indizea (IPRI). 2017. Urterokoa. Abagunekoa. 2016.
9. **EUROSTAT.** *Industrial production*-i buruzko prentsa-oharra. 2017. Urterokoa. Abagunekoa
10. **EUROSTAT.** *Industrial production prices*-i buruzko prentsa-oharra. 2017. Urterokoa. Abagunekoa

11. **INE.** IPI. 2017. Urterokoa. Abagunekoa
12. **EUSTAT.** Industriako estatistika. 2016. Urterokoa. Abagunekoa
13. **EUSTAT.** Eraikuntzaren Indize Abagunekoa (EIK). 2017. Urterokoa. Abagunekoa
14. **EUSTAT.** Eraikuntzako Kostuen Indizea (EKI). 2017. Urterokoa. Abagunekoa
15. **EUROSTAT**. *Construction production*i buruzko prentsa-oharra. 2017. Urterokoa. Abagunekoa
16. **EUSTAT.** Txikizkako merkataritzaren salmenten indizea (TMSI). 2017. Urterokoa. Abagunekoa
17. **EUROSTAT**. *Retail Trade*ri buruzko prentsa-oharra. 2017. Urterokoa. Abagunekoa
18. **EUSTAT.** Saltoki handien eta elikadura-kateen indizea. 2017, lehen urtea. Urterokoa. Abagunekoa
19. **EUSTAT.** Turismo establezimendu hartzaileei buruzko inkesta. 2017. Urterokoa. Abagunekoa
20. **EKONOMIA, INDUSTRIA ETA LEHIAKORTASUN MINISTERIOA.** *Ekonomia-adierazleen laburpena. Taulak eta grafikoak. 2018ko otsaila.* 2016ko datuak. Urterokoa. Abagunekoa
21. **ESPAINIAKO BANKUA.** Estatistika buletina. 2017ko datuak. Urterokoa. Abagunekoa
22. **EIN.** Hipotekei buruzko estatistika. 2017. Urterokoa. Abagunekoa
23. **Bilboko burtsa.** Datu-eskaera. 2017. Urterokoa. Abagunekoa

4. SEKTORE PUBLIKOA

Atal honetan, 2017rako finantza publikoen kopuru nagusiak emango dira, sarreren, gastuen eta aurrekontuko saldoaren aldetik eta EAEko administrazio maila ezberdinen arteko transferentzien eta zorpetzearen bilakaeraren aldetik, betiere Eusko Jaurlaritzako Ogasun eta Finantza Sailak emandako informazioa eta EUSTATen estatistikak oinarri hartuta. Halaber, berrikuntza legez, Herri Administrazioetako enpleguari buruzko azken atala sartu da.

Nabarmentzekoa da, lehenik eta behin, sarrera publikoek %6,3 egin zutela gora 2017an, 2016an baino gehiago (%2,8). Bestalde, Euskal Sektore Publikoaren guztizko gastuak %5,3 hazi ziren, aurreko urteko %0,9aren aldean.

Sarreraren eta gastuaren bilakaera horren ondorioz, %67 egin du gora aurrezpen publikoak (BPGaren %2,1 izateraino), eta aldi berean, 2016ko 21,7 milioi euroko defizitak behera egin du 410 milioi eurotik gorako superabita hartzen bada, urte horretako zenbatetsitako BPGaren %0,6.

Superabit hori BPGaren %1,5 da, +1.074 milioi euro (BPGaren %0,62, 2016an) kontuan hartzen badugu Ogasun eta Herri Administrazioen Ministerioko eskualde-administrazioen berrorekarako Plan Ekonomiko Finantzarioen ondoriozko defizitaren kalkulua (EAEko Administrazio Orokorraz gain, haren erakunde autonomoen, LANBIDEren eta Osakidetzaren zifrak ere kontsideratu dira). Horixe da erakunde komunitarioei dagokien erreferentzia, EBk ezarritako helburuak betetzen dituena.

II.4.1. TAULA. EAE-KO SEKTORE PUBLIKOA. ERREFERENTZIAKO ADIERAZLEAK

	ZERGA ITUNDUENG. BILKETAREN ALDAK. %	BPG-AREN GAINEKO AURREKONTU SALDOA		ZORPETZEA ESP*	
		AURREZ. GORD.	SUPERABIT A/DEFIZITA	ALDAK. %.	% / BPG
2013	+3,0	0,9	-0,5	+12,6	14,3
2014	+4,8	1,2	-0,3	+7,0	15,7
2015	+2,4	1,0	-0,4	+4,8	15,4
2016	+2,7	1,3	-0,03	+4,6	15,6
2017	+11,8	2,1	+0,6	+2,3	15,5

** Zor bizia epealdiaren amaieran.*
Iturria: EUSTAT eta Eusko Jaurlaritzaren datuekin eginikoa.

Beste alde batetik, EAEko sektore publiko osoaren guztizko zorpetzea (toki-erakundeak kanpoan utzita) % 47,9 beheratu zen, aurreko ekitaldian %0,8 jaitsi ondoren; hala, urtearen amaieran, zor bizia 11.410 milioi euroko izan zen (+% 2,3, 2016aren aldean).

4.1. DIRU-SARRERAK

Eusko Jaurlaritzaren "*Aurrekontuen Betearazpenari buruzko Estatistika*"ren arabera, Eusko Jaurlaritzak eta hiru foru aldundiek 16.640,9 milioi euroko sarrerak likidatu zituzten orotara, hots, %6,3ko igoera aurreko urtearen aldean (hain zuzen ere +%2,8koa 2016. urtean), zeharkako zergen bilketaren bilakaera positiboagatik (batez besteko hazkundearen gainetik), %13,9 hazita, baita zuzeneko zergen igoera txikiagoagatik ere (%5,1), baina 2016an baino gehiago igo baita (%4,2ko hazkundea izan zuten). Bi partidok EAEko Sektore Publikoaren sarreren %86,2 ziren 2017an.

Halaber, aurreko ekitaldian bezala, %11,7 egin zuen behera finantza-pasiboen aldakuntzak (-%7,9 2016an), Eusko Jaurlaritzaren (-%11,8) nahiz foru aldundien (-%11) zorpetze txikiagoarekin lotuta betiere.

Sarreren hazkundeak antzeko bilakaera du administrazioen artean, zeren eta Eusko Jaurlaritzaren kasuan %8,2koa baita eta foru aldundiena, berriz, %9,3koa.

II.4.2. TAULA. EUSKAL SEKTORE PUBLIKOAREN DIRU-SARREREN LIKIDAZIOA. MILA EUROTAN.									
	2016			2017			Aldak. % 2016-17		
	EJ	FF.AA.	ESP	EJ	FF.AA.	ESP	EJ	FF.AA.	ESP
Zuzeneko zergak	-	6.253.802	6.253.802	-	6.570.557	6.570.557	-	5,1	5,1
Zeharkako zergak	3.918	6.818.033	6.821.951	3.992	7.766.654	7.770.646	1,9	13,9	13,9
Tasak eta bestelako diru-sar.	181.564	301.397	482.961	178.022	277.685	455.707	-2,0	-7,9	-5,6
Transferentzia arruntak	8.837.820	394.858	416.732	9.944.282	484.638	443.103	12,5	22,7	6,3
Ondareko diru-sarrerak	36.198	2.025	38.223	2.152	1.536	3.715	-94,1	-22,8	-90,3
ERAGIKETA ARRUNTAK, GUZ	9.059.499	13.770.116	14.013.669	10.128.447	15.101.098	15.243.728	11,8	9,7	8,8
Inbertsio errealen bester.	946	7.940	8.885	177	2.174	2.351	-81,3	-72,6	-73,5
Kapital transferentziak	173.210	20.745	192.240	137.005	16.343	149.754	-20,9	-21,2	-22,1
KAPITAL ERAGIKETAK, GUZ.	174.156	28.684	201.125	137.182	18.516	152.105	-21,2	-35,4	-24,4
Finantza-aktiboen aldak.	66.574	52.364	118.939	23.787	58.900	82.687	-64,3	12,5	-30,5
Finantza-pasiboen aldak. (Zorra)	1.106.042	210.488	1.316.530	975.047	187.288	1.162.335	-11,8	-11,0	-11,7
FINANTZA DIRU-SAR. GUZT.	1.172.616	262.852	1.435.469	998.834	246.188	1.245.022	-14,8	-6,3	-13,3
DIRU-SARRERAK GUZT.	**10.406.271**	**14.061.653**	**15.650.263**	**11.264.464**	**15.365.802**	**16.640.855**	**8,2**	**9,3**	**6,3**
SARREREN % / BPGd-a	14,7	19,8	22,1	15,3	20,9	22,6			

Iturria: EUSKO JAURLARITZA. Aurrekontuen Betearazpenari buruzko Estatistika.

Balantzea emate aldera, EAEko Sektore Publikoen sarrerek EAEko BPGarekiko duten portzentajeak puntu erdi egin zuen gora 2017an (2016ko %22,1etik %22,5era, behin-behineko datuekin betiere), BPGa diru-sarrera publikoak baino gutxiago hazi baita.

Itundutako zergen bilketa 2017an:

II.4.3. TAULA. FORU ALDUNDIAK: ITUNDUTAKO ZUZENEKO ETA ZEHARKAKO ZERGEN BILKETAREN LIKIDAZIOA. MILA EUROTAN								
	ARABA		BIZKAIA		GIPUZKOA		GUTIRA FF.AA.	
	ZUZENEK.	ZEHARKAKOAK	ZUZENEK.	ZEHARKAKOAK	ZUZENEK.	ZEHARKAKOAK	ZUZENEK.	ZEHARKAKOAK
2013	840.168	945.347	3.191.198	2.965.556	1.761.697	1.934.547	5.793.064	5.845.450
2014	877.909	1.011.000	3.183.988	3.237.331	1.802.454	2.103.112	5.864.350	6.351.443
2015	910.000	1.067.582	3.150.808	3.303.292	1.897.769	2.167.902	5.958.577	6.538.776
2016	943.926	1.081.833	3.270.337	3.371.562	1.954.663	2.207.704	6.168.926	6.661.099
2017	1.028.748	1.265.395	3.513.024	3.919.666	2.074.124	2.566.173	6.615.897	7.751.233
% 15/16	3,7	1,3	3,8	2,1	3,0	1,8	3,5	1,9
% 16/17	9,0	17,0	7,4	16,3	6,1	16,2	7,2	16,4

Iturria: EUSKO JAURLARITZAREN datuekin eginikoa. Ogasun eta Ekonomia Saila.

Zuzeneko zergek eta zeharkakoek eta zerga guztien %90etik gorakoek osatzen duten Itundutako Zergen bilketan %11,8ko hazkundea izan zuen 2017an (orotara 14.473,9 milioi euro bildu ziren). Aurreko urtean, berriz, %2,7.

II.4.1. GRAFIKOA. EAE-N ITUNDUTAKO ZERGEN ZIOZKO BILKETAREN BILAKAERA INDIZEA ZENBAKIETAN. OINARRIKO URTEA=2007



Iturria. EUSKO JAURLARITA. Geuk egina.

Oro har ikusten denez, aurreko ekitaldian ez bezala, joera hobea izan du zeharkako zerga-ordainketak (+%16,4) zuzenekoak baino (+%7,2), eta zuzeneko zerga-ordainketaren igoera nabarmena gertatu da neurri handi batean BEZaren egokitzapen positiboagatik; izan ere, ezohiko sarrera hori ez da berriz izango datozen urteetan. Jokabide hori, gainera, bertsua da gure Erkidegoan, halako moldez non zeharkako zergen bilketak gora egin baitu %16tik gora. Zuzeneko zergen bilketak ere gora egin du, baina neurri txikiagoan: %7tik behera Gipuzkoan (+%6,1) eta goitik Bizkaian (+%7,4) eta Araban (+%9).

Zeharkako zergapetzearen ziozko bilketak gora egin du neurri handi batean BEZaren doikuntza positiboagatik. 2007-2016 aldiko Kupoaren likidazioari buruz berriki egin den akordiora arte, agertu izan diren desadostasunak behin-behinean konpondu dira Estatuak transferentzietan funtsak atxikita, hain zuzen BEZaren ziozko diru-sarrerak orekatzeko egin beharreko transferentzietan. Akordio hori 2017an sinatuta, BEZaren ziozko ezohiko diru-sarrera lortu da, hurrengo urteetan errepikatuko ez dena, eta bildutako guztizkotik deskontatuz gero, %5,5eko igoera izango litzateke 2016an bildutako 12.950,7 milioien aldean.

Guztira, bildutako bolumen osoa 7.500,5 milioi euro da (2016an baino %11,7 gehiago), Gipuzkoan 4.670,2 (+%11,3) eta Araban 2.303,2 milioi (+%13).

Zuzeneko zergen multzoan, aurreko urtean baino %7,2 bildu zen 2017an (6.615,9 milioi euro, eta 2016an 6.168,9 milioi), PFEZaren gehikuntzagatik (+%6, 2016an baino gehiago hazita, orduan %4,1 hazi baitzen). Bigarren garrantzitsuenak, berriz, azken urteetako aurrerapenik handiena izan zuen, Sozietateen gaineko Zergak, %10,1 hazi baita (-%3,5, 2016aren aldean). Ondarearen gaineko Zergak %1,2 egin zuen gora bilketan, eta Oinordetzen eta Dohaintzen gaineko Zergak, berriz, %6,2ko igoera izan zuen.

Aurreko guztiaren emaitzaz, PFEZ zerga EAEko guztizko bilketaren % 77,6 izan zen eta Sozietateen gaineko zerga, berriz, % 16,8koa. Gainerako zuzeneko zerga guztiak bilketaren % 5,6 izan ziren.

II.4.4.TAULA. EAE-KO FORU ALDUNDIEN ZERGA ITUNDUEN BILKETA (MILA EUROTAN)

	EAE 2016	2017				Aldak. % 2015-16	Aldak. % 2016-17
		AFA	BFA	GFA	EAE		
ZUZENEKO ZERGAK	6.168.926	1.028.748	3.513.024	2.074.124	6.615.897	3,5	7,2
PFEZ	4.839.847	801.304	2.675.161	1.655.729	5.132.194	4,1	6,0
SOZIETATEEN GAINEKO ZERGA	1.002.703	183.925	652.900	274.836	1.111.661	-3,5	10,9
EZ EGOILIAR. ERRENTAREN G. ZERGA	-2.389	7.862	13.970	11.401	33.233	95,6	-
OINORDETZAK ETA DOHAINTZAK	110.978	9.913	61.188	46.810	117.912	-2,4	6,2
ONDAREAREN GAINEKO ZERGA	161.328	17.323	78.941	66.963	163.227	6,8	1,2
Kreditu. Ent. Gordailuen Zerga	24.323	3.018	14.224	7.581	24.823	-0,4	2,1
Argind. ekoizpenaren Zerga	32.135	5.403	16.640	10.803	32.847	-13,9	2,2
ZEHARKAKO ZERGAK	6.661.099	1.265.395	3.919.666	2.566.173	7.751.233	1,9	16,4
BEZ	5.014.405	992.976	3.058.003	1.985.348	6.036.326	1,4	20,4
- Kudeaketa propioko BEZa	3.676.456	618.879	1.905.922	1.237.382	3.762.184	0,9	2,3
- BEZaren doikuntza	1.337.949	374.096	1.152.080	747.965	2.274.142	3,0	70,0
OEZ	121.348	16.830	67.452	60.137	144.420	19,3	19,0
EJDZ	39.197	5.708	16.969	16.177	38.854	-10,2	-0,9
GARRAIOAREN GAINEKO ZERGA	17.947	3.612	10.647	7.475	21.733	8,6	21,1
FABRIKAZIOKO Z.B.	1.396.150	235.515	725.300	470.887	1.431.701	2,3	2,5
ASEGURU-PRIMEN ZERGA	74.176	10.106	40.869	24.720	75.694	2,4	2,0
TASAK ETA BESTE DIRU-SARRERA B.	120.701	9.077	67.793	29.928	106.798	4,7	-11,5
JOKO TASAK	44.219	6.096	25.676	12.500	44.272	6,8	0,1
ERREKAR., BERAND. ETA ZEHAPENAK	76.482	2.981	42.117	17.428	62.526	3,6	-18,2
ZERGA ITUNDUAK GUZTIRA	12.950.726	2.303.220	7.500.483	4.670.225	14.473.928	2,7	11,8

Iturria: Ogasun eta Ekonomia Saila EUSKO JAURLARITZA.

Zeharkako zerpagetzeari dagokionez, BEZaren doikuntzako efektu hori deskontatuz gero, hazkunde txikiagoak izan dira: Kudeaketa propioko BEZa %2,3 hazi zen eta, aldi berean, fabrikazioko zerga bereziek %2,5 egin zuten gora.

Orotara, 14.473,9 milioi euro bildu ziren, hau da, EAEko BPG korrontearen %19,7 2017. urtean, behin-behineko datuen arabera (%18,3 2016. urtean). Amaierako zerga-bilketa hori handiagoa izan da Finantzen Euskal Kontseiluak 2017ko urrian aurreikusitakoa baino, 106,2 milioi gehiago hain zuzen ere, eta lehen aldiz gainditu da 2007an bildutako bolumena krisia hasi zenetik. Sarreren %35,5 PFEZari dagozkio, %41,7 BEZari (gure kudeaketako eta barne eragiketen eta aduanen ziozko egokitzapenengatik), %7,7 Sozietateen gaineko Zergari eta %15,1 zenbait Zerga Bereziri.

II.4.5. TAULA. EAE-KO FORU ALDUNDIETAKO ZERGA ITUNDUEN BILKETAREN BILAKAERARI BURUZKO AZTERKETA: URTEKO BILAKAERA ETA 2007KO (OINARRIKO URTEA) EMAITZEKIKO ERKAKETA									
	2009	2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2017
ZENBATEKOA (MILA €									
Zuzeneko zergak	5.392.758	5.258.435	5.644.160	5.698.787	5.793.064	5.864.350	5.958.577	6.168.926	6.615.897
Zeharkako zergak	5.298.405	6.331.514	5.726.581	5.599.729	5.845.450	6.351.443	6.538.776	6.661.099	7.751.233
Tasak eta beste b.	100.914	110.058	110.172	109.708	113.602	103.970	115.277	120.701	106.798
BILKETA, GUZTIRA	10.792.077	11.700.007	11.480.913	11.408.224	11.752.116	12.319.763	12.612.630	12.950.926	14.473.928
URTEKO ALDAK. (%)									
Zuzeneko zergak	-18,3	-2,5	7,3	1,0	1,7	1,2	1,6	3,5	7,2
Zeharkako zergak	-13,4	19,5	-9,6	-2,2	4,4	8,7	2,9	1,9	16,4
Tasak eta beste b.	-11,2	9,1	0,1	-0,4	3,5	-8,5	10,9	4,7	-11,5
BILKETA, GUZTIRA	-15,9	8,4	-1,9	-0,6	3,0	4,8	2,4	2,7	11,8
(2007=100)									
Zuzeneko zergak	80,4	78,4	84,2	85,0	86,4	87,4	88,8	92,0	98,6
Zeharkako zergak	76,3	91,1	82,4	80,6	84,1	91,4	94,1	95,9	111,6
Tasak eta beste b.	85,2	92,9	93,0	92,6	95,9	87,8	97,3	101,9	90,2
BILKETA, GUZTIRA	78,4	85,0	83,4	82,8	85,3	89,5	91,6	94,0	105,1

Iturria: Ogasun eta Ekonomia Sailaren datuekin eginikoa. EUSKO JAURLARITZA.

Sarreraren murrizpena dakarten partidei dagokienez, aurrekontuaren arabera 2015erako gastu fiskala [28] -urte hori baita informazio xehea daukagun azken urtea-, (hau da, beren zergetan eta foru aldundien ekarpenetan kontabilizatutako zergetan eragina duten onura fiskalen zenbatekoak: salbuespenak, gastu kengarriak, murrizpenak, kenkariak, hobariak, diferimenduak eta abar izan daitezkeenak) 5.585,5 milioi eurotara iristen dira, aurreko urtean baino %0,8 gehiago, hau da, sarrera teorikoen %30,4 (aurrekontuan sartutako sarrerak eta gastu fiskalak). Gastu fiskalen % 40 (2.234,2 milioi) araudi autonomoko zerga itunduei dagokie. PFEZ, Sozietateen gaineko Zerga, Ondarearen gaineko Zerga (Gipuzkoak Aberatsen eta Dirudun Handien gaineko Zerga) OEEJDZ. Gainera, nabarmendu behar da 2015eko datuek jaitsiera erakusten dutela zuzeneko zergei dagozkien gastu fiskaletan (Ondarearen gainekoan izan ezik). BEZari dagozkienetan, berriz, hazkundea izan zen.

II.4.6. TAULA. ZERGA GASTUAK ITUNDUTAKO ZERGEN ARABERA. MILA EUROTAN.							
	2013	2014	2015				ALDAK. % 2014/15
			ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	EAE	
PFEZ	1.865.849	1.824.501	254.921	806.466	578.086	1.639.473	-10,1
Ondarearen gaineko Z.	185.543	171.290	32.679	93.663	54.943	181.285	5,8
Sozietateen gaineko Z.	406.376	343.336	53.499	166.471	97.644	317.614	-7,5
GUZTIRA ZUZENEKO Z.	2.457.768	2.339.127	341.099	1.066.600	730.673	2.138.372	-8,6
BEZ	2.573.635	2.907.757	520.184	1.600.129	1.045.751	3.166.064	8,9
OEZ-EJD	142.242	117.786	31.908	38.672	23.852	94.432	-19,8
Garraioen Z.B.	3.099	3.980	502	1.431	1.972	3.905	-1,9
Fabrikazioaren Z.B.	175.918	150.161	26.174	80.516	52.620	159.310	6,1
Aseguru primen Z.	21.320	21.963	3.848	11.838	7.736	23.422	6,6
GUZT. ZEHARKAKO Z.	2.916.214	3.201.647	582.616	1.732.586	1.131.931	3.447.133	7,7
GUZTIRA	5.373.982	5.540.774	923.715	2.799.186	1.862.604	5.585.505	0,8

Iturria: ZERGAK KOORDINATZEKO ORGANOAREN datuekin eginikoa

4.2. GASTUAK

Eusko Jaurlaritzaren Ogasun eta Ekonomia Sailaren "*Aurrekontuaren Betearazpenari buruzko Estatistika*"ren arabera, EAEko Sektore Publikoaren guztizko gastua, 2017an, 16.129,5 milioi eurokoa zen (Tokiko erakundeak alde batera utzita),

[28] *Gastu fiskalaren kontzeptuak ez du ondo argitutako eta denek onartutako definiziorik ogasunaren doktrinaren barruan. Hala ere, gastu fiskalen aurrekontua honela defini dezakegu: zerga sarreren murriztapenaren aurreikuspenaren zenbatekoa, politika ekonomiko eta sozialeko zenbait helburu lortzeko asmoz onura fiskalak aplikatzearen ondorioz. ELGAren definizioaren arabera, zergaren egitura "arruntaren" edozein desbiderapen dira gastu fiskalak.*

eta %5,3 hazi zen 2016aren aldean (aurreko urtean +%0,9koa izan zen). Beraz, EAEko BPGan duen portzentajea %0,3 handitu da, %21,6tik %21,9ra.

Gastuaren bilakaera positiboa izan da bai Eusko Jaurlaritzan (+%4,4) bai foru aldundietan (+%11,1), eta agregatuaren aldakuntza %5,3koa da, zeren eta zenbait partida erakundeen artean konpentsatzen baitira (transferentzien zati bat, esate baterako).

Gastuen kapituluen arteko aldakuntza esanguratsuenek zenbait ezberdintasun dituzte aurreko urteekiko: lehenik eta behin, pertsonalaren gastua puntu erdi gehiago hazi da 2015ean eta 2016an baino (%2,5), eta neurri txikiagoan aldundietan (+%2,9) Eusko Jaurlaritzan baino (+%2,5). Aldi berean, ohiko transferentziek azken lau ekitaldietako joera positiboari eutsi diote, eta gainera, proportzio handiagoan hazi dira (+%7,3, 2016ko %1,2aren aldean). Funtzionamendu gastuek (ondasunen eta zerbitzuen erosketari dagokionez), aldiz, aurreko hiru urteetako joerari eutsi diote, baina hazkunde apalagoa izan da (%2,4 hazita, aurreko urtean +%2,9 hazi ondoren).

II.4.7. TAULA. EUSKAL SEKTORE PUBLIKOAREN GASTUEN LIKIDAZIOA. MILA EUROTAN.

	2016			2017			Aldak. % 2016-17		
	EJ	FF.AA.	ESP	EJ	FF.AA.	ESP	EJ	FF.AA.	ESP
Langileen Gastuak	1.972.076	352.848	2.324.924	2.020.971	363.027	2.383.998	2,5	2,9	2,5
Funtzionamendu gastuak	3.388.325	566.908	3.955.233	3.448.881	602.270	4.051.150	1,8	6,2	2,4
Finantza gastuak (interesak)	201.624	45.931	247.555	185.398	42.010	227.408	-8,0	-8,5	-8,1
Transferentzia korronteak	3.308.511	12.075.763	6.568.328	3.509.835	13.524.533	7.048.550	6,1	12,0	7,3
ERAGIKETA KORRONTEAK, GUZ	8.870.537	13.041.450	13.096.041	9.165.084	14.531.839	13.711.107	3,3	11,4	4,7
Egiazko inbertsioak	228.924	166.822	395.746	202.006	192.636	394.642	-11,8	15,5	-0,3
Kapital transferentziak	581.565	164.870	744.719	697.675	185.975	880.056	20,0	12,8	18,2
KAPITAL ERAGIKETAK, GUZ	810.488	331.692	1.140.465	899.681	378.611	1.274.698	11,0	14,1	11,8
Finantza aktiboen aldak.	111.283	134.923	246.207	104.945	130.757	235.702	-5,7	-3,1	-4,3
Finantza pasiboen aldak. (zor ad.)	572.331	256.186	828.517	654.023	253.949	907.972	14,3	-0,9	9,6
Finantza gastuak guztira	683.614	391.110	1.074.723	758.969	384.706	1.143.647	11,0	-1,6	6,4
GASTUA, GUZTIRA	**10.364.639**	**13.764.251**	**15.311.229**	**10.823.734**	**15.295.156**	**16.129.479**	**4,4**	**11,1**	**5,3**
GASTU LIKIDATUA % / BPG	14,6	19,4	21,6	14,7	20,8	21,9			

Iturria. EUSKO JAURLARITZA. Aurrekontuen Betearazpenari buruzko Estatistika.

Inbertsio errealei dagokienez, 2010 eta 2015 bitartean etengabe behera egin ostean neurri handiagoan edo txikiagoan, 2016an %4,7ko igoera izan zuten. Joera horri ez zaio eutsi 2017an, %0,3 murriztu baita, Eusko Jaurlaritzan izandako bilakaera negatiboaren (-%11,8) eta foru aldundietako emaitza positiboaren (+%15,5) ondorioz.

Bestalde, 2016an ez bezala, gora egin dute zorpetzearen ziozko gastuek (zorraren amortizazioa), %9,6 handituta. Partida horrek Gobernuan izan duen bilakaeragatik gertatu da (+%14,3), zeren eta foru aldundietan, 2016an ez bezala, aldakuntza negatiboa baita (-%0,9). Finantza-gastuek (interesak), azkenean, %8,1 egin dute behera, eta negatiboak dira beste urte batez, Gobernuarentzat nahiz aldundientzat.

Bestalde, *"EAEko Aurrekontu Orokorren Betearazpena"ren* datuen arabera, eta 2018ko maiatzean eguneraturiko 2017ko aurrekontuko kopuruen arabera, %8,6 hazi da 2016an eginiko gastuaren aldean (urte horretan %2 egin zuen gora 2015aren aldean).

Gasturik handiena egin duten bi sail nagusiak, 2017. urtean ere, Hezkuntza (guztizkoaren %23,9, baina kontuan hartu behar da Hizkuntza Politika eta Kultura aparteko saila direla 2017tik, aurrekontuko %2,2arekin) eta Osasuna (%31,6). Gastua, orotara, 11.256 milioi euro da, gure Erkidegoaren BPGaren %15,3, behin-behineko datuen arabera betiere.

II.4.8. TAULA. EUSKO JAURLARITZAREN GASTUA SAILEN ARABERA. MILA EURO.

	Mila euro				2017 Banak %	Aldak. %		
	2014	2015	2016	2017 aur.*		14/15	15/16	16/17
00 Parlamentua	27.565	28.049	28.441	29.400	0,3	1,8	1,4	3,4
01 Gobernu lehendakaritza	102.692	68.063	72.063	84.500	0,8	-33,7	5,9	17,3
02 Administrazio publikoa eta justizia	220.468	232.416	231.311	-	-	5,4	-0,5	-
02 Gobernantza publikoa eta autogobernua**				135.562	1,2			-
03 Ek. eta Leh. Z. / Azpiegiturako Z. Ek.**	418.828	389.689	525.463	1.116.575	9,9	-7,0	34,8	112,5
04 Lan eta Gizarte Politikak	953.609	1.060.698	1.077.796	1.004.893	8,9	11,2	1,6	-6,8
12 Lana eta Justizia				209.548	1,9			-
05 Ogasun eta Finantzak / Og. eta Ekonomia**	96.899	128.855	118.345	197.579	1,8	33,0	-8,2	67,0
06 Hezkuntza, Hizkuntza P. eta Kultura	2.765.248	2.855.587	2.930.789	-	-	3,3	2,6	-
07 Hezkuntza**				2.694.657	23,9			-
10 Kultura eta Hizkuntza P.**				248.184	2,2			-
11 Segurtasuna	608.868	572.766	591.743	632.104	5,6	-5,9	3,3	6,8
08 Osasuna	3.354.198	3.429.210	2.524.031	3.561.018	31,6	2,2	-26,4	41,1
09 Ingurumena eta Lurralde Politika	653.540	408.837	401.577	-	-	-37,4	-1,8	-
05 Ingurumena, Lurralde P. eta Etxebizitza**				197.579	1,8			-
51 Lan Harremanetako Kontseilua	2.325	2.367	2.390	2.419	0,0	1,8	1,0	1,2
52 Ekonomia eta Gizarte Kontseilua	1.310	1.334	1.347	1.363	0,0	1,8	1,0	1,2
53 Kooperatiben Kontseilu Gorena	889	893	901	929	0,0	0,4	0,9	3,1
54 Kontuen Euskal Auzitegia	7.127	7.254	7.326	7.414	0,1	1,8	1,0	1,2
55 Datuak Babesteko Euskal Agentzia	1.336	1.336	1.349	1.365	0,0	0,0	1,0	1,2
90 Zor Publikoa	815.059	911.257	772.970	1.034.167	9,2	11,8	-15,2	33,8
95 Erakundeen baliabideak eta konp.	78.849	62.868	76.796	172.160	1,5	-20,3	22,2	124,2
99 Hainbat sail	106.698	-	-	17.885	0,2	-	-	-
GUZTIRA	**10.215.506**	**10.161.474**	**10.364.639**	**11.255.996**	**100,0**	**-0,5**	**2,0**	**8,6**
BPG % bb	15,3	14,7	14,6	15,3				

Iturria. EUKO JAURLARITA. EAEko Aurrekontu Orokorren Betearazpena.
**2018ko maiatzean egunerataturiko 2017ko aurrekontua, azarora arteko betearazpena kontuan izanik.*
***Aldaketak sailetan XI. Legealdiaren hasieran.*

4.3. AURREKONTUKO SALDOA

II.4.2. GRAFIKOA. AURREZPEN ETA SUPERABIT/DEFIZIT PUBLIKOEN BILAKAERA (FINANTZATZEKO BEHARRA/GAITASUNA) EAE-N. BPG-AREKIKO %



Iturria: EUSKO JAURLARITZAREN datuekin eginikoa.

2017an, EAEko Sektore Publikoaren (Eusko Jaurlaritza gehi foru aldundiak) ohiko sarrerek %8,8 egin zuten gora, baina gastu horiek neurri txikiagoan hazi dira (%4,7). Hori dela-eta, %67ko hazkundea izan da aurrezpen gordinean, 1.532,6 milioi euro izan artean. Zenbateko hori gure Erkidegoaren BPGaren %2,1 da (behin-behineko datuak).

Horrez gain, 410 milioi euroko (BPGaren %0,6) superabit publikoa izan da (finantzatzeko ahalmena), finantzakoak ez diren gastuak (ohikoak gehi kapitalekoak) txikiagoak baitira horrelako sarrerak baino. Aurreko ekitaldian, 21,7 milioi euroko defizita izan zen.

II.4.9. TAULA. EUSKO SEKTORE PUBLIKOA: FINKATURIKO AURREKONTUKO MAGNITUDEAK. MILA EUROTAN.					
	2015	2016	2017	% 2015/16	% 2016/17
1.- SARRERA KORRONTEAK	13.587.712	14.013.669	15.243.728	3,1	8,8
2.- GASTU KORRONTEAK	12.897.996	13.096.041	13.711.107	1,5	4,7
2.1.- LANGILEEN GASTUAK	2.278.380	2.324.924	2.383.998	2,0	2,5
2.2.- FUNTZIONAMENDU GASTUAK	3.842.674	3.955.233	4.051.150	2,9	2,4
2.3.- FINANTZA-GASTUAK	284.318	247.555	227.408	-12,9	-8,1
2.4.- TRANSFERENTZIA KORRONTEAK	6.492.625	6.568.328	7.048.550	1,2	7,3
3.- AURREZPEN GORDINA(1-2)	689.715	917.628	1.532.622	33,0	67,0
4.- KAPITAL SARRERAK	147.787	201.125	152.105	36,1	-24,4
5.- KAPITAL GASTUAK	1.130.655	1.140.465	1.274.698	0,9	11,8
5.1.- EGIAZKO INBERTSIOAK	378.123	395.746	394.642	4,7	-0,3
5.2.- KAPITAL TRANSFERENTZIAK	752.533	744.719	880.056	-1,0	18,2
6.- FINANTZAZIO GAITASUNA (+) / BEHARRA (-) (3+4-5)	-293.153	-21.711	410.028	-92,6	-
7.- FINANTZA AKTIBOEN ALDAKUNTZA GARBIA	-157.361	-127.268	-153.015	-	-
7.1.- FINANTZA AKTIBOEN ALDAKUKNTZA. SARRERAK	55.403	118.939	82.687	114,7	-30,5
7.2.- FINANTZA AKTIBOEN ALDAKUKNTZA. GASTUAK	212.764	246.207	235.702	15,7	-4,3
8.- FINANTZA PASIBOEN ALDAKUNTZA GARBIA	492.189	488.013	254.363	-0,8	-47,9
8.1.- FINANTZA PASIBOEN ALDAKUNTZA. SARRERAK	1.428.918	1.316.530	1.162.335	-7,9	-11,7
8.2.- FINANTZA PASIBOEN ALDAKUNTZA. GASTUAK	936.729	828.517	907.972	-11,6	9,6
9.- AURREKONTUKO SUPERABITA / DEFIZITA (6+7+8)	41.675	339.034	511.376	713,5	50,8
9.1.- KOBRATU GABEKO BETEBEHARRAK	934.111	1.041.907	1.240.933	11,5	19,1
9.2.- KOBRATU GABEKO ESKUBIDEAK	1.013.943	1.187.271	674.812	17,1	-43,1
10.- AURREK. SUPERABITA / DEFIZITA KUTXARI DAGOKIONEZ	-38.157	193.670	1.077.497	-	456,4
Iturria. EUSKO JAURLARITZA. Aurrekontuaren betearazpenari buruzko estatistika.					

Finantza-aldagaia sartuta, eta funtsean zorpetzeari esker, 410 milioiko superabit publikoa 511,4 milioi euroko aurrekontuko superabit bihurtu da, BPGaren %0,7, aurreko ekitaldikoa baino %50,8 handiagoa.

4.4. SEKTORE PUBLIKOAREN ZORPETZEA

II.4.10. TAULA. EUSKO JAURLARITZAREN ETA FORU ALDUNDIEN ZORPETZEAREN BILAKAERA. (MILA EURO)							
	Zorpetze gordina		Amortizazioa	Zorpetze garbia		Zor bizia urtearen amaieran	
	(1)	Aldak. %	(2)	(1) -(2) = (3)	Aldak. %	Guztira	Aldak. %
EUSKO JAURLARITZA							
2014	1.139.367	-3,1	479.805	659.562	-32,4	8.101.518	8,9
2015	1.163.018	2,1	686.326	476.692	-27,7	8.578.210	5,9
2016	1.106.042	-4,9	572.331	533.711	12,0	9.111.921	6,2
2017	975.047	-11,8	645.023	330.024	-38,2	9.441.945	3,6
FORU ALDUNDIAK							
2014	263.500	-21,7	259.299	-31.799	-134,5	2.027.941	-1,5
2015	265.900	0,9	250.403	15.497	-148,7	2.043.438	0,8
2016	210.488	-20,8	256.186	-45.698	-394,9	1.997.740	-2,2
2017	187.288	-11,0	253.949	-66.661	45,9	1.931.079	-3,3
GUZTIRA ESP.							
2014	1.402.867	-7,2	739.104	663.763	-37,8	10.175.459	7,0
2015	1.428.918	1,9	936.729	492.189	-25,8	10.667.648	4,8
2016	1.316.530	-7,9	828.517	488.013	-0,8	11.155.661	4,6
2017	1.162.335	-11,7	907.972	254.363	-47,9	11.410.024	2,3
Iturria: EUSKO JAURLARITZA. Aurrekontuen betearazpenari buruzko estatistika. Geuk egina							

2017ko Aurrekontuaren Betearazpenari buruzko Inkestak erakusten duenez, lehenik eta behin, EAEko sektore publikoaren (Eusko Jaurlaritza gehi foru aldundiak) zorpetze garbia jaitsi egin da lau urtez jarraian, 2017an %47,9, krisiaren lehenbiziko urteetan igoerak izan ostean.

Bestalde, zorpetze gordina %11,7 jaitsi da, eta orotara 1.162,3 milioi eurokoa da. Horietatik 975 milioi Eusko Jaurlaritzari dagozkio (-%11,8 2016aren aldean) eta gainerako 187,3 foru aldundiei (-%11).

Horren ondorioz, ekitaldiaren amaieran, Eusko Jaurlaritzak eta foru aldundiek 11.410 milioi euroko zorra zuten, hain zuzen ere 2016an baino %2,3 gehiago (BPGaren %15,5, eta 2016an %15,6 zen). Beste urte batez, zorraren zatirik handiena Eusko Jaurlaritzari dagokio (zor guztiaren %82,8, %81,7 aurreko urtean).

Beste alde batetik, EUSTATen "Sektore Publikoaren aurrekontuko estatistika" (eskuragarri dagoen azken informazioa 2015ekoa da) txostenari esker foru aldundi bakoitzaren eta udal bakoitzaren zorpetze kopurua ezagut dezakegu, baita EAEko Administrazio osoarena ere (Jaurlaritza + Aldundiak + udalak).

II.4.3. GRAFIKOA. EAE-KO ADMINISTRAZIOEN FINANTZA-ZORRA (MILA EUROTAN)



Iturria: EUSTAT. Sektore publikoaren aurrekontuen estatistika.

Foru aldundiei dagokienez, 2015ean 285,35 milioi euroko zorra jaulki zuten (aurreko ekitaldian baino %8,3 gehiago). Hauen artetik 52,2 milioi Arabako Foru Aldundiari dagozkio, 81,15 Gipuzkoakoari eta gainontzeko 152ak Bizkaikoari. Amortizatutako kopurutik 34,1 milioi Bizkaiko Foru Aldundiari dagozkio, 58,6 Gipuzkoakoari eta gainerako 146,9 Arabako Foru Aldundiari. Aldundien zorraren saldo bizia %2,1 igo da aurreko urtekoaren aldean. BPGd-arekiko harremanean ere hala egin du: 2015an %3,3 izan zen eta 2014an %3,2.

EAEko udalei dagokienez, arestian aipatutako estatistikan oinarri harturik, badakigu 2015ean 32,5 milioi euroko zorra jaulki zutela, eta 75,9 milioi euro amortizatu zutela. Beraz, ekitaldiaren amaieran, ordaindu gabeko zorra 45 milioi euro gutxitu zen eta 505 milioi eurokoa izan zen.

EAEko herri-administrazio guztiek (gobernuak, foru-aldundiek eta udalek), 2015eko ekitaldian, 10.949 milioi euroko zor bizia izan zuten urtearen amaieran (hau da, 2014an baino % 4,6 gehiago). Zenbateko hori aipatutako urteko BPGaren % 16koa izan zen (2014an, aldiz, % 15,8koa izan zen).

Guztizko zorraren %75,1 Eusko Jaurlaritzari dagokio, %10,9 Bizkaiko Foru Aldundiari, %4,7 Arabakoari eta %3,8 Gipuzkoako Foru Aldundiari eta proportzio bera Arabako Foru Aldundiari. Gainerakoa, 505 milioi euro, hain zuzen, EAEko udaletako finantza-zorrari dagokio, eta EAEko administrazioen zor osoaren % 4,6 da (2014an % 5,3).

4.5. ERAKUNDEEN TRANSFERENTZIAK

EAEk bere jarduera finantzatzeko sistema berezia dauka. Zergarik gehienak biltzeko gaitasuna du. Kupoa deritzonaren bidez EAEk jaso ez dituen eskumenetan, estatuaren gastuak ordaintzen laguntzen du. EAEren eskumenen banaketaren barruan, zerga-bilketa lurralde historiko bakoitzeko Foru Aldundiek egiten dute batez ere. Eusko Jaurlaritzaren finantzazioan laguntzen dute, ekarpenen bidez. Udalek ere zerga-bilketa egiten dute.

EAEko administrazio publikoek jasotzen dituzten baliabide propioez gain, Europar Batasunak eta estatuak zenbait fondo ematen diete, arrazoi desberdinengatik: BEZaren bidez eta zerga berezien bidez bildutako dirua egokitzeko, foru aldundiek eta udalek zerga ez itunduetan duten partaidetzagatik, elkarrekiko, kiroleko eta ongintzako apustuetatik eta Estatuko Loteria eta Apustuen Erakunde Nazionaletik bildutako diruaren partaidetzagatik, eta estatu administrazioek eta erakunde autonomoek egiten dituzten finantzazio hitzarmen eta akordioen ondorioz.

Lehenik eta behin, Foru Aldundiek Eusko Jaurlaritzari egiten dizkioten ekarpenak aipatu behar ditugu, bolumen handia baitute. Baliabideak banatzeko metodologia Ekarpenen Legean jasota dago. Hamabost egunean behin Foru Aldundiek biltzen dituzten zerga itunduetatik zein zati transferitu behar dioten Aldundiek Eusko Jaurlaritzari erabakitzen du legeak, gastu komunak ordaintzeko ekarpen gisa (horrela, Eusko Jaurlaritzak jasotzen dituen diru-sarreren %90 baino gehiago ekarpen horietatik datoz).

2017an, ekarpen horiek 9.832,9 milioi euro izan ziren, 2016an baino %12,6 gehiago (urte horretan %3,5 hazi ziren).

II.4.11. TAULA. FORU ALDUNDIEK EAE-KO ERAKUNDE ERKIDEEI EGINIKO EKARPENEN BILAKAERA (MILA EUROTAN)

KONTZEPTUA	2012	2013	2014	2015	2016	2017	Ald. % 15-16	Ald. % 16/17
EK. OROKORRA	7.447.837	7.428.008	7.845.378	7.987.883	8.224.923	8.134.577	3,0	-1,1
EK. ESPEZIFIKOAK	864.106	392.825	416.055	451.723	509.580	1.698.393	12,8	233,3
GUZTIRA, EAE	**8.311.943**	**7.820.933**	**8.261.433**	**8.439.606**	**8.734.503**	**9.832.970**	**3,5**	**12,6**
ARABAKO EK.	1.380.614	1.269.337	1.321.829	1.386.627	1.430.712	1.617.523	3,2	13,1
BIZKAIKO EK.	4.195.869	3.969.124	4.208.374	4.265.377	4.423.152	4.981.382	3,7	12,6
GIPUZKOAKO EK.	2.735.460	2.582.472	2.731.230	2.787.602	2.880.639	3.234.064	3,3	12,3
ARABA %	16,61	16,23	16,00	16,43	16,38	16,45		
BIZKAIA %	50,48	50,75	50,94	50,54	50,64	50,66		
GIPUZKOA %	32,91	33,02	33,06	33,03	32,98	32,89		

Iturria: Kupoaren eta Finantza-ekarpenen Zuzendaritzaren datuekin eginikoa. Ogasun eta Ekonomia Saila. EUSKO JAURLARITZA.

2007-2011 denboraldiko berrikuntzen artean[29], Finantza Publikoen Euskal Kontseiluak zenbait aldaketa ezarri zituen Aldundien ekarpenak zehazteko eta baliabideak banatzeko metodologian. Aldaketa horien artean, besteak beste, ondoko hauek nabarmendu behar ditugu: koefiziente bertikala % 70,44tik % 70,04ra jaitsi zen, toki erakundeen partaidetza areagotzeko; Foru Aldundien artean BEZagatik biltzen duten diruan doikuntza berria egin zen; eta Doikuntzako Fondo Orokorra sortu zen (lehen Elkartasun Fondoa zena), lurralde historikoentzako berme mekanismo gisa; EAEko erakundeen artean banatu beharreko baliabideetan lurralde historikoen zenbatekoa % 0,75 izatetik % 1 izatera igaro zen.

Bestalde, Europar Batasunaren fondoetatik datozen diru-laguntzak Europar Batasunak hartutako aurrekontu konpromisoen arabera gauzatzen dira. Diru-laguntza horien forma aurrerakinena edo behin betiko ordainketena izan daiteke, kasu bakoitzean araututa dagoenaren arabera. 2015ean (informazioa duen azken urtea) % 50,4 txikitu dira, aurreko ekitaldian % 11,7ko jaitsiera izan ondoren, Horrenbestez, 68,2 milioi eurokoak izan ziren.

Partida nagusia Bermerako Nekazaritzako Europako Funtsa da (2007. urtean sortua Landa Garapenerako Nekazaritzako Europako Funtsarekin batera, nekazaritzarako Europako laguntzak kudeatzeko), 55,6 milioi eurorekin, guztizkoaren %81,5. Bigarrenik, LGENF beraren bidez jaso ziren zuzenean beste 7,3 milioi euro, guztizkoaren %10,7. Hortaz, orotara, jasotako funtsen %92,2 nekazaritzarako bideratu ziren 2015ean.

[29] *2/2007 Legea, martxoaren 23koa, Baliabideen banaketarako eta foru-aldundiek Euskal Autonomia Erkidegoaren aurrekontuak finantzatzekoak egin beharreko ekarpenak zehazteko 2007-2011 aldian aplikatuko den metodologiari buruzkoa. Oraindik ere indarrean dago, ez baitu geroagoko beste batek ordeztu.*

II.4.12. TAULA. EUSKO JAURLARITZAK LIKIDATURIKO DIRU-SARRERAK JATORRIAREN ARABERA. (MILA EURO).

	2013	2014	2015	Banak. % 2015	Ald. % 13/14	Ald. % 14/15
1. FORU ALDUNDIEN EKARPENAK	7.820.933	8.261.433	8.439.606	83,5	5,6	2,2
. Ekarpen orokorrak	7.428.008	7.845.378	7.987.883	79,1	5,6	1,8
. Berariazko ekarpenak	392.925	416.055	451.723	4,5	5,9	8,6
2. ERAKUNDEEN BESTELAKO DIRU-SARRERAK	494.634	390.451	212.397	2,1	-21,1	-45,6
. EAEko erakundeetako transferentziak	5.091	361	618	0,0	-92,9	71,2
. Estatuaren transferentziak	366.280	252.402	143.543	1,4	-31,1	-43,1
. Europar Batasunaren funtsak	123.263	137.688	68.236	0,7	11,7	-50,4
- EGIF	4.637	4.388	1.005	0,0	-5,4	-77,1
- EGEF	37.395	61.235	357	0,0	63,8	-99,4
- NBBEF - Orientazioa	-	-	-	-	-	-
- LGENF	17.661	10.574	7.285	0,1	-40,1	-31,1
- NBEUF	52.392	55.164	55.582	0,6	5,3	0,8
- ABFT	7.244	5.740	-	-	-20,8	-
- Beste funts batzuk	3.934	586	4.007	0,0	-85,1	583,8
3. BESTELAKO BALIABIDEAK	1.493.702	1.455.646	1.450.309	14,4	-2,5	-0,4
- Zor publikoa	1.175.253	1.139.367	1.163.018	11,5	-3,1	2,1
- Zeharkako zergak	6.079	5.700	3.941	0,0	-6,2	-30,9
- Ondareko diru-sarrerak	48.005	48.139	35.409	0,4	0,3	-26,4
- Inbertsioen errealen besterentzea	16	1.966	1.467	0,0	12.187,5	-25,4
- Bestelako transferentziak	5.160	10.980	13.518	0,1	112,8	23,1
- Finantza-aktiboen aldakuntza	63.531	36.122	52.592	0,5	-43,1	45,6
- Tasa eta prezio publikoak	195.659	213.372	180.367	1,8	9,1	-15,5
BESTE FUNTS BATZUK	9.809.269	10.107.529	10.102.312	100,0	3,0	-0,1

Iturria. ZERGAK KOORDINATZEKO ORGANOA

Beste partida interesgarri bat estatuarentzako kupoa da. Kupoaren zenbateko likidoa, Kupoaren Bost Urteko Legearen bidez urtero zehazten dena, 2017. urtean (behin-behineko likidazioen arabera) 778,5 milioi eurokoa da. 2016. urtearen aldean %11 hazi da.

II.4.13. TAULA. EAE-K ESTATUARI ORDAINDUTAKO KUPOAREN BILAKAERA. MILA EURO.

	2014	2015	2016	2017	Ald. % 16/17
KUPO JASOA	750.790	823.780	761.814	867.834	13,9
KONPENTSAZIOAK*	-69.041	-65.404	-60.399	-89.332	47,9
KUPO ORDAINDUA	681.748	758.076	701.416	778.502	11,0

Iturria: EUSKO JAURLARITZA. Ogasun eta Ekonomia Saila.
(*) Fabrikazioaren gaineko Zerga Berezien ziozko finantza-konpentsazioa.

Amaitzeko, Estatuari egiten zaizkion ordainketa horiek ez ezik, zenbait zenbateko ere jasotzen dira; nabarmenena Balio Erantsiaren gaineko Zergaren doikuntza da, barne merkatuan eta inportazioetan (azken hori Estatuko Ogasunak soilik egiten du) egindako eragiketengatik. Doikuntza hori Estatuko administrazioen eta EAEko administrazioaren arteko finantza-doikuntza da, zerga administrazioen artean zerga-bilketa teorikoak eta errealak egokitu beharra dagoelako, zerga administrazio horiek beren lurraldean jarduten baitute muga fiskalik gabeko espazio batean.

II.4.4. GRAFIKOA. BEZ-AREN ZIOZKO DOIKUNTZAREN BILAKAERA. MILA EUROTAN



Fuente:GOBIERNO VASCO. Órgano de Coordinación Tributaria.

Doikuntza horiei zerga bereziei dagozkienak erantsi zitzaizkien 1997. urtean. Zerga berezi horiek beharrezkoak dira honako honetatik ondorioztatutako distortsioa zuzentzeko: zerga horiek kargatzen dituzten produktuen behin betiko kontsumoa produktua fabrikatu den lurraldetik kanpo egiten da.

2015. urtean (informazioa duen azken urtea) BEZagatiko doikuntza 1.299,1 milioi eurokoa izan zen EAEn. Kopuru hori % 5,1 handitu zen, aurreko urtekoarekin erkatuta. Aduanetako eta barneko eragiketen ziozko bilketa horretako

doikuntzak %50ean banantzen dira gutxi gorabehera. Lurralde banaketa urtero egiten da, koefiziente horizontalen arabera.

4.6. ENPLEGUA ADMINISTRAZIO PUBLIKOETAN

EAEko herri administrazioek 131.973 enplegatu[30] zituzten 2016ko abenduaren 31n, EUSTATen "*Herri Administrazioen Direktorioa*"ren arabera. Hau da, aurreko urtean baino %1,2 gehiago eta EAEn 2016ko laugarren hiruhilekoan lan egiten zuten guztien %14,6 (2015eko ratio bera), BJAren okupazioari buruzko kopuruak kontuan hartuz gero.

Datu horietan ez da kontuan hartu Estatuko administrazioaren eta Gizarte Segurantzaren sistemako langileen kopurua, baina Ogasun eta Funtzio Publikoko Ministerioak, 2017ko urtarrileko bere buletinean eginiko zenbatespenen arabera, Estatuko herri administrazioak egun horretan 11.075 langile zituen EAEn (4.120 Estatuko Administrazio Orokorraren zerbitzura eta 6.955 "beste batzuk" kategorian, funtsean Estatuko segurtasun indarrak eta kidegoak biltzen dituena). Bi kopuruok batuz gero, 2016ko amaieran, 143.048 lagun ziren, Hala ere, soilik zenbatespentzat hartu behar da kopuru hori, erreferentziako datak eta erabilitako metodologiak desberdinak direlako[31].

II.4.14. TAULA. EUSKAL ADMINISTRAZIO PUBLIKOETAKO LANGILEAK ABENDUAREN 31N

	2011	2012	2013	2014	2015	2016	% 14/15	% 15/16
EUSKO JAURLARITZA	84.434	84.386	82.458	82.085	85.389	86.406	4,0	1,2
FORU ALDUNDIAK	10.193	120.018	10.083	10.154	10.174	10.387	0,2	2,1
TOKIKO ERAKUNDEAK	25.283	24.278	24.441	24.943	25.573	25.792	2,5	0,9
FUNDAZIOAK ETA IAGE*	1.956	2.244	2.377	2.369	2.515	2.587	6,2	2,9
BESTE ERAKUNDE PUBLIKO B.	382	364	372	369	371	372	0,5	0,3
UNIBERTSITATEAK	6.292	6.414	6.379	6.392	6.425	6.429	0,5	0,1
GUZTIRA	128.540	127.704	126.312	126.312	130.447	131.973	3,3	1,2

Iturria: EUSTAT. Administrazio Publikoen Direktorioa.
** Irabazteko asmorik gabeko erakundeak.*

2016ko abenduan ziren 131.973 enplegatu publikoetatik %65,3 EAEko administraziokoa zen, %19,6 tokiko erakundeetakoa, %8 foru aldundietakoa eta gainerako %7,1a unibertsitatekoa, fundazioetakoa eta beste erakunde publiko batzuetakoa.

II.4.15. TAULA. HERRI ADMINISTRAZIOETAKO ENPLEGATUAK 2016KO ABENDUAREN 31N MARKO ARAUTZAILEAREN ARABERA

	GUZTIRA	EUSKO JAURLARITZA ETA MENPEKO ERAKUNDEAK	FORU ALDUNDIAK ETA MENPEKO ERAKUNDEAK	TOKIKO ERAKUNDEAK ETA MENPEKO ERAK.	GAINERAKO ERAKUNDE PUBL.
KARDUN HANDIKOAK	1.178	293	128	606	151
FUNTZIONARIOAK	82.214	57.666	6.642	14.390	3.516
- FINKOAK	62.401	44.862	4.831	9.912	2.796
- BITARTEKOAK	19.813	12.804	1.811	4.478	720
LAN-ITUNPEKOAK	48.581	28.447	3.617	10.796	5.721
- FINKOAK	17.980	7.858	2.142	5.697	2.283
- ALDI BATERAKOAK	30.601	20.589	1.475	5.099	3.438
GUZTIRA	131.973	86.406	10.387	25.792	9.388

Iturria: EUSTAT. Administrazio Publikoen Direktorioa.

2015eko abenduaren aldean, euskal administrazioetan 1.526 lagun gehiago ari ziren lanean, %1,2ko igoera, eta ehunekoetan nabarmentzen da foru aldundietako bilakaera, %2,1 hazita. Tokiko erakundeetan eta horien menpeko

30 Lanaldi osoarekin lanen ari direnak.

31 Ministerioaren datuetan, adibidez, egonkortzat jotzen duen plantilla hartzen du aintzat, 6 hilabetetik beherako aldi baterako kontratuak alde batera utzita.

erakundeetan, %0,9 egin du gora enplegatuen kopuruak. Gainerako erakunde publikoetan %0,3 hazi da enplegatuen kopurua, eta %0,1 unibertsitateetan.

Bestalde, funtzionarioak langile guztien %62,3 ziren, %36,8 lan-itunpeko pertsonala zen, kasu bietan Osakidetzaren estatutuetako pertsonala barne; %0,9 goi-mailako kargudunak ziren. Gainera, pertsonal finkoa (funtzionarioak, lan-itunpekoak eta estatutuetakoak) pertsonalaren %60,9 zen, %15 bitarteko funtzionarioak ziren eta %23,2 aldi baterako lan-itunpeko pertsonala zen.

Sexuari dagokionez, 2016ko abenduaren 31n, euskal administrazio publikoetako enplegatu guztien %38 gizonezkoak ziren, eta emakumeak %62. Emakumeen nagusitasun hori areagotu egin da azken bost urtean: emakumeen kopurua %4,8 hazi da, eta gizonena, berriz, %0,6 gutxitu.

II.4.5. GRAFIKOA . EUSKAL ADMINISTRAZIO PUBLIKOETAN SEXUAREN ARABERA LANA EMANDAKO PERTSONEN BILAKAERA. ABENDUAREN 31RAKO DATUAK.



Iturria: EUSTAT. Directorio de las Administaciones Públicas.

ITURRIAK:

1. **EUSKO JAURLARITZA.** Aurrekontuen betearazpenari buruzko estatistika 2017ko IV. Hiruhilekoa. Hiruhilekoa. Abagunekoa.
2. **EUSKO JAURLARITZA.** Zerga itunduen ziozko bilketaren zenbakiak. 2017ko abendua. Hilekoa. Abagunekoa.
3. **OGASUN ETA FUNTZIO PUBLIKOKO MINISTERIOA.** AAEEen defizitaren zenbakiak. 2017ko hiruhilekoa. Abagunekoa.
4. **EUSKO JAURLARITZA.** Zergak Koordinatzeko Organoa. EAEko Ogasunaren Urteko Txossten Integratua 2015. Urtekoa. Estrukturala.
5. **EUSTAT**. Sektore Publikoaren Aurrekontuen estatistika. 2015. Urtekoa. Estrukturala.
6. **EUSKO JAURLARITZA**. Ogasun eta Ekonomia Saila. Kupoari eta Foru Aldundien gaineko datuak. 2017. Urtekoa. Abagunekoa.
7. **EUSTAT**. Administrazio Publikoen Direktorioa 2016. Urtekoa. Estrukturala.
8. **OGASUN ETA FUNTZIO PUBLIKOKO MINISTERIOA**. Administrazio publikoaren zerbitzuko pertsonalaren estatistika buletina. 2017ko urtarrila. Seihilekoa. Estrukturala.

5. PRODUKZIOAREN AZPIEGITURAK

Azpiegitura fisikoak oinarrizko elementua dira garapen ekonomikoa, ongizate orokorra eta edozein gizarteren kohesioa posible izan daitezen, eta herrialde baten ekonomia orokorraren jardunaren gainean eragin garrantzitsua dute. Zehazki, produktibitatea eta hazkundea areagotzen laguntzen dute.

Kapitulua bi bloke handitan dago banatuta. Lehenbizikoa garraioari buruzkoa eta bigarrena energiaren ekoizpenaren eta kontsumoaren gainekoa. Garraioaren atalari dagokionez, lehenik eta behin, Estatuko erakunde publikoek (AENA, ADIF, PORTUAK eta RENFE) ingeniaritza zibilean EAEn eginiko esleipenei buruzko datuak aztertuko dira eta, ondoren, errepideko garraioaren, trenbideko garraioaren (horren barnean euskal Y-a), airetiko garraioaren eta itsasoko garraioaren gaineko hainbat adierazle aurkeztuko dira. Energiaren ekoizpenari eta kontsumoari buruzko atalean, barne kontsumo gordina edo energiaren eta azken kontsumoaren eskariaren bilakaera aztertuko da, baita energia primarioaren ekoizpenarena, energia intentsitatearena eta energiaren fakturarena ere.

5.1. GARRAIOA: AZPIEGITURAK ETA TRAFIKOA

5.1.1. Azpiegiturak

Egoera estrategikoagatik nahiz industria jarduera handiagatik, EAE mota guztietako trafikoen maila handienetakoa ageri duen Europako zona bat da. Errepide sare trinkoa, trenbideak, bi itsas portu handi eta hiru aireportu dira barruko trafikoan nahiz kanpokoan ageri diren beharrak estaltzen saiatzen direnak, egunetik egunera osatuagoak eta kalitate handiagokoak diren zerbitzu batzuk eskainita. Ondoko taulan, gure Erkidegoko Garraio Sistemaren osaera ageri da, azpiegituraren titulartasuna eta operadorea kontuan izanik betiere.

II.5.1. TAULA. EAE-KO GARRAIO SISTEMAREN ERAKETA

SISTEMA	AZPIEGITURA	ORGANO TITULARRA	ERAKUNDEA/OPERADOREA
Bideria sistema	Errepideen Sare Nagusia	Foru aldundiak	Garraioaren zerbitzu publikoaren emakidaduna/hura ematen duena.
	Hiri sarea	Udalak	
	A-68 autobidea	Estatua	
Trenbide sistema	Europaz gaindiko sarea Penintsulako sarea	Estatua	ADIF32 (RENFE)
	Sare metrikoa	EAE	EUSKOTren ETS33
		Estatua	ADIF (FEVE**)
	Metroa/Tranbia	EAE	Metro Bilbao, EUSKOTren ETS
	Zubi esekia	Bilboko Portuko Agintaritza	Pribatua
Portuen sistema	Interes orokorreko portuak	Estatua	Portuko Agintaritza
	Portu autonomoak	EAE	EAE
Airetiko sistema	Interes orokorreko aireportuak	Estatua	AENA
Kable sistema	Igogailuak eta funikularrak	EAE	Pribatuak Publikoak
Garraio intermodaleko sistema	Garraio eta logistika zentroak	Partzuergoak/Erakunde publikoak, pribatuak, mistoak	Operadore logistikoak

Bide estuko trenbide sarea.
Iturria: Geuk egina.

[32] *ADIF, Trenbide Azpiegituren Administratzailea, Sustapen Ministerioaren menpeko enpresa-erakunde publikoa da. Trenbide azpiegituren administrazioa (trenbideak, geltokiak, salgaien terminalak, etab.), trenen zirkulazioaren kudeaketa, tren operadoreen ahalmenaren esleipena eta azpiegitura, geltokiak eta salgai terminalak erabiltzeagatiko kanonak hartzen ditu bere gain.*

Trenbide jardueren gero eta espezializazio handiagoa dela eta, Sustapen Ministerioari atxikitako bi enpresa-erakunde publikotan banatu da ADIF: ADIF eta ADIF Abiadura Handia. Bere nortasun juridikoarekin eta ondarearekin sortu da eta, besteak beste, abiadura handiko trenbide azpiegituren eraikuntzaren eta administrazioaren arloko eskumenak hartzen ditu bere gain.

[33] *ETS, Euskal Trenbide Sarea/Red Ferroviaria Vasca EAEren eskumeneko trenbide azpiegituren administrazioaz arduratzen den Eusko Jaurlaritzaren erakunde publikoa da. Haren xede nagusia Euskal Autonomia Erkidegoaren menpeko trenbide azpiegiturak eraikitzea, artatzea, kudeatzea eta administratzea da, trena garraio sistema modernoa, eraginkorra eta iraunkorra izan dadin.*

Estatuko Erakunde Publikoek (AENA, ADIF, PORTUAK eta RENFE) ingeniaritza zibilean EAEn eginiko esleipenei buruzko datuek erakusten dutenez, jaitsierak ageri dira 2016 eta 2017 bitartean, AENAren kasuan izan ezik.

Horrela, datuon arabera, ADIF Estatuko Sozietate Publikoak (trenbide-azpiegituren administratzailea) ingeniaritza zibilean EAEn[34] egindako inbertsioak jaitsi ziren, 73,4 milioi eurotik 16,6 milioi eurora; bestetik, RENFE erakundeak egindako inbertsioak 114,7 milioi eurotik 42,2 milioi eurora jaitsi ziren; AENA erakundearenak 1,9 milioi eurotik 1,2 milioira jaitsi ziren.

II.5.2. TAULA. SUSTAPEN MINISTERIOAREN, ERAKUNDE AUTONOMOEN ETA ESTATUKO ERAKUNDE PUBLIKOEN INGENIARITZAKO ESLEIPENAK ESTATUAN ETA EAE-N (*mila euro*)

	EAE						ESTATUA			EAE/Estatua (%)	
	2013	2014	2015	2016 bb	2017 bb	Ald. 2016-17	2015	2016 bb	2017 bb	2016 bb	2017 bb
Ministerioa, erakunde autonomoak eta Estatuko erakunde publikoak	18.569	81.062	300.302	189.105	51.894	-72,6	1.518.067	1.043.676	897.740	18,1	5,8
Estatuko erakunde publikoak	18.569	81.062	300.302	189.105	51.894	-72,6	1.142.322	973.834	688.862	19,4	7,5
AENA	1.111	1.437	8.339	4.363	20.680	374,0	136.469	300.834	313.136	1,5	6,6
ADIF	1.162	69.030	292.211	73.388	16.560	-77,4	885.456	398.983	171.379	18,4	9,7
PORTUAK	20.092	9.854	11.093	114.661	42.205	-63,2	256.911	272.290	374.351	42,1	11,3
RENFE ERAKUNDEA	73	4.986	3.100	1.907	1.206	-36,8	42.175	33.335	19.481	5,7	6,2

bb: behin-behinekoa
Iturria: Geuk egina Sustapen Ministerioaren datuak erabiliz

5.1.1.1. Errepide sarea

Sustapen Ministerioak 2017an argitaraturiko *2016ko Estatistika Urtekariaren* arabera, gure Erkidegoko errepide sarea Europako sarerik trinkoenetakoa da, azalerako dentsitaterik handienetakoa baitu (0,58 km errepide km^2-ko, Estatuaren ia bikoitza hain zuzen ere (0,33), baina dentsitate txikiagoa du biztanleko (1,91 Km errepide 1.000 biztanleko, Estatuko 3,5 km errepide 1.000 biztanleko dentsitatearen aldean) eta %14,9 edukiera handiko errepideak dira, %10,3 Estatuan. Edukiera handiko errepideen %40,9 bidesaria duten autobideak dira, %17,8 estatuan.

II.5.3. TAULA. ERREPIDE SAREA, MOTA ETA ALDIAREN ARABERA. (Km)

	2012	2013	2014	2015	2016
ESTATUA					
Errepideen km guztira	165.595	165.361	165.639	166.003	165.483
Edukiera handiko bideak guztira	16.335	16.582	16.705	17.021	17.108
Bidesaridun autobideak	3.025	3.026	3.020	3.040	3.039
Autobiak	11.676	11.955	12.029	12.296	12.405
Errei askoko errepideak (1)	1.634	1.602	1.656	1.686	1.665
EAE					
Errepideen km guztira	4.185	4.175	4.169	4.178	4.180
Edukiera handiko bideak guztira	602	600	602	617	624
Bidesaridun autobideak	248	248	243	255	255
Autobiak	284	285	231	234	241
Errei askoko errepideak (1)	70	68	127	128	128

(1) 2015etik hasita, galtzada bikoitzeko errepidearen definizioa aldatu eta errei askoko errepideak deitzen dira (Errepideei buruzko irailaren 29ko 37/2015 Legea). Edukiera handiko bideen barruan sartzen dira. Nazioarteko konparazioari begira, halakotzat hartzen dira bidesaridun autobideak, autobide libreak eta autobiak.
Iturria: Sustapeneko 2016ko Estatistika Urtekaria, 2017an argitaratua.

[34] *ADIFek egiten dituen EAEn Abiadura Handiko Linea osoko gainegiturako obrak (trenbide obra)*

II.5.4. TAULA. ERREPIDE SAREAREN INDIZEEN BILAKAERA							
	EAE					ESTATUA	
	2012	2013	2014	2015	2016	2015	2016
Errepide Km-ak	4.185	4.175	4.169	4.178	4.180	166.003	165.483
Biztanleak	2.193.093	2.191.682	2.188.985	2.189.257	2.189.534	46.624.382	46.557.008
Sare osoa (km) / azalera	0,58	0,58	0,58	0,58	0,58	0,33	0,33
Sare osoa (km) / 1.000 biztanle	1,91	1,90	1,90	1,91	1,91	3,56	3,55

Iturria: Sustapeneko 2016ko Estatistika Urtekaria, 2017an argitaratua

5.1.2. LUR, TRENBIDE, AIRE ETA ITSASOKO TRAFIKOA

5.1.2.1. Euskal Y-a

Sustapen Ministerioak eta Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura sailburuordeak akordioa itxi zuten 2017ko otsailean Abiadura Handiko Trenak euskal hiriburuetan izango dituen sarbideak garatzeko, baita geltoki berrien proiektuak ere. Honako hauek dira akordiook.

Eusko Jaurlaritzak, Euskal Trenbide Sarearen bitartez, lizitaziora atera ditu Donostiako abiadura handiko geltokia eraikitzeko proiektua idazteko lanak.

BILBO	AKORDIOAN, Abandoko lurpeko geltoki berria eta loturaren informazio azterlana idazteko lanak ezarri dira, trenbideak bi mailatan izango dituena.	Abandorekiko abiadura handiko lotura bide bikoitzeko tunel berriaren bidez egingo da Abusu eta Abandoren artean (2,1 kilometro luze), eta Basauri-Abusuko zatiaren amaieran hasita, Cantalojaseko tunela zeharkatuta joango da, geroko geltokiko instalazioekiko ahoraino hain zuzen ere. Lurpekoa da geltoki berria, bi mailatako biderekin. 2. mailan, abiadura handiko bideak eta nasak daude (8 bide) eta 1. mailan RENFEren aldiriko nasak (5 bide) eta antzinako FEVErenak (3 bide). Eraikin bakarrean bilduko dira bidaiariei laguntzeko zerbitzu guztiak, intermodalitatea sustatuz eta aldiriko, FEVEko eta abiadura handiko zerbitzuak txertatuz. Proposaturiko geltoki berria bi fasetan jarriko da zerbitzuan. Proiektu horren bidez, hiriko garapen berria ahalbidetuko da 90,294 m2-ko lur-zati batean, tren zerbitzuak uztartuz eta bizitegiko eta ekipamenduko erabilerako hiri-bilbe berria sortuz hiriaren erdian.
GASTEIZ	AKORDIOAN, Arrazua/Ubarrundia arteko sarbideen informazio-azterlana idazteko lanak, lurpean sartzea eta hiriguneko geltoki berria ezarri dira. Akordioaren bidez bermatu egiten da trenbidea lurpetik joatea hiriburuko erdialdeko geltokiko eremuan.	Gasteizerako adostu denez, abiadura handiko sarearen lotura, hain zuzen Arrazua/Ubarrundiaren eta geltoki berriaren artean, Arkautetik egingo da, eta ez Lakuatik, orain arte proposatu izan den moduan. Hala, proiektuak jendaurrean erakusteko legez ezarritako betebeharrari jarraituz, hiru aukera planteatzen dira, eta informazio-azterlanak ezarriko du loturako azken aukera. Horrez gain, zehaztu egingo du ingurumen-eragin txikiena duena eta teknikariaren eta ekonomiaren aldetik komenigarria dena. Lehenengo proposamena, Arkauteko mendebaldean (7,2 Km), lurpetik doa eta ia 2 kilometroko tunela dakar. Bigarrena bat dator aurrekoarekin (Arkauteko mendebaldea), lur gainean planteatzen da zubi-bideak erabiliz. Hirugarren aukera Arkauteko ekialderako izango litzateke, lur gainean eta zubi-bideak erabiliz (8,7 km), Salburuako hezegunean izango lukeen eragina erabat saihestuta. Loturako proposamena guztiak elkartu egingo dira hiriaren erdiguneko geltokiaren ingurutik doan lurpeko zati berri batean. 2,9 km luze da (Salburuako Boulevard eta Gaztelako Atariaren artean), eta lurpeko geltoki berria dakar Dato kalearen parean. Trenbideen Sektoreari buruzko Legea dela-eta, nahitaezkoa da informazio azterlana egitea bide berria izapidetzeko, eta azterlan hori garatzeko, bi aukerak aztertu dira, lehen aukerak eraikuntzaren aldetik dituen abantailak nahiz bigarrenaren abantaila funtzionalak uztartuko dituen zatia lortze aldera, betiere alderdi garrantzitsuak ahaztu gabe hala nola lurrak askatzea hiriko aprobetxamenduetarako edo Datoko egungo geltokiak abiadura handirako sarbideko ataria izaten jarraitzeko, Green Capital Plazako sarbide berriarekin batera, Iradierreko aparkalekuarekin bat egiteko posibilitatea izanik.

		Geltoki berriaren ezaugarri nagusiak erdigunean egotea eta garraio publikoko erabiltzaileentzat eta oinezkoentzat eskuragarri egotea izango lirateke.
DONOSTIA	AKORODIOAN, Atotxako geltoki berria eraikitzeko proiektua bildu da, zeinaren egungo arkitektura Tabakaleraren inguruarekin uztartuko baita.	Bere definizioa eta konplexutasun txikiagoa direla-eta, hiriburuetan eraikiko diren euskal Y-aren hiru terminaletatik lehena izango da Donostiakoa. Gobernu autonomoaren esku egongo da eraikuntza, zeren eta Sustapen Ministerioak Gipuzkoako zatia egiteko agindutakoa handitu egin baita berriki. 1.285.125 euro da eraikuntza-proiektua idazteko zenbatetsitako aurrekontua. Eraikuntza-azterlanak obraren xehetasunak zehazki eman artean, geltoki berriaren oinarria eraikin berria eta bakarra egitea izango da, Atotxako aldirietako egungo terminalean kokatua. Ukitu gabe eutsiko zaio geltokiaren egungo fatxadari, eta proiektuan jasotako higiezin berriaren barruan txertatuko da. Eraikin berria kaleko mailan proposatzen da, bi solairukoa, eta bistan utziko da Tabakalerako fatxada. Horrela, geltokiko gainaldeak plaza handiaren eginkizuna beteko du (terraza); bideen gainean gelduko da eta egungo kultur zentroarekin uztartuko da. Geltokiak atari nagusia izango du, aldiriko eta ibilbide ertaineko eta luzeko erabiltzaile guztiek partekatua, gutxi gorabehera 540 m2-koa. “0 solairu” horretan, txartelak saltzeko eta bezeroei laguntzeko gune bat kokatuko da, 130 m2 ingurukoa, baita komunak, kafetegia eta jatetxea ere. Beheko 3 igarobide dakartza proiektuak: horietako batek gaur egun Donostiako erdialdea eta Egia auzunea lotzen ditu, eta beheko beste igarobide berri bi, distantzia ertain-luzeko eta aldirietako nasetan sartzeko. Ustiapenari begira, distantzia ertaineko (Intercity) eta distantzia luzeko (UIC zabalera) trafikoetan erdiko 3 nasa jarriko dira. Nasa horietan sartzeko, bi mailak lotzeko beheko igarobide bat ezarriko da. Eskailerak eta igogailuak jarriko dira bertara joateko, atari nagusitik, baita trena hartzeko zonalde bat ere, 460 m2 ingurukoa. Bestalde, aldiriko trafikoek alboko bi bideak (1 eta 6) hartuko ditu, zabalera mistoarekin (hirugarren erreia) planteatzen direnak. Bide horiek salgaien trafikoekin partekatuko dira. Kasu honetan, zuzenean izango da nasarako sarbidea, atari nagusitik egingo baita. Igarobide berriak egungo igarobidetik iparralderantz izango da. Proiektu berriari esker, autobusen terminal berrian eta aparkalekuen egungo bi solairuetan (400 autorentzako tokia du) sartzeko bidea izango da. Hala, intermodalitatea hobetu eta kokaleku horretan elkartzen diren garraio publikoko modu desberdinetako bidaiarien joan-etorriak gutxitzeko era dago.

2017ko maiatzean argitaraturiko azken informazioak erakusten duenez, Eusko Jaurlaritzak bere gain hartuko du euskal Y-aren Bergara-Lezo arteko jarduketa berrien burutzapena. Euskadiko Administrazio Orokorrari aginduko zaizkio ataza berriak, Estatuko Administrazio Orokorrak, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak eta Tren Azpiegituren Administratzaileak (ADIF) 2006ko apirilaren 24an izenpeturiko Lankidetza-hitzarmena aldatuta, hain zuzen ere Euskal Herriko Trenbide Sare Berria eraikitzeko jarduketak agintzeko.

Bi gertaera garrantzitsu berritan izango du isla sinaturiko akordioak. Hala, 2006ko apirilaren 24an Lankidetza-hitzarmenean jasota ez zeuden jarduketa berriak sartu dira.

a) Ezkioko geltokia eraikitzea. Aurreikusitako hasierako kostua 4,10 M€ da (BEZa barne).
b) Astigarragako geralekua eraikitzea ADIFek kudeaturiko zabalera iberiarreko sarean. Aurreikusitako hasierako kostua 4,70 M€ da (BEZa barne).
c) Jarduketa berriak egitea Bergara-Lezoko tartean:
    - Tuneleko larrialdi irteerak, Batzordearen 2014ko azaroaren 18ko 1303/2014 Europar Batasunaren Erregelamenduarekin bat etorriz. Aurreikusitako hasierako kostua 14,18 M€ da (BEZa barne).
    - Jarduketa osagarriak: Iturburuetan izandako eraginak lehengoratzea eta magalak egonkortzea. Aurreikusitako hasierako kostua 1,72 M€ da (BEZ barne).

Hitzarmen berriak Bergaratik Irunerako tartea egiteko kostuen inguruan onetsitako eta aurreikusitako gorabehera guztiak dakartza, non Astigarraga-Oiartzun-Lezoko tartean sartuta dagoen, Donostia hiriko elkargunea izango den tartean hain zuzen. Bertan txertatuko da Donostiako geltokia Iparraldeko egungo geltokian. Aipaturiko jarduketak gehitu zaizkio hitzarmen berriari:

a) Astigarraga-Oiartzun-Lezo tartea egitea. Aurreikusitako hasierako kostua 356,60 M€ da (BEZa barne)
b) Donostiako geltokia eraikitzea egungo Iparraldeko geltokian. Aurreikusitako hasierako kostua 90 M€ da (BEZa barne).

Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura sailburuaren esanetan, Sustapen Ministerioarekin adosturikoaren arabera doa aurrera Bergarako lotunea. Hala, aurrera jarraitzen dute Euskal Trenbide Sare Berria egiteko obrek, 2023. urtean martxan jarri ahal izateko.



Azkenik, Bergarako Lotunea deritzonaren ingurukoa da eginiko jarduketa nagusiena, bi tarteak elkartuko dituen ardatza. Lotuneko hiru adarretako baten proiektuaren lizitazioa egin zen, Arrasate-Elorrio-Bergarakoa, 5,1 kilometro luzekoa, bide bakarreko bi adarrekin (Arrasate-Bergara Mendebaldea eta Arrasate-Bergara Ekialdea), gehi bide bikoitzeko beste bat (Elorrio-Bergara). Horren barruan sartzen dira hiru tunel egiteko lanak, tunel artifizial bat eta zubi-bide bat, 192,3 milioi euroko aurrekontuarekin.

5.1.2.2. Errepideko garraioa

Sustapen Ministerioaren arabera, jomuga edo jatorria EAEn duten errepideko salgaien trafikoa (nazioarteko igarotze-trafikoa alde batera utzita), berriz ere hazi egin zen 2017an (91,7 milioi Tm-tik 97,2 milioi Tm-ra).

Hazkunde hori gertatu da nazioarteko eta eskualde barruko desplazamenduetan garraiaturiko salgaietan izandako igoeragatik (%3,3 eta %9,7 hurrenez hurren), zeren eta eskualde arteko desplazamenduan behera egin baitu trafikoak (-%1,3).

Eskualde arteko trafikoari dagokionez, truke kopururik handiena alboko Gaztela eta Leon, Nafarroa eta Kantabria erkidegoetan egiten da.

II.5.5. TAULA. ERREPIDEKO MERKANTZIEN JOMUGA ETA JATORRIA EUSKAL AUTONOMIEN ARABERA. (milaka tona)

	2015		2016	
	Jomuga EAE	Jatorria EAE	Jomuga EAE	Jatorria EAE
ANDALUZIA	486	409	730	685
ARAGOI	1.542	1.516	1.774	1.708
ASTURIAS	807	562	882	546
BALEAREAK	-	-	-	-
U. KANARIARRAK	-	-	-	-
KANTABRIA	4.229	2.038	3.844	2.554
GAZTELA-MANTXA	814	768	693	450
GAZTELA ETA LEON	4.964	4.138	4.702	4.450
KATALUNIA	1.749	1.738	1.483	1.648
VALENTZIAKO E.	701	888	606	1.219
EXTREMADURA	34	84	122	66
GALIZIA	1.397	1.206	1.206	1.094
MADRIL	1.248	1.429	1.309	1.382
MURTZIA	192	236	174	229
NAFARROA	4.423	3.899	3.659	3.617
ERRIOXA	1.089	1.777	1.022	853
CEUTA-MELILLA	-	-	-	-
EAE	**41.109**	**41.109**	**42.644**	**42.464**

Iturria: Sustapeneko Estatistika Urtekaria, 2016. 2017an argitaratua

II.5.6. TAULA. GARRAIATURIKO TONAK, BIDAIA MOTAREN ARABERA, JOMUGA EDO JATORRIA EUSKADIN IZANIK (milaka Tm)

		2011	2012	2013	2014	2015	2016	2017	Aldak. 2016-17
GUZTIRA		**101.826**	**88.505**	**84.376**	**94.875**	**91.024**	**91.691**	**97.157**	**6,0**
ESKUALDE BARRUAN	**GUZTIRA**	**51.928**	**42.076**	**40.922**	**50.203**	**41.109**	**42.464**	**43.859**	**3,3**
	UDAL BARRUAN	11.427	8.669	8.395	9.033	8.528	7.229	7.830	8,3
	UDAL ARTEAN	40.501	33.406	32.527	41.170	32.581	35.235	36.029	2,3
ESKUALDE ARTEAN	**GUZTIRA**	**45.103**	**41.606**	**38.799**	**39.321**	**44.396**	**42.751**	**46.908**	**9,7**
	JASOA	22.039	22.301	19.818	20.204	23.674	22.219	24.119	**8,6**
	IGORRIA	23.064	19.305	18.981	19.117	20.722	20.532	22.789	**11,0**
NAZIOARTEAN	**GUZTIRA**	**4.796**	**4.823**	**4.655**	**5.352**	**5.519**	**6.477**	**6.390**	**-1,3**
	JASOA	2.494	2.308	2.092	2.729	2.755	3.405	3.157	**-7,3**
	IGORRIA	2.301	2.514	2.563	2.622	2.764	3.071	3.233	**5,3**

Iturria: Sustapen Ministerioa. Datu-basea

5.1.2.3. Trenbideko garraioa

Sustapen Ministerioak 2017an argitaraturiko *2016ko Estatistika Urtekariaren* arabera, bide elektrifikatuko 539,42 kilometrok osatzen zuten EAEko trenbide sarea, eta horietatik %66,9 ADIFi dagozkio, berak kudeatzen baitu penintsularako distantzia ertaineko eta luzeko zerbitzuekin loturiko azpiegitura, baita Bizkaiko eta Gipuzkoako aldiriko zerbitzuak eta FEVEren bide estuko trenenak ere (Bilbo-Santander, Bilbo-Leon lineak eta Bilbo Handiko eskualde barruko loturakoak). Bestalde, %33,1 Eusko Trenena da (Bilbo-Donostia-Hendaia linea barne).

II.5.7. TAULA. TRENBIDE KM EAE-N								
	2015				2016			
	Elektrifikatu barik	Elektrifikatua	Bide bakarra	Bide bikoitza	Elektrifikatu barik	Elektrifikatua	Bide bakarra	Bide bikoitza
GUZTIRA	**19,29**	**617,10**	**272,77**	**363,57**	**20,45**	**539,42**	**272,19**	**287,67**
ADIF	14,40	360,90	144,95	230,31	14,38	360,88	144,95	230,31
EUSKOTREN ETS	4,89	256,20	127,82	133,27	6,07	178,53	127,24	53,36

Iturria: Sustapeneko 2016ko Estatistika Urtekaria, 2017an argitaratua

5.1.2.4. Airetiko garraioa

Abiazio zibilaren datuen arabera[35], EAEko hiru aireportuetatik, 2017. urtean, guztira 5,3 milioi bidaiari igaro ziren (%93,1 Bilboko aireportuan), hots, %9,2ko igoera 2016ko datuen aldean. Salgaien trafikoari dagokionez, %15,4 egin zuen gora aldi berean, eta guztira 65,5 Tm bildu ditu (%92,4 Gasteizko aireportuan erregistratu da).

Bilboko aireportutik, guztira, ia 5 milioi bidaiari igaro ziren 2017an, hots, %78,4ko igoera 2016. urtearen aldean. Salgaien trafikoan, berriz, %34,3 egin zuen behera salgaien bolumenak aldi berean.

Forondako aireportuak %16ko gorakada izan zuen 2016 eta 2017 bitartean, salgaien garraioari dagokionez, guztira garraiaturiko 60.484,2 Tm. Hala, Gasteizko aireportuak laugarren tokia du aireportuen rankingean garraiaturiko salgaien bolumenaren aldetik, honako hauen atzetik AS Madril-Barajas, Bartzelona-El Prat eta Zaragoza. Bestalde, bidaiarien kopuruak %129,4 egin zuen gora, 84.261 pertsona izatera.

Donostiako aireportuan, 2016 eta 2017 bitartean, bidaiarien kopuruak %6,6 egin zuen gora (281.859 bidaiari 2016an) eta salgaiena, berriz, %30,4 egin zuen behera (4,6 Tm-tik 3,2 Tm-ra).

II.5.8. TAULA. AIRETIKO GARRAIO ZIBILAREN BILAKAERA KONTZEPTU ETA AIREPORTUAREN ARABERA												
	EAE GUZTIRA			Gasteiz			Bilbo			Donostia		
	Aire-ontziak	Bidaiariak (mila)	Salgaiak (Tm.)	Aire-ontziak	Bidaiariak (mila)	Salgaiak (Tm.)	Aire-ontziak	Bidaiariak(mila)	Salgaiak (Tm.)	Aire-ontziak	Bidaiariak (mila)	Salgaiak (Tm.)
2014	54.536	4.268	46.207	5.890	7,1	42.160,70	42.590	4.015,30	2.855,60	6.056	245,4	30,7
2015	57.507	4.544	50.652	6.840	11,2	46.371,30	43.862	4.277,40	2.871,70	6.805	255,1	3,2
2016	58.747	4.889	56.728	6.692	36,7	52.134,70	45.105	4.588,30	2.974,30	6.950	264,4	4,6
2017 p	60.464	5.340	65.461	8.434	84,2	60.484,20	45.105	4.973,70	1.956,40	6.925	281,9	3,2
2015-16 aldak.	2,2	7,6	12,0	-2,2	227,7	12,4	2,8	7,3	3,6	2,1	3,6	43,8
2016-17 aldak.	2,9	9,2	15,4	26,0	129,4	16,0	0,0	8,4	-34,2	-0,4	6,6	-30,4

bb: Behin-behinekoa
Iturria: Sustapen Ministerioa. Abiazio zibila

5.1.2.5. Portuko trafikoa

Sustapen Ministerioaren arabera, itsas garraioa (salgaiak, hornidura eta arrantza) 2016 eta 2017 bitartean %7 hazi zen Bilboko Portuan, eta guztira 34,3 milioi Tm izan ziren. Horietatik 24,3 milioi ontziratu gabe ziren, eta azken horietatik %81,3 (19,8 milioi Tm) likidoak. Bestela esanda, garraiaturiko salgaien %57,7 ontziratu gabeko likidoak dira, gehienbat petrolioaren produktuak. Bestalde, 40m ontzi gehiago daude, 2.815etik 2.855era; eta bidaiarien kopuruak behera egin du (-%2,1), guztira 186.546 lagun erregistratuta.

[35] *2015ean, metodologia aldaketa garrantzitsua izan zen Abiazio Zibilak eskaintzen dituen datuetan (AENAk emanak), zeren eta zenbatetsi egin baitzen bestelako trafiko moten bidez (BTM) egiten den garraioa. Izan ere, ordura arte garraio erregularraren eta ez erregularraren bidezkoa baizik ez zen zenbatesten. Jakin egin behar dugu salgaien garraioaren zatirik handiena BTMren bitartez egiten dela.*

Pasaiako portuak askoz kopuru txikiagoak biltzen ditu, eta horietan ere jaitsiera izan da salgaien trafikoaren aldetik (-%14), guztira 3 milioi Tm. Jaitsiera hori gertatu da solido solteen trafikoan izandako beherakadagatik (-%24,1) nahiz salgai orokorren (-%9,2) eta arrantzakoaren (-%9,8) jaitsieragatik ere. Bestalde, ontzien kopurua txikitu egin da (129 gutxiago) eta 994 daude. Bidaiarien kopurua, aldiz, 758tik 913ra igo da.

II.5.9. TAULA. ONTZIAK, BIDAIARIAK ETA ITSASOKO GARRAIOAK MUGITUTAKO SALGAIAK, MOTAREN ARABERA SAILKATUTA

		2011	2012	2013	2014	2015	2016p	2017p	%	2016-17 aldak. %
Bilbo	**Portuko trafikoa, guztira (mila Tm.)**	**31.998**	**29.507**	**30.073**	**31.009**	**32.875**	**32.067**	**34.308**	**100,0**	**7,0**
	Likido solteak	17.855	15.061	15.761	16.351	18.200	18.087	19.784	57,7	9,4
	Solido solteak	4.006	4.262	4.422	4.588	4.258	4.362	4.543	13,2	4,1
	Salgaiak orokorrean	9.863	9.631	9.419	9.883	9.672	9.500	9.870	28,8	3,9
	Bestelako trafikoa	274	553	470	187	475	119	112	0,3	-5,9
	Ontziak, guztira (kopurua)	2.992	2.808	2.789	2.862	2.816	2.815	2.855		1,4
	Bidaiariak, guztira (kopurua)	151.421	142.754	141.979	161.242	165.522	190.626	186.546		-2,1
Pasaia	**Portuko trafikoa, guztira (mila Tm.)**	**3.252**	**3.094**	**2.955**	**3.503**	**3.794**	**3.458**	**2.974**	**100,0**	**-14,0**
	Likido solteak	0	0	0	0	0	0	0	0,0	
	Solido solteak	1.247	1.420	1.212	1.509	1.694	1.099	834	28,0	-24,1
	Salgaiak orokorrean	1.949	1.622	1.694	1.943	2.044	2.295	2.085	70,1	-9,2
	Bestelako trafikoa	56	52	50	51	55	61	55	1,8	-9,8
	Ontziak, guztira (kopurua)	963	895	879	921	991	994	865		-13,0
	Bidaiariak, guztira (kopurua)	0	0	0	0	0	758	813		7,3

** Behin-behinekoa*
Iturria: Sustapen Ministerioa. Portuak

5.2. ENERGIA: EKOIZPENA ETA KONTSUMOA

Inportatutako energiaren eraldaketa EAEren jarduera ekonomikoaren barruan pisu adierazgarria duen industria da, petrolioa fintzeko eta energia elektrikoa sortzeko sektoreekin batera. Aldi berean, azken urteetan gas eta elektrizitateko azpiegitura berriek izandako sarrerak energiaren euskal eskaintzaren kalitatea indartzeko joera du.

Energia balantzeetan ezberdindu egiten da barne kontsumo osoaren edo energia eskariaren eta amaierako kontsumoa. Energia eskaria edo barne kontsumo osoa, funtsean, lurraldean bertan sortutako lehen mailako energia gehi inportazioen, esportazioen eta galeren (garraioagatik, biltegiratzeagatik, banaketagatik) arteko orekaren berdina da. Amaierako kontsumoa amaierako kontsumitzaileen sektoreetako kontsumoen batura da, hau da, industriaren, garraioaren, lehen sektorearen, zerbitzuen eta egoitzen kontsumoaren batura.

II.5.1. GRAFIKOA ENERGIAREN BARNE-KONTSUMO GORDINA ETA AMAIERAKO KONTSUMOA



Iturria: EVE

Energiaren Euskal Erakundeak (EEE) argitaraturiko *Euskadi Energia, 2016. Energiari buruzko datuak* txostenak erakusten duenez, amaierako kontsumoa %0,8 jaitsi zen 2016an, hau da, amaierako kontsumitzaileen sektoreetako kontsumoen batura da, hau da, industriaren, garraioaren, lehen sektorearen, zerbitzuen eta egoitzen kontsumoaren batura, 6.253 Ktep-ekoa da.

II.5.10. TAULA. EAE-REN ENERGIARI BURUZKO BALANTZEA (Ktep)

	2016							2015-16 aldak.						
	Erregai solidoak	Petrolio a eta deribat.	Gas natural a	Ener-gia deribat.	Energia berriztagarriak	Energia Elektrikoa	Guzt.	Erregai solidoak	Petrolio a eta deribat.	Gas natural a	Energia deribatuak	Energia berriz	Energia Elektrik.	Guzt.
Oinarrizko energiaren ekoizpena	0	0	0	28	415	0	443				0,0	3,0		2,8
Barne kontsumo gordin baliagarria (eskaria)	31	2.842	2.021	28	468	862	6.253	-29,5	3,5	-5,4	0,0	3,1	-3,4	-0,8
Transformazio sarrerak	0	9.289	682	11	115	0	10.097		3,3	-10,6	0,0	-8,0		2,1
Transformazio irteerak	0	9.132	0	1	0	428	9.560		3,2		0,0		-7,2	2,7
Energiaren amaierako kontsumoa	31	2.214	1.233	18	293	1220	5.008	-29,5	3,8	-4,4	0,0	12,7	-5,4	-0,5
Industria	31	163	914	17	157	677	1.960	-29,5	5,8	0,0	0,0	6,8	-8,5	-2,8
Garraioa	0	1.927	0	0	71	15	2.013		4,7			2,9	0,0	4,6
Nekazaritza eta arrantza	0	62	1	1	1	4	70		0,0	0,0	0,0	0,0	-20,0	0,0
Zerbitzua	0	15	102	0	19	296	432		-25,0	-19,7		375,0	0,3	-3,1
Bizitegiak	0	47	215	0	45	227	534		-14,5	-13,3		12,5	-3,0	-7,5

Iturria: EEE

Bestalde, energiaren amaierako kontsumoak %0,5 egin zuen behera. Amaierako kontsumorik handieneko sektoreak garraioa (guztizkoaren %40,2) eta industria (%39,1) izan ziren. Garraioaren kontsumoa %4,6 hazi zen eta, bizitegiena, zerbitzuena eta industriarena, berriz, %7,5 jaitsi ziren, %3,1 eta %2,8 hurrenez hurren. Lehen sektorearen kontsumoak, aldiz, egonkor eutsi zion.

Halaber, 2015 eta 2016 bitartean, oinarrizko energiaren ekoizpena %2,8 hazi zen, hain zuzen ere 431 Ktep-etik 443 Ktep-era; eta ekoizpen horren oinarria, nagusiki, energia berriztagarriak (iturri propio nagusia), hain zuzen ere %3 hazita (403 Ktep-etik 415 Ktep-era).

II.5.2. GRAFIKOA. OINARRIZKO ENERGIAREN EKOIZPENA (KTEP)



Iturria: EEE

Oinarrizko energiaren ekoizpen propio horri esker (443 Ktep), EAEren energia-eskariaren (6.253 Ktep) %7,1 baino ezin izan zen bete (barneko kontsumo gordina). Horren ondorioz, EAEren kanpoko energiarekiko mendekotasuna %92,9an kokatzen zen, Estatukoa (%73,3) eta 28ko EBkoa (%54) baino handiagoa (datu biak 2015ekoak dira); izan ere, EBko herrialde guztietakoa baino kopuru handiagoa da hori, Luxenburgokoa izan ezik. Mendekotasun mailarik txikiena duten herrialdeak petrolioa eta gas naturala (Erresuma Batua eta Danimarka), energia berriztagarriak (Herrialde Eskandinaviarrak) eta energia nuklearra (Frantzia eta Suedia) ekoizten dituztenak dira.

Iturri berriztagarrietan oinarrituriko ekoizpenari esker (415 Ktep), barne-kontsumo gordinaren %7 (62.53 Ktep) baino ezin izan zen bete, hots, energia berriztagarriek barne-kontsumo gordinean duten parte-hartzea Estatukoa eta 28ko EBkoa baino askoz txikiagoa da (%14 eta %13 2015ean) eta gure Erkidegoak Euskadi 2020 Energia Estrategian (3E020)[36] ezarritako %14ko helburutik urrun.

II.5.11 TAULA. ENERGIA BERRIZTAGARRIEK ENERGIAREN AMAIERAKO KONTSUMOAN DUTEN PARTE-HARTZEAREN RATIOA

	2011	2013	2014	2015	2016
EAE	**7**	**7**	**7**	**7**	**7**
28KO EB	10	12	13	13	-
ESTATUA	11	15	15	14	-

Iturria: EEE

Izan ere, energia motaren arabera aztertzen badugu amaierako kontsumoa (oso interesgarria da ingurumenaren aldetik, zeren eta energia mota bakoitzak eragin desberdinak baitakartza), hauxe ikusiko dugu: petrolioaren eta horren deribatuen kontsumoa orain ere nagusia da kontsumo horretan, %44,2, eta gainera, igoera izan zen Ktep-etan aurreko urtearen aldean, %3,8koa hain zuzen. Ondoren, gas naturala (amaierako kontsumoaren %24,6) eta argindarra (%24,4) dira. Horietako bakoitzean jaitsierak izan dira Ktep kopuruetan (lehenbizikoan -%4,4 eta argindarrean -%5,4). Oso urruti energia berriztagarriak, erregai solidoak (ikatza eta deribatuak) eta energia deribatuak daude (horien barruan, gehienbat, industri prozesuetatik edo energia eraldatzeko prozesuetatik (baterako sorkuntza, adibidez) berreskuraturiko beroa sartzen da).

II.5.3. GRAFIKOA. ENERGIA-INTENTSITATEAREN BILAKAERA



Iturrai: EEE

Energiaren intentsitateari dagokionez (ekonomiaren energia-eraginkortasunaren adierazlea, honela neurtzen dena: amaierako kontsumoa –Ktep- zati BPGd-a) ikusten dugunez, 2016an 13 txikiagoa izan zen 2008koa baino (Ikusi II.5.4. grafikoa). 2015aren aldean, %3ko hobekuntza izan zen BPGd-aren %3ko hazkundean, eta energiaren amaierako kontsumoan antzeko datua dugu. Hala, ratioa 90etik 87ra igaro da.

II.5.4. GRAFIKOA. ENERGIA-INTENTSITATEAREN BILAKAERA JARDUERA-SEKTOREKA



Iturria: EEE

Sektoreka, EEEren datuen arabera, industriako energia-intentsitatea eta zerbitzuena hobetu egin dira (gutxituta) 2015 eta 2016 bitartean, 6 eta 5,3 puntu hurrenez hurren; garraioenak, aldiz, 3 puntu egin zuen okerrera (handitu egin zen).

Energiaren fakturari dagokionez, kontsumoa murriztu eta prezioak apaldu egin dira hainbat urtetan igoera handiak izan ondoren. Horren ondorioz, energiaren kostua murriztu egin zen amaierako kontsumitzailearentzat laugarren urtez jarraian, %9,7 2016an, guztira 4.978 milioi euro, eta 2009tik lehen aldiz jaitsi da 5.000etik behera.

[36] *Gogoratu Europako 2020 Estrategian EBrako helburua %20koa dela.*

Kostu horretatik, %48 garraioaren sektoreari dagokio, %22 industriari, %16 bizitegien sektoreari, %13 zerbitzuen sektoreari eta %1 lehen sektoreari.

Petrolioaren deribatuak garraioaren fakturaren %94,7 dira. Industrian, argindarra fakturaren %62,3 da eta gas naturala, berriz, %35,3.

Bizitegien sektorearen faktura %12 jaitsi zen 2016an. Etxeko fakturaren jaitsiera %12,6 izan zen, eta biztanleko fakturan, berriz, %12,3. Hala, guztira 906 euro da etxeko eta 369 euro biztanleko.

II.5.5. GRAFIKOA. ENERGIAREN FAKTURAREN BILAKAERA



Iturria: EEE

II.5.12. TAULA. BIZITEGIEN SEKTOREKO ENERGIAREN FAKTURAREN ADIERAZLEAK

	2009	2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016
Kontsumoa biztanleko (€ biztanleko)	347	362	392	441	433	408	421	369
Kontsumoa etxeko (€ etxeko)	895	932	1.008	1.133	1.081	1.011	1.037	906

Iturria: EEE

ITURRIAK:

1. **SUSTAPEN MINISTERIOA**. Datu-basea. 2017ko datuak. Urterokoa. Estrukturala
2. **SUSTAPEN MINISTERIOA**. 2017ko estatistika urtekaria. 2017an argitaratua. Urterokoa. Estrukturala
3. **EUSKO TRENBIDE SAREA**. Web orria
4. **ENERGIAREN EUSKAL ERAKUNDEA (EEE). Txostena**: *Euskadi Energia 2015. Energiari buruzko datuak*. 2016an argitaratua. Urterokoa. Koiunturala

6. ZIENTZIA, TEKNOLOGIA ETA BERRIKUNTZA

Gizarte berritzailea lagungarria izan daiteke enpresentzat balio erantsi handiagoko produktuak garatzeko, haien lehia-abantailari eusteko, jarduera ekonomikoa bultzatzeko eta, horren bidez, lanpostuak mantendu edota sortzeko. Aldi berean, ikerkuntza eta berrikuntza lagungarriak izan daitezke gizartearen erronka nagusietako zenbaiti irtenbidea aurkitzeko hala nola biztanleria zahartzeari, segurtasun energetikoari, klima-aldaketari, hondamendien arriskua kudeatzeari, edo gizarteratzeari.

Hainbat faktoreren araberakoa da ikerkuntza, ezagutza eta berrikuntzarako ahalmena (hala nola hezkuntza eta prestakuntzako erakundeak, enpresa-kultura, gaitasunak, trebetasunak eta sormena, berrikuntza bultzatzeko zerbitzuak, teknologiaren transferentziarako mekanismoak, azpiegiturak, ikerlarien mugikortasuna eta finantzabideak). Hezkuntza, prestakuntza eta etengabeko ikaskuntza funtsezkoak dira berrikuntzarako gaitasuna garatzeko, enpresa-sarean eta transferentzian eta ikerkuntzaren emaitzak merkaturatzeko prozesuan gero eta parte hartze handiagoa duten ikerkuntza eta garapen teknologikoko zentroekin eta unibertsitateekin.

Kapitulu hau bi bloke handitan dago banatuta; alde batetik, I+G+b jarduerak aztertzen dira eta bestetik Informazioaren eta Komunikazioen Teknologiak (IKT). I+G+b jardueren blokearen barruan, Euskal Sistemako adierazle nagusiak aztertzen dira, enpresa-sareko I+G jarduerak, Universidad del País Vasco – Euskal Herriko Unibertsitatearenak eta berrikuntza jarduerak, baita Europako Berrikuntzako Adierazleen Paneleko zenbait adierazle ere, IUS. Eta azkenik, Eusko Jaurlaritzaren "Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Plana 2014-2020" (ZTBP) delakoaren jarraipena egiten da, EJk igorritako aginte-taula oinarri hartuta.

Bestalde, Informazioaren eta Komunikazioen Teknologien blokearen barruan, EAEko IKT ekipamenduak eta erabilerak aztertzen dira, biztanleenak nahiz enpresenak, merkataritza elektronikoa (biztanleen eta enpresenak) eta administrazio elektronikoa.

6.1. I+G+B JARDUERAK

6.1.1. I+G+B-KO EUSKAL SISTEMAREN ADIERAZLE NAGUSIAK

I+G-ko gastua. "*EUSTATen ikerketa zientifikoko eta garapen teknologikoko jarduerei buruzko estatistika*"ren arabera, 2016an 1.290,9 M€ euro inbertitu ziren EAEn, hots, azken urtean baino %1,4 gehiago, eta hiru urtez kopuru negatiboak izan ondoren bilakaera positiboa itzuli da. Lurralde historikoen arabera, Arabak guztizkoaren %11,8 egiten du, Bizkaiak %41,6 eta Gipuzkoak %46,6.

II.6.1. TAULA. I+G-AN EGINIKO AHALEGINAREN BILAKAERA ETA EUROPAKO HELBURUAK HERRIALDEKA. ERREFERENTZIAKO HERRIALDEAK, EUROGUNEA ETA EAE

	2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2020 helburua
EAE	**2,04**	**2,04**	**2,09**	**2,03**	**1,94**	**1,86**	**1,82**	**:**
Espainia	1,35	1,33	1,29	1,27	1,24	1,22	1,19	2
Eurogunea	1,99	2,04	2,1	2,1	2,13	2,13	2,12	UE = 3
Suedia	3,22	3,25	3,28	3,31	3,15	3,27	3,25	4
Austria	2,73	2,67	2,91	2,95	3,07	3,05	3,09	3,76
Danimarka	2,92	2,94	2,98	2,97	2,91	2,96	2,87	3
Finlandia	3,73	3,64	3,42	3,29	3,17	2,9	2,75	4
Alemania	2,71	2,8	2,87	2,82	2,87	2,92	2,94	3
Belgika	2,05	2,16	2,27	2,33	2,39	2,47	2,49	3
Frantzia	2,18	2,19	2,23	2,24	2,23	2,22	:	3
Eslovenia	2,06	2,42	2,57	2,58	2,37	2,2	2	3
Islandia	:	2,48	:	1,76	2	2,17	2,08	:

Iturria: EUSTAT ETA EUROSTAT

I+G-ko gastua BPGd-arekiko (ahalegina). EUSTATen arabera, %1,82an kokatu zen 2016an, hots, beste jaitsiera bat (4 ehunen 2015aren aldean), eta jaitsierak metatu ditu lau urtez jarraian. Portzentaje hori eurogunean ikusitakoa (%2,12) eta arloko erreferentziako herrialdeetan bildutakoa baino txikiagoa da: Suedia (%3,25), Austria (%3,09), Danimarka (%2,87), Finlandia (%2,75), Alemania (%2,94), Belgika (%2,49), Frantzia (%2,22), Eslovenia eta Islandia; hala ere, zenbait herrialdetan egonkortu edo jaitsiera nabarmena ikusten da ratioan, EUROSTATen arabera.

EINen "*I+G jarduerei buruzko estatistikak*" EAErako erregistraturiko ahalegina BPGd-aren %1,89 izan zen 2016an (%1,93 2015ean). Estatuko batez bestekoa %1,19 zen (%1,22 2014an), eta hona hemen ratiorik handienak dituzten autonomia erkidegoak, EAEz gain: Madril (%1,66), Nafarroa (%1,66) eta Katalunia (%1,46).

Ikerketari eta berrikuntzari buruzko oinarrizko helburua EBn gastu publikoaren eta pribatuaren %3 lortzea da BPGd-aren portzentaje gisa, Europar Batasun osoari dagokiona. Hartara, helburu zehatzak finkatu dira herrialdeetarako, hots, BPGd-aren %0,5 eta %4 bitartean, kasuan kasuko estatu kidearen arabera. Espainiari dagokionez, 2020an %2ra iristea da helburua. Horren ondorioz, 2016ean I+G arloan eginiko ahaleginaren beherakadak berriz jartzen du gure erkidegoa Europako helburu lortzeko xedetik urrun, xede horretara gehien hurbiltzen den autonomia erkidegoa bada ere.

II.6.2. TAULA. ZIENTZIARI ETA TEKNOLOGIARI BURUZKO ADIERAZLEAK

	2007	2008	2009	2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016
I+G-ko gastuak										
Orotara (mila euro)	1.090,3	1.263,9	1.280,9	1.360,3	1.366,2	1.372,9	1.316,8	1.289,6	1.273,2	1.290,9
Urteko hazk. (%)	20,1	15,9	1,3	6,2	0,4	0,5	-4,1	-2,1	-1,3	1,4
BPGd-arekiko (%)	1,63	1,84	1,97	2,04	2,04	2,09	2,03	1,94	1,86	1,82 (p)
Langileak (AOB)										
Orotara	14.434,9	15.373,2	16.690,4	17.531,9	17.879,2	18.681,9	18.279,5	18.535,4	18.217,1	17.898,0
Urteko hazkundea	10,5	6,5	8,6	5,0	2,0	4,5	-2,2	1,4	-1,7	-1,8
Ikerlariak (AOB)										
Guztira	9.220,4	9.640,1	10.386,2	11.070,8	11.283,1	11.771,7	11.959,3	12.030,3	12.089,1	11.915,5
Urteko hazkundea	13,2	4,6	7,7	6,6	1,9	4,3	1,6	0,6	0,5	-1,4

(bb) behin-behinekoa. Iturria: EUSTAT. Ikerketa zientifikoko eta garapen teknologikoko jarduerei buruzko estatistika

I+G langileria egikaritze-sektorearen arabera[37]. Gastu gehien enpresetan egin zuten, %75,4 (972,9 milioi euro) hain zuzen ere; %17,5 (226 milioi euro) goi-mailako hezkuntzan, eta gainerakoa, %7,1 (92,1 milioi euro) administrazioaren mende dauden erakundeetan. Kopuru horiek ikusita esan daiteke behera egin zutela enpresen sektoreko gastuak eta goi-mailako irakaskuntzaren sektoreko gastuak aurreko urtearen aldean, %2,3 eta %5,2 hurrenez hurren. Administrazio publikoaren gastuak, berriz, %3,7 egin zuen gora.

II.6.3. TAULA. I+G ARLOKO BARNE-GASTUAK, ARLO ZIENTIFIKOAREN, EGIKARITUTAKO SEKTOREAREN ETA FONDOEN JATORRIAREN ARABERA (MILAKA EURO)

	2016						Aldearen %-a (2015-16)					
	Guzt.	Fondoen jatorria					Guzt.	Fondoen jatorria				
		Admin.	Goi-irakask.	Enpr	IAGEP	Atzer.		Admin.	Goi-irakask.	Enpr	IAGEP	Atzer.
Guzt.	**1.290.911**	**432.223**	**40.267**	**719.644**	**3.880**	**94.898**	**1,4**	**1,8**	**8,5**	**1,5**	**32,4**	**-4,8**
Egikaritze-sektorea												
Enpresak	**972.864**	187.024	169	705.623	1.436	78.611	**2,3**	6,8	-72,9	2,0	69,3	-4,7
Herri administrazioa	**92.077**	83.352	141	4.586	1.337	2.662	**5,2**	5,3	51,6	36,5	32,5	-31,9
Goi-mailako irakaskuntza	**225.970**	161.846	39.957	9.435	1.107	13.625	**-3,7**	-5,0	9,8	-30,7	3,2	2,5
Arlo zientifikoa												
Zientzia zehatzak eta nat	110.719	78.433	6.706	15.503	397	9.681	-15,1	-20,3	8,7	3,7	-26,5	-5,8
Ingeniaritza eta teknologia	906.260	181.342	18.286	639.696	958	65.977	2,1	7,7	2,3	1,3	66,9	-5,1
Zientzia medik. (farmazia barne)	141.766	88.473	1.940	42.440	1.466	7.446	1,0	1,4	11,4	1,3	76,2	-13,8
Nekazaritza Z. (abeltz., basog. eta arrantza barne)	41.731	23.327	603	12.129	36	5.637	11,6	10,8	321,7	11,4	38,5	6,7
Gizarte eta giza zientziak	90.435	60.648	12.732	9.875	1.022	6.157	17,2	22,4	14,0	3,4	6,7	3,7

Iturria: EUSTAT. Ikerketa zientifikoko eta garapen teknologikoko jarduerei buruzko estatistika

[37] *Komeni da kontuan hartzea administrazioaren I+G arloko gastuaren zati handi bat Zentro Teknologikoen Sarearen bitartez bideratzen dela; izan ere, zentro horiek, euren izaera juridikoa dela eta, enpresa-sektorearen parte dira estatistikako eragiketa horretan.*

EAEko enpresa-sektorea da beste behin gastu gehien egin duena, eta gainera sektorearen partaidetza-portzentajeak zazpi hamarren egin du gora. Goi-mailako irakaskuntzan ehunekoek 9 hamarren egin du behera, eta herri-administrazioan, aldiz, 3 hamarren. Hala, eten egin da enpresaren sektoreak 2006tik izan duen partaidetza galtzeko joera.

Egitura hori ez dator bat estatuan dagoen batez bestekoarekin, non partaidetza txikiagoa baitute guztizkoarekiko eta handiagoa goi-mailako irakaskuntzaren sektorearekiko (% 53,7 eta % 27,5 hurrenez hurren). Administrazio publikoaren partaidetza-ratioa %18,5 da.

I+G arloko gastuaren finantzazioa (funtsen jatorriaren araberako gastua). Sektore pribatuak gastuaren finantzazioan (719,6 milioi euro) duen partaidetza %55,7aren inguruan mantentzen da (10,3ra puntura Europako helburutik: I+G arloko gastu guztiaren %66 funts pribatuekin finantzatzea). Bestalde, administrazioak gastuaren %33,5 finantzatzen du (432,2 milioi), 2015ean izandako ratioa baino handiagoa (%33,4).

II.6.4. TAULA. SEKTORE PRIBATUAK ETA SEKTORE PUBLIKOAK FINANTZATURIKO I+G ARLOKO GASTUA (guztizko gastuarekiko portzentajea)*

	Sektore pribatuak finantzatutakoa					Herri administrazioak finantzatutakoa				
	2012	2013	2014	2015	2016	2012	2013	2014	2015	2016
EAE (EUSTAT)	54,3	57,1	56,7	55,7	55,7	36,0	34,9	32,6	33,4	33,5
ESTATUA (EIN)	45,6	46,3	46,4	45,8	46,7	43,1	41,6	41,4	40,9	40,0
EUROG. (EUROSTAT)	57,1	56,8	57,3	57,3	nd	33,4	33,1	32,5	31,8	nd

**Guztira ez dira 100, beste finantzabide batzuk daudelako*
Iturria: EUSTAT, EIN, EUROSTAT

Estatuan, EINen arabera, sektore pribatuak gastuaren % 46,7 finantzatzen du (Europako helburuaren 19,3 puntu azpitik dago) eta herri-administrazioak % 40. Eurogunean, EUROSTATen datuei jarraiki, 2015ean kopuruak %57,3 eta % 31,8koak izan ziren, hurrenez hurren. Herrialde hauetan I+G arloko gastuaren finantzaketa pribatuaren ratioa oso handia da: Japonia (%78), Txina, Hong Kong izan ezik (%74,7), Hego Korea (%74,5), Eslovenia (%69,2), Alemania (%65,6), AEB (%64,2), Danimarka (%59,4), Suedia (%57,3), eta Finlandia (%54,8). Bereziki deigarria da Finlandiaren kasuan, non ratioak beherantz egin izan baitu %53,5era iritsi arte 2014an, baina 2015ean berri ere egin zuen gora, %54,8ra. Hain zuzen

Kontuan hartzen badugu EAEko BPG 2015ean 70.857,3 milioi eurokoa izan zela (EUSTAT, sektore pribatuak finantzatutako I+G arloko gastua (719,6 milioi euro) BPGd-aren %1,02 da.[38] Europako 2020. urterako helburua % 2 da. Aldiz, herri-administrazioak finantzatzen duen I+G gastua (432,2 milioi euro) EAEko BPGd-aren % 0,61 da (2015eko ratio bera). Europako helburua % 1 da.

I+G arloko gastua arlo zientifikoaren arabera. Ingeniaritza eta teknologia nagusitu dira berriz (gastu osoaren %70,2); horien atzetik datoz, alde handiarekin, medikuntza-zientziak (%11), zientzia zehatzak (%8,6) eta gizarte-zientziak (%7). Eta, azkenik, nekazaritza-zientziak (%3,2).

Funtsen jatorriari dagokionez, ingeniaritza eta teknologia batik bat sektore pribatuak finantzatzen ditu. Zehazki, % 70,6 sektore pribatuak finantzatzen du eta % 20 sektore publikoak. Medikuntza-zientzietan, zientzia zehatz eta natura-zientzietan, gizarte-zientzietan eta nekazaritza-zientzietan kontrakoa gertatzen da, herri-administrazioak gastuaren %70,8, %62,4, %55,9 eta %67,1 finantzatzen baitu.

I+G-ko langileak (aritze osoko baliokidetzan neurtua, (AOB)). EUSTATen arabera, 17.898 lagun, hots, %1,8ko jaitsiera 2015ekoaren aldean.

Egikaritze-sektoreen arabera, 12.637,3 langile enpresetan daude (langile guztien %70,6, 4.005 goi-mailako irakaskuntzan (%22,4) eta 1.255,7 herri administrazioan (%7).

[38] 2017ko urtarrilaren 20an ateratako datua.

Lanbideari dagokionez (ikertzaileak, teknikariak eta laguntzaileak), % 66,6 ikertzaileak dira (hazi egin da berriz talde hori aurreko urtearen aldean), % 25,2 teknikariak eta % 8,7 laguntzaileak. Dena den, sektore guztietan ez da berdin gertatzen: goi-mailako irakaskuntzan, esate baterako, ikertzaileen ratioa % 85,5 da.

Langileak sexuaren arabera sailkatuz gero, ikusten da langile guztien %35,6 baino ez dela emakumezkoa. Alde horretatik, herri administrazioan eta goi-mailako irakaskuntzan langile gehienak emakumeak dira (%55 eta %50,1, hurrenez hurren), eta enpresetan, berriz, emakumeen ratioa oso txikia da, %29,1 (%28,9 2015ean).

II.6.5. TAULA. I+G-ko LANGILEAK (AOB), EGIKARITZE-SEKTOREAREN ETA OKUPAZIOAREN ARABERA

	GIZONAK		EMAKUMEAK		Ikertzaileak		Teknikariak		Laguntzaileak	
					2015					
	2015	2016	2015	2016	Kop.	% (horizont. guzt.)	Kop.	% (horizont. guzt.).	Kop.	% (horizont. guzt.)
Guzt.	18.217,1	17.898,0	6.414,4	6.374,6	11.915,5	66,6	4.514,2	25,2	1.468,6	8,2
Enpresak	13.087,0	12.637,3	3.782,2	3.678,3	7.872,8	62,3	3.673,9	29,1	1.090,5	8,6
Herri administrazioa	1.150,9	1.255,7	633,6	691,2	616,8	49,1	520,2	41,4	118,9	9,5
Goi-mailako irakask.	3.979,2	4.005,0	1.998,6	2.005,1	3.425,9	85,5	320,1	8,0	259,2	6,5

Iturria: EUSTAT, I+G jarduerei buruzko estatistika

Aktibo intelektualak.

Geroago sakonago aztertuko den "*Berrikuntzako adierazleen panela, IUS*" deritzonak dakarren informazioan oinarrituta aurkeztuko dugu adierazle honen azterketa.

Datuek erakusten dutenez, gure Erkidegoak 0,48ko balioa du *Berrikuntzako adierazle sintetikoa, 2017* delakoan, Estatukoaren gainetik (0,39) eta 28-EBtik (0,50) eta "berrikuntza maila handiko herrialdeak" deritzon taldetik gertu. Izan ere, 28ko EBko batez bestekoa %90etik gorakoa da, %95 hain zuzen ere.

Hala ere, berrikuntza-prozesuetako errendimendu gisa sortutako jabetza intelektualeko eskubide modu ezberdinak atzematen dituen IUSen "Aktibo intelektual" dimentsioa 0,29 da, 28ko EBko batez bestekoa (0,49), edo Estatukoa (0,40) baino txikiagoa.

Izan ere, Beste lurralde eremuekin erkatuta, hauxe ondoriozta daiteke: 1,59 adierazlea duela EAEk BPGko bilioi bakoitzeko EEP[39] patenteen eskarietan (EAP eurotan), 6,11 adierazlea BPGko bilioi bakoitzeko EBko merkataritza-marketan (EAP eurotan) eta 1,26koa PGBko

II.6.6. TAULA. AKTIBO INTELEKTUALEN ADIERAZLEAK, IUS 2017

	IUS 2016 Rankinga	AKTIBO INTELEKTUALAK			
		Indize konposatua	Patente eskaria BPGko bilioi bakoitzeko (EAP)	EBko marka komertzialak, BPGko bilioi bakoitzeko	EBko diseinuak BPGko bilioi bakoitzeko (EAP)
SUEDIA	0,71	0,67	9,58	10,75	4,71
DANIMARKA	0,67	0,73	6,14	11,60	7,93
FINLANDIA	0,65	0,65	8,29	11,44	4,50
HERBEHEREAK	0,64	0,55	5,91	9,58	3,65
ERRESUMA B.	0,62	0,43	3,25	7,32	3,03
ALEMANIA	0,61	0,65	6,35	9,34	6,18
AUSTRIA	0,60	0,69	4,95	12,91	7,10
LUXENBURGO	0,60	0,82	1,91	38,51	12,40
BELGIKA	0,60	0,43	3,35	7,75	2,75
IRLANDA	0,57	0,31	2,49	5,40	1,02
FRANTZIA	0,54	0,43	4,17	5,85	2,88
28KO EB	0,50	**0,49**	**3,70**	**7,60**	**4,33**
ESLOVENIA	0,48	0,46	3,00	10,21	2,97
EAE	**0,48**	**0,29**	**1,59**	**6,11**	**1,26**
TXEKIAR ER.	0,42	0,30	1,08	5,14	2,62
PORTUGAL	0,41	0,37	0,70	7,21	4,47
ESTONIA	0,39	0,48	1,36	14,97	3,74
LITUANIA	0,39	0,26	0,80	6,24	1,42
ESPAINIA	**0,39**	**0,40**	**1,57**	**9,13**	**3,08**

Iturria: EUSTAT Berrikuntza-adierazleen panela

[39] *Patenteen gaineko Lankidetza Ituna.*

bilioi bakoitzeko (EAP eurotan) EBko diseinuetan. Beraz, estatuko batez bestekoen (1,57/9,13/3,08) eta 28ko EBkoen (3,7/7,6/4,33) azpitik dago eta urruti erreferentziako herrialdeetatik.

Ikuspegi historikoari buruzko azterketak erakusten duenez, EAEk inbertsio handia egin izan du I+G jardueretan, baina bazirudien zailtasunak zituela inbertsioa emaitzetara ekartzean, zeren eta, aktibo intelektualek txikiak izaten jarraitu izan baitute (alabaina, egia da beheranzko joera dela). Horrek eraginkortasun edo produktibitate txikiagoa uzten du agerian.

II.6.7. TAULA. I+G-KO AHALEGINAK ETA AKTIBO INTELEKTUALEN ADIERAZLEAK. EAE. 2006-2015

	2009	2010	2011	2012	2013	2014	2015
I+G-ko gastua (gastua BPGd-arekiko)	1,97	2,04	2,04	2,09	2,03	1,94	1,86
PCT patenteen eskaerak BPGd-aren bilioiko (PPC eurotan)	1,73	2,04	1,48	1,53	1,59	**1,59**	
EBko marka komertzialak BPGd-aren bilioiko (PPC eurotan)	5,98	6,35	6,77	7,08	6,29	5,66	**6,11**
EBko diseinuak BPGd-aren bilioiko (PPC eurotan)	2,26	2,03	1,98	2,16	2,24	1,56	**1,26**

Oharra: IUS 2017 egitean, letra lodiko datuak erabili dira
Iturria: EUSTAT. Berrikuntzako adierazleen panela. 2017ko urrian eguneraturiko datuak

6.1.2. I+G Jarduera

a) EAEko enpresen sektoreko I+G jarduerak, ZTESeko zentro teknologikoak alde batera utzita

Eustaten datuen arabera, 2016. urtean[40] 1.254 enpresak (hots, berriz ere gora aurten, %16,5 hain zuzen ere) egin zituzten I+G jarduerak (Zientzia eta Teknologiako Euskal Sareko zentro teknologikoak alde batera utzita); horietatik 577 industria-sektorekoak dira (2015ean baino 141 gutxiago, -%19,6), 638 zerbitzuen sektorekoak (80 gutxiago, -%11,1), 26 eraikuntzakoak (22 gutxiago, -%45,8) eta 13 lehen sektorekoak (5 gutxiago, -%27,8). Jarduera horietako enpresen guztizko gastuak %0,3 egin du gora 2015 eta 2016 bitartean, eta aldeak daude sektoreen artean.

Gastuak gora egin du lehen sektorean (+%11,5) eta zerbitzuetan (+%2,9); industrian eta eraikuntzan, berriz, behera egin du (- 0,9 eta -%49,1 hurrenez hurren).

II.6.8. TAULA. ENPRESEN KOPURUAREN ETA I+G-KO BARNE-GASTUAREN BILAKAERA (ZTESeko ZTak gabe)

	GUZT.		Nek.- abeltz, arrantza, erauzketa eta energia		Industria		Eraikuntza		Zerbitzuak	
	Enpresa kop. guztira	Gastua (mila eurotan)	Enpresa kop. guztira	Gastua (mila eurotan)	Enpresa kop. guztira	Gastua (mila eurotan)	Enpresa kop. guztira	Gastua (mila eurotan)	Enpresa kop. guztira	Gastua (mila eurotan)
2010	1.515	824.115	11	13.192	750	457.927	41	8.702	713	344.293
2011	1.488	808.245	14	20.463	691	417.078	46	10.184	737	360.520
2012	1.565	822.805	17	19.629	716	449.135	50	9.816	782	344.225
2013	1.537	793.295	15	16.702	712	421.639	48	9.831	762	345.122
2014	1.612	780.219	18	20.060	763	406.190	48	8.674	783	345.295
2015	1.502	759.655	18	19.533	718	380.397	48	14.045	718	345.680
2016	1.254	761.561	13	21.785	577	376.978	26	7.154	638	355.644
15-16ko ald.	-248	1.906	-5	2.252	-141	-3.419	-22	-6.891	-80	9.964
15-16ko ald. %	-16,5	0,3	-27,8	11,5	-19,6	-0,9	-45,8	-49,1	-11,1	2,9

Iturria.- EUSTAT, I+G jarduerei buruzko Estatistika

Jarduera horietako lanaldi osoko langileei dagokienez, hor ere behera egin du berriz ere: lanaldi osoko 10.573,8 lagunetik 9.857,3 lagunera.

Langile horiek gehienak industrian eta zerbitzuetan daude bilduta: %45,5 industrian (4.843.8 AOB) eta %50,7 (4.995,8 AOB) zerbitzuetan.

[40] *Nahiz eta 2016an metodologia estatistikoa aldatu CNAEren eta hainbat iturriren aldaketaren ondorioz, I+G egiten duten establezimenduen kopurua aztertu da, eta epigrafe honetan agertzen den informazioa orain ere enpresen kopuruari buruzkoa da.*

II.6.9. TAULA. I+G ARLOKO LANGILEEN BILAKAERA (ZTESeko ZTak gabe)								
	2013		2014		2015		2016	
	Guzt.	**Sektoreko lanpostu guztien %-a**	**Guzt.**	**Sektoreko lanpostu guztien %-a**	**Guzt.**	**Sektoreko lanpostu guztien %-a**	**Guzt.**	**Sektoreko lanpostu guztien %-a**
Guzt.	**10.468,8**	**1,5**	**10.815,5**	**1,3**	**10.573,8**	**1,2**	**9.857,3**	**1,1**
Nek.- abeltz, arrantza, erauzk. eta energia	268,6	1,6	420,7	2,5	289,9	1,8	269,0	1,7
Industria	5.194,1	3,0	5.097,8	3,0	4.843,8	2,9	4.482,4	2,6
Eraikuntza	152,9	0,0	133,1	0,3	233,5	0,5	110,1	0,2
Zerbitzuak	4.853,2	1,0	5.163,9	0,8	5.206,6	0,8	4.995,8	0,8

Iturria.- EUSTAT, I+G jarduerei buruzko Estatistika

9.854,3 lagun horiek enpresaren sektoreko (ZTESeko zentro teknologikorik gabe) lanpostu guztien %1,1 dira (AOB); ratioak behera egin du azken urteetan. Adar handietan banakatuta, industriako lanpostu guztitik %2,6 I+G jardueretarako erabiltzen da. Aurreko urtean, berriz, %2,9 izan zen. Eraikuntzaren sektorean, behera egiten du ehunekoak, %0,5etik %0,2ra, eta zerbitzuen sektoreko ratioak egonkor eusten dio %0,8an.

II.6.10. TAULA. ENPRESA-SEKTOREKO ADIERAZLEAK (ZTESeko ZTak gabe) I+G JARDUERA-ADARREN ARABERA. 2016								
		Enpresa kop.	Lanpostuak, b.b.	Langileak, AOB	Barne gastua	Beren funtsen %-a	Inoren funtsen %-a	EAEko I+G arloko langileen %-a
Guztira		**1.254**	**70**	**9.857,3**	**775.067**	**77,1**	**22,9**	**879.855**
Nekazaritza-abeltz. eta arrantza, erauzketa eta energia		**13**	**58**	**269,0**	**21.785**	**98,4**	**1,6**	**15.805**
Industria		**577**	**106**	**4.482,40**	**376.978**	**85,9**	**14,1**	**172.304**
M-A	Kimika eta petrolio-finketa	42	71	321,1	27.113	91,6	8,4	5.280
M-B	Kautxua eta plastikoa	32	131	190,7	15.995	81,5	18,5	12.884
M-B	Metalarenaz aparteko industria	14	92	44,7	3.375	82,6	17,4	4.111
M-B	Metalurgia	32	253	208,1	18.227	72,0	28	16.156
M-B	Metalezko gaiak	138	72	577,0	39.666	84,2	15,8	41.658
M-A	Makina-erreminta	32	90	426,8	26.963	64,1	35,9	3.519
M-A	Etxetresnak	3	306	65,0	6.007	96,8	3,2	1.189
M-A	Beste makina batzuk	102	89	722,1	57.058	83,9	16,1	23.255
M-A	Material elektrikoa	40	95	364,8	27.946	84,9	15,1	7.070
A	Material elektronikoa	19	88	262,3	18.227	86,6	13,4	4.047
A	Doitasun-materiala	33	48	362,0	23.180	74,5	25,5	3.186
M-A	Garraio-materiala	23	538	751,0	99.141	95,4	4,6	18.077
	Beste manufaktura batzuk	67	56	186,8	14.080	83,3	16,7	31.872
Eraikuntza		**26**	**36**	**110,1**	**7.154**	**72,2**	**27,8**	**50.814**
Zerbitzuak		**638**	**37**	**4.995,8**	**355.644**	**67,3**	**32,7**	**640.392**
A	Informatika jarduerak	114	40	879,2	42.711	77,3	22,7	14.064
A	I+G jarduerak	132	18	1864,2	153.633	53,2	50,3	7.288
	Beste enpresa jarduera batzuk	187	32	1084,4	72.695	73,7	26,3	62.340
	Beste zerbitzu batzuk	205	53	1168,0	86.605	81,8	18,2	557.240

Iturria.- EUSTAT, Ikerketa zientifikoko eta garapen teknologikoko jarduerei buruzko estatistika

Jarduera nagusitzat I+G duten enpresak alde batera utzita, sektore hauetan dago I+G jardueretan aritzen den langile gehien:[41] informatika-jarduerak (EAEn I+G jardueretan lan egiten duten guztien % 8,9), garraio materiala (%7,6), beste makineria batzuk (%7,3), metalezko produktuak (%5,9) eta makina-erreminta (%4,9). Aldi berean, orain ere euskal enpresek, portzentaje handian, gastu horiek finantzatzen jarraitzen dute enpresaren berarekin funtsekin.

[41] *Jarduera nagusitzat I+G jarduerak (ingeniaritza eta aholkularitza teknologikoa) dituzten eta, beraz, gainerakoek ez bezalako profil, helburu eta finantziazioak dituzten enpresak.*

Azkenik, nabarmentzekoa da I+G egiten duten euskal enpresen batez besteko tamaina handia; izan ere, 70 lanpostu ditu, euskal enpresen batez besteko tamaina baino askoz gehiago (5,5 lanpostuko batez bestekoa da), eta egoera hori gertatzen da ia jarduera-sektore guztietan, Memoria honetako *II. EAE-ko Ekonomia* kapitulu honetako *"Ekoizpen sektoreak"* deritzon atalak dakarrenez.

b) Ikerketa unibertsitateetan. Euskal Herriko Unibertsitatea[42]

Analisia egiten hasi aurretik, komeni da kontuan hartzea ikerketa-taldeen deialdia hiru urtean behin egiten duela Eusko Jaurlaritzak eta, beraz, jarduera horien zenbatekoak hiru urtetik hiru urtera gora egiten duela asko. Ondorioz, urtetik urterako analisia egiteko ikerketa-taldeei dagokien zenbatekoa kentzea komeni da.

UPV/EHUk Ikerkuntza Erretoreordearen arabera, arestian aipaturiko partidatik kenduta, UPV/EHUk 2016an eginiko jarduera 53,1 milioi eurokoa izan zen, hots, %1,9ko jaitsiera aurreko aldiarekin erkatuta.

Gehienak (%45,5, 24,2 milioi euro) ikerkuntza proiektuei dagozkie, eta ondoren, prestakuntzarako pertsonalaren funtsak datoz (%22,7, 12 M€) eta Unibertsitatea Antolatzeko Legearen (LOU) 83. artikuluaren itzalpean sinaturiko kontratuak, hots, funts guztien %17,6 (9,3 M€). Urrutiago daude ikerlariak edota teknikariak kontratatzeko funtsak, guztizkoaren %9,5 hain zuzen.

Funtsen jatorriari dagokionez, 2013-14 aldian funts autonomikoak izan ziren finantzabide nagusia (gutizkoaren %39,7), eta gauza bera gertatu zen 2015ean.

2016an, estatuaren eta autonomiaren finantzaketa eta finantzaketa propioa dira finantzabide nagusia, hots, guztizkoaren %24, %22 eta % 22 hurrenez hurren. Zehazki, 12,9, 12 eta 11,7 M€.

Arlo zientifikoen arabera, I+G+b jardueretako gastua batez ere zientziei eta ingeniaritzari eta arkitekturari dagokie. Zehazki, 2016an gastuen %36 (19,4 milioi euro) zientziei zegokien, %29,8 (16 milioi euro) jarduera teknikoei (ingeniaritzari eta arkitekturari). Ondoren, osasun zientziei %16,2 (8,7 milioi euro) eta %9,2 (4,9 milioi euro) gizarte- eta zuzenbide-zientziei eta arte eta %8,8 arte eta giza zientziei (4,8 milioi euro).

II.6.11. TAULA. I+G+B JARDUERA ONARTU / KONTRATATU MOTEN BILAKAERA (eurotan)

	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2014-15 aldak.	2015-16 aldak.
Ikerketa proiektuak	26.539.707	29.380.420	22.128.122	19.890.219	26.987.400	24.185.858	35,7	-10,4
I+G kontratuak, UALeko 83. artikuluaren arabera	10.013.434	9.417.928	6.873.277	8.540.024	7.411.502	9.338.563	-13,2	26,0
Ikerketa taldeak*	3.782.468	391.414	24.921.615	428.702	24.011.497	650.315	5501,0	-97,3
Ikertzaileen eta teknikarien kontratazioa	1.500.947	3.851.768	3.810.399	3.763.459	4.872.250	5.059.221	29,5	3,8
Prestatzen ari diren langileak	2.386.392	11.781.818	12.104.551	12.914.319	11.377.329	12.030.101	-11,9	5,7
Azpiegitura zientifikoa	3.329.225	599.585	468.581	568.010	1.688.461	604.340	197,3	-64,2
Ikertzaileen mugikortasuna	631.348	527.045	319.380	547.847	488.388	634.903	-10,9	30,0
Ekintza bereziak	159.765	194.608	32.490	43.228	13.800	6.700	-68,1	-51,4
Ikerketa Zerbitzu Orokorrek (SGIKER) emandako zerbitzuak	1.212.746	1.269.502	1.183.832	1.177.644	1.283.998	1.248.281	9,0	-2,8
GUZT., ikerketa talde gabe	45.773.565	57.022.674	46.920.632	47.444.750	54.123.128	53.107.967	14,1	-1,9
GUZT., ikerketa taldeekin	49.556.033	57.414.088	71.842.247	47.873.452	78.134.625	53.758.282	63,2	-31,2

Ikerketa-taldeentzat Eusko Jaurlaritzak ematen dituen diru-laguntza osoei buruzkoak dira 2013ko eta 2015eko datuak, zenbatekook hainbat urtetan erabiltzen badira ere, gainerako jardueren finantziazioa adierazteko erabilitako irizpideekin bat eginez. 2012an Eusko Jaurlaritzak ikerketa-taldeen beste deialdi bat finantzatu zuen, baina 2013ra arte ez zen UPV/EHUko aurrekontuan sartu; beraz, deialdiak 2013ko estatistika datuetan du eragina.
Iturria: UPV/EHU zenbakitan. Ikerketa

[42] *Euskal Herriko Unibertsitatean (UPV/EHU) egiten dituzten I+G+B jarduerei eta jarduera horien neurriari dagokienez, bereizi behar dira, batetik, funts espezifikoak (kanpo-finantziaziodun proiektuak, kontratuak eta hitzarmenak, ikerketa-bekak eta ikerketa-azpiegiturako inbertsioak); eta bestetik, funts orokorrak, zeinak irakasleek ikerketa-jardueretan ematen duten denboraren eta horrek eragiten duen kostu orokorraren zenbatespenean oinarrituta dauden. Gastu horiek dira, zehazki, irakasleen gastuak, ondasun eta zerbitzuen gastuak, inbertsioak eta beste gastu batzuk. Epigrafe honetan aztertzen diren datuak lehenbiziko multzoko funtsei dagozkie, hau da, funts espezifikoei.*

II.6.12. TAULA. I+G+B JARDUERETARAKO FUNTSEN JATORRIA, EUSKO JAURLARITZAREN IKERKETA-TALDEEN DEIALDIEN ARABERA

	2013-14 Aldia		2014		2015		2016	
	Guzt. (euroak)	% bertikala	Guzt. (euroak)	% bertikala	Guzt. (euroak)	% bertikala	Guzt. (euroak)	% bertikala
Autonomiakoa	47.550.641	39,7	11.769.550	24,6	34.730.791	44,4	12.012.645	22,3
Estatukoa	19.434.467	16,2	9.406.481	19,6	7.998.193	10,2	12.928.275	24,0
Zuzeneko kontratazioa	16.796.216	14,0	9.059.973	18,9	15.396.801	19,7	9.936.019	18,5
Berezko finantzazioa (programa-kontratua)	23.299.423	19,5	11.335.224	23,7	11.210.211	14,3	11.667.553	27,1
Nazioartekoa	12.634.950	10,6	6.302.222	13,2	8.798.627	11,3	7.213.789	13,4
GUZT.	**119.715.698**	**100**	**47.873.451**	**100,0**	**78.134.624**	**100,0**	**53.758.282**	**100,0**

Iturria: UPV/EHU zenbakitan. Ikerketa

II.6.13. TAULA. I+G+B JARDUEREN BILAKAERA ZIENTZIA-EREMUEN ARABERA

	2011	2012	2013	2014	2015	2016
Zientziak	24.445.991	27.318.492	30.838.204	19.219.258	33.857.063	19.362.184
Ingeniaritza eta Arkitektura	9.078.666	9.356.914	16.258.017	11.645.721	21.864.854	16.028.669
Osasun Zientziak	4.559.155	7.147.028	8.612.482	4.171.620	9.014.132	8.688.911
Gizarte eta Lege Zientziak	6.060.703	8.688.210	10.691.236	6.959.962	7.872.085	4.926.394
Arteak eta Humanitateak	5.411.518	4.903.444	5.442.307	5.876.891	5.526.489	4.752.124
GUZT.	**49.556.033**	**57.414.088**	**71.842.247**	**47.873.451**	**78.134.624**	**53.758.282**

Iturria: UPV/EHU zenbakitan. Ikerketa

Patenteen arloan, emaitza urriak dira orain ere. Gainera, 2015 eta 2016 urte bitartean, jaitsiera izan zen. Hala, 2016an 34 patente erregistratu ziren. Aurreko urtean, berriz, 40.

Bestalde, zientzia argitalpenetan goranzko joerari eusten zaio, eta berriz hazi da 2016an, 3.093 izateraino. Gehienak Zientzien, Osasun Zientzien, Ingeniaritzaren eta Arkitekturaren arloan erregistraturiko argitalpenak izan ziren (2.723).

Azkenik, irakurritako doktorego tesien kopuruak gora egin zuen 2015ekoaren aldean; 2016an 552 izan ziren.

II.6.14. TAULA. BESTE EMAITZA BATZUK. ARGITALPENAK ETA ERREGISTRATURIKO PATENTEAK

	Zientzia argitalpenak			Patenteak							Irak. Doktorego tesiak
	Zientziak, Osasun Zientziak , Ingen. eta Arkitektura	Gizarte eta Lege Zientziak, Arteak eta Humanitateak	**Guzt.**	Espainiar.	Europar.	PCT** (Berriak eta luzapenak)	Amerikar.	Japoniar.	B.b.	**Guzt.**	
2011	1.697	295	**1.966**	25	8	13	4	1	40	**91**	328
2012	1.993	298	**2.253**	21	11	11	13	2	21	**79**	327
2013	2.204	325	**2.294**	8	6	15	4	0	29	**62**	383
2014	2.518	376	**2.854**	7	8	9	4	0	0	**28**	479
2015	2.697	418	**3.051**	7	4	5	8	3	13	**40**	410
2016p	2.723	419	**3.093**	10	9	5	2	1	7	**34**	522

Bb: behin-behiekoak
Iturria: UPV/EHU zenbakitan. Ikerketa eta Ikerketaren emaitzak

6.1.3. Berrikuntza jarduerak

a) Enpresa berritzaileak

Euskal Autonomia Erkidegoko "Berrikuntzari buruzko galdeketa"ko datuen arabera (EUSTAT) [43], 2013-2015 eta 2014-2016 aldien artean enpresa berritzaileen ehunekoak behera egin zuen. Hala, 2014-2015 aldian enpresen %16,9 izan ziren berritzaileak (aurreko aldian baino 5 hamarren gehiago). Portzentaje hori ateratzen da kontuan hartuta hala berrikuntza

[43] *Inkesta hori edozein neurri eta edozein jarduera-sektoretako establezimenduei egiten zaie, salbu honako hauei: lehen sektorea, herri-administrazioa, elkarteen jarduerak, etxeko jarduerak eta lurraldez kanpoko antolaketa-jarduera eta erakundeak. Hau da, Jarduera Ekonomikoen Sailkapen Nazionalekoei (JESN-2009 2. Berrikuspena), salbu jarduera nagusitzat 01-03, 84, 94, 97, 98 eta 99 ataletako jardueraren bat duten establezimenduei.*

teknologikoko enpresak (produktuak eta/edo prozesuak berritzen dituzte eta enpresen %11,4 dira; aurreko aldian %11,9) nola teknologiaz aparte berrikuntza-jardueretan aritzen diren enpresak (antolamendua eta/edo merkaturatzea berritzen dituzte eta enpresen %9,4 dira, %9,5 aurreko aldian).

Hamar lanpostu eta gehiago enpresak bakarrik aintzat hartuz gero (EINekoekin alderatu ditzakegu, horiek ez baitute hamar lanpostu baino gutxiagoko enpresei buruzko informaziorik), enpresa berritzaileen (teknologikoen eta teknologikoak ez direnen) portzentajea handiagoa da, % 34 hain zuzen ere (aurreko aldian % 0,6 gutxiago). %34 horretatik, % 27,9 berrikuntza teknologikoari dagokio eta % 19,4 berrikuntza EZ teknologikoa).

Estatuan, EINen enpresen berrikuntzari buruzko galdeketaren arabera, aldi horretako ratioa % 28,5 da (aurreko aldian %28,6). Hortaz, EAEko ratioa baino txikiagoa.

II.6.15. TAULA. JARDUERA BERRITZAILEAK GAUZATZEN DITUZTEN ENPRESEN PORTZENTAJEAREN BILAKAERA (EAEko ENPRESA GUZTIEN ALDEAN)

		2008-10	2009-11	2010-12	2011-13	2012-14	2013-15	2014-16
Enpresak, guzt.	**Enpresa berritzaileak (berrikuntza teknol. eta teknologiaz apartekoa) (1)**	**19,8**	**17,8**	**17,3**	**16,7**	**16,5**	**16,9**	**16,4**
	Berrikuntza teknologikoko enpresak (1)	13,8	12,3	11,6	12,7	12,2	11,9	11,4
	Teknologiaz aparteko berrikuntza jarduerak dituzten enpresak	11,8	10,7	10,0	9,1	9,5	9,5	9,4
	EBE, berrikuntza teknologikoko edo teknologiaz aparteko jarduerak dituztenak	20,3	18,3	17,7	17,1	17,0	17,3	17,0
Bederatzi lanpostu baino gehiagoko enpresak (EINeko eta EUROSTATeko datuekin alderatzeko)	**Enpresa berritzaileak (berrikuntza teknologikoa eta ez teknologikoa) (1)**	**38,9**	**37,8**	**36,2**	**34,7**	**34,5**	**34,6**	**34,0**
	Berrikuntza teknologikoko enpresak (1)	30,1	30,7	28,6	28,4	27,5	28,2	27,9
	Teknologiaz aparteko berrikuntza jarduerak dituzten enpresak	26,2	23,7	23,1	20,0	20,5	19,9	19,4
	EBE, berrikuntza teknol. edo teknologiaz aparteko jarduerak dituztenak	41,4	39,8	38,3	37,6	37,1	37,2	35,6

(1) Ez dira sartzen berrikuntza jarduerak erabat gauzatu gabe dituzten eta arrakastarik gabeko berrikuntzak egin dituzten establezimenduak, zeren eta produktua (ondasuna edo zerbitzua) enpresaren, lantokiko enpresaren edo barne-harremanetako barne-jardunaren barruan sartu behar izan baita.
EIN: enpresa berritzaileak edo aribideko edo arrakastarik gabeko berrikuntzak dituztenak
Iturria: EUSTAT. Berrikuntzari buruzko inkesta

Lurralde historikoen arabera, Gipuzkoan 10 lanpostutik gorako enpresen %36,6 dira berritzaileak (%35 aurreko aldian), ondoren Bizkaia, %33,2arekin (%34,7 aurreko aldian) eta Araba, %30,8arekin (%34,3 aurreko aldian).

Sektoreka, 10 lanpostutik gorako industria-enpresen % 44 berritzaileak dira (%41,3 aurreko aldian), zerbitzu-establezimenduen % 32,1 (%32,6 aurrekoa aldian) eta eraikuntza-enpresen % 13,8 (%29,2 aurreko aldian) dira berritzaileak. Bestela esanda, industria-enpresa berritzaileen ratioak hobera egin du bi aldien artean, baina ez du konpentsatzen beste jarduera-adar bietan izandako beherakada.

Jarduera-azpisektoreei dagokienez, industrian hauek dira nagusi: produktu informatikoak eta elektronikoak; material eta ekipo elektrikoa (%74,3 eta %62,8 aurreko aldian); makineria eta ekipamendua (%59,9, eta %58,8 aurreko aldian); energia elektrikoa, gasa eta lurruna (%57,6, aurreko aldiko ratio bera) eta garraio materiala (%57,3, %63,3 aurreko aldian). Zerbitzuetan: osasun- jarduerak (%75,2, eta %80,7 aurreko aldian) eta finantza- eta aseguru-jarduerak (%62,3, eta %68,4 aurreko aldian).

II.6.16. TAULA. 10 LANGILE ETA GEHIAGOKO ESTABLEZIMENDUEN %-a, BERRIKUNTZA-MOTAREN ETA JARDUERA-ADARRAREN ARABERA

	2013-15			2014-16		
	Establezimendu berritzaile ez teknologikoak	Establezimendu berritzaile teknologikoak (1)	Establezimendu berritzaileak (1) (teknologikoak edo ez teknol.)	Establezimendu berritzaile ez teknologikoak	Establezimendu berritzaile teknologikoak (1)	Establezimendu berritzaileak (1) (teknologikoak edo ez teknol.)
Guzt.	**19,9**	**28,2**	**34,6**	**19,4**	**27,9**	**34,0**
Araba	20,3	28,2	34,7	19,0	25,2	30,8
Bizkaia	19,6	28,6	34,3	18,2	28,0	33,2
Gipuzkoa	20,0	27,7	35,0	21,4	29,1	36,6
Industria	**20,9**	**36,8**	**41,3**	**20,1**	**39,5**	**44,0**
Erauzketa-ind., kokeg. eta petrolio-finketa	32,1	19,6	32,1	20,0	20,0	20,0
Elikagaien eta edarien industria eta tabakoa	13,7	20,3	27,0	19,8	25,0	32,2
Ehuna, jantzigintza, larrua eta oinetakoak	15,4	36,5	44,2	4,8	24,4	24,4
Egurra, papera eta arte grafikoak	8,6	23,3	26,2	8,1	18,0	21,1
Industria kimikoa eta farmazia-produktuak	17,8	63,9	63,9	35,6	48,8	51,0
Kautxua eta plastikoak	20,0	43,6	47,5	20,6	39,3	41,1
Metalurgia eta metalezko produktuak	19,9	30,7	36,6	12,8	38,0	41,6
Prod. Informatikoak eta elektronikoak. Material eta ekipo elektrikoa	36,9	56,4	62,8	44,0	65,3	74,3
Makineria eta ekipoa	28,1	56,1	58,8	29,4	57,6	59,9
Garraio-materiala	25,2	60,0	63,6	22,0	57,3	57,3
Altzariak eta beste manufaktura batzuk	23,8	30,9	32,9	23,3	35,3	41,6
Energia elektrikoa, gasa eta lurruna	50,9	57,6	57,6	57,6	30,0	57,6
Ura hornidura eta saneamendua	2,3	23,2	23,2	12,6	24,1	29,4
Eraikuntza	**10,0**	**26,1**	**29,2**	**7,7**	**10,2**	**13,8**
Zerbitzuak	**20,4**	**25,2**	**32,6**	**20,2**	**25,2**	**32,1**
Merkataritza eta ibilgailuen konponketa	16,8	22,2	27,4	17,2	21,7	27,2
Garraioa eta biltegiratzea	9,4	15,6	20,8	9,9	14,2	20,1
Ostalaritza	15,5	8,6	19,8	12,6	6,6	14,8
Telekomunikazioa, informatika eta hedabideak	31,4	45,7	50,2	36,2	43,5	48,9
Finantza- eta aseguru-jarduerak	54,5	40,1	68,4	46,7	41,8	62,3
Higiezinen arloko jarduerak	31,1	6,7	31,1	23,5	41,2	47,1
I+G, aholkularitzak eta bestelako jarduera profesionalak eta teknikoak	30,2	39,8	48,6	30,3	42,4	49,4
Zerbitzu osagarriak	9,4	7,1	12,7	5,2	7,7	11,6
Bidaia-agentziak eta turismo operadoreak	7,5	7,5	7,5	39,7	24,9	39,7
Hezkuntza	18,4	30,8	38,9	15,2	30,9	37,2
Osasun jarduerak	65,9	75,2	80,7	64,5	70,6	75,2
Gizarte, jolas, kultur eta bestelako jarduerak	11,4	13,8	19,4	18,2	16,2	26,4

(1) Ez dira sartzen berrikuntza jarduerak erabat gauzatu gabe dituzten eta arrakastarik gabeko berrikuntzak egin dituzten establezimenduak.
(2) Berrikuntza jarduerak erabat gauzatu gabe dituzten eta arrakastarik gabeko berrikuntzak egin dituzten establ. bakarrik sartzen dira.
Iturria: EUSTAT. Berrikuntzari buruzko inkesta

Enpresen %55,9k uste du berrikuntza teknologikoa zailtzen duten faktoreak daudela, bereziki ekonomikoak. Enpresek arrisku ekonomikoak nabarmentzen dituzte, gehiegizkoak direla iritzita (%39,0), baita berrikuntzak dakartzan kostu handiak (%42,9) eta finantzabiderik eza ere (%35,5). 10 enplegatu edo gehiago dituzten enpresen artean, handiagoa da berrikuntza zailtzen duten faktoreak daudela uste duten enpresen ehunekoa, %6,31 hain zuzen.

b) Berrikuntza teknologikorako jardueretako gastua

Berrikuntza teknologikoa duten enpresen analisiari gagozkiolarik (arestian esana dugunez: enpresa guztien %11,4), 2016an gora egin zuen berrikuntza teknologikorako jardueretan eginiko guztizko gastuak. Hala, hautsi egin da azken lau urtean izandako beheranzko joera. Zehazki, %3,3 hazi zen 2015 eta 2016 bitartean, guztira 2.524,6 M€, hots, BPGd-aren %3,6 (%3,5 aurreko aldian), EUSTATen "*Berrikuntza Teknologikoari buruzko inkesta*"ren arabera.

10 lanpostu eta gehiagoko enpresetan (tamaina horretako enpresa guztien %27,9), gastua 2.123,9 milioi euro da, hots, %2,1eko igoera aurreko urtearen aldean, baina BPGd-aren %3aren inguruan eusten dio egonkor.

Jarduera-sektoreka eta 10 lanpostu eta gehiagoko enpresen artean, industrian, gastua gehienbat garraio-materialean biltzen da, gastuaren %14,1; ondoren, metalurgian eta metalezko produktuetan, %9,4; produktu informatikoetan eta elektronikoetan; material eta ekipo elektrikoan; eta makineria eta ekipoan (biotan %6,1).

Jarduera-sektoreen arabera eta 10 lanpostu eta gehiagoko enpresen artean, industriaren barruan, gastuak garraio materialean biltzen jarraitzen du, gastuaren %14,1arekin; metalurgian eta metalezko produktuetan, %9,4arekin; produktu informatikoetan eta elektronikoetan; material eta ekipamendu elektrikoan; eta makinerian eta ekipamenduan (bietan %6,1arekin).

Bestalde, zerbitzuen sektorean nabarmentzekoa da I+G arloa, aholkularitza eta beste jarduera profesional eta tekniko batzuk, gastuaren %26,1arekin, eta hezkuntzaren sektorea, %11,9arekin. Ondoren, nahikoa urrun, telekomunikazioak, informatika eta hedabideak daude, %6,4arekin.

Beste urte batez, gastu horren zatirik handiena barneko I+G arloari dagokio (BPGd-aren %1,8 enpresa guztiekiko eta %1,7 10 lanpostutik gorako enpresekiko) eta makineriaren eskuraketa (BPGd-aren 0,7 enpresa guztiekiko eta %0,6 10 lanpostutik gorako enpresekiko).

EUSTATen arabera, berrikuntza teknologikoko enpresen %26,4k finantzazio publikoa jasotzen du. Laguntzen jatorriari erreparatuz gero, nabarmentzekoak dira Eusko Jaurlaritzatik datozenak, enpresa berritzaile guztien %20,6.

II.6.17 TAULA. BERRIKUNTZA TEKNOLOGIKORAKO JARDUERETAKO GASTUA, JARDUERA-SEKTOREEN ARABERA, 10 LANPOSTU BAINO GEHIAGOKO ENPRESETAN, 2015-2016

	2015	2016		2015/16 aldak. %
	Milakoak	Milakoak	% bertikala	
Guzt.	**2.080.090**	**2.123.936**	**100,0**	**2,1**
Industria	**870.422**	**901.572**	**42,4**	**3,6**
Erauzketa-ind., kokeg. eta petrolio-finketa	4.629	5.235	0,2	13,1
Elikagaien eta edarien industria eta tabakoa	11.964	5.834	0,3	-51,2
Ehuna, jantzigintza, larrua eta oinetakoak	3.055	1.831	0,1	-40,1
Egurra, papera eta arte grafikoak	15.644	23.108	1,1	47,7
Industria kimikoa eta farmazia-produktuak	27.407	29.454	1,4	7,5
Kautxua eta plastikoak	32.723	33.721	1,6	3,0
Metalurgia eta metalezko produktuak	171.216	199.999	9,4	16,8
Prod. Informatikoak eta elekt.. Material eta ekipo elektrikoa	121.772	129.209	6,1	6,1
Makineria eta ekipoa	122.410	129.245	6,1	5,6
Garraio-materiala	314.618	300.340	14,1	-4,5
Altzariak eta beste manufaktura batzuk	20.953	20.949	1,0	0,0
Energia elektrikoa, gasa eta lurruna	19.963	14.870	0,7	-25,5
Ura hornidura eta saneamendua	4.068	7.777	0,4	91,2
Eraikuntza	**18.874**	**13.761**	**0,6**	**-27,1**
Zerbitzuak	**1.190.794**	**1.208.604**	**56,9**	**1,5**
Merkataritza eta ibilgailuen konponketa	59.283	71.857	3,4	21,2
Garraioa eta biltegiratzea	45.227	33.808	1,6	-25,2
Ostalaritza	899	6.081	0,3	576,4
Telekomunikazioa, informatika eta hedabideak	126.200	134.981	6,4	7,0
Finantza- eta aseguru-jarduerak	49.010	42.961	2,0	-12,3
Higiezinen arloko jarduerak	.	567	0,0	.
I+G, aholkularitzak eta bestelako jarduera profesionalak eta teknikoak	563.498	554.002	26,1	-1,7
Zerbitzu osagarriak	926	537	0,0	-42,0
Bidaia-agentziak eta turismo operadoreak	6	77	0,0	1.183,1
Hezkuntza	265.130	253.587	11,9	-4,4
Osasun jarduerak	77.651	105.053	4,9	35,3
Gizarte, jolas, kultur eta bestelako jarduerak	2.965	5.092	0,2	71,7

Iturria: EUSTAT.Berrikuntzari buruzko inkesta

10 lanpostu eta gehiagoko enpresetan, %51,2k laguntzak jasotzen ditu, eta Eusko Jaurlaritza da gehien finantzatzen duena, hain zuzen ere enpresen %36,9ari, tamaina horretako berrikuntzako gastuetan. Eusko Jaurlaritzak finantzatzen du osorik edo zati batez laguntza jasotzen duten eta berrikuntza duten enpresa guztien %78.

II.6.18. BERRIKUNTZA TEKNOLOGIKOKO JARDUERETARAKO GASTUAK, BPGd-aren EHUNEKOAREN ARABERA

	GUZT. ENPRESAK						>= 10 LANGILE					
	2011	**2012**	**2013**	**2014**	**2015**	**2016**	**2011**	**2012**	**2013**	**2014**	**2015**	**2016**
Guzt. (M€)	**2.675,7**	**2.583,7**	**2563,5**	**2.474**	**2.443,2**	**2.524,6**	**2.214**	**2.179,5**	**2.197,7**	**2.067,7**	**2.080,1**	**2.123,9**
BPGd-aren %	**4**	**4**	**3,9**	**3,7**	**3,5**	**3,6**	**3,3**	**3,4**	**3,3**	**3,1**	**3,0**	**3,0**
I+G barne-jard.	2,1	2,1	2	1,9	1,8	1,8	1,9	2	1,9	1,8	1,7	1,7
I+G kanpo-jard.	0,5	0,6	0,6	0,6	0,6	0,6	0,4	0,5	0,5	0,5	0,5	0,4
Makineria	0,8	0,8	0,8	0,9	0,7	0,7	0,6	0,6	0,6	0,6	0,5	0,6
Bestelako jakintzak	0,1	0,1	0,1	0	0,1	0,1	0,1	0,1	0,1	0	0,1	0,0
Prestakuntza	0,1	0	0	0	0	0,1	0	0	0	0	0	0,0
Merkaturatzea	0,1	0,1	0,1	0,1	0,1	0,1	0	0	0,1	0	0	0,0
Diseinua eta prestakuntza	0,4	0,3	0,2	0,2	0,2	0,2	0,2	0,2	0,2	0,1	0,2	0,2

Iturria: EUSTAT. Berrikuntzari buruzko inkesta

6.1.4. Europako Berrikuntza Adierazleen Panela, IUS EUROPEAN INNOVATION SCOREBOARD (EIS), 2017

Europako Berrikuntza Adierazleen Panel berria (IUS 2017) herrialdeen ekonomiek berrikuntza jarduerak egiteko zenbaterainoko gaitasuna duten eta zenbateraino garatzen dituzten neurtzen saiatzen da.

Panela osatzen duten adierazleen etengabeko berrikuspena egiten da, baita panela eta datuak eguneratuago kalkulatzeko modua ere. Zehazki, 2017an adierazleen hiru bloketik lau blokera igaro da, 2 dimentsio sartu dira, guztira 10 izan arte, eta adierazleen kopurua 27 da: 5 berriak dira eta beste 5 berriz zehaztu dira. Hori dela-eta, serie osoa berriz ere kalkulatu behar izan da.

EB28ko herrialdeak lau mailatan daude sailkatuta, lortu duten puntuazioa aintzat hartuta. Lehenbizikoan, “berrikuntzako herrialde liderrak” deritzonean, batez bestekoaren %120tik gorako puntuazioa lortzen duten herrialdeak daude: Suedia (berrikuntzako adierazle sintetikoa, 0,71), Danimarka (0,67), Finlandia (0,65), Herbehereak (0,64), Erresuma Batua (0,62) eta Alemania (0,61), baina Europako lehen tokia Suitzari dagokio (0,81).

Bigarren taldea, “berrikuntza handiko herrialdeak”, Europako batez bestekoaren % 90 eta % 120 bitarteko puntuazioa lortzen duten herrialdeek osatzen dute. Beheranzko hurrenkeran, hauexek ditugu: Austria, Luxenburgo, Belgika, Irlanda, Frantzia eta Eslovenia, 0,60 eta 0,48 bitarteko puntuazioekin

Hirugarren taldean, “berrikuntza ertaineko herrialdeak” (batez bestekoaren %50 eta %90 bitartean) delakoan, Txekiar Errepublika, Portugal, Estonia, Lituania, Espainia, Malta, Italia, Zipre eta beste sei herrialde daude, 0,42 eta 0,27 bitarteko balorazioekin. Espainiak 0,39 du.

Eta “berrikuntza txikiko herrialdeak” deritzon laugarren taldean (Europako batez bestekoaren % 50etik behera), Bulgaria eta Errumania daude, 0,23 eta 0,17 puntu artean lortuta.

EAEk 0,48ko puntuazioa du, eta 28ko EBren batez bestekoaren bi hamarrenera gelditzen da (0,50). Hala, “berrikuntza maila handiko herrialdeen” taldearen mailan kokatzen da, 28-EBren batez bestekoaren %90etik gorakoa baita (%95 zehazki).

II.6.1. GRAFIKOA. EUROPAKO BERRIKUNTZAREN ADIERAZLE-PANELA, EIS 2017. EAE eta 28KO EB



Iturria.- EUSTAT eta Europar Bartzordea

Europako Berrikuntza Adierazleen Panela lau bloke nagusitan (Esparru baldintzak, Inbertsioak, Berrikuntzako jarduerak eta Eraginak) eta hamar dimentsiotan dago egituratuta, guztira 27 adierazle.

- ***Esparru baldintzetan,*** hiru dimentsio daude: giza baliabideak, ikerkuntza sistema erakargarriak eta berrikuntzarako ingurune egokia.
- ***Inbertsioetan*** bi dimentsio daude: finantzazioa eta laguntza, eta enpresetarako inbertsioak.
- ***Berrikuntzako jardueretan*** hauexek biltzen dira: berritzaileak, loturak eta aktibo intelektualak.
- ***Eraginetan*** hauexek daude: eraginak eta enpleguan eta eraginak salmentetan.

II.6.19. TAULA. EUROPAKO BERRIKUNTZA ADIERAZLEEN PANELA. 4 BLOKE ETA 108 DIMENTSIO. INDIZE KONPOSATUAK. 2017.

	28EB	EAE	ESTATUA
EIS 2017	**0,50**	**0,48**	**0,39**
ESPARRU BALDINTZAK	**0,47**	**0,68**	**0,46**
Giza baliabideak	**0,48**	**0,68**	**0,50**
Ikerkuntza sistema erakargarriak	0,45	0,56	0,38
Berrikuntzarako ingurune egokia	0,50	1,00	0,54
INBERTSIOAK	**0,47**	**0,37**	**0,33**
Finantzazioa eta laguntza	**0,47**	**0,22**	**0,34**
Enpresentzako inbertsioak	0,47	0,47	0,32
BERRIKUNTZA JARDUERAK	**0,48**	**0,35**	**0,29**
Berritzaileak	0,48	0,42	0,20
Loturak	0,48	0,34	0,28
Aktibo intelektualak	0,49	0,29	0,40
ERAGINAK	**0,61**	**0,51**	**0,48**
Eraginak enpleguan	0,54	0,40	0,40
Eraginak salmentetan	0,66	0,55	0,54

Iturria: EUSTAT. Berrikuntza-adierazleen Panela

28ko EBren batez bestekoaren aldean, EAE lehen ***blokean nabarmentzen da (Esparru baldintzak)***. Hala:

- "Giza baliabideak" dimentsioan, hura osatzen duten hiru adierazleetan nabarmentzen da Euskadi: *25 eta 34 urte bitarteko graduatu edota doktore berriak* (2,24 milako, eta 1,85 milako 28ko EBn), *hirugarren mailako hezkuntza duten 25-34 urteko biztanleen %-a* (%53,8, eta %38,2 28ko EBn) *etengabeko irakaskuntzan parte hartzen duten 25-64 urteko biztanleen %-a* (%12,2, eta %10,8).
- "Ikerkuntza sistema erakargarriak" dimentsioan, hura osatzen duten hiru adierazleetan ere nabarmentzen da Euskadi: *baterako nazioarteko zientzia argitalpenen kopurua milioi bat biztanleko* (939, eta 494 28ko EB), *Nazioartean gehien aipatzen diren argitalpenen %-a* (bikainak) (%10,64, eta %10,56) eta *doktore atzerritarrak eta herrialdeko doktore guztien %-a* (%30,24, eta %25,57).
- "Berrikuntzarako ingurune egokiak" abiadura handiko banda zabaleko sareen ezarpena eta ekintzailetza neurtzen ditu, eta arlo horretan, *Banda zabalaren sartze-maila* nabarmentzen da Euskadi (%25,5, eta %13).

Bigarren ***blokean (Inbertsioak)***, nabarmentzekoa da "Enpresen inbertsioa", non EAEk 28ko EBren moduko (0,47) emaitza duen indize konposatuan. Hiru adierazle biltzen ditu, *Gastu pribatuan I+G-n eta BPGd-aren gaineko %-a* (%1,39, eta %1,3), *Gastua berrikuntzan, ez I+G-koan, negozio-zifraren ehuneko gisa* (%0,51, eta %0,76), eta *Beren pertsonalak IKTetan dituen ahalmenak garatzeko edo hobetzeko prestakuntza ematen duten enpresak* (%25,24, eta %22,0).

Hirugarren ***blokean (Berrikuntza jarduerak),*** EAE "Berritzaileak" dimentsioan nabarmentzen da. Hain zuzen adierazle hauetan: *Produktuan edo prozesuan berritzaileak diren ETEak ETEen % gisa (%*33,31, eta %30,90) eta *barne berrikuntza duten ETEak ETEen % gisa* (%31,11, eta %28,77). Hirugarren adierazlean, marketinean edo antolaketan berritzaileak diren ETEak ETEen % gisa, emaitzak ez dira hobeak (%20,85, eta %34,89).

Gainerako dimentsioetan, "Finantziazioa eta laguntza", "Loturak", "Aktibo intelektualak", "Eragina enpleguan" eta "Eragina salmentetan", lorturiko puntuazioak Europako batez bestekoak baino txikiagoak dira.

6.1.5. 2014-2020KO Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren planaren jarraipena

Planaren ezarpen maila zehazteko, ondoren azalduko den aginte-taula egiten du Eusko Jaurlaritzak (Lehendakaritza, 2018ko otsaila), eta horren kopuruetatik ondorio hauek atera daitezke:

- Helburuak hauexetan lortu dira: RIS3ren lehentasunekin parekaturiko zentro teknologikoen eta ikuspegi askotariko ikerketa zentroen ikerkuntza portzentajea, produktu berriek fakturazioan duten salmenten portzentajea, euskal finantzazioak esparru programaren fondo guztiekiko portzentajea eta nazioarteko urteko finantzazio pribatua;

- Bilakaera norabide onean doala irizten zaio, baina erritmoa ez da nahikoa, zeren eta helburua nabarmen urruti baitago honako hauetan: zientzia argitalpen indexatuak, EPO patenteen eskaera, doktoreek ikerlari guztiekiko duten portzentajea eta enpresetako ikerlariak.
- Ezarritako helburuetatik urruntzen da bilakaera hauexetan: argitalpen indexatuen portzentajea lehen kuartilean, atzerriko I+G+b-ko finantzazioaren portzentajea, nazioarteko urteko finantzazio pribatua eta 10 lanpostutik gorako enpresa berritzaileek guztiarekiko duten portzentajea.
- Aldi berean, zalantzak sortzen dira ea egoki aurreratzen den I+G+b-ko jardueren Mix-erantz (oinarrizko ikerkuntzaren %/industriako ikerkuntzaren %/garapen esperimentalaren %).

I+G gastuari dagokionez, goranzko joera ikusten da bada ere, bidea dago egiteko helburuak lortzeari begira. Eta 2014-2016ko aldian egin beharreko inbertsiorako aurreikuspenei dagokienez, aurreikuspenen %92,6 bete dira. Bestalde, Eusko Jaurlaritzak aurreikusiekiko burutze-maila %103,6 da.

II.6.20 TAULA. ZTBP-REN BALANTZEA (2017)

Helburuak	Adierazlea	Iturria	Hasierako egoera	Bitarteko egoera	Egungo egoera	2020 helburua
1. I+G+b-ko inbertsioak eta baliabideak espezializazio esparruetan metatzea	RIS3ren lehentasun estrategikoekin parekaturiko ikerkuntzaren portzentajea	Eusko Jaurlaritza/ SPRI	%76 2013	N/D	N/D	%82
	RIS3ren lehentasunekin parekaturiko ikuspegi askotariko teknologia zentroen ikerkuntzaren portzentajea (1)	Eusko Jaurlaritza/ SPRI		%94,52 2014	%93,87 2015	%90
2. Oinarrizko ikerkuntza eta garapen esperimentala indartzea	I+G+b jardueren mixa (Oinarrizko inb. %a/industriako inb. %a/garap. esp. %a)	Eustat	14/47/39 2012	15/44/41 2014	16/44/39 2015	15/30/55
3. Emaitzetara bideratzea Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Sistema	Zientzia argitalpen indexatuak	Ikerbasque	4.637 2013	5.425 2014	5.479 2016	7.500
	Zientzia argitalpen indexatuen portzentajea lehen kuartilean	Ikerbasque	%54,70 2013	%53,70 2014	%51,62 2015	%55
	EPO patenteen eskaerak EPO(2)	Europako Patenteen Bulegoa	195 2014	192 2015	209 2016	287
		Eustat	%12,48	%16,23	%18,75	%15

	Produktu berrien salmentak fakturazioan duen portzentajea		2010	2013	2015	
4. I+G+b-ko nazioarteko funts gehiago erakartzea	Atzerriko I+G+b-ren finantzazioaren %-a	Eustat	%5,0	%7,7	%7,4	%8
			2012	2014	2016	
Euskadik H2020 delakoan duen partaidetza indartzea	Euskadik esparru programaren funts guztietan duen finantzazioaren %-a	Innobasque	% 0,89 LH7	%1,48 (2014)	%1,03 (2015)	%1,00
			(461 M€) LH7	(140 M€) 2014	(331,63M€) (2014-2016)	(805 M€)
I+G+b-ko nazioarteko inbertsio pribatuak erakartzea	Nazioarteko urteko finantzazio pribatua	Eustat	6 M€	20 M€	15 M€	18 M€
			2012	2014	2015	
5. Enpresa berritzaileen kopurua handitzea	10 lanpostutik gorako enpresa berritzaileek guztikoan duten portzentajea	Eustat	%45,50	%44,40	44,40%	%50
			2012	2014	2015	
	I+G egiten duten enpresak guztizkoarekiko (3)	Eustat	0,95%	1,02%		N/A
			2012	2014		
6. Ikerlarien prestakuntza hobetzea	Doktoreen portzentajea ikerlari guztiekiko	Eustat	29,0%	29,4%	%30,40	%35
			2012	2014	2015	
	Doktoreen portzentajea enpresetako ikerlari guztiekiko	Eustat	%8,6	N/D	N/D	%10
			2013	2014	2015	
	Doktorego titulua duten enpresetako ikerlariak. Guztizko kopuruak (4)	Eustat	5.779	5.932	5.952	6.719
			2013	2014	2015	
Adierazleak		**Iturria**	**Zenbatetsia 2014**	**Benetakoa 2014**	**2016**	**2020 helburua**
Gastua I+G-n guztira		Eustat	1.326 M€	1.290 M€	1.291 M€	1.909 M€
Gastua I+G-n finantzabideen arabera	Herri administrazioak eta Goi-mailako ikask.	Eustat	461 M€	457 M€	472,5 M€	590 M€
	Enpresen finantzazio pribatua	Eustat	779 M€	734 M€	719,6 M€	1.167 M€
	Kanpoko finantzazioa (Europa eta nazioartea)	Eustat	86 M€	99 M€	94,9 M€	152 M€
AURREIKUSITAKO INBERTSIOAK 2014-2016 (ITURRIA: ZTBP)		**BENETAKO INBERTSIOAK 2014-2016** (ITURRIA: EUSTAT)				
Guztira: 4.162 M€		Guztira: 3.854 M€ (%92,6)				
Eusko Jaurlaritza: 1.098 M€		1.138 M€ (%103,6)				

(1) Sare osoaren datuak lortu arte, askotariko ikuspegiko teknologia zentroak eta ikerkuntza zentroak izan dira, Emaitek programatik kontrolatzen direnak
(2) Hasieran, EPO eta PCT patenteei buruzko eskaerei zegokien adierazlea. PCT patenteei buruz dugun informazioa 2012ra artekoa dela kontuan hartuta (ELGA), soilik EPO patenteak sartzea erabaki da. Sarturiko helburua aurrekoarekiko proportzionala da.
(3) Adierazle osagarria, Batzorde Zientifiko Aholku-emailearen gomendioari jarraituz. Enpresa berritzaileen datua lortzen deneko inkesta lagin izaerakoa dela eta erakunde bakoitzaren irizpidea oinarri hartuta egiten dela kontuan hartuta, datu hori I+G egiten duten enpresen datuarekin osatzea erabaki da, datu objektiboagoa eta irmoagoa baita. Alabaina, 2017tik berriz ere garrantzi handiagoa ematen zaio berriro enpresa berritzaileen ehunekoaren adierazleari, RIS eta EISen hainbat adierazletan banatzen baita (Nazioarteko erreferentziako adierazle sintetikoak)
(4) Adierazle osagarria, Doktoretza duten pertsonei buruzko kopuru absolutuak ematen dituena. Alabaina, iturriak berak aitortzen du egokia izango litzatekeela ez bakarrik doktoreen kopurua baloratzea, baizik eta oro har enpresetan dauden ikerlarien kopurua ere bai.
Iturria: Eusko Jaurlaritza. Lehendakaritza, 2018ko otsaila.
Oharra: koloretan oinarrituriko gradazioa geuk eginikoa da, Planean ezarritako helburutik hurbil egotearen edo ez egotearen arabera.

6.2. INFORMAZIOAK ETA KOMUNIKAZIOAK ETA TEKNOLOGIA

6.2.1. FAMILIEN ETA POPULAZIOAREN IKTEN EKIPAMENDUAK ETA ERABILERAK

EUSTATen *"Familien Informazioaren Gizarteari buruzko Inkestak (FIGI)"*[44] erakusten duenez, 2017ko lehen hiruhilekoan EAEko etxeen %70,7k ordenagailua zuen, hots, 15 urte eta gehiagokoen %77,9k. Aurreko urtearen aldean, bi ratioek gora egin dute (%0,6 kasu bakoitzean). Bestalde, telefono mugikorra du familien % 95ek. 15 urteko eta gehiagoko biztanleei dagokienez, %97,1eraino igotzen da telefono mugikorra dutenen ehunekoa. Bestalde, familien %78,9k internet du etxean(+4,8 puntu portzentual), eta %,4,1 egin du gora sarerako sarbidea duten 15 urte eta gehiagokoen ehunekoak, hots, %85,3an kokatu da.

[44] *6 urte eta gehiago dituzten eta familia-etxeetan bizi direnen multzoa.*

Familia motaren arabera, eutsi egiten zaio aurreko urteetako joerari, halako moldez non seme-alabak dituzten familiak baitira orain ere ekipamendu maila handienak dituztenak. Bigarrenik, bikotekide bakarreko familiak eta ondoren pertsona bakarreko etxeak.

Interneteko konexioari eta erabilerari dagokienez, euskal herritarren %75,1 interneteko erabiltzailea da. Sexuen arabera, 15 urte eta gehiagoko gizonen %77,6 interneteko erabiltzailea da. Emakumeak, berriz, %72,8. Generoen arteko aldeak murrizten jarraitzen du: 2015eko lehen hiruhilekoan, 8,3 puntukoa izan zen, 5,9koa 2016ko lehen hiruhilekoan eta %4,8koa 2017ko lehenbizikoan.

II.6.21. TAULA. BIZTANLERIAREN IKT-EN EKIPAMENDUAK ETA INTERNETEKO ERABILTZAILEAK. LEHEN HIRUHILEKOAK

Etxeen eta 15 urte edo gehiagokoen ekipamenduak					Interneteko erabiltzaileak				
	2015 (%)	2016 (%)	2017 (%)	Aldakuntzako portzentaje puntuak, 16-17		2015 (%)	2016 (%)	2017 (%)	Aldakuntzako portzentaje puntuak, 16-17
Familiak	**100**	**100**	**100**		**Interneteko biztanleria**	**71,7**	**74,1**	**75,1**	1,0
					Gizonak	76,0	77,1	77,6	0,5
Ordenagailua	70,6	70,1	70,7	0,6	Emakumeak	67,7	71,2	72,8	1,6
Telefono mugikorra	93,4	94,8	95,0	0,2	*15-24 urte*	99,1	99,0	98,7	-0,3
Internet	70,2	74,1	78,9	4,8	*25-34 urte*	97,0	96,2	98,2	2,0
Seme-alabadunak	92,7	93,5	96,2	2,7	*35-44 urte*	95,8	97,1	96,5	-0,6
Bikote bakarrekoak	55,6	61,3	68,6	7,3	*45-54 urte*	86,6	92,4	91,7	-0,7
....Pertsona bakarrekoak	44,6	51,9	58,9	7,0	*55-64 urte*	67,2	74,4	78,9	4,5
15 urte edo gehiagokoak	**100**	**100**	100		*65 urte eta gehiago*	21,1	22,5	25,2	2,7
					Ikasten	98,7	99,2	98,7	-0,5
Ordenagailua	78,4	77,3	77,9	0,6	Lanean	91,8	94,2	95,5	1,3
Internet	78,0	81,2	85,3	4,1	Langabezian	42,5	46,9	47,9	1,0
Ordainketako TBa	26,3	26,3	34,5	8,2	*Etxetik sartzen dira*	96,3	97,3	97,8	0,5
DVDa	63,0	62,7	53,9	-8,8	*Lanetik sartzen dira*	42,5	39,0	36,5	-2,5
					Ikastetxetik sartzen dira	11,2	11,1	9,8	-1,3
Telefono mugikorra	95,9	96,8	97,1	0,3	*Beste toki batzuetatik sartzen dira*	18,3	17,0	24,2	7,2

Iturria: EUSTAT, ESIF

Adina denaz bezainbatean, ia euskal gazte guztiek (15-44 urte bitartekoak) erabiltzen dute Internet (%98,7k 15-24 urte bitartekoa adin-tartean, %98,2k 25-34 urte bitarteko adin-tartean eta %96,5k 35-44 urte bitarteko adin-tartean). Ondoren 45 eta 54 urte bitartekoena da, %91,7koa hain zuzen ere. Nabarmentzekoa da 55-64 urte bitarteko erabiltzaileetan izandako igoera berriz ere, %4,5ekoa hain zuzen ere (gehi aurreko igoerak). Hala, adin-tarte horretako biztanleen %78,9arengana iristen da.

Jarduerari dagokionez, ikasleen % 98,7 Interneteko erabiltzailea da. Langileen artean, berriz, % 95,5 da erabiltzaile, eta jardunean ari ez diren eta langabezian dauden pertsonen artean, berriz, %47,9.

Familia-etxea da oraindik ere Interneten sartzeko tokirik gogokoena, zeren eta erabiltzaileen % 97,8 etxetik konektatzen baita. Behera egin du Interneten lanetik (%3,65) edo ikastetxetik (%9,8) sartzen direnen kopuruak, hurrenez hurren, %2,5 eta %1,3. Bestalde, gora egin du beste toki batzuetako sarbideak, eta joera aldaketa horretan, toki publikoetako sarbideari buruzko aipamenen igoera.

Gure Erkidegoak Estatuaren (Autonomia Erkidegoak) eta EBko herrialdeen (NUTS 2 erregioak) duen egoera erlatiboaren berri izateko, ondoren NUTS 2 erregistroetan (familiako kideren batek 16-74 bitarteko adina duten familien portzentajea) etxetik interneten sartzeko modua duten familien portzentajea azalduko dugu. EUROSTATen arabera, Autonomia Erkidegoetako konparaziozko datuek honelako datuak ematen dituzte: EAEk %87 du, eta aurretik dira Nafarroa (%88), Ceuta (%88), Madril (%89) eta Illes Balears (%89). Alabaina, portzentaje hori urruti dago Europako iparraldeko eskualdeetan ikusten diren erreferentzietatik; izan ere, hainbat kasutan %90 gainditzen dute, eta batzuetan %100a.

II.6.2 GRAFIKOA. ETXETIK INTERNETEKO KONEXIOA DUTEN FAMILIEN PORTZENTAJEA (16-74 URTE BITARTEKO FAMILIAKO KIDEREN BATEK), 2017



Iturria: Eurostat eta Espainiako NUTS eskualdeak

6.2.2. IKTen ekipamenduak eta erabilerak EAEko enpresetan

EUSTATen *"Informazioaren Gizarteari buruzko inkesta. Enpresak"* delakoak erakusten duenez, oro har euskal enpresek gero eta gehiago erabiltzen dituzte IKT ekipamenduak, eta gero eta handiagoa da teknologia horiek erabiltzen dituzten enplegatuen ehunekoa.

2017an, establezimenduen aldetik, telefono mugikorra da orain ere ekipamendurik hedatuena, eta ondoren ordenagailua, interneteko konexioa eta posta elektronikoa. Hala, beren langileen eskura telefono mugikorra jartzen dutenen portzentajea %89,7 da (hala ere, ezarpenak behera egin du aurreko urtearen aldean, %2,6 hain zuzen ere). Ordenagailua dutenena, berriz, %88,6 da, hain zuzen ere azken urtean %1 gora egin ostean. %87,8k du Interneteko sarbidea eta %86,7k, berriz, posta elektronikoa. Horrez gain, enpresen erdiak (%51,4k) web orria dauka, aurreko urteko ratio bera. Jarduera-sektoreen arabera, industriaren sektorekoak diren establezimenduek ezarpen teknologikoaren portzentaje handiagoa dute, eta ondoren zerbitzuen sektorekoak eta eraikuntzaren sektorekoak. Azterturiko ekipamendu guztietan gertatu da industriaren sektorearen zuzkidura teknologiko handiagoa.

Teknologia berriak erabiltzen dituzten enplegatuen ehunekoari dagokionez, EUSTATen arabera, berriz ere gertatu da igoera aurreko urtearen aldean. Hala, %71,3k ordenagailua du, %65ek posta elektronikoa eta %64,3k internet. Jarduera-sektoreen arabera, beste urte batez, aurreko urtean ez bezala (establezimenduen %-a), zerbitzuen sektorea gailentzen da. Hala gertatu da, funtsean, zerbitzuen sektorean badirelako zenbait jarduera horrelako ekipamenduak sartzeko eta erabiltzeko joera handiagoa dutenak.

Enplegu-estratuen araberako analisiak erakusten duenez, lehenik eta behin, IKT ekipamenduak gero eta hedatuagoa daude establezimenduaren tamaina handitzen den heinean. Bigarrenik, enplegu handiagoko tamaina izan ahala, hobekuntza-marjina txikia dela eta, txikiagoak dira ekipamenduetako hazkundeak. Eta hirugarrenik, alde biak gehiago ikusten dira establezimenduen kopuruaren aldetik enpleguaren aldetik baino. Halaxe gertatzen da, besteak beste, establezimendu txikien aurrerapen handiagoagatik eta establezimendu handietan enplegatu guztiek ekipamendu horiek eskura ditzaketelako.

II.6.22. TAULA. EAE-KO ESTABLEZIMENDUETAKO IKT EKIPAMENDUEN BILAKAERA JARDUERA-SEKTOREAREN ARABERA (establezimenduen %-a)

	Industria					Eraikuntza					Zerbitzuak					GUZTIRA				
	PCa	e-mail	Internet	Tlf mug.	Web	PCa	Email-a	Internet	Tlf mug.	Web	PCa	e-mail	Internet	Tlf mug.	Web	PCa	e-mail	Internet	Tlf mug.	Web
2012	86,6	82,7	82,6	90,2	51,7	70,4	67,3	67,8	90,0	27,6	77,9	73,4	74,0	79,9	41,3	77,5	73,2	73,8	82,1	40,2
2013	87,4	85,1	84,7	89,8	57,7	80,5	79,8	78,7	89,3	29,8	81,9	77,8	78,3	82,0	44,1	82,1	78,6	78,8	83,6	43,2
2014	89,4	86,9	86,8	92,2	59,6	77,9	77,5	77,6	92,8	34,1	83,0	79,3	81,2	86,3	48,0	82,8	79,7	81,2	87,5	47,1
2015	92,1	90,6	90,1	94,1	61,0	83,2	83,8	84,1	96,3	36,6	86,0	83,2	83,6	88,5	51,6	86,1	83,8	84,1	89,8	50,5
2016	92,7	91,4	91,2	95,4	64,0	83,9	80,4	84,1	98,8	31,2	87,7	85,2	86,1	91,0	53,4	87,6	85,1	86,2	92,3	51,4
2017	93,0	93,0	91,7	95,3	64,3	85,5	85,4	87,2	95,4	34,1	88,7	86,4	87,5	88,4	52,8	88,6	86,7	87,8	89,7	51,4
Dif.	0,3	1,6	0,5	-0,1	0,3	1,6	5	3,1	-3,4	2,9	1	1,2	1,4	-2,6	-0,6	1	1,6	1,6	-2,6	0

Iturria: EUSTAT, ESI enpresak

II.6.23. TAULA. ENPRESETAKO IKT-AK TAMAINAREN ARABERA (Establezimenduen %-a)

	Ordenagailua		Posta elektronikoa		Internet		Tfno. Mug.	Web orria
	Establ. %	Enpleg. %	Establ. %	Enpleg. %	Establ. %	Enpleg. %	Establ. %	Enpleg. %
Guztira	**88,6**	**71,3**	**86,7**	**65,0**	**87,8**	**64,3**	**89,7**	**51,4**
Industria	93,0	57,1	93,0	47,5	91,7	45,0	95,3	64,3
Eraikuntza	85,5	54,2	85,4	55,7	87,2	54,8	95,4	34,1
Zerbitzuak	88,7	76,6	86,4	70,6	87,5	70,5	88,4	52,8
Enplegu-estratuak								
0 - 2	83,3	76,5	81,2	73,2	83,3	76,5	89,9	35,1
3 - 9	93,7	72,6	91,8	65,1	91,6	67,0	88,5	65,9
10 - 19	99,1	63,9	97,6	58,8	97,7	59,6	92,6	82,7
20 - 49	99,6	69,6	98,7	61,9	99,3	61,7	96,1	89,7
50 - 99	99,9	71,6	100,0	65,7	99,7	63,1	97,4	95,5
100 eta gehiago	99,5	70,4	99,5	64,5	99,5	61,1	98,2	95,9

Iturria: EUSTAT, IGI enpresak

EINen "*Enpresetako IKTen eta posta elektronikoen erabilerari buruzko Inkestak*" honako adierazle hauek darabiltza IKTen erabilera maila zelakoa den neurtzeko: Interneteko konexioa duten enpresak, Internetera konektatuta daude eta web orria duten enpresak, Internetera konektatuta dauden eta banda zabala duten enpresak, Internetera konektatuta dauden eta izenpe digitala duten enpresak, Internetera konektatuta dauden eta hodeiko konputazio soluzioak (cloud computing) erosten dituzten enpresak (horien artean daude posta elektronikoa, fitxategiak gordetzea, enpresako datu-baseen zerbitzaria eta hainbat software mota.

2017ko lehen hiruhilekoaren datuak ikusita, web orria duten enpresen ratioa eta banda zabala duten enpresen ratioa handiagoa da EAEn estatuko batez bestekoa baino (EAEn, ratioak, %98, %83,1 eta %82,1 dira eta Estatuan, %98,7, %77,7 eta %82,4, hurrenez hurren). Alabaina, txikiagoak diren enpresa hauen ratioak: izenpe elektronikoa erabiltzen duten enpresak (%70,7 eta %77,1), hedabide sozialak erabiltzen dituzten enpresak (%40,5 eta %49,6) eta hodeian "cloud computing" konputazio irtenbideak erosten dituzten enpresak (%19,6 eta %24,6).

Madrilgo, Kataluniako eta Valentziako erkidegoetan kokaturiko egoitzak dituzten 10 langile edo gehiagoko enpresak dira IKTak gehien erabiltzen dituzten enpresak.

II.6.24. TAULA. ENPRESAREN EGOITZA NAGUSIA DAGOEN AAEE-KO IKT-EN ERABILERA. 2017KO LEHEN HIRUHILEKOA
(interneteko konexioa duten 10 langile edo gehiagoko enpresen guztizkoaren gaineko portzentajea)

	Interneteko konexioa	Internet eta web orria	Banda zabal mugikorra	Izenpe digitala	Bitarteko sozialen erabilera	Cloud computing-a
ANDALUZIA	99,7	70,7	83,3	77,7	48,2	20,6
ARAGOI	98,7	82,1	82,2	79,7	48,0	24,5
ASTURIAS	97,8	79,6	73,3	80,8	42,9	20,1
BALAREAK	99,2	70,8	79,0	73,3	53,0	22,2
U. KANARIARRAK	98,1	65,7	73,9	71,0	48,9	20,4
KANTABRIA	98,5	77,2	83,5	71,6	47,4	16,7
GAZTELA ETA LEON	98,8	76,4	78,5	81,2	47,0	19,6
GAZTELA-MANTXA	98,6	72,1	80,4	78,9	37,6	13,7
KATALUNIA	98,9	85,2	83,9	77,0	53,9	35,1
VALENTZIA	99,3	79,7	85,8	80,2	52,7	21,1
EXTREMADURA	97,8	71,4	85,3	77,0	54,0	12,0
GALIZIA	98,5	73,2	80,5	78,8	42,5	16,4
MADRIL	97,9	78,5	84,1	75,1	53,9	31,3
MURTZIA	99,0	69,8	78,2	77,9	45,7	16,2
NAFARROA	98,3	82,9	80,9	76,2	43,6	15,7
EAE	**98,0**	**83,1**	**82,1**	**74,7**	**40,5**	**19,6**
ERRIOXA	98,2	**82,2**	76,2	77,8	**44,5**	15,8
CEUTA	100,0	72,0	73,3	87,2	38,6	26,3
MELILLA	96,7	35,6	82,0	77,7	21,2	6.9
ESTATUA	**98,7**	**77,7**	**82,4**	**77,1**	**49,6**	**24,6**

Iturria: EIN.Enpresetako IKTen erabilerari eta merkataritza elektronikoari buruzko inkesta

6.2.3. INTERNETEN ERABILERA EAEKO HERRITAR ETA ENPRESETAN[45]

Arestian esana dugunez, 2017an, enpresa guztien %51,4k zeukan web orria, eta egonkor eutsi zaio ehuneko horri aurreko urtearen aldean. Bestalde, 10 enplegatu edo gehiagoko enpresetan, kopuru hori %89,1 da, hain zuzen 0,3 puntu hazi ondoren. Interneteko konexioa duten enpresak bakarrik kontuan hartzen baditugu, ehuneko handiagoak dira, enpresa guztien %58,5 eta %90,2 10 enplegatu edo gehiagokoetan.

II.6.25. TAULA. WEB PRESTAZIOAK EAE-KO WEB GUNEA DUTEN ESTABLEZIMENDUETAN ENPLEGU-MAILAREN ARABERA (WEB GUNEA DUTEN ESTABLEZIMENDUEN %-a).

	2016		2017	
	Establezi-mendu guztiak	10 lanpostu edo gehiag. establez.	Establezi-mendu guztiak	10 lanpostu edo gehiag. establez.
Enpresari buruzko informazio orokorra	98,6	99,4	98,9	98,8
Ondasun eta zerbitzuen zerrenda edo kat.	64,7	66,2	66,9	67,4
Eskariak onartzea edo on-line erreserbak	24,7	25,5	23,9	26,4
Produktu/zerbitzuen zuzeneko ordainketa	16,8	18,5	17,1	20,2
Eskarien jarraipena	13,8	16,8	14,5	18,2
Salmenta ondoko zerbitzua	20,2	24,3	21,8	23,5
Enpresekiko profiletarako estekak hedabide sozialetan	42,7	46,8	44,0	48,1
Informazioaren pribatutasunari buruzko adierazpena	61,6	73,3	67,1	73,4
Lan eskaintzei buruzko informazioa	23,0	42,0	24,2	42,1
Edukiak ohiko erabiltzaileentzat pertsonalizatzea	13,3	19,8	12,3	16,1
Ezinduentzako irisgarritasuna (AA egiaztagiria edo maila handiagokoa)	14,6	22,2	14,6	21,3
Produktuak pertsonalizatu edo diseinatzeko posibilitatea	5,7	6,8	6,7	7,6

Iturria: EUSTAT. Informazioaren Gizarteari buruzko Inkesta-IGI enpresak.

Web guneetan ematen diren prestazioak aztertuz gero, 2017an hauexek ziren (2016an bezala): enpresari buruzko informazio orokorra izatea (establezimendu guztien %98,9 eta 10 enplegu edo gehiagoko establezimenduen %98,8), informazioaren pribatutasunari buruzko adierazpena izatea (%67,1 eta %73,4) eta ondasunen edo zerbitzuen zerrenda edo katalogoa edukitzea (%66,9 eta %67,4, hurrenez hurren). Ondoren, ehuneko txikiagoarekin bada ere,

[45] *Ez dago familien eta biztanleriaren interneteko erabilerari buruzko informazio berririk. Eskuragarri dugun azkena 2015eko Memoriaren azken edizioan dago jasota.*

honako enpresa hauek daude: hedabide sozialetan profilak dituztenak (%44 eta %48,1), enplegu eskaintzak argitaratzen dituztenak (%24,2 eta %42,1) eta one-line eskariak edo erreserbak jasotzea ahalbidetzen dutenak (%23,9 eta %26,4).

Eskuratu daitezkeen hizkuntzei dagokienez, EUSTATen arabera, gaztelania nabarmentzen da, kasuen %98,7an, euskara %38,0an, ingelesa %28,9an eta beste hizkuntza batzuetan %11,9.

6.2.4. Merkataritza elektronikoa EAEn

a) Familiak eta erabiltzaileak

EUSTATen arabera, 15 urte edo gehiagoko biztanleen %34,7k erosketaren bat egin zuen Interneten 2017. urtean, aurreko urtean baino gehiago.

Hona hemen ondasunik erosienak: kirol materiala eta arropa (%54), bidaiak eta oporretako ostatuak (%26,3, beheranzko joerari eusten badio ere) eta etxerako produktuak (%22).

Gora egin du Interneten ordaintzeak segurtasun handia edo nahikoa ematen duela uste dutenen portzentajeak (%75,3tik %86,1era). Izan ere, kreditu-txartela emanda ordaintzea ez da arazo handia 2017an erosketaren bat egiten dutenen %76,8arentzat, baina ratio hori pixka bat txikiagoa da 2016an ikusitakoaren aldean (%79,1).

II.6.26. TAULA. INTERNETEN EROSKETAK EGIN DITUZTEN EAE-KO 15 URTE ETA GEHIAGOKOAK, ESKURATURIKO ONDASUNEN ETA ORDAINTZEKO ERAREN ARABERA ETA ORDAINTZEKO SEGURTASUNARI BURUZKO IRITZIA

	2014	2015	2016	2017
Erosi dute	**28,3**	**35,8**	**33,8**	**34,7**
Eskuraturiko ondasunak (a)				
Kirol-materiala, arropa	42,8	57,7	51,9	54,0
Bidaiak, opor-ostatuak	33,9	62,0	31,4	26,3
Beste produktu edo zerbitzu batzuk	21,4	8,8	12,4	11,8
Etxerako produktuak	14,8	30,9	18,7	22,0
Elektronika	14,1	25,3	15,9	16,6
Liburuak, aldizkariak	13,5	29,6	11,0	18,0
Ikuskizunetako sarrerak	10,8	49,4	22,5	17,7
Material informatikoa	8,6	20,0	8,4	10,0
Softwarea, bideo-jokoak	4,9	14,4	4,0	4,8
Musika, musika-tresnak	4,8	11,3	2,5	6,2
Elikagai-produktuak			9,9	9,6
Erosketak ordaintzeko era (a)				
Kreditu-txartelarekin ordainduta	71,1	86,7	79,1	76,8
Kontu korrontearen bidez ordainduta	7,4	21,5	9,4	5,8
Jasotakoan ordainduta	9,5	20,1	8,0	5,3
Harpidetzaren bidez ordainduta	1,3	5,6	1,6	1,2
Ordaintzeko beste era bat	28,7	18,6	22,4	24,2
Ordaintzeko segurtasunari buruzko iritzia				
Asko	21,6	18,4	23,2	24,6
Nahikoa	51,3	59,6	52,1	61,5
Gutxi	19,3	18,1	18,1	12,1
Bat ere ez	7,8	3,9	6,7	1,8

(a) erantzun bat baino gehiagoko galdera
Iturria: EUSTAT, ESIF

b) Enpresak

Eustaten datuen arabera, EAEko enpresa-ehunean merkataritza elektronikoa sortzen dituzten zenbaki ekonomikoetan nabarmen handitu da 2017an. Hala, Interneten bidez edo beste sistema elektroniko batzuen bitartez (datuen truke elektronikoa (EDI) eta abar) egindako salmenten negozio-bolumena 15.341 milioi eurokoa izan zen, eta erosketena 11.581,3 milioi eurokoa. Hortaz, 2015etik salmenten bolumena %10 igo da, eta erosketena %11,7.

Bestalde, 2016an establezimenduen %26k egin zituen merkataritza elektronikoko eragiketak (ehuneko hori aurreko urtekoa baino portzentajezko 0,4 puntu txikiagoa da); hala ere, 2012 eta 2016 urte bitartean %6,3 egin du gora ratioak (%19,7tik aipaturiko %26ra).

Berriz ikusten denez, salmentak erosketak baino handiagoak izan arren kopuruan, partaidetzari dagokionez, handiagoa da produktuak bitarteko elektronikoen bidez erosten dituztenen kopurua salmentak egiten dituztena baino.

Hala, %26ko proportzioa gehienbat erosketak egiten dituzten establezimenduengatik da, %24, eta neurri txikiagoan salmentak egiten dituztenenak, %6,5.

Zenbatespenen arabera, 42.900 establezimenduk egiten dute merkataritza elektronikoa. Establezimenduotan, prozedura horren bidez egiten diren erosketa guztien %33,3 direla zenbatesten da, eta salmentak, berriz, salmenta guztien %35,1.

Zenbaki horiek aldatu egiten dira establezimenduen tamaina kontuan hartuz gero. Hala, 10 langile edo gehiago dituzten establezimenduetatik %29,7k merkataritza elektronikoa egiten du, aurreko urtean baino %0,3 gutxiago. Segmentu horretan askoz handiagoak dira erosketa elektronikoak egiten dituztenak ere, zeren eta %25,8 baitira, eta pisu txikiagoa dute erosketak bide beretik egiten dituztenek, %11,9, 2016an bietan 0,5 puntu portzentual igo ondoren, hurrenez hurren.

EUROSTATen datuen arabera, online salmentak (Internet, EDI edo beste bitartekoren baten bidez) egin zituzten hamar lanpostu edo gehiagoko enpresen portzentajea (finantza-sektorea kontuan hartu gabe) %18ra igo da 2017an 28ko EBn eta eurogunean. Eta online erosketak (gutxienez eskarien %1) egin zituzten enpresen ehunekoa %26 da EB28n eta %27 eurogunean.

II.6.27. TAULAK. SALEROSKETAK ENPLEGU-ESTRATUAREN ARABERA (MILIOI €)

	Erosketak					Salmentak				
	2012	2013	2014	2015	2016	2012	2013	2014	2015	2016
Guzt.	**7.207,6**	**8.090,8**	**9.326,1**	**10.518,0**	**11.581,3**	**10.699,2**	**11.072.3**	**12.124,6**	**13.732,6**	**15.341,0**
Enplegu-estratuak										
0 - 9	2.082,9	2.610,0	3.009,4	3.347,8	3.863,6	2.067,2	2.157,1	2.165,5	2.523,8	2.798,7
10 eta gehiago	5.124,7	5.480,8	6.316,7	7.170,2	7.717,7	8.632,0	8.915,2	9.959,1	11.208,8	12.542,3

Iturria: EUSTAT. Informazioaren Gizarteari buruzko Inkesta -IGI enpresak.

II.6.28. TAULA. MERKATARITZA ELEKTRONIKOA EGITEN DUTEN ESTABLEZIMENDUEN BILAKAERA (28-KO EB-N ETA EUROGUNEAN) (%)

	Guzt., establezimenduak, EAE					10 langiletik gorakoak										
						EAE					28-EB**			EUROGUNEA**		
	2012	2013	2014	2015	2016	2012	2013	2014	2015	2016	2015	16	17	2015	16	17
Posta elektronikoa	**19,7**	**21,6**	**24,8**	**26,4**	**26,0**	**27,7**	**27,5**	**28,8**	**30,0**	**29,7**	**-**	**-**		**-**	**-**	
Erosketak	18	19,7	23,1	23,9	24,0	23,6	23,4	25,0	25,3	25,8	24	24	26	25	25	27
Salmentak	4,6	5,2	6,0	6,5	6,5	10,4	10,0	10,8	11,4	11,9	17	18	18	17	18	18
Erosketen g. % *	33,7	29,4	30,6	31,3	33,3	33,7	27,0	28,3	31,0	30,7	-	-	-	-	-	-
Salmenten g. % *	36,6	35,9	38,9	39,8	35,1	42,8	36,2	37,8	42,6	42,1	-	-	-	-	-	-

** Merkataritza elektronikoa egiten duten establezimenduetan, salerosketen batez besteko % salerosketa guztiekiko*
*** (%1 gutxienez). Finantza sektore barik*
Iturria: EUSTAT. IGI-enpresak, EUROSTAT eta geuk eginikoa

6.2.5. Administrazio elektronikoa

EUSTATen arabera, goranzko joera izan da azken urteetan Administrazioarekiko izapidetze elektronikoa eskatu duten enpresen kopuruan, eta Administrazioak berak, aldi berean, gero eta gehiago ezarri izan ditu egin beharreko gestioetan soilik bitarteko elektronikoak erabiltzeko moduak. Horrez gain, 2018ko urriaren 2an indarrean sartuko dira Administrazio Publikoetako Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen ondorioz administrazio elektronikoaren gainean ezarritako xedapenak. Hori dela-eta, egun horretatik hasita, zerbitzu publikoetan sartzeko bitarteko elektronikoen aukera ahalbidetu behar izango zaie herritarrei eta, beraz, administrazioarekiko izapidetze elektronikoari buruzko zenbakiek gora egingo dute seguru asko.

II.6.29. TAULA. INTERNETEKO SARBIDEA DUTEN EAEko ESTABLEZIMENDUEK HERRI-ADMINISTRAZIOAREKIN EGINDAKO IZAPIDE ELEKTRONIKOAK, LURRALDE HISTORIKOAREN, JARDUERA-SEKTOREAREN ETA TAMAINAREN ARABERA (establezimenduen %)

	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2017
Guztira	**61,8**	**64,0**	**63,8**	**67,2**	**67,7**	**83,3**	**89,9**
Araba	60,9	65,7	69,3	69,8	70,0	82,8	90,0
Bizkaia	62,3	62,6	61,7	64,9	66,5	83,6	89,7
Gipuzkoa	61,5	65,3	64,8	69,5	68,6	83,1	90,2
Jarduera sektorea							
Industria	61,9	63,8	65,8	68,5	70,0	86,9	94,5
Eraikuntza	63,6	68,0	66,4	70,4	62,7	83,3	88,2
Zerbitzuak	61,4	63,3	63,2	66,6	68,3	83,0	89,7
10 lanpostu eta +	**85,2**	**87,8**	**91,3**	**92,1**	**93,1**	**91,6**	**94,8**
Araba	86,1	86,0	90,0	91,2	93,6	89,6	91,7
Bizkaia	83,7	87,2	91,3	91,8	93,7	91,4	95,7
Gipuzkoa	87,0	89,5	91,9	92,9	91,9	92,9	95
Jarduera sektorea							
Industria	89,7	90,2	93,1	93,3	93,5	93,7	98,3
Eraikuntza	81,8	90,7	90,1	92,1	94,5	98,3	99,8
Zerbitzuak	84,1	86,5	90,8	91,7	92,8	90,3	93,3

Iturria: EUSTAT. Informazioaren Gizarteari buruzko Inkesta IGI Administrazioa.

Hala, 2011tik 2017ra honako igoera izan da interneten bidez izapideak egiten dituzten enpresetan: % 61,8tik % 89,9ra. Lurraldeka, Araban % 90 dago, % 89,7 Bizkaian eta % 90,2 Gipuzkoan. Eta jarduera-sektoreak aintzakotzat hartuz, industria nabarmendu beharra dago (%94,5), bai eta zerbitzuak (%89,7) eta eraikuntza ere (%88,2).

Portzentaje horiek handiagoak dira 10 langile edo gehiagoko enpresak kontuan hartzen baditugu: Interneteko sarbidea duten enpresak %85,2 izatetik izapide horiek Interneten bidez egiten dituztenak %91,8 izatera. Lurraldeka, Araban %91,7 dugu, %95,7 Bizkaian eta %95 Gipuzkoan. Jarduera-sektoreen arabera, eraikuntza nabarmentzen da (%99,8), eta ondoren industria (%98,3) eta zerbitzuak (%93,3).

Zuzenean egin daiteke izapidetze hori, edo hirugarrenen bitartez (aholkularitza enpresak), edo bi prozedurak erabiliz. EUSTATen arabera, establezimendu guztien %46,6k egin du izapideren bat zuzenean. %63,3k, berriz, hirugarrenen bitartez. 10 langile edo gehiagoko establezimenduetan, handiagoak direnez bitarteko gehiago dituztela-eta, neurri handiagoan egiten dute izapidetzea zuzenean (%82). Hirugarrenen bitartekoan, berriz, ratioa %50,7raino jaisten da.

II.6.30. TAULA. IZAPIDE ELEKTRONIKOAK HERRI ADMINISTRAZIOAREKIN INTENETEKO SARBIDEA DUTEN ESTABLEZIMENDUETAN EAE-N, EGINIKO IZAPIDEAREN ETA TAMAINAREN ARABERA (establ. %).

	2016		2017	
	Guztira	10 langile eta gehiago	Guztira	10 langile eta gehiago
Izapide elektronikoak egiten dituzten herri administraz.	**83,3**	**91,6**	**89.9**	**94.8**
Informazioa eskuratzea	60,6	81,9	61,1	83,1
Inprimakiak eta formularioak eskuratzea	61,8	80,7	60,5	80,6
Inprimakiak eta formularioak Beteta itzultzea	49,5	73,9	49,2	74,8
Administrazio prozedura erabat elektronikoki izapidetzea	42,3	65,9	40,7	64,6
Proposamenak lizitazio elektronikoko sisteman aurkeztea (e-procurement)	11,6	19,3	10,8	20,5
Langileen kotizazio sozialak aitortzea	51,3	69,5	59,2	72,8
Sozietateen gaineko zerga aitortzea	52,6	68,8	65,1	72
Balio erantsiaren gaineko zerga aitortzea (BEZ)	63,8	70,3	74,3	73,2
Zerga bereziak edo aduana eskubideak aitortzea	10,8	24,3	10,3	26,9
Beste izapide edo zerbitzu batzuk	3,4	3,7	6,1	5,3

Iturria: EUSTAT. Encuesta sobre la Sociedad de la Información -ESI Administración.

Enpresek administrazioarekin egiten duten izapidetze motari dagokionez, hauexek nabarmentzen dira establezimenduetan: BEZaren aitorpena egitea (guztizkoaren %74,3), sozietateen gaineko zergaren aitorpena egitea (%65,1), informazioa lortzea (establezimenduen %61,1) eta inprimakiak eta formularioak eskuratzea (%60,5). 10 langile edo gehiago dituzten establezimenduei dagokienez, hauexek nabarmentzen dira: informazioa eskuratzea (horrelako establezimenduen %83,1), inprimakiak eta formularioak eskuratzea (%80,6), inprimakiak eta formularioak beteta itzultzea (%74,8), BEZa aitortzea (%73,2), enplegatuen kotizazio sozialak aitortzea (%72,8) eta sozietateen gaineko zerga aitortzea (%72).

Horrelako izapideak egiteko interneteko konexioa duten establezimenduek erabilitako administrazioari dagokionez, hauexek nabarmentzen dira: Foru Aldundiak (%75,4) eta Administrazio Zentrala (%70,), portzentaje horietan zerga nagusien gainean dituzten eskumenak barne direla. Jarraian, Eusko Jaurlaritza ageri da (%44,4), eta ondoren tokiko erakundeak (%28,9) eta Europar Batasunekoak eta bestelakoak (%8,2).

II.6.3. GRAFIKOA
HERRI ADMINISTRAZIOAREKIKO IZAPIDEAK ELEKTRONIKOKI EGITEN DITUZTEN EUSKAL ESTABLEZIMENDUAK, 2017 (%)



Iturria: Eustat, IGI-Administrazioa

Portzentaje horiek berriz ere handiagoak dira 10 langile edo gehiagoko establezimenduak bakarrik hartzen baditugu kontuan. Tamaina horretan, Administrazio Zentrala nabarmentzen da, sarerako konexioa duten tamaina horretako establezimenduen %83,6k baitihardu elektronikoki harekin. Ondoren, Foru Aldundiak (%80,6), Eusko Jaurlaritza (%71,4), tokiko erakundeak (%43,1) eta azkenik EB eta beste batzuk daude (%20,3).

ITURRIAK:

1. **EUSTAT.** Ikerketa zientifiko eta garapen teknologikoko jarduerei buruzko estatistika. 2016. Urterokoa. Koiunturala.
2. **EUSTAT**. Enpresen I+G jarduerei buruzko eskaera. 2016. Urterokoa. Koiunturala.
3. **EIN**. I+G jarduerei buruzko estatistika. 2016. Urterokoa. Koiunturala.
4. **EUROSTAT**. Science and Technology. Datu-basea. 2016. Urterokoa. Koiunturala.
5. **UPV-EHU**. UPV-EHU zenbakietan. Urterokoa. Koiunturala.
   Ikerketa Errektoreordetza. I+G jarduerei buruzko eskaera. 2016. Urterokoa. Koiunturala.
6. **EUSTAT**. Berrikuntzari buruzko inkesta. 2014-2016 aldia. Urterokoa. Koiunturala.
7. **EIN**. Enpresetan berrikuntzari buruzko Inkesta. 2016. Urterokoa. Koiunturala.
8. **EUSTAT**. Europako berrikuntzako adierazleen panela. IUS 2017. Urterokoa. Koiunturala.
9. Lehendakaritza. Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Planaren jarraipena. Urteko eskaera
10. **EUSTAT**. Informazioaren gizarteari buruzko inkesta. Familiak. 2017. Urterokoa. Koiunturala.
11. **EUSTAT**. Informazioaren gizarteari buruzko inkesta. Enpresak. 2017. Urterokoa. Koiunturala.
12. **EUSTAT**. Informazioaren gizarteari buruzko inkesta. Administrazioa. 2017. Urterokoa. Koiunturala.
13. **EIN**. Etxeetako informazioaren eta komunikazioaren teknologien erabilerari eta ekipamenduari buruzko inkesta. 2017. Urterokoa. Koiunturala.
14. **EIN**. Enpresetako IKTen eta merkataritza elektronikoaren erabilerari buruzko inkesta. 2017ko lehen hiruhilekoa. Urterokoa. Koiunturala.
15. **EUROSTAT**. Digital Economy and Society. Datu-basea. 2017. urtea. Urterokoa. Koiunturala.

7. EKONOMIA

7.1. LABURPENA

2017an, jarduera ekonomikoak, NMFren arabera, aurrerapen nabarmena izan zuen ***ekonomia aurreratuetan*** (%2,3, 2016an baino 6 hamarren gehiago) nahiz ***goranzko ekonomietan*** (%4,8, hots, 4 hamarren gehiago). Jardueraren hedapen horrekin batera, indartu egin da munduko merkataritza, inbertsioaren nolabaiteko gorakadarekin lotua. Izan ere, kontsumo pribatuak maila globalean hazkunderako funtsezko gakoa izaten jarraitzen badu ere, inbertsioak gorakada izan du, bereziki ekonomia aurreratuetan. Hala, Atzeraldi Handiaren ondorengo aldirik gehienean gertatu ez bezala, munduko merkatariaren aurrerapenaren erritmoa produktuaren hazkundea baino pixka bat handiagoa izan da (2017ko munduko BPGaren hazkundea baino 1,1 puntu gehiago).

Ingurumari horretan, munduko produktuaren hiru laurden inguru sortzen dituzten herrialdeetatik bi heren 2016an baino bizkorrago hazi ziren 2017an (hazkundearen urte arteko igoera izan duten herrialdeen proportziorik handiena 2010. urtetik).

Inflazioaren maila orokorrak berriz ere egin zuen gora, irailetik petrolioaren prezioa garestitzearen ondorioz. Aitzitik, ezkutuko inflazioa (erregaien eta elikagaien prezioak alde batera uzten dituena) neurri apalean hazi da. Munduko jardueraren egoera hobe hori ez dator bat presio inflazionisten gorakadaren zantzu urriekin.

Finantzen eta moneten egoerari dagokionez, Europako Banku Zentralak eta Japoniako Bankuak ez zituzten aldatu esku hartzeko tasak aurreko urtearen aldean. Lehenbizikoak %0,00aren inguruan eutsi zion urte osoan; bigarrenak, aldiz, -%0,10aren inguruan. AEBetako Erreserba Federalak, bestalde, hirutan igo zituen tasak, martxoan %1, ekainean %1,25 eta abenduan %1,5.

Dibisen merkatuari dagokionez, AEBko dolarraren egiazko aldaketa-tasak 1,184 $/€-an bukatu zuen urtea, 2016. urteko abenduko 1,054 $/€-ren aldean. Hots, %12,3ko balio-igoera izan zuen euroak yenarekiko eta libra esterlinarekiko.

Munduko burtsaren merkatuetan, IBEX 35ek urte arteko %21,4ko hazkundea izan zuen (2017ko abenduan 2016ko abenduarekiko), aurreko urteko %7,4aren aurrean; Nikkei %19,1 hazi zen noiz-eta 2016an %0,4 igo zenean; Dow Jonesek %25,1 egin zuen gora (+%13,4 2016. urtean); Euro Stoxx zabala, berriz, %10,1 hazi zen (%1,5 aurreko urtean).

Eurogunean, 2009-2010ean izandako susperraldi laburrean ez bezala (produktuaren hazkundea nahikoa desberdina izan zen lurraldeen arabera), egungo hedapena orokorragoa da, eta balio erantsiaren hazkunde-tasen sakabanaketa txikiagoan islatu da herrialdeetan eta sektoreetan, EBZren datuen arabera.

Hala, 2017an, BPGaren hazkundeko batez besteko tasa, urte arteko kopuruetan eta bolumenean, %2,4aren inguruan kokatu zen EBZren eta EUROSTATen arabera (2007tik izandako ratiorik handiena).

Eskariaren aldetik, kontsumo pribatuaren eta inbertsioaren hazkundea da aurrerapenaren oinarria, baita esportazioena ere. Izan ere, mundu mailan izandako susperraldiaren onura jaso dute, euroaren truke-tasaren ondoriozko kontrako zenbait eragin gorabehera.

Kontsumo pribatuaren urte arteko batez besteko hazkunde-tasa %1,8 da, baina urteko azken lauhilekoan nolabait moteldu dela ikusten da. Berez, emaitza gaurkotuagoak lortzeko adierazle kuantitatiboek emaitza desberdinak ematen dituzte, eta deigarria da txikizkako salmenten beherakada.

Inbertsioari dagokionez, enpresen inbertsioak goranzko bideari eutsi dio, finantzaziorako oso baldintza onei eta enpresen errentagarritasunaren hobekuntzari esker; eta eraikuntzako inbertsioak, 2015ean argi eta garbi hondoa jo ondoren, goranzko bidean jarraitu du.

Eskaintzaren aldetik, arestian esana dugunez, produktuaren hazkundea orokorra izan zen sektore ekonomiko guztietan. Industriako BEGaren hazkundea, urte arteko tasan, igo egin zen 2017an, %3,3aren inguruan kokatuta (hiruhilekoaren goranzko profila ageri da, lehen hiruhilekoan +%1,8, eta azkenean +%4,6koa da laugarrenean). Merkatuko zerbitzuen sektorean, berriz, %2,3aren ingurukoa izan zen, 2016an izandakoa baino handiagoa ere (hiruhilekoaren goranzko profila ageri da horretan ere, +%2,1arekin hasita lehen hiruhilekoan eta azkenean +%2,4 laugarrenean). Aldi berean, erakuntzaren balio erantsiak krisiaren aurreko mailaren azpitik jarraitu bazuen ere, susperraldian sartu zen, lehen hiruhilekoan %2,4an hasita eta azkenean %3,6 laugarren hiruhilekoan (urteko batez bestekoa: %3).

Lan-merkatuek suspertzen jarraitu zuten 2017an. Langabezia-tasa murriztuz joan zen urte horretan ere, eta %9,1aren inguruan kokatu zen, 2009ko hasieratik izandako txikiena.

Herri administrazioen zorra berriz ere jaitsi zen 2017an ia estatu guztietan, Frantzian izan ezik (gutxi gorabehera berdintsu eusten dio), baita Luxenburgon eta Eslovakian ere (hazi egin da bertan). 19ko eurogunean, zor publikoa %86,7koa izan zen BPGarekiko. 2016an, berriz, %89koa izan zen.

Defizitari dagokionez, eurogunean, defizit publikoa BPGaren %1 izan zen. 2016an, berriz, %1,6koa. Bakarrik Espainian gainditu zen BPGaren %3ko muga (-%3,1). Hauexek ditugu -%1,5 eta -%3 artean: Irlanda, Estonia, Letonia, Finlandia, Austria, Eslovakia, Belgika, Polonia, Erresuma Batua, Hungaria, Italia; Frantzia, Errumania eta Portugal. Gainerakoetan superabita izan zen.

Espainiako ekonomia ardatz hartuta, EINen arabera, BPGak urte arteko %3,1eko hazkunde izan zuen 2017an, hots, 2016ko baino 2 hamarren gutxiago eta eurogunekoa baino puntu eta erdi gehiago (%2,4).

Estatuko eskariak hazkundearen eragile nagusia izateari eusten dio, BPGaren hazkundeari %2,8 ekarrita, 2016an baino hiru hamarren gehiago, hauexek bultzatuta: kontsumo pribatuaren jokabide onak (+%2,4, 2015ean baino 5 hamarren gehiago) eta ekipo-ondasunen inbertsioaren joera hobeak (+%6,1, urtebete lehenago %4,9koa izan ondoren). Kanpo-eskariak hazkundeari egiten dion ekarpena 3 hamarrenekoa da, 2016an baino lau gutxiago, inportazioetan izandako susperraldia esportazioena baino handiagoa izan baita. Hala, barne-eskariak nahiz kanpo-eskariak ekarpen positiboak egin zizkioten 2017an BPGaren hazkundeari bigarren urtez jarraian.

Eskaintzaren aldetik, industriaren eta eraikuntzaren hazkundea nabarmentzen da. Hala, urte osoan, urte arteko kopuruetan eta bolumenean, industria %3,7 hazi zen (+%3,8 manufaktura-industrian, 2016an baino hiru hamarren gehiago) eta eraikuntzan %4,9 (2016an baino 3 puntu gehiago). Bestalde, zerbitzuen sektoreak %2,6 egin zuen gora, 2016an baino 4 hamarren gutxiago. Jarduera-adarretan hazkundeak izan ziren, finantza- eta aseguru-jardueretan izan ezik, %1,5eko jaitsiera izan baitzuen (2016koa baino jaitsiera handiagoa: -%0,8)

Ingurumari horretan, Espainiako ekonomiaren finantza-egoera hobetu zen munduaren gainerakoaren aldean. Berriz ere superabita izan zuen, 23.081 M€ lortuta, hots, BPGaren %2. Hala eta guztiz ere, Estatuko Administrazio Publikoek, guztira 36.233 milioi euroko defizita izan zuten 2017an; horren ondorioz, BPGaren ratioa %4,5etik %3,1era igaro zen 2016 eta 2017 urteen artean. Datuak bereizita, Administrazio Zentralak, autonomia-erkidegoek (AAEE) eta Gizarte Segurantzak superabita zutela itxi zuten ekitaldia berriz ere, ekitaldi honetan %0,6m 2016ko ratio bera.

Diru-sarrerak direla eta zerga nagusietako zerga-bilketak, autonomia erkidegoen eta tokiko korporazioen partaidetza aintzat hartuta, hazkundea izan zuen (+%4,3). Bestalde, Estatuak onartutako obligazioak %0,9 txikitu ziren.

Ondoko lerrootan, ***EAEko bilakaera ekonomia*** jorratuko dugu.

EUSTATen Jarduera Ekonomikoen Direktorioaren (JEGID) 2017ko azken datuen arabera, guztira 158.806 enpresa ziren jardunean EAEn (lehen sektorekoak barne), eta orotara 874.241 pertsonari ematen diete lana. Beraz, batez besteko tamaina 5,5 lanpostukoa da enpresako.

2016 eta 2017 bitartean, enpresa kopurua % 0,2 jaitsi da, baina enplegua %2,4 hazi da. 1.896 establezimendu eskasek, kopuru osoaren % 49,2k hain zuzen, 50 enplegu edo gehiago dituzte, guztira 430.384 lanpostu (guztien % 49,2, %48,8 2016an eta %48,3 2015ean). Aitzitik, 120.166 enpresa, kopuru osoaren % 76 (%76,6 2016an) ez da iristen 3 lanpostura eta enplegu osoaren % 16,8 bakarrik hartzen dute (%17,4 2016an).

Euroguneko batez besteko tamaina 5,2 lanpostukoa da enpresako (2015eko datuak), eta 28ko EBn 5,4, EAEkoaren antzekoa. Batez besteko horien gainean daude Alemania (10 lanpostu), Luxenburgo (9,9), Erresuma Batua (8,8), Danimarka (8, 2014ko datua) eta Austria (7,3) eta Kroazia (7).

Enpresa-errotazioari buruzko azterketak agerian uzten duenez, 2017ko urtarrilaren 1ean, enpresa-kopuruaren (lehen sektorekoak aintzat hartuta) jaitsieraren ondorio nagusia ondokoa izan zen: 16.179 enpresa hasi ziren jardueran data horretarako eta, 16.529 enpresak, berriz, itxi egin zuten. Horrela, saldo gordina -350ekoa da. Bestalde, enpresak sortzeko tasa gordina, urte zehatz bateko alten kopurua zati aurreko urtean zegoen enpresa-kopurua bezala kalkulatuta, % 10,2koa da; itxitako enpresa-tasa, aldiz, % 10,4[46].

Ekonomi Kontuek erakusten dutenez, EAEko ekonomiaren BPGak %2,9ko hazkundea izan zuen 2017. urte osoan kopuru errealetan (2016an baino bi harreman gehiago).Ekoizpenaren hazkundea handiagoa da EAEn eurogunean baino (%2,9, %2,4aren aldean), baina Estatukoa baino txikiagoa (%3,1).

Hiruhilekoen profilak goranzko joera erakusten du urtean zehar, eta lehen hiruhilekoan urte arteko %2,8ko hazkundearekin hasi zen. 2015ean eta 2016an gertatu bezala, BPGaren hazkundea gertatu da funtsean barne-eskariaren jokabideagatik. Izan ere, %3,0 hazi zen, eta BPGaren %2,9ko igoerarekin batera, kanpo-eskariak ekarpen negatibo txikia izan du BPGaren hazkundean.

Barne-eskariaren aldakuntza-tasa positiboaren oinarriak izan dira Amaierako Kontsumoko Gastuaren hazkundea nahiz Kapitalaren Eraketa Osoarena. Lehenengoaren tasa %2,8 hazi da, lau urtez jarraian aldakuntza positiboak metatuta, baina beheranzkoak izan dira azken hiru urtean. 2017an, erregistro positiboak bildu ziren, bai familien Amaierako Kontsumoko Gastuan (azken urteetako erregistroak positiboak dira, baina beheranzkoak ere ageri dira, eta 2017an %3an kokatu zen) nahiz herri administrazioen Amaierako Kontsumoko Gastuan (%2,4).

Bestalde, KEG %3,5 hazi zen, eta 2016an bildutakoa baino lau hamarren gehiago dira. Bi bilakaera desberdin ageri dira KEGan: ekipo-ondasunen hazkundea handiagoa da KEGaren gainerakoa baino, eraikuntzari lotuago baitago. Hala, ekipo-ondasunaren KEGaren hazkundea %4,7 da; 2016an, berriz, %5,3 zen (eta %7,3 2015ean). Bestalde, eraikuntzako ondasunen KEG %2,7 da; 2016an, berriz, %1,8 izan zen. Alabaina, lehenbizikoa motelduz badoa ere, bigarrena haziz doa.

Kanpoko sektorearen bilakaeran, esportazioetan nahiz inportazioetan, aurreko urtekoak baino aldakuntza-tasa handiagoak ageri dira urte arteko batez bestekoetan. Esportazioek %3 egin zuten gora eta aurreko urtean, berriz, %1,7. Esportazioetan %3,1 hazi zen, aurreko urtean %1,5 izan ondoren. Urteko profilaren azterketak agerian uzten duenez, goranzko joera dago bi kasuetan. Hala, esportazioetan urteko lehen hiruhilekoan %1,5eko hazkundea izan zen, eta laugarrenean, azkenean, %4,8koa izan zuten. Inportazioetan, berriz, lehenengo hiruhilekoan %1,9koa izatetik laugarrenean %4,8koa izatera igaro zen.

"Kanpoko Merkataritzaren Estatistikak" (Aduanetako Erregistroak oinarri hartuta) ondasunen kanpoarekiko merkataritzari buruz emandako behin-behineko datuek erakusten dutenez, gora egin zuen esportazioen ohiko balioak

[46] *Heriotza-tasan, bajekin kalkulatzen da zatidura.*

2017an, %10,5 hain zuzen (orotara 23.856,7 milioi euro, hau da, 2016an baino 2.261 milioi gehiago): ez-energetikoetan %8,7ko hazkundea izan da (guztizkoaren %90,8) eta energetikoetan %32,2koa. Esportazioen urteko kopuru hori serie historikoko handiena da 1900. urteaz geroztik. Bestalde, guztizko inportazioek %20,5 egin zuten gora (orotara 18.652,6 milioi euro, 2016an baino 3.169 milioi gehiago), noiz-eta ez-energetikoen inportazioetan (guztizkoaren %73,1) %11,4 handitu zenean eta energetikoetan, berriz, %54,5.

Kanpoko saldoak 5.204 milioi euroko superabita zuen 2017an (2016an izandako baino 907,9 milioi gutxiago). BPGarekiko portzentajea %7,1 da, hain zuzen 2016koa baino %1,5 puntu gutxiago (%8,6). Ondasun eta produktu energetikoak eta ez-energetikoak bereizita, berriz ere ikusten da saldo energetikoa defizitarioa dela (-2.813,6 milioi euro). Ez-energetikoenak, aldiz, berriz ere izan zuen superabita, 8.017,6 milioi, hots, BPGaren %10,9, 2016an izandako ratio bera hain zuzen ere.

Eskaintzaren aldetik, Lehen Sektorean izan ezik, gainerako jarduera-sektore handietan aldakuntza positiboak izan ziren, eta Zerbitzuen sektorea nabarmentzen da %3,1eko hazkundearekin 2017. urtean. Tasa horretatik hurbil Industria kokatzen da, urte osoan %2,7ko hazkundea izan baitu. Aldi berean, Eraikuntzan %2,5eko hazkundea izan da.

Industriaren sektorean Manufaktura-industriak bere bilakaera orokorrari eutsi dio, hain zuzen %2,8ko tasarekin hazita. Hiru azpisektorek hartzen dute parte zerbitzuen sektoreko bilakaera positiboan. Dinamikoena merkataritza, ostalaritza eta garraioei dagokiena da, %3,7ko hazkundearekin. Bigarrenik, Gainerako zerbitzuak deritzona da, %2,8ko hazkundea izan baitu. Azkenik, Herri administrazioa, Hezkuntza, Osasuna eta Gizarte zerbitzuak deritzon adarrak lortu du bilakaera pixka bat apalagoa, %2,7 hazita.

2012 eta 2016 bitartean, BPGaren urteko batez besteko aldakuntza-tasa, kopuru errealetan, +1,7 izan zen. Aldakuntza negatiboa izan zuen jarduera-adar bakarra Finantza- eta aseguru-jarduerena izan zen (urteko -%0,9ko jaitsiera batez beste). Bestalde, hona hemen BPGaren hazkunde nagusiak: Telekomunikazioak (%3,9), Informatika (%2,8), Beste zerbitzu batzuk (%2,6), eta Jolas eta kultur jarduerak (%2,5, urteko batez besteko tasa).

Finantzen sektorea sakonduta, Espainiako Bankuaren datuen arabera, herri administrazioaren titulartasun peko gordailuen guztizko saldoa EAEn 3.226 milioi eurokoa zen 2017aren bukaeran, hots, %11,3ko gehikuntza. Beste sektore egoiliar batzuen gordailuak 76.435 M€ izan ziren, hau da, %4,4ko igoera 2016aren aldean. Gordailu horiek modalitateen arabera aztertzen baditugu (agerikoa, epea eta aktiboen aldi-baterako lagapena –AAL-), ikusiko dugu %71 ageriko gordailuak direla, %22,9 epe laburrerako gordailuak eta %2,1 AALei dagokie. Nabarmentzekoa da ageriko gordailuetan izandako %66ko gehikuntza, hain zuzen ere 2017an interes-tasen egoeragatik.

Hala, moneta-merkatuko interes-tasak eurogunean (gordailuak) negatiboak dira, eta gainera behera egin dute urteko batez bestekoan epe guztietan.

Bestalde, EAEn gordailu-erakundeek emandako guztizko krediduak behera egin zuen 2017an, bi urtez jarraian gora egin ostean. Hala, 71.564 milioi eurotik 70.862 M€-ra igaro da (-%1). Jaitsiera hori gertatu da bai Herri Administrazioei (-%5,5) nahiz sektore pribatuari emandako kredituaren beherakadagatik, baina azken hori (guztizkoaren %90,7 da) askoz neurri txikiagoan jaitsi da (-%0,5).

Euroguneko kreditu-erakundeek familiei eta IPSLH egoiliarrei EBB (UTB) maileguetan ematen dien interes-tasak gora egin zuen kontsumoan, %8,14tik %8,3ra 2016 eta 2017 bitartean, baina behera egin zuen etxebizitzan, %2,19tik %2,05era hain zuzen.

Burtsari dagokionez, Bilboko Burtsako 2000 Indizea 1.577,5 puntuetan kokatu zen 2017ko abenduan, hots, %6,1eko igoera 2016ko abenduko datuen aldean. Kontratazio bolumena (erosketak eta salmentak) 117.825,3 M€-koa zen, hots, %7,9ko igoera 2016aren aldean.

Euskal ekonomiaren enpleguaren bilakaera, lanaldi osoko lan baliokideetan neurtua, positiboa izan zen, batez beste %2,1 hazita 2017an. Zerbitzuen sektoreak izan du joerarik positiboena enpleguan, %2,2 hazi baita 2016aren aldean.

Aipatzekoa da industriaren sektorearen bilakaera, %1,7 hazi baita, eta oso hurbiletik jarraitzen du eraikuntzaren sektoreak (%1,6).

Inflazioari dagokionez, prezioetan 2017ko amaieran izandako igoera aurreko urtekoa baino pixka bat txikiagoa izan zen. Hala, 2017ko abenduan +%1,1ean kokatu ziren; 2016ko abenduan, berriz, +%1,5ean.

EINen "*Lan-kostuei buruzko Hiruhilekoetako Inkesta (LKHI)*"ren datuek erakusten dutenez, enpresen lan-kostua[47] EAEn %1,2 hazi zen 2017ko IV. hiruhilekoan 2016ko epealdi beraren aldean (Estatuan %0,7ko hazkundea izan zen), eta 3.114,6 euroan kokatu zen langileko eta hileko, hots, Estatuan baino 445,8 euro gehiago.

Lanaren ezkutuko produktibitateari dagokionez, 2017an %0,8ko hazkundea izan zen kopuru errealetan, hots, aurreko urtean baino %0,4 gutxiago. Mailaren araberako eta ez bilakaeraren araberako azterketak erakusten duenez, EAEk 127,9ko indizea du, Estatukoa baino %26,4 handiagoa, eta 28ko EBko batez bestekoa baino %27,9 eta eurogunekoa baino %20,7 handiagoa.

Bestalde, Ekonomia eta Lehiakortasun Ministerioaren Kanpo-inbertsioen Erregistroko datuen arabera, atzerriko inbertsioak EAEn behera egin zuen 2016 eta 2017 urte bitartean, atzerriko balioak dituzten enpresak deskontaturik (ABDE). Hortaz, bi urtez jarraian izan dira hazkundeak. Orotara, 2017. urtean 2.216 milioi euro jaso zituen EAEk. Horren zatirik handiena energia elektrikoa, gasa, lurruna eta aire egokitua hornitzeko sektoreari dagokio.[48] Hala, EAEk hirugarren tokia du inbertsioen bolumenean, Madrilen eta Kataluniaren atzetik. Sektoreen ikuspegitik, bereziki nabarmenak dira guztizkoan duen pisuagatik honako hauetan eginikoak: argindarraren, gasaren, lurrunaren eta aire egokituaren hornidura, informazioa eta komunikazioa eta motordun ibilgailuen fabrikazioa eta bestelako garraio-materiala. Lurraldeen aldetik, ELGAko herrialde batean kokatzen da, kasuen %99,1ean, inbertsioaren azken titularra bizi deneko herrialdea, 15eko EBko batean kasuen %96,1ean, eta %2,2 Mexikokoa da.

Euskal inbertsioa atzerrian, ABDEak deskontaturik, 2016ko igoeraren ondotik, berriz ere itzuli da aurreko urteetan erregistraturiko mailetara. Zehazki, 2017an 1.182 milioi euro dira, hots, %63,3ko jaitsiera aurreko urtearen aldean. Hala, EAE laugarren tokian da AAEEn rankingean atzerrian eginiko inbertsioan. Hauexek ditu aurretik: Madril, Katalunia eta Valentziako E.

Sektoreen aldetik, hauexek nabarmentzen dira: Makineriaren konponketa eta instalazioa, Finantza- eta aseguru-jarduerak eta Handizkako merkataritza, Txikizkakoa eta Motordun ibilgailuen eta motozikleten konponketa. Lurraldeen aldetik, EAEko inbertsioaren %72,3 ELGAko herrialdeetara dago bideratuta, %51,1 15eko EBko herrialdeetara eta %4,8 AEBetara.

Ekoizpen-azpiegiturei dagokienez, nabarmendu nahi dugu Estatuko erakunde publikoek (AENA, ADIF, PUERTOS eta RENFE) ingeniaritza zibilean EAEn eginiko esleipenei buruzko datuek (Sustapen Ministerioak argitaratuak) jaitsierak erakusten dituztela 2016 eta 2017 bitartean, AENAren kasuan izan ezik. ADIF Estatuko Sozietate Publikoak (Tren-azpiegituren Administratzailea) ingeniaritza zibilean EAEn eginiko esleipenek behera egin zuten, 73,4 milioi eurotik 16,6 milioi eurora, PUERTOSek eginikoak 114,7 milioi eurotik 42,2 milioi eurora, RENFEk eginikoak 1,9 milioitik 1,2 milioira. AENArena, berriz, 4,4 milioi eurotik 20,7 milioi eurora igaro da.

Garraio azpiegiturei dagokienez, edukiera handiko bideen portzentajea EAEn Estatuan baino handiagoa bada ere (%14,9 eta %10,3), EAEn ordaindu beharreko autobideen portzentajea askoz handiagoa da EAEn Estatuan baino (%17,8), batez ere lur gaineko errepidetako dentsitatea kontuan hartuta.

---

[47] *Industria, eraikuntza eta zerbitzuak (etxeko jarduerak izan ezik hala nola enplegatzaileak eta lurraldez kanpoko erakundeak).*

[48] *Alemaniako inbertsio hori guztia Gamesa eta Siemens Wind Power enpresak 2017ko apirilean izandako bat-egiteari dagokio.*

Bestalde, energiari buruzko zenbait datu ematen dituzte: oinarrizko energiaren ekoizpen propio urria (443 Ktep 2016an), EAEk energiaren aldetik duen eskariaren %7,1 betetzeko lain besterik ez. Hala, EAEren mendekotasun energetikoa %92,9an kokatu zen, eta portzentaje hori Estatukoa (%73,3) eta 28ko EBko batez bestekoa (%54) baino nabarmena handiagoa da. Adi berean, iturri berriztagarrietan oinarrituriko ekoizpenari esker (415 Ktep), barne kontsumo gordinaren %7 bete ahal izan zen (6.253 Ktep); hots, energia berriztagarriek barne kontsumo gordinean duen partaidetza-ratioa askoz txikiagoa da Estatukoa eta 28ko EBkoa baino (%14, eta %13 2015ean) eta Euskadiko 2020 Energia Estrategian (3E2020) gure Erkidegorako ezarritako %14ko helburutik urruti.

Energia-intentsitateari dagokionez, 2016an 13 puntu txikiagoa izan zen (hobekuntza) 2008an baino. 2015. urtearen aldean, %3ko hobekuntza izan zen BPGaren %3ko hazkundeari esker, energiaren amaierako kontsumoari eutsita. Beraz, ratioa 90etik 87ra igaro da.

Energiaren fakturari dagokionez, energiaren kostua laugarren urtez jarraian jaitsi da amaierako kontsumoan, %9,7 2016an, kontsumoaren murrizpen txikiari eta azken urteetako prezioak mantentzeko joerari esker. Hala, 4.978 milioi eurokoa da, eta 5.000ko mugatik jaitsi da lehen aldiz 2009tik.

EAEko sektore publikoa dela-eta, Eusko Jaurlaritzaren "*Aurrekontuen Betearazpenari buruzko Estatistika*"ren arabera, Eusko Jaurlaritzak eta hiru foru aldundiek 16.640,9 milioi euroko sarrerak likidatu zituzten orotara, hots, %6,3ko igoera aurreko urtearen aldean (hain zuzen ere +%2,8koa 2016. urtean), zeharkako zergen bilketaren bilakaera positiboagatik (batez besteko hazkundearen gainetik), %13,9 hazita, baita zuzeneko zergen igoera txikiagoagatik ere (%5,1), baina 2016an baino gehiago igo baita (%4,2ko hazkundea izan zuten). Bi partidok EAEko Sektore Publikoaren sarreren %86,2 ziren 2017an. Halaber, aurreko ekitaldian bezala, %11,7 egin zuen behera finantza-pasiboen aldakuntzak (-%7,9 2016an), Eusko Jaurlaritzaren (-%11,8) nahiz foru aldundien (-%11) zorpetze txikiagoarekin lotuta betiere. Sarreren hazkundeak antzeko bilakaera du administrazioen artean, zeren eta Eusko Jaurlaritzaren kasuan %8,2koa baita eta foru aldundiena, berriz, %9,3koa.

Balantzea emate aldera, EAEko Sektore Publikoen sarrerek EAEko BPGarekiko duten portzentajeak puntu erdi egin zuen gora 2017an (2016ko %22,1etik %22,5era, behin-behineko datuekin betiere).

Zuzeneko zergek eta zeharkakoek eta zerga guztien %90etik gorakoek osatzen duten Itundutako Zergen bilketan %11,8ko hazkundea izan zuen 2017an (orotara 14.473,9 milioi euro bildu ziren). Aurreko urtean, berriz, %2,7. Oro har ikusten denez, aurreko ekitaldian ez bezala, joera hobea izan du zeharkako zerga-ordainketak (+%16,4) zuzenekoak baino (+%7,2), eta zuzeneko zerga-ordainketaren igoera nabarmena gertatu da neurri handi batean BEZaren egokitzapen positiboagatik; izan ere, ezohiko sarrera hori ez da berriz izango datozen urteetan.

Orotara, 14.473,9 milioi euro bildu ziren, hau da, EAEko BPG korrontearen %19,7 2017. urtean, behin-behineko datuen arabera (%18,3 2016. urtean). Amaierako zerga-bilketa hori handiagoa izan da Finantzen Euskal Kontseiluak 2017ko urrian aurreikusitakoa baino, 106,2 milioi gehiago hain zuzen ere, eta lehen aldiz gainditu da 2007an bildutako bolumena krisia hasi zenetik. Sarreren %35,5 PFEZari dagozkio, %41,7 BEZari (gure kudeaketako eta barne eragiketen eta aduanen ziozko egokitzapenengatik), %7,7 Sozietateen gaineko Zergari eta %15,1 zenbait Zerga Bereziri.

EAEko Sektore Publikoaren guztizko gastua, 2017an, 16.129,5 milioi eurokoa zen (Tokiko erakundeak alde batera utzita), eta %5,3 hazi zen 2016aren aldean (aurreko urtean +%0,9koa izan zen). Beraz, EAEko BPGan duen portzentajea %0,3 handitu da, %21,6tik %21,9ra.

Gastuaren bilakaera positiboa izan da bai Eusko Jaurlaritzan (+%4,4) bai foru aldundietan (+%11,1), eta agregatuaren aldakuntza %5,3koa da, zeren eta zenbait partida erakundeen artean konpentsatzen baitira (transferentzien zati bat, esate baterako).

Gastuen kapituluen arteko aldakuntza esanguratsuenek zenbait ezberdintasun dituzte aurreko urteekiko: lehenik eta behin, pertsonalaren gastua puntu erdi gehiago hazi da 2015ean eta 2016an baino (%2,5), eta neurri txikiagoan aldundietan (+%2,9) Eusko Jaurlaritzan baino (+%2,5). Aldi berean, ohiko transferentziek azken lau ekitaldietako joera positiboari eutsi diote, eta gainera, proportzio handiagoan hazi dira (+%7,3, 2016ko %1,2aren aldean). Funtzionamendu gastuek (ondasunen eta zerbitzuen erosketari dagokionez), aldiz, aurreko hiru urteetako joerari eutsi diote, baina hazkunde apalagoa izan da (%2,4 hazita, aurreko urtean +%2,9 hazi ondoren). Inbertsio errealei dagokienez, 2010 eta 2015 bitartean etengabe behera egin ostean neurri handiagoan edo txikiagoan, 2016an %4,7ko igoera izan zuten, baina joera horrek ez du 2017an iraun, %0,3 jaitsi baita.

Eusko Jaurlaritzaren gastua ardatz hartuta, eta 2018ko maiatzean eguneraturiko 2017ko aurrekontuko kopuruen arabera, %8,6 hazi da 2016an eginiko gastuaren aldean (urte horretan %2 egin zuen gora). Gasturik handiena egin duten bi sail nagusiak, 2017an ere, Hezkuntza (guztizkoaren %23,9, baina kontuan hartu behar da Hizkuntza Politika eta Kultura aparteko saila direla 2017tik, aurrekontuko %2,2arekin) eta Osasuna (%31,6). Gastua, orotara, 11.256 milioi euro da, gure Erkidegoaren BPGaren %15,3.

2017an, EAEko Sektore Publikoaren (Eusko Jaurlaritza gehi foru aldundiak) ohiko sarrerek %8,8 egin zuten gora, baina gastu horiek neurri txikiagoan hazi dira (%4,7). Hori dela-eta, %67ko hazkundea izan da aurrezpen gordinean, 1.532,6 milioi euro izan artean. Zenbateko hori gure Erkidegoaren BPGaren %2,1 da (behin-behineko datuak). Horrez gain, 410 milioi euroko (BPGaren %0,6) superabit publikoa izan da (finantzatzeko ahalmena), finantzakoak ez diren gastuak (ohikoak gehi kapitalekoak) txikiagoak baitira horrelako sarrerak baino. Aurreko ekitaldian, 21,7 milioi euroko defizita izan zen.

2017ko Aurrekontuaren Betearazpenari buruzko Inkestak erakusten duenez, era berean, EAEko sektore publikoaren (Eusko Jaurlaritza gehi foru aldundiak) zorpetze garbia jaitsi egin da lau urtez jarraian, 2017an %47,9, krisiaren lehenbiziko urteetan igoerak izan ostean. Bestalde, zorpetze gordina %11,7 jaitsi da, eta orotara 1.162,3 milioi eurokoa da. Horietatik 975 milioi Eusko Jaurlaritzari dagozkio (-%11,8 2016aren aldean) eta gainerako 187,3 foru aldundiei (-%11). Horren ondorioz, ekitaldiaren amaieran, Eusko Jaurlaritzak eta foru aldundiek 11.410 milioi euroko zorra zuten, hain zuzen ere 2016an baino %2,3 gehiago (BPGaren %15,5, eta 2016an %15,6 zen). Beste urte batez, zorraren zatirik handiena Eusko Jaurlaritzari dagokio (zor guztiaren %82,8, %81,7 aurreko urtean).

Eta azkenik, enplegu publikoari dagokionez, EAEko herri administrazioek 131.973 enplegatu[49] zituzten 2016ko abenduaren 31n, EUSTATen "*Herri Administrazioen Direktorioa*"ren arabera. Hau da, aurreko urtean baino %1,2 gehiago eta EAEn 2016ko laugarren hiruhilekoan lan egiten zuten guztien %14,6 (2015eko ratio bera), BJAren okupazioari buruzko kopuruak kontuan hartuz gero. Datu horietan ez da kontuan hartu Estatuko administrazioaren eta Gizarte Segurantzaren sistemako langileen kopurua, baina Ogasun eta Funtzio Publikoko Ministerioak, 2017ko urtarrileko bere buletinean eginiko zenbatespenen arabera, Estatuko herri administrazioak egun horretan 11.075 langile zituen EAEn. Bi kopuruok batuz gero, 2016ko amaieran, 143.048 lagun ziren[50].

EUSTATen kopuruak berriz ere aztertuta, 2016ko abenduan ziren 131.973 enplegatu publikoetatik %65,3 EAEko administraziokoa zen, %19,6 tokiko erakundeetakoa, %8 foru aldundietakoa eta gainerako %7,1a unibertsitatekoa, fundazioetakoa eta beste erakunde publiko batzuetakoa. Bestalde, funtzionarioak langile guztien %62,3 ziren, %36,8 lan-itunpeko pertsonala zen, kasu bietan Osakidetzaren estatutuetako pertsonala barne; %0,9 goi-mailako kargudunak ziren.

Gainera, pertsonal finkoa (funtzionarioak, lan-itunpekoak eta estatutuetakoak) pertsonalaren %60,9 zen, %15 bitarteko funtzionarioak ziren eta %23,2 aldi baterako lan-itunpeko pertsonala zen.

---

[49] *Lanaldi osoko pertsonala.*

[50] *Hala ere, soilik zenbatespentzat hartu behar da kopuru hori, erreferentziako datak eta erabilitako metodologiak desberdinak direlako.*

I+G+b jarduerak 2016an 1.290,9 M€ euro inbertitu ziren EAEn, hots, azken urtean baino %1,4 gehiago eta hiru urtez kopuru negatiboak izan ondoren bilakaera positiboa itzuli da. Lurraldez historikoen arabera, Arabak guztizkoaren %11,8 egiten du, Bizkaiak %41,6 eta Gipuzkoak %46,6. Esfortzuaren aldetik, BPGd-aren %1,82 da, hots, beste jaitsiera bat (4 ehunen 2015aren aldean), eta jaitsierak metatu ditu lau urtez jarraian. EINek %18,9ko ratioa erregistratu zuen EAEn. Hori dela-eta, gure Erkidegoa Estatuko batez bestekoaren gainetik dago (%1,19).

Iturria edozein delarik, eurogunean izandakoa baino txikiagoa da esfortzua, % 2,12, eta arlo horretako erreferentziako herrialdeen azpitik: Suedia (%3,25), Austria (%3,09), Danimarka (%2,87), Finlandia (%2,75), Alemania (%2,94), Belgika (%2,49), Frantzia (%2,22%), Eslovenia eta Islandia; hala ere, herrialde horietako zenbaitetan ratioa egonkortu edo nabarmen jaitsi dela ikusten da hala nola Finlandian edo Eslovenian, EUROSTATen arabera.

Gastua egikaritzeari dagokionez, enpresek[51] %75,4 egikaritu zuten , %17,5 goi-mailako hezkuntzan, eta gainerakoa, %7,1 administrazioaren mende dauden erakundeetan. Egitura hori ez dator bat Estatuan dagoenarekin; izan ere, %53,7, %27,5 eta %18,5eko ehunekoak daude bertan, hurrenez hurren.

Hala, enpresa sektoreak jarraitzen du gastu gehien egiten, eta gainera %0,7ko igoera du bere partaidetza-portzentajean. Beraz, hautsi egin da enpresaren sektoreak 2006tik izandako partaidetza galtzeko joera.

Gastuaren finantzazioari dagokionez, sektore pribatuak gastuaren finantzazioan duen partaidetza %55,7aren inguruan mantentzen da (10,3ra puntura Europako helburutik: I+G arloko gastu guztiaren %66 funts pribatuekin finantzatzea). Administrazioak gastuaren %33,5 finantzatzen du, 2015ean izandako ratioa baino handiagoa (%33,4). Estatuan, EINen arabera, sektore pribatuak gastuaren % 46,7 finantzatzen du (Europako helburuaren 19,3 puntu azpitik dago) eta herri-administrazioak % 40. Eurogunean, EUROSTATen datuei jarraiki, 2015ean kopuruak %57,3 eta % 31,8koak izan ziren, hurrenez hurren. Herrialde hauetan I+G arloko gastuaren finantzaketa pribatuaren ratioa oso handia da: Japonia (%78), Txina, Hong Kong izan ezik (%74,7), Hego Korea (%74,5), Eslovenia (%69,2), Alemania (%65,6), AEB (%64,2), Danimarka (%59,4), Suedia (%57,3), eta Finlandia (%54,8). Bereziki deigarria da Finlandiaren kasua, non ratioak beherantz egin izan baitu %53,5era iritsi arte 2014an, baina 2015ean berri ere egin zuen gora, %54,8ra.

Hala, sektore pribatuak eta sektore publikoak finantzaturiko I+G BPGaren %1,02 eta %0,61 dira hurrenez hurren, 2015eko ratio berak. Europako helburuak %2 eta %1 dira 2020rako.

AOBko langileek (17.898 lagun: enpresa-sektore osoaren %70,6, eta %22,4 goi-mailako hezkuntzan eta %7 Administrazioan), hots, %1,8ko jaitsiera 2015ekoaren aldean. Sexuen araberako azterketak agerian uzten duenez, jarduera horretako langile guztien %35,6 emakumea da (aurreko urtearen antzeko ratioa).

Orain, enpresa-sektoreko I+G-ko adierazleak aztertuko ditugu, betiere Zientzia eta Teknologiako Euskal Sareko zentroak alde batera utzita. Lehenik eta behin, 1.254 enpresak egin zituzten I+G jarduerak (Zientzia eta Teknologiako Euskal Sareko zentro teknologikoak alde batera utzita) 2016an, hots, beste jaitsiera bat, oraingoan %16,5ekoa; horietatik 577 industria-sektorekoak dira (2015ean baino 141 gutxiago, -%19,6).

Jarduera horietako aritze edo lanaldi osoko langileei dagokienez, hor ere behera egin du berriz ere: lanaldi osoko 10.573,8 lagunetik 9.857,3 lagunera. Hots, enpresa-sektoreko AOBren %1,1 (ZTESeko zentroak alde batera utzita), azken urteotan behera egin baitu. Adar handietan banatuta, hauxe dugu: industriako lanpostu guztietan %2,6 I+G-ko jardueretan ari da. Aurreko urtean, berriz, %2,9.

Jarduera horietako enpresek eginiko guztizko gastua, aldiz, handitu egin da 2015 eta 2016 bitartean: %0,3. Badira aldeak sektoreen artean. Industrian eta eraikuntzan behera egin dute (-%0,9 eta -%49,1 hurrenez hurren).

[51] *Aintzat hartu behar da I+Gko gastuaren zati handi bat Teknologia Zentroen sarearen bitartez bideratzen dela, eta estatistika eragiketa honetan enpresa sektorearen barruan sartu dira, euren izaera juridikoa dela-eta.*

Bestalde, nabarmentzekoa da I+G egiten duten euskal enpresen batez besteko tamaina handia; izan ere, 70 lanpostu ditu, euskal enpresen batez besteko tamaina baino askoz gehiago (5,5 lanpostuko batez bestekoa da).

UPV/EHUk Ikerkuntza Erretoreordearen arabera, arestian aipaturiko partidatik kenduta, UPV/EHUk 2016an eginiko jarduera 53,1 milioi eurokoa izan zen, hots, %1,9ko jaitsiera aurreko aldiarekin erkatuta. Gehienak (%45,5, 24,2 milioi euro) ikerkuntza proiektuei dagozkie, eta ondoren, prestakuntzarako pertsonalaren funtsak datoz (%22,7, 12 M€) eta Unibertsitatea Antolatzeko Legearen (LOU) 83. artikuluaren itzalpean sinaturiko kontratuak, hots, funts guztien %17,6 dira (9,3 M€).

Funtsen jatorriari dagokionez, 2013-14 aldian funts autonomikoak izan ziren finantzabide nagusia (gutizkoaren %39,7), eta gauza bera gertatu zen 2015ean. 2016an, estatuaren eta autonomiaren finantzaketa eta finantzaketa propioak dira finantzabide nagusia, hots, guztizkoaren %24, %22 eta % 22 hurrenez hurren. Arlo zientifikoen arabera, I+G+b jardueretako gastua batez ere zientziei, ingeniaritzari eta arkitekturari dagokie.

Enpresen berrikuntza jarduerei dagokienez, EUSTATen “Berrikuntzari buruzko Inkesta”ren arabera, 2014-2016 aldian behera egin zuen enpresa berritzaileen portzentajeak, halako moldez non 2016an enpresen %16,4 baitziren (aurreko aldian baino 5 hamarren gutxiago).Portzentaje hori ateratzen da kontuan hartuta hala berrikuntza teknologikoko enpresak (produktuak eta/edo prozesuak berritzen dituzte eta enpresen %11,4 dira; aurreko aldian %11,9) nola teknologiaz aparte berrikuntza-jardueretan aritzen diren enpresak (antolamendua eta/edo merkaturatzea berritzen dituzte eta enpresen %9,4 dira, %9,5 aurreko aldian.

10 lanpostu eta gehiago enpresak bakarrik aintzat hartuz gero (EINekoekin alderatu ditzakegu), enpresa berritzaileen (teknologikoen eta teknologikoak ez direnen) portzentajea handiagoa da, % 34. Horretatik, % 27,9 berrikuntza teknologikoari dagokio eta % 19,4 berrikuntza EZ teknologikoa).

Estatuan, EINen “Enpresetako berrikuntzari buruzko inkesta”ren arabera, epealdi bereko ratioa %28,5 da (%28,6 aurreko epealdian) eta, beraz, EAEko ratioa baino txikiagoa.

Berrikuntza teknologikoa duten enpresen analisiari gagozkiolarik (arestian esana dugunez: enpresa guztien %11,4), 2016an gora egin zuen berrikuntza teknologikorako jardueretan eginiko guztizko gastuak. Hala, hautsi egin da azken lau urtean izandako beheranzko joera. Zehazki, %3,3 hazi zen 2015 eta 2016 bitartean, guztira 2.524,6 M€, hots, BPGd-aren %3,6 (%3,5 aurreko aldian), EUSTATen “Berrikuntza Teknologikoari buruzko inkesta”ren arabera. 10 langile edo gehiago dituzten enpresak soilik aintzat hartuz gero (tamaina horretako enpresa guztien %27,9), gastua 2.123,9 M€ da, hots aurreko urtean baino %2,1 gehiago, baina egonkor eusten dio BPGd-aren %3an.

“Europako Berrikuntzaren Adierazleen Panela, 2017” delakoak berretsi egiten ditu aurreko alderdiak, zeren eta EAEko adierazle sintetikoa 0,48 baita, Estatukoaren gainetik (0,39), baina pixka bat 28ko EBren azpitik (0,50). Hala ere, “berrikuntza maila handiko herrialde”en taldearen barruan dago, EBko 28ko batez bestekoa %95 delako.

28ko EBren batez bestekoaren aldean, EAE lehen blokean nabarmentzen da (Esparru baldintzak), hiru dimentsioetan: “Giza baliabideak”, “Ikerkuntza sistema erakargarriak” eta “Berrikuntzarako ingurune egokia”). Bigarren blokean (Inbertsioak), “Enpresen inbertsioa” dimentsioa nabarmentzen da. Eta hirugarren blokean (Berrikuntzako jarduerak), EAE “Berritzaileak” dimentsioan nabarmentzen da. Hain zuzen adierazle hauetan: Produktuan edo prozesuan berritzaileak diren ETEak ETEen % gisa (%33,31, eta %30,90) eta barne berrikuntza duten ETEak ETEen % gisa (%31,11, eta %28,77). Hirugarren adierazlean, marketinean edo antolaketan berritzaileak diren ETEak ETEen % gisa, emaitzak ez dira hobeak (%20,85, eta %34,89).

Gainerako dimentsioetan, “Finantziazioa eta laguntza”, “Loturak”, “Aktibo intelektualak”, “Eragina enpleguan” eta “Eragina salmentetan”, lorturiko puntuazioak Europako batez bestekoak baino txikiagoak dira.

EAEk familien edota biztanleriaren ***IKT ekipamenduen inguruan*** duen posizioa aztertuko dugu. EUSTATen “Familien Informazioaren Gizarteari buruzko Inkestak (FIGI)” erakusten duenez, 2017. urteko lehen hiruhilekoan EAEko etxeen %70,7k ordenagailua du, hots, 15 urte eta gehiagokoen %77,9k. Aurreko urtearen aldean, bi ratioek gora egin dute (%0,6 kasu bakoitzean). Bestalde, familien %78,9k internet du etxean(+4,8 puntu portzentual 2015eko urte bereko epealdian), eta %,4,1 egin du gora sarerako sarbidea duten 15 urte eta gehiagokoen ehunekoak, hots, %85,3an kokatu da hain zuzen ere.

EUROSTATen arabera, Autonomia Erkidegoetako konparaziozko datuek honelako datuak ematen dituzte: EAEk %87 du, eta aurretik dira Nafarroa (%88), Ceuta (%88), Madril (%89) eta Illes Balears (%89). Alabaina, portzentaje hori urruti dago Europako iparraldeko eskualdeetan ikusten diren erreferentzietatik; izan ere, hainbat kasutan %90 gainditzen dute, eta batzuetan %100a.

Transakzio elektronikoei dagokienez, EUSTATen arabera, 15 urte edo gehiagoko biztanleen %34,7k erosketaren bat egin zuen Interneten 2017. urtean, aurreko urtean baino gehiago. Hona hemen ondasunik erosienak: kirol materiala eta arropa (%54), bidaiak eta oporretako ostatuak (%26,3, beheranzko joerari eusten badio ere) eta etxerako produktuak (%22).

Enpresetako IKT ekipamenduak direla-eta, EUSTATen “Enpresen Informazioaren Gizarteari buruzko Inkestak” oro har erakusten duenez, euskal enpresetan gero eta ugariagoak dira IKT ekipamenduak, eta handituz doa teknologia horiek erabiltzen dituzten langileen portzentajea.

2017an, establezimenduei dagokienez, ekipamendurik hedatuenak orain ere telefono mugikorra eta ordenagailua dira, eta ondoren Internet eta posta elektronikoa. Jarduera-sektoreen arabera, industri sektoreko enpresek dute ezarpen teknologikoko mailarik altuena, eta ondoren zerbitzuen sektoreko enpresak eta eraikuntzako enpresak datoz. Industria-sektorean, gainera, ekipamendu guztiak daude zabalduta.

Teknologia horiek erabiltzen dituzten langileen portzentajeari dagokionez, EUSTATen arabera, berriz ere izan da igoera aurreko urtearen aldean. Jarduera-sektoreen arabera, beste urte batez eta aurreko kasuan ez bezala (establezimenduen portzentajea) zerbitzuen sektorea nabarmentzen da besteen gainetik. Halaxe gertatu da gehienbat zerbitzuen sektoreetan joera handiagoa dagoelako zenbait jardueratan horrelako ekipamendu motak sartzeko eta erabiltzeko.

Enplegu-estratuen araberako azterketak erakusten duenez, lehenik eta behin, IKT ekipamenduak hedatuago daude establezimenduaren tamaina handitzen den heinean. Bigarrenik, zenbat eta enplegu tamaina handiagoa izan, hobetzeko marjina txikia dela-eta, orduan eta txikiagoak dira ekipamenduetan izaten diren. Eta hirugarrenik, bi alderdi horiek gehiago ikusten dira establezimenduen aldetik enpleguaren aldetik baino. Hala da besteak beste establezimendu txikien aurrerapen handiagoagatik, baita establezimendu handietan langile guztiek ekipamendu horiek eskuratzerik ez dutelako ere.

Bestalde, “Enpresetako IKTen eta merkataritza elektronikoaren erabilerari buruzko inkestak” erakusten duenez, 2017ko lehen hiruhilekoaren datuak ikusita, interneteko konexioa, web orria duten enpresen ratioa eta banda zabala duten enpresen ratioa handiagoa da EAEn estatuko batez bestekoa baino ((EAEn, ratioak, %98, %83,1 eta %82,1 dira eta Estatuan, %98,7, %77,7 eta %82,4, hurrenez hurren). Alabaina, txikiagoak dira enpresa hauen ratioak: izenpe elektronikoa erabiltzen duten enpresak (%70,7 eta %77,1), hedabide sozialak erabiltzen dituzten enpresak (%40,5 eta %49,6) eta hodeian “cloud computing” konputazio irtenbideak erosten dituzten enpresak (%19,6 eta %24,6).

Enpresa-sareko merkataritza elektronikoari dagokionez, EUSTATen arabera, gorantz jarraitzen du kopuru ekonomikoetan, eta nabarmen egin du gora azken urtean (2016). Alabaina, behera egin zuen 2015 eta 2016 bitartean merkataritza elektronikoan parte hartzen duten enpresen portzentajeak; hala ere, 2012 eta 2016 urte bitartean %6,3 egin zuen gora ratioak (%19,7tik aipaturiko %26ra).

Establezimenduak tamainaren arabera bereizita, merkataritza elektronikoa egiten duten eta 10 lanpostu edo gehiago dituzten establezimenduen portzentajea %29,7 da, aurreko urtean baino %0,3 gutxiago (%26 oro har). Handiagoa da erosketa elektronikoak egiten dituztenen portzentajea (%25,8) salmentak egiten dituztenena baino (%11,9).

Emaitzek erakusten dutenez, EUROSTATen eta EUSTAT[52]en arabera , on line saldu duten (aurrekoaren %1 gutxienez) 10 langile edo gehiagoko enpresen portzentajea (finantza sektorerik gabe) handiagoa da 28ko EBn eta eurogunean EAEn baino (%18 eta %11,9); on line erosi duten enpresen portzentajea (eskarien %1 gutxienez), berriz, nahiko antzekoa da (%25,8 EAEn eta %26 28ko EBn eta %27 eurogunean).

Administrazio elektronikoari dagokionez, EUSTATen arabera, gora egin du azken urteetan administrazioarekiko izapidetze elektronikoa eskatzen duten enpresen kopuruak. Hala, 2011 eta 2017 bitartean, interneteko sarbidea duten eta izapide horiek egiten dituzten enpresen %61,8tik %89,9ra igaro da. Portzentaje horiek altuagoak dira 10 langile edo gehiago dituzten enpresak aintzat hartuz gero (%85,2tik %91,8ra).

Izapidetze hori zuzenean egin daiteke, hirugarrenen bitartez (aholkularitza enpresak...) edo bi prozedurak erabiliz. Hala, establezimendu guztien %46,6k zuzenean egin ditu izapideak. %63,3k, aldiz, hirugarrenen bitartez. 10 lanpostu edo gehiagokoen kasuan, tamaina handiagoa del- eta bitarteko gehiago dituztenez, zuzenean egiten dira neurri handiagoan izapide horiek (%82). Hirugarrenen bitartez egiten dutenen ratioa, berriz, txikiagoa da (%50,7).

Enpresak administrazioarekin egiten duen izapidetze motari dagokionez, hauexek nabarmentzen dira establezimenduetan: BEZaren aitorpena egitea (guztizkoaren %74,3), sozietateen gaineko zergaren aitorpena egitea (%65,1), informazioa lortzea (establezimenduen %61,1) eta inprimakiak eta formularioak eskuratzea (%60,5).10 langile edo gehiago dituzten establezimenduei dagokienez, hauexek nabarmentzen dira: informazioa eskuratzea (horrelako establezimenduen %83,1), inprimakiak eta formularioak eskuratzea (%80,6), inprimakiak eta formularioak beteta itzultzea (%74,8), BEZa aitortzea (%73,2), enplegatuen kotizazio sozialak aitortzea (%72,8) eta sozietateen gaineko zerga aitortzea (%72).

Horrelako izapideak egiteko interneteko konexioa duten establezimenduek erabilitako administrazioari dagokionez, hauexek nabarmentzen dira: Foru Aldundiak (establezimenduen %75,4 eta 10 lanpostu eta gehiagokoen %80,6) eta Administrazio Zentrala (establezimenduen %70,7 eta 10 lanpostu eta gehiagokoen %83,6).

7.2. EKONOMIA

Azterturiko datuek erakusten dutenez, 2017. urtea positiboa izan da euskal ekonomiarentzat. Izan ere, hazkundea izan da haren jardueran, eta hori lanpostuen gehikuntzan ere islatu da. Alabaina, goranzko bultzada hori moteldu egin da kontsumoan eta ekipo-ondasunen inbertsioan, eta ezin ahantz dezakegu ezen, 2017an inflazioaren presiorik izan ez bada ere, Petrolioa Esportatzen duten Herrialdeen Erakundeak hartutako akordioaren ondorioz, igoerak izan direla Brent upelaren prezioan. Euskal ekonomiaren mendekotasun energetikoa dela-eta, egoera horrek eragina izan dezake gure hazkundearen bidean.

[52] *Datuak ezin dira modu zuzenean alderatu, azterketa unitatean dagoen aldeagatik: enpresa eta establezimendua. Dena den, gutxi gorabeherako ikuspegia eskaintzen dute.*

Horren ondorioz, etorkizunari begira gure egitura ekonomikoan funtsezkoak izan diren alderdiak hobetzen jarraitu beharra dagoela esan daiteke. Xede hori izanik, bereziki garrantzizkotzat jotzen dugun aurrerabideko zenbait arlo gogoraraziko ditugu.

- Euskal enpresaren tamaina txikia konstantea da EAEko ekoizpen-egituran. Egungo nazioarteko lehiakortasunaren ingurumarian, alderdi hori zuzendu beharra dago ahal den neurrian, zeren eta, osterantzean, ezin izango baitzaie aurre egin nahikoa bermeekin berrikuntzei eta nazioartekotze-prozesuei. Horretarako, euskal enpresen arteko lankidetza, ituntzea eta elkarlana bultzatzeko estrategiak handitu eta finkatu behar direla esan behar da berriz ere, baita jakintza eta topaketa sareak eta lankidetzarako inguruneak indartzen jarraitzea ere, klusterrak esaterako.

- Zerbitzuen sektorearen eraketaren bilakaerari erreparatu behar zaio. Batez ere sormen eta kultura jarduera goranzkorrei dagokiena, osasunarekin edo hezkuntzarekin edo jakintza handiko enpresentzako zerbitzuekin lotuta, zeren eta jarduera horien etengabeko hazkundeak ekonomiaren hazkundea eta kalitatezko enpleguaren gehikuntza adierazi baititzake.

Beste alderdi batzuen inguruko gogoeta ere egin behar dela deritzogu; izan ere, gure ekonomiaren oraingo eta geroko bilakaeran izango dute eragina inolako zalantzarik gabe. Ildo horretan, eta kapitulu honetan emandako informazioa kontuan hartuta, honako balorazio hauek egin nahi ditugu:

Ekoizpeneko azpiegiturei dagokienez:

- Mendekotasun energetikoa, energia ekoizteko egiturazko urritasuna eta Europako 2020 Estrategian ezarritako helburua ez betetzea, hots, energiaren ekoizpenaren %20 gutxienez iturri berriztagarrikoak izatea. Hori guztia arazo larria da herrialdeko ekonomiaren lehiakortasunerako eta iraunkortasunerako.

  EAEren tamainari esker, energia-eredua aldatzeko lidergoa mantendu eta handitu daiteke, mendekotasun txikiagoa izatera eta ingurumenaren iraunkortasun handiagoa lortzera bideratuta, aurrezpena eta energia-eraginkortasuna indartuz.

  EAEren energia-mendekotasuna, ageri-agerian, EBko eta Estatuko batez bestekoa baino handiagoa da. Ezaugarri hori ezagutarazi beharra dago, gizarte-ekoizpeneko eragileek nahiz herritarrek oro har parte-hartze handiagoa izan dezaten egoera horretan.

  PCTI2020 delakoarekin bat etorriz energia ekoizteko sektoreak eta, horren barruan, energia ekoizteko bitartekoenak, jarduera sortzen du eta aberastasuna eta enplegua dakartza, gero eta gehiago, eta indartzen jarraitu beharra dago.

- Garraiorako azpiegituren eskaintza zabala dago, datozen urteetan handitzeko joera duena eta, beraz, zentzuzkoa izango litzateke erakunde guztiek koordinatuago jardutea azpiegitura horien erabileran, eraginkorra izan dadin. Hots, komeniko litzateke garraio-sare eraginkorra egituratzen jarraitzea, lurralde historiko guztietan berdintasunezko salneurria ekarriko dituena hain zuzen ere.

…

EAEko sektore publikoari dagokionez, lehenik eta behin Batzorde honek egiaztatu ahal izan duenez, 2017an, indartu egin da finantza publikoen berreskurapena, bilketa handiagoa izanda. Oro har ikusten denez, jokabide hobea dago zeharkako zergetan (+%16,4) zuzenekoetan baino (+%7,2), baina, nolanahi ere, gehikuntza hori zerga nagusietara igaro da, Sozietateen gaineko Zerga barne. Horri esker, gastuaren igoera eta defizitaren arloko konpromisoen betetzea bateragarri egiteko modua izan dugu. Izan ere, datu positiboetara itzuli gara aurrekontuko saldoan, krisiaren aurretik gertatzen ez dena hain zuzen.

Beste urte batez gogoarazi nahi dugu Eusko Jaurlaritzaren gastu nagusia Hezkuntzarako eta Osasunerako erabiltzen dela, eta horrek gizarte ongizateari begira egitaraturiko fondoen erabilera adierazten du.

Bestalde, kezkagarria zaigu ikustea inbertsio errealek -funtsezkoak baitira herrialdearen garapenerako ondo bideratuta daude-, bilakaera negatiboko sei ekitaldien eta 2016an hazi ondoren, berriz ere behera egin izana 2017an, baina zentzuzko denbora itxaron beharko da bilakaerari buruzko balorazioa emateko.

Halaber, nabarmendu behar dugu gorantz jarraitu izan duela zor publiko biziak, baina, beste urte betez, beheranzko erritmoan. Ildo horretan, jardueraren eta horrekin lotuta sarrera publikoen susperraldiari esker, bere zorpetzea kontrolatzeko bidean aurrera egiteko modua izaten ari da Sektore Publikoa.

....

I+G+b jarduerak EAEko I+G-ko gastuan hiru urtez jarraian jaitsierak izan ondoren, 2016an hazi egin zen. Alabaina, kezkagarria iruditzen zaigu, esfortzuaren aldetik, beste jaitsiera bat izatea. Horrek urrundu egiten baitu I+G-ko finantzazioaren 2020rako helburuetatik, bai sektore pribatuan, bai sektore publikoan (ildo horretan, berriz gogorarazi behar dugu helburu zehatzak finkatu direla EBko estatuentzat: BPGaren %05etik %4a bitartean, 2020an lortu beharrekoak. Espainian, berriz, %2koa da).

Aldi berean, I+G-ko gastuaren finantzazioak sektore pribatuan eta sektore publikoan duen banaketa ez da oso desberdina EAEren eta Eurogunearen egoera erkatzean (EAEn %55,7 eta %33,5 hurrenez hurren eta Eurogunean %57,3 eta %31,8). Ohartarazi egin behar dugu finantzazioaren pisua txikiagoa dela EAEn I+G-ko erreferentziako herrialdeetan baino. Hala ere, alde nabarmena da, kasu honetan kontrako zentzuan, Estatuko batezbetekoarekiko, non sektore pribatuak I+G-ren %46,7 baino ez duen finantzatzen.

Ildo horretan, baliteke zenbait aldagai eragina izatea enpresen ahalmen txikiagoan, enpresen tamaina esaterako (handiagoa da EAEn Estatuan baino, baina EBkoa baino txikiagoa), hain zuzen ere I+G+b-ko prozesuei ekiteko. Izan ere, ohartarazi nahi dugu dimentsio alde handia dagoela Euskadin I+G egitea lortzen duten enpresen (70 lagun batez beste) eta enpresen multzoaren artean.

Atseginez ikusten dugu berrikuntza teknologikorako jardueretako gastuak I+G-ko gastuan izan duen jokabidea, hots, horretan ere hazkundea izatea, hain zuzen azken lau urtean izandako beheranzko joera hautsita. Haatik, berrikuntza teknologikoa duten enpresek enpresa guztiekiko duten ratioak behera egin du, baita ikerlarienak ere, eta hori kezkatzeko modukoa dela deritzogu.

Ildo horretan, enpresetan berrikuntza galarazten duten zenbait faktore arindu beharra nabarmendu behar dugu, batez ere ekonomikoak, baita enpresek arriskuen inguruan duten errezeloa ere. Horregatik, ekonomia sustatzeko eta enpresak berrikuntzara bultzatzeko baliabideak hobetu beharra dago, mekanismo berriak ezarri oztopo horiek desager daitezen. Horrez gain, ahaleginak egin behar dira berrikuntzaren abantailak berrikuntzak izan litzakeen arriskuak baino handiagoak direla jabearazteko.

Aurreko urteetan bezala, kezkagarria da ezen, 2017ko berrikuntzako adierazle sintetikoa 0,48 izan arren eta Estatukoaren gainetik (0,39) eta 28-EBtik hurbil (0,50) badago ere, “Aktibo intelektualak” dimentsioa 0,29 da, 28-EBko batez bestekoa (0,49) edo Estatukoa (0,40) baino txikiagoa. Emaitza horrek erakusten duenez, EAEk inbertsio handia egin izan du I+G arloan, baina badirudi zailtasunak dituela emaitza horiek inbertsiora ekartzeko eta, beraz, argi dago eraginkortasun edo produktibitate txikiagoa duela. Ekoizpen zientifikoko adierazleek, aldiz, goranzko joerari eusten diote eta beraz, eraginkortasun handiagoa dagoela esan daiteke.Horregatik, transferentzia-prozesua azpimarratu beharra dago.

Halaber, EAEko eta 28ko EBko emaitzak erkatzean ere Europako Berrikuntzako Adierazleen Panelean (2017) bildutako beste bi alderdiz ohartarazi beharra dugu. Alde batetik, berrikuntza ez teknologikoa duten enpresen proportzio txikiagoa (marketinean edo antolaketan berritzaileak diren ETEak ETEen % gisa (%20,85 EAEn eta %34,89 28ko EBn). Eta bestetik, berrikuntzak salmentetan eta enpleguan duen eragina txikia EAEn.

Azken finean, Espainiako eskualdeen multzoan I+G-ren arloan liderrak garela ikusita pozik agertu behar badugu ere, jarduera horretan dugun ekarpena irmotasunez handitu behar dugula nabarmendu behar dugu, ez bakarrik lorturiko posizioari eusteko, baizik eta posizio hori hobetzeko ere bai, goi-mailan dauden herrialdeetara hurbilduta (nahikoa urrutik daude), gertatzen ari den berrikuntza teknologikoa gure gizartearen ongizatea hobetzeko aukera bihur dadin hain zuzen.

…

Aurreko Memoria Sozioekonomikoetan aditzera eman izan dugunez, ***IKT ekipamenduak garrantzitsuak dira EAEn***, norbanakoaren ikuspegitik nahiz enpresen aldetik.

Alabaina, berriz ere azpimarratu behar dugu ezen, EAE etxetiko interneteko sarbidea duten familien portzentajeetan autonomia erkidegoen artean nahikoa posizio onean badago ere, oraindik hobetzeko marjina dagoela. Izan ere, urruti gaude Europako iparraldeko eskualdeetan ikusten diren erreferentzietatik: kasu batzuetan %90etik gorakoak dira, eta batzuetan, are gehiago, %100a.

Aldi berean, oso aintzat hartu behar dugu gure gizartean badirela zenbait talde kaltetu IKTen erabilerari dagokionez, eta hona hemen Interneterako konexioa ez duten pertsonen profila: bakartuta bizi diren pertsonak, 55 urtekoak eta gehiagokoak, prestakuntza maila txikiagokoak eta langabeak.

Ezin ahantz dezakegu ere enpresetako ekipamenduen zuzkidurak hobetzeko tartea duela, zeren eta, horien hedapena enpresen tamainarekin batera hedatuz badoa ere (handia da, egia esan), handienetan enplegatu guztiek ez baitute ekipamendu horiek eskuratzerik.

Horrez gain, EINen arabera, Interneteko konexioa duten enpresen ratioak, izenpe elektronikoa erabiltzen duen enpresena eta hodeiko konputazio soluzioak (cloud computing) erosten dituzten enpresen ratioa (horien artean daude posta elektronikoa, fitxategiak gordetzea, enpresako datu-baseen zerbitzaria eta hainbat software mota) Euskadin txikiagoak dira Estatuko batez bestekoak baino.

Posta elektronikoari dagokionez, bide hori erabilita egin diren salmentak gutxiago baliatzen dituzte euskal enpresek Europakoek baino. Ondorioz, baliteke tresna horietan aukerak galtzen ari izatea euskal enpresak azken urteetan modu esponentzialean hazten ari diren salmentetan.

III. KAPITULUA

EAEko lan-merkatua

Kapitulu honetan, EAEko lan-merkatuak azken urtean izan duen bilakaerari buruzko zifra nagusiak emango dira lan-merkatuaren hainbat aldetatik. Lehenik eta behin, jardueraren, okupazioaren eta langabeziaren bilakaera aztertuko da, baita gure Erkidegoak Europa mailan aldagai horiekiko duen egoera erlatiboa ere. Jarraian, lan-merkatuaren sarreren eta irteeren balantzea eskainiko da (kontratazioak, aldi baterako kontratuen amaiera eta iraizpenak), baita azken urtean gure Erkidegoan izan diren laneko harremanen balantzea ere, eta soldatei buruzko zifrekin jarraituko da Estatu mailarekin alderatuta (edizio honetan, eduki gehiago sartu dira, EAEko soldaten erradiografia hobetzeko –bilakaera, banaketa, etab.).. Kapituluko bigarren zatiaren ardatza enplegu politikak dira: politika aktiboak, langabetuek lana eskuratzea lortzeko eta landunen enpleguari eusteko eta lanbidean promozionatu ahal izateko; politika pasiboak, berriz, langabetuen babes ekonomikora bideratuta, eta bazterketa arriskuan daudelako edo ezintasunaren bat dutelako arreta berezia behar duten pertsonentzako bestelako politika guztiak. Kapituluaren amaieran, Euskadin erreferentziako urtean lan osasunak eman dituen kopuru nagusiak ageri dira.

III.1. GRAFIKOA. EAE-KO ENPLEGUAREN BILAKAERAREN ADIERAZLEAK. URTE ARTEKO ALDAKUNTZA-TASA



	I 2014	II	III	IV	I 2015	II	III	IV	I 2016	II	III	IV	I 2017	II	III	IV
Ekonomia kontuak	-0,5	0,1	0,5	1,0	1,3	1,5	1,6	1,9	1,9	1,8	1,9	2,0	2,0	2,1	2,1	2,0
Gizarte. S.,	-0,6	0,1	0,5	1,2	1,6	2,0	2,0	2,2	2,1	2,0	1,7	2,0	1,5	1,9	2,0	2,1
afiliazioa	-3,3	-1,1	0,3	0,3	2,2	-0,7	1,3	2,3	3,0	4,2	3,6	0,8	-0,3	0,3	-0,3	1,5
EPA EIN	-1,2	-0,6	-0,3	0,4	1,3	1,8	1,5	1,0	1,0	1,1	1,7	0,9	1,9	2,4	0,6	1,7

Iturria: EUSTAT, EIN eta Gizarte Segurantzaren datuekin eginikoa

Hamabost urtez lanpostuak sortu ondoren, EAEko lan-merkatuan okupazio zifren jaitsiera aldian murgildu zen EAE 2009an, eta 2013ra hala jarraitu zuen. Ondorioz, 100.000 lanpostu galdu ziren, guztizkoaren %10. 2014an, urte arteko tasa positiboak aipatzen hasiak ziren estatistika-iturriak, guztiak norabide berean: %1aren inguruko hazkundea. Joera hori 2015ean finkatu zen, eta urtearen amaieran %2aren inguruko hazkundeak izan ziren okupazioan, betiere BJA alde batera uzten badugu, hazkunde txikiagoa zenbatetsi baitzuen.

2016an, Memoria honetako II. kapituluan berariaz aztertzen diren Hileko Ekonomia Kontuek (HEK) nahiz Gizarte Segurantzako kotizatzaileen kopuruak[1] landunen %2ko hazkundea zenbatetsi zuten laugarren hiruhilekoan, baina EUSTATen BJAk nahiz EINen EPAk okupazioaren gaineko hazkunde datu okerragoak dituzte, %1aren azpitik. 2017. Urtea berriz ere amaitu da HEKen eta afiliazioaren igoerekin, %2an ingurukoan. EPAk eta BJAk, berriz, datu txikiagoak ematen dituzte, okupazioaren hazkundea %1,5 eta %1,7 direla zenbatetsita, hurrenez hurren. Bestalde, honako kapitulu honen 2. atalean ikusiko denez (lan-kontratazioak lau urte metatu ditu jada) bilakaera positiboak eta garrantzitsuak, baina hazkunde txikiagoekin, 2015eko +%14,2tik (+%3,4 2017an, 2016koaren erdia).

Gainera, LANBIDEn erregistraturiko langabetuen kopurua bosgarren urtez jarraian jaitsi zen 2017an, eta urtearen amaieran urte arteko -%6,3arekin bukatu zen. Bilakaera on hori gorabehera, 127.500 lagun inguruk langabezian jarraitzen zuten 2017. urtearen amaieran, eta kopuru hori dirudienez bat dator BJAk bere metodologia aldatu ostean zenbatetsi duenarekin.

1 "Kotizatzaile" terminoa erabilita, "afiliazio" esan nahi dugu, hots, Gizarte Segurantzan alta emanda dauden afiliatuak.

1. JARDUERAREN, OKUPAZIOAREN ETA LANGABEZIAREN BILAKAERA

Epigrafe honetan, gehienbat EUSTATen BJAren, LANBIDEren eta EUROSTATen EEZPren datuak erabili dira nazioarteko erkaketak egiteko eta Gizarte Segurantzakoak afiliazioari buruzko informaziorako. Halaber, garrantzizkotzat jotzen diren lan-merkatuko adierazleei buruz iturri horietan informaziorik izan ez denean, EINen EPAra jo dugu. Azkenik, ez dira kontuan hartzen EUSTATen Hileko Ekonomia Kontuetako (HEK) enpleguari buruzko datuak. Hori begiratzeko, jo beza irakurleak Memoria III. Kapitulura *("EAEko ekonomia")*.

1.1. JARDUERA

EUSTATen BJAren inkestako datuek erakusten dutenez, EAEko biztanleria aktiboa, 2017ko amaieran, guztira 1.033.100 lagun ziren, eta horietatik %52,2 gizonak ziren (538.700) eta %47,8 emakumeak (538.700). Hamabost urte lehenago, 2000an, 60/40ko banaketa zegoen sexuaren aldetik, eta beraz, agerian gelditzen da emakumeek lan-merkatuan duten presentzia erlatiboa handitu dela.

III.1.1. GRAFIKOA. EAE-KO BIZTANLERIA AKTIBOAREN BILAKAERA SEXUAREN ARABERA. IV HIRUHILEKOAK



Iturria: EUSTAT. BJA

Gizonen biztanleria aktiboa nabarmen jaitsi zen 2008 eta 2012 bitartean, noiz-eta enplegurako aukerarik ezagatik lanerako adinean zeuden langabeen zati handi bat zuzenean joan zenean langabeziara. Emakumeek, aldiz, lan-merkatuan sartzen jarraitu zuten 2011ra arte, baina emakume landunen kopuruak behera egin zuen 2012an. Bi bilakaera batzearen ondorioz, biztanleria aktiboak gora egin zuen Euskadin 2011ra arte. 2012an nabarmen jaitsi zen, 24.600 lanpostu galduta, eta 2013an galera hori berreskuratu zuen. Are gehiago, biztanleria aktiboak gora egin zuen, urte hartako laugarren hiruhilekoan inoizko kopururik handienera iritsi arte: 1.053.700 lagun. Harrezkero jaitsierak izan dira, neurri handiagokoak edo txikiagokoak (-%0,1 2014zn, -%0,3 2015ean eta -%1,6 2016an).

2017an, dirudienez eten egin da jaitsiera, zeren eta %0ko hazkundea zenbatetsi baita, 200 lagun landun gehiago kopuru absolutuetan, hain zuzen ere 1.900 emakume aktibo gehiago eta 1.800 gizon aktibo gutxiago baitira (batura ez dator bat guztizko +200eko kopuruarekin, inkesta honetan "milakoetan" biribildu direlako kopuruak.

III.1.1. TAULA. JARDUERA-TASAREN BILAKAERA EAE-N, SEXUAREN ETA ADIN-TALDEEN ARABERA. IV. HIRUHILEKOAK.

		2000	2008	2013	2014	2015	2016	2017
GUZTIRA		53,4	55,2	57,4	57,5	57,3	56,4	56,2
SEXUA	GIZONAK	66,6	63,6	63,3	63,2	63,0	61,3	60,9
	EMAKUMEAK	41,0	47,2	51,9	52,3	52,0	51,8	51,8
ADINA	16 A 24	44,3	31,6	30,6	28,6	27,5	23,8	21,3
	25 A 44	85,7	87,1	89,7	91,6	90,5	89,5	89,9
	45 URTE ETA +	31,3	37,6	42,8	42,6	43,8	44,1	44,5

Iturria: EUSTAT. "Biztanleriaren inkesta jarduerari dagokionez".

EAEko jarduera-tasa orokorra 2016. urtearen amaieran %56,2koa zen (2016an baino 2 hamarren gutxiago), eta emakumeena %51,8koa da (2016ko datu bera). Gizonen biztanleria %60,9raino jaitsi da (2016ko amaieran baino 0,4 puntu gutxiago). EBn, 2017ko hirugarren hiruhilekoko batez bestekoa %73,6koa da (%79,2 gizonentzat eta %68 emakumeentzat), aurreko urtean baino 4 hamarren gehiago.

Bestalde, jarduera-ratioen jokabidea ez da berdina adin-talde guztietan: 2017an, %3,9ko jaitsiera izan da aurreko urtearen aldean 25 urtetik beherakoen artean, 2,5ekoa, baina gora egin du bitarteko adin-taldean +4 hamarren) eta 44 urtetik gorakoen artean (horietan ere +4).

Sexuaren eta adinaren datuak gurutzatuta ikusten denez (III.1.2 grafikoa), talderik gazteenaren jarduera-tasa berdintsua da bi sexuetan (%23,9 gizonentzat eta %23,4 emakumeentzat). Azken urtean bereziki nabarmena izan da jaitsiera (-3,6 puntu; emakumeena, berriz, -1,2 da). Beraz, ia bi puntu aldearekin bukatu da 2017an bi sexuen artean: %20,3 gizonentzat eta %222,2 emakumeentzat. Bitarteko adin-taldean, antzekoa izan da bilakaera bi sexuetan eta, beraz, eutsi egiten zaio bien arteko 2 puntuko aldeari. Jarduera-tasa orokorrean 1,3 hamarreneko gehikuntza izan da, %92,4raino, eta emakumeen taldearen bilakaera negatiboa izan da, 6 hamarrenekoa, %87,3raino. 45 urte eta gehiagoko pertsonentzat ere desberdina da jokabidea, baina kontrako aldean: 5,1 punturaino hazi da sexuen arteko aldean (+%0,7 2016arekiko), zeren eta gizonen artean 8 hamarreneko jaitsiera baita. Horrenbestez, emakumeen eta gizonen artean dagoen aldea, adin-talde horretan, handiena da, 11,2 puntukoa, aurreko urtean baino 6 hamarren gutxiago.

III.1.2. GRAFIKOA. EAE-KO JARDUERA TASA SEXUAREN ARABERA. IV HIRUHILEKOAK



Iturria: EUSTAT. BJA

Azkenik, eginiko zenbatespenen arabera, Euskadin 884.400 familia daude, eta horietatik 599.500ek pertsona aktiboren bat dute (%67,8), eta %32,2k ez du pertsona aktiborik (284.900). Halaber, 506.300 familiatan, erdian baino gehiagotan, pertsona aktibo guztiak lanean ari dira (%57,2), eta 40.400 etxetan pertsona aktibo guztiak langabezian daude, guztizkoaren % 4,6.

1.2. OKUPAZIOA

1.2.1. Okupazioaren kopuruak

BJAren datuek erakusten dutenez, gure Erkidegoan 2017an enpleguan izandako bilakaeran, okupazio- edo enplegu-tasa %66,5 zen urtearen amaieran (%69,6 gizonentzat eta %63,4 emakumeentzat), aurreko urtean baino 6 puntu gehiago.

III.1.3. GRAFIKOA EAE-KO JARDUERA TASA SEXUAREN ARABERA. IV HIRUHILEKOAK



Iturria: EUSTAT. BJA

Lurraldeen arabera, okupazio-tasarik handiena Gipuzkoan dago (%68,5, eta gainera 9 puntutan handitu da aurreko urtean), eta ondoren Araban, %67arekin (+1 puntu) eta, azkenik, Bizkaiak du tasarik txikiena, %65,2ekoa hain zuzen ere (+0,7 puntu).

Bestalde, Europar Batasunak honako helburu hau du ezarria 2020rako 20-64 urte bitarteko pertsonentzat (ez 16-64 urte bitarteko pertsonentzat EUSTATek BJAn argitaratu ohi duen moduan): %75eko tasa. EBko batez bestekoa 2016ko hirugarren hiruhilekoan %72,6an kokatu zen (%78,5 gizonentzat eta %66,7 emakumeentzat).

2014an EAEn okupazioan izan zen gehikuntza %0,4koa izan zen, eta 3.300 lanpostu gehiago izan ziren. 2015ean, %1ekoa igoera izan zen. 2016an, BJAk %0,9ko hazkundea zenbatetsi zuen enpleguan (+8.100 lanpostu). Azkenik, 2017an okupazioa %1,7 handitu da, +15.500 lanpostu, horietatik +9.5000 emakume landunak (hazkundearen %61,3) eta 6.000 gizonak (%38,7).

III.1.2. TAULA. OKUPAZIOAREN BILAKAERA EAE-N, SEXU ETA SEKTOREEN ARABERA. 2015-2017*. IV HIRUHILEKOAK.

		B. BESTEKOAK (MILA)			GEHIKUNTZA (MILA)		URTE ARTEKO ALDAK. TASA (%)	
		2015	2016	2017	15-16	16-17	15-16	16-17
GIZONAK	LEHEN SEKTOREA	6,5	7,0	7,7	0,5	0,7	7,7	10,0
	INDUSTRIA	147,7	149,1	159,2	1,4	10,1	0,9	6,8
	ERAIKUNTZA	41,0	42,8	43,2	1,8	0,4	4,4	0,9
	ZERBITZUAK	276,6	275,3	270,0	-1,3	-5,3	-0,5	-1,9
	GUZTIRA	471,8	474,1	480,1	2,3	6,0	0,5	1,3
EMAKUM.	LEHEN SEKTOREA	2,9	2,5	2,5	-0,4	0,0	-13,8	0,0
	INDUSTRIA	38,8	38,4	41,2	-0,4	2,8	-1,0	7,3
	ERAIKUNTZA	5,8	5,0	5,5	-0,8	0,5	-13,8	10,0
	ZERBITZUAK	375,6	382,8	388,9	7,2	6,1	1,9	1,6
	GUZT.	423,1	428,7	438,2	5,6	9,5	1,3	2,2
GUZTIRA	LEHEN SEKTOREA	9,4	9,5	10,2	0,1	0,7	1,1	7,4
	INDUSTRIA	186,6	187,5	200,4	0,9	12,9	0,5	6,9
	ERAIKUNTZA	46,7	47,8	48,7	1,1	0,9	2,4	1,9
	ZERBITZUAK	652,2	658,0	659,0	5,8	1,0	0,9	0,2
	GUZTIRA	894,9	902,8	918,3	7,9	15,5	0,9	1,7

Iturria: EUSTAT. "Biztanleriaren inkesta jarduerari dagokionez".

III.1.4. GRAFIKOA. EAE-KO OKUPAZIOAREN BILAKAERA ADIN-TALDEEN ARABERA. MILAKOAK. IV HIRUHILEKOAK



Iturria: EUSTAT. PRA.

Enpleguaren gehikuntza horren oinarria, lehenik eta behin, industriaren sektorea da, 12.900 lanpostu gehiago izan baititu (+6,9). Zerbitzuetan 2016an %5,8ko igoera izan ondoren, 1.000 lanpostu gehiago baino ez ditu (+%02) eta, arestian esana dugunez, emakumeen artean, 6.100 lanpostu gehiagorekin. Gizonen tasan, berriz, 5.300 lanpostuko murriztapena dago[2]. Eraikuntzan, bestalde, 900 lanpostu gehiago izan dira (+1,9), gutxi gorabehera %50ean banatuta gizonen eta emakumeen artean.

Adinei dagokienez, azken urtean %1,7 hazi zen 25 urtetik beherakoen enplegu maila (+500 lanpostu), batez bestekoaren ratio bera, hortaz. 45 urte eta gehiagokoen langabezia, aldiz, %2,9 hazi zen (+7.700 lanpostu), eta %3,1 55 urte eta gehiagokoen artean (+5.200) eta %0,6 35-44 urtekoen artean (+1.700). Beraz, adin-talde guztietan egin du gora enpleguak.

Lanaldi motari dagokionez, EAEko lanaldi partzialeko enpleguaren ratioa %16,8 zen 2017ko laugarren hiruhilekoan (aurreko urtean baino 9 hamarren gutxiago). Estatukoa, berriz, %14,8koa da. Gure Erkidegoan nahiz Estatu osoan, alde nabarmena antzematen da sexuen arabera: EAEko lanaldi partzialeko enplegu-tasa ia heren batekoa da emakumeen

[2] *Sexuaren ziozko aldaketen batura ez dator bat zerbitzuen sektorean guztizko saldoarekin, kopuruak "milakoetan" erabiltzen direlako eta BJAk kopuruak biribiltzen dituelako.*

artean (%26,7), eta gizonena %7,1ekoa da. Espainian, berriz, emakumeen ratioa (batez bestekoa) %23,9koa da, eta gizonena, aldiz, %7,1. Kasu bietan, bi tasetan hainbat hamarreneko jaitsierak izan dira azken urtean (9 EAEn, gizonetan nahiz emakumeetan, 5 Estatuan). Sexuaren arabera, ordea, EAEn 5,8 puntutan jaitsi da emakumeen artean, baina 8 hamarrenean handitu da gizonen artean (Estatuan bi sexuetan izan dira jaitsierak).

Europan, lanaldi partzialeko batez besteko tasa 2017an (III. hiruhilekoaren datuak) %19,1 izan zen (%21,2 euro eremuan): herrialde batzuetan oso tasa txikia da (%2,2 Bulgarian, %4,1 Hungarian) eta beste batzuetan, berriz, %26tik gorakoak daude, esaterako Austrian (%27,1) eta Alemanian (%26,5), eta bereziki Herbehereetan (%49,5). Gainera, EBko **herrialde** guztietan emakumeen lanaldi partziala gizonezkoena baino askoz handiagoa da (batez beste %31,2, gizonezkoen %8,8aren aldean), eta %40 gainditzen da herrialdeetako bostetan: Herbehereak, Erresuma Batua, Alemania, Austria eta Belgika.

Behin-behinekotasun mailei dagokienez, 2017ko laugarren hiruhilekoan aldi baterako lan-kontratua zuten soldatapeko pertsonen portzentajea %26,1 zen, aurreko urtean baino 2,7 puntu portzentual gutxiago. Estatuko batez bestekoa, berriz, %26,7 zen, 2 puntu hazita. Sexuaren arabera, %28,6ko tasa da emakumeentzat, gizonezkoen tasa baino 5 puntu handiagoa. Alde hori, gainera, puntu batean murriztu da, zeren eta, azken urtean emakumeen lanaldi partzialeko lanpostuen proportzioa 1,7, handitu bada ere, gizonena 2,7 handitu baita.

III.1.3. TAULA. ENPLEGU-ADIERAZLEAK EB-N. III. HIRUHILEKOAK.

	LANALDI PARTZIALEKO LANAREN %			ALDI BATERAKO LANAREN %		
	2016	2017	16-17 aldak.	2016	2017	16-17 aldak.
EB 28	19,2	19,1	-0,1	14,6	14,8	0,2
EURO GUNEA	21,3	21,2	-0,1	16,1	16,6	0,5
BELGIKA	24,5	24,7	0,2	8,9	11,8	2,9
BULGARIA	1,8	2,2	0,4	5,1	5,3	0,2
TXEKIAR E.	5,7	6,2	0,5	10,0	9,9	-0,1
DANIMARKA	26,2	24,3	-1,9	13,1	12,6	-0,5
ALEMANIA	26,5	26,5	0,0	13,2	12,9	-0,3
ESTONIA	9,1	9,3	0,2	4,9	3,3	-1,6
IRLANDA	22,0	19,3	-2,7	8,7	10,8	2,1
GREZIA	9,6	9,3	-0,3	12,1	13,2	1,1
ESPAINIA	14,4	14,2	-0,2	27,0	27,5	0,5
FRANTZIA	17,8	18,0	0,2	16,8	17,4	0,6
KROAZIA	5,8	5,2	-0,6	24,2	22,5	-1,7
ITALIA	18,3	18,4	0,1	14,7	16,3	1,6
ZIPRE	13,1	11,2	-1,9	17,1	16,8	-0,3
LETONIA	8,5	8,0	-0,5	3,6	3,2	-0,4
LITUANIA	6,4	6,7	0,3	2,5	2,0	-0,5
LUXENBURGO	20,3	19,4	-0,9	9,8	9,1	-0,7
HUNGARIA	4,8	4,1	-0,7	10,1	9,1	-1,0
MALTA	14,2	13,2	-1,0	7,8	5,3	-2,5
HERBEHEREAK	49,5	49,5	0,0	21,1	22,3	1,2
AUSTRIA	27,2	27,1	-0,1	9,6	9,8	0,2
POLONIA	6,2	6,4	0,2	27,3	26,0	-1,3
PORTUGAL	9,2	8,0	-1,2	22,4	22,5	0,1
ERRUMANIA	7,6	6,8	-0,8	1,4	1,2	-0,2
ESLOVENIA	9,2	10,4	1,2	17,1	19,0	1,9
ESLOVAKIA	5,7	5,9	0,2	10,0	9,6	-0,4
FINLANDIA	14,2	13,8	-0,4	17,7	17,2	-0,5
SUEDIA	22,8	22,4	-0,4	17,1	17,2	0,1
ERRESUMA BATUA	25,1	24,9	-0,2	6,0	5,8	-0,2
EAE*	17,7	16,8	-0,9	23,4	26,1	2,7

Iturria: Geuk egina, EUROSTAT eta EINren datuekin.
** IV. Hiruhilekoetako datuak.*

III. 1.5 GRAFIKOA. LANALDI PARTZIALEKO OKUPAZIOAREN PORTZENTAJEAREN BILAKAERA SEXUAREN ARABERA, EAE-N ETA ESTATUAN.



Iturria: EINen datuekin eginikoa. EPA

%20tik gorako behin-behinekotasun maila horiek soilik gertatzen dira, EBren barruan, Espainiaz gain, Polonian, Kroazian, Portugalen eta Holandan. Izan ere, batez bestekoa %14,8 da EBn (%14,5 emakumeentzat eta %15,1 emakumeentzat) eta %16,6 euro gunean (%16,3 eta %16,9, hurrenez hurren, gizonak eta emakumeak), EUROSTATek 2017ko 3. hiruhilekorako emandako datuen arabera.

Sektore pribatu eta publikoko soldatapekoen behin-behinekotasun tasak alderatuta ikusten denez, alde nabarmena dago Estatuaren eta EAEaren artean. EAEn, nabarmen handiagoa da behin-behinekotasun tasa sektore publikoan sektore pribatuan baino, eta alde horri eusten zaio, zenbait gorabeherarekin, azken hamarkadan baino denbora luzeagoan. 2017an, sektore publikoko behin-behinekotasun tasa %34,6 izan zen 4. hiruhilekoan. Sektore pribatuan, berriz, %24,2 da, eta beraz, %10,4ko diferentzia dago sektore publikoaren alde. Estatuko batez bestekoan, aldiz, %24,1eko eta %27,3ko ratioak ziren hurrenez hurren, eta, beraz, 3,2 puntu positiboko diferentzia dago, baina sektore pribatuaren alde.

III.1.4. TAULA. ALDI BATERAKO KONTRATUA DUTEN SOLDATAPEKOEN EHUNEKOA, SEXUAREN ARABERA. IV HIRUHILEKOAK.

		2015	2016	2017	15-16 aldak.	16-17 al
EAE	**GUZTIRA**	23,9	23,4	26,1	-0,5	2,7
	GIZONAK	22,0	20,9	23,6	-1,1	2,7
	EMAKUMEAK	25,8	26,9	28,6	1,1	1,7
ESPAINIA	GUZTIRA	23,9	26,5	26,7	2,6	0,2
	GIZONAK	25,6	26,1	25,8	0,5	-0,3
	EMAKUMEAK	25,8	26,9	27,7	1,1	0,8
EB28*	GUZTIRA	14,6	14,6	14,8	0,0	0,2
	GIZONAK	14,4	14,3	14,5	-0,1	0,2
	EMAKUMEAK	14,9	14,9	15,1	0,0	0,2

Iturria: Geuk egina, EUROSTAT eta EINren datuak erabiliz (EPA).
** III. Hiruhilekoetako datuak.*

III.1.5. TAULA. SEKTORE PUBLIKOAN ETA PRIBATUAN ALDI BATERAKO KONTRATUA DUTEN SOLDATAPEKOEN %-AREN BILAKAERA. EAE-ESTATUA KONPARATZEA. IV. HIRUHILEKOAK.

	GUZTIRA		SEKTORE PRIBATUA		SEKTORE PUBLIKOA	
	EAE	ESTATUA	EAE	ESTATUA	EAE	ESTATUA
2007	28,9	30,8	27,8	31,9	34,7	25,5
2008	26,7	27,7	24,9	28,0	35,5	26,5
2009	22,0	24,9	20,6	24,9	29,1	25,0
2010	22,9	24,7	21,9	24,8	27,5	24,0
2011	22,7	24,8	21,8	25,0	26,6	23,9
2012	20,4	22,8	19,1	23,7	26,0	19,6
2013	21,3	23,7	20,3	24,6	25,7	19,9
2014	21,6	24,2	20,4	25,2	26,8	20,6
2015	23,9	25,7	21,8	26,6	33,1	21,9
2016	23,4	26,5	21,8	27,4	31,5	22,8
2017	26,1	26,7	24,2	27,3	34,6	24,1
15-16 ALD.	-0,5	0,8	0,0	0,8	-1,6	0,9
16-17 ALD.	2,7	0,2	2,4	-0,1	3,1	1,3

Iturria: EIN. EPA.

1.2.2. Afiliazioa Gizarte Segurantzan

Gizarte Segurantzako kotizatzaileen batez besteko kopurua, 2017ko abenduan (ikus kapitulu honetako 1 orri-oinean), 943.987 zen, %47,2 emakumeak ziren eta %52,8 gizonak.

III.1.6. TAULA. GIZARTE SEGURANTZAKO KOTIZATZAILEAK* LURRALDEEN ETA SEXUAREN ARABERA. ABENDUKO DATUAK.

		ABENDUKO BATEZ BESTEKOAK			15-16 ALDAK.		16-17 ALDAK.	
		2015	2016	2017	Abs.	%	Abs.	%
ARABA	GIZONAK	81.255	83.091	85.743	1.836	2,3	2.652	3,2
	EMAKUMEAK	66.911	68.663	70.568	1.752	2,6	1.905	2,8
	GUZTIRA	148.167	151.755	156.311	3.589	2,4	4.555	3,0
GIPUZKOA	GIZONAK	161.402	164.242	167.374	2.840	1,8	3.132	1,9
	EMAKUMEAK	140.662	143.864	147.435	3.202	2,3	3.571	2,5
	GUZTIRA	302.067	308.108	314.809	6.041	2,0	6.701	2,2
BIZKAIA	GIZONAK	238.212	242.100	245.332	3.888	1,6	3.232	1,3
	EMAKUMEAK	219.817	223.324	227.535	3.507	1,6	4.211	1,9
	GUZTIRA	457.731	465.427	472.867	7.696	1,7	7.440	1,6
EAE, GUZTIRA	GIZONAK	480.870	489.433	498.442	8.563	1,8	9.009	1,8
	EMAKUMEAK	427.091	435.852	445.538	8.761	2,1	9.686	2,2
	GUZTIRA	907.964	925.291	943.987	17.326	1,9	18.696	2,0

**Ikusi kapitulu honetako 1. orri-oina.*
Iturria: Lan eta Gizarte Segurantzako Ministerioaren datuekin eginikoa.

Hala, %2 egin du gora aurreko urteko hilearen aldean (+%3,4 batez beste Estatuan), eta guztira 18.696 afiliatu gehiago daude alta emanda, hain zuzen ere 2016an %1,9 hazi ondoren. Aldeak daude lurraldeen artean, zeren eta Bizkaia batez bestekoaren azpitik hazi baita. Gipuzkoan eta Araban, berriz, %2,2 eta %3ko igoerak izan dira, hurrenez hurren. Alabaina, EAE azken urtean afiliatuen kopuruaren hazkunderik txikiena duen bigarren autonomia erkidegoa da. Onena Illes Balears (+%4,5) eta txarrena Asturias (+%1,8).

Orotara, Araban urtearen amaieran 156.311 afiliatu ziren altan, Gipuzkoan 314.809 eta Bizkaian 472.867. Erregimenen arabera, 768.352 Araubide Orokorrekoak dira (736.435 Orokorrean, 2.160 Nekazaritzan eta 29.758 Etxekoan), 172.272 Autonomoetan eta 3.362 Itsasokoan.

Sexuaren arabera, emakumeen afiliazioak %2,2 egin du gora; gizonezkoena, berriz, %1,8. Bestela esanda, urtean 9.009 afiliatu gehiago zenbatu ziren Gizarte Segurantzan (hazkunde osoaren %48,2) eta 9.686 emakume afiliatuta (%51,8).

Jarduera-sektore handien arabera, lehen sektorea %0,2 baino ez da hazi, eta beraz, altan afiliaturiko kopuru osoarekiko pisuari egonkor eusten dio, %0,9areninguruan. Bestalde, 2016an bezala hazi da industria, %1,9, eta %19,3aren inguruan eusten dio afiliazio guztiekiko. Eraikuntza batez bestekoaren gainetik hazi da, %2,2 hain zuzen , eta pisuari eusten dio, 2016an bezala, %74,1ean altan dauden afiliatuetan.

III.1.7. TAULA. GIZARATE SEGURANTZAKO AFILIAZIOEN BILAKAERA*, EKOIZPEN-ADARRAREN ARABERA. ABENDUKO DATUAK.

	2015	2016	2017	ALD. % 2016/17
LEHEN SEKTOREA, GUZT.	8.470	8.441	8.461	0,2
NEKAZARITZA, ABELTZ., BASOGINTZA, ARRANTZA	6.480	6.366	6.301	-1,0
NEKAZARITZA SISTEMA BEREZIA	1.990	2.075	2.160	4,1
INDUSTRIA GUZT.	174.939	178.311	181.761	1,9
ERAUZKETA-INUSTRIAK	602	588	572	-2,9
MANUFAKTURA-INDUSTRIA	167.031	170.384	173.423	1,8
ARGINDARRAREN, GASAREN, LURRUNAREN HORNIDUR	1.649	1.667	1.879	12,7
UR-HORNIDURA, HONDAKINEN KUDEAKETA	5.657	5.672	5.887	3,8
ERAIKUNTZA	52.437	52.780	53.958	2,2
ZERBITZUAK GUZT.	672.119	685.760	699.810	2,0
MERKATARITZA ETA KONPONKETA	137.358	138.854	139.178	0,2
GARRAIOA ETA BILTEGIRATZEA	38.588	39.717	40.658	2,4
OSTALARITZA	61.537	63.267	65.004	2,7
INFORMAZIOA ETA KOMUNIKAZIOAK	20.579	21.391	21.650	1,2
FINANTZA- ETA ASEGURU-JARDUERAK	19.512	18.716	18.050	-3,6
HIGIEZINEN JARDUERAK	4.010	3.755	3.878	3,3
PROFESIONALAKA, ZIENTIFIKOAK, TEKNIKOAK	52.335	53.270	54.408	2,1
ADMINISTRAZIO-JARDUERAK	61.404	63.237	65.548	3,7
HERRI-ADMINISTRAZIOA	46.766	47.096	47.179	0,2
HEZKUNTZA	64.125	66.298	71.306	7,6
OSASUN ETA GIZARTE ZERBITZUEN JARDUERAK	88.091	91.275	93.876	2,9
ARTEKOAK, JOLASEKOAK, ONDO PASATZEKOAK	14.663	15.349	15.946	3,9
BESTE ZERBITZU BATZUK	29.033	28.956	28.807	-0,5
FAMILIAK PERTSONAL-ENPLEGATZAILE GISA	1.237	1.186	1.153	-2,8
LURRALDEZ KANPOKO ERAKUNDEAK	42	44	49	10,6
ETXEKO LANGILEAK	32.839	33.349	33.120	-0,7
GUZTIRA	907.964	925.291	943.987	2,0

Iturria: LAN ETA GIZARTE SEGURANTZA MINISTERIOA. GZDN. Geuk egina.
**Ikus kapitulu honetako 1. oinarri-oina.*

Ekoizpen-adarrik gehienen bilakaera positiboa izan da[3], hauexetan izan ezik: lehen sektorean (-%1, nekazaritza sistema berezia alde batera utzita, %4,1 hazi baita), erauzketa-industrietan (%2,9ko jaitsiera) eta finantza- eta aseguru-jardueretan (-%3,6, etxeko lanetan (-%2,8) eta beste zerbitzu batzuetan (-%0,5).

Halaber, etxeko enplegatuen araubide bereziaren afiliazioan %0,7ko jaitsiera gertatu da. Manufaktura-industriak afiliazioan bigarren pisurik handiena duen adarra da (guztizkoaren %19,1); izan ere, batez bestekoa baino pixka bat gehiago hazi zen 2016an (+%2, eta aurreko urtean %1,9). Neurri txikiagoan hazi zen 2017an, %1,8, eta azken urtean 3.000 lagun afiliatu gehiago daude altan.

Zerbitzuen sektoreak, arestian esana dugunez, batez bestekoaren gainetik egin du gora afiliazioan, %2,2, hots, 14.277 afiliatu gehiago. Horrez gain, adar guztietan egin du gora, aipaturiko finantzen eta inmobiliarien arloko jarduerak izan ezik. Afiliaziorik handiena biltzen duen zerbitzuen adarreko merkataritzan (guztizkoaren %15,3), urte arteko %0,2ko hazkundea izan zen (324 afiliatu gehiago). Pisu nabarmena duten beste jarduera batzuetan, hala nola osasunean, hezkuntzan eta ostalaritzan, batez bestekotik gorako urte arteko tasak bildu ziren (afiliazioan %7,6, %2,9 eta %2,7ko hazkundeekin hurrenez hurren).

[3] *Hileko Ekonomia Kontuek (HEK) ekoizpenaren bilakaerari eta ekoizpen-adarraren araberako enpleguari buruzko informazio osagarria ematen dute. Ikusi Memoria honetako II. Kapitulua (EAEko ekonomia).*

Zerbitzuen sektorearen hobekuntza horri esker, emakumeen afiliazioa gizonezkoena baino hobea izan da; izan ere, gizonezkoak industriako eta eraikuntzako jardueretan metatzen da gehiago. Osotasunean, guztizkoaren %45,7 da emakumeen afiliazioa (Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiak emandako abenduaren 31ko datuekin lortu da jarduera-adarraren eta sexuaren araberako banakapena; zerbitzuen sektorean, berriz, %55,3koa da, baina industrian %20 besterik ez da eta %11,4 eraikuntzan.

III.1.8. TAULA. EMAKUMEEK GIZARTE SEGURANTZAN DUTEN PARTAIDETZA*, EKOIZPEN-ADARRARAEN ARABERA **. DATUAK EHUNEKOETAN, ABENDUAREN 31N.

	2015	2016	2017	2016/17 ALDAK.
NEKAZARITZA, ABELTZAINTZA, BASOGINTZA, ARRANT	29,9	29,8	25,4	-4,4
ERAUZKETA-INDUSTRIAK	14,7	14,4	15,0	0,6
MANUFAKTURA-INDUSTRIA	20,0	19,9	20,1	0,2
ARGINDARRAREN HORNIDURA, GASA, LURRUNA	22,7	24,9	26,2	1,3
UR HORNIDURA, HONDAKINEN KUDEAKETA	15,4	15,4	15,3	-0,1
ERAIKUNTZA	11,5	11,5	11,4	-0,1
HANDIZKAKO ETA TXIKIZKAKO MERKAT.; KONPON.	53,1	53,0	52,9	-0,1
GARRAIOA ETA BILTEGIRATZEA	19,0	19,5	19,7	0,2
OSTALARITZA	58,2	58,0	58,2	0,2
INFORMAZIOA ETA KOMUNIKAZIOAK	36,7	37,2	36,8	-0,4
FINANTZA- ETA ASEGURU-JARDUERAK	52,1	53,0	53,5	0,5
HIGIEZINEN ARLOKO JARDUERAK	52,2	57,7	58,0	0,3
PROFESIONALAK, ZIENTIFIKOAK ETA TEKNIKOAK	51,5	51,3	51,3	0,0
ADMINISTRAZIO JARDUERAK	57,0	56,1	54,7	-1,4
ADMINISTRAZIO PUBLIKOA	46,2	46,8	47,5	0,7
HEZKUNTZA	69,4	69,4	68,9	-0,5
OSASUN ETA GIZARTE ZERBITZUETAKO JARDUERAK	77,8	77,8	79,9	2,1
ARTE, JOLAS ETA ENTRETENIMENDU JARDUERAK	46,3	45,2	43,1	-2,1
BESTELAKO ZERBITZUAK	65,8	65,7	65,9	0,2
FAMILIAK PERTSONALAREN ENPLEGATZAILE GISA	41,3	41,6	41,8	0,2
LURRALDEZ KANPOKO ERAKUNDEAK	59,5	65,1	62,0	-3,1
GUZTIRA**	45,7	45,7	45,7	1,7

Iturria: LAN ETA GIZARTE SEGURANTZA MINISTERIOAGeuk egina.
**Ikus kapitulu honetako 1. oinarri-oina.*
***Nekazaritzako eta etxeko langileen sistema berezia alde batera utzita*

Emakume gehien dituzten adarrak osasunaren eta gizarte zerbitzuen eta hezkuntzaren arloko jarduerak dira (%79,9 eta %68,9 emakumeak dira. Pisu nabarmeneko beste batzuetan, merkataritzan, ostalaritzan edo jarduera profesionaletan, zientifikoetan eta teknikoetan adibidez, %50etik gora dira.

III.1.9. KOTIZATZAILE ATZERRITARRAK* GIZARTE SEGURANTZAN, JATORRIAREN ETA SEXUAREN ARABERA. ABENDUKO BATEZ BESTEKOA.

		KOTIZATZAILEAK ABENDUAN			15-16 ALDAK.		16-17 ALDAK.	
		2015	2016	2017	Abs.	%	Abs.	%
EUROPAR BATASUNA	GIZONAK	9.988	10.797	11.589	809	8,1	792	7,3
	EMAK.	6.671	7.120	7.517	449	6,7	397	5,6
	GUZT.	16.659	17.917	19.106	1.258	7,6	1.189	6,6
BESTE BATZUK	GIZONAK	15.958	17.173	19.713	1.215	7,6	2.540	14,8
	EMAK.	17.545	17.423	18.662	-122	-0,7	1.239	7,1
	GUZT.	33.503	34.597	38.375	1.094	3,3	3.778	10,9
GUZTIRA	GIZONAK	25.946	27.970	31.302	2.024	7,8	3.332	11,9
	EMAK.	24.216	24.543	26.179	327	1,4	1.636	6,7
	GUZT.	50.162	52.514	57.481	2.352	4,7	4.967	9,5

**Ikus kapitulu honetako 1. oinarri-oina.*
Iturria: Geuk egina LGSMrren datuekin.

Bestalde, kotizatzaile atzerritarren kopuruak (afiliazioren %6,1 ziren 2017ko abenduan, aurreko urtean baino 0,4 gehiago) %9,5 egin zuen gora azken urtean, aurreko urtean %4,7 hazi ondoren. Kasu bietan, goranzko bilakaera da sexuen arabera: Gizonen artean %11,9 hazi da (+%7,8 2016an); emakumeen artean, berriz, gutxiago, %6,7 (+%1,4 aurreko urtean). Jokabide bera gertatzen da atzerritar horien jatorriaren arabera; izan ere, EBko beste herrialde batzuetatik datozenen artean afiliazioa %6,6 handitu baita eta EBtik kanpokoen artean, berriz, %10.9.

1.3. LANGABEZIA

1.3.1. Langabeziaren kopuruak

2017an lan-merkatuak izandako bilakaeraren emaitza gisa, BJAren langabezia-tasa orokorra % 11,1koa (aurreko urtean baino 1,5 gutxiago) izan zen urtearen amaieran; hala, EBren batez bestekoa gainditzen da (EBn % 7,3koaeta Eurogunean % 8,7koa, 3. hiruhilekoko datuak)[4].

III.1.10. TAULA. EAE-KO LANGABEZIA TASA, SEXUAREN ETA ADIN-TALDEAREN ARABERA. IV. HIRUHILEKOAK.

		2000	2008	2013	2014	2015	2016	2017
GUZTIRA		12,5	4,6	16,2	15,8	14,7	12,6	11,1
SEXUA	GIZONAK	8,4	4,1	16,3	15,7	15,2	12,3	10,9
	EMAK.	18,7	5,3	16,0	15,9	14,2	12,9	11,4
ADINA	16 - 24	28,1	11,8	36,8	42,4	34,9	24,8	17,2
	25 - 44	12,7	5,2	17,7	17,9	16,5	13,8	12,3
	45 ETA +	5,6	2,6	12,1	10,8	11,0	10,4	9,5

Iturria EUSTAT. "Biztaleriaren inkesta jarduerari dagokionez ¡".

III.1.11. TAULA. EB-KO LANGABEZIA. ADIERAZLE NAGUSIAK 2015-2017. III HIRUHILEKOAK.

	LANGABEZIA-TASA OROKORRA			GIZONAK			EMAK.			GAZT.L-TASA (< 25 URTE)			IRAUPEN L. LANG. TASA(> URTE 1)		
	2015	2016	2017	2015	2016	2017	2015	2016	2017	2015	2016	2017	2015	2016	2017
28 EB	9,0	8,2	7,3	8,8	8,0	7,1	9,1	8,5	7,7	19,9	18,5	16,6	48,2	46,7	45,2
EURO GUNEA	10,3	9,6	8,7	10,1	9,2	8,3	10,5	10,1	9,2	21,9	20,4	18,3	51,5	50,4	19,0
BELGIKA	8,2	7,9	7,2	8,5	7,9	7,5	7,8	7,9	6,9	22,2	21,8	19,1	51,0	51,7	44,0
BULGARIA	8,3	7,0	5,9	8,8	7,4	6,1	7,6	6,5	5,5	19,2	18,8	13,9	63,0	61,9	54,7
TXEKIAR E.	4,8	4,0	2,8	3,9	3,3	2,2	6,0	4,9	3,5	12,9	11,4	8,7	48,5	39,3	32,9
DANIMARKA	6,2	6,3	5,9	5,7	5,7	5,6	6,8	7,1	6,2	12,8	13,3	12,9	25,2	19,4	20,3
ALEMANIA	4,4	4,0	3,6	4,8	4,3	3,9	4,0	3,7	3,3	8,3	7,6	7,0	43,1	41,5	41,5
ESTONIA	5,2	7,5	5,2	4,7	7,5	5,8	5,8	7,5	4,5	11,6	12,7	10,9	35,6	32,7	38,6
IRLANDA	9,3	8,0	6,9	10,6	9,1	7,1	7,8	6,8	6,7	20,7	17,7	16,1	55,6	53,3	40,9
GREZIA	24,1	22,6	20,3	20,7	18,9	16,5	28,2	27,2	25,0	48,8	44,2	40,1	73,7	73,7	75,7
ESPAINIA	21,2	18,9	16,4	19,9	17,4	14,8	22,7	20,7	18,2	46,6	41,9	36,0	51,0	48,1	43,6
FRANTZIA	10,0	9,6	9,3	10,3	9,4	9,2	9,7	9,9	9,3	24,5	25,2	22,2	44,8	46,6	46,7
KROAZIA	15,4	10,9	9,0	14,4	9,8	8,2	16,7	12,2	9,9	41,0	28,0	22,8	67,5	49,7	42,9
ITALIA	10,6	11,0	10,6	10,0	10,2	9,7	11,4	12,0	11,8	35,3	34,5	32,3	59,1	58,1	59,3
ZIPRE	14,7	13,0	10,0	14,1	12,5	9,5	15,4	13,4	10,5	32,3	30,1	23,9	44,6	44,8	43,3
LETONIA	9,7	9,5	8,5	11,1	11,2	9,1	8,3	7,9	7,9	16,2	19,3	17,6	50,6	41,3	40,1
LITUANIA	8,3	7,5	6,6	9,1	8,5	7,7	7,6	6,5	5,6	15,3	13,1	12,0	43,9	37,3	37,7
LUXENBURGO	7,7	7,1	5,5	6,9	6,9	5,1	8,8	7,3	5,9	17,4	23,0	13,7	26,7	36,8	36,2
HUNGARIA	6,4	4,9	4,1	6,1	4,9	3,6	6,7	5,0	4,6	16,7	12,7	11,3	47,4	45,8	37,9
MALTA	5,3	4,8	4,0	5,5	4,6	3,9	4,9	5,1	4,2	13,3	12,3	10,4	44,5	39,9	42,1
HEREBEHEREAK	6,6	5,6	4,5	6,3	5,2	4,2	6,9	6,1	4,9	11,0	10,3	8,4	43,8	41,6	39,9
AUSTRIA	5,6	6,1	5,5	6,0	6,4	5,8	5,2	5,8	5,0	11,2	12,2	10,5	28,9	31,7	34,1
POLONIA	7,1	5,9	4,7	6,7	5,7	4,6	7,5	6,2	4,9	19,7	18,0	14,7	37,7	33,7	32,6
PORTUGAL	12,1	10,7	8,6	11,7	10,5	7,9	12,4	10,8	9,3	30,8	26,1	24,2	57,5	56,7	49,4
ERRUMANIA	6,5	5,7	4,7	7,0	6,3	5,3	5,9	4,9	4,0	19,9	20,5	16,9	45,2	48,7	40,9
ESLOVENIA	8,6	7,4	6,3	7,2	6,7	5,1	10,1	8,2	7,7	12,9	13,7	10,8	55,6	52,4	47,4
ESLOVAKIA	11,3	9,5	8,0	10,0	8,7	7,8	12,9	10,6	8,2	27,9	22,7	19,7	67,0	59,0	61,7
FINLANDIA	8,4	7,6	7,7	8,5	7,4	7,4	8,2	7,7	7,9	16,3	14,2	14,1	28,2	28,2	27,6
SUEDIA	6,6	6,3	6,3	6,7	6,6	6,4	6,4	6,1	6,2	15,9	14,7	14,8	22,2	20,1	20,1
ERRESUMA B.	5,5	5,0	4,4	5,6	5,1	4,4	5,4	4,8	4,4	15,2	13,9	13,0	28,2	25,8	26,4
EAE*	14,7	12,6	11,1	15,2	12,3	10,9	14,2	12,9	11,4	34,9	24,8	17,2	:	:	:

Iturria: Geuk egina, EUROSTATen eta EUSTATen datuekin.
**Laugarren hiruhilekoaren datuak.*

Bilakaera horren ondorioz, 2017 bukatzean langabezia-tasetan 5 hamarreneko aldea dago sexuen artean. %10,9 da gizonentzat eta %11,4 emakumeentzat. Talderik ugariena 25 urtetik beherakoena da (%17,2), eta txikiena 45 urte eta

[4] *Memoria honen II. Kapituluak ("II. EAEko ekonomia") Estatuko langabeziaren bilakaerari buruzko informazioa ematen du, autonomia erkidegoen arabera.*

gehiagokoena. 2016aren aldean, langabeziaren intzidentziak behera egin du sexu bietan eta azterturiko adin-segmentu guztietan, eta gazteen langabezia-tasako 7,6ko murriztapena nabarmentzen da, ia 18koa (-17,7) azken bi urtean.

Europar Batasunean, oso zabala da langabeziaren balio-sorta. Kopuru handietatik, adibidez, Grezian (%20,3) eta Espainian (%16,4), ratio txikietara, esaterako Alemanian, Maltan, Hungarian eta Erresuma Batuan. Belgikak, Finlandiak eta Lituaniak EBko batez bestekoaren inguruko langabezia-tasak dituzte. AEBetan %4,1eko langabezia-tasarekin bukatu zen urtean, eta Japonian, berriz, %2,8koa, zenbait adibide aipatzearren.

2017an, laugarren urtez jarraian egin zuen behera EAEn langabezian zeuden pertsonen kopuruak (lau hiruhileko), sei urtez (2008. urtetik 2013. urtera) Euskadin langabezia etengabe hazi ondoren. Zehazki, eginiko zenbatespenen arabera, 2017ko amaieran 114.800 langabetu zeuden, aurreko urtean baino %11,8 gutxiago (-15.300 lagun), eta horietatik %51 gizonezkoak ziren eta %49 emakumeak.

III.1.12. TAULA. EAE-KO LANGABEAK. ALDAGAI NAGUSIEN BILAKAERA. MILAKOAK (IV HIRUHILEKOAK)

	PERTSON K. (MILAKOAK)				DIFERENTZIA			ALDAK. %			LANGABEZIA-TASA		
	2014	2015	2016	2017	2014-15	2015-16	2016-17	2014-15	2015-16	2016-17	2015	2016	2017
GUZTIRA	166,7	154,8	130,1	114,8	-11,9	-24,7	-15,3	-7,1	-16,0	-11,8	14,7	12,6	11,1
GIZONAK	87,7	84,6	66,4	58,6	-3,1	-18,2	-7,8	-3,5	-21,5	-11,7	15,2	12,3	10,9
EMAK.	79,0	70,2	63,7	56,2	-8,8	-6,5	-7,5	-11,1	-9,3	-11,8	14,2	12,9	11,4
16-24 URTE	19,0	15,2	9,5	6,1	-3,8	-5,7	-3,4	-20,0	-37,5	-35,8	34,9	24,8	17,2
25-44 URTE	98,4	87,2	70,0	61,6	-11,2	-17,2	-8,4	-11,4	-19,7	-12,0	16,5	13,8	12,3
+45 URTE	49,3	52,5	50,5	47,2	3,2	-2,0	-3,3	6,5	-3,8	-6,5	11,0	10,4	9,5

Iturria: EUSTAT "BJA".

2016an ez bezala -langabeziaren jaitsiera gehienbat gizonena izan zen orduan-, 2017an bi sexuetan gertatu da antzeko intentsitatea, zeren eta gizon langabeen kopurua %11,7 jaitsi baita (7.800 langabetu gutxiago) eta, emakumeena, berriz, %11,8 (-7.500 emakume langabetu). Bilakaera horren ondorioz, 2017. urtea bukatzean, langabezia-tasetan 5 hamarreneko aldea zegoen sexuen artean. Izan ere, %10,9 da gizonentzat eta %11,4 emakumeentzat (%11,1 batez beste, ikusi dugunez), 2016ko amaieran baino hamarren bat gutxiago (orduan %12,3ko eta %12,9ko tasak ziren hurrenez hurren).

III.1.13. TAULA. LANGABEEN BILAKAERA EAE-N, SEXUAREN ETA SEKTOREAREN ARABERA. 2014-2017. IV HIRUHILEKOAK.

		BATEZ BESTEKOAK (MILAKOAK)				ALDAKETA (MILAKOAK)			URTE ARTEKO ALDAKETA TASA (%)		
		2014	2015	2016	2017	2014-15	2015-16	2016-17	2014-15	2015-16	2016-17
GIZONAK	LEHEN S.	2,1	1,4	0,8	1,0	-0,7	-0,6	0,2	-33,3	-42,9	25,0
	INDUSTRIA	18,8	19,0	13,6	13,2	0,2	-5,4	-0,4	1,1	-28,4	-2,9
	ERAIKUNTZA	17,0	16,7	11,4	9,8	-0,3	-5,3	-1,6	-1,8	-31,7	-14,0
	ZERBITZUAK	46,2	37,9	35,3	31,0	-8,3	-2,6	-4,3	-18,0	-6,9	-12,2
	1.LANAREN BILA	3,7	9,7	5,3	3,7	6,0	-4,4	-1,6	162,2	-45,4	-30,2
	GUZTIRA	87,7	84,6	66,4	58,6	-3,1	-18,2	-7,8	-3,5	-21,5	-11,7
EMAK.	LEHEN S.	0,2	0,5	0,7	0,4	0,3	0,2	-0,3	150,0	40,0	-42,9
	INDUSTRIA	5,0	4,9	4,3	3,6	-0,1	-0,6	-0,7	-2,0	-12,2	-16,3
	ERAIKUNTZA	2,3	0,7	1,4	1,6	-1,6	0,7	0,2	-69,6	100,0	14,3
	ZERBITZUAK	64,4	53,7	50,2	45,2	-10,7	-3,5	-5,0	-16,6	-6,5	-10,0
	1.LANAREN BILA	7,2	10,5	7,1	5,4	3,3	-3,4	-1,7	45,8	-32,4	-23,9
	GUZTIRA	79,0	70,2	63,7	56,2	-8,8	-6,5	-7,5	-11,1	-9,3	-11,8
GUZTIRA	LEHEN S.	2,2	1,8	1,4	1,4	-0,4	-0,4	0,0	-18,2	-22,2	0,0
	INDUSTRIA	23,8	23,9	18,0	16,7	0,1	-5,9	-1,3	0,4	-24,7	-7,2
	ERAIKUNTZA	19,3	17,4	12,8	11,4	-1,9	-4,6	-1,4	-9,8	-26,4	-10,9
	ZERBITZUAK	110,5	91,5	85,5	76,2	-19,0	-6,0	-9,3	-17,2	-6,6	-10,9
	1.LANAREN BILA	10,8	20,2	12,4	9,1	9,4	-7,8	-3,3	87,0	-38,6	-26,6
	GUZTIRA	166,7	154,8	130,1	114,8	-11,9	-24,7	-15,3	-7,1	-16,0	-11,8

Iturria: EUSTAT. "Biztanleriari buruzko inkesta jarduerari dagokionez".

Adinen arabera, langabetuen kopuruak behera egin du horietan guztietan eta, bereziki gazteenetan (-%35,8 25 urtetik beherakoetan eta -%12 25 eta 44 urtekoen bitarteko taldean), baina 44 urtetik gorakoen artean ere bai (-%6,5), 2016an

gertatu bezala. Horren ondorioz, adin-talde horretako langabezia-tasan 9 hamarreneko jaitsiera dago, %9,5eraino, %11,1ko batez bestekoaren azpitik oraindik. Gazteenen adin-taldean, berriz, txikitu egin da, baina batez bestekoaren gainetik betiere: %12,3 25 eta 44 urte bitartekoentzat eta %17,2 gazteenentzat, eta langabezian daude 16-24 urte bitarteko 96.100 gazte aktibo.

EBn, gazteen langabezia-tasa %17aren inguruan dago Batasun osoan (%16,6 28ko EBrentzat, %18,3 eurogunean), eta %30etik gorakoak ageri dira Italian eta Espainian adibidez (%32,3 eta %36 hurrenez hurren), edo %40tik gorakorik ere badago, Grezian esaterako (%40,1).

Beste muturrean Herbehereak eta Txekiar Errepublika daude, %8aren inguruko ratioekin, eta Alemania nabarmentzen da gazteen langabezia-tasa txikiagatik (%7).

Sektoreen arabera, lan-eskatzaileen %66,3 zerbitzuen sektorekoa zen 2017ko laugarren hiruhilekoan, non gazteen langabezia %10,9 murriztu baitzen (9.300 langabetu gutxiago, horietatik erdia baino gehiago emakumeak, %53,8).

Bestalde, industria guztizko langabeziaren %14,5 zen 2017. urtearen amaieran, eta langabeziak %7,2 egin zuen behera horretan (-1.300 lagun, baina aurreko urtean %24,7 jaitsi zen), horietatik %53,8 (700 lagun) emakumeak dira eta %46,2 gizonezkoak. Eraikuntzan, berriz, %10,9 jaitsi da langabetuen kopurua (-1.400 lagun garbi). Lehen lanaren bila dabiltzanen kopuruak, bestalde, 3.300 lagun gutxiago izan dira (-%26,6), batez bete 9.100 hiruhilekoan. Horietatik %59,3 emakumeak eta %40,7 gizonak.

Lurraldez lurralde, guztietan egin du behera langabezia-tasak, baina indar desberdinarekin: Gipuzkoak zuen 2017ko 4. hiruhilekoan tasarik txikiena, %8,4, eta gainera 2,6 puntuko jaitsiera izan du 2016aren aldean. Araban, berriz, hobetu egin da, baina 2 hamarrenetan bakarrik, %10,8raino, hor ere EAEko batez bestekoaren azpitik (%11,1). Azkenik, Bizkaiak du tasarik handiena (%12,9), baina hobekuntza izan da azken urtean bertan ere (-1,1 puntu).

III.1.6 GRAFIKOA. EAE-KO LANGABEZIAREN BILAKAERA LURRALDE HISTORIKOEN ARABERA.



Iturria: EUSTAT. BJA.

1.3.2. LANBIDEk (Enpleguko Euskal Zerbitzua) erregistraturiko langabezia

2017ko bukaeran, BJAk zenbatetsitakoen oso antzeko zifrak bildu zituen LANBIDEk langabeziaren inguruan, estatistika-eragiketa horretan berriki sartu ziren metodologia aldaketaren ondoren. 2017ko abenduan, 127.5473 langabetu zeuden erregistraturik LANBIDEn, 2016an baino 8.626 gutxiago (%6,3

III.1.14. TAULA. EAE-N ERREGISTRATURIKO LANGABEAK, ADINAREN ETA SEXUAREN ARABERA. ABENDUAN.

		LANGABEAK ABENDUAN				15-16 ALDAK.		16-17 ALDAK.	
		2014	2015	2016	2017	Abs.	%	Abs.	%
< 25 URTE	GIZONAK	5.081	4.259	4.186	3.482	-73	-1,7	-704	-16,8
	EMAK.	4.852	4.177	3.996	3.591	-181	-4,3	-405	-10,1
	GUZT.	9.933	8.436	8.182	7.073	-254	-3,0	-1.109	-13,6
25 - 44 URTE	GIZONAK	40.546	33.864	28.525	25.072	-5.339	-15,8	-3.453	-12,1
	EMAK.	42.535	38.388	34.400	32.555	-3.988	-10,4	-1.845	-5,4
	GUZT.	83.081	72.252	62.925	57.627	-9.327	-12,9	-5.298	-8,4
45 URTE ETA +	GIZONAK	34.800	32.246	29.642	28.182	-2.604	-8,1	-1.460	-4,9
	EMAK.	37.957	37.083	35.424	34.661	-1.659	-4,5	-763	-2,2
	GUZT.	72.757	69.329	65.066	62.847	-4.263	-6,1	-2.219	-3,4
GUZT	GIZONAK	80.427	70.369	62.353	56.740	-8.016	-11,4	-5.613	-9,0
	EMAK.	85.344	79.648	73.820	70.807	-5.828	-7,3	-3.013	-4,1
	GUZT.	165.771	150.017	136.173	127.547	-13.844	-9,2	-8.626	-6,3

Iturria: EEZPren datuekin eginikoa.

gutxiago aurreko urtearen aldean, eta Estatuan batez besteko -%7,8ko jaitsiera izanik), EUSTATen Biztanleriaren Inkestak urteko azken hiruhilekoan Jarduerarekin Erlazionatuta zenbatetsitako 113.800 langabetuen aldean, urteko laugarren hiruhilekoan.

Lurraldeka, Gipuzkoan izan da jaitsierarik handiena, %8,1ekoa (-2.993 lagun eta 33.972 langabetu). Eta ondoren Araban, %6,7ko jaitsierarekin (-1.4920 lagun eta 20.639 langabetu) eta Bizkaian %5,4 jaitsi da (-4.141 lagun eta 72.936 langabetu).

Krisia hasi zenetik bosgarren urtez jarraian gertatu da erregistraturiko langabeziaren urte arteko saldo negatiboa, eta gainera, 2015ean eta 2016an bezala, langabezia bi sexuetan murriztu dela ikusten da: Bereziki gizonen artean (-%9), baina emakumeen artean ere bai (-%4,1), betiere -%6,3ko batez bestekoaren gainetik. Alabaina, langabeen %55,5 emakumeak dira. Krisia hasi zenean, berriz, oso antzekoa zen langabeen kopurua sexuaren arabera. Gizonek neurri handiagoan jasan zuten krisiaren eragina, baina suspertzeko ahalmen handiagoa erakusten ari dira.

Adinaren araberako azterketan antzeko zerbait gertatzen da, zeren eta 2016ko abenduaren eta 2017ko abenduaren artean adin guztietan jaitsi baita erregistraturiko langabezia (salbuespen batekin: jaitsiera txikiak izan dira 19 urtetik beherako pertsonen artean eta 59 urtetik gorakoen artean, III.1.7. grafikoan ageri denez). Talde handien arabera, langabezia are gehiago jaitsi da 25 eta 44 urte bitartekoen artean (-%13,6) batez ere gizonen artean (-%16,8, talde horretako emakumeena, berriz, -%10,1), eta ondoren 44 urte eta gehiagokoen taldea (-%3,4). Langabeziaren eta adinaren arteko korrelazioa antzematen da, ordea: langabeen %23,7k 54 urte baino gehiago ditu, baina adin-talde hori biztanleria aktiboaren %18,7 da, BJAren arabera.

III.1.7. GRAFIKOA. EAE-N ERREGISTRATURIKO LANGABEEN BANAKETAREN BILAKAERA ADINAREN ARABERA. ABENDUAN.



Iturria.- EIN datuekin egindakoa

III.1.15. TAULA. EAE-N ERREGISTRATURIKO LANGABEAK IKASKETA MAILAREN ARABERA. ABENDUAN.

		LANGABEAK ABENDUAN				16-17 ALDK.	
		2015	2016	2017	% 2017	Abs.	%
OINARRIZKOAK	IKASKETARIK EZ EDO 1. MAILAKO BUKATU GABE	11.140	10.708	10.686	8,4	-22	-0,2
	OSOAK	19.770	18.385	17.222	13,5	-1.163	-6,3
2. MAILAKOAK	LANBIDE HEZIKETA	12.874	11.523	10.819	8,5	-704	-6,1
	HEZKUNTZA OROKORRA	74.316	67.161	61.891	48,5	-5.270	-7,8
DBH ONDOKOAK	GOI-M. TEKN. PROF.	13.686	12.108	11.340	8,9	-768	-6,3
	LEHEN ZIKLOA	5.573	4.796	4.432	3,5	-364	-7,6
	2. ETA 3. ZIKLOAK	12.436	11.250	10.960	8,6	-290	-2,6
	BESTE BATZUK	222	242	197	0,2	-45	-18,6
	GUZITRA	150.017	136.173	127.547	100,0	-8.626	-6,3

Iturria: EEZPren datuekin eginikoa.

Ikasketa mailaren arabera, erregistraturiko langabeziak behera egin du, 2016aren aldean, maila guztietan eta sexu bietan. Jaitsierarik handienak, batez bestekoaren gainetik. Bereziki lehen zikloko unibertsitateko ikasketak dituztenena (-%7,6) eta, neurri txikiagoan, bigarren eta hirugarren zikloko ikasketak dituztenena (-%9,5). Bigarren mailako ikasketetako jaitsiera ere batez bestekoaren gainetik dago (-%10,5 LHko titulua dutenentzat eta -%9,6 hezkuntza orokorreko ikasketak dituztenentzat). Oinarrizko ikasketak dituzten pertsonen langabezia ere jaitsi da, baina batez bestekoaren azpitik (-%7). Jokabide hori, gainera, antzekoa da bi kasuetan.

Batez bestekoaren gainetik daude lehen zikloko unibertsitateko ikasketak dituztenak (-%7,6) eta hezkuntza orokorreko bigarren mailako ikasketak dituztenak (-%7,8). Batez beste -%6,3 inguru egin du behera oinarrizko ikasketa

osotuetan eta goi-mailako LHn (bietan -%6,3), baita oinarrizko LHn ere (-%6,1). Horrenbestez, langabetuen kopururik handiena hezkuntza orokorreko titulua duten pertsonen artean dago (erregistraturiko langabetu guztien %48,5), aurreko urtean baino 8 hamarren gutxiago), eta oinarrizko ikasketak dituztenena gehituz gero (%21,9), langabeen %70,4 dira. Pisu hori apenas aldatu da azken urtean.



Iturria: EEZPren datuekin eginikoa

Bilakaera, gainera, oso antzekoa da sexu bietan[5]. Titulazio-taldeen arabera, arestian esana dugunez, erregistraturiko langabeen %48,5ek hezkuntza orokorreko bigarren mailako ikasketak zituen 2017ko abenduan, eta emakumeen artean txikiagoa da pisu hori (emakume langabeen %46; gizonen kopurua, berriz, handiagoa da, %51,6). Kopuru absolutuetan, emakumeen taldea handiagoa da, ordea (32.590 emakume eta 29.301 gizon). Izan ere, emakume langabeak ugariagoak dira ikasketa maila guztietan, baina beheranzko joera izan da horietan guztietan, arestian esan dugun legez, eta halaxe gertatu da sexu bietan.

Aurreko lan esperientzia duten inskribaturiko langabeen jarduerari dagokionez, EEZPk argitaraturiko azken datuek erakusten dutenez, 2017ko abenduan behera egin zuen erregistraturiko langabetuen kopuruak jarduera-atal guztietan 2016ko abenduaren aldean, baina EAEn pisurik handiena enpleguan dutenak –eta langabezian- batez bestekoa baino gutxiago jaitsi dira.

III.1.16. TAULA. EAE-N ERREGISTRATURIKO LANGABEZIA, SEXUAREN ETA JARDUERAREN ARABERA (CNAE 2009). ABENDUA.

	2016	LANGABEAK 2017				Aldak. % 16/17
		GIZONAK	EMAK.	GUZT.	Bert. %	
NEKAZARITZA, ABELTZAINTZA, BASOGINTZA ETA ARRANTZA	3.206	2.187	803	2.990	2,3	-6,7
ERAUZKETA-INDUSTRIAK	105	48	36	84	0,1	-20,0
MANUFAKTURA-INDUSTRIA	16.364	9.186	5.899	15.085	11,8	-7,8
ARGINDARRAREN HORNIDURA, GASA, LURRUNA	70	42	18	60	0,0	-14,3
UR HORNIDURA, HONDAKINEN KUDEAKETA	774	528	150	678	0,5	-12,4
ERAIKUNTZA	12.411	9.172	1.331	10.503	8,2	-15,4
HANDIZKAKO ETA TXIKIZKAKO MERKATARITZA; KONPON.	18.928	6.056	12.109	18.165	14,2	-4,0
GARRAIOA ETA BILTEGIRATZEA	3.594	2.248	1.033	3.281	2,6	-8,7
OSTALARITZA	13.209	4.277	8.352	12.629	9,9	-4,4
INFORMAZIOA ETA KOMUNIKAZIOAK	2.374	1.112	1.108	2.220	1,7	-6,5
FINANTZA- ETA ASEGURU-JARDUERAK	889	315	546	861	0,7	-3,1
HIGIEZINEN ARLOKO JARDUERAK	469	145	301	446	0,3	-4,9
PROFESIONALAKA, ZIENTIFIKOAK ETA TEKNIKOAK	7.450	2.456	4.400	6.856	5,4	-8,0
ADMINISTRAZIO JARDUERAK	17.905	7.838	9.077	16.915	13,3	-5,5
ADMINISTRAZIO PUBLIKOA	4.083	1.871	1.904	3.775	3,0	-7,5
HEZKUNTZA	3.255	852	2.301	3.153	2,5	-3,1
OSASUN ETA GIZARTE ZERBITZUETAKO JARDUEARK	5.881	1.068	4.592	5.660	4,4	-3,8
ARTE, JOLAS ETA ENTRETENIMENDU JARDUERAK	2.335	1.091	1.060	2.151	1,7	-7,9
BESTE ZERBITZU BATZUK	3.779	1.022	2.660	3.682	2,9	-2,6
FAMILIAK PERTSONALAREN ENPLEGATZAILE GISA	3.596	602	3.202	3.804	3,0	5,8
LURRALDEZ KANPOKO ERAKUNDEAK	45	16	17	33	0,0	-26,7
AURRETIK LANIK GABE	15.451	4.608	9.908	14.516	11,4	-6,1
GUZT.	136.173	56.740	70.807	127.547	100,0	-6,3

Iturria: EEZPren datuekin eginikoa.

[5] *Memoria honen 2015eko eta 2016ko edizioetan, EAEn erregistraturiko langabeziari buruzko azterlan xehatua egiten da sexuaren eta ikasketa mailaren arabera, baina ez da apenas antzeman alderik ez bilakaeran eta banaketan. Argibide gehiago nahi izanez gero, ikus bitez horiek.*

Hala, erregistraturiko langabeziaren %14,2 biltzen duen merkataritzak (eta %17,1eraino emakumeen artean) %4 egin du behera; administrazio-jarduerak, langabeziaren %13,1 direnak, %5,5 jaitsi dira. Hirugarrenik, ostalaritzak langabeziaren %9,9 biltzen du, eta %4,4 jaitsi da. Manufaktura-industriako langabezia salbuespena da, zeren eta batez bestekoa baino gehiago jaitsi baita, %7,8, eta hala ere, erregistraturiko langabeziaren %11,8 da oraindik ere (eta gizonezkoen %16,2raino. Eraikuntza ere batez bestekoaren azpitik dago, %15,4, eta 2017ko amaieran langabeziaren %8,2 zen. Jarduera horretan, manufaktura-industrian bezala, gizonen partaidetza askoz handiagoa da emakumeena baino (%16,2 gizon langabeetan eta %19 emakume langabeetan).

Zerbitzuen sektoreak emakumeen langabeziaren %74,4 biltzen du, eta sektore hori emakumeen langabeziaren jaitsieraren %64,4 da (-1942 langabetu gutxiago). Industrian eta eraikuntzan, bestalde, gizonen presentzia askoz handiagoa da (%17,3 eta %16,2 sexu horrentzat), langabezian gertatzen den bezala.

III.1.17. TAULA. EAEN ERREGISTRATURIKO LANGABEZIA, JARDUERA-SEKTOREAREN ETA SEXUAREN ARABERA. ABENDUAN.

	2015				2016				2017				ALDAK. ABS. 16-17	
	GIZONAK		EMAK.		GIZONAK		EMAK.		GIZONAK		EMAK.		GIZONAK	EMAK.
	ABS.	B %.	ABS.	B %.	ABS.	B %	ABS.	B %	ABS.	B %	ABS.	B %.		
LEHEN SEKT.	2.509	3,6	837	1,1	2.372	3,8	834	1,1	2.187	3,9	803	1,1	-185	-31
INDUSTRIA	12.525	17,8	7.654	9,6	10.608	17,0	6.705	9,1	9.804	17,3	6.103	8,6	-804	-602
ERAIKUNTZA	13.494	19,2	1.669	2,1	10.976	17,6	1.435	1,9	9.172	16,2	1.331	1,9	-1.804	-104
ZERBITZUAK	36.695	52,2	59.086	74,2	33.188	53,2	54.604	74,0	30.969	54,6	52.662	74,4	-2.219	-1.942
AURRETIK LANIK EZ	5.116	7,3	10.432	13,1	5.209	8,4	10.242	13,9	4.608	8,1	9.908	14,0	-601	-334
GUZTIRA	**70.339**	**100,0**	**79.678**	**100,0**	**62.353**	**100,0**	**73.820**	**100,0**	**56.740**	**100,0**	**70.807**	**100,0**	**-5.613**	**-3.013**

Iturria: EEZPren datuekin eginikoa.

Aurreko lanik ez duten inskribaturiko langabeak guztizkoaren %11,4 ziren 2017ko abenduan (%11,3 2016an), eta batez bestekoa baino pixka bat gutxiago murriztu da. Talde horretan, emakumeen presentzia nabarmentzen da; izan ere, kategoria horretan inskribaturiko 14.516 pertsonen %68,3 dira.

Langabezian daramaten denbora kontuan hartuz gero, 2017an behera egin zuen langabetuen kopuruak kategoria guztietan, bereziki langabezian urtebetetik gora daramatenena, gizonezkoen nahiz emakumezkoen artean.

III.1.18. TAULA. EAE-N ERREGISTRATURIKO LANGABEAK, LANGABEZIAN EMANDAKO DENBORAREN ETA SEXUAREN ARABERA. ABENDUAN.

		LANGABE ERREGISTRATUAK				ALDAK. %	
		2014	2015	2016	2017	2015/16	2016/17
< 6 HILAB.	GIZONAK	30.702	26.327	24.250	22.220	-14,2	-8,4
	EMAK.	26.019	23.095	22.445	21.465	-11,2	-4,4
	GUZT.	56.721	49.422	46.695	43.685	-12,9	-6,4
6 HILAB. URTEB.	GIZONAK	11.691	9.992	8.414	7.793	-15,8	-7,4
	EMAK.	11.777	10.674	9.684	9.521	-9,3	-1,7
	GUZT.	23.468	20.666	18.098	17.314	-12,4	-4,3
> URTE 1	GIZONAK	38.034	34.050	29.689	26.727	-12,8	-10,0
	EMAK.	47.548	45.879	41.691	39.821	-9,1	-4,5
	GUZT.	85.582	79.929	71.380	66.548	-10,7	-6,8
GUZT.	GIZONAK	80.427	70.369	62.353	56.740	-11,4	-9,0
	EMAK.	85.344	79.648	73.820	70.807	-7,3	-4,1
	GUZT.	165.771	150.017	136.173	127.547	-9,2	-6,3

Iturria: LANBIDEren datuekin eginikoa.

Erregistraturiko guztizko langabezia %6,3 jaitsi da, eta neurri bertsuan langabezian 6 hilabete baino denbora gutxiago daramaten pertsonen guztizkoa, %6,4 hain zuzen. 6 hilabete eta urtebete arteko langabezia aldia daramatenen taldea %4,3 gutxitu da. Urtebetetik gorakoetan (iraupen luzeko

III.1.9. GRAFIKOA. EAE-KO IRAUPEN LUZEKO LANGABEZIAREN TASA. BILAKAERA SEXUAREN ARABERA. ABENDUETAN.



Iturria: SEPE. Gu egindakoa

langabezia deritzona), berriz, %6,8 jaitsi da, neurri txikiagoan emakumeen artean (-%4,19), baina gehienbat gizonen artean.

Gauzak horrela, iraupen luzeko langabezia-tasa (egoera horretan urtebetetik gorako denbora daramaten langabetuen portzentajea) %52,2koa zen 2017ko abenduan (%41,9 Estatuan), 2016ko abenduan baino %0,2 gutxiago. Ratio hori %47,1 zen gizonen artean (-0,5 puntu) eta %56,2koa emakumeen artean (-0,3 puntu).

III.1.10. GRAFIKOA. EAE-KO IRAUPEN LUZEKO LANGABEZIAREN TASA. BILAKAERA SEXUAREN ARABERA. ABENDUETAN



Iturria: EEZP. Geuk egina
** Lanik gabe urtebetetik gora daramaten langabeak*

Bi sexuen arteko diferentzia, beraz, 9,1 puntukoa zen 2017ko abenduan, eta bi hamarren handitu da azken urtean.

Bestalde, eta 2016an ez bezala, 2017an gora egin zuen lan-eskatzaileen kopuruak, langabetuen eta ez langabetuen baturak, langabetuak ez direnen lan-eskatzaileen igoera handiak eraginda.

III.1.19. TAULA. EAE-KO LAN-ESKARIAREN BILAKAERA LAN EGOERA ETA SEXUAREN ARABERA. AB..

		2014	2015	2016	2017	ALDAK. %	
						2015-16	2016-17
LANGABEAK	GIZONAK	80.427	70.369	62.353	56.740	-11,4	-9,0
	EMAK.	85.344	79.648	73.820	70.807	-7,3	-4,1
	GUZT.	165.771	150.017	136.173	127.547	-9,2	-6,3
LANGABEAK EZ	GIZONAK	47.416	53.848	56.143	63.218	4,3	12,6
	EMAK.	59.695	68.909	73.779	84.352	7,1	14,3
	GUZT.	107.111	122.757	129.922	147.570	5,8	13,6
GUZT.	GIZONAK	127.843	124.217	118.496	119.958	-4,6	1,2
	EMAK.	145.039	148.557	147.599	155.159	-0,6	5,1
	GUZT.	272.882	272.774	266.095	275.117	-2,4	3,4

Iturria: EEZPren datuekin eginikoa .

Guztizko kopurua %3,4 handitu da, eta aldi berean, gora egin du teknikoki langabezian[6] ez dauden lan-eskatzaileen datuak (guztira 147.570 pertsona, aurreko urtean baino %13,6 gehiago, noiz-eta 2016an %5,8 handitu zenean).

Lan-eskatzaileak, 2017ko abenduan, guztira 275.117 ziren, 2016ko abenduan baino 9.022 gehiago. Hazkunde hori gertatu da gehienbat emakumeen lan-eskariaren bilakaeragatik, %5,1 hazi baita, baina gizonen artean ere hazi da, %1,2 hain zuzen ere. Estatu mailan, guztizko lan-eskaria %5,7 murriztu da (-%8 2016an).

Alabaina, 2017ko BJAren arabera (IV. hiruhilekoa), langabeen %29 ez zegoen erregistraturik langabe gisa LANBIDEn (%30,5 2016an).

III.1.20. TAULA. ATZERRITARREN LANGABEZIAREN BILAKAERA JATORRIAREN ARABERA EAE-N ETA ESTATUAREKIKO ALDERAKETA.

		EAE	ESTATUA	% EAE/ ESTATUA
2015	EB	4.954	173.248	2,9
	EZ EB	18.609	313.969	5,9
	GUZT.	23.563	487.217	4,8
	% guzt. lang.	15,7	11,9	-
2016	EB	4.383	157.553	2,8
	EZ EB	17.156	277.409	6,2
	GUZT.	21.539	434.962	5,0
	% guzt. lang.	15,8	11,7	-
2017	EB	4.111	149.612	2,7
	EZ EB	16.623	265.658	6,3
	GUZT.	20.734	415.270	5,0
	% guzt. lang	16,3	12,2	
Ald % 2016-17	EB	-6,2	-5,0	
	EZ EB	-3,1	-4,2	
	GUZT.	-3,7	-4,5	
	% guzt. lang.			

Iturria: EEZPren datuekin eginikoa.

[6] *Hauexek osatzen dute lan-eskatzaileen guztizko kopurua: erregistraturiko langabetuek (gehienak ziren 2017ko abenduan, EAEko lan-eskatzaileen %46,4) gehi beste lan bat eta beste egoera bat nahi duten landunek eta lanik ez izan arren lanaren eta orduen aldetik (bakarrik etxez etxe, atzerrian, telelana, etab.) .eskaera bereziak dituzten lan-eskatzaileek.*

Azkenik, LANBIDEren bulegoetan erregistraturiko langabeziari buruzko datuek erakusten dutenez, 2017an behera egin zuen atzerritarren langabeziak, baina guztizko langabezia baino neurri txikiagoan (-%3,7, eta guztizko batez bestekoa -%6,3), eta beraz, gora egin du atzerritar langabeen pisuak, %15,8tik %16,3ra.

Estatuan langabeen %12,2 dira atzerritarra, aurreko urtean baino 5 hamarren gehiago, atzerritarren langabezia %4,5 murriztu baita, guztizko langabezia baino gutxiago (-%7,8)

2. KONTRATAZIOEN BILAKAERA, ALDI BATERAKO KONTRATUEN AMAIERA ETA IRAIZPENAK

2.1. KONTRATAZIOAREN EGOERA

Kontratazioak gora egin zuen 2017an aurreko urtearen aldean (+%3,4 guztira, eta %3 hasierako kontratuen kopuruan, hots, kontratu guztien %97,3 dira), 2014an hasitako bilakaerari eutsita (2012an eta 2013an gertatu ez den bezala, kontratazioak behera egin baitzuen).

III.2.1. GRAFIKOA. EAE-KO LANEKO KONTRATUEN URTEKO ALDAKUNTZA (%). HASIERAKO KONTRATUAK ETA GUZTIRA. ESTATUKO GUZTIZKOAREKIKO KONPARAZIOA



Iturria: LANBIDEren datuekin eginikoa

EEZPek 2016. urtean 958.100 lan-kontratu erregistratu ditu (berriak gehi konbertsioak). Horietatik %50,1 gizonek izenpetu zuten (%49,5 aurreko urtean), eta gainera, kontrataturiko pertsona guztien %53,1 zen (aurrerago aztertuko dugu emakumeek eta gizonek urtean –txandaketa- izenpeturiko kontratuen batez besteko kopurua).

Lurraldeen arabera, Araban %6,2 egin zuen gora kontratazioak, eta Gipuzkoan %4,5. Bizkaia, berriz, lurralde bakarra da EAEko batez bestekoaren azpitik dagoen kontratu kopurua bildu duena, %1,8 (batez bestekoa %3,4 da). Banaketari dagokionez, Bizkaian kontratuen %51,7 sinatu zen (494.991), %29,3 Gipuzkoan (2880.696) eta gainerako %19a Araban (167.278). Estatuan 2017an 21,5 milioi kontratu erregistratu dira, hau da, 2016an baino % 7,6 gehiago, nahiz eta urte horretan % +1¡7,5eko gehikuntza egon zen aurreko urtearen aldean).

Sektoreen arabera, hirugarren sektorea baino ez da hazi batez bestekoaren gainetik (+%4,3), eta honelako bilakaera izan da horren pisuan kontratazio guztiekiko: 2016ko %78,4tik 2017ko %79ra. Bigarrenik, eraikuntza %2,2 hazi da, halako moldez non kontratazioaren pisuari eusten dion (%3,6). Industriaren sektoreko kontratazioak %1 egin du gora, aurreko urtea +%5,4 hazi ondoren eta, azkenik, lehen sektorea da bilakaera negatiboa duen sektore bakarra: Kontratuen kopurua %9,8 jaitsi da, hots, guztizkoaren %1.7 (2016an baino 3 hamarren gutxiago).

III.2.1. TAULA. EAE-N ERREGISTRATURIKO LAN KONTRATUEN BILAKAERA, SEXUAREN ETA JARDUERA-SEKTOREAREN ARABERA

	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2017	% 15/16	% 16/17
GUZT.	723.820	703.837	678.946	759.149	867.255	926.599	958.100	6,8	3,4
GIZONAK	357.087	328.466	330.787	376.235	433.438	458.363	479.693	5,8	4,6
EMAK.	366.733	375.371	348.159	382.914	433.817	468.236	478.407	7,9	2,2
LEHEN SEKT.	12.852	14.027	15.622	18.289	17.890	18.563	16.738	3,8	-9,8
INDUSTRIA	64.214	58.410	59.539	111.814	140.145	147.712	149.237	5,4	1,0
ERAIKUNTZA	41.954	33.606	32.250	34.186	34.434	34.069	34.808	-1,1	2,2
ZERBITZUAK	604.800	597.794	571.535	594.860	674.786	726.255	757.317	7,6	4,3

Iturria: LANBIDE.

Hona hemen 2017an gehien kontratatu ziren jarduerak: ostalaritza (hasierako kontratuen %15,7, 2016an baino %1,9 besterik ez), manufaktura-industria (kontratuen %15, %1 hazita), administrazio jarduerak eta zerbitzu osagarriak, horien artean ALEak (hasierako kontratu guztien %12,2, 2016an baino %0,3 gutxiago), osasun eta gizarte zerbitzuetako jarduerak (kontratuen %12 eta +%2,1 2016aren aldean) eta merkataritza (guztizkoaren %11,4 eta +%4,6 aurreko urtearen aldean.

Aldea ikusten da sexuen arabera; izan ere, gizonek izenpeturiko lau kontratuetako bat hartzen du manufaktura-industriak (guztizkoaren %23,6, 2016koa baino 0,9 gutxiago). Emakumeen artean, berriz, osasun jarduerak eta ostalaritza dira jarduerarik handieneko atalak (bien artean kontratu berrien %38,5 hartzen dute).

III.2.2. TAULA. EAE-KO KONTRATAZIOA SEXURAEN ETA JARDUERA-SEKTOREAREN ARABERA (CNAE 2009)

	2016	KONTRATUAK 2017				Ald. % 15/16	Ald. % 16/17
		GIZONAK	EMAK.	GUZT.	Bertik %.		
NEKAZARITZA, ABELTZAINTZA, BASOGINTZA, ARRANTZA	18.563	15.204	1.534	16.738	1,7	3,8	-9,8
ERAUZKETA-INDUSTRIAK	100	73	10	83	0,0	11,1	-17,0
MANUFAKTURA-INDUSTRIA	142.488	113.063	30.876	143.939	15,0	5,7	1,0
ARGINDARRAREN HORNIDURA, GASA, LURRUNA	159	83	55	138	0,0	33,6	-13,2
UR HORNIDURA, HONDAKINEN KUDEAKETA	4.965	4.556	521	5.077	0,5	-4,3	2,3
ERAIKUNTZA	34.069	33.026	1.782	34.808	3,6	-1,1	2,2
HANDIKAZKO ETA TXIKIZKAKO MERKAT; KONPONK.	104.095	43.671	65.161	108.832	11,4	5,6	4,6
GARRAIOA ETA BILTEGIRATZEA	59.587	57.311	11.575	68.886	7,2	1,5	15,6
OSTALARITZA	147.394	56.843	93.404	150.247	15,7	11,8	1,9
INFORMAZIOA ETA KOMUNIKAZIOAK	21.121	13.989	9.481	23.470	2,4	-4,0	11,1
FINANTZA- ETA ASEGURU-JARDUERAK	5.342	1.604	3.523	5.127	0,5	-4,3	-4,0
HIGIEZINEN ARLOKO JARDUERAK	1.069	455	751	1.206	0,1	-32,3	12,8
PROFESIONALAK, ZIENTIFIKOAK ETA TEKNIKOAK	30.364	13.417	17.899	31.316	3,3	-0,1	3,1
ADMINISTRAZIO JARDUERAK	117.546	49.737	67.495	117.232	12,2	11,3	-0,3
ADMINISTRAZIO PUBLIKOA	12.447	5.103	7.136	12.239	1,3	26,3	-1,7
HEZKUNTZA	41.110	12.902	30.999	43.901	4,6	6,8	6,8
OSASUN ETA GIZARTE ZERBITZUETAKO JARDUERAK	112.686	24.092	90.990	115.082	12,0	9,3	2,1
ARTE, JOLAS ETA ENTRETENIMENDU JARDUERAK	36.940	24.829	16.599	41.428	4,3	10,1	12,1
BESTE ZERBITZU BATZUK	19.710	8.369	12.927	21.296	2,2	3,5	8,0
FAMILIAK PERTSONALAREN ENPLEGATZAILE GISA	16.749	1.282	15.580	16.862	1,8	1,3	0,7
LURRALDEZ KANPOKO ERAKUNDEAK	95	82	111	193	0,0	150,0	103,2
GUZT.	**926.599**	**479.691**	**478.409**	**958.100**	**100,0**	**6,8**	**3,4**

Iturria: LANBIDE.

Manufaktura-industriak kontratu berrien %15 hartzen du, esana dugunez, eta %23,6 gizonen artean, eta horien barruan, honako jarduera hauek daude kontratazioaren rankingeko buruan 2017an[7] (CNAE, bi digitutan): Metalezko produktuen fabrikazioa (33.853 kontratu, manufaktura-industriak erregistraturikoen %24,6 eta %25,6raino gizonen artean), Metalurgia (kontratuen %12,9) eta elikagaien industria (%11,7), halako moldez non 3 sekzioon artean 67.764 kontratu biltzen dituzten, manufaktura-industrian erregistraturikoen ia erdia (%49,2, 2016an baino bi puntu gehiago).

III.2.3. TAULA. MANUFAKTURA-IND.: NAE 2009 (BI DIGIT.N) EAEN HASIERAKO KONTRATU KOPURURIK HANDIENA DUTENAK. SEXUAREN ARABERA. 2017

	KONTRATUAK			KONTRATUEN % 2017			HAZK.% 2016/17		
	GIZONAK	EMAK.	GUZT.	GIZONAK	EMAKUM.	GUZT.	GIZONAK	EMAKUM.	GUZT.
1. PROD. METALIKO FABRIK.	27.728	6.125	33.853	25,6	20,7	24,6	5,6	13,6	6,9
2. METALURGIA. PROD. FABRIK.	16.164	1.609	17.773	14,9	5,4	12,9	6,5	3,3	6,2
3. ELIKAGAIEN INDUSTRIA	7.827	8.311	16.138	7,2	28,1	11,7	-4,4	-2,4	-3,4
4. MOTORDUN IBILG. FABRIK.	11.110	2.494	13.604	10,3	8,4	9,9	-9,4	-9,7	-9,5
5. KAUTXU ETA PLASTIKOEN FABRIK.	7.262	2.008	9.270	6,7	6,8	6,7	3,4	9,0	4,5
6. GARRAIO BESTE MATERIAL FABRIK.	6.198	974	7.172	5,7	3,3	5,2	9,6	23,6	11,3
7. GAINERAKOA	31.972	29.583	40.034	29,5	27,3	29,0	-3,6	3,9	-2,2
GUZT. MANUFAKTURA-INDUSTRIA	108.261	29.583	137.844	100,0	100,0	100,0	-0,4	1,0	-0,1
KONTRATU BERRI GUZTIEN %	23,3	6,3	14,8						

Iturria: EEZP. Lan eta Gizarte Segurantzako Ministerioa

[7] *Bi digituko sekzioko kontratuak aztertzeko, hasierako kontratuak hartzen dira kontuan, kontratu guztien %97,3. Hori dela-eta, manufaktura-industriako datuen guztizko kontratuak ez datoz bat III.2. eta III.2.3. tauletan.*

Adin-taldeen arabera, 2017an gizonek nahiz emakumeek sinaturiko kontratu berri gehienak 25-45 urte bitarteko adin-tarteari dagozkio (kontratuen %57,1), 25-35eko eta 35-45eko adinetan banaturik, %16,1 eta %41 izanik hurrenez hurren. 25 urtetik behera, kontratuen %16,8 sinatu dira, biztanleria aktiboan duen pisua baino handiagoa, %3,8koa baita (2017ko batez bestekoa).

III.2.4. TAULA. KONTRATUAK EAE-N, SEXUAREN ETA ADINAREN ARABERA. 2016-2017KO KONPARAZIOA

	KONTRATUAK 2017			KONTRATUEN % 2017			HAZK. % 2016/17		
	GIZONAK	EMAK.	GUZT.	GIZONAK	EMAK.	GUZT.	GIZONAK	EMAK.	GUZT.
< 20	12.222	12.111	24.333	2,5	2,5	2,5	20,3	14,8	17,5
20 - 24	65.445	71.943	137.388	13,6	15,0	14,3	8,2	3,6	5,7
25 - 29	75.237	78.616	153.853	15,7	16,4	16,1	-0,6	-2,2	-1,4
30 - 44	211.048	181.934	392.982	44,0	38,0	41,0	2,7	0,1	1,5
45 urte +	115.739	133.805	249.544	24,1	28,0	26,0	8,6	6,1	7,3
GUZT.	**479.691**	**478.409**	**958.100**	**100,0**	**100,0**	**100,0**	**4,7**	**2,2**	**3,4**

Iturria: LANBIDE.

2016arekiko bilakaerari dagokionez, adin-talde guztietan igo da kontratuen kopurua, 25-49 urte bitarteko adin-tartea salbuespenarekin (-%1,4), emakumeen nahiz gizonen artean (-%0,6 eta -%2,2, hurrenez hurren). Ratiorik handienak, batez bestekotik gora, gazteenen artean gertatzen dira (+%17,4, 20 urtetik beherakoak), kontratazioaren guztikoan duen pisu txikiagoa bada ere guztizkoaren %2,5), baita 45 urte eta gehiagokoen artean ere (+%7,3, eta kontratuen %26 dira).

Gizonen eta emakumeen artean dauden aldeei dagokienez, kontratazioak bi sexuen artean banatzen dira ia %50ean, baina handiagoa da bakarrik 30–44 urtekoen artean (kontratazioaren zatirik handiena biltzen dutenak, kontratuen %41 eta %44raino gizonezkoen artean). Gainerako taldeetan, emakumeak ugariagoak dira, 20 urtetik beherakoentzako diferentzia txiki bat izan ezik.

Ikasketa mailaren araberako kontratazioaren banaketari dagokionez, hamar kontratuetatik ia 4 (%39,8) lehen mailako ikasketak dituzten pertsonek izenpetzen dituzte, gehiena ikasketa osoak, gizonetan (kontratuen %43) nahiz emakumeen artean (%36,6). Bigarrenik, kontratuen %33,4 bigarren mailako ikasketak dituzten pertsonei dagozkie horietatik bi herenek gutxi gorabehera hezkuntza orokorra dute eta heren batek LH). Ondoren, %22,1 bigarren hezkuntzaren ondorengo ikasketak dituzten pertsonei dagokie, horietatik %13,6 unibertsitatekoak eta %8,5 goi mailako lanbide ikasketak teknikoak dira.

Bestalde, kontratazioaren gehikuntzarik handienak doktoretzei eta unibertsitateko masterrei dagozkie (+%24,1 2016aren aldean, baina kontratazioaren %1,7 baino ez dira), eta oinarrizko ikasketen artean, osatu gabeko ikasketak dituzten langileenak (kontratu guztien +%13,9 eta +%15,4 gizonetan). Ikasketa maila guztietan egin du gora kontratazioak, oinarrizko LHn ezin ezik (-%4,3).

III.2.5. TAULA. EAE-KO KONTRATUAN, SEXUAREN ETA IKASKETA MAILAREN ARABERA. 2016-2017KO KONPARAZIOA

	KONTRATUAK 2017			KONTRATUEN %2017			HAZK.% 2016/17		
	GIZONAK	EMAK.	GUZT.	GIZONAK	EMAK.	GUZT.	GIZONAK	EMAK.	GUZT.
IKASKETARIK EZ	23.079	18.989	42.068	4,8	4,0	4,4	4,5	5,1	4,7
OINARRIZKO IKASKETAK	206.289	175.069	381.358	43,0	36,6	39,8	2,6	3,4	3,0
- Oinarrizkoak, osatu gabe	15.791	10.789	26.580	3,3	2,3	2,8	15,4	11,8	13,9
- Oinarrizkoak, osatuak	190.498	164.280	354.778	39,7	34,3	37,0	1,7	2,9	2,2
2. MAILAKO IKASKETAK	155.149	164.446	319.595	32,3	34,4	33,4	4,3	-1,0	1,5
- LH-ko programak	53.930	56.244	110.174	11,2	11,8	11,5	-0,8	-7,5	-4,3
- Hezkuntza orokorra	101.219	108.202	209.421	21,1	22,6	21,9	7,3	2,8	4,9
2. MAILA ONDOKO IKASKETAK	94.923	116.609	211.532	19,8	24,4	22,1	10,1	4,7	7,1
- Goi-mailako tekn. prof.	43.486	38.385	81.871	9,1	8,0	8,5	8,0	7,9	8,0
- Diplomaduna, Lizentziaduna eta Gradua	43.178	70.408	113.586	9,0	14,7	11,9	10,2	1,2	4,4
- Doktoregoa eta Master unibertsitatekoa	8.259	7.816	16.075	1,7	1,6	1,7	22,7	25,6	24,1
ZEHAZTU GABE	251	3.296	3.547	0,1	0,7	0,4	-18,2	-1,9	-3,3
GUZTIRA	479.691	478.409	958.100	100,0	100,0	100,0	4,7	2,2	3,4

Iturria: LANBIDE

Lanaldi motari dagokionez, bilakaera positiboa dugu lanaldi partzialeko kontratuetan (guztira 385.771 EAEn, (+%3,8 2016aren aldean), kontratu guztien %40,3, nahiz lanaldi osoko kontratuetan, guztira 569.806, %5,6 hazita (kontratuen %59,5). Gainerako %0,2a lanaldi eteneko 2.522 kontratuei dagokie.

III.2.6. TAULA. EAE-N IZENPETURIKO LAN KONTRATUEN BILAKAERA, LANALDI MOTAREN ETA SEXUAREN ARABERA

		2014	2015	2016	2017	% 15/16	% 16/17
LANALDI PARTZIALA	GIZONAK	99.147	114.612	123.025	128.959	7,3	4,8
	EMAK.	203.939	227.607	248.707	256.813	9,3	3,3
	GUZT.	303.086	342.219	371.732	385.772	8,6	3,8
LANALDI OSOA	GIZONAK	276.242	317.926	334.205	349.576	5,1	4,6
	EMAK.	178.024	205.070	218.170	220.230	6,4	0,9
	GUZT.	454.266	522.996	552.375	569.806	5,6	3,2
LANALDI FINIKO ETENA	GIZONAK	846	900	1.133	1.158	25,9	2,2
	EMAK.	951	1.140	1.359	1.364	19,2	0,4
	GUZT.	1.797	2.040	2.492	2.522	22,2	1,2
GUZT.	GIZONAK	376.235	433.438	458.363	479.693	5,8	4,7
	EMAK.	382.914	433.817	468.236	478.407	7,9	2,2
	GUZT.	795.149	867.255	926.599	958.100	6,8	3,4

Iturria: EEZP. Lan eta Gizarte Segurantzako Ministerioa .

Sexuaren arabera, lanaldi partzialeko kontratazioaren pisua oso desberdina da, zeren eta emakumeek sinaturiko kontratuen erditik gorakoa baita (%53,7 2017an, aurreko urtean baino 0,6 gehiago). Gizonekoek sinaturiko kontratuak, berriz, %26,9 dira.

III.2.7. TAULA. EAE-N IZENPETURIKO LAN KONTRATUEN BILAKAERA, IRAUPENAREN ETA SEXUAREN ARABERA

		2014	2015	2016	2017	Aldak. Abs. 2016-17	Aldak.% 2016-17
MUGAGAB.	GIZONAK	25.300	29.626	32.941	38.202	5.261	16,0
	EMAK.	27.143	30.411	32.589	35.126	2.537	7,8
	GUZT.	52.443	60.037	65.530	73.328	7.798	11,9
ALDI BAT.	GIZONAK	350.935	403.812	425.422	441.491	16.069	3,8
	EMAK.	355.771	403.406	435.647	443.281	7.634	1,8
	GUZT.	706.706	807.218	861.069	884.772	23.703	2,8
GUZT.	GIZONAK	376.235	433.438	458.363	479.693	21.330	4,7
	EMAK.	382.914	433.817	468.236	478.407	10.171	2,2
	*GUZT.	759.149	867.255	926.599	958.100	31.501	3,4
MUGAGAB. TASA	GIZONAK	6,7	6,8	7,2	8,0		
	EMAK.	7,1	7,0	7,0	7,3		
	GUZT.	6,9	6,9	7,1	7,7		

Iturria: EEZPren datuekin eginikoa. Kontratuei buruzko estatistikak.

Kontratuen iraupenari dagokionez, gehienak aldi baterakoak dira orain ere (guztizkoaren %92,3). 2017an sinaturiko guztietatik 73.328 mugagabeak izan ziren, hots, %7,7 (2016an baino 6 hamarren gehiago), 2008tik izandako handiena. Kontratu mugagabe horien tasa %1,7 hazi zen 2011 eta 2017 artean (%6,0tik %7,7ra), baina hobetu egin da 2011z gero.

Sexuaren arabera, kontratazio mugagabearen pisua pixka bat handiagoa da gizonetan (%8, emakumeen %7,3aren aldean), eta gehiago hazi da gizonetan (+0,8, emakumeen +0,3aren aldean). 2017ko kontratu mugagabe horien kopurua %11,9 hazi da 2016aren aldean. Aldi baterako kontratazioa, berriz, (guztizkoaren %92,3) %2,8 hazi da aldi berean, kontratu guztien multzoaren 6 hamarren gutxiago.

Aldi baterako kontratu mota desberdinei dagokienez, gehienak, %47,3 ekoizpenaren inguruabarren ziozko behin–behineko kontratuak ziren. Bigarren tokian, obra edo zerbitzu kontratuak zeuden (%30,4), eta ondoren bitarteko kontratuak (%20,5). Hiru kontratu mota horiek batuta, aldi baterako kontratuen %98,2 osatzen dute (2016ko kopuru bera). Nahiz eta aldi baterako kontratuen batuketa %50ean banatzen den gizonen eta emakumeen artean (emakumeek %50,1 sinatu dute), emakumeen presentzia bereziki nabarmena zen bitarteko kontratuetan, emakumeek sinatu baitzuten kontratu horien %72,6. Emakumeen presentzia askoz txikiagoa zen, aldiz, obra edo zerbitzu kontatuetan (%40) eta ekoizpenaren inguruabarren ziozko kontratua baino (guztizkoaren %47,4). Lanaldi motari dagokionez, lanaldi partzialaren batez besteko pisua %40,7 zen (%40,4 2016ean), eta ez zen desbideratze handirik antzematen aipaturiko aldi baterako hiru kontratu mota horien artean.

III.2.8. TAULA. EAE-N 2017AN SINATURIKO ALDI BATERAKO KONTRATUEN BANAKETA, SEXUAREN ETA LANALDI MOTAREN ARABERA

	GUZT.		GIZONAK	EMAK.	L. OSOA	L. PARTZIALA
	ABS.	% BERTIK.				
OBRA EDO ZERBITZUA	268.594	30,4	161.281	107.313	160.297	108.297
EKOIZPENAREN INGURUABARRAK	418.855	47,3	220.523	198.332	246.493	172.362
BITARTEKOA	181.242	20,5	49.687	131.555	107.842	73.400
EZINDUAK	1.308	0,1	860	448	1.025	283
ERRELEBOA	1.426	0,2	706	720	765	661
ERRETIRO PARTZIALA	3.646	0,4	2.432	1.214	-	3.646
64 URTEKO ERRETIROAREN ORDEZKOA	47	0,0	20	27	47	-
PRAKTIKAK	7.332	0,8	4.522	2.810	5.972	1.360
TREBAKUNTZA	1.375	0,2	913	462	1.375	-
BESTE BATZUK	947	0,1	547	400	476	471
GUZTIRA	884.772	100,0	441.491	443.281	524.292	360.480

Iturria: EEZPren datuekin eginikoa. Kontratuei buruzko estatistika.

Aldi baterako kontratazioak duen pisu handia dela-eta, kontrataturiko pertsonen zati handi bat hainbat alditan kontratatu ziren urtean. 2017an kontrataturiko pertsonen kopurua, 298.413, askoz txikiagoa da erregistraturiko kontratu guztiak baino (958.100 orotara). Kopuru horiek oinarri hartuta, laneko txandaketa-indizea kalkulatzen da (sinaturiko kontratu kopuruaren eta kontrataturiko pertsonen kopuruaren zatidura).

III.2.2. GRAFIKOA. LANEKO TXANDAKETAREN BILAKAERA (KONTRATUEN BATEZ BESTEKO KOPURUA KONTRATATURIKO PERTSONAKO), SEXUAREN ARABERA, EAE-N



Iturria: EEZPren datuekin eginikoa

Txandaketak igoera txikia erakusten du 2017an, zeren eta ratioa 3,21 ehunen baita, 2016koa baino 5 ehunen gutxiago. 2011tik izan den lehen jaitsiera da. Bilakaera antzekoa da sexuaren arabera; izan ere, txandaketa hazi egin da gizonentzat (3,06 kontratutik 3,02 kontratura) eta emakumeentzat (2016ko 3,48 kontratutik 2017ko 3,42 kontratura). Hortaz, bi ratioen arteko aldea 2 ehunen murriztu da, 0,40 puntukoa izan zen 2017an.

III.2.3. GRAFIKOA. LANEKO TXANDAKETA EAE-N: 2017AN KONTRATATURIKO PERTSONEN BANAKETA, KONTRATU KOPURUAREN ARABERA. SEXUAREN ARABERAKO DATUAK.



Iturria: EEZPren datuekin eginikoa

Lan-txandaketa hori islatzeko beste modu bat da 2017an kontrataturiko pertsonen erdiak urtean kontratu bat izan zuela azpimarratzea da (guztizkoaren %52,1, %54,9 gizonen artean eta %48,9 emakumeen artean), %27,4k 2 edo 3 lan-kontratu izan zituen, %18,5ek 4-20 kontratu bitartean sinatu zituen eta gainerako %1,9ak 20 kontratu baino gehiago sinatu zituen urtean. Oso antzeko banaketa dago sexuen arabera.

Aldi baterako kontratuen batez besteko iraupenari dagokionez, 50 egunekoa da (2015ean eta 2016an baino 2 gehiago), eta Estatuan, berriz, 52 egunekoa da, 2016aren aldean 2 egun gehiago. Kontratu motaren arabera, laburrenak bitarteko kontratuak dira (26 egun batez beste, 2016an baino 1 gehiago), eta ondoren ekoizpenaren inguruabarren ziozko aldi baterakoak, 36 eguneko iraupena baitute batez beste (aurreko urtean baino 1 gehiago). Sexuaren arabera, batez beste, gizonek izenpeturiko kontratuak luzeagoak dira emakumeek sinaturikoak baino (54 egun, 45 egunen aldean), baina alde hori ez da Estatuan ikusten.

III.2.9. TAULA. IZENPETURIKO IRAUNPEN JAKIN BATEKO ALDI BATERAKO KONTRATUEN BATEZ B. IRAUPENA (EGUNAK)

	2015			2016			2017		
	GIZONAK	EMAK.	GUZT.	GIZONAK	EMAK.	GUZT.	GIZONAK	EMAK.	GUZT.
ALDI BATERAKOA, EKOIZPENAREN INGURUABAR.	34	35	35	35	35	35	37	36	36
TREBAKUNTZA	344	346	345	358	362	360	367	368	368
BITARTEKOA	24	22	23	26	25	25	27	25	26
ERRETIRO PARTZIALA	1.290	1.341	1.305	1.288	1.329	1.301	1.274	1.338	1.295
OBRA EDO ZERBITZUA	36	51	42	38	44	41	44	44	44
BESTE BATZUK	273	264	269	228	243	234	276	315	293
PRAKTIKAK	251	258	254	249	265	256	248	260	252
ERRELEBOA	1.183	1.233	1.205	1.182	1.240	1.208	1.181	1.263	1.222
ERRETIROAREN ORDEZKOA AURRETIAZKO ERRETIROA	360	319	328	360	332	348	360	360	360
EZINDUEN ALDI BATERAKOA	384	372	380	377	375	376	387	386	386
GUZT. EAE	52	45	48	52	44	48	54	45	50
GUZT. ESTATUA	53	54	54	50	51	50	51	52	52

Iturria: EEZPren datuekin eginikoa

2017an eginiko aldi baterako kontratuen %49,3k hilabete edo denbora laburreko iraupena izan zuen, %14,7k hilabete eta sei hilabete artean eta %3,1ek sei hilabetetik gorakoa. Gainerako aldi baterako kontratuak (%32,9) iraupen zehaztugabekoak dira.

III.2.10. TAULA. EAE-N ERREGISTRATURIKO LAN KONTRATUAK: DATUEN GURUTZATZEA LANALDIAREN ETA IRAUPENAREN ARABERA. ETA BESTE DATU BALIAGARRI BATZUK

		2013	2014	2015	2016	2017	Ald. % 15/16	Ald. % 16/17
LANALDI PARTZIALA	MUGAGAB.	16.843	19.478	21.827	23.780	25.292	8,9	6,4
	ALDI BAT.	252.100	283.608	320.392	347.952	360.480	8,6	3,6
	GUZT.	268.943	303.086	342.219	371.732	385.772	8,6	3,8
LANALDI OSOA	MUGAGAB.	25.878	31.168	36.170	39.258	45.514	8,5	15,9
	ALDI BAT.	382.252	423.098	486.826	513.117	524.292	5,4	2,2
	GUZT.	408.130	454.266	522.996	552.375	569.806	5,6	3,2
LANALDI FINKOA ETENA	MUGAGAB.	1.873	1.797	2.040	2.492	2.522	22,2	1,2
GUZT. KONTRATUAK		678.946	759.149	867.255	926.599	958.100	6,8	3,4
HASIERAKO KONTRATUAK		664.523	745.083	850.108	905.528	932.989	6,5	3,0
KONBERTSIOAK		14.423	14.066	17.147	21.071	25.111	22,9	19,2
LANALDI PARTZIALEKO TASA		39,6	39,1	39,5	40,1	40,3	1,5	0,5
ATZERRITARREN KONTRATUAK		74.968	75.986	84.787	93.887	103.574	10,7	10,3

Iturria: Geuk egina EEZP-ren datuekin. Lan eta Gizarte Segurantzako Ministerioa.

EAEn 2017an izandako kontratazioa kontratuen iraupenaren eta lanaldi motaren arabera aztertuta, bi aldagaiak gurutza daitezke hauxe egiaztatzeko: sinaturiko 958.100 kontratuetatik erdia baino gehiago (%54,7) lanaldi osorako aldi baterako kontratuak izan ziren, eta modalitate hori %2,2 hazi zen 2016aren aldean (kontratu guztiak baino +%3,4 gehiago). Bigarrenik, lanaldi partzialeko aldi baterako kontratuak zeuden, hots, kontratu guztien %37,6. Modalitate hori %3,6 hazi zen aurreko urtearen aldean. Hirugarrenik, lanaldi osoko kontratazio mugagabea dago, hots, %4,8 (2016an baino 6 hamarren gehiago), %15,9 hazi baita. Lanaldi partzialeko mugagabea dago hurrengo, %2,6 (2015eko eta 2016ko ratio bera), %6,4 hazita. Azkenik, lanaldi finko eteneko kontratuak %0,3 dira, 2016an baino 3 hamarren gehiago), %19,2 hazi ondoren. 2017an hazi zen kontratu mota nagusia izan zen.

EEZPren datuek agerian uzten dutenez, azkenik, gure Erkidegoan 2017an sinaturiko lan-kontratu guztietatik 103,574 atzerritarrek izenpetu zituzten, hots, guztizkoaren %10,8k (%10,1ek 2016an) eta 2015ean baino %10,7 gehiago.

Horrenbestez, kontratazioaren bilakaera positiboa izan arren, okerragoa izan zen EAEn atzerriko etorkinentzat. Atzerritarrek izenpeturiko kontratu guztien %60 gizonezkoei zegokien eta %40a emakumeei.

2.2. ERREGULAZIO-ESPEDIENTEEN ETA IRAIZPEN KOLEKTIBOEN BILAKAERA

Erregistraturiko **banakako iraizpenak** Autonomia Erkidegoko lan-administrazioko agintaritza eskudunaren aurrean (Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak ordezkatuta[8]) egindako adiskidetzeen ondorioz eta bi aldeak ados egonik egin direla, baita Lan arloko Epaitegien bidez izapidetutakoak ere; iraizpen horiek Enplegu eta Gizarte Segurantzako Ministerioari jakinarazten zaizkio. Bestalde, enpresak arrazoi ekonomikoak, teknikoak, antolakuntzakoak edo ekoizpenekoak direla medio epealdi jakin batean lan-kontratuen ehuneko jakin bat iraungitzeko harturiko erabakiak (langileen legezko ordezkarien adostasunarekin edo adostasunik gabe) dira **iraizpen kolektiboak**.

2.2.1. Banako iraizpenak

Lehenik eta behin, Lan eta Gizarte Segurantzako Ministerioaren "*Lan-estatistikak*" direlakoetan, 2017an orotara 5.274 langile zeuden bitartekaritza, arbitraje eta adiskidetze (BAA) gaien eraginpean, eta aldeen artean hala adostuta ebatzi ziren (azaroko behin-behineko datuak), 2016an baino %18 gehiago. Horren ondorioz, batez beste 19.484,2 euroko kalte-ordaina izan da langileko (-%24,5 2016aren aldean).

Halaber, beste 4.301 langileri eragin zieten gizarte arloko epaitegien bidez izapideturiko iraizpenek (gizarte gai judizialak, GGJ), aurreko urtean baino %1,1 gehiago. Hala, adosturiko kantitateen batez besteko zenbatekoa 6.310.5 euro da, 2016an baino %36,4 gutxiago.

Azken finean, 9.575 langile izan ziren iraizpen horien eraginpean (+%9,8 2016aren aldean), eta orotara 129,9 milioi euroko kalte-ordainak mugiarazi zituzten, 2016an baino %17,5 gutxiago (behin-behineko datuak).

III.2.11. TAULA BANAKO IRAIZPENEN BILAKAERA EAE-N. (ENPLEGU ETA GIZARTE SEGURANTZA MINISTERIOA)

	Kopuru absolutuak			Aldak. %	
	2015	2016	2017	2015/16	2016/17
Eraginpeko langileak					
Bitartekotza, Arbitrajea eta adiskid. (BAA)*	4.359	4.470	5.274	2,5	18,0
Gizarte gai judizialak (GGJ)	5.175	4.254	4.301	-17,8	1,1
GUZT.	9.534	8.724	9.575	-8,5	9,8
ADISKIDETZEETAN ADOSTURIKO KOPURUAK:					
Zenbatekoa, guzt. (Mila €)					
Bitartekotza, Arbitrajea eta adiskid.*	121.875	115.307	102.760	-5,4	-10,9
Gizarte gai judizialak	49.378	42.195	27.142	-14,5	-35,7
GUZTIRA	171.253	157.502	129.902	-8,0	-17,5
B.b. zenbatekoa (€)					
Bitartekotza, Arbitrajea eta adiskid. (BAA)*	27.959,5 BAA	25.795,9 GAJ	19.484,2	-7,7	-24,5
Gizarte gai judizialak (GGJ)	9.541,6	9.918,9	6.310,5	4,0	-36,4

Iturria: EGZM. Laneko estatistikak.
**EGZMren datuak, 2017an, urtarril-azarorako aurrerapenari dagozkio.*

III.2.4. GRAFIKOA. BANAKO IRAIZPENAK: BAA ETA GGJ ESPEDIENTEEN ERAGINPEKO LANGILEEN BILAKAERA EAE-N



Iturria: LAN MINISTERIOA. Laneko estatistikak
BAA: Bitartekaritza, Arbitrajea eta Adiskidetzea (2017ko behin-behineko datuak)
GGJ: Gizarte Gai Judizialak

Ikuspegi historikoari erreparatuz gero ikusten denez, beheranzko joera dago eraginpeko langileen aldetik, 2013an eta 2014an 10.000eko kopurua gainditu ondoren. Hala ere, gai horien eraginpeko pertsonen kopuruak berriz ere gora egin du azken urtean, baina behin-behineko datuak direnez gero, jarraipena egin beharko da.

[8] *Banako iraizpena diziplinazkoa edo kausa objektibokoa izan daiteke. Iraizpen objektiboetan, kausak enpresari eragiten badio, hainbat izan daitezke, baina kopurua ez da inoiz iritsiko iraizpen kolektiboko atalasetara.*

2.2.2. Laneko erregulazio-espedienteak

Nabarmendu behar da 2012ko otsailean indarrean sartu zen lan erreformak taldeko iraizpenetarako administrazio baimenaren behar historikoa ezabatu zuela. Horrenbestez, ordutik aurrera enpresak berez erabakitzen du, langileen ordezkariak ados egonda edo ados egon gabe, eta lan agintaritzari taldeko iraizpena gauzatzeko erabakia jakinarazi besterik ez du egin behar. Nolanahi ere, kontuan izan behar da Enplegu eta Gizarte Segurantza Ministerioak arlo publiko honi buruz emandako estatistiketan ez direla biltzen izandako iraizpen guztiak, zeren eta ez baititu jasotzen arrazoi ekonomikoak, teknikoak, antolakuntzakoak edo ekoizpenekoak direla izandako iraizpenak, noiz-eta iraizpen kolektibotzat[9].

III.2.12. TAULA. EAE-N ERREGISTRATURIKO LANEKO ERREGULAZIO-ESPEDIENTEAK: ERAGINPEKO LANGILEAK ETA LURRALDEEN ARABERA (EUSKO JAURLARITZA)

	ARABA	GIPUZKOA	BIZKAIA	EAE
2012	9.049	12.426	15.954	37.429
2013	9.747	9.102	12.941	31.790
2014	5.064	6.273	5.410	16.747
2015	2.181	2.691	3.236	8.108
2016	2.099	1.746	2.438	6.283
2017	1.330	1.188	1.824	4.342
Ald. % 15/16	-3,8	-35,1	-24,7	-22,5
Ald. % 16/17	-36,6	-32,0	-25,2	-30,9

Iturria: Lan eta Justizia Saila. EUSKO JAURLARITZA.

Eusko Jaurlaritzako Lan eta Justizia Sailak EAEn erregistraturiko lan-erregulazioko espedienteei buruzko estatistikak argitaratzen ditu, eta guztira 266 espediente zenbatu zituen 2017an (-%40,4 2016aren aldean), orotara 4.342 langile (-%30,9), horietatik %66k aldi baterako etenaldiko espedientea dutela (-%36 2016aren aldean), % 11,1ek lanaldi murriztua (-%59) eta gainerako %22,9k desegite-espedientea (+%56,3 aurreko urtearen aldean). Azken horiek, desegite edo irazpen kolektiboko lan-erregulazioko espedienteek, 997 langileri eragiten diete.

III.2.13. TAULA. EAE-N ERREGISTRATURIKO LANEKO ERREGULAZIO-ESPEDIENTEAK: ERAGINPEKO LANGILEEN KOPURUA (EUSKO JAURLARITZA)

	ESPEDIENTEAK	ERAGINPEKO LANGILEAK			
		GUZT.	MURRIZTUTA	ETENDA	AGORTUTA
2012	2.636	37.429	5.466	28.627	3.336
2013	2.426	31.790	5.814	24.104	1.872
2014	1.434	16.747	3.196	12.091	1.460
2015	695	8.108	1.530	5.718	860
2016	446	6.283	1.172	4.473	638
2017	266	4.342	481	2.864	997
Ald. % 15/16	-35,8	-22,5	-23,4	-21,8	-25,8
Ald. % 16/17	-40,4	-30,9	-59,0	-36,0	56,3

Iturria: Lan eta Justizia Saila. EUSKO JAURLARITZA.

Enpresa motaren arabera, eraginpeko langileen %50,9k sozietate anonimoetan egiten du lan, %45,5ek sozietate mugatuetan eta gainerako %3,6ak beste sozietate modu batzuetan. Tamainari dagokionez, 25 langile baino gutxiagoko enpresetakoa da %27. %25,6, berriz, 250 langiletik gorakoei dagokie. Bi kategorien artean, 25 eta 50 arteko plantillei dagokie %17,8, %11,5 51-100 langilekoei eta gainerako %18,1a 101-250 langile dituztenei.

Lurraldeen arabera, beherakadarik handiena Araban izan da, non eraginpeko langileen kopuruak %36,6 egin baitu behera, eta ondoren Gipuzkoan (-%32). Araban, berriz, %25,2 egin du behera. Honelaxe banatzen dira, bestela, espediente horien eraginpeko langile guztiak: %27,4 Gipuzkoan, %30,6 Araban eta %42 Bizkaian. Horrez gain, erregulazio espedientearen eraginpeko pertsonen %73,4 gizonezkoak ziren, eta %26,6 emakumeak (%81,3 eta % 18,7, hurrenez hurren 2016an).

Kasuei dagokienez, kausa ekonomikoak dira nagusi, eraginpeko langileen %94, eta ondoren datoz teknikoak (%6,1). Horren %1 nahitaezko zioengatik izan dira. Eta jarduera-sektoreen arabera, Euskadin erregulazio espediente gehien planteatzen duena industria da, kopuruaren aldetik (120. %48,5), baina eraginpeko langileen aldetik, proportziorik handiena industriaren sektoreak du (3.203; %73,8).

[9] *Taldeko iraizpentzat jotzen da hark 5 langiletik gorako langileria osoari eragiten dionean, enpresa jarduera erabat amaitzearen ondorioz edo, laurogeita hamar eguneko epean, 100 langiletik beherako enpresetan gutxienez 10 soldatapekori, langileen % 10i 100 eta 300 langile arteko enpresetan edo 30 soldatapekori 300 langiletik gorako enpresetan (Langileen Estatutuaren Legeko 51. artikulua). Atalase horietara heldu ezean, iraizpen objektibotzat hartuko da (52. art.).*

Eusko Jaurlaritzako Lan eta Justizia Sailaren estatistikari esker, era berean, aldeen arteko akordioa duten espedienteen ziozko eraginpeko langileen proportzioa zein den jakin daiteke. lan-erregulazioko espediente baten eraginpeko langileen %79,5ek aldeek itundutako espedienteak izan zituen. 2015an, berriz, %71,3k (%84,3 batez beste estatuan, Lan Ministerioaren arabera). Erregulazio espediente motaren arabera asko aldatzen da akordioaren proportzio hori, halako moldez non %84,9 izan baitzen etenaldi-espedienteetan, %75,5 murrizpenekoetan eta %66,4 taldeko iraizpenetan.

III.2.14 TAULA. LANEKO ERREGULAZIO ESPEDIENTEAK/ ERAGINPEKOAK

	EAE	ESTATUA	% EAE/ESTATUA
2010	43.889	302.746	14,5
2011	28.492	343.629	8,3
2012	51.948	483.313	10,7
2013	42.449	379.972	11,2
2014	17.854	159.566	11,2
2015	8.511	100.522	8,5
2016	8.341	86.576	9,6
2017	**4.658**	**54.098**	**8,6**
Ald. % 15/16	-2,0	-13,9	
Ald. % 16/17	-44,2	-37,5	

Iturria: LAN ETA GIZARTE SEGURANTZA MINISTERIOA. Laneko Erregulazioei buruzko Estatistikak.

Bestalde, EAEn erregistraturiko erregulazio espedienteen datuak, betiere Lan eta Gizarte Segurantzako Ministerioaren "*Laneko erregulazioei buruzko estatistika*" delakoa oinarri hartuta, euskal administrazioan eta zentralean izapideturiko eta EAE eragina duten erregulazio espedienteen agregatua ematen du. Haren datuak eta Eusko Jaurlaritzarenak bat ez badatoz ere (Ministerioarenak ugariagoak dira, aldi berean EAEn eta kanpoan lantokiak dituzten enpresen espedienteak erregistratzen direlako eta, beraz, EAEko langileei ere eragiten diete), baliagarria da bi estatistikak aztertzea; izan ere, horien bilakaera, jakina, ilbo beretik doa.

2017ko behin-behineko datuak izanik, lan-erregulazioko espedienteen eraginpeko langileak 4.658 ziren EAEn (Eusko Jaurlaritzaren estatistikak erregistratzen dituen 4.342 langileak gehi Administrazio Zentralean izapideturiko 316 espediente). Kopuru horrek %44,2 egin du behera EAEn, eta %37,5 Estatu osoan. Hortaz, puntu batean jaitsi da EAEko espedienteek guztizkoarekiko duten pisua, %8,6 izateraino.

2.2.3. Iraizpenen bilakaera agregatua

Azken finean, banako iraizpenen eta desegite erregulazio espedienteen eraginpeko langileen agregatua aztertuta ikusten denez, betiere Lan eta Gizarte Segurantzako Ministerioa iturritzat hartuta, gorakada ageri da 2017an, 2013an hasitako jaitsieraren aldean.

III.2.5 GRAFIKOA. IRAIZPENAK EAE-N: BILAKAERA MOTAREN ARABERA



Iturria: LAN MINISTERIOA. Laneko estatistikak
BAA: Bitartekaritza, Arbitrajea eta Adiskidetzea (2017ko behin-behineko datuak)
GGJ: Gizarte Gai Judizialak
ILEE: Iraungipeneko Laneko Erregulazio Espedienteak (Iraizpen kolektiboak).

Orotara, eraginpeko 10.848 langile zenbatu ziren, 2016an baino %13,9 gehiago, eta hazkundea bereziki nabaria da desegite erregulazio espedienteen eraginpeko pertsonen artean, %59,3ko igoera gertatu baita. Alabaina, eraginpeko langileen %11,7 besterik ez dira, eta krisiaren hasierako urteetan iraizpenen zati handia ziren. BAAren eraginpeko pertsonak %48,6 dira (behin-behineko datuak). GGJen eraginpeko pertsonak, berriz, iraizpenen %39,6 dira.

3. LAN HARREMANAK

3.1. NEGOZIAZIO KOLEKTIBOA: SOLDATA IGOERA ETA LANALDIA

Gaiaren garrantzia dela-eta, komenigarritzat jotzen dugu 2017ko urtarrilaren 17an izenpeturiko akordioa aipatzea atal hau hastean, EAEko negoziazio kolektiboaren egituraren inguruko Sektorearteko Akordioa hain zuzen.

LHKren 2017ko "*EAEko gizarte-lanaren egoera*"ren emaitzen aurrerapenaren arabera, urtearen hasieran langileen %23k zuen indarreko hitzarmena. %56,2k, luzaturiko hitzarmena zuen, berritzeke, eta %20,8k agorturiko hitzarmena. Negoziazio kolektiboak, beraz, %79,2 hartzen zuen (aurreko urtean baino puntu erdi gehiago).

III.3.1. GRAFIKOA. EAE-N ERREGISTRATURIKO HITZARMENEN ERAGINPEKO LANGILEAK. PORTZENTAJEAK



Iturria: LHT

Hona hemen egoera urtearen amaieran: langileen %39,2k indarreko hitzarmena zuen (%16,2 urtean erregistraturiko hitzarmenekin eta %23 aurreko urteetan sinaturikoekin); %41,5ek luzatua zuen, berritzeke, eta gainerako %19,3k hitzarmen agortua zeukan. Horren ondorioz, negoziazio kolektiboaren estaldura maila %80,7 zen urtearen bukaeran (aurreko urteko ratioa baino txikiagoa: %82,1).

2017an, 304 hitzarmen erregistratu ziren, 2016an baino gehiago (288 hitzarmen), baina pertsona gutxiagori eragin zioten, 95.787 laguni. 2016an, berriz, 98.728 ziren. Lurraldez lurralde, EAEn eragina duten estatu mailako 91 hitzarmen erregistratu ziren, eta zuzenean EAEn eragina duten 213: eraginpeko 49.384 eta 46.403 langile dira, hurrenez hurren. Negoziazio sektorialari dagokionez, 2017an 15 hitzarmen besterik ez ziren erregistratu, eta guztira, 21.137 soldatapeko izan ziren haien eraginpean. Estatuko arlo sektorialean, berriz, 39 hitzarmen erregistratu ziren epealdi berean, eta guztira 38.697 lagun ziren EAEn haren eraginpean. 2011tik 2017ra, estatuko hitzarmenek gora egin dute estalduraren aldetik (eraginpeko langileak), %20 baino gehiago. Berezko hitzarmenek, berriz, %35 egin dute behera epealdi berean.

2017ko negoziazio kolektiboaren ondorioz, urtearen amaierako kopuruak ageri dira ondoko III.3.1. taulan: indarreko 657 hitzarmen, 224.697 langile orotara, eta beste 751 hitzarmen luzatu (eraginpeko 237.807 langile) eta 40 hitzarmen agortu, orotara eraginpeko 110.000 langile baino gehiago.

III.3.1. HITZARMEN KOLEKTIBOAK ETA ERAGINPEKO LANGILEAK EAE-N 2017/12/31N, EGOERAREN ARABERA

	INDAR.		LUZATUAK		AGORTUAK*		GUZT.	
	KONB.	LANG.	KONB.	LANG.	KONB.	LANG.	KONB.	LANG.
GUZT. (1 + 2)	**657**	**224.697**	**571**	**237.807**	**40**	**110.398**	**1.268**	**572.902**
1. EAE-N ERREGISTRATUAK	452	118.855	429	186.494	36	109.541	917	414.890
- ARABA	95	23.888	76	18.399	7	16.386	178	58.673
- BIZKAIA	194	63.871	201	84.862	18	38.533	413	187.266
- GIPUZKOA	150	27.721	125	46.263	11	54.622	286	128.606
- LURRALDEART.	13	3.375	27	36.970	0	0	40	40.345
2. ESTATUA	205	105.842	142	51.313	4	857	351	158.012

Iturria: LHKren datuekin eginikoa.
**Agortutako hitzarmenak dituzten langileak eta babesa emateko maila handiagoko hitzarmenik ez dutenak*

Bestalde, 2017rako EAEko indarreko hitzarmenetan itundutako batez besteko soldata igoera %1,48 da EAEn, Estatuko igoera baino pixka bat handiagoa (%1,43 da estatuan). Halaber, EAEn negoziaturiko hitzarmenen batez besteko igoera, EAEn eragina duten estatu mailakoak alde batera utzita, %1,57 da, aurreko urteetan baino pixka bat handiagoa.

III.3.2. TAULA. EAE-N ADOSTURIKO SOLDATA IGOEREN BILAKAERA

	2015	2016	2017
ARABA	0,45	0,91	1,55
BIZKAIA	0,65	1,04	1,55
GIPUZKOA	0,54	1,08	1,67
LURRALDE ARTEK.	0,64	1,20	1,34
EAE-KO ERREGISTR.	0,58	1,04	1,57
ESTATUA	0,68	0,98	1,37
GUZT. EAE	**0,62**	**1,01**	**1,48**

Iturria: LHB.

Azkenik, azken urteotako joerari eusten zaie berritzen ari diren hitzarmenetan, hots, lanaldia mantentzeko, halako moldez non hitzarmen horien %5,6k baino ez baitu (hitzarmenen %3k 2016an) lanaldia gutxitu. Portzentaje hori, ordea, oso urruti dago 2009an lanaldia murrizten zuten hitzarmenen %22,9tik. Nolanahi ere, eta lanaldiak murrizteko joeran azken urteotan izandako motelaldi nabarmena gorabehera, EAEn negoziaturiko hitzarmenek eutsi egiten diote urtean 100 ordu gutxiago baino gehiago izateko aldeari estatukoarekiko, LHKren datuen arabera betiere.

III.3.2. GRAFIKOA. EAE-N LANALDIA MURRIZTEN DUTEN HITZARMEN KOLEKTIBOEN EHUNEKOAREN BILAKAERA



Iturria: LHK

EAEn eragina duten berrituriko hitzarmenetan, urteko 0,35 orduko murriztapena lortu da batez beste (-0,23 aurreko urtean), eta 0,59 ordu dira soilik EAEn erregistraturiko hitzarmenak hartzen badira kontuan; 0,07 EAEn eragina duten estatuko eremukoenak. Ondorioz, hitzarmenetan 2017rako itundutako (indarrekoak nahiz luzatuak) batez besteko lanaldia 1.710 ordukoa izan zen EAEn, 1.699 ordukoa EAEn erregistraturiko hitzarmenetan eta 1.722 ordukoa EAEn eragina duten Estatuan erregistraturiko hitzarmenetan.

3.2. LAN-GATAZKAK

Lan Harremanetako Kontseiluaren (LHK) "*EAEko gizarte-laneko egoera*" delakoaren 2017ko emaitzen aurrerapenean dagoen informazioa oinarri hartuta, EAEn orotara 208 greba erregistratu dira, orotara 59.485 partaide, eta guztira lan egin gabeko 96.371 ordu ekarri dituzte, hots, urte arteko %26,8ko hazkundea greba kopuruan. Partaideen eta lan-egunen kopuruak, berriz, %333,1 eta %65,7 hazi dira hurrenez hurren.

III.3.3. TAULA. LAN-GATAZKA EAE-N: ADIERAZLE NAGUSIEN BILAKAERA

	GREBAK	PARTAIDEAK	LAN EGIN GABEKO ORD.	PARTAIDEAK GREBAKO	GREBAGATIK LAN EGIN GABEKO EG.	LAN EGIN GABEKO ORD. GREBAKO LANGILEKO
2013	350	37.020	140.391	106	401	30
2014	226	16.360	55.717	72	247	27
2015	181	10.604	18.217	59	101	14
2016	164	13.735	58.152	84	355	34
2017	**208**	**59.485**	**96.371**	**286**	**463**	**13**
Ald. % 15/16	-10,9	29,5	219,1	43,0	252,3	146,5
Ald. % 16/17	26,8	333,1	65,7	240,5	30,5	-61,9

Iturria: LHKren datuekin eginikoa.

Datu horiek izanik, grebako langile partaideen kopurua 286 da (+%240,5 2016aren aldean), grebagatik lan egin gabeko egunen kopurua 463 (+%30,5) eta greban den langile bakoitzeko lan egin gabeko orduak, berriz, 13 (-%61,9 2016aren aldean). 2017. urtea, 2016. urtea bezala, 2014-2016ko bi urtean izandako lan-gatazkaren beherakadaren kontrako urtea izan da. Izan ere, gora egin du greba kopuruak, baita horien denborak ere.

Sektoreen arabera, zerbitzuetan bildu zen greba kopururik handiena, 208 (guztien %62), eraginpeko 59.485 langile orotara (%90) eta lan egin gabeko ordu kopururik handiena: 96.371 (guztizkoaren %80). Industriak, berriz, bigarren tokia du, 68 grebarekin (guztien %32,7), eraginpeko 5.356 langile (%9) eta guztira lan egin gabeko 18.724 egun (guztizkoaren %51,2). Eraikuntzan 11 greba erregistratu ziren, eta bat ere ez lehen sektorean.

III.3.3. GRAFIKOA. LANEKO GATAZKEN BILAKAERA EAE-N



Iturria: LHKren datuekin eginikoa.

Negoziazio kolektiboa da, ageri-agerian, gatazkaren zio nagusia, greben %55,8arekin eta eraginpeko langileen %63,8arekin, baita lan egin gabeko egunetan ere (%52,9).

Lurraldez lurralde, greba kopururik (89), partaide kopururik (26.838) eta lan egin gabeko egun kopururik (46.069) handienak Bizkaian izan ziren. Araban 44 greba erregistratu ziren, 11.686 partaide eta lan egin gabeko 14.755 egun. Gipuzkoan, berriz, 75 izan ziren, 20.961 partaide eta lan egin gabeko 35.547 egun izanik.

Estatuan, irailera arteko behin-behineko datuak izanik, greba kopurua gutxiago hazi bada ere (%16,5 aurreko urteko epealdi beraren aldean), 564raino, gora egin du partaideen kopuruak, %4,96 hain zuzen ere (guztira 160.622 dira) eta antzeko intentsitatea ageri da iraupenean, zeren eta lan egin gabeko egunen kopurua (397.604) %50,4 hazi baita 2016ko urtarril-iraileko aldiarekiko.

3.3. LANALDIA ETA LAN EGIN GABEKO ORDUAK

Baliagarria da langileek benetan eginiko lan egunak eta enpresarekin hitzarturikoarekin duen erlazioa zein den jakitea, baita lan egin gabeko egunak eta kasuen banakapena ere. EINek, "*Lan Kostuen Hiruhilekoetako Inkestak*", informazio zabala ematen du horren inguruan, eta horri esker, jarraipena egin daiteke denboran, kopuru absolutuetan (lan egindako eta lan egin gabeko orduen kopuruaren bilakaera) nahiz estatu mailako kopuru erlatiboetan (lan egin gabeko orduen banaketa), eta xehetasun maila txikiagoarekin, autonomia erkidegoka.

Hona hemen aintzat harturiko aldagai nagusiak (xehetasun handiagoa nahi bada, begiratu Memoria honetako glosategia):

- Benetan lan egindako orduak: benetan lan egindako orduak dira. Hitzartutako orduen (hitzarmenen, hitzezko akordioaren edo banako kontratuaren bidez ezarritakoak) eta aparteko orduen edota ordu osagarrien batura da, ken lan egin gabeko orduak (horietatik aparte gelditzen dira lantokian galdutako orduak, benetan lan egindako ordutzat hartzen baitira). Kopuru erlatiboetan, hitzartutako orduen gaineko proportzioa aztertzen da.
- Lan egin gabeko orduak: ordaindutakoak (oporrak, jaiak, aldi baterako ezintasuna, amatasunaren ziozko baimena eta antzekoak, aparteko orduak konpentsazioaren ziozko atsedenaldiak, sindikatu-ordezkaritzako orduak, azterketak, medikuaren kontsultara joatea...) edo ordaindu gabeak izan daitezke (lan-gatazka, ugazaben itxiera, legezko zaintza –zaintzarako lanaldi murrizketak-, etab.). Kopuru erlatiboetan, benetan lan egindako orduen gaineko proportzioa aztertzen da.

Lehenik eta behin, Estatuan lan egindako eta lan egin gabeko orduen xehetasuna aurkezten da, betiere 2014-2017 aldiko urteko batez bestekoak kontsideraturik, baita 2008ko datuekiko erkaketa ere.

III.3.4. TAULA. LAN EGINDAKO ETA EGIN GABEKO DENBORA. BANAKAPENAREN BILAKAERA ESTATUAN. ORDUAK LANGILEKO ETA HILEKO.

	2008	2014	2015	2016	2017		ALD. %. 2008-17	ALD. % 2016-17
					ABS.	BERT.%		
1. HITZARTUTAKO ORDUAK	156,10	149,58	149,73	149,45	149,58	-	-4,2	0,1
2. ORDAINDUTAKO ORDUAK	156,70	149,90	150,08	149,78	150,00	-	-4,3	0,1
3. BENETAN LAN EGINDAKO ORDUAK	135,23	129,15	129,13	128,75	128,93	100,0	-4,7	0,1
4. LAN EGIN GABEKO ORDUAK	21,68	21,02	21,23	21,34	21,35	16,6	-1,5	0,0
- LAN EGIN GABEKO ORD. G.	21,52	20,78	20,97	21,07	21,08	16,4	-2,0	0,0
Oporrak	8,10	7,99	7,89	7,82	7,63	6,1	-5,8	-2,4
Jaiak	6,61	6,71	6,70	6,77	6,85	5,3	-3,6	1,2
A.EZ.	5,09	3,97	4,42	4,67	4,85	3,6	-4,7	3,9
Amatasuna	0,90	0,99	0,98	0,92	0,93	0,7	3,3	1,1
Ordaindutako baimenak*	0,40	0,42	0,46	0,48	0,45	0,4	12,5	-6,2
Arrazoi teknikoak edo ekonomikoak	0,07	0,39	0,19	0,10	0,10	0,1	42,9	0,0
Aparteko orduen konpentsazioa	0,04	0,04	0,05	0,05	0,08	0,0	100,0	60,0
Lantokian galdutako orduak.**	0,04	0,03	0,03	0,02	0,0	0,0	-100,0	-100,0
Beste batzuk	0,28	0,25	0,26	0,26	0,28	0,2	0,0	7,7
- LAN EGIN EZ DIREN ORD.	0,16	0,25	0,27	0,28	0,30	0,2	87,5	7,1
Lan-gatazka	0,02	0,02	0,01	0,01	0,0	0,0	-100,0	-100,0
Beste batzuk	0,15	0,23	0,26	0,27	0,28	0,2	86,7	3,7
5. APARTEKO ORDUAK	0,75	0,56	0,59	0,61	0,65	0,5	-13,3	6,6
BENET. ORDUEN %/HITZART. ORD.	86,6	86,3	86,2	86,1	86,2			
LAN EGIN GABEKO ORDUEN% /BEN. ORD	16,0	16,3	16,4	16,6	16,6			

Iturria: EIN. Lan-kostuen Hiruhilekoetako Kontua. Geuk egina.
**Sindikatuetako ordezkaritza, azterketak, kontsulta medikoak, etab.*
***Lege ondorioetarako, lan egindako ordutzat hartzen dira*

Estatuko langileek, batez beste, hileko 128,93 ordu lan egin zituzten 2017an, 2016an baino %0,1 gehiago, eta %4,7 gutxiago datu hori 2008koarekin alderatzen badugu. Lan egindako ordu horiek (benetan lan egindakoak) enpresarekin hitzarturiko orduen %86,12dira (hitzarmen, kontratu eta abarren bidez), hots, 2016koa baino hamarren bat txikiagoa eta 4 hamarren 2008koaren azpitik.

III.3.5. TAULAK. LAN EGINDAKO ETA LAN EGIN GABEKO ORDUAK AA.EE.N ARABERA: ALDAGAI ERLATIBOEN BILAKAERA

	BENETAN LAN EGINDAKO ORDUEN % HITZARTURIKOEN GAINEAN				LAN EGIN GABEKO ORDUEN % BENETAN LAN EGINIKO ORD.G.			
	2008	2015	2016	2017	2008	2015	2016	2017
ESTATUA, B.B.	86,6	86,2	86,1	86,2	16,0	16,4	16,6	16,6
ANDALUZIA	87,6	87,3	86,8	87,2	14,6	14,9	15,6	15,1
ARAGOI	85,9	85,3	85,2	85,5	17,0	17,8	18,0	17,6
ASTURIAS	85,7	85,3	84,9	85,3	17,3	17,6	18,3	17,8
BALEARS, ILLES	87,9	88,7	88,5	88,6	14,3	13,1	13,5	13,4
U. KANARIARRAK	86,6	87,3	87,1	86,8	15,7	15,0	15,2	15,5
KANTABRIA	86,2	86,4	86,8	86,7	16,6	16,0	15,7	15,7
GAZTELA ETA LEON	86,3	85,5	85,2	85,1	16,2	17,5	17,8	17,9
GAZTELA-MANTXA	87,9	86,8	86,6	86,9	14,3	15,6	15,9	15,6
KATALUNIA	86,0	86,0	85,9	85,8	17,0	16,8	17,0	17,2
VALENTZIAKO E.	86,3	86,2	86,6	86,5	16,3	16,5	15,9	16,1
EXTREMADURA	87,9	87,0	86,7	86,4	14,1	15,2	15,7	16,0
GALIZIA	86,9	86,0	85,9	85,9	15,7	16,7	16,8	16,9
MADRIL	87,0	86,4	86,4	86,5	15,6	16,3	16,2	16,1
MURTZIA	85,9	85,7	86,0	85,7	16,9	17,2	16,8	17,1
NAFARROA	85,9	85,3	85,0	84,9	17,1	17,8	18,3	18,6
EAE	84,6	83,5	83,1	83,3	18,7	20,2	20,8	20,5
ERRIOXA	86,2	84,8	85,5	85,4	16,5	18,3	17,3	17,5

Iturria: EIN. LKHI. Geuk egina.

Horrez gain, batez beste lan egin gabeko 21,35 ordu zenbatetsi dira langileko eta hileko, horietatik 21,08 (%98,7) ordaindutakoak izan ziren. Lan egin gabeko orduak aldatu egin dira azken urtean, eta %1,5 gutxitu dira 2008-2017 aldia aintzat hartuz gero.

Lan egin gabeko ordu horietan, kategoria nagusiak (ikus xehetasuna III.3.4. taulan) oporrei (7,63 ordu), jaiei (6,85) eta gaixotasunaren zioz lan egin gabeko orduei (AE) dagozkie, zenbatespenen arabera 4,85 ordu langileko eta hileko. Hiru kategoria horien artean, lan egin gabeko orduen %90,5 dira eta benetako orduen %15. Kopuru erlatiboetan, lan egin

gabeko orduak benetan lan egindako orduen %16,6 izan ziren 2017an, 2016ko ratio bera eta 2008an baino 6 gehiago. III.3.4. grafikoan ikusten denez, ratioa hamarren batzuk baizik ez da aldatzen urtez urte.

Bigarrenik, autonomien arteko erkaketa ageri da, baina horien gaineko lan egin gabeko orduen xehetasunik ez dugu. Benetan lan egindako orduek hitzarturiko orduen gainean eta lan egin gabeko orduek benetan lan egindako orduen gainean izan dituzten ratioak kalkulatu dira 2008an eta 2015etik 2017rako urteetan, baina horien interpretazio zehatzagoa egiteko, beste aldagai batzuk aztertu beharko lirateke hala nola ekoizpenaren egitura edo lanaldi partzialaren pisua (Memoria honen helburuetatik harago doaz).

2017an, benetan lan egindako orduek hitzarturiko orduekiko duten portzentajerik handiena Balearretan dago (%88,6, 2016an baino 2 hamarren gehiago eta 2008an baino 1,3 puntu gutxiago). Ikusi denez, estatuko batez bestekoa %86,3 da. Lan egin gabeko orduei dagokienez, benetan lan egindako orduekiko proportzioa balio hauen artean dago: Balearretako %13,4tik Asturiaseko eta EAEko %20,5era, berriz ere Estatuko %16,6ko batez bestekoaren gainetik.

Azkenik, EAEko kopuru absolutuen bilakaera aurkeztuko da (III.3.6 taula). 2017an, batez beste, hilean 147 ordu hitzartu zituzten enpresek eta langileek, hots, 2016an baino %0,1 gutxiago, eta 2008an hitzartu zituztenak baino % 3 gutxiago. Ordu horietatik 122,43 orotara (2016ko datu bera), %83,3, benetan lan egindakoak izan ziren, hots, ratio hori 2 hamarren txikiagoa da azken urtean. Halaber, lan egin gabeko orduak 25,1 ordu izan ziren langileko eta hileko, 2016an baino %1,3 gutxiago, eta benetan lan egindako orduen %20,5.

III.3.6. TAULA. LAN EGINDAKO ETA LAN EGIN GABEKO DENBORA. ALDAGAIEN BIALAKERA EAE-N. ORDUAK LANGILEKO ETA HILEKO.

	2008	2014	2015	2016	2017	Ald.% 2008/17	Ald. % 2016/17
1. HITZARTUTAKO ORD.	151,50	147,98	148,00	147,18	147,00	-3,0	-0,1
2. ORDAINDUTAKO ORD.	151,88	148,05	147,85	147,08	146,70	-3,4	-0,3
3. BENETAN LAN EGINDAKOAK	128,20	124,53	123,60	122,38	122,43	-4,5	0,0
4. LAN EGIN GABEKO ORDUAK	23,95	24,01	24,98	25,42	25,10	4,8	-1,3
5. APARTEKO ORDUAK	0,57	0,49	0,50	0,61	0,53	-7,5	-13,9
B. ORDUAK %/ HITZARTUTAKOAK	84,6	84,2	83,5	83,1	83,3		
LAN EGIN GAB. %. / B. ORDUAK	18,7	19,3	20,2	20,8	20,5		

Iturria: EIN. Lan-kostuei buruzko Hiruhilekoetako Inkesta. Geuk egina.

Benetan lan egindako orduek hitzarturiko orduen gainean eta lan egin gabeko orduek benetan lan egindako orduen gainean dituzten ratioen bilakaeran, zenbait alde ikusten dira 2008-2016 aldian, III.3.4 grafikoan ikusten denez, Estatuko batez bestekoaren aldean (Estatukoak etenik gabeko lerroak eta EAEkoak etenak): Benetan lan egindako orduek hitzarturiko orduen gainean duten pisua oso txikia da EAEn serie osoan, eta lan egin gabeko orduek pisu handiagoa dute benetan lan egindako orduen aldean. Horrez gain, urte arteko aldakuntzak handiagoak dira.

III.3.4. GRAFIKOA. LAN EGINDAKO ETA LAN EGIN GABEKO ORDUAK: ESTATUA-EAE-REN ARTEKO RATIO ESANGURATSUEN ALDERAKETAK



Iturria: EIN. LKUI. Geuk egina

4. SOLDATAK EAE-N

4.1. SOLDATEN EGITURARI BURUZKO 2014KO INKESTAREN EMAITZAK

III.4.1. TAULA. URTEKO BATEZ BESTEKO IRABAZIAK LANGILEKO (EUROAK). 2014-2015.

	2014	2015			% ALDAKUNTZA 2014/15			RATIO EMAK.% / GIZONAK	
		GUZT.	GIZONAK	EMAK.	GUZT.	GIZONAK	EMAK.	2014	2015
B.B. ESTATUA	22.858	23.106	25.993	20.052	1,1	1,0	1,6	76,7	77,1
ANDALUZIA	20.784	21.381	24.200	18.341	2,9	2,9	4,9	74,3	75,8
ARAGOI	22.096	22.327	25.556	18.950	1,0	1,7	1,0	74,7	74,2
ASTURIAS	22.045	22.826	26.515	18.925	3,5	4,7	2,9	72,7	71,4
BALEARS, ILLES	21.322	21.395	23.411	19.517	0,3	-1,5	2,7	80,0	83,4
U.KANARIARRAK	19.436	19.857	21.337	18.280	2,2	3,4	0,4	88,2	85,7
KANTABRIA	21.200	21.857	25.260	17.956	3,1	2,3	1,6	71,6	71,1
GAZTELA ETA LEON	20.525	21.296	24.136	18.524	3,8	5,4	4,8	77,2	76,7
GAZTELA-MANTXA	20.645	20.671	22.766	18.098	0,1	0,2	-0,3	75,5	79,5
KATALUNIA	23.927	24.322	27.514	20.947	1,6	0,2	3,1	74,0	76,1
VALENTZIAKO E.	20.640	20.935	23.919	17.811	1,4	1,9	1,7	74,6	74,5
EXTREMADURA	19.181	19.564	21.814	17.305	2,0	4,7	-0,6	83,6	79,3
GALIZIA	20.196	20.625	23.190	18.093	2,1	3,0	1,7	79,1	78,0
MADRIL	26.570	26.448	29.314	23.470	-0,5	-1,4	0,6	78,5	80,1
MURTZIA	20.717	20.929	23.773	17.540	1,0	1,5	0,2	74,7	73,8
NAFARROA	24.701	24.864	28.727	20.563	0,7	0,2	2,0	70,4	71,6
EAE	27.787	27.571	31.089	23.537	-0,8	-0,6	-1,0	76,1	75,7
ERRIOXA	21.954	21.757	24.533	18.762	-0,9	-1,1	-1,0	76,4	76,5

Iturria: EIN. SEI. 2015.

EINren "Soldata-egituraren urteko Inkestak" autonomia erkidegoetako datuak ematen ditu, beste aldagai batzuen artean, sexuaren eta lanbidearen araberako soldatei buruz. Ordura arte lau urterik behin baino ez zen lortzen horren inguruko informazioa soldata-egituraren inkesten bidez, hain zuzen ere, eta gainera, 10 langile edo gehiagoko enpresei buruzkoa baino ez zen. Inkesta horrek hainbat iturritako administrazio-erregistroak erabiltzen ditu, hala nola, Gizarte Segurantza edo Zerga Agentziak, baita EINren beraren lan-kostuari buruzko hiruhilekoko inkestako informazioaren zati bat ere. Emaitzetan erabiltzen diren soldaten kontzeptuak balio gordinetan daude, hau da, PFEZren konturako atxikipena edo langileak Gizarte Segurantzarako kotizazioak egin gabe.

Inkestaren arabera, 2015ean (eskuratu dugun azken datua) EAEn urteko batez besteko irabaziak 27.571 euro ziren langile bakoitzeko, aurreko urtearekin alderatuta % 0,8 txikituta (2013 eta 2014 bitartean +%3,2). Kopuru hori Estatuko batez bestekoa baino % 19,3 handiagoa da denboraldi berean, eta autonomia erkidegoen zerrendako lehenengoa da; ondotik Madrilgo eta Nafarroa erkidegoa daude. Hiru erkidego horiek, Kataluniarekin batera, Estatuko batez bestekoa baino urteko batez besteko irabazi handiagoa dute aipaturiko datan. Gainerakoak, berriz, batez bestekoa baino soldata txikiagoa du. Extremadurak, Uharte Kanariarrek eta Murtziako Erkidegoak dituzte soldatarik txikienak.

Sexuen araberako soldaten aldeari dagokionez, emakumeen batez besteko soldata txikiagoa zen gizonezkoena baino autonomia erkidego guztietan 2015ean.

Batez beste, emakumeen soldata gizonen soldataren %77,1 zen (+0,4 puntu aurreko urtearen aldean). U. Kanariarrek zuten desbideratzerik handiena, eta ondoren U. Balearrek eta Madrilgo Erkidegoak. Alderdik handiena, berriz, Kantabrian dago, eta ondoren Asturiasen eta Nafarroan. EAEn, emakumeen soldaten ratioa, 2015ean, gizonen soldataren %75,7 izan zen batez beste, 2014an baino 4 hamarren gutxiago. Kopuru absolutuetan, EAEn, gizonen batez besteko soldata 2015ean 31.089€ zen (-%0,6 2014aren aldean) eta emakumeena 23.537€ (-%1).

Kontratu erlazio motaren araberako soldatei dagokienez, urteko soldata gordina %44,2 handiagoa zen batez beste 2015ean kontratu mugagabea zuten langileentzat aldi baterako kontratuekin lan egiten zuten langileentzat baino. Alde hori, gainera, askoz handiagoa zen gizonen artean (%57) emakumeen artean baino (%27), eta alde hori Estatu mailan ere gertatzen da.

III.4.2. TAULA. URTEKO B.B. IRABAZIA, SEXU ETA KONTRATU MOTAREN ARABERA, EAE-N ETA ESTATUAN. 2014-2015. €.

	SEXU BIAK			EMAK.			GIZONAK		
	2014	2015	Ald. %	2014	2015	Ald. %	2014	2015	Ald. %
EAE									
GUZT.	27.787	27.571	-0,8	23.782	23.537	-1,0	31.271	31.089	-0,6
IRAUPEN MUGAGABEA	29.874	29.262	-2,0	25.267	24.567	-2,8	33.671	33.276	-1,2
IRAUPEN JAKINEKOA	19.559	20.294	3,8	18.679	19.337	3,5	20.507	21.201	3,4
MUGAG. IRAUPEN JAK. %	52,7	44,2		35,3	27,0		64,2	57,0	
ESTATUA									
GUZT.	22.858	23.106	1,1	19.745	20.052	1,6	25.727	25.993	1,0
IRAUPEN MUGAGABEA	24.746	24.562	-0,7	21.147	21.063	-0,4	27.700	27.826	0,5
IRAUPEN JAKINEKOA	15.681	16.423	4,7	14.661	15.572	6,2	16.691	17.275	3,5
MUGAG. IRAUPEN JAK. %	57,8	49,6		44,2	35,3		66,0	61,1	

Iturria: EIN. Soldaten Egiturari buruzko Inkesta.

4.2. 2016KO LAN-KOSTUEI BURUZKO INKESTAREN EMAITZAK

Lan-kostuari buruzko urteko inkesta langileek jasotzen duten soldataren hurbilketa egiten duen EINren bigarren estatistika da. Lan-kostuaren hiru hilez behingo inkestaren galdetegi erantsia oinarri hartuta lantzen da, eta lan-kostuaren urteko maila eta haren osagaiak ezagutzea ahalbidetzen du. Horien artean, "lansarien eta soldaten" [10]partidak besteren konturako langileei diruz zein gauzaz emandako ordainsari guztiak hartzen ditu barne. Soldata-egituraren Inkestaren kasuan bezala, zenbatekoak gordinak dira, hau da, atxikipenak edo langileak Gizarte Segurantzarako kotizazioak egin aurrekoak.

2016ko lan-kostuari buruzko inkestaren arabera, EAEn langile bakoitzaren lan-kostu gordina 35.544 euro da (-%1,4 2015aren aldean); horietatik %74,45 "lansariei eta soldatei" dagozkie, hau da, 26.462 €. Gainerako %25,55a hauexen baturari dagokio: nahitaezko kotizazioak (%23,57), borondatezkoak (%0,82), zuzeneko gizarte prestazioak (%0,31) eta gainontzeko %0,85 beste partida batzuei hala nola gizarte gastuei, kalte-ordainei, etab.

Batez besteko soldata hori Estatuko batez bestekoa baino %16,2 handiagoa eta, Madrilgo Erkidegoarekin batera, autonomia erkidegoen artean kopuru handiena da. "Soldatak eta ordainsariak" partida hori etengabe hazi zen Euskadin 2002 eta 2013 bitartean, baina harrezkero eta 2016ra arte %2,4 egin zuen behera. Estatuko batez bestekoa, berriz, %0,5 handitu da.

GRÁFICO III.4.1. IMPORTE DE LA PARTIDA "SUELDOS Y SALARIOS" DEL COSTE LABORAL POR TRABAJADOR Y AÑO. COMPARATIVA CAPV-ESTADO.



Fuente: INE. Encuesta Anual de Coste Laboral.

[10] *EINen Lan-kostuaren Hiruhilekoetako Inkesta (LKHI) funtsezko iturria da EUROSTATen Lan-kostu Harmonizatuaren Indizea egiteko; izan ere, Europako Banku Zentralak Europar Batasuneko herrialdeen arteko bateratze-prozesua jarraitzeko eskaturiko "euroadierazleak" deritzenen barruan sartzen da. Halaber, hileko soldata kostuei eta lan egindako eta lan egin gabeko denborari buruzko informazioa ematen du (ikusi kapitulu honetako 3.3. atala). Lan-kostuen Urteko Inkestak (LKUI) informazio hori osatzen du hilean nominetan erregistratzen ez diren zenbait soldata-partidaren gaineko datuekin, zeren eta hilabetetik gorakoa mugaeguna baitute (aurrezki planak, gauzatan ordaintzea, borondatezko kotizazioak, etab.). Zenbatespenen arabera, LKUIk guztiko lan-kostuaren %98,4 hartzen du, eta horrexegatik ez datoz bat bi eragiketen emaitzak, antzerakoak badira ere.*

III.4.3. TAULA. LAN-KOSTUA LANGILEKO ETA URTEKO. AA.EE.EN ARABERAKO DATUAK. 2015-2016

	2015			2016			Ald. %. 2015-2016	
	KOSTU OSOA	Soldatak	Soldaten %/ guzt.	KOSTU OSOA	Soldatak	Soldaten %/ guzt.	KOSTU OSOA	Soldatak
ESTATUA	30.857	22.851	74,05	30.528	22.771	74,59	-1,1	-0,3
ANDALUZIA	28.194	20.646	73,23	27.658	20.390	73,72	-1,9	-1,2
ARAGOI	29.813	21.954	73,64	28.976	21.529	74,30	-2,8	-1,9
ASTURIAS	30.238	22.471	74,31	30.903	23.195	75,06	2,2	3,2
BALEARS (ILLES)	28.994	21.397	73,80	28.644	21.118	73,73	-1,2	-1,3
U. KANARIARRAK	26.260	19.325	73,59	25.942	19.082	73,56	-1,2	-1,3
KANTABRIA	28.300	20.842	73,65	29.101	21.680	74,50	2,8	4,0
GAZTELA-LEON	27.946	20.612	73,76	27.941	20.626	73,82	0,0	0,1
GAZTELA-MANTXA	27.084	19.943	73,63	27.031	20.049	74,17	-0,2	0,5
KATALUNIA	32.514	24.223	74,50	32.328	24.211	74,89	-0,6	0,0
VALENTZIAKO E.	27.128	20.000	73,73	27.159	20.209	74,41	0,1	1,0
EXTREMADURA	25.431	18.781	73,85	25.208	18.703	74,20	-0,9	-0,4
GALIZIA	27.133	19.796	72,96	26.907	19.860	73,81	-0,8	0,3
MADRIL	36.936	27.618	74,77	36.166	27.303	75,49	-2,1	-1,1
MURTZIA	27.556	20.384	73,97	27.733	20.688	74,60	0,6	1,5
NAFARROA	32.196	23.698	73,60	31.993	23.592	73,74	-0,6	-0,4
EAE	**36.043**	**26.765**	**74,26**	**35.544**	**26.462**	**74,45**	**-1,4**	**-1,1**
ERRIOXA	29.005	21.388	73,74	28.100	21.025	74,82	-3,1	-1,7

Iturria: EIN. Lan-kostuen Urteko Inkesta

4.3. LANEKO PREZIOEN INDIZEAREN (LPI) EMAITZAK 2015

Memoria Sozioekonomikoaren edizio honen berrikuntza da EINren "*Laneko prezioen indizea*" (LPI) delakoaren analisia. Adierazle horren helburua da lan-eskuak denboran duen prezioaren aldaketa neurtzea, soil-soilik lan-merkatuaren presioen ondorioz, hots, neurri hori ez dago eginiko lanaren kalitatearen eta kantitatearen aldaketen eraginpean (esaterako, lan-indarraren eraketaren aldaketengatik, soldatapeko pertsonen ezaugarrien aldaketengatik, etab.), hau da, eraketa-efektua deskontaturik. [11] Kontsumo eta zerbitzu ondasunen "oinarrizko otzara" estandarizatua neurtzen duen kontsumorako prezioen indizeak bezala (KPI), lanpostuen "oinarrizko otzara" estandarizatuaren prezioaren aldaketak neurtzen ditu LPIk[12].

III.4.4. TAULA. LANEKO PREZIOEN INDIZEA. AA.EE.EN ARABERA, URTEKO ALDAKUNTZA-TASA. 2012-2015.

	2012	2013	2014	2015
ESTATUA	-1,6	-0,3	0,8	0,7
ANDALUZIA	-2,4	-1,0	1,2	1,6
ARAGOI	-2,5	-0,4	1,8	-0,4
ASTURIAS	-1,6	-2,8	1,6	1,9
BALEARS (ILLES)	1,4	-0,6	3,4	-0,5
U. KANARIARRAK	-0,6	1,6	-1,8	0,6
KANTABRIA	-0,7	-2,7	3,0	0,7
GAZTELA-LEON	-0,9	-0,6	-1,8	2,1
GAZTELA-MANTXA	-2,7	1,1	0,4	-0,6
KATALUNIA	-1,2	-0,5	0,0	1,7
VALENTZIAKO E.	-3,1	-0,4	0,7	1,5
EXTREMADURA	-0,4	0,1	-4,1	0,3
GALIZIA	0,0	-0,9	0,8	2,5
MADRLD	-2,2	0,4	2,3	-2,4
MURTZIA	-3,2	-2,0	1,9	-0,8
NAFARROA	-1,6	1,8	-1,5	2,5
EAE	**-0,1**	**-0,5**	**0,1**	**2,9**
ERRIOXA	-2,6	-2,8	3,4	1,9

Iturria: EIN. Laneko Prezioen Indizea. 2008ko oinarria.

LPI %2,9 hazi zen 2014 eta 2015 urte bitartean EAEn (eskuratu dugun azken datua). Estatuko batez besteko aldakuntza, berriz, %0,7koa da. Hala, gure Erkidegoa aldakuntza positiboen lehen tokian dago, eta ondoren Galizia eta Nafarroa daude (bietan +%2,5). Bestalde, jaitsiera nagusiak Madrilen (-%2,4), Murtzian (-%0,8) eta Gaztela-Mantxan (-%0,6) ageri dira.

[11] *Espainian gaur egun dagoen informazioa LKHK, LKUI eta SHKetatik dator. Langileko lan-kostuen batez besteko emaitzen serieak dira. Serie horietan, kostuaren aldaketa nahiz enpleguaren eraketaren aldaketak sartzen dira.*

[12] *Argibide gehiago izateko, ikus bedi estatistika-eragiketa honetako Metodologia:* http://www.ine.es/dynqs/INEbase/es/operacion.htm?c=Estadistica_C&cid=1254736177027&menu=metodologia&idp=1254735976596

Eskuragarri dugun denbora tartearen bilakaera (2008-2015) aztertuta ikusten denez, LPI EAEn nahiz Estatuan hazi zen 2008 eta 2010 bitartean; neurri ezberdinean murriztu zen 2011 eta 2013 bitartean, eta berriz ere kopuru positiboetara itzuli da azken bi urtean. Indize kopuruetan, urte horren eta 2015 urtearen arteko hazkundea %6,7 da: EAEko datua 106,69 zen 2015ean. Estatuko batez bestekoa, berriz, 99,94 zen. Horrek erakusten duenez, soldatek %0,1 egin zuten behera epealdi berean.

2008 eta 2015 urteen arteko inflazioaren bilakaera azterturik (+%8,5 batez beste estatuan), kopuru horiek erakusten dute EAEn %1,4ko jaitsiera izan zela erosteko ahalmenean (8,1 ken 6,7). Estatuan, berriz, 8,2 puntukoa izan zen (8,1 ken -0,1).

Eta eskuratu dugun azken urteko bilakaera ardatz hartuta (2015. urtea), LPI %2,9 hazi zen EAEn (+%0,7 Estatuan), eta EAEk izan du hazkunderik handiena. Izan ere, urte horretan 2,9 puntu berreskuratu dira erosteko ahalmenean (inflazioa %0koa izan baitzen).

III.4.2. GRAFIKOA. LANEKO PREZIOEN INDIZEA. URTEKO ALDAKUNTZA-TASAK. EAE-ESTATUAREN ARTEKO ALDERAKETA (2015)

Iturria: EIN. LPI. 2008ko oinarria

III.4.3. GRAFIKOA. LPI: 2008AREKIKO INDIZEA, OINARRIKO URTEA. EAE-ESTATUKO BATEZ BESTEKOAREN ARTEKO ALDERAKETA



Iturria: EIN. LPI. 2008ko oinarria

4.4. SOLDATEN BANAKETA: 2016KO EPA-REN EMAITZAK

Analisirako eremu zabal horren barruan, EINren "*Biztanleria Aktiboaren Inkestak*" (EPA) familiaren "enplegu nagusiaren soldata" aldagaia kodetzen du deziletan, eta informazio hori biltzeko, informazioa ematen duten etxeekin loturiko administrazio-erregistroak erabiltzen ditu. Soldata horren barruan, laneko errentaren gaineko zergaren konturako atxikipenak eta langileak gizarte segurantzako sistemei eginiko nahitaezko kotizazioak daude, baita aparteko pagei, aparteko orduei eta beste osagarri batzuei dagozkien hainbanaketak ere. Kontuan hartu behar da etxeetako soldaten aldagai hori ezin izan daitekeela esanguratsua, kopuru absolutuetan, zeren eta etxe bakoitzeko bat baizik ez baitu erregistratzen. Hala ere, soldata-masak gure gizartean konparaziozko datuetan duen banaketari buruzko informazioa ematen du dezilen araberako kodetzeak.

Horretarako, jasotako soldaten zenbatekoaren arabera antolatzen da soldatapeko pertsonen lagina estatu mailan, eta ondoren 10 talde berdinetan zatitzen da, hots, langileen %10arekin haietako bakoitzean. Eginiko zenbatespenen arabera, soldatapeko 15,3 milioi lagun zeuden 2016an eta, beraz, dezil bakoitzak soldatapeko 1,5 milioi lagun biltzen ditu gutxi gorabehera. Horrez gain, batez bestekoak (taldearen batez besteko soldata) eta hura mugatzen duten beheragoko eta goragoko soldatek zehaztu dute dezil bakoitza. Hainbat urtetako magnitudeak alderatuz gero, kontuan hartu behar da dezil bakoitzaren mugak urte bakoitzeko informazioaren arabera zenbatesten direla.

Estatistika-eragiketa horri esker, soldatapekoek Estaturako definituriko soldaten dezil bakoitzean EAEn duten pisua jakin ahal izango dugu, hots, gure Erkidegoak Estaturako eginiko banaketa perfektuarekiko duen presentzia erlatiboa eta, era berean, gainerako autonomia erkidegoekiko [13]

III.4.5. TAULA. SOLDATAPEKOEN PORTZENTAJEA, ESTATURAKO ZEHAZTURIKO SOLDATEN DEZIL BAKOITZEKO. DATUAK AA.EE.EN ARABERA. 2016.

	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	GUZT.
ESTATUA	10,0	10,0	10,0	10,0	10,0	10,0	10,0	10,0	10,0	10,0	100,0
ANDALUZIA	13,5	13,1	11,6	9,2	9,4	9,8	8,6	8,9	8,2	7,6	100,0
ARAGOI	9,9	6,6	10,8	10,7	11,2	11,5	10,5	11,0	10,9	7,0	100,0
ASTURIAS	9,5	7,7	8,5	10,0	7,5	12,3	11,1	10,7	12,2	10,5	100,0
BALEARS (ILLES)	8,0	8,4	10,0	11,6	13,9	13,8	12,0	9,5	6,4	6,5	100,0
U. KANARIARRAK	10,3	10,7	15,4	15,1	11,9	9,5	8,5	5,8	6,6	6,3	100,0
KANTABRIA	8,4	8,1	10,9	12,7	9,1	9,5	10,0	10,1	10,7	10,4	100,0
GAZTELA ETA LEON	9,8	9,8	10,6	11,6	10,5	9,9	8,9	10,2	9,9	8,6	100,0
GAZTELA-MANTXA	9,5	9,2	10,8	13,1	11,9	9,9	9,1	9,5	9,0	8,0	100,0
KATALUNIA	8,8	9,0	8,1	8,3	9,3	11,4	11,8	11,8	11,2	10,2	100,0
VALENTZIAKO E.	11,0	9,6	11,5	11,2	13,1	9,0	9,6	9,1	8,6	7,2	100,0
EXTREMADURA	14,8	12,2	13,2	12,5	8,3	9,3	6,1	9,5	8,5	5,5	100,0
GALIZIA	10,0	9,6	11,9	11,1	9,9	11,0	9,7	9,5	8,9	8,4	100,0
MADRIL	7,7	10,1	7,6	8,8	9,2	9,0	10,1	9,8	11,5	16,3	100,0
MURTZIA	12,7	13,3	15,6	12,0	9,1	7,4	7,4	8,7	7,3	6,5	100,0
NAFARROA	8,0	7,6	6,9	5,5	9,9	8,4	14,5	12,4	15,0	6,5	100,0
EAE	8,8	7,8	4,4	7,0	6,6	8,5	11,8	13,8	15,6	15,8	100,0
ERRIOXA	6,4	8,2	11,4	11,8	11,8	13,5	9,9	10,8	7,1	15,8	100,0

Iturria: EIN: Biztanleria Aktiboaren Inkesta.

Lehenik eta behin nabarmendu dezakegu euskal soldatapekoen partaidetza 1-6 bitarteko deziletako %10eko teorikoa baino txikiagoa izan zela 2016an, hots, soldatarik txikienetan. 7 deziletik (%11,8) 10 dezilera (%15,8) artekoetan, berriz, handiagoa da, eta gero eta handiagoa da gainera. Bestela esanda, Estatuko soldaten %40ko teorikorik handienak EAEko soldatapekoen %57 biltzen du. Estatuko ratiorik handiena da, eta ondoren, Nafarroakoa (%53,7) eta Madrilgo Erkidegokoa (%47,7) daude. Beste muturrean, 1etik 3ra arteko dezilek (soldatarik txikienak) EAEko soldatapekoen %21ekoa biltzen dute %30 teorikoaren aldean, eta horixe da autonomia erkidego guztietako txikiena. Beste autonomia erkidego batzuk, aldiz, %40aren inguruan dabiltza: Murtzia, Extremadura edo Andaluzia.

Azken finean, EPAren emaitzetatik ondorioztatzen denez, dezilik handienetara desbideratzen da soldaten banaketa EAEn estatuko batez bestekoarekiko, zeren

III.4.4. GRAFIKOA. EAE-KO SOLDATAPEKOEN BANAKTAREN BILAKAERA ESTATUKO SOLDATEN DEZILEN ARABERA. 2008-2016



Iturria: EIN. EPA.

[13] *Hala ere, ez dugu kontuan izango zenbatekoei buruzko informazioa, zeren eta, etxeetako soldata guztiak sartuta ez daudenez (bakarrik nagusitzat jotzen dena), ez baitu errealitatea islatzen.*

eta soldatapekorik gehienak banaketaren eskuineko aldean baitaude kokatuta.

Denborari erreparatuta, soldaten banaketa erlatibo horrek egonkor eutsi dio EAEn, eta antzeko haztapenetan jarraitu du estatuko erreferentziako batez bestekoarekiko. 2008 eta 2016 bitartean, soldaten dezilik txikienak, adibidez, %9,3tik %8,8ra egin zuen behera. Bigarrenean, berriz, %6,6tik %7,8ra hazi da. Beste muturrean, dezilik handiena %16,4tik %15,8ra jaitsi da. Bigarrenak ere behera egin du, %16,4tik %15,6ra, baina zortzigarrena %13,3tik %13,8ra igo da.

III.4.3. grafikoan ageri denez, kolore diferentziek ez dute soldatapekoen leku-aldaketa handirik erakusten soldata mailen artean.

5. ENPLEGURAKO POLITIKAK

5.1. ENPLEGURAKO POLITIKA AKTIBOAK

Eusko Jaurlaritzako Lan eta Gizarte Politiketako Sailak abiarazitako enplegurako politika aktiboen (EPA) programa estrategikoa dira Enplegu Planak, hain zuzen ere laneratzea sustatzera, enplegugarritasun mailak handitzera eta enpleguaren egonkortasuna eta kalitatea indartzera bideratuta.

EAEko Hiru Alderdien Arteko Gizarte Elkarrizketarako Mahaiak, 2015ean, gogoeta egin eta estrategia berria sortu beharra adostu zuen 2015ean, aurrekoaren indarraldia bukatuta eta enplegurako politika aktiboen transferentzia-prozesua amaituta. Horren ondorioz, Enplegurako 2020ko Euskal Estrategia egin zen 2016an (2020ko EEE), landu beharreko erronkei eta faktore kritikoei buruz lorturiko adostasunaren ondorioz, edo enplegu gehiago eta hobea lortzeko aukerei eta 2020rako aurre egin beharreko ahuleziei eta arriskuei dagozkienak ere. Enpleguaren Euskal Estrategiaren eginkizuna: "*Eusko Jaurlaritza eta enplegurako politiketan zuzenean edo zeharka parte hartzen duten gainerako eragin publikoak eta pribatuak zuzentzea/bideratzea, Euskadin 2020an enplegurako planteaturiko helburuen betetze-maila ahalik eta handiena izan dadin, betiere erakundeen lidertzarpean eta lankidetza publiko-pribatua baliatuz eta enpleguaren gaineko kontzeptu jakin batekin: enplegua pertsona garatzeko, gizarte kohesiorako eta aberastasuna sortzeko eta ekonomia garatzeko osagaia dela gizarte mailan aurreratuta dagoen gizarte lehiakorrean*". 2020ko EEEren garapena ikuspegi orokorretik gauzatu da, eta Enplegurako Europako Estrategia hartzen du eredutzat Europa mailan, hain zuzen ere Europa 2020 Estrategiaren baitan. [14]

5.1.1. 2014-2016ko Enplegu Planaren Balantzea. 2017-2020ko Enplegu Plan Berria.

Bigarren mailan, EEEren ondoren, Enplegu Planak daude. Behar handiena duten pertsonen enplegua eta laneratzea errazteko funtsezko helburua zuen 2014-2016ko Enplegu Planak, eta bereziki gazteena. Hartara, ekintzailetza eta ETEentzako laguntza bideratzen dira. Halaber, enpleguan eragin zuzena duten obretako eta proiektuetako inbertsio pribaturako pizgarriak eman nahi zituen eta, aldi berean, erakundeen arteko lankidetza eta erakunde publikoen eta pribatuen arteko lankidetza sustatu enpleguaren galerari aurre egiteko.

Azken Balantzearen txostenean nabarmentzen denez, X. Legealdian hartutako konpromisoari erantzuna emateko plan nagusitzat sortu zen, egungo enpleguaren alde egiteko eta lanpostu berriak sortzeko baldintzak eta beharrezko baldintzak sortzeko lehentasun gisa. Horren ondorioz, funtsean plan operatiboa zehaztu behar izan zen, eragin neurgarria eta zenbagarria berehala ekarriko zuten neurri zehatzen eta errealisten bidez. Eusko Jaurlaritzako txostenean eginiko ebaluazioaren arabera, hona hemen emaitza nagusiak:

III.5.1. TAULA. 2014-2016KO ENPLEGU PLANAREN BETEARAZPENARI BURUZKO IKUSPEGI OROKORRA

EREMUAK	EMAITZAK
DIRU-BALIABIDEAK	-Aurreikusitako finantzaketa publikoaren %85 -Aurreikusitako baliabide pribatuen %58 erabiltzea
ERAGINA ENPLEGUAN	- Enpleguaren sorkuntza aurreikusitako eraginaren %11,6 - Enplegua mantentzeko aurreikusitako eraginaren %98 - Enplegugarritasunaren gehikuntzan aurreikusitako eraginaren %64
EKIMENAK	- 87 ekimen abiarazi dira urteko 3 ekintza planen bidez - 5 ekimen sortze-fasean gelditu dira, edo finantzatzeko zain.

Iturria: EUSKO JAURLARITZA. 2014-2016ko Enplegu Planaren Azken Balantzeari buruzko Txostena.

- Eusko Jaurlaritzak 775 milioi euroan zenbatetsi zuen plana martxan jartzeko aurrekontu publikoa, betiere arlo pribatuko beste 1.566 milioi euro mugiarazita. Hots, orotara 2.341 milioi euro erabiliko ziren plana martxan jartzeko. Eusko Jaurlaritzak aurreikusitako finantzaketaren %85 izan da planaren benetako betearazpena, hots, 661 milioi euro, eta aurreikusitako baliabide pribatuen %58 erabili dira, 910 milioi euro. Hots, 1.571 milioi euroko aurrekontua

[14] *2020ko EEEri buruzko argibide gehiago nahi izanez gero, ikus bedi Memoria Sozioekonomiko honen 2016ko edizioa.*

izan da, eta horien bidez, Urteko Ekintza Planetan aurreikusitako 92 ekimenetatik 87 ekimen gauzatu dira (aurreikusitako ekimenen %95).

- Era berean, 32.000 lanpostu sortzeko pizgarriak zekartzan planak, baita 134.600 lanpostu mantentzeko eta lehen lan esperientzia izateko eskaintza ere 23.000 gazteri zuzenduta. Urteko Ekintza Planen bidez martxan jarritako ekimenen garapen eta betearazpen mailari esker, sortutako enpleguan izandako eragina bete ahal izan da, aurreikusitakoa baino gehiago (%116), eta enpleguari eutsi zaiola esan daiteke (%98). Hots, lagungarria izan da 37.146 lanpostu sortzeko eta 131.898 lanpostu mantentzeko.

- Gazteen lehen lan esperientziarako laguntzari dagokionez, lehen lan esperientziarako laguntza eman zaie 6.302 gazteri, hau da, %27,2 gazteen artean.

Pizgarria jaso zuten lanpostu guztietatik (37.146), 10.690 lanpostu 5.887 autonomo berrik edo mikroenpresek sortu dituzte, lan-merkatuan sartzeko zailtasunak dituztenentzako 12.560 lanpostu pizgarri ekonomikoen bidez kontratatuak, eta 13.896 lagunek lana lortu zuten birgaikuntzarako jarduketetan. Mantendutako 131.898 lanpostuetatik, 98.871 lanpostu autonomo eta ETEentzako finantzaketa eta lehiakortasuna hobetzeko izan ziren. Beste 30.902 lanpostu enpleguko zentro berezien eta laneratze-enpresen bidez, eta 2.605 lanpostu ordezpenetan, belaunaldien arteko erreleboetan edo gizarte ekonomiako enpresa bihurtzeko prozesuetan laguntzeko.

Enpleguko Plan Estrategiko berriak, 2017-2020rakoa denak eta 2017an zehaztuak, 2020ko EEEan definituriko jarraibideak zehazten ditu arlo operatiboan, zertarako-eta Eusko Jaurlaritzaren barruan enplegua sustatzearekin loturiko zerbitzuak eta programak betearazten dituzten sailetako lan-tresnak izateko. Hartara, lanaren, hezkuntzaren eta sustapen ekonomikoaren arloekin loturiko ezaugarriak biltzen dituen enpleguaren gaineko kontzeptu zabalari eutsiko zaio. Era berean, "*Ekonomia eta Enplegua Sustatzeko 2017-2020ko Esparru-programa*" delakoaren funtsezko zatia da, eta horretan ere biltzen da, ekonomia suspertzearen arloan, Eusko Jaurlaritzak berrikuntzaren, nazioartekotzearen, industrializazioaren eta inbertsioaren arloan garatuko dituen oinarrizko lerro estrategikoak. Hori guztia 3 helburu nagusirekin:

1. Egungo langabezia-tasa etengabe murriztea, 2020ko azken hiruhilekoan %10aren azpitik kokatu arte.
2. 2017-2020 epealdian 45.000 lanpostu sortzeko pizgarriak ematea, enpresa berriak sortuta, enplegurako aukera gutxien duten pertsonak kontratatzeko pizgarriak emanez eta birgaikuntzarako sustapen publikoa eginez enplegua sortzeko sektore garrantzitsu gisa.
3. Lehen lan esperientzia eskaintzea 20.000 gazteri 2017-2020 epealdian.

III.5.2.TAULA. 2017-2020KO ENPLEGU PALAREN ZUZKIDURA

1. JARDUKETA-EREMUA	ETE-AK, GIZARTE EKONOMIA ETA TOKIKO GARAPENA	63 M€
2. JARDUKETA-EREMUA	EKINTZAILETZAREN SUSTAPENA	86 M€
3. JARDUKETA-EREMUA	GAZTEEN ENPLEGUAREN SUSTAPENA	101 M€
4. JARDUKETA-EREMUA	ENPLEGURAKO PRESTAKUNTZA	282 M€
5. JARDUKETA-EREMUA	LANERATZEKO PIZGARRIAK	301 M€
6. JARDUKETA-EREMUA	BIRGAITZEKO RENOVE PLANAK	347 M€

2017-2020ko Enplegu Plan Estrategikoaren aurrekontuaren zenbatespena 1.180 milioi eurokoa da 2017-2020 epealdirako, eta honako banaketa hau du arlo operatiboen arabera: [15]

2017. urteko aurrekontuko zenbatespena 290 milioi eurokoa da, EAEko 2017ko Aurrekontu Orokorretan 210 Programan (Enplegu Plana) bildutako aurrekontuko partidekin bat etorriz. 2018, 2019 eta 2020ko ekitaldietarako aurrekontuko aurreikuspenei dagokienez, urteko %1,2ko batez besteko hazkundea zenbatetsi da, betiere ekitaldi bakoitzeko aurrekontuen onespenaren pean.

Memoria honen ondorengo edizioetan, 2017-2020ko Enplegu Planaren[16] jarraipena eta balorazioa egingo dira.

5.1.2. LANBIDE-REN JARDUERA

LANBIDEK funtsezko eginkizuna du eratxikia EAEko enplegurako politika aktiboak garatzeko eta Enplegu Plana abiarazteko, zeren eta haren funtzioak lan jarduera (enplegua sustatzeko programekin, bitartekaritzarekin, orientazioarekin, etab.) eta enplegurako prestakuntza baitira, landunena nahiz langabetuena, baita Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta eta beste prestazio osagarri batzuk kudeatzea ere.

Aurrekontuko likidazioak oinarri hartuta (obligazio aintzatetsiak), jakin badakigu 2016an 847,79 milioi euroko gastua izan zuela, 2015ean baino %3,5 gehiago, eta horietatik 516,26 milioi, gastu guztien %60,9, Gizarteratze Programarako erabili ziren (2015ean baino %3,5 gehiago), 217,4 milioi euro (guztizkoaren %25,6) Enplegu Programarako (2015ean baino %8,5 gehiago) eta 101 milioi (gastuaren %11,9) Prestakuntza Programarako (-%4,1 2015ekoaren aldean)[17].

III.5.1. GRAFIKOA. LANBIDE: AURREKONTUEN LIKIDAZIOA PROGRAMEN ARABERA. MILA EUROTAN.



Iturria: LANBIDE. Aurrekontuko likidazioak. Geuk egina.

Hortaz, eta nahiz eta sinplifikazioa izan daitekeen enplegurako politiketako gastua prestakuntzako eta enplegurako programen baturatzat hartzea, gizarteratzearekiko berezko erlazioa duenez gero, LANBIDEk 2016an enplegurako politika aktiboetan 507,5 milioi euroko gastua izan zuen, 2015ean baino %4,1 gehiago. 2014 eta 2015 urte bitartean, berriz, %9,1eko igoera.

Azkenik, 2017an, eta likidazioari dagozkion kopuruak izan gabe, Lanbidek 864,9 milioi euroko aurrekontua izan zuen, hots, %5,2ko gehikuntza, eta horietatik 507,5 euro gizarteratzeko erabili ziren, 223 milioi euro enplegurako eta 110,58 milioi euro prestakuntzarako.

5.1.3. PAESen beste kopuru batzuk 2015ean

Ogasun eta Administrazio Publikoen Ministerioak autonomia erkidegoek "enplegua sustatzeko" eginiko gastua zein den jakitea ahalbidetzen du lurraldeko estatistika datuak oinarri hartuta, haien aurrekontuko likidazioek dakartzaten partida orokor gisa.

Informazio horren arabera, 2015. urtean (eskuragarri dugun azken datua), Euskadik 341,30 milioi euro erabili zituen prestakuntza, orientazio eta laneratze programetarako, 2014an baino %6,7 gehiago. Zifra hori nahikoa hurbil dago (ez da

---

[15] *7. (Enplegu publikoa), 8 (Enpleguaren kalitatearen hobekuntza) eta 9. (Enplegurako Euskal Sistemaren hobekuntza) eremuak ez dira aurrekontuaren ondorioetarako aintzat hartzen, zeren eta neurri handi batean 1. kapituluari baitagokio (ez dago osatuta gainerako eremu operatiboetan).*

[16] *2017-2020 Enplegu Plana aztertu zuen Batzorde honek. Argibide gehiago:5/2017 Irizpena.*

[17] *Gainerakoa, eginiko gastuaren %1,6 gutxi gorabehera, erakunde honen egitura eta laguntza gastuei dagokie.*

berdina) LANBIDEk prestakuntza eta enpleguko programetan urte horretarako zituen kontuen 305,65 milioi euroko gastutik, 2014an baino %9,1 gehiago.

Programetarako funts bolumenik handiena erabili zuen autonomia erkidegoa EAE izan zen 2017an, Estatuko guztizkoaren %11, eta data horretan Estatuan erregistraturiko langabeziaren %3,8 metatzen zuen (urteko batez besteko datua). Horren ondorioz, Estatuko batez bestekoa baino %191,79 handiagoa izan zen urte horretan langabetu bakoitzeko eginiko gastua: 2.130,46€ eta 730,13 euro. Gastu hori nabarmen handitu da 2014aren aldean: %14,4. Aurreko urtean %1,5 handitu zen, eta Estatuarena, berriz, %12,6 hazi zen.

III.5.3. TAULA. ENPLEGURAKO POLITIKA AKTIBOAK: EAE-ESTATUKO KONPARAZIOA.

	ZENBATEKOA (MILIOI €)*			GASTUA (€/LANGABE)		
	EAE	ESTATUA	% EAE/ESTATUA	EAE	ESTATUA	% EAE/ESTATUA
2008	80,45	4.976,88	1,6	950,91	1.959,48	48,5
2009	191,63	5.259,47	3,6	1.590,30	1.443,32	110,2
2010	94,59	4.994,44	1,9	714,43	1.229,92	58,1
2011	399,85	4.642,07	8,6	2.755,68	1.090,40	252,7
2012	527,11	4.004,13	13,2	3.245,77	848,26	382,6
2013	321,71	2.799,03	11,5	1.834,16	577,68	317,5
2014	319,79	2.975,23	10,7	1.862,51	650,20	286,5
2015	341,30	3.089,97	11,0	2.130,46	730,13	191,79
%13/14	-0,6	6,3	-	1,5	12,6	-
%14/15	6,7	3,9	-	14,4	12,3	-

Iturria: OGASUN ETA LAN MINISTERIOEN datuekin eginikoa.
* AA.EE.EN AURREKONTU-LIKIDAZIOETATIK ATERATAKO DATU BATERATUAK. SAILKAPEN FUNTZIONALA, 24 KODEA: "ENPLEGUAREN SUSTAPENA". OGASUN ETA ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN MINISTERIOAREN DATU-BASEA.

5.1.4. Etengabeko trebakuntza

Indarreko araudiaren eta eskumenen banaketaren ondorioz, langileentzako etengabeko prestakuntzako jarduerak Etengabeko Lanbide Heziketarako Euskal Fundazioaren (HOBETUZ) eta Estatuko Enplegurako Prestakuntzaren Hirutariko Fundazioaren (EPHF) bidez kudeatzen dira EAEn. Baterako bilketako kuoten eta Europako Gizarte Funtsak emandako kopuruen eta aurrekontu publikoetatik (bai administrazio zentraletik EEZPri emandakoak bai Eusko Jaurlaritzatik HOBETUZen kasuan) eratorritako funtsen kargura egiten da ekintza horien finantzazioa, batez ere. ***Etengabeko Lanbide Heziketarako Euskal Fundazioaren (HOBETUZen bidez burutzen den etengabeko prestakuntza[18])***, jardueren kasuan (landunen etengabeko prestakuntzaren kudeaketa hartu zuen bere gain) 2016an (urte horretakoa da eskuragarri dagoen azken datua) 408 espediente kudeatu zituen, guztira 34.486 langileren prestakuntza ahalbidetuta. Horretarako 19 milioi euroko diru-laguntzak eman ziren (+%487,7). 2015ean, eskaintzaren deialdirik egon ez zenez gero, 2016ko kopuruen bilakaera ere hartu behar da aintzat 2014arekin alderatuta. Bi urteak erkatuz gero, %13,2ko jaitsiera dago trebaturiko langileen kopuruan eta %11,6koa diru-laguntzetan.

III.5.4. TAULA. HOBETUZ: 2016KO DEIALDIAREN BALANTZEA, BEHIN BETIKO DATUAK.

		PLAN MOTA	ESPEDIENT.	EMANDAKO DIRUL. (mila €)	PARTAIDEAK
ENPRESAK	EKINTZA ESTRATEGIKOAK	ENPRESA PLANAK	261	2.422,07	10.624
		ENPRESA-TALDEAREN PLAN.	42	533,33	1.749
		PLAN EGIAZTAGARRIAK	4	44,56	79
		GUZT.	307	3.000,07	12.452
LANGILEAK	PRESTAKUNTZA PLANAK	PRESTAKUNTZA ENTITAT.	101	16.086,31	22.034
GUZT.			**408**	**19.086,27**	**34.486**

Iturria: HOBETUZ.

[18] *Enpresa-erakundeetako, sindikatuetako eta Eusko Jaurlaritzako ordezkariek osatuta dago. Eusko Jaurlaritzak, 2017an, Etengabeko Prestakuntzako Euskal Fundazioa (Hobetuz) Lanbiden txertatzeko izapideak abiarazi zituen.*

2017. urteko emaitzen aurrerapenari dagokionez (urte horretan, enpresen deialdiez gain, landun langileentzako deialdia izan da), guztira 319 espediente onetsi dira, eta orotara 15,7 milioi euroko diru-laguntzak eman dira.

III.5.2. GRAFIKOA. HOBETUZ: PRESTAKUNTZAKO PARTAIDETZAREN BILAKAERA ETA DIRU-LAGUNTZEN ZENBATEKOAK 2010-2017AN *



Iturria: HOBETUZ. Geuk egina.
**2017ko datua behin-behinekoa da.*

Enplegurako Prestakuntzaren Hirutariko Fundazioak (enpresa planetarako, sektore arteko eta sektoreetako prestakuntza planetarako, gizarte ekonomiarako eta langile autonomoentzako) sustaturiko langileen etengabeko prestakuntzarako ekintzetan 2016an (azken datu eskuragarria) 135.255 pertsonek hartu dute parte behin-behineko datuen arabera 206.048 prestakuntzako ekintzetan (langile berak prestakuntza bat baino gehiago egin duelako urtean), hau da, aurreko urtean baino % 4,6 gehiagok, 17.4655 enpresa formatzaileren esku-hartzeari esker (-%11,8, 2015aren aldean). Guztira, enplegurako prestakuntzarako erabilgarri dauden fondoen 28 milioi euro erabili dituzte (-%6,7 aurreko urtearen aldean), eta horrengatiko hobaria izan dute Gizarte Segurantzako kuotetan.

Enpresa trebatzaileen estaldura-tasa %26,9 izan zen. Aurreko urtean, berriz, %30,5 izan zen (%22,7 batez beste Estatuan). Partaidetza-tasa hori oso desberdina da enpresaren tamainaren arabera: %21 mikroenpresetan (1-9 langilekoak), %55,3 enpresa txikietan (10-49 langilekoak), %87,2 ertainetan (50-249 langilekoak) eta %94,4 enpresa handietan (250 langile baino gehiago dituztenak).

III.5.5. TAULA. FUNDAE: ENPLEGURAKO PRESTAKUNTZA EAE-N: PARTAIDETZA KOPURU NAGUSIEN 2013-2016KO BILAKAERA.

		2013	2014	2015	2016	% 14/15	% 15/16
	EAE-N TREBATURIKO PARTAIDEAK						
IKASKETA MAILAREN ARAB.	GUZT. PRESTAKUNTZA EKIN.	178.019	174.343	196.968	206.049	13,0	4,6
	Ikasketarik ez, oinarrizkoa eta DBH %	25,7	23,8	22,7	32,2	-4,6	41,9
	BDH eta LH %	41,9	41,7	42,1	39,7	1,0	-5,7
	Unibertst. Ikask. %	32,4	33,7	35,2	28,1	4,5	-20,2
	ENPRESA TREBATZIAILEAK						
SEKTORE JARDUERAR	GUZT.	22.072	22.336	19.805	17.465	-11,3	-11,8
	Nekazaritza	142	179	190	145	6,1	-23,7
	Industria	3.522	3.549	3.250	2.953	-8,4	-9,1
	Eraikuntza	2.295	2.233	1.995	1.747	-10,7	-12,4
	Merkataritza	5.284	5.359	4.564	3.916	-14,8	-14,2
	Ostalaritza	2.885	3.003	2.842	2.351	-5,4	-17,3
	Beste zerbitzuak	7.944	8.013	6.964	6.353	-13,1	-8,8
PRESTAKUNTZA ORDUAK PARTAIDEKO		26,13	24,6	21,2	17,3	-13,8	-18,4
FINANTZIAZIOA: Kreditu eskuragarria (milioi €)		**33,55**	**32,70**	**30,0**	**28,0**	**-8,3**	**-6,7**

Iturria: ENPLEGU PRESTAKUNTZARAKO FUNDAZIOAREN datuekin eginikoa.

Horrez gain, kontuan hartu behar da Gizarte Segurantzan erreferentziako urtean (2016) izena emanda zeuden eta soldatapekoak zituzten enpresen %85,2 direla mikroenpresak EAEn. Enpresa trebatzaileen %66,7 dira. Jarduera-sektoreen arabera, %72,3k zerbitzuetako jarduerak egiten dituzte, eta nabarmentzekoa da merkataritzaren eta ostalaritzaren pisua, %22,4 eta %13,5 hurrenez hurren. Enpresa trebatzaileen %16,9 industriaren sektorekoak dira eta %10 eraikuntzakoak.

III.5.6. TAULA. FUNDAE: ETENGABEKO PRESTAKUNTZA EUSKADIN. PARTAIDETZA ENPRESAREN TAMAINAREN ARABERA. 2016.

	ENPRESA TREBATZAILEAK		PARTAIDEAK		
	GUZT.	ESTALDURA	KOP.	ORDUAK	ORDUEN B.B.
1 - 9	11.641	21,0	17.415	667.323	38,3
10 - 49	4.461	55,3	37.017	760.684	20,5
50 - 249	1.167	87,2	52.098	849.271	16,3
250 ETA +	187	94,4	99.473	1.280.860	12,9
GUZT.	**17.465**	**26,9**	**206.049**	**3.558.138**	**17,3**

Iturria: FUNDAE. Enpresentzako trebakuntza 2016. Euskadi. Geuk egina.

Prestakuntzako ekintzetako partaide horiei dagokienez, %32,6 izan zen sektore pribatuan trebaturiko soldatapekoen ehunekoa. 2015ean, berriz, %33,1 izan zen (%30,9 batez beste Estatuan). Horrez gain, trebaturiko 135.255 langileetatik gehienak gizonezkoak izan ziren, %57,1, eta alde nabarmena dago gizonen eta emakumeen estaldura-tasan: %33,9 eta %31. Alde hori Estatu mailan ere gertatzen da, baina pixka bat txikiagoa da: %32 ginezkoetan eta %29,5 emakumezkoetan (2,9 eta 2,5eko puntuko aldeak, hurrenez hurren).

Horrez gain, prestakuntzako ekintzetako partaidetza handiagoa da 36-45 urteko adin-taldean (partaideen %37), eta ondoren 46-55 urtekoak (%26,2) eta 26-35 urtekoak dira (%23,2). Halaber, partaideen ikasketa maila gehienbat DBH ondorengo ikasketei dagokie (prestakuntzako ekintzen %39,7), eta ondoren oinarrizko ikasketak eta DBHko ikasketak dituztenak (%32,2) eta, jarraian, unibertsitateko ikasketak dituztenak (%28,1).

Prestakuntzako edukiei dagokienez, gehienbat arlo hauekin zeuden lotuta prestakuntzak: Segurtasuna eta ingurumena (partaideen %20,7), Administrazioa eta kudeaketa (%25,8), Prestakuntza osagarria (%11,3) eta Merkataritza eta marketina (partaideen %10,7, besteak beste.

III.5.7. TAULA. FUNDAE. EAE-KO PRESTAKUNTZAKO EKINTZETAKO PARTAIDETZA EDUKIAREN ARABERA. 10 TIPOLOGIA OHIKOENEN XEHETASUNA. 2016.

	PARTAIDEAK		ORDU
	KOP.	BERT. %	B.B.
ADMINISTRAZIOA ETA KUDEAKETA	53.231	25,8	13,9
SEGURTASUNA ETA INGURUMENA	42.735	20,7	11,2
GIZARTE-KULTURAKO ZERBITZUAK	23.311	11,3	11,4
PRESTAKUNTZA OSAGARRIA	22.138	10,7	31,5
MERKATARITZA ETA MARKETINA	16.314	7,9	16,2
INFORMATIKA ETA KOMUNIKAZIOAK	15.049	7,3	24,6
ELIKAGAIEN INDUSTRIAK	6.808	3,3	22,8
GARRAIOA ETA IBILGAILUEN MANTENUA	6.334	3,1	25,0
OSASUNA	5.041	2,4	17,7
FABRIKAZIO MEKANIKOA	3.460	1,7	25,1
GAINERAKOAK	11.628	5,8	:
GUZT.	**206.049**	**100,0**	**17,3**

Iturria: FUNDAE. Prestakuntza enpresetan, 2016. Euskadi. Geuk egina.

Administrazio eta auditoria, Finantza eta aseguruak eta IKTen kudeaketa arloetako prestakuntzarako ekintzak biltzen ditu administrazioari eta kudeaketari buruzko prestakuntzak. Segurtasunaren eta ingurumenaren gaineko prestakuntza, berriz, segurtasunari eta prebentzioari eta ingurumenaren kudeaketari buruzko ekintzez osatuta dago. Gizarte-kulturako zerbitzuen eta erkidegoarentzako zerbitzuen gaineko prestakuntza, azkenik, trebakuntza, hezkuntza eta gizarte arretarako eskumenetara dago bideratuta.

Trebakuntzaren modalitateak, azkenik, aldaketak izan zituen 2016an. Urte horretako urtarriletik hasita, prestakuntza hiru metodologiaren bidez egin daiteke onura jasotzen duen trebakuntza: presentziazkoa, teletrebakuntza eta mistoa, eta betiko urrutiko trebakuntza desagertu da. Horrela, online irakaskuntza sustatu daiteke, teknologia berrien bilakaerarekin bat etorrita. 2015ean, betiko urrutiko trebakuntza, laguntza telematikorik gabekoa, trebaturiko partaideen %9,4 izan zen, eta prestakuntzako orduen %27,2. Hura desagertu ondoren, teletrebakuntza da gehien hazi den modalitatea, eta aldi berean, luzatu egiten da haren ekintzen batez besteko iraupena. Kontrako zentzuan, trebakuntza mistoak nabarmen egin du behera partaidetzan, baina luzeagoa da. Presentziazko trebakuntzan partaide gehiago izan dira, baina iraupenak pixka bat behera egin du.

Horrenbestez, presentziazko trebakuntza da oraindik gehien erabiltzen dena, partaideen %81,1ekin. Hala ere, prestakuntzarik laburrena jaso dute, batez beste 13 orduko prestakuntzako ekintzen bidez. Teletrebakuntzak batez bete 34,9 orduko iraupena du, eta langile partaideen %17,5 biltzen du. Azkenik, trebakuntza mistoak presentziazko irakaskuntza eta teletrebakuntza uztartzen ditu, eta batez besteko iraupenik luzeeneko modalitatea bihurtu da, baina partaideen %1,5ek baino ez du aukeratu.

III.5.8. TAULA. FUNDAE: ETENGABEKO TREBAKUNTZA EAE-N MODALITATEAREN ARABERA. 2015-2016.

	PARTAIDEAK		TREBAKUNTZA ORD.		B.B. IRAUPENA	
	2015	2016	2015	2016	2015	2016
PRESENTZIAZKOA	138.068	167.066	1.985.660	2.170.952	14,4	13,0
TELETREBAKUNTZA	22.868	35.963	582.875	1.255.205	25,5	34,9
MISTOA	17.585	3.020	475.833	132.396	27,1	43,8
URRUTIKOA	18.447	-	1.135.395	-	61,5	-
GUZT.	**196.968**	**206.049**	**4.179.763**	**3.558.553**	**21,2**	**17,3**

Iturria: FUNDAE. Prestakuntza enpresetan 2016. Euskadi.

Horrenbestez, 2016an 3,6 milioi ordu eman ziren prestakuntzan. 10etik 6 geletan egin ziren, 3,5, telematika bidez eta 1,5 ordu presentziako trebakuntza eta online trebakuntza uztartzen dituzten ekintza mistoei dagokie.

5.2. ENPLEGURAKO POLITIKA PASIBOAK

Langabeziagatiko prestazioek lan egin ahal eta nahi dutenak baina aldi baterako edo behin betiko lana galdu edo lanaldiaren zati handi bat murriztuta dutenak eta, horren ondorioz, soldatak antzeko moduan murriztuta dituztenak babesten dituzte. Kotizaziopeko prestazioak (erabateko langabezia edo langabezia partziala) eta laguntzako prestazioak (langabeziagatiko subsidioa) daude. 2012ko uztailean, aurrekontuen egonkortasuna bermatzeko eta lehiakortasuna sustatzeko neurriei buruzko 20/2012 Errege Dekretu-legea aplikatzearen ondorioz, murriztu egin dira langabeziagatiko prestazioen zenbatekoak, eta kopuru hauek ditugu[19]:

- Kotizaziopeko prestazioen zenbatekoa langileek eta enpresariek Gizarte Segurantzari egoera horretarako ordaindutako kotizazioekin finantzatzen da, eta langabeziaren lehenengo 6 hiletan langabearen kotizazio oinarriaren % 70 da (gainerakoan % 50), langabe bakoitzaren familia egoeraren arabera zenbait muga dituela.
- Langabeziagatiko subsidioa familia egoeraren arabera IPREMen (Askotariko Efektuen Errentaren Adierazle Publikoa) gaineko ehuneko jakin baten erreferentzia duen prestazio ekonomikoa da. 2017rako IPREM 537,84€ izan zen aurreko urtean baino 5,33€ gehiago.

III.5.3. GRAFIKOA: EAE-KO LANGABEZIAREN ZIOZKO PRESTAZIOEN HARTZAILEEN KOPURUAREN HILEKO BILAKAERA (MILAKOETAN)



Iturria: EEZPren datuekin eginikoa.

5.2.1. Langabeziako estaldura eta prestazioen jasotzaileak

2017an langabeziagatiko prestazioen onuradunak, batez beste, 50.122 lagun izan ziren EAEn, aurreko urtean baino % 10 gutxiago, nahiz eta urte horretan % 14,5 jaitsi zen, Sustapen Ministerioak emandako batez besteko datuen arabera. EAEn zeuden 50.122 hartzaileetatik %53 emakumeak ziren (kopuru hori batez bestekoa baino gutxiago jaitsi zen, %7,7) eta %47 gizonak (-%12,4).

Prestazioa 2017an jaso duten pertsonen kopuruaren hileko bilakaera ardatz hartuta ikusten denez, aurreko urteetan moduan, gorakada ageri da uztailean eta abuztuan, eta ordutik behera egin eta azkenean 46.890 hartzaile ziren, 2016ko abenduaren baino %8,5 gutxiago (orduan %12,3 murriztu zen aurreko urtearen aldean.

Abenduan langabeziaren ziozko prestazioen 46.890 onuradunetatik, %59,9k kotizaziopeko prestazioak jasotzen zituen (28.073 lagun), %34,2k subsidioak (16.201), %5,6k Laneratze Errenta Aktiboa (2.613) eta gainerako %0,3ak, 183 lagunek,

[19] *BOE, 168 zk., 2012ko uztailaren 14koa.*

Enplegua Suspertzeko Programaren prestazioa [20]. Estatuan, hile horretan, 1,89 onuradun erregistratu ziren (-%4,5 2016ko abenduaren aldean), eta kotizaziopeko prestazioen hartzaileen ratioa %40,6 zen, %40,9 subisidioetan eta %9,7 laneratze-errenta aktiboan. Gainera, %2,9k Enplegua Suspertzeko Programaren prestazioak jasotzen zituen, eta %5,9k balizko nekazaritzako subsidioa.

III.5.9. TAULA. LANGABEZIAKO PRESTAZIOAK JASOTZEN DITUZTEN PERTSONEN BATEZ BESTEKOAREN BILAKAERA EAE-N.

	KOTIZAZIOPEKO PRESTAZIOAK			LAGUNTZA PRESTAZIOAK			PRESTAZIOAK, GUZT.*		
	Gizona	Emak.	GUZT.	Gizona	Emak.	GUZT.	Gizona	Emak.	GUZT.
2013	30.526	25.082	55.608	17.313	16.611	33.924	47.839	41.693	89.532
2014	24.488	22.039	46.527	16.704	15.698	32.402	41.192	37.737	78.929
2015	18.224	18.588	36.812	14.530	13.806	28.336	32.754	32.394	65.148
2016	14.675	16.872	31.547	12.218	11.910	24.128	26.893	28.782	55.675
2017	**13.340**	**16.242**	**29.582**	**10.222**	**10.317**	**20.539**	**23.563**	**26.559**	**50.122**
Ald. % 14/15	-25,6	-15,7	-20,9	-13,0	-12,1	-12,5	-20,5	-14,2	-17,5
Ald. % 15/16	-19,5	-9,2	-14,3	-15,9	-13,7	-14,9	-17,9	-11,2	-14,5
Ald. % 16/17	-9,1	-3,7	-6,2	-16,3	-13,4	-14,9	-12,4	-7,7	-10,0

(*) Hauexek barne: Gizarteratzeko Errenta Aktiboa, Langabeziagatiko Babeserako Aldi Baterako Programa eta Enplegua Suspertzeko Programa
Iturria: EEZP, Lan eta Gizarte Segurantza Ministerioa.

Erregistraturiko langabezia guztiaren kopuruak kontuan izanik, esan liteke ezen, 2017ko abenduan, EAEko 100 langabeetatik 63k ez zuela prestaziorik jasotzen (62k 2016an), 22k kotizaziopeko prestazioa jasotzen zuela, 13k subsidiarioa eta 2k Gizarteratzeko Errenta Aktiboa

III.5.10. TAULA. ESTALDURA-ADIERAZLEAK ETA LANGABEZIAREN ZIOZKO PRESTZIOEN GASTUA AUTONMOIA ERKIDEGOEN ARABERA.ABENDUKO HILEAK

	ESTALDURA-TASA*									
	2015	2016	2017	15-16	16-17	2015	2016	2017	% 15/16	% 16/17
ANDALUZIA	59,8	62,6	65,9	2,8	3,3	779,7	784,7	792,8	0,6	1,0
ARAGOI	53,1	52,8	54,3	-0,3	1,5	821,0	823,9	827,7	0,4	0,5
ASTURIAS	49,4	47,3	47,0	-2,1	-0,3	771,8	779,6	779,5	1,0	0,0
U. BALEARRAK	118,3	130,2	132,7	11,9	2,5	946,6	964,9	984,6	1,9	2,0
U. KANARIARRAK	50,8	50,5	52,5	-0,3	2,0	755,6	762,1	784,6	0,9	3,0
KANTABRIA	53,0	53,5	54,9	0,5	1,5	770,0	779,6	785,1	1,2	0,7
GAZTELA-MANTXA	47,9	50,7	51,4	2,8	0,8	765,0	769,9	785,7	0,6	2,1
GAZETLA ETA LEON	49,7	50,3	51,0	0,5	0,7	785,2	802,1	810,7	2,2	1,1
KATALUNIA	61,2	62,6	63,6	1,3	1,0	852,2	855,7	863,0	0,4	0,9
VALENTZIAKO E.	49,3	50,4	52,2	1,2	1,7	792,3	791,2	794,8	-0,1	0,5
EXTREMADURA	63,0	64,3	68,4	1,3	4,1	686,6	687,0	696,3	0,1	1,4
GALIZIA	53,5	53,7	54,7	0,2	1,0	785,4	793,5	792,5	1,0	-0,1
MADRIL	47,8	48,1	49,4	0,3	1,4	848,6	850,9	855,9	0,3	0,6
MURTZIA	51,2	53,4	56,8	2,2	3,4	781,4	785,6	792,6	0,5	0,9
NAFARROA	50,8	48,9	49,5	-1,9	0,6	909,3	902,3	902,5	-0,8	0,0
EAE	43,4	42,4	41,5	-1,0	-0,9	889,2	875,6	881,9	-1,5	0,7
ERRIOXA	50,6	53,1	53,6	2,5	0,5	838,5	843,4	847,9	0,6	0,5
CEUTA	42,4	41,4	47,5	-1,0	6,1	773,7	772,9	799,1	-0,1	3,4
MELILLA	38,4	35,7	37,6	-2,7	1,9	763,9	762,0	771,0	-0,2	1,2
GUZT.	55,2	56,6	58,6	1,4	2,0	815,4	820,1	828,1	0,6	1,0

Iturria: Geuk egina, EGZMren datuekin.
(*) Ministerioaren metodologiaren arabera kalkulatu dira estaldura-tasak, hilaren azkenean langabezian zeudenen prestazioen onuradunen kopuruaren
(kotizaziopekoak gehi subsidioak) zatidura eta lan esperientzia duten erregistraturiko langabeak gehi nekazaritzako subsidioen onuradunak (Andaluzian eta Extremaduran).

[20] *Aldi baterako ezohiko programa, iraupen luzeko langabetuentzat, Enplegu Zerbitzu Publikoek kudeaturiko enplegurako politikak eta lan-bitartekaritza biltzen dituena, lan-merkatura itzultzeko aukerak handitzeko. Horrez gain, EEZPek kudeaturiko laguntasunerako diru-laguntza eskatzen du, enplegua sustatzeko politika horietan parte hartzearekin lotua. Abenduaren 19ko 16/2014 Errege Dekretu-legea, Enplegua SustatzekoPrograma arautzen duena.*

Estatuan, langabeziagatiko prestazioen estaldura nabarmen handitzen da erkidegoen artean langabeziari dagokionez. Nabarmentzekoa da, alde batetik, U. Balearren kasua, non, eskuragarri ditugun datu guztiek arabera, aurretik lan esperientzia duten langabetuek prestazioren bat jasotzen duten eta, bestetik, Ceuta eta Melilla, non langabetuen %40k besterik ez duten prestazioa jasotzen.

2017ko abenduko datuekin jarraituz, Estatuko batez besteko estaldura %58,6koa zen (2016ko abenduan baino %2 gehiago), eta hori baino txikiagoa da EAEkoa (lehenago hil horretan erregistraturiko langabetuen %41,5, Enplegu eta Gizarte Segurantzaren Ministerioak darabilen metodologiaren arabera). Gure Erkidegoan, %0,9ko jaitsiera izan zen estalduran 2016ko abendutik eta 2017ko abendura bitartean. Horren ondorioz, autonomia erkidego guztietako langabezia estaldura-tasarik txikiena du EAEk, Ceuta eta Melilla alde batera utzita. Beraz, 2016an bezala, 2017an langabezia tasa txikiagoekin batera, lanik gabe daudenen aringarri, aldi berean gora egin zuen babesik ezak langabeziarako babes sistemaren aldetik.Alabaina, langabeziagatiko kotizaziopeko kontribuzioaren batez bestekoak gora egin zuen, 2017ko abenduan 881,9 euro EAEn (aurreko urtean baino %0,7 gehiago), Estatuko batez bestekoaren gainetik (828,1€, 2016ko abenduan baino %1 gehiago). Hala, prestazio honen batez bestekoa handiagoa da orain ere EAEn: %6,5 handiagoa Estatuan baino. EAE aldagai honen lehen tokietan dago, Nafarroarekin, Balearrekin eta Kataluniarekin batera.

5.2.2. Gastua eta sarrera langabezian

EAEko langabeziaren ziozko prestazioetarako gastua, guztira, eta behin-behineko datuen arabera, 606,74 milioi euro izan zen 2017an, hots, 2016an baino %13,2 gutxiago. Zenbateko hori EAEko BPGaren %0,82 da (%0,99 aurreko urtean), eta Estatuan langabeziarako eginiko gastu osoaren %3,47 da, non 17.507 milioi eurotik gorako gastua duten (-%6,6 2016ren aldean).

III.5.11. TAULA. EEZP-REN LANGABEZIA ETA DIRU-SARRERETAKO GASTUEN BLAKAERA GIZARTE KOTIZAZIOAREN ARABERA EAE-N (MILIOI €)

	2012	2013	2014	2015	2016	2017*	Ald. % 15/16	Ald. % 16/17
Kotizaziopeko prestazio osoak	789,87	799,31	656,71	502,16	396,92	363,87	-21,0	-8,3
(-) G.S. langabetuaren kargura	*42,51*	*44,02*	*46,97*	*37,78*	*31,90*	*29,48*	*-15,6*	*-7,6*
(-) PFEZaren atxikipenak	*6,15*	*6,16*	*4,36*	*2,83*	*2,10*	*1,83*	*-25,8*	*-12,9*
Kotizaziopeko prestazio garbiak	741,21	749,13	605,38	461,55	362,92	332,56	-21,4	-8,4
Langabezia subsidioaren ziozko prestazioak	168,60	171,71	160,64	140,89	121,99	103,85	-13,4	-14,9
EEZPk G.S.ri eginiko kotizazioak	342,83	338,04	280,04	219,34	184,08	170,33	-16,1	-7,5
-Kotizaziopekoak, EEZPren konturakoak	*305,61*	*305,79*	*250,09*	*191,74*	*159,29*	*147,51*	*-16,9*	*-7,4*
-EEZPren konturako laguntzakoak	*37,22*	*32,25*	*29,95*	*27,60*	*24,69*	*22,82*	*-10,5*	*-7,6*
LANGABEZIA GASTU GUZTIAK	**1.252,64**	**1.258,88**	**1.046,06**	**821,78**	**699,17**	**606,74**	**-14,9**	**-13,2**
ESTATUKO GASTU GUZTIAREN %	4,11	4,36	4,39	3,98	3,73	3,47	-	-
EEZP-RAKO KUOTAK	1.088,31	1.056,10	1.071,30	1.099,96	1.139,62	:	3,6	:
SALDOA	-164,33	-202,45	25,24	278,18	440,45	:		
SARRERA / GASTUA	0,87	0,84	1,02	1,34	1,63	:		

Iturria: EEZPren eta GZDNren datuekin eginikoa. Lan eta Gizarte Segurantzako Ministerioa.
****2017ko kopuruak behin-behinekoak dira.***

Gastu horretatik eta jasotzaileen zifretatik, urteko 12111€-ko batez besteko gastua zenbatetsi da, hots, 2016koa baino %0,4 gutxiago.

Bestalde, enpresek eta soldatapekoek EEZPrako ordaindutako kotizazio sozialen ziozko sarrerak, Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiak bilduak EAEn, 1.139,62 milioi eurokoak ziren 2016an (eskuragarri dugun azken datua), hots, aurreko urtean baino %3,6 gehiago. Hala, EAEn langabeziaren kontingentzia estaltzeko gastuen eta sarreren arteko aldeak, 2016an, saldo positiboa izan zuen, 440,45 milioi eurokoa. Aurreko urtean, berriz, 278,18 milioi eurokoa izan zen.

III.5.4. GRAFIKOA. PRESTAZIOAREN ZIOZKO PRESTAZIOEN GASTUA ETA SARRERA EAE-N.



Iturria: EEZPren eta EUSTATen datuekin eginikoa

III.5.5 GRAFIKOA: EAE-KO LANGABEZIAREN ZIOZKO PRESTAZIOAK. HARTZAILE KOPURUAREN ETA GASTUAREN BILAKAERA



Iturria: EEZPren datuekin eginikoa

5.3. EZINDUEN ETA BAZTERKETA ARRISKUAN DAUDEN PERTSONEN ENPLEGURAKO ETA GIZARTE-LANEKO INKLUSIORAKO POLITIKAK

Ondoren, pertsona jakin batzuentzako enplegu politiken kopuruak aurkeztuko dira, hain zuzen ere, haien inguruabar sozialak eta ekonomikoak direla-eta (gizartean baztertuak edo izateko arriskuan) edo ezintasun motaren bat izateagatik lan-merkatuan ohiko baldintzetan sartzeko zailtasun bereziak dituztenentzat. Ordaindutako lana eta pertsona bakoitzari egokituriko zerbitzuen beharrezko prestazioak bermatzea da helburu nagusia, eta aldi berean, lan erregimen arruntean sartzeko baliabidea izan nahi dute. Hori guztia hain zuzen ere lana pertsonak gizarteratzeko bide nagusia dela onartuta.

5.3.1. Ezinduen enplegu arrunta

Ezinduentzako enplegu babesturako laguntzez gain, betiere Enplegurako Zentro Berezien bidez, LANBIDEk ezinduen enplegua sustatzen du merkatu arruntean, bi laguntza programa mota baliatuz:

Lehenik eta behin, lan-prestatzaile adituek eskainitako banako laguntza ematean dautza laguntzako enplegu programak, eta horiei esker, zailtasun bereziak dituzten langile ezinduek beren jarduera egin dezakete lan-merkatu arruntean. Hala, beharrezko baliabideak ematen zaizkie langileei laneratze-prozesua errazteko, baita laneratutako ezinduek lanean aurrera egiteko eta jarraitzeko ere.

2016an, LANBIDEk 797.923 euro (+%5,5 2015aren aldean) erabili zituen 49 ezinduei laguntzeko enpresa arruntetan (53 ezindu 2015ean), eta horietatik 31 gizonak ziren eta 18 emakumeak. Gainera, dagoeneko laneratuta dauden 116 langileren jarraipena egin du. Hala, azken hiru urtean (2013-2016), 2,9 milioi euro erabili dira programa horretarako; 206 ezinduren laneratzea erraztu da eta 506 ezinduren jarraipena egin da.

III.5.12. TAULA. EZINDUEI LAGUNTZEKO ENPLEGU PROGRAMA EAEN: KOPURU NAGUSIAK 2013-2016.

	2013	2014	2015	2016
ZENBATEKOA (MILA €)	665,1	673,7	755,9	797,9
LANGILE LAGUNDUAK	44	60	53	49
JARRAIPENAK	120	143	127	116

Iturria: EUSKO JAURLARITZA. Lan eta Gizarte Politiketako Saila, LANBIDEren datuekin.

Bigarrenik, ezinduen enplegu mugagabea sustatzeko programan, 114 ezinduren kontrataziorako diru-laguntza eman zuen 2016an, horietatik 86 (%61) lanaldi osokoak eta 55 lanaldi partzialekoak (%39). Hala, 447.114 euro erabili ziren (+%1,7 2015aren aldean), eta horietatik %58,3 79 kontratazioetarako diru-laguntzak emateko erabili ziren Bizkaian, %26,5 Gipuzkoako kontratazioetan eta %15,2 Arabako kontratazioetan (kontrataturiko 21 ezindu).

Azkenik, aurrekontuko likidazioaren zifrak izan artean, Lanbideren 2017. urterako aurrekontuetan 925.000 eta 700.000 euro bildu ziren, hurrenez hurren, enplegurako jarduketetako laguntza programetan, baina laguntza emanez, ezinduak lan-merkatu arruntean sartzeko, eta langile ezinduei enpresetan kontratu mugagabe egiteko laguntzak emanez.

III.5.13. TAULA. EZINDUEN LAN MUGAGABEA SUSTATZEKO PROGRAMA EAE-N: KOPURU NAGUSIAK 2013-2016.

	2013	2014	2015	2016
ZENBATEKOA (MILA €)	356,3	445,1	439,5	447,1
LANGILE KOKNTRATATUAK	108	141	125	141
- L. OSOA	71	91	91	86
- L. PARTZIALA	37	50	34	55

Iturria: Lan eta Gizarte Politiketako Saila, LANBIDEren datuekin.

5.3.2. Enplegu Zentro Bereziak

Ezinduen eskubideei eta horien gizarteratzeari buruzko Lege Orokorraren Testu Bategina onetsi duen azaroaren 29ko 1/2013 EDaren 37.1. artikuluarekin bat etorriz, hauxe da ezinduen enplegu politikaren xedea: "*haien jarduera-tasak eta okupazio-tasak eta laneratzea handitzea, baita enpleguaren kalitatea hobetu eta haien lan-baldintzak hobetzea ere, betiere diskriminazioaren kontra aktiboki jardunda…*"

III.5.6 GRAFIKOA: EZB-ETAN LAN EGITEN DUTEN EZINDUEN BILAKAERA



Iturria: EUSKO JAURLARITZA. Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila

Arau horren arabera, honi deritzo ezintasuna: "*ustez iraunkorrak diren gabeziak dituzten pertsonek gizartean osorik eta modu eraginkorretan eta gainerakoekiko berdintasunean parte hartzea mugatzen edo galarazten dituzten era guztietako barreren arteko interakzioa*". Euskadin, Administrazioaren konpromisoari eta jarduketa koordinatuari esker, gizarte solaskideek eta ezintasunaren elkartegintzak eta enpresek lan handia egin izan dute azken urteetan araugintzan, programetan eta aurrekontuetan, ezinduak laneratzeko hain zuzen ere. Eta enplegu babestua, enplegu zentro berezien bidez (EZB), oinarrizkoa bihurtu da, zeren eta langile ezinduei ekoizpen-lan ordaindua emateko helburu nagusia duten enpresak baitira. Izan ere, lan hori lagungarria izango da lan-merkatu arrunterako trantsizioa eta integrazioa errazteko).

2016ko abenduan, EAEn 8.959 ezindu (horietatik %64,4 gizonak ziren eta %35,6 emakumeak) ari ziren lanean 76 EZBren plantilletan sartuta. Sexuaren araberako banaketa berdina bada ere, talde horretan 330 lagun gehiago zeuden (+%3,8) 2015eko abenduan baino. Lurraldez lurralde, Gipuzkoa da EZBen lanean ari diren ezinduen kopururik handiena duena (guztizkoaren %46,7), eta ondoren Bizkaia (%40,7) eta Araba (%12,6). Eta ezintasun motaren arabera, talde horren %46,8k ezintasun psikikoa du, %43,8 fisikoa eta gainerako %9,4ak zentzumen-ezintasuna dute. Horrez gain, araudian ezarrita dagoenez, gutxienez enpresako plantillaren %70 ezinduekin osatuta egon behar dute EZBek. EAEn ratio hori %86,8 da, zeren eta beren EZBetan lanean ari diren langile ezinduen guztizko kopurua, 2015ean (azken datu baliagarria), 1.308 lagunekoa baitzen.

III.5.7 GRAFIKOA: EAE-KO EZB-AK MANTENTZEKO LAGUNTZEN BILAKAERA. MILA EUROTAN



Iturria: EUSKO JAURLARITZA. Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila.

EAEko EZBei eusteko laguntzei dagokienez, Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak, orotara, 35,99 milioi euro erabili zituen horretarako 2016an (+%36,6 2015aren aldean), eta horietatik %38,1 Bizkaiko 40 EZBri esleitu zitzaien, %46,9 Gipuzkoako 40 EZBri eta funtsen gainerako %17a Araban diharduten 17 zentroentzat.

Halaber, laneratzeko zailtasun handiak dituzten ezinduentzat (buruko paralisia, buruko gaitza, ezintasun intelektuala eta %65eko edo hortik gorako gabezia fisiko aitortua duten pertsonak) diru-laguntzak ematen ditu LANBIDEk EZBetako lanbide-jarduera laguntzeko. Lanbide arlo askotako taldeak dira, pertsona horien barrerak, oztopoak edo zailtasunak gainditzen laguntzeko, betiere gaitasun pertsonalak eta profesionalak eskuratzeko eta etengabe hobetzeko laguntza sistema osoa baliatuz.

III.5.14. TAULA. LANBIDE JARDUERARI LAGUNTZEKO UNITATEAK EAE-N: KOPURU NAGUSIAK 2013-2016.

	2013	2014	2015	2016
ZENBATEKOA (MILA €)	3.794	3.918	4.000	3.990
LAGUNDUTAKO LANGILEAK	3.680	3.807	3.952	4.121
EZB	35	34	35	37
LAGUNTZA-UNITATEAK (ESPEZALISTAK)	429	444	462	481

Iturria. EUSKO JAURLARITZA. Lan eta Gizarte Politiketako Saila, LANBIDEren datuekin.

LANBIDEK, 2016an, 3,99 milioi euro erabili zituen (-%0,3 2015aren aldean) 4.121 langile ezinduri laguntzeko (+%4,3) EAEko 37 EZBetan, laguntza-unitateetako 481 adituren lanari esker.

5.3.3. Laneratze-enpresak

Gizarteratze-enpresak honela defini daitezke: gizarte bazterkeriako egoera paira dezaketen edo pairatzen ari diren pertsonen gizarteratzea eta laneratzea erraztea helburu duten enpresak dira, pertsona horiek lan-merkatura sartzeko zailtasun handiak dituztelako. Azken urteetan, Espainiar Estatuan laneratze enpresei dagokienez, asko sortu dira. Alde batetik, enpresa eratu deneko jarduera ekonomikoa gauzatzea; eta bestetik, gizarte bazterkeriako arriskuan dauden taldeetako pertsonak gizarteratzea eta laneratzea.

Euskadin, Sarrerak Bermatzeari eta Gizarteratzeari buruzko abenduaren 23ko 18/2008 Legean xedatuta dagoenez, lanerako eskubidea ezinbesteko baldintza da herritartasun osoa eskuratu ahal izateko, eta lan-merkatuan hondar-partaidetza ez izateak, ezinbestean, bazterketa prozesua dakar, eta beste eskubide sozial batzuk erabiltzeko zuzeneko ondorioak ditu. Lana gizarteratzeko baliabidea dela onartuta, eta bizitzako oinarrizko beharrei aurre egiteko diru-baliabideak izateko aitortzen diren prestazioekin batera, hauxe ezarri da Legean: herri administrazioek neurriak bideratu behar dituztela beren ezaugarriak direla-eta lan-merkatuan berdintasunean sartzeko zailtasunak izan ditzaketen edo dituzten pertsonak edo taldeak laneratzen laguntzako eta errazteko. Neurri horien artean, laneratze enpresak sortzeko eta eusteko laguntza bildu da[21]. Izan ere, 2002tik eman izan da laguntza hori urte hartan abenduaren 11ko Agindua onetsita, laguntza horiek araupetzen dituena.

III.5.15. TAULA. EAE-KO LANERATZE-ENPRESENTZAKO LAGUNTZEN PROGRAMAREN BILAKAERA. 2008-2016.

	ENTITATEAK	EMANDAKO DIRULAG. (mila euro)	LANERATZE-POST GUZT.
2008	45	7.130	450
2009	39	7.235	447
2010	42	9.380	525
2011	46	9.610	675
2012	39	7.452	s.d.
2013	40	8.024	s.d.
2014	40	7.340	s.d.
2015	39	7.623	s.d.
2016	41	8.177	546

Iturria: EUSKO JAURLARITZAREN datuekin eginikoa. Lan eta Gizarte Politiketako Saila.

Laguntza horien xedea laguntzarako zenbait formula ematea da enpresa mota horiei, beren berezitasunetara eta beharretara egokituta. Hartara, haientzat beren beregi sortutako diru-laguntzak arautzeko oinarriak ezarri dira. Haren esparruan, laneratze enpresak sortzeko erakunde sustatzaileentzako diru-laguntzak eta laneratze enpresei eurei zuzendutako diru-laguntzak aurreikusten dira. Hala, Justizia, Enplegu eta Gizarte Segurantzako sailburuaren 2009ko maiatzaren 4ko AGINDUAREN bidez, laneratze enpresak sortzeko eta horiei eusteko laguntzak arautu dira, gaur egun Lanbideren menpe daudenak, eta 2016rako 8.200.000 euro dituzte eskuragarri. Tresna horien bidez, Eusko Jaurlaritzak gizarteratze eta laneratze modalitate berezi hori hedatzea sustatu nahi du; haren bidez, pertsona bat, besteren konturako langile, bazkide langile edo laneko bazkide, laneratze enpresa batean sartzea kontratu baten bidez bideratzen da, laneko kontratua lehen kasuan eta sozietatekoa bigarrenean, eta lehenago txertaketarako hitzarmen bat sinatzetik ondorioztatzen da.

2003. urtetik 2016ra, laguntza-mota horien bidez, Eusko Jaurlaritzak 98 milioi euro baino gehiago banatu zituen, batez beste, 37 laguntza urtean, 3.000 onuradun baino gehiago izan zirela. 2016an (informazioa dugun azken urtea) 41 laneratze enpresentzako laguntzak eman ziren, eta horien zenbatekoa, guztira, 8,177 milioi (aurreko urtean baino %7,3 gehiago).

Laguntza horiek eman ziren 191 laneratze-lanpostu bultzatzeko, eta 2016ko amaieran dakigunez, guztira, 546 laneratze-lanpostu dira (aurreko deialdi berriagoak eta berrituagoak).

Eusko Jaurlaritzaren Laneratze Enpresen Erregistroak erakusten duenez, 2017ko amaieran EAEk 46 laneratze enpresa zituen martxan, eta horietatik 44k GIZATEA elkartean hartzen dute parte (EAEko Laneratze Enpresen Elkartea), eta horien 2016ko Memoria Sozialetik datu hauek atera daitezke: aurten, 1.123 langile dituzte (2015ean baino 11 gehiago) eta horietatik 655 (aurreko urtean baino 29 gehiago) laneratze langileak dira. Enplegu hori lanaldi osoko 687 lanposturi dagokie, horietatik 423 laneratzekoak (aurrekoan baino 36 gehiago).

Aurten, gutxi gorabehera 29,7 milioi (+1,7 milioi) euroko sarrerak dituzte, eta horietatik 20,8 jardueraren ziozko fakturazioari dagokio eta gainerako 8,9a laguntza publikoei.

Laneratze-prozesuaren emaitzari dagokionez, GIZATEA Memoriak erakusten duenez laneratze-prozesuan zeuden 665 lagunetatik 481ek (%72) prozesu horretan jarraitzen zuten urtearen bukaeran, 22 lagunek (%3) prozesua utzita zuten bukatu baino lehen, 40k (%6) laneratze kontratua bukatu zuten eta 122k (%18) laneratze prozesua bukatu zuten. Eta 122

[21] *18/2008 Legean laneratze-enpresen inguruan ezarritako arauei dagokienez, ikusi azaroaren 11ko 182/2008 Dekretua, laneratze-npresen kalifikazioa arautu duena, eta Justizia, Enplegu eta Gizarte Segurantzako sailburuaren 2009ko maiatzaren 4ko Agindua, 2002ko abenduaren 11ko Agindua aldatu duena.*

lagun horietatik %61 lan-merkatuan sartu ziren (53 lanpostu inoren konturakoak, 6 norberaren konturakoak eta 16 beste laneratze-enpresa batzuetan). Gainerako %39 (47 lagun) langabezian gelditu ziren.

III.5.8. GRAFIKOA: GIZATEA. LANERATZEAREN EMAITZAK. BANAKETA EHUNEKOETAN.



Iturria: GIZATEA. 2016ko Memoria Soziala. 2016.Geuk egina

6. LAN OSASUNA

OSALANek (Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundea) agerian utzi duenez, 2017an 37,13 istripu izan ziren (lan-egunetan baja eragin duten istripu berriak, hain zuzen ere 1.000 langileko istripu kopuruaren eta berariaz laneko istripuen kontingentzia estalia duten Gizarte Segurantzako afiliatuen kopuruaren arteko zatiduraren bidez kalkulatzen den kopurua) gure Erkidegoan milako (38,22 milako 2016an eta, beraz, berdin eusten zaio ratioari, +1,09 punturekin.

III.6.1. TAULA. LANEKO SEKTOREEN INTZIDENTZIA, JARDUERA-SEKTOREEN ETA LURRALDE HISTORIKOEN ARABERA. KONTINGENTZIA ESTALITA DUTEN MILA AFILIATU BAKOITZEKO DATUAK. 2016-2017.

	2016				
	LEHEN SEKT.	INDUSTRIA	ERAIKUNTZA	ZERBIT.	GUZT.
ARABA	51,44	58,61	88,80	30,13	40,22
BIZKAIA	96,05	68,22	82,36	27,34	37,74
GIPUZKOA	71,99	62,31	73,77	23,60	34,51
EAE	76,87	63,93	80,78	26,59	37,13
	2017				
	LEHEN SEKT.	INDUSTRIA	ERAIKUNTZA	ZERBIT.	GUZT.
ARABA	47,02	59,83	89,36	28,65	39,43
BIZKAIA	91,31	70,69	87,35	28,96	39,57
GIPUZKOA	79,03	62,44	82,59	24,34	35,48
EAE	75,58	65,29	86,27	27,44	38,22
	ALDAK. 2016-2017 P.P.				
	LEHEN SEKT.	INDUSTRIA	ERAIKUNTZA	ZERBIT.	GUZT.
ARABA	-4,42	1,22	0,56	-1,48	-0,79
BIZKAIA	-4,74	2,47	4,99	1,62	1,83
GIPUZKOA	7,04	0,13	8,82	0,74	0,97
EAE	**-1,29**	**1,36**	**5,49**	**0,85**	**1,09**

Iturria: OSALAN. EUSKO JAURLARITZA.

Sektore bakoitzari erreparatuta, eraikuntzan izan zen intzidentziarik handiena (86,27 milako), 5,49 puntu hazi baitzen 2016aren aldean. Ondoren lehen sektorea zegoen, 75,58 milako (-1,29 2016aren aldean) eta industria, 65,29 milako, 1,36 puntu hazita 2015aren aldean. Azkenik, zerbitzuen intzidentzia batez bestekoaren azpitik zegoen, 27,44 milako (+0,85 puntu).

III.6.2. TAULA. LANALDIA BAJA ERAGIN DUTEN ISTRIPUEN INTZIDENTZIAREN INDIZEA, AUTONOMIA ERKIDEGOEN ARABERA, MILAKO DATUAK.

	2014	2015	2016	2017*	Ald. p.p. 16/17	Ald. % 16/17
ESTATUA	31,11	32,52	33,64	33,34	-0,30	-0,9
ANDALUZIA	34,67	36,54	37,79	37,97	0,18	0,5
ARAGOI	27,40	30,01	31,51	32,02	0,51	1,6
ASTURIAS	36,69	37,29	35,55	33,81	-1,74	-4,9
U. BALEARRAK	43,57	45,71	48,84	49,67	0,83	1,7
U. KANARIARRAK	35,87	36,08	36,76	35,86	-0,90	-2,4
KANTABRIA	28,47	29,80	30,18	29,95	-0,23	-0,8
GAZTELA-MANTXA	36,96	38,96	41,49	40,93	-0,56	-1,3
GAZTELA ETA LEON	29,36	30,85	32,46	32,80	0,34	1,0
KATALUNIA	31,17	31,92	33,39	31,35	-2,04	-6,1
VALENTZIAKO E.	27,29	29,07	29,99	30,77	0,78	2,6
EXTREMADURA	33,94	35,77	35,83	37,22	1,39	3,9
GALIZIA	30,95	32,69	32,96	33,99	1,03	3,1
MADRIL	26,03	26,88	27,78	27,07	-0,71	-2,6
MURTZIA	31,11	34,13	34,75	35,35	0,60	1,7
NAFARROA	30,73	31,85	34,37	35,13	0,76	2,2
EAE	32,44	34,09	34,83	35,06	0,23	0,7
- ARABA	36,09	36,34	36,88	35,68	-1,20	-3,3
- GIPUZKOA	31,71	33,00	32,57	32,72	0,15	0,5
- BIZKAIA	31,67	34,01	35,56	36,34	0,78	2,2
ERRIOXA	30,50	34,04	35,53	36,46	0,93	2,6
CEUTA	35,17	39,88	34,50	32,37	-2,13	-6,2
MELILLA	29,22	28,09	33,92	31,74	-2,18	-6,4

Iturria: LAN ETA GIZARTE SEGURANTZAKO MINISTERIOA, Lan-istripuei buruzko estatistikak.
(*) Datuen aurrerapena.

Autonomia erkidegoei dagokienez, Enplegu eta Gizarte Segurantza Ministerioak kalkulatzen duen lanaldiko istripuen intzidentziaren indizeak erakusten duenez, U. Balearrak ziren rankingeko buruan istripuetan 2017an, eta ondoren Gaztela-Mantxa zegoen. EAEren indizea 35,06koa zen milako, eta %0,7 egin zuen gora bere indizeak. Hala, Estatuko batez bestekoaren gainetik zegoen kopuru absolutuetan; industriaren sektoreak duen pisu handiak eragin zezakeen intzidentzia hori. Portzentajetan, estatuko aldakuntza urte horretan EAEn baino handiagoa zen, %-0,9ekoa.

Bestalde, kontratu motaren araberako lan istripuen datuek erakusten dutenez, lan ezbeharren kopurua handiagoa zen aldi baterako kontratua zuten pertsonen artean kontratu mugagabea zutenen artean baino. Hala erakusten dute Enplegu eta Gizarte Segurantza Ministerioaren 2016ko datuek. Zehazki, kontratu mugagabea zutenen istripu kopurua 29,4koa izan zen mila soldatapeko bakoitzeko (EPAren lan serieak erabiliz); aldi baterako lan-kontratua dutenen artean, berriz, 47,4koa izan zen milako. Istripuen banaketa zein den jakin beharko litzateke sektoreen, adinaren eta okupazio

motaren arabera, behin betiko ondorioak atera ahal izateko. Baina ikuspegi dinamikoan, nabarmentzekoa da 2009an 26,4koa zela istripuen indizea 1.000 soldatako bakoitzeko, kontratu mugagabea eta aldi baterakoa zuten langileen artean. 2016an, berriz, 18ra murriztu zen.

GRÁFICO III.6.1. SINIESTRALIDAD LABORAL EN LA CAPV POR TIPO DE CONTRATO: ACCIDENTES POR 1.000 ASALARIADOS/AS



Fuente: Elaboración con datos de INE (EPA) y Ministerio de Empleo.

Datu absolutuei helduta, 2017an 33.564 lan istripu izan ziren EAEn, 2016an baino %6,2 gehiago (lan istripuagatik baja hartu behar izan duten langileen kopurua aintzat hartuta, lanaldian eta "in itinere" izandako istripuak barne). Estatu mailan, berriz, %5eko igoera izan zen, Enplegu eta Gizarte Segurantza Ministerioaren arabera (+%5 aurreko urtean). Hori banakatuta, 29.629 istripu izan ziren (+%5,5) eta "in itinere" 3.935 (%12). Bilakaera hori ikusita, berretsi egiten da 2014an hasitako aldaketa (+%0,5), gure Erkidegoan 2009az gero gertatzen ari zen jaitsieraren ondotik. Hala, bajarik eragin ez zuten 48.634 istripu izan ziren 2016an (-%5,9 2016aren aldean) eta guztira 1.692 berrerortze, aurretik baja eragin zuten istripuekiko (-%2,7).

III.6.3. TAULA. LAN OSASUNA EAE-N: EZBEHAR BERRIEN ETA GAIXOTASUN PROFESIONALE ERAGINPEKO LANGILEAK, BAJAREKIN

	ISTRIPUAK LANALDIAN								IN ITINERE	GUZT. ISTRIPUAK	GAIX. PROF.
	GUZT.	LARRITASUNAREN ARABERA			SEKTOREEN ARABERA						
		ARINAK	LARRIAK	HERIOTZA	NEKAZARITZA	INDUS-TRIA	ERAIKUNTZA	ZERBITZUAK			
2013	24.611	24.445	138	28	574	8.611	2.562	12.864	3.349	27.960	777
2014	24.816	24.651	137	28	639	8.792	2.527	12.858	3.279	28.095	895
2015	26.641	26.460	153	28	629	9.094	2.555	14.333	3.580	30.221	999
2016	28.090	27.918	138	34	673	9.861	2.640	14.916	3.512	31.602	1.148
2017	29.629	29.443	161	25	664	10.281	2.898	15.786	3.935	33.564	1.445
15/16 ald. %	5,4	5,5	-9,8	21,4	7,0	8,4	3,3	4,1	-1,9	4,6	14,6
16/17 ald. %	5,5	5,5	16,7	-26,5	-1,3	4,3	9,8	5,8	12,0	6,2	25,9

Iturria: OSALAN.

Lanaldian istripua izan dutenak ardatz hartuta ikusten denez (29.629, 2016an baino %5,5 gehiago), %74,2 gizonak ziren eta %25,8 emakumeak, 2016ko antzeko banaketa alegia. Horrez gain, azken urtean gora egin zuten istripu arinek, %5,5, eta bereziki heriotzak izan direnekoetan (+%16,7). Heriotza eragin duten istripuen kopurua, berriz, %26,5 jaitsi da. Istripu arinen kopuruak, bestalde, %9,8 egin zuen behera. Gainera, sektoreen gaineko azterketak erakusten duenez, gora egin zuen istripuen kopuruak, bereziki garrantzitsua eraikuntzaren sektorean (%9,8) eta, neurri txikiagoan, zerbitzuetan (+%5,8) eta industriaren sektorean (+%4,3). Nekazaritzan, berriz, behera egin du istripuen kopurua, %1,3 hain zuzen.

Azkenik, 2017an, orotara, 3.101 gaixotasun profesional aitortu ziren, 2016an baino %13 gehiago. Honelaxe banantzen dira: bajarekin 1.445 (%25,9 2016aren aldean) eta bajarik gabe 1.656 (+%3,7). Horietatik, %35 emakumeei dagozkie eta %65 gizonei (1.810). Eritasun profesional moten arabera, %92 agente fisikoek eragindakoak dira, eta ondoren larruazalaren gaitzek, %3,2arekin, inhalazioak eragindakoak (%2,6) eta agente kimikoek eragindakoak (%2,2). Azken urteetan izandako bilakaeraren azterlana baldintzatu du jakinarazpenetarako sisteman izandako aldaketak sartzeak eta, beraz, kontuz hartu behar dira kopuruak.

KAPITULUKO ITURRIAK:

1. **EUSTAT. BJA.** 2017ko laugarren hiruhilekoa. Hiruhilekoa. Koiunturala (2018ko apirilaren 20an berrikusiak).
2. **EUSTAT. HEK.** 2017ko laugarren hiruhilekoa. Hiruhilekoa. Koiunturala.
3. **GIZARTE SEGURANTZA**. Afiliazioa altan. 2016ko abendua. Hilerokoa. Koiunturala.
4. **LANBIDE/SEPE.** Erregistraturiko langabezia. 2016ko abendua. Hilerokoa. Koiunturala.
5. **EIN. EPA.** 2017ko laugarren hiruhilekoa. Hiruhilekoa. Koiunturala.
6. **EUROSTAT**. Langabezia estatistikak. 2017ko hirugarren hiruhilekoa. Hiruhilekoa. Koiunturala.
7. **EEZP.** Kontratuak. 2016ko abendua. Hilekoa. Koiunturala.
8. **EUSKO JAURLARITZA. ENPLEGU ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA.** EEE datuak. 2017ko abendua. Hilerokoa. Koiunturala.
9. **LAN ETA GIZARTE SEGURANTZA MINISTERIOA**. Lan-estatistiken Buletina. Abendua. Hilerokoa. Koiunturala.
10. **LAN ETA GIZARTE SEGURANTZA MINISTERIOA**. Enplegua erregulazioko estatistikak. 2017ko datuak. Urterokoa. Koiunturala.
11. **LAN HARREMANEN KONTSEILUA**. Euskadiko gizarte-lan egoera. 2017ko aurrerapena. Urterokoa. Koiunturala.
12. **EIN.** Soldaten egiturari buruzko inkesta. 2015. Urterokoa. Estrukturala.
13. **EIN:** Lan-kostuei buruzko Urteko Inkesta. 2016. Urterokoa. Estrukturala
14. **EIN**: Lan-kosturi buruzko Hiruhilekoetako Inkesta 2017. Hiruhilekoa. Koiunturala.
15. **EIN**: Laneko Prezioen Indizea 2015. Urterokoa. Estrukturala.
16. **EUSKO JAURLARITZA. LAN ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA (2017).** Enplegurako Euskal Estrategia 2014-2016. Azken ebaluazioa. Unekoa.
17. **EUSKO JAURLARITZA. LAN ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA (2017).** Enplegu Plana 2017-2020.
18. **EUSKO JAURLARITZA. LAN ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA (2016).** Enplegurako Euskal Estrategia 2020.
19. **EUSKO JAURLARITZA. OGASUN ETA EKONOMIA SAILA.** LANBIDEren aurrekontu-likidazioa 2016. Urterokoa. Koiunturala.
20. **OGASUN MINISTERIOA.** Autonomia Erkidegoko aurrekontu-likidazioak. 2015. urtea. Urterokoa. Koiunturala.
21. **HOBETUZ.** Etengabeko prestakuntzako datuak. 2016ko behin betikoak eta 2017ko aurrerapena. Urterokoa. Koiunturala.
22. **ENPLEGURAKO PRESTAKUNTZAKO HIRU ALDEKO FUNDAZIOA**. EAEko emaitzei buruzko txostena, 2017. Urterokoa. Koiunturala.
23. **EUSKO JAURLARITZA. ENPLEGU ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA**. "*Gizarte bazterketaren kontrako borroka 2016*" txostena. Urterokoa. Koiunturala.
24. **EEZP.** Langabezia prestazioen jasotzaileen datuak, mota eta sexuaren arabera. 2017ko neurriak. Urterokoa. Koiunturala.
25. **ENPLEGU ETA GIZARTE SEGURANTZA MINISTERIOA. PRENTSA SAILA**. Erregistraturiko langabeziari buruzko hileko txostena. 2017ko abendua. Urterokoa. Koiunturala.
26. **OSALAN**. Lan istripuei buruzko estatistikak. 2017ko abendua. Hilerokoa. Koiunturala.
27. **LAN ETA GIZARTE SEGURANTZA MINISTERIOA.** Lan istripuei buruzko estatistikak. 2017ko datuen aurrerapena. Urterokoa. Koiunturala

7. LAN-MERKATUA EAE-N: LABURPENA ETA GOGOETAK

7.1. LABURPENA

Lehenik eta behin, EUSTATen BJAk 2017ko laugarren hiruhilekoei buruz emandako datuen arabera, EAEko biztanleria aktiboa, orotara, 1.033.100 lagunekoa zen 2017aren bukaeran, eta horietatik %52 gizonezkoak ziren eta %47,8 emakumezkoa. Horrez gain, 2017an dirudienez eten egin da azken urteetan biztanleria aktiboan izandako jaitsiera, zeren eta %0ko hazkundea zenbatetsi baitu, 200 lagun landun gehiago kopuru absolutuetan. EAEko jarduera-tasa orokorra %56,2 zen 2017. urtea bukatzean (2016an baino 2 hamarren gutxiago), eta emakumeak %51,8 ziren (2016ko datu bera). Gizonezkoen biztanleria, berriz, %60,9raino jaitsi zen (2016. urtean bukatzen baino 4 hamarren gutxiago).

Halaber, 2016ko abendutik 2017ko abendura bitartean okupazioaren gehikuntza %1,7 izan zen EAEn (+15.000 lanpostu gehiago, horietatik %61,3 emakumezkoenak. Izan ere, emakumezkoen enplegua batez bestekoaren gainetik hazi da, %2,2 hain zuzen (gizonena %1,3koa da). Hazkunde horren oinarria, funtsean, industriako sektorea da, 12.900 lanpostu gehiago eskuratuta (+%6,9). Zerbitzuetan %5,8ko igoera izan zen 2016an, baina 2017an 1.000 lanpostu gehiago baino ez ditu irabazi (+%0,2), emakumeen 6.100 lanpostu gehiagoren eta gizonezkoen 5.300 lanpostuen galeraren arteko saldoaren arabera[22]. Eraikuntzak, berriz, 900 lanpostu gehiago eskuratu ditu (+%1,9), gutxi gorabehera %50ean banatuta gizonen eta emakumeen artean.

Hona hemen EAEko lan-merkatuan 2017an aintzat hartu beharreko bestelako alderdiak. Lehenik eta behin, lanaldi partzialeko landunen portzentajearen beherakada, 9 hamarren gutxiago, %16,8raino jaitsita. Bigarrenik, behin-behinekotasunaren gorakada, %2,7 hazita: soldatapekoen %23,4tik %26,1era. Sektore pribatuko eta publikoko behin-behinekotasuna erkatuz gero, sektore publikoan askoz handiagoa dela esan behar da, eta alde horri eusten zaio zenbait gorabeherarekin hamar urtetik gorako epealdian. 2017an, sektore publikoko behin-behinekotasun tasa %34,6 izan zen laugarren hiruhilekoan. Sektore pribatuarena, berriz, %24,2 zen. Hortaz, 10,4 puntuko aldea dago.

Bestalde, Gizarte Segurantzako kotizatzaileen batez besteko kopurua, 2017ko abenduan (ikus kapitulu honetako 1 orri-oina), 943.987 zen, eta horietatik %47,2 emakumeak ziren eta %52,8 gizonak. Hala, %2 egin du gora aurreko urteko hilearen aldean (+%3,4 batez beste Estatuan), eta guztira 18.696 afiliatu gehiago daude alta emanda, hain zuzen ere 2016an izandako igoerari gehituta (%1,9koa izan zen).

Jarduera-sektore handien arabera, oinarrizko sektorea %0,2 besterik ez da hazi eta, beraz, alta emanda dauden afiliatu guztiekiko duen pisu konstanteari eusten dio (%0,9). Industriak, bestalde, 2016ko neurri berean hazi da, %1,9, eta afiliazio guztiekiko %19,3koa izateari eusten dio. Eraikuntzaren bilakaera batezbestekoa baino hobea izan da, %2,2 hazi baita, eta afiliazioaren %5,7 da. Azkenik, zerbitzuen sektorea batez bestekoaren neurri berean hazi da, %2, eta 2016an bezala, alta emanda dauden afiliatuen pisuari eusten dio (%74,1).

Ekoizpen-adarrik[23] gehienen bilakaera positiboa izan da, lehen sektorean izan ezik (-%1, nekazaritzako sistema berezia alde batera utzita -horretan, berriz, %4,1eko hazkundea izan da-); erauzketa-industrietan %2,9ko jaitsiera izan da, finantza- eta aseguru-jardueretan -%3,6, etxeko lanean -%2,8 eta beste zerbitzu batzuetan -%0,5. Halaber, etxeko enplegatuen araubide bereziaren afiliazioak %0,7 egin du behera. Manufaktura-industria afiliazioan pisurik handiena duen adarra da (guztizkoaren %19,1), eta batez bestekoaren gainetik hazi zen pixka bat 2016an (+%2, eta batez bestekoa %1,9). 2017an, berriz, neurri txikiagoan hazi da, %1,8, eta azken urtean 3.000 afiliatu gehiago bildu ditu. Zerbitzuen sektorearen afiliazioa, arestian esana dugunez, batez bestekoaren gainetik hazi da, %2,2 hain zuzen, hau da, 14.277 afiliatu berri. Horrez gainera, adar guztietan izan dira igoerak, finantza- eta aseguru-jardueretan aipaturiko salbuespena izan ezik. Afiliaziorik handiena biltzen duen zerbitzuen adarreko merkataritzan (guztizkoaren %15,3), urte arteko %0,2ko hazkundea izan zen (324 afiliatu gehiago). Pisu nabarmena duten beste jarduera batzuetan, hala nola osasunean,

[22] *Sexuaren araberako aldakuntzen batura ez dator bat guztizko saldoarekin, kopuruak "milakoetan" ematen direlako eta BJAk datuk biribiltzen dituelako.*

[23] *Hiruhilekoetako Ekonomi Kontuek (HEK) ekoizpenaren eta enpleguaren bilakaerari buruzko informazio osagarria ematen dute ekoizpen-adarren arabera. Ikus Memoria honetako EAEko ekonomiari buruzko II. kapitulua.*

hezkuntzan eta ostalaritzan, batez bestekotik gorako urte arteko tasak bildu ziren (afiliazioan %7,6, %2,9 eta %2,7ko hazkundeekin hurrenez hurren).

Kontratazioak ere gora egin zuen 2017an (+3,4), eta 2014an hasitako bilakaera positiboari eutsi zion. Hona hemen 2017an gehien kontratu ziren jarduerak: ostalaritza (kontratuen %15,7, 2016an baino %1,9 gehiago), manufaktura-industria (kontratuen %15, %1 hazita), administrazio-jarduerak eta zerbitzu osagarriak, horien artean ALE (hasierako kontratu guztien %12,2, 2016an baino %0,3 txikiagoa), osasun jarduerak eta gizarte zerbitzuetakoak (kontratuen %12 eta +%2,1 2016aren aldean) eta merkataritza (kontratu guztien %11,4 eta +%4,6 aurreko urtearekin alderatuta). Hortaz, ikusten dugunez, kontratazioaren guztizko kopuruak baino bilakaera negatiboagoa dute kontratazioen pisurik handiena duten jarduerek. Aldea ikusten da sexuen arabera; izan ere, gizonek izenpeturiko lau kontratuetako bat hartzen du manufaktura-industriak (guztizkoaren %23,6, 2016an baino 9 hamarren gutxiago).

Emakumeen artean, berriz, osasun jarduerak eta ostalaritza dira jarduerarik handieneko atalak (bien artean kontratu berrien %38,5 hartzen dute). Estatuan, berriz, 21,5 milioi kontratu erregistratu ziren 2017an, 2016an baino %7,6 gehiago (+%7,5 aurreko urtean).

Adin-taldeen arabera, 2017an gizonek nahiz emakumeek sinaturiko kontratu berri gehienak 25-45 urte bitarteko adin-tarteari dagozkio (kontratuen %57,1), 25-35eko eta 35-45eko adinetan banaturik, %16,1 eta %41 hurrenez hurren. 25 urtetik beherakoetan, kontratuen %16,8 sinatu dira, biztanleria aktiboan duen pisua baino handiagoa, %3,8koa baita. 2016ko bilakaerari dagokionez, adin-talde guztietan igo da kontratuen kopurua, 25-39 urte bitarteko adin-tartearen salbuespenarekin (-%1,4) eta, zehazki, gizonen artean nahiz emakumeen artean (-%0,6 eta -%2,2 hurrenez hurren). Ratiorik handienak, batez bestekoaren gainetik, gazteenen artean ageri dira (+%17,5 20 urtetik beherakoak), kontratazio guztiekiko pisu txikia bada ere (guztizkoaren %2,5), baita 45 urte eta gehiagokoen artean ere (+%7,3 eta kontratuen %26 dira).

Ikasketa mailaren araberako kontratazioaren banaketari dagokionez, hamar kontratuetatik ia sei (%39,8) bigarren mailako ikasketak dituzten pertsonek izenpetzen dituzte, gehienak hezkuntza orokorreko maila dutenak, gizonetan (kontratuen %43) nahiz emakumeen artean (%36,6).

Bigarrenik, kontratuen %33,4 bigarren hezkuntzako ikasketak dituzten pertsonei dagokie (bi herenek gutxi gorabehera hezkuntza orokorreko ikasketak eta beste herenak LHkoak). Ondoren, %22,1 DBH ondorengo ikasketak dituzten pertsonei dagokie, horietatik %13,6 unibertsitatekoak eta %8,5 goi-mailako lanbide ikasketa teknikoak dituztenak. Kontratazioaren igoerarik handienak doktorego eta unibertsitate masterreko mailei dagozkie (%24,1 2016aren aldean, baia kontratazioaren %1,7 besterik ez dira), eta oinarrizko ikasketen artean, osatu gabeko ikasketak dituzten langileentzat (kontratu guztien +%13,9 eta gizonen +%15,4). Kontratazioak gora egin du ikasketa maila guztietan, oinarrizko LHn izan ezik (-%4,3).

Lanaldi motari helduta, bilakaera positiboa izan zen lanaldi partzialeko kontratuetan, EAEn 385.771 guztira (+%3,8 2016aren aldean), kontratu guztien %40,3arekin, nahiz lanaldi osoko kontratuetan, guztira 569.806, %3,2 hazita (kontratuen %59,5). Gainerako %0,3 lanaldi eteneko 2.522 kontratuei dagokie. Sexuaren arabera, lanaldi partzialeko kontratazioaren pisua oso desberdina da, zeren eta emakumeek sinaturiko kontratuen erditik gorakoa baita (%53,7 2017an). Gizonekoek sinaturiko kontratuak, berriz, %26,9 dira.

Kontratuen iraupenari dagokionez, izenpeturiko kontratu gehienak aldi baterakoak dira (kontratu guztien %92,3), halako moldez non 2017an izenpeturiko guztietatik 73.328 mugagabeak izan baitziren, hots, %7,7 (2016an baino 6 hamarren gehiago), 2008tik izan den kopururik handiena. Kontratu mugagabe horien tasa %1,7 hazi zen 2011 eta 2017 bitartean (6,0tik 7,7ra), eta pixkanaka hobetuz doa 2011tik.

Horrez gain, kontrataturiko pertsonen zati handi batek hainbat aldiz egiten du urtean. Txandaketa (kontratu kopuruaren eta kontrataturiko pertsona kopuruaren arteko ratioa) 3,21 izan zen, 2016an baino 5 ehunen gutxiago. Lehen jaitsiera da 2011. urtetik. Aldi baterako kontratuen batez besteko iraupenari dagokionez, 50 egunekoa da (2015ean eta 2016an baino 2 gehiago). Estatuan berriz, 52 egun dira batez beste, hau da, 2 egun gehiago 2016aren aldean.

2017. urtean lan-merkatuak izandako bilakaeraren emaitza gisa, BJAren langabezia-tasa orokorra % 11,1ekoa izan da urtearen amaieran (aurreko urtean baino 1,5 puntu gutxiago); gauzak horrela, Europar Batasunaren batez bestekoa gainditzen da (EBn % 7,3koa izan da eta Eurogunean % 8,7koa, hirugarren hiruhilekoaren datuak).

Europar Batasunean, oso zabala da langabeziaren balio-sorta. Kopuru handietatik, adibidez, Grezian (%20,3) eta Espainian (%16,4), ratio txikietara, esaterako Alemanian, Maltan, Hungarian eta Erresuma Batuan. Belgikak, Finlandiak eta Lituaniak EBko batez bestekoaren inguruko langabezia-tasak dituzte. AEBetan %4,1eko langabezia-tasarekin bukatu zen urtean, eta Japonian, berriz, %2,8koa, zenbait adibide aipatzearren.

2017an, laugarren urtez jarraian egin zuen behera EAEn langabezian zeuden pertsonen kopuruak (lau hiruhileko), sei urtez (2008. Urtetik 2013. urtera) Euskadin langabezia etengabe hazi ondoren.

Zehazki, eginiko zenbatespenen arabera, 2017ko amaieran 114.800 langabetu zeuden, aurreko urtean baino %11,8 gutxiago (-15.300 lagun), eta horietatik %51 gizonezkoak ziren eta %49 emakumeak.

2016an ez bezala -langabeziaren jaitsiera gehienbat gizonena izan zen orduan-, 2017an bi sexuetan gertatu da antzeko intentsitatea, zeren eta gizon langabeen kopurua %11,7 jaitsi baita eta, emakumeena, berriz, %11,8. Bilakaera horren ondorioz, 2017. urtea bukatzean langabezia-tasetan 5 hamarreneko aldea dago sexuen artean. Izan ere, %10,9 da gizonentzat eta %11,4 emakumeentzat (%11,1 batez beste, ikusi dugunez), 2016ko amaieran baino hamarren bat gutxiago (orduan %12,3ko eta %12,9ko tasak ziren hurrenez hurren).

Adinen arabera, langabetuen kopuruak behera egin du horietan guztietan eta, bereziki gazteenetan (-%35,8 25 urtetik beherakoetan eta -%12 25 eta 44 urtekoen bitarteko taldean), baina 44 urtetik gorakoen artean ere bai (-%6,5), 2016an gertatu bezala. Horren ondorioz, adin-talde horretako langabezia-tasan 9 hamarreneko jaitsiera dago, %9,5eraino, %11,1ko batez bestekoaren azpitik oraindik. Gazteenen adin-taldean, berriz, txikitu egin da, baina batez bestekoaren gainetik betiere: %12,3 25 eta 44 urte bitartekoentzat eta %17,2 gazteenentzat, eta langabezian daude 16-24 urte bitarteko 96.100 gazte aktibo.

Bestalde, 2017ko bukaeran, BJAk zenbatetsitakoen oso antzeko zifrak bildu zituen LANBIDEk langabeziaren inguruan, estatistika-eragiketa horretan berriki sartu ziren metodologia aldaketaren ondoren. 2017ko abenduan LANBIDEn erregistratutako 127.547 langabetu zenbatu ziren (%6,3 jaitsi da aurreko urtekoarekiko, estatuaren batez besteko %-7,8koaren aldean); alabaina, biztanleria jardueraren araberako inkestak, EUSTATek egindakoak, 113.800 kalkulatu zituen urteko azken lauhilekoan. Krisia hasi zenetik bosgarren urtez jarraian gertatu da erregistraturiko langabeziaren urte arteko saldo negatiboa, eta gainera, 2015ean eta 2016an bezala, langabezia bi sexuetan murriztu dela ikusten da: bereziki gizonen artean (-%9), baina emakumeen artean ere bai (-%4,1).

Adinen arabera, antzeko zerbait gertatzen da, zeren eta 2016ko abendutik 2017ko abendura bitartean guztietan egin baitzuen behera langabeziak (salbuespen batekin, igoera txikia 59 urtetik gorakoen artean). Adin-talde handietan, langabeziaren jaitsiera handiagoa izan da 25 urtetik beherakoen artean (-%13,6), batez ere gizonetan (-%16,8, eta emakumeena -%10,1 da talde horretan). Ondoren, 25-44 urtekoen taldea dago (-%8,4, gizonak batez bestekoaren gainetik, baina emakumeak azpitik) eta 44 urtetik gorakoen taldea (-%3,4), bai gizonenak, bai emakumeenak batez besteko orokorraren azpitik.

Ikasketa mailaren arabera, behera egin zuen langabeziak 2016ko abenduaren aldean (aurreko urtean gertatu bezala) maila guztietan. Beherakadarik handienak, batez bestekoaren gainetik, lehen zikloko unibertsitateko ikasketak dituzten pertsonen artean ageri dira (-%7,6) eta hezkuntza orokorreko bigarren mailako ikasketak dituztenen artean (-%7,8). -%6,3ko batez bestekoaren inguruan jaitsi da langabezia oinarrizko ikasketa osotuetan eta goi-mailako LHn (bietan -%6,3), baita oinarrizko LHn ere (-%6,1). Horrenbestez, langabetuen taldeko zatirik handiena hezkuntza orokorreko titulazioa duten pertsonen artean dago (erregistraturiko pertsona guztien %48,5), aurreko urtean baino 8 hamarren gutxiago), eta oinarrizko ikasketak dituztenak gehituz gero (%21,9), langabeen %70,4 dira. Pisu hori apenas aldatu da azken urtean.

Langabezian emandako denbora kontuan hartuz gero, 2017an behera egin zuen langabetuen kopuruak kategoria guztietan, bereziki langabezian urtebete baino gehiago daramatenen taldean, gizonezkoetan nahiz emakumezkoetan. Erregistraturiko guztizko langabezian %6,3ko jaitsiera izan da, eta langabezian 6 hilabete baino gutxiago daramaten pertsonen kopuruan, berriz, ia antzeko proportzioa da, %6,4. %4,3 murriztu da langabezian 6 hilabete eta urtebete arteko denbora daramatenen taldea. Urtebetetik gora daramatenen artean (iraupen luzeko langabezia deritzona), berriz, %6,8 jaitsi da, neurri txikiagoan emakumeen artean (-%4,1), baina nabarmen handiagoa gizonen artean (-%10). Hala, iraupen luzeko langabezia-tasak (egoera horretan urtebetetik gora daramaten pertsonen portzentajea (%52,2raino egin zuen behera 2017ko abenduan (%41,9 estatuan), 2016ko abenduan baino 2 hamarren gutxiago. Ratio hori %47,1ekoa da gizonen artean (-0,5 puntu) eta %56,2ko emakumeetan (-0,3 puntu).

Lan-merkatuaren egoera honetan, enplegu politikak oso garrantzitsuak dira, bai politika aktiboak (langabetuek enplegua lortzeko eta lanean ari direnek lanpostua mantentzeko), bai politika pasiboak (langabetuen babes ekonomikorako).

Lehenbizikoei dagokienez, Eusko Jaurlaritzak 2014-2016ko Enplegu Planaren balantzea aurkeztu zuen 2017an. X. Legealdian hartutako konpromisoari berehalako erantzun eraginkorra emateko egin zen plan hori, eta lehentasunezkotzat jo zen egungo enpleguaren aldeko lana egitea eta lanpostu berriak sortzeko beharrezko baldintzak eta pizgarria sortzea. Horren ondorioz, gehienbat eragiketarako sortutako plana zehaztu zen, neurri zehatzekin eta errealistekin, eragin neurgarria eta zenbagarria izateko berehala.

Eusko Jaurlaritzaren txostenean eginiko balorazioaren arabera, Planaren betearazpen-maila aurreikusitako finantzazioaren %85 izan zen, hots, 661 milioi euro, eta aurreikusitako baliabide pribatuen %58 mugiarazi ziren, 910 milioi euro. Hots, 1.571 milioi euro erabili ziren orotara, eta horien bidez, Urteko Ekintza Planetan aurreikusitako 92 ekimenetatik 87 garatu ziren (aurreikusitako ekimenen %95). Planak, era berean, 32.000 lanposturako pizgarriak ezarri zituen, 134.600 lanposturi eustea eta laneko lehen esperientzia izateko aukera 23.000 gazterentzat. Abiarazitako ekimenen garapen- eta betetze-mailari esker, aurreikusitakoa baino handiagoa izan da sortutako enpleguan izandako eragina (%116) eta enplegua bere horretan mantendu da ia-ia (%98). Horri esker, 37.146 lanpostu sortzeko eta 131.898 lanpostu mantentzeko lagungarria izan da. Gazteen laneko lehen esperientzia bultzatzeari dagokionez, 6.302 gazteri lehen laneko esperientzia emateko aukera bultzatu zen, aurreikusitako helburuen %27,2 hain zuzen ere.

2017. urtean, Enplegurako Plan Estrategiko berria zehaztu zen 2017-2020 epealdirako, "*Ekonomia eta Enplegua Suspertzeko 2017-2020ko Esparru-programa*" delakoaren oinarrizko zatia den aldetik. Izan ere, plan horretan ere ezarri dira, ekonomia suspertzeko dimentsioan, Eusko Jaurlaritzak berrikuntzaren, nazioartekotzearen, industrializazioaren eta inbertsioaren arloan garatu beharreko oinarrizko ildo estrategikoak. 2017-2020ko Enplegurako Plan Estrategikoaren aurrekontuen baliakizunari buruz eginiko zenbatespenen arabera, 1.180 milioi euro erabiliko dira 2017-2020 aldian.

Bestalde, LANBIDEk (Enplegurako Euskal Zerbitzuak) funtsezko eginkizuna du ezarrita EAEko enplegurako politika aktiboak garatzeko eta Plana abiarazteko, zeren eta haren eginkizunak baitira laneko aktibazioa (enplegua sustatzeko programak, bitartekaritza, orientazioa, etab.) eta enplegurako trebakuntza (landunen trebakuntza nahiz langabezian daudena).

Aurrekontuko likidazioak oinarri hartuta (obligazio aintzatetsiak), jakin badakigu 2016an 847,79 milioi euroko gastua izan zuela, 2015ean baino %3,5 gehiago, eta horietatik 516,2 milioi, gastu guztien %60,9, Gizarteratze Programarako erabili ziren (2015ean baino %3,5 gehiago), 217,4 milioi euro (guztizkoaren %25,6) Enplegu Programarako (2015ean baino %8,5 gehiago) eta 101 milioi (gastuaren %11,9) Prestakuntza Programarako (-%4,1 2015ekoaren aldean).

Hortaz, eta nahiz eta sinplifikazioa izan daitekeen enplegurako politiketako gastua prestakuntzako eta enplegurako programen baturatzat hartzea, gizarteratzearekiko berezko erlazioa duenez gero, LANBIDEk 2016an enplegurako politika aktiboetan 318,3 milioi euroko gastua izan zuen, 2016an baino %4,1 gehiago. 2014 eta 2015 urte bitartean, berriz, %9,1eko igoera izan zen.

Konparazioa eginez, Ogasun eta Herri Administrazioetako Ministerioaren kopuruetatik ondorioztatzen denez, 2015ean (eskuratu dugun azken datua) EAE izan zen enplegua sustatzeko fondo gehien erabili zituen autonomia erkidegoa, Estatu osoko %11. Izan ere, garai horretan, Estatuan zegoen langabeziaren %3,8 biltzen zuen (urteko batez besteko datua). Informazio horren arabera, 341,30 milioi euro erabili zituen EAEk 2015ean laneko prestakuntzarako, orientaziorako eta laneratzeko, 2014an baino %6,7 gehiago. Kopuru hori, bat ez badator ere, oso hurbil dago LANBIDEk prestakuntzarako eta enplegurako programetan urte horretan erabilitako kopuruarekin (305.639 milioiko gastua, 2014an baino %9,1 gehiago). Langabetu bakoitzeko gastuak gora egin zuen 2015ean 2014aren aldean, %14,1 hain zuzen.

Langileentzako etengabeko prestakuntza hori enplegurako politika aktiboen baitan sartzen da. EAEn, araudiaren eta indarreko eskumenen banaketaren ondorioz, HOBETUZen (Etengabeko Lanbide Heziketarako Euskal Fundazioa) eta estatu mailako FUNDAEren (Enplegurako Trebakuntzarako Estatuko Fundazioa) bitartez kudeatzen dira aipaturiko jarduera horiek.

2016an (azken datu bateratuak), EAEko 34.486 langileren prestakuntza hartu zuen bere gain HOBETUZek (+%177,6 2015aren aldean), eta horretarako, 19 milioi euroko diru-laguntzak eman ziren (+%487,7). Eta 2014aren aldean (2015. urtea ezohiko urtea izan zen, ez baitzen eskaintza deialdirik izan) %13,2ko jaitsiera izan da trebaturiko langileen kopuruan eta %11,6ko igoera diru-laguntzen zenbatekoan.

FUNDAEk sustaturiko ekintzei dagokienez, EAEko 135.255 langilek hartu zuten parte prestakuntzako 206.049 ekintzatan (langile berak prestakuntza bat baino gehiago egin dezake urtean), aurreko urtean baino %4,6 gehiago, 17.465 enpresa trebatzailearen lanari esker (2015ean baino -%11,8): enplegurako prestakuntzarako 28 milioi erabili zituzten (-%6,7).

Enplegurako politika pasiboei dagokienez, langabeziaren ziozko prestazioetarako guztizko gastua, 2017an, eta behin-behineko datuen arabera, 606,74 milioi euro da, hots, 2016an baino %13,2 gutxiago. Zenbateko hori EAEren BPGaren %0,82 da (%0,99 aurreko urtean), Estatuko langabeziaren ziozko gastu osoaren %3,47, non 17.507 milioi eurotik gorako gastua bildu baitzen (-%6,6 2016aren aldean).

2017. urtearen bukaeran, langabeziagatiko prestazioen 46.890 hartzaile zeuden EAEn, 2016an baino %8,5 gutxiago (aurreko urtearen aldean %12,3ko beherakada izan zen). Horietatik %59,9 (28.073 lagun) kotizaziopeko prestazioen onuradunak ziren, %34,2 subsidioenak (16.021), %5,6k (2.613) Laneratzeko Errenta Aktiboa jasotzen zuen eta gainerako %0,1ek, 183 lagunek, Enplegurako Aktibazio Programaren prestazioa jasotzen zuten. Estatuan, hil berean, 1,89 milioi onuradun erregistratu ziren (-%4,5 2016ko abenduaren aldean), eta kotizaziopeko prestazioaren onuradunen ratioa %40,6 zen, %40,9koa subsidioetarako eta %9,7 gizarteratze errenta aktiborako.

Horrez gain, %2,9k Enplegurako Aktibazio Programaren prestazioa jasotzen zuen, eta %5,9k balizko nekazaritzako subsidioa. Erregistraturiko langabeziaren guztizko kopuruak aintzat hartuta, esan liteke, 2017ko abenduan, EAEko 100 langabeetatik 63k ez zuela prestaziorik jasotzen (62k 2016an) eta, jasotzen zuten 37 horietatik 22k kotizaziopeko prestazioa jasotzen zuen, 13k subsidioa eta 2k Laneratze Errenta Aktiboa.

Kopuru horiek izanik, Estatuko batez besteko estaldura %58,6 zen (2016ko abenduan baino %2 gehiago), eta EAEkoa baino handiagoa da (lehenago lan eginda zeuden eta hile horretan erregistraturiko langabeen %41,5, Enplegu eta Gizarte Segurantzako Ministerioak darabilen metodologiaren arabera). Horrenbestez, autonomia erkidego guztietako langabeziarako estaldura-tasarik txikiena du EAEk, Melillak izan ezik. Hortaz, 2016an bezala, langabeziaren kopuru hobeekin batera –lanik gabe daudenentzat- gora egin du langabeziarako babes sistemaren babesik ezak.

Halaber, bere inguruabar sozialengatik eta ekonomikoengatik (gizartean baztertuta edo arrisku horretan egotea) edo ezintasunen bat izateagatik lan-merkatuan berdintasunean sartzeko zailtasun bereziak dituzten pertsonentzako enplegu politikaren kopuruak aurkeztuko dira. Helburu nagusia enplegu ordaindua eta pertsonaren nahiz gizartearen ikuspegitik pertsona horiek behar dituzten zerbitzuen prestazio egokiak ziurtatzea da eta, aldi berean, lan araubide arruntean integratzeko bitartekoa izan nahi dute. Hori guztia enplegua, hain zuzen ere, pertsonak gizarteratzeko bide nagusia dela onartuta.

Lehenik eta behin, nabarmendu behar da 2016ko abenduan, EAEn, orotara 8.959 ezinduk (%64,4 gizonak eta %35,6 emakumeak) 76 Enpleguko Zentro Berezitako plantilletan egiten dutela lan. Sexuaren araberako banaketa apenas aldatu bada ere, 330 lagun gehiago zituen taldeak (+%3,8) 2015eko abenduko datuen aldean. Eta zentro horiek mantentzeko laguntzei dagokienez, Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak 35,99 milioi euro erabili zituen 2016an (+%36,6 2015aren aldean). Halaber, LANBIDEk 3,99 milioi euro erabili zituen (-%0,3) laneratzeko zailtasun handiak dituzten 4.121 langile ezinduri laguntzeko, laguntza-unitateko 481 adituren lanari esker.

Bigarrenik, Eusko Jaurlaritzak gizarteratze eta laneratze modalitate berezi hori hedatzea sustatu nahi du; haren bidez, pertsona bat, besteren konturako langile, bazkide langile edo laneko bazkide, laneratze enpresa batean sartzea kontratu baten bidez bideratzen da, laneko kontratua lehen kasuan eta sozietatekoa bigarrenean, eta lehenago txertaketarako hitzarmen bat sinatzetik ondorioztatzen da2003tik 2016ra bitartean, 98 milioi euro inguru banatu ditu laguntza-lerro horrek, urtean 37 erakunde onuradun batez beste eta 3.000 laneratze-langile onuradun. 2016an (informazioa eskuratu dugun azken urtea) 41 laneratze enpresentzako laguntzak eman ziren, eta horien zenbatekoa, guztira, 8,177 milioi euro izan zen, aurreko urtean baino %7,3 gehiago.

Soldatei dagokienez, EINen "*Laneko Prezioen Indizeak*" (soilik lan-merkatuaren presioen eraginez lan-eskuaren prezioan izandako aldaketa neurtzen du, betiere eginiko lanaren kalitatean eta kantitatean eraginik izan gabe) erakusten duenez, 2008 eta 2015 bitartean (eskuratu dugun azken datu), soldatek %6,7 egin zuten gora EAEn. Estatuan, berriz, %0,1 jaitsi ziren. Inflazioak 2008 eta 2015 bitartean (Estatuko batez bestekoa +%8,5 da), kopuru horiek adierazten dutenez, EAEn 1,4 puntu egin zuen behera erosteko ahalmenak (8,1 ken 6,7). Estatuan, berriz, 8,2 puntuko jaitsiera izan zen (8,1 ken -0,1). Eta eskuragarri dugun azken urtearen bilakaera ardatz hartuta (2015. urtea), LPI %2,9 hazi zen EAEn (+%0,7 Estatuan); izan ere, hazkunderik handiena izan deneko Autonomia Erkidegoa da, eta urte horretan 2,9 puntu berreskuratu dira erosteko ahalmenean (inflazioa %0koa izan baitzen).

Bestalde, OSALANek (Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundea) agerian utzi duenez, 2017an 38,22 istripu izan ziren (lan-egunetan baja eragin duten istripu berriak, hain zuzen ere 1.000 langileko istripu kopuruaren eta berariaz laneko istripuen kontingentzia estalia duten Gizarte Segurantzako afiliatuen kopuruaren arteko zatiduraren bidez kalkulatzen den kopurua) gure Erkidegoan milako (37,13 milako 2016an eta, beraz, berdin eusten zaio ratioari, +1,09 punturekin). Sektore bakoitzari erreparatuta, eraikuntzan izan zen intzidentziarik handiena (86,27 milako), 5,49 puntu hazi baitzen 2016aren aldean. Ondoren lehen sektorea zegoen, 75,58 milako (-1,29 2016aren aldean) eta industria, 65,29 milako, 1,36 puntu hazita 2016aren aldean. Azkenik, zerbitzuen intzidentzia batez bestekoaren azpitik zegoen, 27,44 milako (+0,85 puntu).

Autonomia erkidegoei dagokienez, Enplegu eta Gizarte Segurantza Ministerioak kalkulatzen duen lanaldiko istripuen intzidentziaren indizeak erakusten duenez, U. Balearrak ziren rankingeko buruan istripuetan, eta ondoren Gaztela-Mantxa zegoen. EAEren indizea 35,06koa zen milako, eta %0,7 egin zuen gora bere indizeak. Hala, Estatuko batez bestekoaren gainetik zegoen kopuru absolutuetan; industriaren sektoreak duen pisu handiak eragin zezakeen intzidentzia hori. Portzentajeetan emana, urte horretako Estatuko batez bestekoa negatiboa izan da, -%0,9.

Horrez gain, lan kontratu motaren araberako lan istripuei buruzko datuek erakusten dutenez, istripuen kopurua handiagoa da aldi baterako kontratu dutenen artean kontratu mugatua dutenen artean baino. Hala erakusten dute Enplegu eta Gizarte Segurantza Ministerioaren 2016ko datuek. Zehazki, kontratu mugagabea zutenen istripu kopurua 29,4koa izan zen mila soldatapeko bakoitzeko (EPAren lan serieak erabiliz); aldi baterako lan-kontratua dutenen artean, berriz, 47,4koa izan zen milako.

Istripuen banaketa zein den jakin beharko litzateke sektoreen, adinaren eta okupazio motaren arabera, behin betiko ondorioak atera ahal izateko.

Baina ikuspegi dinamikoaren arabera, nabarmentzekoa da kontratu mugagabea eta aldi baterakoa zuten pertsonen arteko istripuen indizea zegoen aldea 26,4 istripukoa zela 1.000 biztanleko 2009an, baina 2016an 18ra murriztu da.

Istripuen larritasunari dagokionez, istripu arinek %5,5 egin zuten gora, eta larriek %16,7. Heriotza eragin zuten istripuetan, berriz, %26,5eko murriztapena izan zen. Gainera, ezbeharra izan zuten 4 pertsonatatik 3 gizonezkoak ziren.

Bestalde, Lan Harremanen Kontseiluak (LHK) emandako 2017ko behin-behineko datuen arabera, urtearen hasieran EAEko langileen %23k zuen indarreko hitzarmen kolektiboa; %56,2k, berriz, berritzeke zegoen hitzarmena zuen, eta %20,8k agortuta zeukan hitzarmena. Hortaz, negoziazio kolektiboaren estaldura %79,2koa zen (aurreko urtean baino puntu erdi gehiago). Negoziazioei dagokienez, urtean 304 hitzarmen izan ziren, 2016an baino gehiago (28 hitzarmen), baina pertsona gutxiagori eragin zien (95.787). 2016an, berriz, 98.728 ziren. Lurraldez lurralde, Estatu mailako 91 hitzarmen erregistratu ziren, eta 213 zuzenean gure Erkidegoan. Orotara, 49.384 eta 46.403 langileri eragin zien.

Horren ondorioz, hauxe da urtearen bukaeran negoziazio kolektiboaren egoera: langileen %39,2k zuen indarreko hitzarmena (%16,2k urtean erregistraturiko hitzarmena zuen eta %23k aurreko urtekoak), %41,5ek luzatuta eta berritzeke zuen, eta gainerako %19,3k agorturiko hitzarmena zuen. Horrenbestez, negoziazio kolektiboaren estaldura-maila %80,7 zen urtearen bukaeran (aurreko urtekoa baino ratio txikiagoa; %82,1 zen orduan).

Bestalde, EINen "Lan Kostuen Hiruhileko Inkesta"ko kopuruen arabera 2017an (urteko batez bestekoak) enpresek eta langileek hitzartutako hileko orduen kopurua 147 zen, hots, 2016an baino %0,1 gutxiago, eta 2008an hitzartutakoak baino %3 gutxiago.

Ordu horietatik 122,43 (2016ko datu bera), %83,3 benetan lan egindakoak izan ziren, baina ratio hori 2 hamarrenetan gutxitu da azken urtean. Halaber, lan egin gabeko orduak 25,1 izan ziren 2017 langile eta hilabete bakoitzeko, hots, 2016an baino %1,3 gutxiago, eta benetan lan egindako orduen %20,5.

Bukatzeko, LKHIren lan-gatazkei buruzko datuen arabera, 2017an guztira 208 greba erregistratu ziren EAEn, eta 59.485 lagunek hartu zuten parte. Orotara, lan egin gabeko 96.371 egun bildu ziren, hots, urte arteko %26,8ko igoera greba kopuruan. Partaideei eta lan egin gabeko egunei buruzko kopuruetan, berriz, %333,1eko eta %65,7ko igoerak izan dira, hurrenez hurren.

2014-2015eko bi urtekoan lan-gatazkak beheranzko joera izan ondoren, 2017. urtean gorantz egin zuen, 2016. urtea bezala, greba kopurua eta gatazkaren intentsitatea handitu baitziren.

7.2. GOGOETAK

Lan-merkatuak gizartearentzat duen garrantzi handia eta horren konplexutasuna direla-eta, haren bilakaerari buruzko diagnostikoa lortzeko, kontu handiz aztertu behar dira aldagai ugariren jokabidea eta berekin dakartzan ondorioak.

Hamabost urtez lanpostuak sortu ondoren, EAEko lan-merkatuan okupazio zifren jaitsiera aldian murgildu zen EAE 2009an, eta hala jarraitu zuen 2013ra arte. Ondorioz, 100.000 lanpostu galdu ziren, guztizkoaren %10. 2014an, urte arteko tasa positiboak aipatzen hasiak ziren estatistika-iturriak, guztiak norabide berean.

2014. urteaz geroztik, datu positiboak hasi ziren antzematen berriz ere. Hala, harrezkero eta 2017ra arte, enplegua sortu da EAEn, baina oraindik bidea dago egiteke krisiaren aurreko enplegu maila lortzeko.

Ildo horretan, 2017. urtea aurrerapenen urtea izan da EAEko lan-merkatuaren adierazleen zati handi batean: enplegua sortu eta langabezia murriztu da sektore eta adin guztietan, eta sexu bietan. Era berean, iraupen luzeko langabeziaren pisuan bi hamarreneko murrizpena aipatu beharra dago 2017an, hots, urtebetetik gorakoa.

Aldagai horien jokabide onak berekin dakar lan-merkatuaren baldintzen hobekuntza, aitortua eta ongietorria, baina arreta merezi dute azterketa xehatuagoaren beharra duten mezuek.

Langabeziaren bilakaera positiboarekin batera, azken urteetan ez bezala, biztanleria aktiboak eutsi egiten dio kopuru absolutuetan, baina berriz ere egin du behera jarduera-tasak. Izan ere, urtearen amaieran %56,2 izan zen, komeniko litzateenaren azpitik hain zuzen. Aldi berean, iraupen luzeko langabeziaren murriztapenak ez du galarazten langabezia

horrek langabe dauden pertsonen erdiari baino gehiago eragitea. Horregatik, Batzorde honek langabeziaren eraginpeko pertsonen egoeraren inguruko kezkari eusten dio, lan-merkatutik baztertuak izateko arriskuan daudelako.

Enpleguaren kalitateari dagokionez, elkarren kontrakoak diren errealitateak daude. Alde batetik, pisua irabazten jarraitzen du lanaldi partzialeko kontratazioak, eta hori arazoa izan daiteke langileak nahi ez duen lanaldi motagatik gertatzen baldin bada. Izan ere, lan-merkatuaren dinamismoa nahikoa ez dela esan adieraz dezake horrek, zeren eta langileen zati batek lanaldia luzatuko nahi izango bailuke.

Bestalde, aldi baterako kontratazioa kontratazio mugagabea baino indartsuago hazi da hiru urtez jarraian, eta horrek esan nahi du bide onetik goazela. Horrez gain, azken urteetan lehen aldiz murriztu da txandaketa pixka bat. Alabaina, aldi baterako enpleguaren tasak oraindik oso handiak dira, eta bereziki eragiten die emakumeei. Horrez gain, soldataren aldetik alde handia dago sexuen artean, argi eta garbi emakumearen kalterako, eta bereziki nahi ez den lanaldi partzialaren eraginpean daude emakumeak.

Gainera, langabeziak emakumeei eta 55 urtetik gorako langileei eragiten die neurri handiagoan eta, beraz, aldi baterako enpleguaren kontra egiteko eta talde horien laneratzera errazteko politika espezifikoak hartu behar dira premiaz. Horrez gain, soldatek igoera txikiak izan dituzte krisia hasi zenetik, prezioen bilakaeraren azpitik. Horren ondorioz, erosteko ahalmena galdu dute langileek, baina azken datuen arabera, egoera nolabait zuzentzen ari da.

Azaldutako emaitzak ez ditu baliogabetzen arestian esandako guztiak, baina ñabardurak ematen ditu, eta Batzorde honen ustez, aintzat hartu behar dituzte gure Erkidegoko ekonomia eta gizarte eragileek.

Bestalde, badirudi berretsi egiten dela, egungo lan-merkatuan, ikasketa mailaren eta enplegua eskuratzearen arteko erlazioa, sarritan kalitate txarreko enpleguarekin lotzen den arren. Eta ildo horretan, enplegugarritasun egokia izateko posibilitateetan zuzeneko eragina duen prestakuntzako eskaintzaren beharra aldarrikatu nahi dugu. Alde horretan, garrantzizkoa da nabarmentzea lanean aritu arren enplegu-eskatzaileak diren pertsonen kopuru handia eta, zentzu horretan, etengabeko prestakuntzaren garrantziaz ohartarazi nahi dugu landunen prestakuntzako hobetzeko bidea den aldetik, baita etengabeko bilakaeran den merkatuan egokitzeko ere, beharrezko gaitasunei erantzuna emate aldera.

Ildo horretan, hauxe nabarmendu nahi dugu: Batzorde honek ekimenaz egin den EAEko gazteen enplegugarritasunari eta lan-merkatuan sartzeari buruzko azken azterlanean, bere gogoeten artean, laneratzeko zailtasun handienak dituzten gazte-taldeentzako berariazko politikak sortu behar direla aipatzen da.

Herri erakundeek buruturiko enplegu politiken inguruko beste datu baliagarri bat langabeziaren ziozko estaldura-tasen bilakaera da gure Erkidegoan: Autonomia erkidegoetako baliorik txikiena dugu, eta etengabe egin izan du behera azken urteetan. Beraz, langabezia-tasak behera eginda lasaiago egon gaitezkeen arren, horrekin batera, babesik eza ere handitu egiten da langabezian daudenentzat. Ekoizpen-sistemak zenbait talde bere gain hartzeko duen zailtasunaren sintoma da errealitate hori, eta agerian uzten du enplegurako politika aktiboek hobekuntza-marjina handia dutela kasuistika horiei aurre egiteko.

Lan istripuen kopuruak berriz ere gora egin zuen 2017an, 2014an hasitako joerari jarraiki, kopuru absolutuetan nahiz erlatiboetan, heriotza dakarten istripuen kopurua izan ezik: murriztu egin dira. Horrez gain, ezbeharrek aldi baterako kontratua duten pertsonen artean ugariagoak badira ere, deigarria da azken urteetan nabarmen murriztu izana bi kontratazio mota horien arteko alde handia. Horregatik, lan-istripuen prebentzio zorrotzari eutsi beharraz ohartarazi nahi du EGABe, jarduera areagotzeak istripuen kopurua ere handitu ez dezan.

Azkenik, aipamen berezia egin nahi dugu 2017an sindikatuek eta ugazaberiak izenpeturiko negoziazio kolektiboko egituraren gaineko akordioaz, negoziazio kolektiboko eremu autonomikoak zaintzen dituen neurrian.

IV. KAPITULUA

Bizi-baldintzak eta gizarte-babesa EAEn

1. BIZI BALDINTZAK

Gizarte bazterkeriaren arazoa zeharkako errealitatea da gizarte garaikideetan. Erakunde eta ikertzaileek urte askoan erabili duten "pobrezia" kontzeptuak ez ditu agortzen gizarte-bazterketaren errealitatea eta dinamikak. Hori dela eta, azken bi hamarkadatan gizarte-ikertzaileak eta kudeatzaile publikoak bat etorri dira: pobrezia kategoria hedatu dute eta "gizarte-bazterketa" erabiltzen dute, pobrezia ekonomikoaren ideia zurruna atzean utzi dutelako eta, batik bat, kontuan hartzen dituztelako gaur egungo gizarteetan aurrerapen teknologikoek, bizimodu-aldaketek eta gizarte-erreformek eragin dituzten eraldaketa sakonak.

Lehenik eta behin, EBko bizi-baldintzei buruzko zifra nagusiak emango dira, EUROSTATen Bizi-baldintzei buruzko Inkestako (EU-SILC) azken datuak oinarri hartuta, eta EAEko eta Estatuko egoerarekin lotuko dira. Hartara, xehetasunez aztertuko dira "AROPE" tasaren (*population at risk of poverty and exclusion*) osagaiak. Inkesta horren bidez, Europako Batzordeak 2020rako ezarritako helburuen jarraipena egiten da. Gainera, Eusko Jaurlaritzaren Pobreziari eta Gizarte Desberdintasunei buruzko Inkestako (PGDI) lehen datuak azalduko dira, baita EINen 2016ko Bizi-baldintzei buruzko Inkestako emaitzak ere, EAEk gainerako autonomia erkidegoen aldean duen bilakaera erkatzea ahalbidetzeko errentaren eta gabezia materialaren adierazle nagusiei dagokienez. Ondoren, gai bakarra aztertuko da: lan-pobrezia EAEn, 2016ko PGDIren emaitzak eta Europako estatistika oinarri hartuta. Azkenik, EAEko hipoteka-betearazpenen gaineko zifra nagusiak emango dira. Kapituluko bigarren blokea EAEko familiei buruzko azterlanak osatzen du, baita kontziliazio beharrak eta horretarako abian jarritako politikak ere.

EAEko familien, bateratzeko beharren eta horretarako garatzen diren politiken gaineko azterlanak osatzen du kapitulu honetako bigarren blokea.

1.1. EAE-KO BIZI-BALDINTZAK EUROPAKO INGURUNEAN: "AROPE" TASA

Europar Batasunean, gaur egungo krisiak eragin oso larriak ditu jarduera ekonomikoan eta enpleguan. Krisiaren ondorioz, nabarmen hazi da pobrezia edo bazterkeria arriskuan dauden EBko herritarren kopurua azken urteetan, eta gehieneko kopuruak 2012an izan ziren, %25 inguru. Harrezkero behera egin du pixka bat.

IV.1.1. GRAFIKOA. POBREZIA ARRISKUA ETA GIZARTE BAZTERKETA JASATEKO ARRISKUAREN ETA HORIEN HIRU OSAGAIEN BILAKAERA EUROPAR BATASUNEAN (28KO EB)



Iturria: EUSTAT

Egoera horren eraginpean daude gaur egun (2016koa da azken datu eskuragarria) biztanleriaren %23,4, hots, EBko 117,5 milioi herritar, Europa 2020 Estrategian ezarritako irizpideen arabera. Estrategia horri "AROPE tasa" deritzo (population at risk of poverty and exclusion)[1].

IV.1.1. TAULA. EAE-KO BIZI-BALDINTZAK. ERREFERENTZIAKO ADIERAZLEAK "EUROPA 2020"

	EAE		ESTATUA	28KO
	2008	2016	2016	EB 2016
"AROPE" TASA	**13,9**	**15,9**	**27,9**	**23,4**
- POBREZIAREN ATALASEAREN AZPITIK DAGOEN BIZTANLERIA (MEDIAN %60) – MONETA POBREZA	9,1	9,0	22,3	17,2
- GABEZIA MATERIAL LARRIA	2,8	4,2	5,8	7,5
- LAN INTENTSITATE TXIKIA	6,5	13,7	14,9	10,4

Iturria: EUROSTAT eta EIN.

[1] *Europa 2020 Estrategiako irizpideen arabera, pertsona bat pobrezia- edo bazterketa-arriskuan dago langabezia-arazoak edo lan-intentsitate txikia dituen familia-unitate batean bizi bada eta familia-unitate horrek gizarte-transferentzien ondoren pobrezia-arrisku badu eta/edo gabezia material larria badu.*

Horietatik %53 emakumeak ziren (haien AROPE tasa batez bestekoa baino puntu bat handiagoa da) eta %47 gizonezkoak (pobrezia edo bazterketa arrisku-tasa: %22,5). 2015aren aldean, 3 hamarren egin du behera Batasunerako batez besteko tasak (eraginpeko 1,200.000 lagun), eta, beraz, intzidentzia EBko 7 herrialdetan besterik ez da handitu: Estonia, Frantzia, Lituania, Luxenburgo, Herbehereak, Errumania eta Suedia, eta behera egin du gainerakoetan.

Espainian, 2016eko ratioa %27,9 zen, Europako batez bestekoa baino 4,5 puntu handiagoa (eraginpeko ia 13 milioi lagun baino gehiago), eta 7 hamarreneko murriztapena izan du aurreko urtearen aldean. Hala, maila ertain-altuan kokatzen da Espainia, Europako batez bestekoaren gainetik eta beste herrialde hauen antzeko balioekin: Zipre, Hungaria edo Portugal.

EAEn, biztanleriaren %15,9 (EUROSTAT eta EINen metodologiaren arabera) pobrezia eta bazterketa arriskuaren eraginpean zegoen 2016an, bestela esanda, 350.000 lagun (ez dago talde horren banaketari buruzko sexuaren araberako informaziorik), 2015ean baino %1,7 gutxiago. Intzidentzia hori %13,9koa zen krisiaren hasieran (2008ko datua). Beste urte batez, nahikoa maila apaletan eusten zaio tasa horri Europan, gora egin badu ere, hain zuzen Herbeherearen edo Danimarkaren parean.

Eta Estatuko autonomia erkidegoen multzoan, EAEk oso toki ona betetzen du, bakarrik Nafarroaren atzetik (%13ko intzidentzia). Azken urtean, Estatuko batez bestekoa bezala, "AROPE" tasa murriztu da 11 erkidegotan. 9 erkidegotan, berriz, gora egin du. Azkenik, 8tan handitu edo mantendu da. Ratiorik handienak Andaluzian eta Ceutan daude, bietan %40tik gorakoak.

IV.1.2. TAULA. POBREZIA ARRISKUAN EDO GIZARTE BAZTERKETA JASATEKO ARRISKUAN DAUDENAK, "EUROPA 2020 ESTRATEGIA"REN IRIZPIDEEN ARABERA

	PORTZENTAJEA			ABSOLUTUAK (MILIOAK)		
	2008	2015	2016	2008	2015	2016
28KO EB	23,7	23,7	23.4	115,9	118,7	117.5
BELGIKA	20,8	21,1	20.7	2,2	2,3	2.3
BULGARIA	44,8	41,3	40.4	3,4	3,0	2.9
TXEKIAR ERREP.	15,3	14,0	13.3	1,6	1,4	1.4
DANIMARKA	16,3	17,7	16.7	0,9	1,0	1.0
ALEMANIA	20,1	20,0	19.7	16,4	16,1	16.0
ESTONIA	21,8	24,2	24.4	0,3	0,3	0.3
IRLANDA	23,7	26.0	:	1,1	1.2	:
GREZIA	28,1	35,7	35.6	3,1	3,8	3.8
ESPAINIA	24,5	28,6	27.9	11,1	13,2	12.8
FRANTZIA	18,5	17,7	18.2	11,2	11,0	11.5
KROAZIA	:	29,1	28.5	:	1,2	1.2
ITALIA	25,3	28,7	:	15,1	17,5	:
ZIPRE	23,3	28,9	27.7	0,2	0,2	0.2
LETONIA	34,2	30,9	28.5	0,7	0,6	0.6
LITUANIA	27,6	29,3	30.1	0,9	0,9	0.9
LUXENBURGO	15,5	18,5	19.7	0,1	0,0	0.1
HUNGARIA	28,2	28,2	26.3	2,8	2,7	2.5
MALTA	20,1	22,4	20.1	0,1	0,1	0.0
HERBEHEREAK	14,9	16,4	16.8	2,4	2,7	2.8
AUSTRIA	20,6	18,3	18.0	1,7	1,5	1.5
POLONIA	30,5	23,4	21.9	11,5	8,8	8.2
PORTUGAL	26,0	26,6	25.1	2,8	2,8	2.6
ERRUMANIA	44,2	37,4	38.8	9,4	7,4	7.7
ESLOVENIA	18,5	19,2	18.4	0,4	0,4	0.4
ESLOVAKIA	20,6	18,4	18.1	1,1	1,0	1.0
FINLANDIA	17,4	16,8	16.6	0,9	0,9	0.9
SUEDIA	14,9	16,0	18.3	1,4	1,6	1.8
ERRESUMA BATUA	23,2	23,5	22.2	14,1	15,0	14.4
EAE	**13,9**	**17,6**	**15.9**	**0,30**	**0,39**	**0,35**

Iturria: Geuk egina EUROSTAT eta EINen datuekin.

IV.1.3. TAULA. POBREZIA ARRISKUAN EDO GIZARTE BAZTERKETA JASATEKO ARRISKUAN DAUDEN BIZTANLEAK, "EUROPA 2020 ESTRATEGIA"REN IRIZPIDEEN ARABERA: "AROPE" TASAKO OSAGAIAK: BIZTANLERIA GUZTIAREKIKO EHUNEKOA, 2015-16.

	"AROPE" TASA OROKORRA		1. POBREZIA ARRISKUA (%60 ATALASEA)		2. GABEZIA MATERIAL LARRIA		3. OSO LAN INTENTSITATE TXIKIA	
	2015	2016*	2015	2016*	2015	2016*	2015	2016*
ESTATUA, GUZT.	28,6	27.9	22,1	22.3	6,4	5.8	15,4	14.9
ANDALUZIA	43,2	41.7	35,7	35.4	8,0	7.1	24,9	23.5
ARAGOI	17,7	18.7	14,4	15.7	2,2	2.9	6,9	7.6
ASTURIAS	24,2	18.5	16,7	13.4	6,9	3.9	16,4	14.7
U. BALEARRAK	26,3	19.1	21,7	15.5	7,7	3.7	8,4	6.7
U. KANARIAR.	37,9	44.6	28,5	35.0	12,4	10.8	20,8	29.5
KANTABRIA	20,4	24.6	14,9	15.3	3,5	7.5	15,5	16.0
GAZTELA-MANTXA	23,3	23.2	18,3	17.7	2,3	2.0	16,5	14.2
GAZTELA-LEON	36,7	37.9	28,5	31.7	8,5	7.6	15,6	18.8
KATALUNIA	19,8	17.9	13,9	13.2	6,7	5.5	8,8	7.2
VALENTZIAKO E.	32,9	30.5	25,3	24.4	6,7	7.5	18,1	14.6
EXTREMADURA	35,2	35.8	29,0	30.4	2,4	3.4	19,3	20.3
GALIZIA	25,7	25.4	19,4	19.0	4,2	4.1	13,8	13.6
MADRIL	20,5	21.7	15,1	18.2	5,7	4.3	10,5	10.4
MURTZIA	38,8	34.8	31,8	28.9	9,0	9.5	16,1	13.4
NAFARROA	13,0	13.0	9,6	9.0	2,2	3.4	7,1	8.4
EAE	**17,6**	**15.9**	**10,9**	**9.0**	**4,6**	**4.2**	**14,3**	**13.7**
ERRIOXA	22,1	17.4	17,1	11.9	4,8	5.9	10,4	9.2
CEUTA	41,7	41.9	31,0	36.0	16,6	3.5	10,0	12.2
MELILLA	31,8	29.3	25,8	21.8	15,1	13.2	14,5	18.0

Iturria: EIN. Bizi-baldintzei buruzko inkesta.
** 2016ko datuak behin-behinekoak dira.*

1.1.1. Pobrezia atalasearen azpitik dagoen biztanleria

Adierazle horren osagaiei dagokienez, batetik, 2016an EBko biztanleen %17,2 pobrezia-arriskuan zegoen gizarte-transferentzien ondoren (moneta-pobrezia); egoera horretan daude, zehazki, diru-sarreren kontsumo-unitateko banaketaren herrialde bakoitzeko medianaren %60tik ("pobrezia-atalase" deritzon horretatik) beherako diru-sarrerak dituztenak (osagai hori da, beraz, herrialde bakoitzean gutxieneko errenta-atalase horretara heltzen ez diren biztanleen portzentajea).

IV.1.4. TAULA. POBREZIA EDO GIZARTE BATERKETA ARRISKUAN DAGOEN EB-KO BIZTANLERIA, "EUROPA 2020 ESTRATEGIA"REN IRIZPIDEEN ARABERA: "AROPE" TASAKO OSAGAIAK: GUZTIZKO BIZTANLERIAREKIKO EHUNEKOA. 2008-2016

	1. POBREZIA ARRISKUA (%60 ATALASEA)			2. GABEZIA MATERIAL LARRIA			3. OSO LAN INTENTSITATE TXIKIA		
	2008	2015	2016	2008	2015	2016	2008	2015	2016
28KO EB	16,5	17,3	17.2	8,5	8,1	7.5	9,2	10,6	10.4
BELGIKA	14,7	14,9	15.5	5,6	5,8	5.5	11,7	14,9	14.6
BULGARIA	21,4	22,0	22.9	41,2	34,2	31.9	8,1	11,6	11.9
TXEKIAR ERREP.	9,0	9,7	9.7	6,8	5,6	4.8	7,2	6,8	6.7
DANIMARKA	11,8	12,2	11.9	2,0	3,7	2.6	8,5	11,6	10.6
ALEMANIA	15,2	16,7	16.5	5,5	4,4	3.7	11,7	9,8	9.6
ESTONIA	19,5	21,6	21.7	4,9	4,5	4.7	5,3	6,6	5.8
IRLANDA	15,5	16.3	:	5,5	7.5	:	13,7	19.2	:
GREZIA	20,1	21,4	21.2	11,2	22,2	22.4	7,5	16,8	17.2
ESPAINIA	19,8	22,1	22.3	3,6	6,4	5.8	6,6	15,4	14.9
FRANTZIA	12,5	13,6	13.6	5,4	4,5	4.4	8,8	8,6	8.4
KROAZIA	:	19.5	:	:	12.9	:	:	13.6	:
ITALIA	18,9	19,9	:	7,5	11,5	:	10,4	11,7	:
ZIPRE	15,9	16,2	16.1	9,1	15,4	13.6	4,5	10,9	10.6
LETONIA	25,9	22,5	21.8	19,3	16,4	12.8	5,4	7,8	7.2
LITUANIA	20,9	22,2	21.9	12,5	13,9	13.5	6,1	9,2	10.2
LUXENBURGO	13,4	15,3	16.5	0,7	2,0	1.6	4,7	5,7	6.6
HUNGARIA	12,4	14,9	14.5	17,9	19,4	16.2	12,0	9,4	8.2
MALTA	15,3	16,3	16.5	4,3	8,1	4.4	8,6	9,2	7.3
HERBEHEREAK	10,5	12,1	12.8	1,5	2,5	2.6	8,2	10,2	9.7
AUSTRIA	15,2	13,9	14.1	5,9	3,6	3.0	7,4	8,2	8.1
POLONIA	16,9	17,6	17.3	17,7	8,1	6.7	8,0	6,9	6.4
PORTUGAL	18,5	19,5	19.0	9,7	9,6	8.4	6,3	10,9	9.1
ERRUMANIA	23,6	25,4	25.3	32,7	22,7	23.8	8,5	7,9	8.2
ESLOVENIA	12,3	14,3	13.9	6,7	5,8	5.4	6,7	7,4	7.4
ESLOVAKIA	10,9	12,3	12.7	11,8	9,0	8.2	5,2	7,1	6.5
FINLANDIA	13,6	12,4	11.6	3,5	2,2	2.2	7,5	10,8	11.4
SUEDIA	12,2	14,5	16.2	1,4	0,7	0.8	5,5	5,8	8.5
ERRESUMA BATUA	18,7	16,7	15.9	4,5	6,1	5.2	10,4	11,9	11.3
EAE	**9,1**	**10,9**	**9.0**	**2,8**	**4,6**	**4.2**	**6,5**	**14,3**	**13.7**

Iturria: Geuk egina EUROSTAT eta EINen datuekin.

Ehuneko horrek hamarren bat egin du behera 2015aren aldean, eta bost pertsonatik bat baino gehiago dago egoera horretan Errumanian (%25,3), Bulgarian (%22,9), Espainian (%22,3), Lituanian (%21,9), Letonian (%21,8), Estonian (%21,7) eta Grezian (%21,2). Ratiorik txikienak Txekiar Errepublikan (%9,7), Finlandian (%11,6), Danimarkan (%11,9) eta Eslovakian (%12,7) daude. 2008tik, informazioa duguneko EBko herrialdeetatik 23tan handitu da pobrezia arriskua, eta haietatik 3tan baino ez da gutxitu.

EAEn, %9ko tasa zen 2016. urtean, eta azken urtean %1,9ko jaitsiera izan du, hamarren batekoa krisia hasi zenetik hona.

Autonomia erkidegoen artean, batezbesteko orokorraren oso azpitik dago EAE AROPE tasaren lehen osagaian (%9 eta %22,3); izan ere, lehen tokian dago Nafarroarekin berdinduta. Beste muturrean, %35etik gorako ratioak gainditzen dituzte zenbait erkidegok: Ceuta (%36), Andaluzia (%35,4) eta Kanariar Uharteak (%35).

1.1.2. Gabezia material larria

Bigarrenik, Europako populazioaren %7,5eko oinarrizko baldintzak eskuratzeko muga larriak zituen 2016an, zeren eta oinarrizko baliabiderik ezak eragindako bizi-baldintzak baitituzte hala nola fakturei aurre egiteko ahalmena (familien ohiko gastuei dagokienez), etxea bero mantentzeko edo urtean astebeteko oporraldia gozatzeko[2]. Ratio hori 8 hamarren murriztu da azken urtean, eta dagoeneko 2008an zuen %8,5aren azpitik dago.

Batasunean, gabezia horren intzidentzia asko aldatzen da herrialdeen artean: Suedian %0,8 dago edo Luxenburgon %1,6, eta beste muturrean Bulgaria, %31,9 edo Errumania, %23,8. Gehienetan, ordea, emaitza hobeak izan dira azken urtean. 2008aren aldean, gabezia larria dutenen proportzioa hazi egin da horretarako datuak dauden 9 herrialdetan, eta behera egin du 16herrialdetan.

IV.1.5. TAULA. "AROPE" TASAREN ETA BERE OSAGAIEN BILAKAERA. EAE-ESTATUKO B.B. ERKATUTA.

	POBREZIA ETA BAZTERKETA ARRISKUA (ARROPE)		1. POBREZIA ARRISKUA (%60KO <ATALASEA) (MONETA POBR.)		2. GABEZIA MATERIAL LARRIA		3. LAN INTENTSITATE TXIKIA	
	ESTATUA	EAE	ESTATUA	EAE	ESTATUA	EAE	ESTATUA	EAE
2008	23,8	13,9	19,8	9,1	3,6	2,8	6,6	6,5
2009	24,7	14,8	20,4	10,0	4,5	3,4	7,6	5,5
2010	26,1	16,3	20,7	11,7	4,9	2,1	10,8	8,8
2011	26,7	18,9	20,6	13,8	4,5	4,0	13,4	9,8
2012	27,2	17,7	20,8	13,3	5,8	2,1	14,3	11,1
2013	27,3	16,8	20,4	10,5	6,2	4,8	15,7	13,0
2014	29,2	15,3	22,2	10,2	7,1	4,8	17,1	12,2
2015	28,6	17,6	22,1	10,9	6,4	4,6	15,4	14,3
2016	**27,9**	**15,9**	**22,3**	**9,0**	**5,8**	**4,2**	**14,9**	**13,7**

Iturria: EINen datuekin egina.

Espainiak %5,8ko tasa du (2015ean baino 6 hamarren gutxiago), eta EAEk %4,2 (%4,6 2015ean). 2008-2016 aldia aztertuta ikusten denez, bilakaera negatiboa izan da, %2,8tik %4,2ra, baina beti eutsi zaie %5etik beherako mailei. Autonomia erkidego guztien aldean, intzidentziarik handienak Kanariar Uharteetan eta Melillan daude (%10,8 eta %13,2 hurrenez hurren). Txikienak, berriz, Gaztela-Mantxan (%2), Aragoin (%2,9) eta Nafarroan eta Extremaduran (bietan %3,4) daude.

1.1.3. Oso lan intentsitate txikiko biztanleria

Azkenik, EBko biztanleriaren %10,4 lan-intentsitate oso txikiko etxeetan bizi zen 2015ean. Hala deritzo familiako 59 urtetik beherako helduek azken urtean beren lan-gaitasunaren %20 erabiltzen badute lanean (2015ean baino 2 hamarren gutxiago eta 2008an baino %1,2 gehiago). Grezia (%17,2), Espainia (%14,9) eta Belgika (%14,6) daude Batasuneko rankingeko buruan. Estonian eta Polonian, berriz, ez dira %6an inguruan dabiltza. 2008aren aldean, tasa hori EBko estatu kide gehienetan hazi da (datu eguneratuak ditugunetatik 16 herrialdetan).

EAEko datua %13,7 da, EBko batez bestekoa baino handiagoa (%10,4). Hortaz, gure Erkidegoa Europako batez bestekoaren azpitik dagoen AROPE tasaren dimentsio bakarra da, baina 6 hamarreneko igoera izan da aurreko urtearen aldean, krisia hasi zeneko %6,5etik oso urruti. Espainia, arestian esan dugun moduan, EBko emaitzarik txarrenen artean dago, bakarrik Greziak gainditzen du. Hala ere, 1,7 puntuko hobekuntza izan du aurreko urtearen aldean (%15,4tik %14,9ra). Autonomia erkidegoen artean, azken urtean hobetu bada ere, horietako zenbaitek oso ratio handiak dituzte: Kanariar Uharteetan %29,5, Andaluzian %23,5 eta Extremaduran %20,3. Balearrak, Katalunia eta Aragoi beste muturrean daude, tasarik txikienak baitituzte: %6,7, %7,2 eta %7,6 hurrenez hurren.

[2] *Zehazki, EUROSTATen irizpideen arabera, gabezia material larria izateko bederatzi item hauetatik lau bete behar dira: fakturak garaiz ezin ordaintzea, etxebizitza behar bezala bero ezin mantentzea, ustekabeko gastuei ezin aurre egitea, haragia, arraina edo proteina baliokideak bi egunean behin ezin jatea, urtean astebeteko oporraz ezin gozatzea, autoa, garbigailua, koloretako telebista edo telefonoa (mugikorrak barne) ezin edukitzea*

1.2. BIZI-BALDINTZEI BURUZKO 2016KO INKESTAREN EMAITZAK

Europar Batasuneko errentari eta bizi-baldintzei buruzko estatistika, «*Statistics on income and living conditions*», EU-SILC) deritzona, bateratzeko prozesu baten zatia da. Helburu nagusietako bat pobrezia eta gizarte-bazterketa aztertu ahal izateko informazioa ematea da. Alde horretatik, askotariko informazioa ematen du, etxebizitzei buruzko datuak, hain zuzen ere: etxeko gastuak, diru-sarrerak, ekipamendua, egoera ekonomikoa, helduen jarduera, osasuna, osasun-arreta eskuratu ahal izatea, hezkuntza eta datu biografikoak.

1.2.1. Errenta

2016ko Inkesta emaitzetan, hauxe nabarmentzen da lehenik eta behin: urtean jasotako batez besteko errenta pertsona bakoitzaren batez besteko errenta 14.345 euro zen urtean (ez dugu sexuaren araberako informaziorik), aurreko urtean baino %3,7 gehiago, berriz ere lehen tokian, eta ondoren Nafarroa, eta Estatuko batez bestekoa baino %34 gehiago, non berriz ere igo den: %2,8. 2008. urteari dagokionez, positiboa izan zen EAEn bakoitzaren batez besteko errentaren bilakaera (%2,2), eta Estatuko batez bestekoa %0,3 jaitsi zen. Gainera, errentarik txikienak jasotzen dituzten pertsonen ehunekorik txikiena du EAEk (%81) eta errentarik altuenak jasotzen dituztenen lehen tokia dago (%38,2).

IV.1.6. TAULA. URTEKO BATEZ BESTEKO ERRENTAREN BILAKAERA PERTSONAKO ETA FAMILIAKO (ELKARRIZKETAREN AURREKO URTEA) AUTONOMIA ERKIDEGOEN ARABERA. 2008-2016. EUROAK.

	BATEZ BESTEKO ERRENTA PERTSONAKO					BATEZ BESTEKO ERRENTA FAMILIAKO				
	2008	2015	2016	Ald. % 15/16	Ald. % 08/16	2008	2015	2016	Ald. % 15/16	Ald. % 08/16
ESTATUKO B.B.	10.737	10.419	10.708	2,8	-0,3	28.787	10.419	10.708	2,8	-0,3
ANDALUZIA	9.007	7.942	8.398	5,7	-6,8	25.248	7.942	8.398	5,7	-6,8
ARAGOI	11.485	12.427	11.649	-6,3	1,4	29.506	12.427	11.649	-6,3	1,4
ASTURIAS	11.880	11.427	12.060	5,5	1,5	29.473	11.427	12.060	5,5	1,5
U. BALEARRAK	11.229	10.828	12.222	12,9	8,8	28.981	10.828	12.222	12,9	8,8
U. KANARIAR.	8.902	8.640	8.702	0,7	-2,2	24.510	8.640	8.702	0,7	-2,2
KANTABRIA	11.232	10.494	10.670	1,7	-5,0	29.576	10.494	10.670	1,7	-5,0
GAZTELA-MANTXA	10.488	10.570	10.815	2,3	3,1	26.525	10.570	10.815	2,3	3,1
GAZTELA-LEON	9.064	8.498	8.731	2,7	-3,7	24.974	8.498	8.731	2,7	-3,7
KATALUNIA	12.436	12.283	12.660	3,1	1,8	32.561	12.283	12.660	3,1	1,8
VALENTZIAKO E.	9.864	9.098	9.265	1,8	-6,1	25.802	9.098	9.265	1,8	-6,1
EXTREMADURA	8.107	8.469	8.674	2,4	7,0	21.756	8.469	8.674	2,4	7,0
GALIZIA	9.482	10.212	10.439	2,2	10,1	25.859	10.212	10.439	2,2	10,1
MADRIL	12.496	12.534	12.647	0,9	1,2	33.889	12.534	12.647	0,9	1,2
MURTZIA	9.119	7.924	8.273	4,4	-9,3	26.995	7.924	8.273	4,4	-9,3
NAFARROA	13.123	13.300	13.408	0,8	2,2	35.370	13.300	13.408	0,8	2,2
EAE	**14.038**	**13.836**	**14.345**	**3,7**	**2,2**	**36.110**	**13.836**	**14.345**	**3,7**	**2,2**
ERRIOXA	10.916	11.132	11.589	4,1	6,2	27.835	11.132	11.589	4,1	6,2
CEUTA	8.047	8.512	9.435	10,8	17,2	29.776	8.512	9.435	10,8	17,2
MELILLA	11.065	10.027	10.883	8,5	-1,6	33.986	10.027	10.883	8,5	-1,6

Iturria: EIN. Bizi-baldintzei buruzko inkesta.

Horrez gain, familia bakoitzak aurreko urtean EAEn jasotako batez besteko errenta %3 hazi da aurreko urtearen aldean, eta 34.054 eurotan kokatzen da, Estatuko batez bestekoa baino %27,4 gehiago, 26.730 eurokoa baita (non %2,4 hazi baita 2015aren aldean). EAEko datuak autonomia erkidegoen lehen posizioan jarraitzen du, eta ondoren Nafarroa dago (familiako 33.167 euroko batez besteko diru-sarrera du).[3] Alabaina, 2008-2016 aldian gertatu dena kontuan hartzen badugu, krisia hasi zenetik, %5,7 egin du behera familiako batez besteko errentak EAEn. Estatuan, berriz, %7,1eko jaitsiera izan da. Zenbait erkidegotan %10etik gorakoa da galera (Andaluzia, Kantabria, Valentziako Erkidegoa edo Murtzia). Beste batzuetan, berriz, gora egin du familia errentak kontsideraturiko aldian, Balearretan edo Galizian adibidez.

[3] *Melillako datu handia, 35.808€, zuhurtziaz hartu beharra dago, laginaren tamaina txikia dela eta.*

Azaldutako bi aldagaiek 2008 eta 2016 bitartean izan duten bilakaera (pertsonako batez besteko errentaren igoera eta familiako batez besteko errentaren jaitsiera) gertatu da, neurri handi batean, Euskadiko familien batez besteko tamaina nabarmen txikitu delako, 2008an 2,57 lagunekoa izatetik 2016an 2,37 lagunekoa izatera.

Autonomia erkidegoen araberako rankingeko posiziorik txarrenen artean, hauexek daude bi aldagaietan (familiako errenta eta pertsonako errenta), aurreko urteetan bezala: Extremadura, Murtzia, Kanariar Uharteak, Andaluzia eta Gaztela-Mantxa.

1.2.2. Gabezia materiala

IV.1.7. TAULA. ZAILTASUNAK DITUZTEN ETA/EDO HAINBAT GASTU EGITERIK EZ DUTEN FAMILIEN EHUNEKOA. EAE-ESTATUKO BATEZ BESTEKOEN ERKAKETA. ALDAKUNTZA PUNTU PORTZENTUALETAN.

	URTEAN GUTXIENEZ ASTEBETEKO OPORRALDIA EZIN HAR DEZAKETENAK		HILAREN AZKENETARA IRISTEKO ZAILTASUNAK		ATZERAPENAK ETXEBIZITZA NAGUSIAREN ORDAINKETETAN*		EZUSTEKO GASTUEI AURRE EGITEKO EZINTASUNA	
	ESTATUA	EAE	ESTATUA	EAE	ESTATUA	EAE	ESTATUA	EAE
2008	34,5	15,8	60,9	44,0	6,0	3,5	29,9	17,7
2013	45,8	26,0	65,0	50,4	9,3	5,0	41,0	24,2
2014	45,0	24,6	66,4	50,4	10,2	4,4	42,4	20,5
2015	40,6	20,3	63,1	42,1	9,4	4,6	39,4	18,5
2016	**39,5**	**22,4**	**60,9**	**39,9**	**8,4**	**5,3**	**38,1**	**19,0**
15-16 ald.	-1,1	2,1	-2,2	-2,2	-1,0	0,7	-1,3	0,5
08-16 ald.	5,0	6,6	0,0	-4,1	2,4	1,8	8,2	1,3

** Atzerapenak izan dituzte etxebizitza nagusiarekin loturiko gastuen ordainketetan (hipoteka edo alokairua, gasaren ordainagiria, erkidegoa....) azken 12 hileetan.*
Iturria: EIN. Bizi baldintzei buruzko inkesta.

Etxeetako bizi-baldintzen eta errenta-mailaren beste adierazle bat hil-bukaerara heltzeko zailtasunak dituzten familien portzentajea da: gure erkidegoan familien %39,9 zegoen egoera horretan 2016an, eta portzentaje hori aurreko urtekoa baino 2,2 puntu gutxiago da. Estatuko batez bestekoa %60,9 da, eta 2,2 puntu gutxitu da 2015eko datuen aldean. 2008ko egoerarekin erkatuta, zailtasunak %4,1 egin du behera EAEn eta eutsi egin zaio Estatuan.

Horrez gain, kontuan izan behar da ezen, 2016an, hil bukaerara iristeko zailtasunak dituztela dioten euskal familien %39,9tik %5,8k "zailtasun handiak" ditu (%10ek 2015ean), % 8,6k "zailtasunak" soilik eta gainerako %25,5ak "nolabaiteko zailtasunak". Banaketa hori estatukoaren antzekoa da, baina zailtasun gehien dituztenen portzentajea handiagoa da, %15,3, hain zuzen ere.

Inkestan, halaber, gastu batzuk ordaindu ezin dituzten familien portzentajea kalkulatzen dute[4]: 2016an, EAEko etxeen %22,4an ezin zuten urtean astebeteko oporraldirik hartu (estatuan %39,5), eta etxeen %19an ezin zituzten ustekabeko gastuak ordaindu (estatuko batez bestekoa %38,1 da). Ratio horrek ehuneko 5 puntu egin du gora 2015arekin alderatuta.

Europan, 2016an (EUROSTATeko datuak), familien %37,4k ezin zituen ustekabeko gastuak ordaindu, %33,1ek ezin zuen astebeteko oporraldia hartu eta %9,1k hil-bukaera heltzeko arazo handiak zituen. Alde handiak zeuden herrialdeen artean, eta honako hauek nabarmentzen ziren bizi-mailaren beherakada azterturiko adierazle guztietan: Errumania, Grezia, Kroazia, Zipre, Bulgaria, Hungaria, Lituania eta Letonia (horietan guztietan, uste gabeko gastuei aurre egiteko zailtasunak dituzten familien %50 edo gehiago ageri dira, esaterako).

Ildo beretik, EUROSTATek "*gabezia materialaren indizea*" definitu du, hain zuzen ere 1.1.2. atalean aipaturiko gastu bederatzi gastu kontzeptu eta ekipamenduen zerrendatik gutxienez hiru eskuratzerik ez duten familietako pertsonaien ehunekoak emana. Atal horretan, gabezia material "larria" aipatzen da (9tik 4 gutxienez, ikusi 2. orri-oina). Definizio horren arabera, EBko populazioaren %15,7k ezin zituen baliabideok eskuratu 2016an (ez dugu EBren 2015eko batez

[4] *Kapitulu honetako 2. orri-oinean aipaturiko aldagaiak aztertzen dira, EUROSTATen metodologiaren arabera: fakturak garaiz ezin ordaintzea, etxebizitza tenperatura egokian ezin mantentzea, ustekabeko gastuei ezin aurre egitea, haragia, arraina edo proteina baliokideak bi egunean behin ezin jatea, urtean astebeteko oporraz ezin gozatzea, autoa, garbigailua, koloreko telebista edo telefonoa (mugikorrak barne) ezin edukitzea.*

besteko daturik, 20135ean baino %1,3 gutxiago), eta alde handiak daude herrialdeen artean, gehienbat Europako kide berrien eta gainerako kideen artean.

Alde batetik, familien %3-6 baino ez zegoen egoera horretan Suedian eta Luxenburgon, eta %10 baino gutxiago Danimarkan, Alemanian eta Austrian. Gabezia materialaren indizea, ordea, %46,9koa zen Bulgarian eta %40,4koa Errumanian. Espainiak, iturri horren arabera, %15,2ko ratioa du.

EINek, Bizi-baldintzei buruzko Inkestako zati baten gisa, antzeko adierazlea kalkulatzen du autonomia erkidegoentzat. Horren arabera, 2016an, EAEk %9,8ko gabezia-indizea izango luke, eta Estatuko batez bestekoa %14,4koa izango litzateke. EUROSTATen indizean, berriz, %15,7koa ageri da. Beraz, bi adierazleak konpagarritzat jo litezke -Europako eta Espainiakoa-, baina zuhurtziaz hartu beharrekoak dira.

Gabeziaren beste adierazle bat dago, "pobrezia energetikoa" deritzona. Etxebizitza batean pobrezia energetikoa dute gai ez direnean etxeko beharrak asetzeko energia nahikoa ordaintzeko eta/edo etxebizitzako energia-faktura ordaintzeko diru-sarreren parte handi bat erabili behar dutenean. [5] Euskal Autonomia Erkidegoan gertakari nahiko berria da, baina krisiaren ondorioz gaur-gaurkoa. Europan, ordea, "fuel poverty" esaten zaiona agenda politikoan dute aspaldidanik hainbat herrialdetan, Erresuma Batuan, Irlandan eta Belgikan, esate baterako.

IV.1.8. TAULA. EB-KO FAMILIEN GABEZIA-ADIERAZLE NAGUSIAK. EAE-REKIKO ERKAKETA. 2015-2016.

	EZUSTEKO GASTUEI AURRE EGITEKO EZINTASUNA		GABEZIA-MATERIALAREN INDIZEA		ETXEA TENPERATURA EGOKIAN IZATEKO EZINTASUNA	
	2015	2016	2015	2016	2015	2016
28KO EB	37,4	:	17,0	15,7	9,4	8,7
EBB	35,1	:	15,5	14,3	9,4	:
BELGIKA	25,7	25,9	11,6	12,3	5,2	4,8
BULGARIA	53,4	54,2	49,1	46,9	39,2	39,2
TXEKIAR ERREP.	36,0	32,1	13,4	11,8	5,0	3,8
DANIMARKA	26,5	24,5	8,0	6,5	3,6	2,7
ALEMANIA	30,4	30,0	10,7	9,7	4,1	3,7
ESTONIA	36,7	31,6	12,8	11,7	2,0	2,7
IRLANDA	50,0	45,3	19,4	15,5	9,0	5,8
GREZIA	53,4	53,6	40,7	39,0	29,2	29,1
ESPAINIA	39,8	38,7	16,5	15,2	10,6	10,1
FRANTZIA	32,8	31,8	11,1	11,0	5,5	5,0
KROAZIA	59,8	57,7	32,8	30,1	9,9	9,3
ITALIA	39,9	40,4	22,6	20,6	17,0	16,1
ZIPRE	60,5	56,6	34,7	29,9	28,3	24,3
LETONIA	60,4	60,0	29,7	26,4	14,5	10,6
LITUANIA	53,2	53,2	27,3	26,	31,1	29,3
LUXENBURGO	23,0	21,9	4,8	5,9	0,9	1,7
HUNGARIA	72,2	50,8	34,8	29,6	9,6	9,2
MALTA	21,1	20,8	15,2	10,3	13,9	6,8
HERBEHEREAK	22,9	22,5	8,1	6,9	2,9	2,6
AUSTRIA	22,6	22,6	8,2	8,4	2,6	2,7
POLONIA	42,3	37,9	16,8	15,0	7,5	7,1
PORTUGAL	40,7	38,3	21,6	19,5	23,8	22,5
ERRUMANIA	51,4	54,5	39,5	40,4	13,1	13,8
ESLOVENIA	42,9	41,7	14,7	13,5	5,6	4,8
ESLOVAKIA	36,7	37,9	20,3	19,1	5,8	5,1
FINLANDIA	28,4	29,4	7,7	8,3	1,7	1,7
SUEDIA	19,8	20,7	4,0	3,7	1,2	2,6
ERRESUMA BATUA	38,4	38,0	14,1	12,5	7,8	6,1
EAE	**18,5**	**19,0**	**9,3***	**9,8***	**7,7**	**7,3**

Iturria: EINen eta Eurostaten datuekin eginikoa.
**Zenbatespena da, zenbait desberdintasun baitago metodologiaren aldetik.*

Europan, EUROSTATen datuen arabera, familien %8,7k ezin zuen 2016an etxea tenperatura egokian mantendu, eta tasa horrek %10aren inguruan egonkor eutsi zion azken urteetan, beheranzko nolabaiteko joera izanik. Iturri horren arabera, balio-aniztasun handia du arazoak: oso balio handiak dira Bulgarian (%39,2) edo Grezian (%29,1) esaterako, eta %2aren inguruko indizeak Finlandian, Luxenburgon. Herbehereetan eta Suedian. Estatuan, EBko batez bestekoa baino pixka bat handiagoa da arazo horren intzidentzia, %10,1ekoa hain zuzen ere.

Bestalde, EINen Bizi-baldintzen Inkestak erakusten duenez, 2016an, euskal familien %7,3k ezin zuen etxea tenperatura egokian mantendu, eta Estatu mailan, berriz, %10,2ko tasa zegoen. Hona hemen erkidego kaltetuenak: Valentziako Erkidegoa (%20,9) eta Murtzia (familien %19,3); beste muturrean, berriz, Aragoi, Gaztela-Mantxa eta Nafarroan daude (%3,5, %3,6 eta %4,3 hurrenez hurren). Aurreko urtearen aldean, 4 hamarren hobetu da EAEko datua. Estatuko batez

[5] *Horri buruzko argibide gehiago nahi izanez gero, jo beza irakurleak Memoria honen 2014ko ediziora, monografikoki aztertzen baitu gaia.*

bestekoa, berriz, 5 hamarren da. Eta 2008an gertaturikoa kontuan hartzen badugu, gabezia horren intzidentziak 3,9 egin zuen gora EAEn eta 4 Estatuko batez bestekoan.

Azkenik, 2015eko Bizi-baldintzei buruzko Inkestako berariazko modulu gisa, badakigu, autonomia erkidegoen arabera, zenbait pertsona heldu ez zirela joan azken urtean kultur eta kirol ekitaldietara, hain zuzen horretarako dirurik ez dutelako. Beraz, horrek agerian uzten du zein muga ekonomikok eragiten dien aisialdiari eta kulturari (ez dugu beste urte batzuetako horrelako informaziorik. Hala, 2015ean, EAEko 16 urtetik gorakoen %8,5ek ez zuen dirurik zinemara joateko, %11,8k antzerkira edota kontzertuetara joateko, %7,2k kultur intereseko tokietara eta %6,6 ez zen kirol ekitaldietara joan zio beragatik. Horiek ratio guztiak Estatuko batez bestekoaren azpitik daude, eta autonomia erkidegoetako txikienen artean. Hala eta guztiz ere, zalantzarik gabe, gurea bezalako gizartean "gutxieneko"-tzat jo daitekeen ongizate mailaren beste absentzia bat islatzen dute. Esaterako, EAEko 16 urtetik gorakoen %20 aldian-aldian joaten da horrelako ekitaldietara (eta %25eraino kirol ekitaldietan)[6].

IV.1.9. TAULA. POBREZIA ENERGETIKOA ESTATUAN: ETXEA TENPERATURA EGOKIAN IZATEKO MODURIK EZ DUTEN FAMILIEN EHUNEKOA. 2008-2016.

	2008	2015	2016
ESTATUA, GUZT.	6,2	10,7	10,2
ANDALUZIA	8,3	12,1	11,8
ARAGOI	2,8	5,1	3,5
ASTURIAS	4,2	13,9	10,7
U. BALEARRAK	5,1	7,5	7,1
U. KANARIARRAK	3,7	7,8	6,9
KANTABRIA	2,5	7,9	17,4
GAZTELA-MANTXA	3,6	5,9	3,6
GAZTELA-LEON	4,7	14,7	9,9
KATALUNIA	5,4	8,7	9,1
VALENTZIAKO E.	6,0	17,1	20,9
EXTREMADURA	8,8	9,4	5,5
GALIZIA	9,4	15,4	9,6
MADRIL	7,3	8,8	6,9
MURTZIA	9,8	13,5	19,3
NAFARROA	2,8	2,3	4,3
EAE	**3,4**	**7,7**	**7,3**
ERRIOXA	4,1	7,3	7,9
CEUTA	9,8	22,4	1,8
MELILLA	17,7	17,7	18,7

Iturria. Bizi baldintzei buruzko inkesta.

1.3. 2016KO PGDI: DESBERDINTASUN-ADIERAZLEAK

IV.1.10. TAULA. EUSKO JAURLARITZAREN PGDI-REN OINARRIZKO ADIERAZLEEN BILAKAERA

		1996	2000	2004	2008	2012	2014	2016
MANTENTZE POBREZIA	POBREZIA ARRISKUA	13,3	7,9	5,6	5,7	7,3	8,2	7,1
	ONGIZATERIK EZA	36,3	24,7	21,9	16,4	19,9	21,9	18,4
METATZE POBREZIA	POBREZIA ARRISKUA	3,6	4,2	3,6	1,5	1,4	2,0	1,6
	ONGIZATERIK EZA	25,3	17,2	19,4	18,6	17,5	20,0	17,0
EGIAZKO POBREZIA	POBREZIA ARRISKUA	8,7	5,1	4,5	4,2	5,3	5,9	5,7
	ONGIZATERIK EZA	16,5	11,0	11,2	8,2	10,1	11,5	10,7

Iturria. EUSKO JAURLARITZA. 2016ko PGDI.

Eusko Jaurlaritzak bi urterik behin egiten du "*Pobreziari eta Gizarte Desberdintasunei buruzko Inkesta*" (PGDI), eta horri esker, pobreziak gure gizartean duen intzidentzia, horri eragiten dioten arrisku faktoreak eta banaketa desberdina zein den jakiteko modua dago. 2016ko inkestaren emaitza nagusia EAEko pobreziaren arriskua eta prekaritatearen intzidentziaren beherakada da 2014aren aldean, baita eraginpeko lagunen kopuruarena ere. Hala ere, oraindik ez dira krisiaren aurreko ongizate mailak berreskuratu[7].

IV.1.11 TAULA. DESBERDINTASUN ADIERAZLE NAGUSIEN BILAKAERA EAE-N

	GINI INDIZEA	S80/S20 RATIOA	% POBREENEN %10AREN DIRU-SAR.
1996	28,0	4,2	3,68
2000	27,3	4,1	3,55
2004	26,0	3,9	3,76
2008	25,2	3,6	3,88
2012	25,3	3,7	3,75
2014	27,1	4,2	3,41
2016	**25,8**	**3,9**	**3,48**

Iturria: PGDI 2016.

EAEko 2017ko Memoria Sozioekonomikoaren edizio honen ardatza estatistika-eragiketa honen atala izango da,

[6] *Adierazleari buruzko argibide gehiago nahi ianez gero, begiratu 2016ko Memoria Sozioekonomikoan.*

[7] *2016ko Memoria Sozioekonomikoan aztertu dira 2016ko PGDIren emaitza nagusiak.*

desberdintasunaren adierazle nagusien bilakaera aztertzeko, betiere errentaren banaketaren azterketa abiapuntu hartuta. Halaber, azterketa honen emaitzak EUROSTATen zenbakiekin erkatuko dira (EB-SILC). Hala, 2015eko Memoriak dakarren 2014ko informazioa eguneratzen da.

2016ko PGDIk nabarmentzen duenez, oro har, krisiarekin batera, gora egin zuen nabarmen desberdintasunak 2012-2014ko aldian, eta 2014 eta 2016 bitartean, enpleguaren berreskurapena eta talderik pobreenen migrazioa lagungarriak izan dira gorako bide hori mozteko.

Lehenik eta behin, beste adierazleen artean, Gini-ren indizea aztertzen da. Ekonomia bateko kideen edo familien dirusarreren banaketaren eta berdintasunezko banaketaren artean dagoen aldea neurtzen du, halako moldez non 0 indizeak berdintasun perfektua adierazten baitu, eta 100eko indizeak, berriz, berdintasunik ez perfektua.

Indizeak beste norabide bat hartu du EAEn azken bi urtekoan: 2012ra arte etengabe behera egin ondoren, 1996ko 28,0tik 2008ko 25,2ra eta 25,3ra 2012an, gora egin zuen 2014an 27,1eraino. 2016an, aldiz, 25,8raino murriztu da koefiziente hori, eta beraz, 2008-2012ko aldiko zenbakiak baino handiagoak ez diren mailetan kokatu da.

Europar Batasunean, 2008-2014ko aldian, egonkor eutsi zion oro har desberdintasunak (30,9ko batez bestekoa ez zen aldatu), halako moldez non 12 herrialde kide gutxiago izan baitira, baina berdin eutsi zion edo hazi egin zen gainerakoetan. Eurogunean 4 hamarren hazi zen, 30,9raino, eta Espainian nabarmen egin zuen gora (%2,8), 34,7raino. 2016an, berriz ere antzekoa da EBko batez bestekoa, Espainian bezala. Gainerako herrialdeei dagokienez, EBko herrialde gehienetan (16) behera egin du koefizienteak. Hona hemen ratiorik handienak (desberdintasunik handiena): Bulgaria (38,3), Lituania (37,7), Errumania eta Espainia (bietan 34,7). Tasarik txikienak, berriz, hauexetan: Eslovakian (24,3), Eslovenian (24,4), Txekiar Errepublikan (25,1) eta Finlandian (25,4). Ikusten dugunez, beraz, EAEko datua EBko txikienetakoa da, Finlandiakotik oso gertu.

Bigarrenik, azaldutako joera antzekoa da baldin eta kontuan hartzen bada EAEko %20 aberatsenen sarrerak eta %20 pobreenen sarrerak erlazionatzen dituen zatidura (S80/S20).

IV.1.12. TAULA. DESBERDINTASUN ADIERAZLEEN BILAKAERA EB-N: EAE-RAKO PGDI-REN EMAITZEKIKO ERKAKETA

	GINI KOEFIZIENTEA			S80/S20 RATIOA		
	2008	2014	2016	2008	2014	2016
28KO EB	30,9	30,9	30,8	5,0	5,2	5,2
EURO GUNEA	30,5	30,9	30,7	4,9	5,2	5,2
BELGIKA	27,5	25,9	26,3	4,1	3,8	3,8
BULGARIA	35,9	35,4	38,3	6,5	6,8	7,9
TXEKIAR ERREP.	24,7	25,1	25,1	3,4	3,5	3,5
DANIMARKA	25,1	27,7	27,7	3,6	4,1	4,1
ALEMANIA	30,2	30,7	29,5	4,8	5,1	4,6
ESTONIA	30,9	35,6	32,7	5,0	6,5	5,6
IRLANDA	29,9	31,1	29,5	4,4	4,9	4,4
GREZIA	33,4	34,5	34,3	5,9	6,5	6,6
ESPAINIA	31,9	34,7	34.7	5,7	6,8	6,6
FRANTZIA	29,8	29,2	29.3	4,4	4,3	4,3
KROAZIA	28,0	30,2	29,8	4,5	5,1	5,0
ITALIA	31,0	32,4	33,1	5,1	5,8	6,3
ZIPRE	29,0	34,8	32,1	4,3	5,4	4,9
LETONIA	37,5	35,5	34,5	7,3	6,5	6,2
LITUANIA	34,5	35,0	37,7	6,1	6,1	7,1
LUXENBURGO	27,7	28,7	31,0	4,1	4,4	5,0
HUNGARIA	25,2	28,6	28,2	3,6	4,3	4,3
MALTA	28,1	27,7	28,5	4,3	4,0	4,2
HERBEHEREAK	27,6	26,2	26,9	4,0	3,8	3,9
AUSTRIA	27,7	27,6	27,2	4,2	4,1	4,1
POLONIA	32,0	30,8	29,8	5,1	4,9	4,8
PORTUGAL	35,8	34,5	33,9	6,1	6,2	5,9
ERRUMANIA	36,0	35,0	34,7	7,0	7,2	7,2
ESLOVENIA	23,4	25,0	24,4	3,4	3,7	3,6
ESLOVAKIA	23,7	26,1	24,3	3,4	3,9	3,6
FINLANDIA	26,3	25,6	25,4	3,8	3,6	3,6
SUEDIA	24,0	25,4	27,6	3,5	3,9	4,3
ERRESUMA BATUA	33,9	31,6	31,5	5,6	5,1	5,1
EAE	**25,2**	**27,1**	**25,8**	**3,6**	**4,2**	**3,9**

Iturria: Geuk egina, EUROSTATen eta EUSKO JAURLARITZAREN datuekin. PGDI 2016.

Kasu honetan, behera egin zuen indizeak 1996tik 2008ra, 4,2tik 3,6ra hain zuzen, baina pixka bat gora egin zuen 2012an, 3,7raino, eta nabarmen 2014an: 4,2raino. 2016an, 3,9ra jaitsi da ratioa, 2004an ikusitako maila bera. Berriz ere 2008-2012ko kopuruak gainditzen dira.

EBn, berriz ere nahikoa egonkor eutsi dio batez besteko datuak krisialdiko urteetan, eta bi hamarren baino ez da hazi; izan ere, ez da aldatu azken urteetan, 5,2aren inguruan kokatuta. Bulgaria, Errumania eta Lituania dira 7tik gorako tasak

dituztenak eta, beraz, egoera txarrenean daudenak (desberdintasunik handiena errentaren banaketan), eta ondoren Espainia eta Grezia, 6,6 bietan. Espainiako egoerak nabarmen egin zuen okerrera 2008 eta 2014 bitartean (ratioa 1,1 puntu hazita), baina bi hamarrenetan hobetu da azken bi urtean. Bestalde, tasarik txikienak hauexetan daude: Txekiar Errepublikan (3,5) eta Eslovenian, Eslovakian eta Finlandian, hiruretan 3,6. EAE (3,9arekin) oso egoera onean dago, Herbeheretakoaren edo Belgikakoaren parean.

Bestalde, dinamikarik kezkagarriena, 2014ra arte, EAEn baliabide gutxien dituzten pertsonen %10ari dagokion biztanleriaren guztizko diru-sarreren zatiaren adierazlea da. 2000ko %3,55etik 2008ko %3,8ra igo ondoren, adierazleak behera egin zuen 2012an, %3,75eraino, eta %3,41eraino 2014an. 2016an, berriz, %3,48raino igo da, eta 2014an gertatu zen bezala, 1996-2012ko datuen azpitik eutsi dio.

Bilakaera hori Europar Batasunean gertatu denarekin erkatuta ikusiko dugunez, azken hamarkadetan tasak egonkor eutsi dio %3aren inguruan EBn, baina behera egin zuen 2014an, %2,7raino, eta harrezkero berreskuratu egin du jaitsiera horren zati bat, 2016an 2,8 izateraino. Espainian %3aren inguruan zegoen 2000an, arestian esan dugunez, baina harrezkero nabarmen egin du behera 2014ko 1,8raino. 2016an, berriz, bi harremanetan hazi da, 2,0ko ratioraino, EAEkoaren oso azpitik (3,5).

Berriz ere PGDIri helduta, honekin dago lotuta EAEn adierazle honetan izandako okerrerako joera: biztanleriaren dezilen arabera oso bilakaera desberdinak izatea diru-sarrerak batezbesteko diru-sarreren mailarekiko. Hala, per capita batez besteko sarrera korronteak %3-%6 handiagoak dira 2016an 2008an baino baliabide gutxiago dituen %80 horren barruan (3-10 dezilak), prekarioena den %20aren dinamika (1 eta 2 dezilak) okerragoa da. Errenten bigarren dezilean, sarrera arruntak %0,7 handiagoak baino ez dira 2016an 2008aren aldean. %10 pobreenen artean, berriz, %7,2ko jaitsiera izan da.

IV.1.2. GRAFIKOA. POBREENA DEN %10AK GUZTIZKO DIRU-SARRERETAN DUEN PARTAIDETZAREN EHUNEKOAREN BILAKAERA, 1996-2014



Iturria: EUSKO JAURLARITZAREN eta EUSTATen datuekin egina

EAEko pobreenen %20aren sarreren bilakaera hori gertatu da 2008 eta 2014 bitartean sarreretan izandako jaitsieren ondorioz, eta bereziki 2012 eta 2014 bitartean.

Dinamikarik berriak erakusten duenez (2014 eta 2016 bitartean) ordea, gorako bidean jarri dira sarrera arruntak biztanleria pobreenaren deziletan, %7,2 eta %9,9 bitarteko igoerekin %30 pobreenen sarreretan (1, 2 eta 3 dezilak), gainerako errenta-taldeetan izandakoen gainetik.

IV.1.13. TAULA. PER CAPITA BATEZ BESTEKO DIRU-SARRERA BALIOKIDEAK DIRU-SARREN DEZILEN ARABERA (HILEKO DIRU-SARRERA GARBI KORRONTEAK). EAE, 20082016KO ALDIA.

	2008	2012	2014	2016	Ald. % 2014-2016	Ald. % 2008-2016
%1-10 pobreen.(D1)	575	564	498	534	7,2	-7,2
%10-%20 (D2)	820	818	753	826	8,7	0,7
%20-%30 (D3)	973	980	930	1.022	9,9	5,0
%30-%40 (D4)	1.137	1.147	1.108	1.181	6,7	3,9
%40-%50 (D5)	1.289	1.307	1.276	1.345	5,5	4,4
%50-%60 (D6)	1.438	1.474	1.441	1.518	5,3	5,5
%60-%70 (D7)	1.607	1.650	1.631	1.704	4,5	6,0
%70-%80 (D8)	1.813	1.883	1.857	1.898	2,2	4,7
%80-%90 (D9)	2.094	2.191	2.187	2.215	1,3	5,7
%10 ABERATS (D10)	2.999	2.943	3.032	3.098	2,2	3,2
BATEZ BESTEKOA	**1.475**	**1.495**	**1.471**	**1.534**	**4,3**	**4,0**

Iturria: EUSKO JAURLARITZA. PGDI 2016.

1.4. BIZITEGI BAZTERKETA LARRIA: ETXERIK GABEKO PERTSONAK

Nahiz eta fenomeno berria ez den, krisi ekonomikoak gaurkotasuneko gaia bihurtu du bizitegi-bazterketa larria, baita horrek eraginpeko pertsonen herritartasun eskubideetan duen eragina ere. Europar Batasunak onartu duenez, lehentasunezko arazoa da pobreziaren eta gizarte bazterketaren kontrako borrokarekin loturiko agenda politikoan Europako 2020 Estrategiaren baitan. Beren beregi aipatzen dira "etxerik gabekoak" eta etxebizitzaren gaineko bazterketa Europan politika publikoak sortzeko lehentasunezko esku-hartzearen ardatzetako bat.

IV.1.14. TAULA. BIZITEGI BAZTERKETA LARRIAN DAUDEN PERTSONEN EZAUGARRI DEMOGRAFIKO NAGUSIEN BILAKAERA EAE-N. 2012-2016KO BILAKAERA.

		2012		2014		2016	
		K	%*	K	%*	K	%*
SEXUA	EMAKUMEAK	224	17,1	271	21,9	273	21,5
	GIZONAK	1.089	82,9	965	78,1	995	78,5
ADINA	> 25 URTE	350	26,6	294	23,8	261	20,6
	25 – 44 URTE	579	44,1	538	43,5	512	40,4
	45 URTE ETA +	384	29,2	404	32,7	795	39,0
NAZIONALITATEA	ESPAINIARRA	471	35,9	518	41,9	526	41,5
	ATZERRITARRA	816	62,1	676	54,7	742	58,5
GUZTIRA		**1.313**	**100,0**	**1.236**	**100,0**	**1.268**	**100,0**

Iturria: EUSKO JAURLARITZA. EAEn bizitegi bazterketa larrian dauden pertsonen egoerari buruzko III. Azterlana. Geuk egina.
**Zenbaketaren gauean galdetegiari erantzun zioten pertsona guztiekiko kalkulatu dira emaitzak.*

Hona hemen erakundeek bizitegi-bazterketa larriari aurre egiteko duten muga nagusietako bat: fenomeno horrek oro har herritarrengan duen intzidentziari buruzko informazioa bildu eta talde horren ezaugarriak zein diren jakitea ahalbidetzen duten estatistikak eta azterlan espezifikoak ez izatea.

EAEn bizi diren eta bizitegi bazterketa larria bizi duten pertsonen kopurua zehazteko eta haien ezaugarri soziodemografiko garrantzitsuenak, bizi-baldintzak eta bizi-ibilbideak zein diren jakiteko, Eusko Jaurlaritzak 2016an "EAEn bizitegi bazterketa larria bizi duten pertsonen inguruko III. azterlana" egin zuen. Horri esker, aurreko bi azterlanetako emaitzak eguneratu ahal izan dira, 2012an eta 2014an eginikoak, eta Memoria honen 2015eko edizioen aurkeztuak.

Ikerketa hori egiteko, etxerik gabeko pertsonak zenbatu ziren aldi berean 2016ko urriaren 26tik 27rako gauean EAEko 24 udalerritan (aurrekoa 10 udalerritan egin zen), baita bizitegi bazterketa larrian daudenentzako EAEko bizitegi guztietan ere. Berariaz etxerik gabe daudenentzat edo aldi batez aterpetxeetan edo etxerik gabekoei osatuta emateko beste toki batzuetan dauden pertsonentzat dira kontaketa horiek, eta 80ko hamarkadatik hona egin izan dira munduko hiri handi askotan. Izan ere, baliozko metodologia dira une jakin batean jakiteko zenbat pertsona dauden egoera horretan eta zein diren haien ezaugarriak.

IV.1.3. GRAFIKOA. EAE-KO HIRIBURUETAN ETXERIK GABE AURKITURIKO PERTSONEN KOPURUAREN BILAKAERA.



Iturria: EUSKO JAURLARITZA.
Bizitegi bazterketa larrian dauden pertsonen egoerari buruzko III. azterlana.

Zenbaketa egin zen gauean (EAEko administrazio guztien eta gizarte ekintzako hirugarren sektoreko erakundeen laguntzaz egina eta mila boluntariok baino gehiagok parte hartuta), 2.009 lagun zeuden bizitegi bazterketa larrian. 2014an, berriz, 1.836 ziren. Horietatik %13,6 kontsideraturiko 24 udalerrietako bateko kaleetan zegoen, eta gainerako %86,4ak haientzako bizitegietan zuten ostatu. Hots, udalerri partaideetako 1.000 biztanleko 0,194 lagunek gaua kalean igarotzen du, 0,794k ostatuetan egiten du lo.

EAEko hiriburuetako kaleko (bertan dago 2016an zenbaturiko pertonen %70) zenbaketaren bilakaera aztertuz gero ikusten denez, honako joera erakusten dute emaitzek: Bilbon beherako joera ageri da (112 2016an, bi urte lehenago baino 29 gutxiago) eta nolabait eusten zaio Gasteizen (30 pertsona zenbatu ziren 2016an). Donostian, berriz, nahikoa jaitsiera handia izan zen (48 pertsona zenbatuta; 2014an, aldiz, 89 izan ziren). Ostatuetan zenbaturiko pertsonei dagokienez, horren kopuruak gora egin izan du 2012az geroz. Haatik, esan beharra dago ikusitako hazkundea gertatu dela neurri batean zentroen zentsua handitu delako eta, beraz, ezin atera daiteke ondorio handiagorik.

Zenbaturiko pertsona guztietatik, galdetegi bati erantzun zioten 1.268 pertsonei buruzko informazio xehatua dugu. Galdetegiari esker, taldea ezaugarritu eta aurreko zenbaketen aldean azterturiko zenbait aldagaitan izandako bilakaera azter daiteke (beste batzuetan ezin izan da konparaziozko baloraziorik egin):

IV.1.4. GRAFIKOA. ETXERIK GABEKO PERTSONEN BANAKETAREN BILAKAERA ADIN-TALDEAREN ARABERA (2012-2016).



Iturria: EUSKO JAURLARITZA.
Bizitegi bazterketa larrian dauden pertsonen egoerari buruzko III. azterlana.

- 2016ko inkestaren arabera, %21aren inguruan eusten zaio etxerik gabeko emakumeen proportzioari, baina presentzia txikiagoa dago kalean (%8) eta aterpetxeetan (%15). Haatik, 2012tik hona, gora egin du emakumeek bestelako baliabide mota batzuetan (aldi baterako ostatuak, babesturiko etxebizitzak…) izandako pisu erlatiboak, %20tik %29ra.
- Etxerik gabeko pertsonen adinari dagokionez ikusten denez, jaitsiera gertatu da 25 urtetik beherakoen presentzian (2012an %27 ziren eta 2016an, berriz, %21eko proportzioa dago). 45 urte eta gehiagokoen proportzioak, ordea, %29tik %39ra egin du gora.
- Ikasketak mailak apenas izan du aldaketarik ondoz ondoko zenbaketetan. Ia %60k ez du ikasketarik edo gehienez oinarrizko ikasketak lortu ditu (%58k 2016an). %34k, berriz, bigarren mailako ikasketak ditu, eta %5ek besterik ez goi-mailako titulazioak.
- Behera egin du pixka bat atzerritar jatorriko pertsonen pisu erlatiboak (%57koa zen 2016an, 2012an baino 7 puntu gutxiago), eta batez ere kalean daudenen artean (%78tik %60ra). Ez da aldaketa handirik ikusten bizitegi bazterketan dauden atzerritarren jatorriaren aldetik, honako hau izan ezik: nolabaiteko jaitsiera izan da magrebtarren artean, oraindik ere jatorriko eskualde nagusia bada ere (%51 2016an, eta %57 2012an). Bigarrenik, atzerritarren %25 Afrikako beste herrialde batzuetakoa zen 2016an, eta ondoren Europako beste herrialde batzuetakoak (%13).

IV.1.5. GRAFIKOA. PERTSONEN BANAKETAREN BILAKAERA ETXERIK GABE EMANDAKO DENBORAREN ARABERA. EAE, 2012-2016



Iturria: EUSKO JAURLARITZA.
Bizitegi bazterketa larrian dauden pertsonen egoerari buruzko III. azterlana.

Azken finean, azaldutako aldagaiak kontuan izanik, hona hemen EAEn etxerik gabe ikusitako pertsonen profila 2016an, funtsean: 45 urtetik gorako gizonezkoa eta espainiar nazionalitatekoa (kasuen %22,1ean), eta bigarrenik ere gizonezkoa izango litzateke, baina gazteagoa (30 urtetik beherakoa) eta atzerritar nazionalitatekoa (kasuen

%20,8an). Eta 2012aren aldean, arestian esana dugunez, nolabaiteko zahartze-prozesua antzematen da talde horretan, atzerritar jatorriko biztanleriaren pisuaren beherakadarekin batera.

- Bestalde, 2012tik ez da aldatu osasunari buruzko irudipena: ia %40k dio bere osasuna erdipurdikoa, txarra edo oso txarra dela. Horrez gain, inkestaturiko pertsonen %40k inguru dio osasun arazo larriak edo kronikoak dituela. %7k, berriz, tratamendu medikurik jasotzen ez duela dio. Buruko gaitzak dira prebalentzia handiena dutenak (%15,8), eta ondoren hepatitisa edo VIH/hiesa (%9,3) eta arnasa-aparatuaren gaixotasunak (%9,1).
- Etxerik ez dutenen egoeraren iraupena dela-eta, bilakaeraren datuek agerian uzten dutenez, igoera izan da etxerik gabekoen ibilbide luzeetan: inkestaturiko pertsonen %28k 5 urte edo gehiago daramatza etxerik gabe, 2012an baino ehuneko 6 puntu gehiago. Hala ere, nahikoa egonkor eusten dio bizitegi bazterketan dauden pertsonen ehunekoak orain dela urtebete baino gutxiagoko tartean (%30).

IV.1.6. GRAFIKOA. EAE-KO ETXERIK GABEKO PERTSONAK. ENPLEGU-ADIERAZLEAK ETA TASA OROKORREKIKO ERKAKETA. 2016.



Iturria: EUSKO JAURLARITZA.
Bizitegi bazterketa larrian dauden pertsonen egoerari buruzko III. azterlana.
Oharra: biztanleria orokorrari buruzko datuak BJAri dagozkio (Eustat), IV-2016

- Etxerik gabeko pertsonen lan-egoerari dagokionez (ez dugu beste urte batzuetako daturik), langabezia-tasa %83,9an kokatzen da (%12,6 biztanleria osoan, 2016ko laugarren hiruhilekoko BJAren arabera), eta nahitaez pertsona horien erdia landuntzat jotzen diren (%49,8), %8k bakarrik du enplegu erregularra (biztanleria osoaren %49,3).

IV.1.15. TAULA. BIZITEGI BAZTERKETA LARRIAN DAUDENEK ETXERIK GABE EGOTEKO ZIOEI BURUZ DUTEN IRUDIPENA. EAE, SEXUAREN ARABERAKO DATUAK. ASKOTARIKO ERANTZUNAK.

	EMAKUMEAK	GIZONAK	GUZTIRA
EGITURAKO FAKTOREAK	48,4	58,5	56,3
LANEKO ARAZOAK	16,8	24,7	23,0
ARAZO EKONOMIKOAK	29,3	32,8	32,0
ARAZOAK BIZITEGIRAREKIN	12,8	6,4	7,8
"PAPERIK EZA"REKIN LOTURIKO ARAZOAK	6,2	13,2	11,7
MIGRAZIO-PROZESUEKIN LOTURIKO BESTE ARAZO BATZUK	1,8	8,2	6,9
ERAKUNDEEN ARLOKO FAKTOREAK	2,2	7,0	6,0
ERAKUNDE BATEK ABANDONATZEA EDO FAMILIA-SAREREK EZA	2,2	5,5	4,8
ARAZOAK HARRERA-SAREEKIN (ZEHAPENAK, EGOZKETAK…)	0,0	1,5	1,2
HARREMANEN ARLOKO FAKTOREAK	45,1	25,9	30,0
FAMILIA ARAZOAK EDO BIKOTEA HAUSTEAREKIN LOTURIKOAK (ETXEKO INDARKERIA BARNE)	45,1	25,9	30,0
FAKTORE PERTSONALAK	20,5	29,8	27,8
ARAZOAK ALKOHOLAREN EDO BESTE DROGA BATZUEN KONTSUMOAREKIN	12,8	19,6	18,1
NORBERAK HALA NAHITA	3,3	5,9	5,4
OSASUN ARAZOAK (ERITASUN KRONIKOAK, OSPITALERATZEA…)	7,7	6,8	7,0
JOKOAREKIN LOTURIKO ARAZOAK	0,4	1,5	1,3

Iturria: EUSKO JAURLARITZA. EAEn bizitegi bazterketa larria duten pertsonen egoerari buruzko III. azterlana.

- Sarrera-iturri nagusia laguntza publikoak dira (%53,8), eta DBE da neurri handiagoan jasotzen duten diru-laguntza (%21,5). Hala ere, %32k badu horien berri, baina ez ditu inoiz eskatu, eta %20k ez ditu ezagutzen. Beste sarrera-iturri batzuk dira honako hauen ondoriozkoak: lanekoak (%18,6), laguntzako gizarte-sarekoak eta hirugarren sektoreko erakundeetakoak (%14,7 kasu bietan). Aldi berean, %8,3k dio sarrera-iturri nagusia eskean ibiltzeari dagokiola (askotariko erantzuna). Horrez gain, etxerik gabeko 10 pertsonatik ia 2k ez du diru-sarrerarik, eta %63,9 pobrezia larrian dago (tasa orokorra %4,9 da).

- Bestalde, bizitegi bazterketak dakartzan kasuak aztertzean, faktore estrukturalak nagusi direla esan beharra dago (inkestaturikoen %56,3k aipatua, askotariko erantzunen galdetegian), laneko arazoak, ekonomikoak… eta arazo pertsonalak (%28) –adizioak, osasuna, etab.-. Nabarmentzekoak dira sexuaren arabera izandako diferentziak, non

harremanen gaineko faktoreak kausen %45,1 baitira emakumeen artean. Gizonezkoetan, berriz, ez dira %26ra iristen-..

- Bestalde, bizitegiaren aldetik duten egoera gorabehera, inkestaturiko 10 pertsonatik 8k gizarte loturei eusten diete, batez ere senideekin eta lagunekin (%81 eta %80 hurrenez hurren), %78k gizarte zerbitzuetako pertsonalarekin, %67k lankideekin, tailerreko lagunekin, etab., %46k auzokideekin eta %25ek bikotekidearekin. Haatik, ia heren batek (%28) dio eguneko zatirik handiena bakarrik igarotzen dutela, eta ratio hori %43raino igotzen da kalean bizi diren pertsonak bakarrik hartzen badira.
- Azkenik, kalean lo egiteak arrisku handiagoa dakarkie era guztietako irainak, lapurretak eta erasoak jasateko, eta emakumeak dira kaltetuenak. Sexuaren araberako diferentzia nagusiak sexu-erasoetan izaten dira: inkestaturiko emakumeen %20k jasan ditu horrelakoak. Galdetegiari erantzun zioten gizonen %2k besterik ez du horrelakorik pairatu, baina eraso fisikoak oro har nahikoa ugariak dira, emakumeen (%30) nahiz gizonen (%20) artean.

Bestalde, EINek 2016an "Etxerik gabekoei laguntzeko zentroei buruzko inkesta" egin zuen. Inkestaren helburua bitarteko horien ezaugarriak zein diren jakitea da; izan ere, erkidegoen arteko alde handiak erausten ditu batez besteko okupazioaren edo zentroko gastuaren aldetik. Aldi berean, 2014ko informazioa eguneratu ahal izan da (urte horretakoa da azken eragiketa.

Inkestatik ondoriozta daitekeenez, lehenik eta behin, EAEn 2.933 plaza zeuden eskuragarri etxerik gabekoei ostatua emateko erreferentziako urtean, Estatuko plaza guztien %15,3 (2014an baino %7,8 gehiago). Halaber, zentroen batez besteko okupazioa %80,9koa izan zen EAEn, %85,9raino igo zen Estatuan. 2014aren aldean, okupazioa EAEn baino gehiago hazi da proportzioan (+%6,6) Estatuan baino (+%4,1).

Autonomia erkidegoen arteko erkaketa eginda ikusten denez, gainezka daude gehienbat Ceutan eta Melillan, %100aren inguruko okupazioak baitaude, baina beste erkidego batzuetan ere bai, hala nola Katalunian, Madrilen edo Kanariar Uharteetan, %92tik gorako ratioekin. Hala ere, badirudi egoera pixka bat egonkorragoa dela 2014an baino: urte horretan %120tik gorako tasak gainditu zituzten Ceutan.

IV.1.16. TAULA. ETXERIK GABEKO PERTSONEI ARRETA EMATEKO ZENTROAK, AUTONOMIA ERKIDEGOEN ARABERA. ADIERAZLE NAGUSIAK. 2014-2016.

	PLAZAK		OKUPAZIOA (%)	
	2014	2016	2014	2016
ESTATUA, GUZTIRA	16.684	19.124	81,8	85,9
ANDALUZIA	1.545	1.808	70,2	84,6
ARAGOI	839	975	80,0	83,4
ASTURIAS	435	911	87,9	82,5
U. BALEARRAK	629	614	86,5	89,0
U. KANARIAR.	624	659	99,3	92,6
KANTABRIA	161	131	73,6	79,7
GAZTELA-MANTXA	741	971	67,0	70,8
GAZTELA-LEON	410	618	69,2	72,1
KATALUNIA	1.543	1.863	93,7	92,9
VALENTZIAKO E.	856	1.070	78,5	86,6
EXTREMADURA	125	164	80,0	90,2
GALIZIA	855	950	66,9	84,0
MADRIL	1.803	2.415	90,0	92,8
MURTZIA	654	804	54,8	91,3
NAFARROA	336	354	79,2	56,4
EAE	2.721	2.933	74,3	80,9
ERRIOXA	232	238	64,4	42,9
CEUTA	618	950	128,0	99,9
MELILLA	1.561	699	98,1	107,3

Iturria: EIN. Etxerik gabekoei laguntzeko zentroei buruzko inkesta.

1.5. FAMILIAK ETA LAN-BIZITZA, BIZITZA PERTSONALA ETA FAMILIA BATERATZEA

EAEko familia-sistemen tipologia asko aldatu da azken hamarkadetan, demografia, gizarte eta kultura prozesuen ondorioz. Aldaketa nabarmenen artean, hauek daude: etxe-moten aniztasun gehiago; batez besteko tamainaren murrizketa; aldaketa handiak etxe horietako erreferentziazko pertsonen profilean; etxean dauden adingabeen proportzioaren murrizketa eta menpekotasun-egoeren areagotzea. Guraso bakarreko familiek duten gizarte errealitateko mendetasun eta mantentze egoerek gora egin dute, beheranzko joera badago ere.

EINen "Familien etengabeko inkestak" erakusten duenez, EAEk guztira 898.600 familia (azken datua) zituen 2015ean (Estatuko familien % 4,9), 2015ean baino %0,4 gehiago, eta horietatik %31,5 eurekin bizi diren bikoteekin daude osatuta, %27,2 pertsona bakarrekoak dira eta %22,1 seme-alabarik gabeko bikoteak dira. Batez besteko tamaina 2,38 pertsona da familiako, Estatuko 2,50ekoa baino txikiagoa.

Aldaketak gorabehera, familiak pertsonen bizitzaren ardatza izateari eusten dio. Eusko Jaurlaritzaren Ikerketa Soziologikoko Kabinetearen 2012ko edizioko "*Familia EAEn*" txostenak erakusten zuenez, elkarrizketaturiko pertsonen %96k uste zuen familia oso edo nahikoa garrantzitsua dela, beste alderdi batzuen gainetik adibidez aisialdia (%93), lagunak (%92) edo lana (%91). Horrez gain, gehienek uste dute familia aurreko garaietan bezain garrantzitsua dela (elkarrizketatuen %47), edo are garrantzitsuagoa (%15).

2016ko datuak baliatuz, 62. Eusko Soziometroak nabarmentzen du (azken datu eskuragarriak[8]) euskaldunen %91 oso pozik edo nahikoa pozik dagoela bere familiako kideen arteko maitasunezko erlazioetan, %84 familia ikusteko maiztasunarekin eta %79 jarduerak partekatzeko maiztasunarekin. Horrez gain, familia giroan gehien azpimarratzen diren balioak maitasuna (inkestaturikoen %68), begirunea (%57) eta komunikazioa (%38) dira, askotariko erantzunak emateko aukera duen galdera batean.

IV.1.7. GRAFIKOA. FAMILIA BIZITZAREKIN LOTURIKO ZENBAIT ALDERDIREKIKO ASEBETETASUNA. EAE, 2016.



Iturria: EUSKO JAURLARITZA. EAEko Soziometroa 62 (Familia). 2016

Bestalde, eta aurreko inkesten ildotik, elkarrizketaturiko pertsona gehienek zioten 2016an nahiko luketena baino seme-alaba gutxiago dutela (%51). Seme-alaba gutxiago izateko arrazoien artean, oraindik halakorik izan ez duten arren guraso izatea espero dutenez gain (%41), arrazoi ekonomikoak (%22) eta uztartzeko zailtasunak (%5) daude, baita bestelako arrazoiak ere: osasuna, adina, bikotekiderik ez izatea, etab. Etorkizunean gurasoak izateari dagokionez, nabarmen hobetu da etorkizunean seguru asko seme-alabak izango dituztela dioten elkarrizketatuen portzentajea 2012ko inkestarekiko, hain zuzen ere %11tik %20ra (berdin mantendu da 2014arekiko).

1.5.1. Bateratzeko beharrak

Azken urteotan, familian izandako eraldaketek eta ugalkortasun-tasetan izan duten inpaktuak interes publiko handiagoa piztu dute, horrek dakartzan ondorioak direla medio. Seme-alabak izateko adinik ugarienak eta lanean sartzeko eta promozionatzeko adinak bat datozenez gero, emakume gazteak oso egoera zailean daude seme-alabak izateko erabakia hartzeari begira. Ama izan nahi duten gehienek amatasuna lanarekin bateratu nahi izaten dute eta geroz eta gehiago dira bikoteko bi kideek lan egiten duten eta 15 urte baino gutxiagoko seme-alabak dituzten familia.

[8] *Ezin izan da eguneratu 2016ko Memoria Sozioekonomikoan bildutako azterlanari buruzko informazioa eta, beraz, laburpena eman da. Argibide gehiago nahi izanez gero, begiratu Memoria horretan.*

Inguruabar horiek arazo berriak ekarri dituzte elkarbizitza-unitateen barruan, ordaindutako lana eta familiaren zaintza bateratzeko beharrizanen inguruan. Lanaren eta familia bizitzaren arteko gatazka une bitan areagotzen da: haurrak txikiak direnean, baina gero eta sarriago, mendekotasun duten adinekoei arreta eman behar zaienean ere bai. Hori dela-eta, herritarrek euren familia bizitza eta norberaren konpromisoak eta lana bateratu ahal izatea gizarte politikari buruzko eztabaidaren ardatzetako bat bihurtu da

2016ko Soziometroaren emaitzetara itzulita, elkarrizketaturikoen %44k uste du seme-alabak izateak nahikoa oztopatzen duela emakumearen ibilbide profesionala (%45ek 2014an), eta %26k "asko" oztopatzen duela deritzo (%22k 2014an). Aitzitik, gizonezkoen artean, galdetutako pertsonen % 13k baino ez du nahiko oztoporik edo oztopo askorik ikusten ibilbide profesionalean seme-alabak izateagatik (% 14en iritzia 2014. urtean egindako inkestan).

IV.1.8. GRAFIKOA. AITATASUNA/AMTASUNA LANBIDE KARRERAKO OZTOPO GISA. EAE, HAINBAT URTE



Iturria: EUSKO JAURLARITZA. EAEko Soziometroa 62 (Familia). 2016.

EAEn bizi diren landun familiek lana eta familia eta bizitza pertsonala bateratzeko dituzten posibilitateak ikertzen ditu EUSTATek 2010. urtetik, hain zuzen "*Lana eta bizitza pertsonala eta familia bateratzeari buruzko inkesta*" erabiliz (LBI). 2016ko emaitzetan nabarmentzen denez, lehenik eta behin, EAEn lanean ari direnen %29,3k zailtasun asko ditu lana eta mendetasunean bizi direnak bateratzeko, eta pixka bat handiagoa da menpekoak zain, eta pixka bat handiagoa da seme-alabak zaintzeko (%30,4).

IV.1.9. GRAFIKOA. LANDUNEK EGUNEKO ETXEKO LANETAKO JARDUERETAN EMANDAKO DENBORA, EZAUGARRIEN ARABERA. EAE. 2016.



Iturria: EUSKO JAURLARITZA. LBBI, 2016

Etxetik kanpora lan egiten duten emakumeek, gainera, egunean %40-45 ordu gehiago ematen dituzte seme-alaba adingabea eta mendetasunean bizi direnak zaintzeko gizonezkoek baino, eta %67 denbora gehiago etxeko lanetan. Gizonezkoek, ordea, 3,3 ordu erabiltzen dituzte egunean-egunean adin txikikoak zaintzeko (2015. urtean 2,9 ordu); emakumezkoek, ordea, 4,7 ordu (2015. urtean 4,4).[9] Alde hori handiagoa da (%45etik gorakoa) menpeko pertsonak zaintzeko lanak kontuan hartuz gero; izan ere, gizonezkoek 1,1 ordu erabiltzen dituzte egunero jarduera horri begira (2015ean 1,5) eta emakumezkoek 2,7 ordu (2015ean 2,1). Horrez gain, emakumeek 2 ordu ematen dituzte etxeko lanetan batez beste. Gizonezkoek, berriz, 1,2 ordu (2,1 eta 1,2 ordu, hurrenez hurren, 2015ean).

[9] *Deigarria gazteenek (16-25 urtekoak) adingabeak zaintzen ematen duten denbora: egunean 7,8 ordu (ikus IV.1.9. grafikoa), gainerako taldeena baino askoz handiagoa eta aurreko urtekoa baino handiagoa (4 ordukoa izan zen). Seguru asko adin-talde horren laginaren tamaina txikiagoa gertatu da eta, beraz, zuhurtziaz hartu behar dira kopuru horiek.*

Beren gain hartutako kargen inguruko desberdintasun horrek ondorioak dakartza etxeko lanen banaketarekiko gogobetetasunean, zeren eta emakumeek, batez beste, 6,3ko gogobetetasun-maila adierazten baitute 10etik ezkontideak edo bikotekideak etxean egiten dituen lanen gainean; gizonezkoen kasuan, berriz, 7,7koa da.

Kontziliazioaren alde desberdinetarako erabilitako denborarekin batez beste dagoen asebetetze-mailaren indizean jartzen badugu arreta, adin txikiko seme-alabak zaintzeko denborarekin dagoen asebetetze-maila 6,5ekoa da eta handiagoa emakumezkoen artean (6,8 puntukoa emakumezkoen artean eta 6,2koa gizonezkoen artean). Asebetetze-maila murritzagoa da bai gizonezkoen bai emakumezkoen artean, menpeko pertsonak zaindu behar direnean (batez beste 6,2 puntukoa gizonentzat eta 6,5ekoa emakumeentzat). Bizitza pertsonalerako erabilgarri dagoen denborari dagokionez (aisialdia, ikasketak, gizarte-bizitza) batez besteko asebetetze-maila 6,3koa da, eta antzekoa emakumezkoen eta gizonen artean (6,3 eta 6,2 hurrenez hurren).

IV.1.10. GRAFIKOA. LANDUNEK BATERATZEAREKIN LOTURIKO ALDERDIETAN EMANDAKO DENBORAREKIN DUTEN ASEBETETASUN MAILA, SEXUAREN ARABERA. EAE, 2016



Iturria: EUSTAT, LBBI. 2016.

IV.1.11. GRAFIKOA. LANEAN BATERATZEAREKIN LOTURIKO BAIMENAK ESKATZEKO ZAILTASUNAREN BATEZ BESTEKO MAILAREN BILAKAERA. EAE



Iturria: EUSTAT, LBBI. Datu-bankua.

Enpresan edo erakundean zenbait baimen eskatzeko zailtasunari dagokionez, datuek agerian uzten dutenez, gora egin dute zailtasunek, oro har, 2010-2016 aldian. EUSTATen inkestak erakusten duenez, landun pertsonek, batez beste, 3,7ko zailtasun globala adierazten dute 10etik (2,6koa 2010ean), eta 2,9koa, zehazki, norberaren arrazoiengatik lanera ez joateko baimena eskuratzeko (1,4 2010ean). Lana, familia eta bizitza pertsonala uztartzeko neurrien artean, eszedentziek 4,2ko batez besteko zailtasuna dute (3,2 2010ean), ondoren lanaldi murrizketek 4,2ko zailtasuna (3,2 2010ean), eta lanik eta soldatarik gabeko egunetan 3,4ko zailtasun-indizea dute 10etik (2,4 2010ean). Oro har, ez da diferentziarik ikusten sexuaren eta adinaren aldetik, seguru asko lanpostuko antzinatasunagatik; izan ere, aipaturiko kontziliazio neurriak eskuratzeko zailtasunak gutxitzen ditu. Alabaina, emakumeak (3,4koa 10eko eskalan) eta gizonak (3,1ekoa 10eko eskalan) beldur dira eszedentziak edo lan-murrizketak eskatzeak eragina izango ote duen lanbide-promozioan.

Bestalde, ordutegi motei eta malgutasunei dagokienez, EAEko langileen %17,9k lanaldia luzatu behar du ia egun guztietan (eta %20,6 zenbait alditan). Irteteko ordutegi malgua, hau da, bateratzea hobetzeko beste baliabide osagarria, langileen %36,5ek erabiltzen du, eta emakumeek (%33,8) gizonezkoek (%39,2) baino gutxiago. Norberaren etxean lan egiteari dagokionez, %10,6k lantzean behin egiten du lan etxean eta %6,2k egun erdiak gutxienez. Beraz, oro har, lana duten pertsonen %16,8k lantzean behin egiten du lan, edo maizago, etxean (%11,9k 2015ean).

2010. urtetik langileek lanaldiarekin eta ordutegien malgutasunarekin duten asebetetasun mailari berdintsu eutsi zaio, eta sexuarengatiko aldeak oso txikiak dira. Gizonen artean, pixka bat behera egin du lanaldiarekin duten asebetetasun mailak: 2010ean 10etik 7,1 izatetik 2016ko 6,9 izatera. Aldi berean, igoera oso txikia izan da (6 eta 6,3 bitartean) ordutegien malgutasunari dagokionez. Emakumezkoetan, lanaldiarekin duten asebetetasuna maila 7,2tik 7,1era igaro da. Ordutegien malgutasunean, berriz, asebetetasun maila txikiagoa da gizonetan, gora egin badu ere, azken urtean gizonezkoaren parean jarri arte: 2010eko 5,9tik 2016ko 6,3ra.

IV.1.12. GRAFIKOA. LANALDIAREN ETA BATERATZEKO ORDUTEGI MALGUTASUNAREN GAINEKO ASEBETETASUN MAILAREN (1ETIK 10ERA) BILAKAERA, SEXUREN ARABERA. EAE.



Iturria: EUSKO JAURLARITZA. LBBI. Datu-bankua

Baldintza horien ondorioz, inkestak nabarmentzen du ezen, bikotekide biek lan egiten duten familietan, senideek edo ordaindu gabeko pertsonek zaintzen dituztela seme-alabak lanaldiak iraun bitartean eta eskola-ordutegitik kanpora kasuen %37,5ean. Kasuen %33,9an, berriz, bikotekide biek zaintzen dituzte seme-alabak, eta %5,8an ordaindutako beste pertsona batzuei dagokie zaintza. Zaintza-lan horietan, berebiziko eginkizuna betetzen dute aitita-amamek: 2016ko Eusko Soziometroak erakusten duenez, ilobak dituztenei galdera eginda (laginaren %20), %20k dio egunero zaintzen dituela ilobak, eta %23k dio hainbat alditan astean. %10ek hilean zenbait alditan zaintzen ditu.

1.5.2. Familiei laguntzeko politika publikoak

Azaldutako egoera horiek arintzeko, familiei laguntzeko planak abiarazi zituen Eusko Jaurlaritzak 2002an, zertarako- eta familiek seme-alaba kopurua askatasunez erabakitzea galarazten duten eragozpen ekonomikoak eta gizarte eta laneko eragozpenak gainditzeko. Hala, Familiei Laguntzeko Legea onetsi zuen 2008an, markoari lerrun juridiko handiagoa emateko eta familia politika integralerako oinarriak ezartzeko, betiere familien eta familiako kideen ongizatea eta bizi-kalitatea hobetze aldera.

Familientzako zuzeneko laguntzak 2002an hasi ziren I. familia Planarekin. Harrezkero, 2015era arte, 640 milioi euroko gastuak izan dira laguntza horietan, gutxi gorabehera erdibana banatuta jaiotza, adopzio edo aurre-adopzioko harrerarako laguntzen eta uztartzeko laguntzen artean.

2011ko abenduan EAEko Familiei Laguntzeko Erakunde Arteko III. Plana onetsi zen 2011-2015 aldirako eta, gutxi gorabehera 674,6 milioi euroko aurrekontua izanik, familia politiken gaineko zeharkakotasun handiagoa eman zaio aurreko bi planekin alderatuta. Hartara, sailen eta erakundeen arteko lana indartu da. Lehendik dauden neurriak nahiz neurri berriak modu koherentean ordenatu nahi ditu, printzipio honen inspirazioarekin: lana, familia eta norberaren bizitza uztartzea familiako eta gizarteko kide guztiei dagokie, denok baitaukagu erantzukizun maila handiago edo txikiagoa. 2013an, plana eta horren programak eta aurreikusitako jarduketak berrikusi ziren, horietako zenbait lehenesteko, eta lau eremu estrategikotan taldekatu ziren: norberaren bizitza, familia eta lana bateratzea, aitatasun positiboa, belaunaldien arteko elkartasuna eta diru-laguntzak.

Indarraldia amaituta, planaren ebaluazioari buruzko txostena egin du Eusko Jaurlaritzako Lan eta Gizarte Politiketako Sailak, funtsean kualitatiboa dena, zeren eta, dokumentuan bertan aitortzen denez, eskuragarri dagoen informazioa gorabehera, berau jarraitzeko kalitatezko adierazle baliagarrien sistema bat ez izateak mugatu egin baitu balorazio zehatzagoa. Hona hemen nabarmentzen diren ondorio nagusiak:

IV.1.13. GRAFIKOA. SEME-ALABEN JAIOTZAGATIKO EDO ADOPZIOAGATIKO LAGUNTZAK EAE-N. ESPEDIENTEEN ETA GASTUAREN BILAKAERA, MILA EUROTAN



Iturria. EUSKO JAURLARITZA. Familia eta Komunitate Politikako Zuzendaritza

- *1. eremu estrategikoa: Bizitza pertsonala, familia eta lana bateratzea:* 4. eremuan aztertzen diren diru-laguntzetatik harago, aurrerapen txikiak ekarri ditu planak uztartzearen arloan. Hona hemen aipaturiko arrazoiak: apaltasuna bera, 2013ko berrikuspenean lehenetsitako neurrien norainoko mugatua eta aurreikusitako ekimenen zati bat betearazi ez izana (hala nola aldaketak sustatzea zergen politikan edo enpresetako lanaldiaren antolaketako ildoetan), eta hori lagungarria izan zen berez handizalea ez zen planteamendua funtsik gabe uzteko.

IV.1.17. TAULA. UMEEN JAIOTZAGATIKO ETA MANTENTZEAGATIKO LAGUNTZAK. ONURADUNAK ETA GASTUA. EAE, 2011-2015

	2011	2012	2013	2014	2015	GUZTIRA 2011-15
ONURADUNAK						
Lehena	9.237	12.303	5.007	9.916	9.321	45.784
Bigarrena	13.716	15.512	9.826	13.934	13.368	66.356
Hirugarrena	6.942	9.092	7.758	9.449	9.580	42.821
Asko	593	724	297	566	551	2.731
Guztira	**30.488**	**37.631**	**22.888**	**33.911**	**32.820**	**157.738**
EGINIKO GASTUAK (€)						
Lehena	6.099.500	7.998.300	3.244.500	6.432.100	6.297.800	30.072.200
Bigarrena	10.106.100	11.457.000	6.548.700	10.370.200	8.996.000	47.478.000
Hirugarrena	7.745.700	9.424.700	7.698.100	9.249.400	9.196.100	43.314.000
Asko	2.580.700	3.089.600	1.434.500	2.681.400	2.666.100	12.452.300
Guztira	**26.532.000**	**31.969.600**	**18.925.800**	**28.733.100**	**27.156.000**	**133.316.500**

Iturria: EUSKO JAURLARITZA. Familiei Laguntzeko III. Planaren ebaluazio txostena (2011-15)

- *2. eremu estrategikoa: Gurasotasun positiboa.* 2013an lehenetsitako neurriak gurasotasun positiboa sustatzeko programen eta zerbitzuen eskaintzara bideratu ziren, eta beste baten ardatza IKTen eremu espezifikoa eta familien prestakuntza izan zen, hain zuzen ere arriskuei aurre egiteko eta diferentzia digitala ekiditeko. Nabarmentzekoa da horiek guztiak praktikan jarri direla.
- *3. eremu estrategikoa: Belaunaldien arteko elkartasuna.* Ez da neurri espezifikorik egin eremu honetan, baina nabarmentzekoa da zahartze aktiboarekin, adinekoei emandako tratu onarekin eta oro har elkartasunarekin loturiko jarduketak. Adinekoek familian eta gizartean ongizatea sortzeko betetzen duten eginkizunaren inguruko ikerketak ere burutu dira.
- *4. eremu estrategikoa: Diru-laguntzak.* Planaren funtsezko ardatzetako bat dira eremu honen barruko neurriak, bai aurrekontuen aldetik, bai seme-alabak dituzten familien bizi-baldintzetan duten eraginaren aldetik, eta bereziki egoera txarrenenean dauden pertsonei dagokienez. Ebaluazioan nabarmentzen denez, bi neurri mota burutu dira (seme-alaben jaiotzaren eta laguntzen mantenuaren ziozko laguntzekin loturikoak), baina hirugarrena ez; izan ere, jarduketa horrek azterketa egitea zekarren berekin, hirugarren sektoreko erakundeei diruz lagundutako proiektuen bidez.

Eta emandako laguntzen zifra zehatzei dagokienez, planaren indarraldian 133,3 milioi euro erabili dira seme-alaben jaiotzagatik eta mantenuagatik, hain zuzen ere guztira 157.738 espedientetan. Datu horiek direla-eta, urte guztietako aurrekontuen betearazpena %95etik gorakoa izan da, eta 2012an eta 2013an hasieran aurreikusitakoa baino finantzaketa handiagoa behar izan zen. Egitarauaren estaldura-tasari dagokionez, %92tik gorakoa izan da planaren urte guztietan.

Bateratzeko laguntzek, bestalde, 136,3 milioi euroko gastua ekarri dute, eta guztira 97.086 onuradun izan dira. Espedienteen aldetik nahiz gastuaren aldetik, adingabeak zaintzeko bateratze-laguntzei dagokie %96 eta, beraz, presentzia txikia dakar berekin beste bi lerroetan (menpekoak zaintzeko bateratze-laguntzak eta zaintzaileak kontratatzeko laguntzak).

IV.1.18. TAULA. BATERATZEKO LAGUNTZAK. ONURADUNAK ETA GASTUA. EAE, 2011-2015

	2011	2012	2013	2014	2015	GUZTIRA 2011-15
ONURADUNAK						
Adingabeak zaintzea	21.908	20.763	18.751	15.353	16.722	93.497
Menpekoak zaintzea	304	347	353	340	379	1.723
Zaintzaileak kontratatzea	316	357	403	365	425	1.866
Guztira	**22.528**	**21.467**	**19.507**	**16.058**	**17.526**	**97.086**
EGINIKO GASTUA (€)						
Adingabeak zaintzea	32.273.831	36.918.775	16.390.263	16.784.200	29.063.742	131.430.811
Menpekoak zaintzea	461.342	580.550	324.416	349.013	313.159	2.028.480
Zaintzaileak kontratatzea	273.329	294.991	150.473	169.754	278.129	1.166.676
Guztira	**32.972.502**	**37.794.316**	**16.865.152**	**17.302.967**	**31.362.487**	**136.297.424**

Iturria: EUSKO JAURLARITZA. Familiei Laguntzeko III. Planaren ebaluazio txostena (2011-15)

Eta laguntza horien onuradunen sexuari dagokionez, nabarmendu behar da ezen, plana indarrean izan den aldian, emakumeak %90 baino gehiago direla adingabeak zaintzeko laguntzetan eta %80tik gora mendekoak zaintzeko laguntzak direnean. Bilakaeraren aldetik, berriz, sexuaren araberako aldea pixka bat txikitu dela ikus daiteke, 1,1 puntutan murriztu baita adingabeak zaintzeko laguntzetan eta 3,1 mendekoak zaintzeko laguntzetan.

Laburbilduz, azterturiko familientzako laguntzen bi lerroetan, 2011-2015 aldian 270 milioi euroko gastua izan da, gutxi gorabehera %50a bakoitzean.

IV.1.14. GRAFIKOA. BATERATZEKO NEURRIEN ONURADUNAK DIREN EMAKUMEEN EHUNEKOEN BILAKAERA, LAGUNTZA MOTAREN ARABERA. EAE. 2011-2015



Iturria: EUSKO JAURLARITZA. III. Familia Planaren Ebaluazioa.

Ebaluazio hori abiapuntua izan da familien gaineko politikei buruzko gogoeta prozesuan, hain zuzen plan berria egite aldera. Familiaren Euskal Kontseiluak, 2017ko abenduan, "*Familien eta Haurren Aldeko Ituna*" adostu zuen, eta ondoren, 2018ko urtarrilean, EAEko administrazioen multzoak izenpetu zuen. Diagnostiko partekatuan dago oinarrituta ituna, non funtsezko bi fenomeno estruktural antzematen diren: familia-proiektua abiaraztea eta nahi duten seme-alaba kopurua izatea zailtzen duen eragozpenak bere horretan jarraitzea eta, familien gabezia ekonomikoen ondorioz, desberdintasunak belaunaldi batetik bestera igarotzeko prozesua hausteko zailtasunak. Itun hori "*V. Familiei Laguntzeko Plana*" delakoan zehaztuko dira, euskal administrazioek izenpeturiko konpromisoen dekalogoa abiapuntu hartuta (IV.1.23. taulan dago zehaztuta).

IV.1.19. TAULA. FAMILIEN ETA HAURREN ALDEKO EUSKAL ITUNA. KONPROMISOEN DEKALOGOA (2018KO URTARRILA)
1. Gutxieneko diru-baliabideak ematea seme-alabak dituzten familia guztiei eta haurren pobreziaren kontrako neurriak hartzea, betiere familia aniztasuna errespetatuz.
2. Erraztasunak ematea gurasoek beharrezko denbora eman dezaten seme-alabekin; hartara, gizarte denboraren antolamendu egokiagoa sustatuko da eta baterako antolakuntza erraztuko da.
3. Gazteen emantzipazioa eta bizitza-proiektu autonomoak erraztea, familia unitate berriak bideratzeko, nahi izanez gero seme-alabak izan ditzaten.
4. Gurasotasun positiboko, haurren osasuneko, gatazken aurrezaintzako eta familia bitartekotzako programak indartzea, gurasoen ahalmenak eta hezkuntza gaitasunak indartzeko.
5. Erraztasunak ematea haur guztiek haurrentzako kalitatezko zerbitzuak jaso ditzaten, zerbitzu eskuragarriak izan daitezen.
6. Hezkuntza politikak birbideratzea eta eskola sistema inklusioa eta baterako hezkuntzarako sistema sakontzea, gizartearen eta ekonomiaren aldetik desabantailan dauden ikasleen zailtasunak konpentsatzeko eta ekitatea bermatzeko.
7. Erraztasunak ematea haurrek eta gazteek gizarte-hezkuntzako, kiroleko, kulturako eta aisialdiko baliabideen eskaintza zabalagoa eskura dezaten baldintza berdinetan.
8. Politika publikoei eragiten dieten arloen askotariko izaera dela-eta lankidetza lehenestea: genero ikuspegia, hezkuntza, berdintasuna, osasuna, etxebizitza, gizarte zerbitzuak, kultura edo enplegua.
9. Arlo horiekin loturiko eragile pribatuak sentsibilizatzea, bereziki laneko harremanetan parte hartzen dutenekin hala nola sindikatuekin eta enpresa elkarteekin.
10. Familien eta haurren politikaren gobernantza hobetzea.
Iturria: EUSKO JAURLARITZA. Lehendakaritza.

Plan berriaren jarraipena egingo da Memoria Sozioekonomiko honen hurrengo edizioetan, eta gure Memorian ohartarazitako bi alderdi izan beharko ditu kontuan nahitaez:

Lehenik eta behin, Lan eta Gizarte Politiketako Sailak eginiko 2014ko "Gizarte Zerbitzuen Beharrei buruzko Inkestak" (GZBI) ohartarazi duenez, behera egin du seme-alabak dituzten familientzako laguntzak eskuratzen dituzten etxeen proportzioak, edo aldi bereko laguntza-neurriei dagozkienak, 2006ko eta 2010eko aurreko inkesten aldean. Beheranzko joera handia da, zeren eta 2006an horrelako laguntzak jasotzen baitzuen familien %10,2k, eta proportzioak behera egin zuen 2010ean, %8ra hain zuzen, eta 2014an %3,9ra. 2006 eta 2014 bitartean, jaitsierarik deigarrienak familiaburuak gizonak diren etxeetan (%12,5etik %4,7ra) eta 35 urtetik beherakoak dituztenetan (%21,7tik %6,9) izan dira, baita atzerrian dauden familietan ere (2006ko %31,4tik 2014ko %11,1ra)[10].

Horrez gain, "Familiei eta Etxeei buruzko Inkesta" berriak, hori ere Lan eta Gizarte Politiketako Sailarena denak (2015eko datuak), ohartarazi duenez, familien ehuneko handi batek ez ditu ezagutzen (2015eko datuak)[11],EAEn familiei laguntzeko dauden laguntzak, martxan hasi zirenetik hainbat urte igaro badira ere: etxeen % 35,1ak bakarrik daki seme-alabak dituzten familientzako laguntzak daudela (jaiotzagatik eta adopzioagatik ematen direnak). Eta bateratzerako laguntzen eremuaren barruan, ezagunenak dira lanaldiaren murrizketarekin lotutakoak, 12 urte baino gutxiagoko haurrak zaintzeko ematen direnak (% 39,9) eta lan-eszedentzia 3 urte baino gutxiagoko adingabeak zaintzeko (% 38,7). Ezagutza-maila % 31-32 ingurukoa da menpeko senideak edo muturreko larritasuneko osasun-egoeran dauden senideak zaintzera bideratutako laguntzei dagokienez. Gutxien ezagutzen den neurria da 3 urte baino gutxiagoko haur adingabeak etxean zaintzeko pertsonen kontratazioa diruz laguntzera bideratutakoa (% 18,2).

[10] *Lau urterik behin egiten den inkesta da. 2014ko datuei buruzko argibide gehiago nahi izanez gero, begiratu 2015eko Memoria Sozioekonomikoan.*

[11] *Ezin izan dira eguneratu 2015eko datuak, baina zehazki aztertu dira 2016ko Memoria Sozioekonomikoan; horretara jo beza irakurleak informazio gehiago nahi izanez gero.*

ITURRIAK

1. **EUROSTAT**: Bizi-baldintzei buruzko Estatistika (UE-SILC). 2016eko datuak. Urtekoa. Koiunturala.
2. **EUSKO JAURLARITZA**. Bizi-baldintzei buruzko Inkesta. 2016ko datuak. Urtekoa. Koiunturala.
3. **EUSKO JAURLARITZA**. Pobreziari eta Gizarte Desberdintasunei buruzko Inkesta (PGDI) 2016. Bi urterik behingoa. Koiunturala
4. **EUSKO JAURLARITZA**. III estudio sobre la situación de las personas en situación de exclusión residencial grave en la CAPV (2016). 2017. Periodicidad bienal. Estructural.
5. **EUSKO JAURLARITZA**: Eusko Soziometroa, 62. Zk, EAEko familiari buruzkoa. 2016ko datuak. Bi urterik behingoa. Estrukturala.
6. **EUSTAT**: Lana eta bizitza pertsonala eta familiarra uztartzeari buruzko inkesta. 2016ko datuak. Urtekoa. Estrukturala.
7. **EUSKO JAURLARITZA**: Familientzako Laguntzen III. Planaren Ebaluazioari buruzko txostena (2011-2015). 2017. Unekoa.
8. **EUSKO JAURLARITZA. LEHENDAKARITZA**. Lehendakariak familien eta haurren aldeko euskal ituna sinatzean eginiko diskurtsoa (2018ko urtarrilak 18).
9. **EUSKO JAURLARITZA**: Gizarte Zerbitzuen Beharrei buruzko Inkesta. 2014ko datuak. Lau urterik behingoa. Estrukturala.
10. **EUSKO JAURLARITZA**: Familiei eta etxeei buruzko inkesta. 2015eko datuak. Ez dakigu noiz argitaratuko den (berria da). Estrukturala.

2. GIZARTE BABESA

Kapitulu honetan, gure Erkidegoko Gizarte Babesa osatzen duten eremu nagusien gaineko gainbegirada egingo dugu. Lehenik eta behin, EAEn gizarte babesean eginiko gastua berrikusiko dugu, eta EUSTATek EBren metodologia jarraituz eginiko kontuak emango ditugu. Ondoren, Gizarte Segurantzaren prestazioak eta pobreziaren eta gizarte bazterkeriaren kontrako borrokarako tresnak aztertuko dira, Diru-sarrerak Bermatzeari eta Gizarteratzeari buruzko 18/2008 Legearen ondoriozkoak. Jarraian, estatuko legearen ondoriozko mendetasunaren arretarako sistema EAEn ezartzeari buruzko ebaluazioa egingo da eta, azkenik, Euskadiko gizarte aurreikuspeneko sistema osagarrien zenbaki handiak aztertuko dira.

Bestalde, Europako Batzordearen 458/2007 Erregelamenduan giza babesa sartzen deneko eremuetan sailkapenean, beren beregi sartzen dira langabeziako prestazioak. Hala ere, horiei buruzko informazioa (Estatuko Enpleguko Zerbitzu Publikoak-SEPE- kudeaturiko Gizarte Segurantzaren prestazioak) Memoria Sozioekonomiko honetako III. Kapitulura ekartzea aukeratu da (“*III. Kapitulua. Lan Merkatua.)* zertarako eta enpleguari buruzko politiken gaineko ikuspegi osoa izateko, betiere politika aktiboak eta pasiboak batera aztertuta.

2.1. GIZARTE BABESAREN KONTUA

Gizarte Babesaren Estatistiken Europako Sistemaren (SEEPROS) arabera, Gizarte Babesa honela definitu behar da: “erakundeek gauzatutako jarduera guztiak, arrisku edo beharrizan jakin batzuek etxebizitzei eta norbanakoei sorrarazitako kargak arintzeko helburu dutenak, aldibereko hitzarmenik, elkarrekikorik edo banakakorik ez bada”[12].

Gizarte babesaren arloko beste estatistika batzuetan ez bezala, adibidez Gizarte Segurantzaren Sistemetako erakundeek buruturiko ekintzak baizik biltzen ez dituen Lanaren Nazioarteko Bulegoarenean, SEEPROS metodologian edozein erakundetara zabaltzen da behaketaren eremua, publikoa nahiz pribatua izan, baldin eta definizio orokorreko beharkizunen araberako gizarte babeseko ekintzak burutzen baditu. Kontzeptu hau definizioan aipatzen diren arriskuen eta beharren zerrendarekin osatzen da; funtzio deritze horiei guztiei.

IV.2.1. TAULA. GIZARTE BABESA EAE-N. ADIERAZLE NAGUSIAK

	2008	2012	2013	2014	2015	2016*	Ald. % 2014-15	Ald. % 2015-16
GASTUA GUZTIRA (MILIOI EURO)	13.798	16.349	16.770	16.765	16.934	17.260	1,0	1,9
%-REN GASTUA BPG-AREN GAINEAN	19,8	24,5	25,4	24,9	24,7	24,4	-0,2*	-0,3*
GASTUA EUROTAN/BIZTANLE	6.402	7.498	7.707	7.715	7.795	7.940	1,0	1,9
GASTUA PA-N BIZTANLEKO	6.744	7.883	8.180	8.341	8.519	:	2,1	:
GASTUA PRESTAZIOETAN FUNTZIOEN ARABERA (MIL. €)								
- ERITASUNA/OSASUN ARRETA	4.168	4.151	4.110	4.183	4.317	4.436	3,2	2,8
- ZAHARTZAROA	5.230	6.459	6.716	6.862	7.096	7.374	3,4	3,9
- LANGABEZIA	1.027	1.774	1.873	1.530	1.241	1.085	-18,9	-12,6
- BESTE BATZUK	3.075	3.666	3.768	3.896	3.993	4.077	2,5	2,1
GASTUA UNITATE INSTITUZIONALEKO								
- G.S. ETA ESTATUAREN ADMINISTRAZIOA	8.169	9.910	10.217	10.272	10.284	:	0,1	:
- EUSKAL ADMINISTRAZIOAK	4.522	5.176	5.147	5.243	5.388	:	2,8	:
- ERAKUNDE PRIBATUAK	1.108	1.263	1.405	1.250	1.261	:	0,9	:

Iturria: EUSTAT. Gizarte Babesaren kontua EAEn. Geuk egina.
**** Behin-behineko datuak. ** Aldea puntu portzentualetan.***

EUSTATen “*EAEko Gizarte Babesaren Kontua*”ren 2016ko azken datuen arabera, Euskadin eginkizun horretarako erabilitako baliabideak 17.260 milioi euro izan ziren aipaturiko urtean, 2015ean baino %1,9 gehiago. Hots, urte horretako BPGaren %24,4 (+%4,6 2008aren aldean eta -%0,3 2005arekiko), behin-behineko datuak erabiliz. Gizarte babesaren

[12] *Ikusi Memoria honen amaieran agertzen den terminoen glosategia.*

gastuak etengabe egin du gora eskuragarri dugun urteetako seriean, eta biztanleko gastua 6.402€ izan zen 2008an. 2016ean, berriz, 7.940 (+%24).

Administrazio gastuak deskontaturik, gizarte prestazioen balioa, zenbatespenen arabera, 16.972 milioi euro da, 2015an baino %2 gehiago. Funtzioen araberako prestazioen gastuari buruzko azterketak erakusten dutenez, "Zahartzaroa" funtzioari dagokion gastua da pisurik handiena duena, ostatuko eta etxeko laguntzako prestazioak eta pentsioak barne dituela: 7.354 milioi euroko gastua da, guztizkoaren %43,4. 2015aren aldean, %3,9 egin du gora, %1eko batez besteko hazkundearen gainetik. Bigarren eginkizunik garrantzitsuena "*Eritasuna/osasun arreta*" da, 2016ean 4.436 milioi euroko gastuarekin, guztizkoaren %26,1 eta %2,8 hazi da 2015aren aldean

Erakunde-unitateen gizarte-babeseko gastuari gagozkiola, 2015. urtean (datuak eskuragarri dauden azken urtean), Gizarte Segurantzaren Sistemak eta Estatuaren Administrazioak gastu handiagoa egin zuten (+ % 0,1), baita euskal administrazioek eginikoa ere (+%2,8) baina erakunde pribatuek, berriz, txikiagoa %0,9 2014aren aldean. Gizarte Segurantzaren Sistemak eta Estatuko Administrazioak betearazitako gastua guztizkoaren %60,7 da, euskal administrazioek %31,8 eta gainerako %7,5a erakunde pribatuei dagokie.

Bukatzeko, EUROSTATek argitaraturiko azken datuak aztertuta ikusten denez, gizarte babesek per capita gastua Euskadin, eroste-ahalmenaren parekotasunaren arabera neurtuta, 8.519 eurokoa izan zen 2015ean, hau da, EBko batez bestekoaren (7.937 euro 2014an, azken datu agregatu eskuragarria) eta Estatuko batez bestekoaren (6.263 euro) gainekoa.

IV.2.1. GRAFIKOA. GIZARTE PRESTAZIOEN GASTUAREN BILAKAERA EAE-N, FUNTZIOEN ARABERA. 2016.



Iturria: EUSTAT. Gizarte Babesaren Kontua

IV.2.2. GRAFIKOA. GIZARTE BABESERAKO PER CAPITA GASTUAREN BILAKAERA (P.K.ETAN)



Iturria: EUSTAT. Gizarte Babesaren Kontua

2.2. GIZARTE SEGURANTZAREN PRESTAZIOAK[13]

2017ko ekitaldian, milioi erdi pertsona baino gehiago (555.287 lagun, behin-behineko zenbatespenen arabera) Gizarte Segurantzaren sistemaren onuradunak izan ziren gure autonomia-erkidegoan (kotizaziopeko eta kotizatu gabeko pentsioei dagokienez). Kopuru hori aurreko urtekoa baino % 1,3 handiagoa da[14]). Azken urteotan gertatu denez, igoeraren arrazoi nagusia dugu kotizaziopeko pentsioen onuradun kopuruaren goranzko bilakaera; izan ere, gainerako modalitateetan, oro har, onuradunen talde horren kopurua beherantz doa. Hala, Gizarte Segurantzaren prestazio ekonomikoek estalitako EAEko biztanleriaren ehuneko 25,5ekoa izan zen.

IV.2.2. TAULA. GIZARTE SEGURANTZAREN PENTSIOAK EAE-N MOTEN ARABERA. LABURPEN-TAULA.

	2014	2015	2016	2017	%15/16	%16/17
ONURADUNAK (URTEKO B.B.)						
-KOTIZAZIOPEKO PENTSIOAK	523.900	530.200	536.700	543.700	1,2	1,3
-KOTIZAZIORIK GABEKO PENTSIOAK	10.772	10.991	11.298	11.587	2,8	2,6
GUZTIRA	534.672	541.191	547.998	555.287	1,3	1,3
- BIZTANLEEN %	24,6	24,9	25,2	25,5	1,2	1,2
GASTUA (MILIOI €)*						
-KOTIZAZIOPEKO PENTSIOAK	7.685,3	7.947,4	8.223,0	8.501,7	3,5	3,4
-KOTIZAZIOPEKO PENTSIOAK	55,2	56,5	58,0	59,5	2,7	2,6
GUZTIRA	7.740,5	8.003,9	8.281,0	8.561,2	3,5	3,4
- BPG-AREN %	11,9	11,9	11,7	11,6	-1,7	-0,8

Iturria: Geuk egina Enplegu eta Gizarte Segurantzaren datuekin.
Lan-estatistiken Buletina
(*) Zenbatespen, ez baitakigu kotizaziorik gabeko pentsioen gastua zein den.

Kotizaziopeko pentsioei dagokienez (prestazioen %97,9 eta gastuaren %99,3), 2017an 543.700 onuradun izan ziren guztia (+%1,3), eta eginiko zenbatespenen arabera, urteko gastua 8.501,7 milioi euro izan zen, 2016an baino %3,4 gehiago. Kotizaziorik gabeko pentsioek, bestalde, 11.587 pertsona hartzen zituzten guztira. Hala, 59,5 milioi euroko gastua sortu zen urtean.

Oro har hartuta, 2016. urtean, pentsioen guztizko gastua EAEn 8.561,2 milioi eurokoa izan zen behin-behineko datuen arabera, hau da, % 3,4 hazi zen 2016eko ekitaldiaren aldean. Hortaz, BPGren gaineko ehunekoa hamarren bat gutxitu zen, % 11,6raino (EUSTATen behin-behineko datuen arabera).

2.2.1. Transferitu gabeko kudeaketa duten prestazioak

a) Onuradunak

2017an 543.700 pertsona izan ziren Gizarte Segurantzaren kotizaziopeko pentsioen onuradunak EAEn, aurreko urtean baino %1,3 gehiago eta Estatu osoko %5,7a. Sexuaren arabera, gutxi gorabehera %50 da sexu bietan. Pentsio mota bakoitzeko, ezintasun iraunkorragatiko jasotzaile kopuruak egonkor eutsi dio azken urtean, %0,7 hazita, baina erretiroagatiko jasotzaileak % 2 handitu dira, eta alarguntzagatiko jasotzaileak % 0,1. Azkenik, zurztasunagatiko kotizaziopeko pentsioen jasotzaileen kopurua ez da aldatu, 2016an bezala.

Pentsio horien batez besteko zenbatekoa hilean 1.142,60 eurokoa da (Estatuko batez bestekoa baino %24,1 gehiago), hots, %2,1eko igoera 2015aren aldean. Erretiroaren ziozko pentsioari dagokionez (horixe jasotzen dute Gizarte Segurantzako kotizaziopeko pentsioen hartzaileen %64k), eta haren batez besteko zenbatekoa, 2017an, 1.314,80€ da hilean, 2016an baino %2,0 gehiago.

---

[13] *Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalak kudeatzen dituen transferitu gabeko Gizarte Segurantzaren prestazioak bi motatakoak dira:*

•Ordaindutakoaren araberakoak, hau da, lehenago kotizatutako zenbatekoaren eta kotizazioa egin den epearen arabera ematen dira. Ez dute iraupen zehatzik eta Gizarte Babesaren gastu osoaren % 50 dira gutxi gorabehera. Prestazio horien eginkizuna honako hau da batez ere: Baldintza jakinak betez prestazio horren eskubidea lortu duten pertsonei errentak lortzeko orduan jarraitutasuna bermatzea laneko bizitza amaitzea eragin dezaketen arriskuen ondorioz errenta horiek eteten direnean.

•Ordaindutakoaren araberakoak ez diren prestazioak, esate baterako, erretiro eta baliaezintasun pentsioak (ordaindutakoaren araberakoak ez direnean) eta amatasunagatiko eta familiek jasotzen dituzten.

[14] *Kalkulu horietatik kanpora gelditu dira laguntza pentsioak eta LISMIren ondoriozkoak. Desagertzeko joera dute, eta horiei buruzko informazio eguneraturik ez dugu 2006tik hona. Nolanahi ere, haren guztizko pisua %0,4aren azpitik dago.*

Gainerako pentsioen batez besteko zenbateko guztiek ere gora egin zuten 2017an, baina batez bestekoaren azpitik: alarguntasun pentsioek %1,5, ezintasun iraunkorrekoek %0,6 eta zurztasunekoek %1,8, eta batez bestekoa 770,30€, 1.198,60 eta 477,30 dira, hurrenez hurren.

IV.2.3. TAULA . EAE-N GIZARTE SEGURANTZAREN KOTIZAZIOPEKO PENTSIOEN BATEZ BESTEKO ZENBATEKOA ETA JASOTZAILE KOPURUA

	2014	2015	2016	2017	% 2017*	LGSaren % 2017	%15-16	%16-17
Jasotzaileen kopurua								
GUZTIRA	523.900	530.200	536.700	543.700	100,0		1,2	1,3
EZINTASUN IRAUNKORRA	42.800	42.500	42.500	42.800	7,9		0,0	0,7
ERRETIROA	328.800	334.600	341.000	347.700	64,0		1,9	2,0
ALARGUNTASUNA	134.800	135.200	135.300	135.200	24,9		0,1	-0,1
ZURZTASUNA/FAMILIAREN ALD	17.500	17.900	17.900	17.900	3,3		0,0	0,0
B.b. zenbatekoa (Euro/hile)								
GUZTIRA	1.076,6	1.098,2	1.120,5	1.142,6	100,0	161,5	2,0	2,0
EZINTASUN IRAUNKORRA	1.171,0	1.181,7	1.190,9	1.198,6	104,9	169,4	0,8	0,6
ERRETIROA	1.235,5	1.262,8	1.289,4	1.314,8	115,1	185,8	2,1	2,0
ALARGUNTASUNA	739,3	748,8	758,7	770,3	67,4	108,9	1,3	1,5
ZURZTASUNA/FAMILIAREN ALD	458,9	462,2	468,8	477,3	41,8	67,5	1,4	1,8

Iturria: Geuk egina ENPLEGU ETA GIZARTE SEGURANTZA Ministerioaren datuekin, "Lan-estatistikei buruzko Buletina".
** Portzentaje bertikalak hartzaile guztiak hartuta eta prestazioen batez besteko zenbatekoa.*

Erretiroaren ziozko pentsioak ardatz hartuta, EAEko pentsiodunen taldeko gehienek jasotakoak onuradun guztietatik, 347.700 ziren 2017an, %63,4 gizonak eta %36,6 emakumeak. Alde hori murriztuz doa pixkanaka. Izan ere, azken hamar urtean %5,8 murriztu da 2016 eta 2017 bitartean.

Sexuaren araberako aldeak aztertuta, pentsio horien zenbatekoetan eta 2017rako batez besteko datuekin, gizonezkoen erretiroko pentsioa EAEn emakumeena baino %74,8handiagoa zen. Ratio hori urtez urte jaisten ari da. Batez besteko zenbateko horiek urtean eginiko alta berrien pentsioen arteko erkaketa eginda, aldea %31,9koa zen 2017an, hori ere baxuena serie historiko osoan. Halaber, erretirodunen talde osoaren erretiroko batez besteko pentsioak eta erretiroan sartu diren azken pertsonak erkatuta ikusten denez, erretiratu berriek, batez beste, talde osoaren %24 gehiago kobratu zuten 2017an (%26,7 2016an).

IV.2.4. TAULA. GIZARTE SEGURANTZAKO PENTSIOAK EAE-N, MOTEN ARABERA. ONURADUNAK ETA BATEZ BESTEKO ZENBATEKOAK SEXUAREN ARABERA, 2016KO ABENDUAREN 31N..

	GUZTIRA, ERRETIRO PENTSIOAK			ERRETIRO PENTSIOEN ALTA BERRIAK			EMAK. ETA GIZONEN DIF. %*	
	GIZONAK	EMAK.	GUZT.	GIZONAK	EMAK.	GUZT.	PENTSIO GUZTIAK	ALTAK
2009	1.290,17	642,81	1.069,47	1.624,05	844,30	1.359,46	100,7	92,4
2010	1.328,98	668,45	1.101,45	1.673,65	900,20	1.417,66	98,8	85,9
2011	1.370,95	694,60	1.136,36	1.704,63	990,47	1.477,52	97,4	72,1
2012	1.411,60	724,52	1.171,89	1.759,25	1.113,97	1.554,48	94,8	57,9
2013	1.453,69	760,77	1.210,73	1.770,20	1.219,90	1.592,60	91,1	45,1
2014	1.479,28	789,00	1.235,52	1.808,73	1.283,69	1.627,13	87,5	40,9
2015	1.507,19	821,44	1.262,75	1.830,44	1.352,84	1.657,86	83,5	35,3
2016	1.533,79	856,81	1.289,44	1.807,41	1.369,01	1.633,74	79,0	32,0
2017	1.559,16	892,07	1.314,79	1.804,23	1.367,64	1.629,89	74,8	31,9
Ald. % 15/16	1,8	4,3	2,1	-1,3	1,2	-1,5	-5,4	-9,3
Ald. % 16/17	1,7	4,1	2,0	-0,2	-0,1	-0,2	-4,2	-0,1

Iturria: GSIN-REN DATU-BASEA. Geuk egina
** Gionen batez besteko pentsioa emakumeena baino handiagokoa deneko portzentajea*

Bestalde, 2017ko abenduaren 31n, EAEko batez besteko pentsioa 1.152,26€ zen, eta %2 igo zen 2016ko abenduaren aldean. Urte arteko KPIaren aldakuntza, hile berera arte, %1,1ekoa izan zen.

IV.2.5. TAULA. GIZARTE SEGUARENTZAREN PENTSIOAK EAE-N MOTAREN ARABERA. ONURADUNAK ETA BATEZ BESTEKO ZENBATEKOAK SEXUAREN ARABERA, 2017KO ABENUAREN 31KO DATUAK.						
	ONURADUNAK			B.B. ZENBATEKOA (€)		
	GIZONAK	EMAK.	GUZT.	GIZONAK	EMAK.	GUZT.
EZINTASUN IRAUNKORRA	28.951	13.414	42.365	1.280,79	1.036,38	1.201,80
ERRETIROA	220.365	117.192	337.561	1.569,62	908,66	1.325,41
ALARGUNTASUNA	3.392	98.011	101.404	609,88	789,14	774,73
ZURZTASUNA	7.799	6.922	14.721	454,21	451,39	452,89
FAMILIAREN ALDE	534	1.610	2.144	667,23	662,00	663,22
PENTSIO GUZTIAK	261.041	237.149	498.195	1.471,12	846,07	1.152,26

Iturria: GSIN-REN DATU-BASEA. Geuk egina.
**Ez dator bat gizonen eta emakumeen baturarekin, zenbait erregistroan ez baita pertsonaren sexua agerrarazi.*

b) Gastua eta diru-sarrera

Pentsioetan zenbatetsitako gastuaren guztizko zenbatekoa %3,4 hazi da azken urtean. Gastu horren bilakaera eta Gizarte Segurantzan afiliaturiko langileen kopurua erkatuta, pentsio horiek pertsona afiliatu bakoitzeko ordaintzeak hileko eurotan eginiko ahalegina zenbatetsi dezakegu. 2017an, 673,64 euro dira hilean, aurreko urtean baino %1,4 gehiago, zeren eta pentsioetako gastua igo baita eta kotizatzaileena ere, gutxiago bada ere.

IV.2.6. TAULA. EAE-KO PENTSIOEN ARLOKO AHALEGINAREN HASTAPENA					
	Kotizaziopeko pentsioak (1)	B.b. zenbat., €/hile (2)	Guzt. Zenbat., €/hile (3) = (1)*(2)	Gizarte Segurant. afiliat.* (4)	Ahalegina: €/hilea afiliatuko (3) / (4)
2012	508.200	1.024,8	520.803.360	896.000	581,25
2013	516.600	1.057,3	546.201.180	868.600	628,83
2014	523.900	1.076,6	564.030.740	871.300	647,34
2015	530.200	1.098,2	582.265.640	888.300	655,48
2016	536.700	1.120,5	601.372.350	904.800	664,65
2017	543.700	1.142,60	621.231.620	922.200	673,64
Ald. % 15/16	1,2	2,0	3,3	1,9	1,4
Ald. % 16/17	1,3	2,0	3,3	1,9	1,4

Iturria: LAN ETA GIZARTE SEGURANTZA MINISTERIOAREN datuekin eginikoa.
** Gizarte Segurantzan alta emanda dauden kotizatzaileak.*

Bestalde, 2016an (datu ofizialak ditugun azken urtea), Gizarte Segurantzaren Sistemak, orotara, 6.592,8 milioi euro bildu zituen, aurreko ekitaldian baino %1,6 gehiago, eta Estatuan bildutako guztiaren %6,5 (%6,4 2015ean). Kopuru hori gure Erkidegoko urte horretako BPGaren %9,3 da, behin-behineko datuen arabera (%9,4 aurreko urtean). Hala, bildutako bolumen horretatik, 1.112,8 milioi Arabari dagozkio (%16,9), 2.187 milioi Gipuzkoari (%33,2) eta 3.292,5 milioi Bizkaiari (guztizkoaren %49,9).

IV.2.3. GRAFIKOA. GIZARTE SEGURANTZAREN KOTIZATZAILEEN * BILKETAREN BILAKAERA EAE-N.



Iturria: GIZARTE SEGURANTZAREN datuekin eginikoa. Ekonomiari eta finantzei buruzko informazioa

Zenbateko horretatik %90,3 Gizarte Segurantzaren Kuotei dagokie. Gainerako %9,7a lan-istripuetako mutuetakoak eta lanbide-gaixotasunetakoak dira. %74,4ren jatorria araubide orokorra da, eta guztira 4.903,9 milioi euro dira (+2,4 aurreko urtearen aldean). Halaber, Gizarte Segurantzak Langabeziari, FOGASAri eta Lanbide Heziketari dagozkien kuotak biltzen ditu, eta horien guztizko batura, gure Erkidegoan, 1.295 milioi euro zen 2016an, aurreko urtean baino 45 gehiago.

IV.2.7. GIZARTE SEGURANTZAREN DIRUZAINTZAREN KUOTEN BILKETAREN BILAKAERA EAE-N. MILIOI EUROTAN.									
	BEHIN-BEHINEKO DATUAK					2017 behin-b	ALDAKUNTZAREN %		
	2013	2014	2015	2016	Dist. 2016*		2014-15	2015-16	2016-17p
OROKORRA	4.685,0	4.740,6	4.790,3	4.903,9	74,4	4.258,0	1,0	2,4	-13,2
AUTONOMOAK	685,5	696,2	693,4	696,1	10,6	588,8	-0,4	0,4	-15,4
ITSASOKO LANGILEAK	27,1	26,0	28,5	30,2	0,5	26,0	9,6	6,0	-13,9
IKATZAREN MEATZARITA	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0
AT/EP KUOTAK (DIRU-ZAINTZA)	7,3	6,9	6,9	9,0	0,1	5,7	0,0	30,4	-36,7
EEZP LANGABETUAK	468,5	409,9	351,8	312,5	4,7	250,7	-14,2	-11,2	-19,8
GZDN-REN KUOTAK, GUZT. (A)	5.873,2	5.881,9	5.871,0	5.951,7	90,3	5.129,3	-0,2	1,4	-13,8
AT ETA EP KUOTAK	393,0	402,6	408,3	424,2	6,4	:	1,4	3,9	:
ITC ARRUNTAK	175,8	191,7	202,8	212,3	3,2	:	5,8	4,7	:
JARDUERA UZTEA	4,8	5,0	4,9	4,6	0,1	:	-2,0	-6,1	:
MUTUAK, GUZTIRA (B)	573,6	599,3	616,0	641,1	9,7	:	2,8	4,1	:
GZ SISTEMAKO BILKETA, GUZT (A+B)	6.446,8	6.481,2	6.487,0	6.592,8	100,0	:	0,1	1,6	:
LANGABEZIARAKO KUOTAK	1.056	1.071	1.100	1.140	17,3	:	2,7	3,6	:
FOGASA	27	28	28	29	0,4	:	0,0	3,6	:
LANBIDE HEZIKETA	118	119	122	126	1,9	:	2,5	3,3	:

Iturriak:GIZARTE SEGURANTZA. Ekonomiari eta finantzei buruzko informazioa. Behin betiko datuak 2016ra arte eta behin-behinekoak 2017an. GZDN: Urteko memoriak. Geuk egina.
** Portzentaje bertikalak, sistemaren bilketa osoaren %100 aintzat hartuta 2016an (6.592,8 milioi euro).*

Kuoten bilketako kopuruak erkatuta ikusten denez, 2016an (bi datuak ditugun azken ekitaldia), gastua 8.223 milioi eurokoa zen gure zenbatespenen arabera. Sarrerak, berriz, 6.592,8 milioi eurokoak ziren eta, beraz, saldo negatiboa izango litzateke, 1.630,2 milioi euro; aurreko urtean -1.460 milioi ziren.

Defizita gertatu da, beste urte batez, sarreren eta kotizaziopeko pentsioetako gastuen arteko bilakaera desberdinagatik. 2016an, gastua %3,5 handitu zen, baina sarrerenak %1,6 hazi zirenez gero, kotizaziopeko pentsioen saldo negatiboa handitu eta larriagotu egiten da EAEn, 2014aren aldean %11,4 hazi baita. Izan ere, urte horretan %21,3ko gehikuntza izan zen.

IV.2.8. TAULA. KOTIZAZIOPEKO PENTSIOEN GASTUAREN BILAKAERA ETA GZDN-REN KUOTEN BILKETAREN ZIOZKO SARRERAK EAE-N (MILIOI EURO)								
	2013	2014	2015	2016	2017*	Ald. % 2014/15	Ald. % 2015/16	Ald. % 2016/17
KOTIZAZ. PENTSIOEN GASTUA. G.S.*	7.631,6	7.685,3	7.947,4	8.223,0	8.502,7	3,4	3,5	3,4
GZDN-K BILDUTAKO KUOTAK	6.446,8	6.481,2	6.487,0	6.592,8	..	0,1	1,6	..
SALDOA	-1.184,8	-1.204,1	-1.460,4	-1.630,2	..	21,3	11,6	..
SARRERA / GASTUA	0,84	0,84	0,82	0,80	..			

*Iturria: GIZARTE SEGURANTZA. Ekonomiari eta finantzei buruzko informazioa. Geuk Egina. *Behin-behineko datuak.*

2017ko kopuruei dagokienez, badakigu zen den gizarte kotizazioen ziozko bilketaren behin-behineko datua EAEn (mutua kolaboratzaileei dagokien zenbatekoa zenbatzeko zain); izan ere, 5.129,3 milioi euro da, 2016an baino %13,8 gutxiago. Halaber, kotizaziopeko pentsioen gastua 8.502,7 milioi eurokoa izan zen eta, beraz, bien arteko aldea 3.373,4 milioi eurokoa da.

2.2.2. Transferitutako kudeaketa duten gizarte segurantzaren prestazioak: Kotizaziorik gabeko prestazioak

Kotizaziorik gabeko prestazioak inoiz kotizatu ez duten edo kotizaziopeko prestazioak lortzeko behar besteko denboraz kotizatu ez duten eta iraupeneko bitartekorik ez izateagatik beharrizan-egoeran dauden pertsonei ematen zaizkienak dira. Errenta ekonomiko bat aitortzeaz gain, laguntza mediko eta farmazeutikoa eta gizarte zerbitzuak jasotzeko eskubidea ere badute; hortaz, beharrizan-egoeran egonez gero estaldura osoa ematen diete. Pentsio horien jatorria abenduaren 20ko 26/1990 Estatuko Legea da, Gizarte Segurantzaren Egitura eta Babesa Arrazionalizatzeko Premiazko Neurriei buruzko 26/1985 Legean hasitako erreformak osatu zituena. Estatuan autonomia erkidegoek dute

eskumena. Aldiz, EAEn, eginkizunak eta zerbitzuak besterendu ondoren, prestazioa aitortzea, kudeatzea eta finantzatzea foru aldundiei dagokie. Ordaindutakoaren araberakoak ez diren prestazioak hiru motatakoak dira: Gizarte Segurantzaren kotizaziorik gabeko pentsioak, laguntzako pentsioak eta MGL prestazioak. Jasotzen den zenbatekoa errenten eta norberaren egoeraren arabera ezartzen da.

EAEko Foru Aldundiek emandako ***kotizaziorik gabeko pentsioak,*** kopuruari eta zenbatekoari dagokienez, kotizaziorik gabeko prestazioen artean nabarmenenak dira. Diru-sarrera nahikoak ez dituzten pertsonei daude zuzenduta (diru-sarrerak nahikoak ez direla zehazteko, urteko diru-sarreren baturak pentsioaren urteko zenbatekoak baino txikiagoa izan behar du), eta ia ez dira aldatu 2013tik.

Guztira 11.587 lagunek jaso zituzten pentsio horiek 2017an (batez besteko datuak), aurreko urtean baino %2,6k gehiago, 5.273 lagunek erretiro gisa eta 6.314 baliaezintasunagatik.

IV.2.9. TAULA. GIZARTE SEGURANTZAREN KOTIZAZIORIK GABEKO PENTSIOAK: ADIERAZLE NAGUSIAK

	ONURADUNAK (URTEKO B.B.)			HILEKO ZENBAT. (€)
	ERRETIROA	BALIA EZINT.	G UZT.	
2012	4.494	5.736	10.230	354,10
2013	4.677	5.772	10.449	364,90
2014	4.731	6.041	10.772	365,90
2015	4.870	6.121	10.991	366,90
2016	5.051	6.247	11.298	366,90
2017	5.273	6.314	11.587	366,90
Ald. % 14/15	2,9	1,3	2,0	0,3
Ald. % 15/16	3,7	2,1	2,8	0,0
Ald. % 16/17	4,4	1,1	2,6	0,0

Iturria: HGZMren datuekin Egina. Laneko estatistikei buruzko buletina

Kotizaziorik gabeko pentsioen zenbatekoak Estatu osorako ezartzen dira urtero. 2017rako 366,90€ finkatu ziren hileko erretirorako zein % 65eko mailako edo horretatik gorako baliaezintasunerako. Zenbateko horiek aintzat hartuta, pentsio horien ziozko gastua, gutxi gorabehera, 59,5 milioi eurokoa izan zen 2016ko ekitaldian, hau da, 2016an baino % 2,6 gehiago, baina esan beharra dago ez dakigula zenbateko zehatza zein izan zen[15].

2.3. POBREZIAREN ETA GIZARTE BAZTERKETAREN KONTRAKO NEURRIAK EAE-N

Txirotasuna, tradizioz, gizarte desberdintasunei eta diru-sarreren maila txikiko biztanleria-kapei lotuta egon da. Azken urteotan, aldiz, gure gizartean gertatutako aldaketekin batera bai ekonomiari, bai gizarteari, bai familiari lotutakoak , marjinazio mekanismo berriak agertu dira; ekonomia hutsari lotutakoaz gain, beste eragile batzuk piztu dituzte gizarte bazterkeriako prozesuak.

EAEn txirotasunari, marjinazioari eta gizarte bazterkeriari aurre egiteko tresna nagusien artean, Gizarte Zerbitzuen Legean, Bazterkeriaren aurkako Legean eta Gizarte Eskubideen Kartaren Legean kokatuta, azken urteotan egungo Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta (lehen Oinarrizko Errenta) eta Gizarte Larrialdiko Laguntzak (GLL) izan dira. Txirotasunaren aurka borrokatzeko osoko planaren baitako gutxieneko diru-sarrerak bermatzeko programak dira biak. Horiek ez ezik, gizarteratze, prestakuntza eta laneratze programak ere badaude, partaideen (laneratze enpresak sortu ahal izatea aintzat hartu da), udalen eta bazterkeria egoeran edo arriskuan dauden pertsonen arteko hitzarmenen bidez.

2.3.1. Gizarteratze Planak: 2014-2016ko Planaren balantzea eta 2017-2021eko Plan berria

Aldi berean, Gobernuak hainbat plan egin izan ditu pobreziaren eta bazterketaren kontra. Hainbat izen hartuta, pobreziaren eta gizarte bazterketaren kontrako borrokaren oinarriak ezartzea eta aipaturiko araudia garatzeko abiatu beharreko helburuak eta neurriak egituratzea du helburu.

[15] *Azkenik, ez dugu Gizarte Segurantzako eta legearen (13/82) eta Ezinduen Gizarteratzeari buruzko Legearen (EGL) ondoriozko prestazioen laguntzako pentsioen (bi legeak 1992an eta 1990ean indargabetu ziren hurrenez hurren) hartzaileen gaineko informazio eguneraturik, eta horien kopuruak behera egin izan du harrezkero. Ez da aintzat hartuko pentiso horiek EAEko pentsioetako gastu agregatuaren kalkuluan duten zenbatespena ere (kapitulu honetan hitzaurrean egiten dena). Nolanahi ere, milioi eurotik beherakoa izango litzateke.*

2017an, 2012-2016ko aldian buruturiko Gizarteratze Aktiborako III. Planaren ebaluazioa aurkeztu du, IV. Plana egiteko abiapuntu gisa. Lehenik eta behin, gogorarazi behar da III. Plana egiteko helburua gizarteratzea bultzatzea zela enplegua sustatuz, errenta maila duina eta lan egin dezaketenek lan duina eskuratzea sustatuz (LNEk zehazturiko terminoen arabera betiere). Halaber, Gizarte Zerbitzuak bultzatu nahi ziren pertsona guztien integrazioa, autonomia eta ongizatea erraztuz eta gizarteratzea bultzatuz, hezkuntza bizitza osoan sustatuz, baita osasun zerbitzuak eta etxebizitzarako politikak eskuratzeko berdintasuna ere. Plan horrek Hirugarren Sektorearen esperientzia aintzatetsi eta bideratzen du aldaketarako sustatzailea den aldetik, eta diru-sarrerak bermatzeko, enplegurako eta prestakuntzarako politiken berrikuntza bultzatzea du xede, laneratzeko ikuspegi berriak zehaztuta. 2.733,73 milioi euroko gastua zenbatetsi zen, haien indarraldiko 5 urtean arloen eta denboraren arloko zenbait helburu betetze aldera.

Aldi hori igarota, Eusko Jaurlaritzak eginiko ebaluazioan aitortzen denez, lehenik eta behin ez dago gizarteratzearen eta horren hartzaile nagusien gaineko politikei buruzko gogoeta argirik, eta helburuak sakabanatuta eta ondo bideratu gabe daude. Halaber, Planean zehazturiko ekintzen benetako edukia eta horren prozesuko oinarrizko adierazleak nahikoa zehaztuta ez daudenez gero, ezin egin daiteke Planaren betetze-mailari buruzko balorazio argirik eta zenbagarririk. IV. Plana egiterakoan, abiapuntuko egoerari buruzko balorazioari esker, III. Planaren betetze-mailari buruzko zenbait xehetasun ikus daitezke, emaitzen deskribapenari esker (gehienbat kualitatiboa).

- Bilakaera negatiboa izan dute bazterketa eta pobrezia egoerek: Okerrera egin dute pobrezia eta desberdintasun tasek, horien jarraipenerako erabilitako adierazlea edozein delarik ere, baita lan-merkatuko adierazleek, ere, bereziki iraupen luzeko langabeziari eta laneko prekarietateari buruzkoek. Horrez gain, errenta txikiena duten taldetan egin du okerrera neurri handiagoan. Halaber, gora egin dute alokairuko etxebizitza eskuratzeko kostuek, baina egonkor eutsi zaio etxebizitza eskuratu beharra duen biztanleriaren portzentajeari. Gainera, badirudi behera egin duela muturreko bizitegi bazterketan dauden pertsonen kopuruak.

- Administrazioek erabilitako baliabideei dagokienez, Gizarte Zerbitzuen Estatistikaren arabera, 2012 eta 2015 bitartean 2.300 milioi euro erabili dira guztia horretarako, gehi beste 1.500 milioi euro, oro har enplegurako politika aktiboetarako. Baliabide horien erabilpenari dagokionez, gogorarazi behar da %10 hazi dela DBSEren titularren kopurua 2012 eta 2016 bitartean. Prestazio horretarako gastua, berriz, %16 handitu da, eta aldi berean, GLL eta EPO %31 hazi eta %6 jaitsi da zuzeneko laguntzaren arloko gizarte zerbitzuetakoa gizarte bazterketaren arloan. Europako gainerako herrialdeak direla eta, txostenean nabarmentzen denez, badirudi argi dagoela Euskadik Batasuneko gainerako herrialdeek baino nabarmen gehiago gastatzen duela diru-sarrerak bermatzeko prestazioetan.

- Planak kopuruaren aldetik ezarritako helburuak bete ez direla eta kontsultaturiko pertsonek adierazitako iritzia (tartean diren eragile publikoek eta pribatuek) kontuan hartuta, helburuak bete ez direla ondorioztatzen da, baina neurri asko garatu egin dira eta eragin ona izan da pobrezia egoerei aurre egiteko eta egoera horiek gutxitzeko arloan.

Alabaina, III. Plana ez da nahikoa izan gizarteratzeko politika erakundeen artean bideratzearen ikuspegitik.Hori abiapuntu hartuta eta gure inguruko herrialdeen jardunak aztertu ondoren, "*2017-2021eko Gizarteratzeko IV. Euskal Planak*" jarduteko bere esparrua zehazten du paradigma hauek oinarri hartuta:

1. Gizarteratze aktibotik aktibazio inklusibora.
2. Pertsonalizazioa, laguntasuna, jabekuntza eta kontrola.
3. Gizarte esku-hartzearen paradigma eta prebentzioaren garrantzia.
4. Ekintza boluntarioak eta auzo-lana (bir)aurkitzea.
5. "*Making work pay*" filosofia edo enplegua errentagarria egitea.
6. Gizarte osagarriek laneratzeko iraunkortasunerako duten garrantzia.

7. Enplegua eta trebakuntza langabetuen eskubideak diren aldetik.
8. Aurretik, bitartean eta ondoren laguntzea: laneratze iraunkorrak bilatzea.

Eta paradigma horiek aintzat hartuta, estrategia berria zehazten da lau helburutan oinarrituz, ondoren helburuen multzoan garatuko direnak[16] :

- ✓ Enplegua: Enpleguaren prekarizazio-prozesuei aurre egitea, gazteak edota lana lortzeko zailtasun handienak dituztenak laneratzea bultzatzea eta enpleguko euskal sistema hobetzen jarraitzea.
- ✓ Diru-sarreren bermea: diru-sarrerak bermatzeko euskal eredua zaintzea eta hobetzea, gizarte legitimotasuna eta iraunkortasun ekonomikoa bermatuz.
- ✓ Gizarte zerbitzuak: Gizarte Zerbitzuen Legearen garapena bultzatzea halako moldez non herritar guztiek gizarte zerbitzuak eskuratzeko duten eskubidea bete, gizarte zerbitzuen sistema Planean ezarritako oinarrietarako egokitzapen kontzeptuala lortu eta gizarteratze-programa berriak bultzatuko baitira herritarrek eta gizarteak parte hartuta betiere.
- ✓ Etxebizitza: gizarte bazterketan edo arrisku horretan dauden pertsonek etxebizitza eskuratzeko erraztasunak ematea, etxebizitzarako eskubide subjektiboa garatuz eta bizitegi bazterketako egoerei aurre eginez eta horiek landuz.

IV. Plana abiarazteko, 815 milioi euro zenbatetsi dira urtean, honelaxe banakatuta:

- 400 milioi euroko gastua DSBErako eta GLLrako urtean, hain zuzen 2012-2015eko urteko batez besteko gastuari dagokiona.
- Urtean 100 milioi euro etxebizitza prestazioetan, eta 20 milioi euro gehiago jarri dira aurreko epealdian emandakoaren aldean.
- Urtean 200 milioi euro alokairua bultzatzeko beste politika batzuetarako, Etxebizitza Sailak 2018rako onetsitako partida horretarako aurrekontuaren ildotik.
- Urtean 75 milioi euroko gastua 2017-2020ko Enplegu Planean ezarriak laneratzeko pizgarrietarako erabiltzeko (301 milioi euro 4 urteko epealdirako).
- Urtean 45 milioi euroko gastua gizarte zerbitzuetan Zorroaren Dekretuan ematen den gizarteratzeko (20120 eta 2015 bitartean 42 milioi euroko gastua izan da batez beste.).

Kopuru horiek abiapuntu izanik, eta Hezkuntza eta Osasun gastuak alde batera utzita, 4.000 milioi euroko gastu metatua zenbatetsi da Planean, IV.2.10 taulan zehazturiko helburu kuantitatiboak lortzeko erabili beharko liratekeenak.

IV.2.10. TAULA. 2017-2021EKO GIZARTERATZE EUSKAL PLANA: ERAGIN-ADIERAZLEAK.

	ABIAPUNTU ADIERAZLEA	ESPERO DEN ADIERAZLEA
MANTENTZE-POBREZIA	7,1	< 5,6
GIZONEN OKUPAZIO-TASA	70,5	> 75
EMAKUMEEN OKUPAZIO-TASA	62,4	> 66
LAN INTETSITATEKO TXIKIKO TASA	10,2	< 8
ESKOLA UZTE-TASA	7,3	< 7
GIZONEK ANTZEMANDAKO OSASUN TXARRA	2,40	< 2,37
EMAKUMEEN ANTZEMANDAKO OSASUN TXARRA	2,55	< 2,49
ETXEBIZITZA ESKURATU BEHAR DUTEN FAMILIAK	7,4	< 5

Iturria: EUSKO JAURLARITZA. 2017-2021eko Gizarteratze IV. Euskal Plana.

Memoria honen hurrengo edizioetan egingo da 2017-2021eko Gizarteratze IV. Euskal Planari buruzko jarraipena eta balorazioa.

[16] *Helburuen xehetasunak izateko:* https://www.irekia.euskadi.eus/uploads/attachments/11247/IV_PLAN_VASCO_DE_INCLUSION.pdf?1519744181

2.3.2. Diru-sarrerako Bermatzeko Sistemaren prestazioak

2009. urtean, abenduaren 23ko Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko 18/2008 Legea hasi zen indarrean. Lege horren helburu nagusiak ditugu, alde batetik, Diru Sarrerak Bermatzeko eta Gizarteratzeko Euskal Sistema eratzea, sistema autonomiadun gisa —gizarte-zerbitzuek eta enplegu-zerbitzuek parte hartzen dute sistemaren kudeaketan eta herri-erakundeen beste arlo batzuek ere laguntzen dute—, eta bestetik, Diru Sarrerak Bermatzeko eta Gizarteratzeko Euskal Sistemaren jardunbide-abiaburuak eta egiturazko oinarriak finkatzea, euskal herritarrek modua izan dezaten prestazio ekonomikoei eta gizarteratzeko nahiz laneratzeko tresnei heltzeko, berdintasunean eta ekitatean oinarrituta, betiere beharrezko neurriak hartuta tresnon batekotasuna bermatzeko lurralde osoan[17].

IV.2.4. GRAFIKOA. DIRU-SARRERAK BERMATZEKO EUSKAL SISTEMAKO PRESTAZIOE GASTUAREN (MILIOI EUROTAN) BILAKAERA



Iturria: Gizarteratze Zuzendaritzaren datuekin eginikoa. EUSKO JAURLARITZA.
**AESren 2017ko datua zenbatespena da*

Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemak, 2017ean, 501,8 milioi euro gastatu zituen orotara, aurreko urtean baino %4,6 gutxiago. Honelaxe daude banatuta: 381,71 milioi Sarrerak Bermatzeko Errentan eginiko gastuari dagozkie (guztizkoaren %76,1, eta 2016an baino %4,7 gutxiago), 86,72 milioi Etxebizitzaren Prestazio Osagarrirako (guztizkoaren % 17,3 eta 2016ean baino %2,8 gehiago), eta eginiko zenbatespenen arabera, Sistemaren gastu agregatua kalkulatzeko, Gizarte Larrialdirako Lagunetarako erabilitako 33,4 milioi eurori eutsi egin zaie 2016an (Sistemako gastu guztiaren %6,7), laguntza horri buruzko datu ofizialak izan arte.

Prestazio horiek EAEko bizi-baldintzetan dituzten ondorioei dagokienez, Eusko Jaurlaritzaren "Txirotasunari eta gizarte desberdintasunei buruzko Inkesta"k (TGDI) uste du 2016an pobrezia atalasearen azpitik bizi diren pertsonak Euskadin % 36,8 murriztu direla, laguntza horien ondorioz. Prestazio horiek izan gabe benetako txirotasun egoeran dauden pertsonak biztanleriaren % 9,1 dira (194.060 lagun), baina prestazio horiek banatu ondoren portzentajea % 5,7koa da (63.069 lagun, eta %2,9, arreta jaso arreta pobreziatik irteten ez direnak, gehi arretarik jasotzen ez duten %2,8). Kopuru horiek ikusita ondorioztatzen denez, EAEko Sarrerak Bermatzeko Sistemak pobrezia arriskuan zeuden biztanleen %69,3rengana iritsi zen 2016an: 134.563 lagun (biztanleria osoaren %6,3)[18].

a) Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta

Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta (DBE) ematen zaie EAEn gutxienez urtebetean erroldatuta dauden eta oinarrizko beharrei eta laneratzeko eta gizarteratzeko prozesuaren ondoriozko beharrei aurre egiteko nahikoa diru-baliabiderik ez duten pertsonei, betiere 18/2008 Legeak eta hura garatzeko araudian ezarritako baldintzak betetzen badituzte[19].

---

[17] *18/2008 Legeari eta ekarri zituen berrikuntzei buruzko informazio gehiago nahi izanez gero, ikus Memoria Sozioekonomiko honetako 2009-2012ko edizioak.*

[18] *Emaitzei buruzko informazio gehiago nahi izanez gero, ikus Memoria Sozioekonomiko honetako 2016ko edizioa.*

[19] http://www.lanbide.euskadi.eus/rgi/-/informacion/rgi-legislacion-y-normativa/

2017an, guztira, 381,7 milioi euro ordaindu ziren DBErako (2016an baino %4,9 gutxiago eta, halaber, EAEko 2016ko Aurrekontu Orokorretan partida horretarako ezarritakoa baino 20,4 milioi euro gutxiago). Gutxipen hori heterogeneoki banatzen da autonomia erkidegoko hiru lurraldeetan zehar. Hala, gastua txikitu egin da Gipuzkoan (-%5,8) eta Araban (-%7,9); Bizkaian, berriz, -%3,7 gutxitu da.

IV.2.11. DIRU-SARRERAK BERMATZEKO ERRENTA: GASTUAREN BILAKAERA LURRALDEEN ARABERA. MILIOI EUROTAN.

	2013	2014	2015	2016	2017	Ald. % 2015/16	Ald. % 2016/17
ARABA	56,8	64,5	67,1	68,2	62,8	1,6	-7,9
GIPUZKOA	74,0	84,2	88,8	91,2	85,9	2,7	-5,8
BIZKAIA	228,3	239,4	243,8	242,0	233,0	-0,7	-3,7
EAE	**359,1**	**388,1**	**399,8**	**401,4**	**381,7**	**0,4**	**-4,9**

Iturria: LANBIDE. Analisi, Azterlan eta Estatistika Zerbitzua.

Bestalde, 2017an 60.405 bizikidetza-unitatek jaso zuten DBE (abenduko datua da, eta 108.524 onuradunei dagokie), hots, etengabe 15 urtez hazten eman ondoren (1994 eta 2014 bitartean), hirugarren urtez beherakada izan zen 2017an, %5,3 hain zuzen ere. Lurraldeen arabera, Bizkaiak du titular hartzaile kopururik handiena, orotara 37.385 hartzaile, EAEko guztizkoaren %61,9 alegia. Gipuzkoan, aldiz, hartzaileen %23,4 dago eta gainerako %15a Araban.

IV.2.5. GRAFIKOA. DSBE: TITULAR HARTZAILEEN BILAKAERA ABENDUAREN 31N, LURRALDE HISTORIKOEN ARABERA



	2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2017
Araba	7.161	7.539	8.001	8.996	9.918	9.659	9.575	8.892
Gipuzkoa	9.904	11.424	12.482	14.102	15.314	15.077	15.039	14.128
Bizkaia	37.955	36.796	37.496	39.719	40.451	39.990	39.183	37.385
GUZTIRA, EAE	55.020	55.759	57.979	62.817	65.683	64.726	63.797	60.405

Iturria: LANBIDE.

LANBIDEren 2017ko espediente aktiboen fitxari esker, jakin badakigu 60.405 pertsona titular zeudela inskribatuta, %42,9 gizonezkoak ziren eta %57,1 emakumezkoak. Onuradun gehien biltzen dituen adin-tartea 40-59 urte bitartekoa da (guztizkoaren %37,4), eta nabarmentzekoa da ere 4.631 jasotzailek 30 urte baino gehiago dituztela. Alabaina, urte horretan DBE gehien handitu den adin-tartea 55 eta 64 urte bitartekoena da, guztira 8.857 titular baitira orotara (+%5,2).

LANBIDEK azpimarratu duenez, bizikidetza-unitate jasotzailearen pertsona titularraren profila 40 urteko emakumea da, oinarrizko ikasketak dituena (%67,3k nahitaezko ikasketak ditu, %101ek lanbide tituluren bat eta %3,9k unibertsitateko titulazioa). Horrez gain, prestazioa jasotzen duten atzerritarrak guztizkoaren %27,3 dira (%27,7 2016an), eta hartzaile titularren %25,7 pentsiodunak dira (%24,8 2016an). Datu hori dela eta, kontuan hartu behar da 15.498k, unitate hartzaileen %10,2k, soldatako errenten osagarri gisa jasotzen dutela DBE (-%2 2016aren aldean), eta kotizaziopeko pentsioen 500.000 onuradunen ia %3,1 dira (ikus kapitulu honetako IV.2.5 taula).

Bestalde, 11.993k, unitate jasotzaileen %19,9k, soldata errenta gisa jasotzen dute DBE (2016an baino 2 hamarren gehiago, baina kopuru absolutuetan, %4,6 murriztu da. Aldi berean, hile horretako prestazioaren gastuaren %18,9 ematen zaie. Talde hori eta 2017ko abenduan Gizarte Segurantzan alta emanda zeuden afiliatuen (beraz, lanik ez duten pertsonak) kopurua alderatuta ikusten denez, alta emanda dauden afiliatuen %1,3 dira DBEren jartzaileak. Datu horiek ematerakoan, bai pentsiodunen kasuan, bai soldata errenta baxuen hartzaileen aldetik, kontuan hartu behar da, baina, bizikidetza-unitateetarako prestazioa dela DBE, eta unitatean bizi diren kideen diru-sarrerak hartzen dira kontuan. Beraz, gutxi gorabeherako datuak dira.

IV.2.6. GRAFIKOA. DSBE DIRU-SARREREN OSAGARRI: PRESTAZIOA OSAGARRI GISA JASOTZEN DUTEN PENTSIODUNEN ETA LANGILEEN KOPURUAREN BILAKAERA. ABENDUAN*



Iturria: LANBIDE. Geuk egina.
**Pentsiodunen 2012tik 2014ra arteko datuak bitarteko datuak dira.*
Ez dago bete aldagai baterako informaziorik.

IV.2.12. TAULA. DIRU-SARRERAK BERMATZEKO ERRENTA: TITULARREN BANAKETAREN BILAKAERA KONTZEPTU APLIKAGARRIEN ARABERA. GUZTIZKOAREKIKO PORTZENTAJEA. ABENDUKO DATUAK

	MODALITATEA		PENTSIODUNA		OSAGARRIAK		GUZT
	OSAGARRIA LANEKO SARRERAK	OINAR.	EZ	BAI	GURASO BAKAR.	EPO	
2015	19,0	81,0	74,9	25,1	14,9	45,0	100,0
2016	19,7	80,3	75,2	24,8	15,3	46,2	100,0
2017	19,9	80,1	74,3	25,7	15,5	46,2	100,0
Ald. 15/16	0,7	-0,7	0,3	-0,3	0,4	1,2	-
Ald. 16/17	0,2	-0,2	-0,9	0,9	0,2	0,0	-

Iturria: EUSKO JAURLARITZA. LANBIDEren datuekin eginikoa.

DBEren osagarriei dagokienez, lehenbizikoa Etxebizitzaren Prestazio Osagarria da, aurrerago ikusiko denez, 27.917 bizikidetza-unitatek jasoa erreferentziako datan, guztizkoaren %46,2 (ikusi hurrengo atala). Aldi berean, unitate horien 9.338 pertsona titularrek osagarria jasotzen dute guraso bakarra izateagatik (%15,5).

2017ko maiatzean, "*Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta hobetzeko oinarriei buruzko dokumentua*" delakoan, prestazioei buruzko inkestaren emaitzak argitaratu zituen Eusko Jaurlaritzak, herritarrek diru-sarrerak bermatzeko sistemari buruz duten irudipenaren berri izateko. Lehenik eta behin nabarmentzen denez, euskal herritar gehienek badute DBE prestazioaren berri (%86k entzuna du, 2013an baino 28 puntu gehiago), baina ezagutza zabal hori txikia da laguntza eskatzeko tokiaz galdetzean. Izan ere, inkestaturiko pertsonek %24,8k baino ez zekien nora jo diru premia izanez gero. Horrez gain, kontsultaturiko pertsonen %41,ek ez daki DBE egun jasotzen dutenek baino pertsona gehiago jasotzeko modua dagoen.

Errenta osagarriei dagokienez, kontsultaturiko gehienak -%82 eta %90 hurrenez hurren- bat datoz esatean DBE eman beharko litzaiekeela soldata edo pentsio txikia jasotzen dutenei.

Bestalde, Osasun, Gizarte Politika eta Berdintasun Ministerioaren "Gizarteratzeko Gutxieneko Errentei buruzko txostena" delakoari esker, autonomia erkidegoetako sarrerak bermatzeko sistemen kopuru handien konparaziozko jarraipena egin daiteke, sistema horiek garatzeko araudien heterogeneotasuna eta garapen maila ezberdinak kontuan izanik.

2015eko ekitaldiari buruzko txostenaren arabera (argitaraturiko azkena), urte horretan gure erkidegoak 6.075,42 euro gastatu zituen urtean prestazio horien titular bakoitzeko, estatuko 3.575,52 euroko batez bestekoaren aldean (%70

gehiago), eta haren estaldura-tasa % 36,71ekoa izan zen mila biztanleko. Estatuko batez bestekoa, berriz, 7,75 izan zen mila biztanleko. Azterlanaren arabera, gure Erkidegoak 2015ean Estatuan prestazio horietarako emandako funts guztien %35,9 erabili zuen DBErako gehi EPO, autonomia erkidegoen arabera. Euskal biztanleriak Estatu osoan duen pisuaren arabera egokitu beharko litzaiokeena baino askoz portzentaje handiagoa da; izan ere, %4,7koa da aipaturiko urtean. Bestalde, DBEren oinarrizko kopurua 619,29€ da hilean, Estatuko batez bestekoa baino %42,1 gehiago, autonomia erkidego guztietatik handiena.

IV.2.13. TAULA. GUTXIENEKO GIZARTERATZE-ERRENTEN ALDERAKETA AA.EE.EN ARABERA. 2015EKO DATUAK

	ESTALDURA-TASA (1.000 BIZT.)		TITULAR JASOTZAILEAK			BETEARAZITAKO GASTUA (MILIOI €)		
	2014	2015	Abs. 2015	% 2015	Ald. % 14/15	Abs. 2015	% 2015	Ald. % 14/15
ANDALUZIA	2,69	6,15	51.656	15,97	128,2	89,11	6,6	-1,7
ARAGOI	5,82	6,51	8.582	2,65	11,2	30,56	2,2	6,7
ASTURIAS	14,64	19,28	20.263	6,27	30,4	101,86	7,5	23,7
BALEARS (ILLES)	2,67	2,80	3.095	0,96	5,2	10,21	0,8	10,1
U. KANARIARRAK	3,34	5,78	12.136	3,75	72,8	39,45	2,9	48,9
KANTABRIA	11,29	11,01	6.445	1,99	-3,0	21,70	1,6	24,7
GAZTELA-MANTXA	1,22	1,45	2.993	0,93	18,4	6,29	0,5	14,4
GAZTELA ETA LEON	5,44	6,21	15.351	4,75	13,2	72,97	5,4	32,7
KATALUNIA	3,60	3,93	29.537	9,13	9,1	174,42	12,8	7,7
CEUTA	4,48	2,35	198	0,06	-48,0	0,48	0,0	-40,0
EXTREMADURA	8,94	10,09	11.023	3,41	12,1	33,47	2,5	91,3
GALIZIA	4,39	5,07	13.848	4,28	14,7	50,21	3,7	13,9
MADRIL	3,73	4,64	29.865	9,23	23,9	121,47	8,9	22,6
MELILLA	10,90	11,78	1.008	0,31	9,4	3,62	0,3	16,8
MURTZIA	2,20	3,28	4.820	1,49	49,2	10,50	0,8	45,8
NAFARROA	18,28	20,01	12.875	3,98	9,9	63,88	4,7	30,4
EAE	**35,97**	**36,72**	**80.378**	**24,85**	**2,1**	**488,33**	**35,9**	**3,4**
ERRIOXA	7,82	9,30	2.950	0,91	18,3	8,85	0,7	28,3
VALENTZIAKO E.	3,02	3,32	16.383	5,07	8,3	32,13	2,4	20,3
ESTATUA	5,65	7,75	323.406	100,0	22,4	1.359,57	100,0	16,5

Iturria: Osasun, Gizarte Politika eta Berdintasun Ministerioaren datuekin egina. G. Gizarteratze Errentak. 2015.

b) Etxebizitzaren prestazio osagarria

Atal honek dakarren informazioak osatu egiten du DBEren Etxebizitzarako Prestazio Osagarriari buruzko informazioa, a) atalari dagokionez.

Etxebizitza gastuetarako Prestazio Osagarria (EPO) eskubide subjektiboko prestazio bilakatzeak sistemaren funtsezko osagai bihurrarazi du, eta 18/2008 Legearen helburua islatzen du: Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta osatzeko prestazio ekonomikoen sistema bat eratzea, biztanleria talderik ahulenei etxebizitzari lotutako gastuei aurre egiteko aukera emateko. Funtsezko gastuak estaltzeko gutxieneko egonkortasuna bermatu ez ezik, jarduketa tresna horren xedea GLLak jatorrizko helbururantz birbideratzea ere bada, hots, gastu bereziak estaltzea; horrela, beharrak direla-eta, urteen poderioz GLLak, praktikan, aldian aldiko izaera hartu eta, proportzio handi batean, etxebizitza gastuak ordaintzeko erabiliak izatera eraman zituen desbideratzea zuzendu da. Arestikoak ez du inondik inola esan nahi etxebizitza gastuak lege esparru berriak Gizarte Larrialdiko Laguntzei emandako xedeetatik at geratu direnik, halako gastuak estaltzeko Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaren titularrak ez diren pertsonei baino ezin esleituko zaizkiola baino. EPOren xehetasunak, DBEren prestazio osagarri den aldetik eta gehienez hilean 250 eurokoa izanik, etxebizitzaren prestazio osagarriari buruzko urtarrilaren 2/2020 Dekretuan daude araututa.

Indarraldiko lehen urtean (2010), guztira 50 milioitik gorako gastua izan zuen EPOk, eta urtez urte joan da handitzen gastua, 2016ko 91 milioi euroraino (orain arteko zenbatekorik handiena). 2017an 86,72 milioi euro erabili ziren prestazio horretarako, aurreko urtean baino %4,7 gutxiago. Horietatik, 13,8 milioi Arabari dagozkio (guztizkoaren %15,9), 51,8 milioi Bizkaiari (%59) eta 21,2 milioi euro Gipuzkoari (%24,4).

IV.2.7. GRAFIKOA. ETXEBIZITZARAKO PRESTAZIO OSAGARRIA: URTEKO GASTUAREN BILAKAERA DSBE-REN OSAGARRI GISA. MILIOI EURO.



Iturria. LANBIDE

Titular hartzaileen kopuruari dagokionez, 2017ko abenduan DBEren 27.917 bizikidetza-unitate onuradunek gainera EPO jaso zuten (aurreko urtean baino %5,2 gutxiago).

c) Gizarte larrialdietarako laguntzak

Gizarte Larrialdiko Laguntzak (GLL) ez dira aldian aldikoak eta oinarrizko premia zehatzei aurre egitera daude zuzenduta. Premia horiek batez ere etxebizitzari daude lotuta eta behin-behinean agertutakoak dira, eta gizarte bazterkeriako egoerak prebenitu, saihestu edo arintzeko behar diren gastuei aurre egiteko behar beste baliabiderik ez duten pertsonentzat dira. Helburu baterako dira, eta eman diren xederako baino ezin dira erabili.

Laguntza horien bidez estalitako berariazko gastuak etxebizitzaz edo ohiko bizitokiaz gozatzeari eta mantentzeari, etxebizitzaren edo ohiko bizitokiaren epe luzerako bizigarritasunari eta oinarrizko ekipamenduari (altzariak, linea zuriko etxetresna elektrikoak, oinarrizko instalazioak edo horiek egokitzeko eta/edo konpontzeko gastuak) dagozkie eta jantziei, hezkuntzari, prestakuntzari edo osasun-arretaren inguruko lehen mailako beharrizanei lotutako ohiz kanpoko, aurreikusi gabeko eta ohikoak ez diren beharrizanak sistema publikoek estaltzen ez dituztenak ordaintzekoak dira, bai eta oinarrizko Gizarte Zerbitzuen iritziz, gizarte bazterkeriako egoerak saihesteko edo arintzeko behar diren antzeko edozein beharrizan ere.

IV.2.8. GRAFIKOA. GIZARTE LARRIALDIRAKO LAGUNTZAK: TITULAR HARTZAILEEN KOPURUAREN BILAKAERA LURRALDEKA



	2005	2006	2007	2008	2009	2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016
Araba	4.884	4.353	4.547	4.670	6.520	2.544	1.840	2.694	2.990	3.822	4.503	4.249
Gipuzkoa	5.630	5.976	6.183	6.102	9.198	5.597	4.947	6.502	3.693	7.092	7.431	7.947
Bizkaia	13.774	15.765	15.668	16.528	22.300	12.025	8.544	13.804	16.124	17.935	19.002	16.686
EAE	24.288	26.094	26.398	27.300	38.018	20.166	15.331	23.000	22.807	28.849	30.935	28.882

Iturria: Gizarteratze Zuzendaritza. EUSKO JAURLARITZA

EGPO indarrean hasi ondoren, GLLek jatorrizko helburuari heldu zioten berriro eta, horregatik, nabarmen murriztu zitzaien aurrekontu partida. Horrela, 2010ean, 24 milioi euro erabili ziren guztira laguntza horietarako. Aurreko urtean, aldiz, 54,5 milioi euro baliatu ziren. 2016. urtean (informazioa dugun azken urtea) laguntza horietarako, guztira, 33,35 milioi euro erabili ziren (+%19,9 2015earen aldean). Guztizkoaren %42,5 Bizkaiari dagokio, %41,8 Gipuzkoari eta %15,7 Arabari.

Horrela, 28.882 hartzaile zenbatu dira 2016an, hau da, 2015ean baino % 6,6 gutxiago. Horietatik 4.249 Araban (% 14,6), 7.947 Gipuzkoan (% 27,5) eta gainerakoak (16.686) Bizkaian (% 57,8) bizi ziren. Guztira, hainbat kontzeptutako 43.813 laguntza eman ziren urtean, hala nola oinarrizko beharretarako (9.157 laguntza), alokairurako (8.469) edo interesen amortizaziorako (1.374), hots, laguntza bakoitzeko 761 €-ko batez bestekoa (+%1,3 2015aren aldean).

IV.2.14. TAULA. GIZARTE LARRIALDIRAKO LAGUNTZAK 2015-2016. KONTZEPTUEN ETA BATEZ BESTEKO ZENBATEKOAREN ARABERAKO BANAKETA.

	2015			2016		
	LAGUNT. K.	ZENBAT. (MILA €)	B.B. ZENBAT. LAGUNTZAKO (€)	LAGUNT. K.	ZENBAT (MILA €)	B.B. ZENBAT. LAGUNTZAKO (€)
ALOKAIRUA	7.245	7.933,3	1.094,9	8.469	11.665,67	1.377,5
AMORTIZAZIOEN INTERESAK	2.168	2.200,3	1.015,1	1.374	2.190,3	1.594,1
BESTELAKO MANTENTZE GASTUAK	18.439	10.593,1	574,5	19.488	12.045,9	618,1
ALTZARIAK ETA ETXEKO TRESNA ELEK.	1.708	688,1	402,8	1.556	472,0	303,3
KONPONKETAK ETA INSTALAZIOAK	1.236	683,1	552,7	1.186	598,6	504,8
OINARRIZKO BEHARRAK	9.360	4.465,1	477,1	9.157	4.136,5	451,7
ZORPETZEA	1.193	1.263,9	1.059,8	2.583	2.242,0	868,0
LAGUNTZAK GUZTIRA	**41.348**	**27.827,1**	**673,0**	**43.913**	**33.351,0**	**761,2**
B.U. HARTZAILEAK	30.935			28.882		
HARTZAILEAK	55.144			55.982		

Iturria: EUSKO JAURLARITZA. Gizarteratzearen Zuzendaritza.

2.3.3. Gizarteratzea errazteko programak: hirugarren sektoreko jarduerak sustatzeko jarduerak

IV.2.9. GRAFIKOA. MENDEKOTASUNERAKO ARRETA EAE-N: PRESTAZIOEN BANAKETA MOTAREN ARABERA. 2017.12.31



Fuente: GOBIERNO VASCO. Departamento de Empleo y Políticas Sociales.

Hauxe xedatu da Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legearen 6.3. artikuluan: "*Gizarte-ongizatea, gizarteratzea eta gizarte-kohesioa ez dira Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren berezko helburuak, baizik eta gizarte-babeseko beste sistema eta politika publiko batzuekin batera gauzatu beharrekoak; hala bada, horiek gauzatzeko orduan, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistema bereak diren helburu eta eginkizunen esparruan arituko da elkarlanean. Halaber, elkartasuna eta elkarbizitza sustatzea eta gizartearen parte-hartzea sustatzea beste sistema eta politika publiko batzuekin partekatutako helburutzat joko dira.*" Hortaz, gizarte zerbitzuen helburutzat hartzen da gizarte inklusioa, baina beste sistema eta politika publiko batzuekin partekatuta eta, horrekin bat, Diru-sarrerak Bermatzeari eta Gizarte Inklusioari buruzko 18/2008 Legean, gizarte inklusiorako politikaren zeharkakotasuna aipatzen da, eta horretan lagundu behar dute bi sistemek, Gizarte Zerbitzuek eta Diru-sarrerak Bermatzekoak.

Hirugarren Sektoreko jarduerak EAEko gizarte esku-hartzearen arloan sustatzeko diru-laguntzak arautzeari buruzko abenduaren 29k 649/2009 Dekretuan, gizarte esku-hartzea, funtsean, pertsona guztiak gizarteratzera bideratuta zegoela aitortzen zen, baina hainbat laguntza-lerro edo esku-hartze agintzen zituen, ez soilik gizarte inklusioraren arloari lotutakoak, baizik eta bestelako zeharkako modalitateak hartzen ziren aintzat, honako hauek bilduta: familiaren babesa, droga-mendetasunaren prebentzioa, haurren eta nerabeen arreta eta babesa, etorkinen gizarteratzea eta, oro har,

kulturartekotasuna, adinekoen arreta eta babesa, mendetasunean bizi direnak eta, oro har, ezintasuna eta maitasun-sexu askatasuna eta aniztasuna[20].

2016an, informazioa dagoen azken urtean, hirugarren sektoreko jarduerak gizarte esku-hartzearen eremuan sustatzeko diru-laguntzak eman ziren, guztira 4,34 milioi euro, aurreko urtean baino %7,7 gutxiago. Laguntza horietatik, 4 milioi, %86,2, "gizarte esku-hartze" lerrorako erabili ziren, eta gainerako %13,8a (600.000 euro inguru), "elkartegintza indartzeko".

IV.2.15. TAULA. HIRUGARREN SEKTOREKO JARDUETARAKO LAGUNTZAK GIZARTE ESKU-HARTZEAREN ARLOAN. 2016

	GIZARTE ESKU-HARTZEA			ELKARTEGINTZA INDARTZEA		
	EMANDAKO ESK.	ZENBAT. (€)	B.B. ZENBATEKO	EMANDAKO ESK.	ZENBAT. (€)	B.B. ZENBAT. (€)
GIZARTERATZEA	71	1.871.381	26.357	23	210.838	9.167
IMMIGRAZIOA KULTURARTEKOTASUNEAN	23	501.565	21.807	9	82.776	9.197
EZINTASUNA ETA MENDETASUNA	39	371.594	9.528	12	63.218	5.268
GIZARTE ZERBITZUAK	21	425.997	20.286	26	176.600	6.792
FAMILIA	16	270.799	16.925	4	14.487	3.622
HAURRAK ETA NERABEAK	11	247.147	22.468	7	43.784	6.255
SEXU-MAITASUN ANIZTASUNA ETA ASK.	3	49.042	16.347	0	-	-
ADINEKOAK	1	5.952	5.952	1	7.296	7.296
GUZTIRA	**185**	**3.743.478**	**20.235**	**82**	**598.999**	**7.306**

Iturria: EUSKO JAURLARITZA. Gizarteratze Zuzendaritza.

Gizarte esku-hartzeko jardueretarako laguntzen bidez, lehenik eta behin, 185 eskabide bete ziren (202 2015ean) eta, horien guztizko zenbatekoa ikusita, batez besteko 20.235 €-ko laguntza zenbatetsi da, aurreko urteko batez besteko laguntza baino %0,3 gutxiago. Esku-hartzearen eremuen arabera, funtsen zatirik handiena (%50) eta emandako laguntzen zatirik handiena (%38,4) gizarte inklusiorako erabili ziren, eta batez besteko laguntza 26.357€ izan zen. Bigarrenik, funtsen %13,4 immigraziorako esku-hartzetarako laguntzetarako erabili ziren kulturartekotasunean, eta hirugarrenik, %11,4 gizarte zerbitzuen arlorako.

Bigarrenik, boluntariotza eta elkarteetako partaidetza indartzeko jardueretarako laguntzei esker, guztira 82 eskabideri erantzun ahal izan zitzaien (86 2015ean), eta batez besteko laguntza 7.306€-koa izan zen (+%4,9 aurreko urtearekiko). Esku-hartzearen eremuen arabera, funtsen %35,2 gizarte zerbitzuen arlorako erabili zen, eta eskabideen %28 bete ziren. Era berean, funtsen %29,5 eskabideen %31,7 betetzeko erabili ziren, hain zuzen gizarteratzearekin zerikusia zuten eskabideak betetzeko.

2.4. MENDEKOTASUNAREN ARRETA

Norberaren Autonomia Sustatzeko eta Menpekotasun-egoeran dauden Pertsonei Arreta emateko Legea (Menpekotasunaren Legea)[21], Estatuko araudia da eta 2007. urtean hasi zen indarrean. Lege horren xede nagusia hauxe da: "ahultasun bereziko egoeran daudelako, eguneroko oinarrizko jarduerak garatzeko laguntza behar duten pertsonen beharrizanei erantzutea, haien autonomia areagotzea eta, horrela, herritartasun-eskubideak bete-betean gauzatu ahal izatea". Lege horrek aurrerapen handia ekarri zuen gizarte-politiketan, menpekotasun-egoeran dauden pertsonei aitortzen dielako eta arautzen duelako legeak berak ezarritako prestazio eta zerbitzuez baliatzeko eskubide subjektiboa.

2.4.1. Datu ofizialak. IMSERSOren 2017ko balantzea

Adinekoen eta Gizarte Zerbitzuen Institutuaren (IMSERSO) 2017ko abenduaren 31ko datuek adierazi dute data horretan EAEk 99.245 balorazio eskabide erregistratu zituela Mendekotasunari Arreta eskaintzeko Sisteman. Gainerako erkidegoetan bezala, eskabide horietako gehienak mendekotasun mailaren aintzatespena berrikusteko dira. Eskabideen

[20] *Geroago, abenduaren 4ko **271/2012 Dekretuak** Hirugarren Sektoreko jarduerak sustatzeko diru-laguntzak arautu zituen EAEko gizarte esku-hartzearen arloan Enplegu eta Gizarte Gaietarako Sailaren bitartez. Baztertuta gelditu zen droga-mendetasunaren prebentzioa, zeren eta, lehia-egitura dela-eta, jarduteko arlo hori orduko Osasun eta Kontsumo Sailaren esku gelditu baitzen.*

[21] *39/2006 Legea, abenduaren 14koa, norberaren autonomia sustatu eta menpekotasun-egoeran dauden pertsonei arreta ematekoa.*

kopurua EAEko biztanleriaren %4,52ko ratioa da (+0,11 puntu aurreko urtearen aldean).

IV.2.16. MENDEKOTASUNAREN ARRETA AUTONOMIA ERKIDEGOEN ARABERA. KONPARAZIOZKO EGOERA 2017KO ABENDUAREN 31N.

	ESKABIDEAK/BIZTANLERIA %			DIKTAMENAK/ESKABIDEAK %			ONARTUAK/ IRIZPENAK %		
	2015	2016	2017	2015	2016	2017	2015	2016	2017
ANDALUZIA	4,48	4,53	4,58	92,18	93,42	92,64	79,32	70,70	81,18
ARAGOIN	3,27	3,44	3,58	90,43	89,64	85,25	82,36	83,31	83,47
ASTURIAS	3,17	3,37	3,57	90,23	90,57	88,33	73,04	74,60	75,60
U. BALEARRAK	2,15	2,27	2,47	92,22	92,70	93,35	79,03	79,48	79,21
U. KANARIARRAK	2,02	2,04	2,25	83,88	84,81	75,66	84,48	84,68	85,34
KANTABRIA	3,93	3,64	4,12	98,12	97,99	97,86	84,01	83,95	84,41
GAZTELA-MANTXA	4,53	4,78	5,03	94,59	94,04	93,28	77,11	77,94	78,99
GAZTELA-LEON	4,12	4,15	4,22	94,69	95,23	92,23	79,25	79,96	79,77
KATALUNIA	3,74	3,86	4,04	94,44	92,43	92,29	78,26	80,93	79,55
VALENTZIAKO E.	2,15	2,03	2,19	81,45	85,29	83,53	77,57	79,54	80,75
EXTREMADURA	4,70	4,87	5,05	91,01	88,63	87,61	73,31	74,81	73,55
GALIZIA	2,90	2,93	2,98	96,73	97,83	98,14	85,44	85,46	84,78
MADRIL	2,79	2,63	3,15	98,72	99,25	99,86	72,57	75,24	73,29
MURTZIA	3,07	2,94	3,02	97,84	98,57	97,62	90,65	90,63	90,74
NAFARROA	2,73	2,86	3,09	97,59	98,17	99,10	78,69	78,31	77,73
EAE	4,23	4,41	4,52	96,64	96,37	99,34	77,76	78,19	77,43
ERRIOXA	4,59	4,73	4,80	99,92	99,44	99,78	69,91	70,28	72,21
CEUTA ETA MELILLA	2,37	2,35	2,41	96,21	97,73	97,11	68,52	68,51	69,38
ESTATUA, GUZTIRA	3,45	3,48	3,67	93,41	93,64	92,98	78,46	79,91	79,50

Iturria: IMSERSOren datuekin eginikoa. Autonomiarako eta Mendekotasunaren arretarako Sistemaren estatistika informazioa. 2017ko abenduaren 31ko datuak.

IV.2.17. TAULA. MENDEKOTASUNAREN ARRETA AUTONOMIA ERKDIEGOEN ARABERA. ONURADUNAK ETA PRESTAZIOAK. EGOERA 2017KO ABENDUAREN 31N.

	ONURADUNAK/BIZTANLERIA			PRESTAZIOAK ONURADUN BAKOITZEKO			SENIDEAK ZAINTZEKO DIRU-LAGUNTZAREN %		
	2015	2016	2017	2015	2016	2017	2015	2016	2017
ANDALUZIA	2,13	2,19	2,35	1,30	1,29	1,29	32,96	29,68	27,91
ARAGOI	1,35	1,61	1,96	1,01	1,08	1,12	53,39	46,22	40,82
ASTURIAS	1,67	1,92	2,05	1,07	1,29	1,28	39,92	33,18	31,73
U. BALEARRAK	1,05	1,32	1,50	1,01	1,01	1,13	68,14	69,80	60,31
U. KANARIARRAK	0,66	0,80	0,92	1,02	1,02	1,04	38,76	41,11	38,34
KANTABRIA	2,38	2,30	2,36	1,12	1,12	1,12	50,04	51,43	49,01
GAZTELA-MANTXA	2,98	3,49	3,66	1,28	1,28	1,30	22,43	21,91	21,00
GAZTELA ETA LEON	1,79	2,02	2,53	1,33	1,25	1,21	31,85	26,51	21,13
KATALUNIA	1,68	1,68	1,87	1,44	1,26	1,25	47,85	45,85	45,67
VALENTZIAKO E.	0,87	1,04	1,24	1,13	1,08	1,06	43,44	49,94	51,44
EXTREMADURA	2,03	2,25	2,37	1,10	1,09	1,10	29,86	26,38	24,17
GALIZIA	1,53	1,81	2,04	1,09	1,12	1,15	24,08	23,57	21,02
MADRIL	1,57	1,68	1,81	1,25	1,31	1,30	21,32	17,26	17,42
MURTZIA	1,87	2,19	2,31	1,26	1,25	1,25	54,02	53,81	54,00
NAFARROA	1,41	1,52	1,91	1,19	1,22	1,27	53,08	54,79	57,92
EAE	**2,33**	**2,58**	**2,83**	**1,14**	**1,23**	**1,23**	**46,01**	**45,12**	**43,52**
ERRIOXA	2,13	2,40	2,35	1,46	1,39	1,40	27,49	22,53	20,92
CEUTA ETA MELILLA	1,38	1,51	1,54	1,28	1,33	1,34	45,88	41,17	40,07
ESTATUA, GUZTIRA	1,71	1,86	2,05	1,25	1,23	1,23	36,12	33,79	32,72

Iturria: IMSERSOren datuekin eginikoa. Autonomiarako eta Mendekotasunaren arretarako Sistemaren estatistika informazioa. 2017ko abenduaren 31ko datuak.

Eskabide horiek, gainera, Estatuan erregistraturikoen %5,8 dira. Gure Erkidegoan, berriz, %4,701dira, zeren eta Euskadik Estatuko populaziorik zahartuenetakoa baitu.

Eskatzailearen profila emakumeari dagokio (guztizkoaren %64,3), 80 urte edo gehiagokoa (eskabideen %54,3). Hurrengo adin-talde nagusia 65 eta 79 urte bitartekoena da, hots, eskabide guztien %20,8. Erregistratutako 99.245 txosten eskabideetatik % 99,34k jada dagokion txostena jaso zuten (Estatuko batezbestekoaren % 92,98) eta 76.344 eskabideri, hau da, txostena jaso zuten kasuen % 77,73Ri, prestaziorako eskubidea aintzatetsi zitzaien. Portzentaje hori Estatuko batezbestekoa (% 79,5) baino txikiagoa da. Horietatik %27,06k III. mendetasun gradua zuen aitortua %33,14k II. gradua eta %39,8K I. mendetasun gradua[22].

IV.2.10. GRAFIKOA. MENDEKOTASUNERAKO ARRETA EAE-N: PRESTAZIOEN BANAKETA MOTAREN ARABERA. 2017.12.31.



Iturria: IMSERSO datuekin egindakoa.

Bestalde, erreferentziako datan, 76.543 prestazio ematen ziren (+%10 2016aren aldean), eta horietatik %43,52 Senideak Zaintzeko Prestazioari dagozkio (Estatuakoa baino askoz ratio handiagoa, %32,72koa baita), %16,65 laguntza arretari, %12,14 eguneko/gaueko zentroko zaintzei eta %9,36 etxez etxeko laguntza zerbitzuei, prestazio eta zerbitzu garrantzitsu legez.

Prestazioen jasotzaileak 62.070 pertsona onuradun izan ziren (ratioa 1,23 prestaziokoa da pertsona bakoitzeko, pertsona bat zerbitzu edo prestazio bat baino gehiagoren onuradun izan baitaiteke). Kopuru hori prestazioa jasotzeko eskubidea aitortuta duten 76.344 pertsonen % 81,3koa da (%77,5 2016an).

2.4.2. Sektorearen balantzea. Mendekotasunaren behatokia

Zifra horien osagarri gisa, Gizarte Zerbitzuen Zuzendari eta Gerenteen Estatu Elkarteko kideek osatutako "Espainiako Mendekotasunaren Behatokia" delakoaren txostenek Mendekotasun Legetik abiatuta mendekotasunarentzako arreta sistemaren hedapenaren balorazio profesionalaren jarraipena egitea ahalbidetzen dute autonomia erkidegoka. Azkenak agerian uzten duenez, 2017ko abenduko datuekin, EAEk garapen handiagoa du beste autonomia erkidego batzuek baino, baloraturiko pertsonen portzentajeari dagokionez nahiz emandako prestazioei dagokienez.

Sistemaren ezarpenaren zifrei eta profesionalen balorazioari buruzko laburpen gisa, Behatokiak puntuazioa jartzen die erkidegoei eta ranking bat aurkeztu du. 2015ean, sistema ezartzeko epealdia bukatutzat eman da eta, beraz, ebaluazio metodologia aldatu da (honako hauek kontuan izateko, besteak beste: sortutako enplegua, jardun onak edo sistemaren gardentasun maila), finkatzearen bigarren etapa baloratua izateko. Urte horretan, bi puntuazio eskaintzen dira, metodologia zaharrarekin eta berriarekin.

2017ko abenduko rankingnean, hirugarren urtez metodologia berria erabilita, Gaztela eta Leon zegoen lehen tokian (9,3ko nota 10etik), eta EAE zortzigarren tokitik igo da, 5,7 punturekin (5,4 2016an). Aurreko urteetan, berriz,

[22] *39/2006 Legearen 26. artikuluan xedatuta dagoenez, mendetasuna hiru gradutan sailkatzen da:*
I. Gradua: Neurriko mendetasuna. kasu hauetan, pertsonak laguntza behar du eguneroko bizitzako oinarrizko hainbat jarduera aurrera eramateko, eta hori gutxienez egunean behin, edo tarteka laguntza mugatua behar du, autonomia pertsonalarekin laguntzeko.
II. Gradua: Mendetasun larria. pertsonak laguntza behar du eguneroko bizitzako oinarrizko hainbat jarduera aurrera eramateko, eta hori egunean bi edo hiru aldiz, baina ez du behar kanpoko zaintzaile batek etengabe laguntzea, edo laguntza-premia zabalak ditu autonomia pertsonalaren arloan..
III. Gradua: Mendetasun handia: pertsonak laguntza behar du eguneroko bizitzako oinarrizko hainbat jarduera aurrera eramateko, egunean hainbat aldiz, eta autonomia fisiko, mental, intelektual edo sentsoriala erabat galdu duenez, beste pertsona batek lagundu behar dio nahitaez eta etengabe, edo laguntza orokorra behar du autonomia pertsonalik ezaren ondorioz..

metodologia zaharrarekin, askoz toki hobeak izan zituen, noiz-eta mendetasunerako arreta sistemaren ezarpena aurreratuagoa zegoenean gure Erkidegoan Estatuko beste erkidego askotan baino.

IV.2.18. TAULA. MENDETASUNAREN BEHATOKIAK MENDETASUNAREN ARRETARI BURUZKO EGINGIKO EBALUAZIOA AUTONOMIA ERKIDEGOEN ARABERA. URTEKO ABENDUKO EGOERA *. 2012-2017.

	2012	2013	2014	2015**		2016	2017
				AURREKO ESKALA	AURREKO ESKALA		
GAZTELA ETA LEON	9,2	9,6	10,0	9,2	8,6	8,9	9,3
GAZTELA-MANTXA	5,8	5,4	5,0	5,8	5,7	6,8	8,2
ANDALUZIA	7,1	5,8	7,1	7,9	7,5	6,8	6,4
ERRIOXA	6,7	6,3	6,3	6,7	6,1	7,9	6,1
GALIZIA	5,8	5,0	4,2	5,0	4,3	6,1	6,1
MURTZIA	3,3	5,0	4,2	2,9	2,9	6,1	5,7
EAE	7,5	8,3	7,5	8,3	6,8	5,4	5,7
KANTABRIA	4,2	6,3	4,6	5,4	3,2	3,6	5,4
MADRIL	3,8	4,2	4,2	4,6	5,7	6,1	3,9
NAFARROA	5,4	5,0	5,0	3,3	2,5	2,9	3,9
VALENTZIAKO E.	0,8	0,4	1,7	1,7	-	3,2	3,6
CEUTA ETA MELILLA	2,1	1,3	1,7	3,8	3,2	4,3	3,6
ASTURIAS	4,2	3,8	5,0	5,0	3,6	4,6	3,2
ARAGOI	3,8	3,8	3,3	3,8	2,1	2,5	3,2
KATALUNIA	5,8	5,4	4,6	4,6	3,6	3,9	2,5
EXTREMADURA	5,0	5,4	6,7	6,7	3,6	5,0	2,5
BALEAREAK	2,5	2,9	3,8	2,5	2,1	3,6	2,1
U. KANARIARRAK	2,1	0,8	1,7	1,7	0,7	1,8	1,8
ESTATUKO B.B.	4,7	4,7	4,8	4,9	4,0	5,0	4,6

Iturria: MENDETASUNAREN BEHATOKIA.
(*) 0-10 puntu dira, Gizarte Zerbitzuetako zuzendari eta gerenteen estatuko elkarteak sei hilean behin emandakoak, Mendetasunaren Arretarako Sistemari buruzko funtzionamendu eta ezarpen mailaren gainekoak. Handienetik txikienerako hurrenkera ezarri da adierazle honetan 2017an.
(**) 2015ean ebaluazioaren metodologia aldatu zen. Aurreko metodologiaren (sistemaren garrantzia) eta berriaren araberako (sistemaren finkapena) puntuazioa eman da.

Behatokiak 2017rako IMSERSOren informazioa baliatuta egindako ebaluazioan nabarmentzen denez, sistemaren hobekuntza nabarmentzen da azken hiru urtean; izan ere, gora egin du onuradunen kopuruak, Estatuko mailaren hazkundearen ildo beretik. Alabaina, kritika hauxe egiten da: arreta berrien ardatza kostu txikiko zerbitzuak izan dira hala nola telelaguntza eta senideak zaintzeko prestazio ekonomikoa. Kostu handiagoko prestazioetan, berriz, hazkunde txikia izan da, edo ordezpen-tasa hutsak, hala nola eguneko zentroak edo II eta III. Graduetako egokitzeko plazak.

Bere zerbitzuen zorroan, etxez etxeko laguntza guztiaren %9 besterik ez dago (%16 batez beste Estatuan). Laguntzaile pertsonalerako prestazio ekonomikoa, aldiz, %8 da zerbitzu zorroan EAEn. Estatuan, berriz, %1ekoa besterik ez da ehuneko hori.

2.5. EAE-KO GIZARTE AURREIKUSPENEKO SISTEMA OSAGARRIAK

EAEn, gizarte aurreikuspen osagarriko sistema pribatuan protagonista nagusiak Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundeak (BGAE) eta horiek osatzen dituzten aurreikuspen planak dira. Euskal zergapekoek errentaren gaineko zergaren aitorpenean gizarte-aurreikuspen osagarriko erakundeei ordaindutakoagatik kentzen dutenaren % 92 inguru BGAEetara bideratzen dute. Gainerako % 8a beste forma batzuetara bideratzen dute, besteak beste, pentsio plan eta funtsetara, taldeko aseguru kontratuetara, mutualitateetara, etab.

Gizarte Segurantzaren sistema publikoak osatzeko pentsio plan pribatuak dauzkaten herrialde guztietan bezala, EAEn bi plan modalitate nagusi daude. Enplegu- edo lanbide- aurreikuspenekoak, langileentzat, enpresaren nahiz lan-harremanen esparruan egituratzen direnak; eta finantza-erakundeek sustatutako banakako aurreikuspen planak edo kontu pertsonalak, zeinetan edozein pertsona fisiko bazkidetu daitekeen. Azkenik, gure legerian hirugarren modalitate bat ere badago: elkarteko aurreikuspen-planak; plan horien bazkideak elkarte bateko, sindikatu bateko, elkargo bateko edo antolakunde bateko kideak dira eta ez daude besteak bezain zabalduta.

2.5.1. Magnitude nagusiak

Eusko Jaurlaritzako Ogasun eta Finantza Sailaren esanetan, 2017. urtean (behin-behineko datuak), EAEko BGAEek 25.705 milioi euroko ondarea zuten. Zenbateko hori % 2,9 igo da azken lau urteotan eta gure erkidegoko BPGren % 34,91ekoa da, behin-behineko datuen arabera. Bestalde, erakunde horretako bazkideen edo atxikipenen kopurua (kontu kopurua kontsideratuta eta ez pertsonena, zeren eta zaila baita zehaztea zenbat dauden bikoiztuta edo zenbat diren ekarpenak etenda dituzten kidetuak), 1,13 milioi da, hots, %1,8 murriztu da 2016aren aldean.

IV.2.11. GRAFIKOA. EAE-KO BGAE: ATXIKIPENEN KOPURUAREN (MILAKOETAN) ETA ONDAREAREN (MILIOI EUROTAN) BILAKAERA



Iturria: EUSKO JAURLARITZAREN datuekin eginikoa
**2017ko datuak behin-behinekoak dira*

2010aren aldean (urte horretan izan zen atxikipenik kopururik handiena -1,27 milioi-, %11,3 murriztu da. BGAEen ondareak, berriz, gorantz jarraitu du, %33,5 hain zuzen ere 2010-2017 aldian.

2017ko abenduaren 31n, Euskadin 80 BGAE zituen, horietatik laneko BGAE ziren, 33 banakoak eta 2 kideturikoak.

IV.2.19. TAULA. EUSKADKIKO BGAE 2017KO ABENDUAREN 31N* (DATUAK EUROTAN)

	ERAKUNDE ELKARTUAK	BAZKIDEAK	KUOTAK	ONDAREA	PRESTAZIOAK	ERRESKAT.
ENPLEGUA	45	460.411	267.405.715	13.885.070.770	406.615.320	2.641.909
BANAKOAK	33	665.147	407.413.501	11.797.770.536	213.994.211	159.084.512
KIDETUAK	2	1.527	342.461	22.760.687	302.209	39.543
BGAE GUZTIRA	80	1.127.085	675.161.677	25.705.611.993	620.911.739	161.765.963

Iturria: EUSKO JAURLARITZA.
*** Behin-behineko datuak.**

Kideturikoen erdia baino gehiago (%59,5,) ez zegoen banako BGAEetan, eta ondoren enplegukoak daude, kideturikoen %40,8 baitute. Kuotetan eta ondaretan, bi modalitatetan banatzen dira ia erdibana. Ordaindutako prestazioak, berriz, gehienbat enplegukoetan (guztizkoaren %65,5) metatzen dira, ondoren banakakoetan (%34,5). Kuotak, azkenik, gehienbat banako BGAEei dagozkie (guztizkoaren %60,3), eta gainerakoa enplegukoei (%39,6).

2017ko balantzea eginez esan behar da Euskadiko BGAEen ondareak lehen aldiz gainditu duela 25.700 milioi euroko langa,aurreko ekitaldian baino %2,9 hazita. Ondare hori EAEko BPGd-aren %34,91 da; ratio hori Estatukoa baino askoz handiagoa da (%9,5) eta EB15eko batez bestekoa baino pixka bat txikiagoa (%36), baina oso urruti dago ELGAko batez besteko herrialdeetatik. Erakunde horren arabera, %85,3 da.

Kuotak edo ekarpenak 2017an 675,16 milioi euro ziren, eta behera egin zuten 2016aren aldean (%0,5eko igoera). Bestalde, atxikipenak murriztu dira (-%0,8) pixka bat azken urtean). Ordaindutako prestazioa, berriz, 620 milioi euro dira, hots 2016koa baino %4,4, gehiago. Aldi berean, ordaindutako prestazioak 715 milioi eurotik gorakoak dira, hots, 2014an baino %1,4 gutxiago. Halaber, 2017an guztira 161,7 milioi euro erreskatatu ziren; aurreko urtean, berriz 181,4, hau da, %10,9ko jaitsiera.

IV.2.20.TAULA. EUSKADIKO BGAE. MAGNITUDE NAGUSIEN BILAKAERA, EUROTAN							
	2013	2014	2015	2016	2017*	Ald. % 15/16	Ald. % 16/17
BAZKIDEAK	1.180.819	1.172.028	1.157.425	1.136.122	1.127.085	-1,8	-0,8
KUOTAK	927.407.318	780.544.629	764.020.875	671.808.760	675.161.677	-12,1	0,5
PRESTAZIOAK	804.540.512	728.522.955	715.367.814	649.227.442	620.911.739	-9,2	-4,4
ONDAREA	22.531.310.355	23.684.329.254	24.177.371.662	24.976.018.731	25.705.611.993	3,3	2,9
% KUOTA/BPG	1,41	1,16	1,10	0,95	0,92		
% ONDOREA/BPG	34,19	35,23	34,93	35,25	34,91		

Iturria: EUSKO JAURLARITZAREN datuekin eginikoa.
**2017ko datuak behin-behinekoak dira.*

2.5.2. Zerga araubidea

BGAEek EAEn izan duten garapen handiaren arrazoietako bat, neurri handi batean, zerga pizgarriak izan dira; izan ere, aurrezte bide horren erakargarritasuna areagotu dute, batez ere PFEZren bitartez (zenbakiko bazkideentzat), baina baita Sozietateen gaineko Zergaren bitartez ere (bai erakundeentzat eurentzat, bai enplegu planetan enpresa edo bazkide babesleen parte hartzea bultzatzeko).

IV.2.21. TAULA. PFEZ-AREN LIKIDAZIOA: ZERGA-OINARRIAREN MURRIZTAPENAK PENTSIO PLANETARAKO ETA BGAE-EN EKARPENENGATIK.				
	ZENBAT. (MILA €)	AITORLEAK		B.B. MURRIZT. (€)
		KOP.	GUZT. %	
2010	1.201.653	497.598	42,4	2.415
2011	1.158.506	490.070	41,4	2.364
2012	823.114	420.756	39,0	1.956
2013	812.364	392.748	36,8	2.068
2014	650.214	356.947	34,0	1.822
Ald. % 12/13	-1,3	-6,7	-5,6	5,7
Ald. % 13/14	-20,0	-9,1	-7,6	-11,9

Iturria: ZERGAK KOORDINATZEKO ORGANOAREN datuekin eginikoa.

EAEn, zergari buruzko eskumenak lurralde historiko bakoitzeko foru aldundiak eta batzar nagusiek erabiltzen dituzte. Oro har, bazkideek egindako ekarpenen zenbatekoa Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren zerga-oinarritik ken daitezke[23]. Bestalde, errenta geroratutzat jotzen direnez, BGAEetatik jasotako prestazioak (baita erreskateak edo gertakizuna jazo aurretik ordaindutako zenbatekoak) norberaren lanaren etekin osotzat jotzen dira[24].

Zergak Koordinatzeko Erakundeak 2015eko txostenean emandako 2014ko ekitaldiko PFEZaren likidazio datuen arabera, BGAEetan eta gainerako aurreikuspen-moduetan egindako ekarpenengatiko kenketa 650,2 milioi eurokoa izan zen, 2013an baino % 20 gutxiago. Zenbateko hori EAEko urte horretako BPGren % 0,98koa izan zen (%1,25 2013an), guztira 356.947 aitortzaileena, aurreko urtean baino % 9,1 gutxiago. Aitortzaileen kopurua guztien % 34 izan zen.

Lurraldeen arabera, Arabak aitortzaileen % 11,7 besterik ez du, eta zerga-oinarriaren murriztapenen guztizko zenbatekoaren % 12,8 (41.928 aitortzaile eta 83,1 milioi euroko murriztapena). Bizkaiak, berriz, aitortzaileen % 45,3 izan zuen eta murriztapenaren % 45,6. Azkenik, Gipuzkoak aitortzaileen % 42,9 izan zuen eta murriztutako zenbatekoaren % 41,8.

Horrek, batez beste, 1.822 euroko kenketa dakar, zenbateko hori aurreko urtekoa baino % 11,9 txikiagoa dela. Hona hemen balioak: errenta mailarik txikienen (30.000 euro arteko likidazio-oinarria) batez besteko ekarpena 1.269 eurokoa izan zen, eta zergapekoen % 25,3k baino ez zituzten ekarpenak egin; 30.000 eta 90.000 arteko oinarria zuten zergapekoen batez besteko ekarpena 2.489 eurokoa izan zen, eta haietatik % 51,4ek egin zituzten ekarpenak; eta errenta mailarik handienetan batez besteko ekarpena 4.907 eurokoa izan zen, eta zergapekoen % 63,2k egin zituzten ekarpenak.

[23] *Ondarearen gaineko Zerga Bereziari dagokionez, bazkidearen eskubide irmoak zerga horren aitorpena aurkeztu behar den erabakitzeko baino ez dira zenbatzen, eskubide salbuetsitzat jo eta, beraz, ez dute haren zerga-oinarria osatzen.*

[24] *Kapital era jasotako prestazioa bada, %40ko murriztapena du. Errenta bada, berriz, osorik sartzen da zerga-oinarrian.*

ITURRIAK:

1. **EUROSTAT**: Lan-baldintzei buruzko Estatistika (UE-SILC). 2016ko datuak. Urtekoa. Abagunekoa.
2. **EIN**. Lan-baldintzei buruzko Inkesta. 2016ko datuak. Urtekoa. Abagunekoa.
3. **EUSKO JAURLARITZA**. Pobreziari eta Gizarte Desberdintasunei buruzko Inkesta (PGDI) 2016. Bi urterik behingoa. Abagunekoa.
4. **EUSKO JAURLARITZA**. EAEn bizitegi bazterketa larrian dauden pertsonei buruzko III. azterlana 2017. Bi urterik behingoa. Estrukturala.
5. **EUSKO JAURLARITZA.** 62 zk.ko Eusko Soziometroa, EAEko familiari buruzkoa. 2016ko datuak. Bi urterik behingoa. Estrukturala.
6. **EUSTAT**: Lana, Norberaren Bizitza eta Familia bateratzeari buruzko inkesta. 2016ko datuak. Urtekoa. Estrukturala.
7. **EUSKO JAURLARITZA**: Familiei Laguntzako III. Planaren Ebaluazioaren Txostena (2011-2015). 2017. Unekoa.
8. **EUSKO JAURLARITZA. LEHENDAKARITZA**. Lehendakariak familien eta haurren aldeko Euskal Ituna sinatzean eginiko diskurtsoa (2018ko urtarrilaren 18koa).
9. **EUSKO JAURLARITZA**: Gizarte Zerbitzuen Beharrei buruzko Inkesta. 2014ko datuak. Estrukturala.
10. **EUSKO JAURLARITZA**: Familiei eta Etxeei buruzko Inkesta. 2015eko datuak. Ez dakigu zein aldizkakotasun duen (berria). Estrukturala.
11. **EUSTAT**. Gizarte Babesaren Kontua EAEn. 2016. urtea. Urtekoa. Estrukturala.
12. **LAN ETA GIZARTE SEGURANTZA MINISTERIOA**. Laneko Estatistiken Buletina. 2017. urtea. Hilekoa. Abagunekoa.
13. **GZIN. DATU-BASEA**. 2017ko abendua. Hilekoa. Abagunekoa.
14. **GIZARTE SEGURANTZA**. Informazioari eta finantzei buruzko informazioa autonomia erkidegoen arabera. Hilekoa. Estrukturala.
15. **GSDN**. Urteko memoriak. 2016ko datua. Urtekoa. Estrukturala.
16. **EUSKO JAURLARITZA. LAN ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA**. Inklusio Aktiborako III. Plana 2017-2021.
17. **LANBIDE**. DSBEri buruzko hileko txostena. 2017ko abendua. Hilekoa. Abagunekoa.
18. **EUSKO JAURLARITZA**. Pobreziari eta Gizarte Desberdintasunei buruzko Inkesta. 2016. Bi urterik behingoa. Estrukturala.
19. **EUSKO JAURLARITZA. LAN ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA**. Txostena: “Gizarte bazterketaren kontrako borroka”. Urtekoa. Estrukturala.
20. **OSASUN, GIZARTE POLITIKA ETA BERDINTASUN MINISTERIOA**. Gizarteratzeko Gutxieneko Errentei buruzko txostena 2017. Urterokoa. Estrukturala.
21. **IMSERSO**. Autonomiarako eta Mendetasunaren Arretarako Sistemaren (AMAS) estatistika informazioa. 2017ko abenduaren 31ko datuak. Hiruhilekoa. Abagunekoa.
22. **MENDETASUNAREN BEHATOKIA**. Behatokiaren XVII. Irizpena (2018ko otsaila). 2017ko abenduaren 31ko datuak. Hiruhilekoa. Abagunekoa.
23. **EUSKO JAURLARITZA**. Ogasun eta Ekonomia Saila. BGAEren 2017ko oinarrizko datuak. Urterokoa. Estrukturala.
24. **EUSKO JAURLARTZIAREN ZERGAK KOORDINATZEKO ORGANOA.** 2015eko urteko txostena. Urterokoa. Estrukturala.

3. BIZI-BALDINTZAK ETA GIZARTE BABESA: LABURPENA ETA GOGOETAK

3.1. LABURPENA

3.1.1. Bizi-baldintzak

Krisiaren ondorioz, nabarmen handitu zen pobrezia edo bazterketa arriskuan dauden EBko herritarren kopurua, eta 2012an izan zuen gehienekoa.Egoera horren eraginpean daude gaur egun (2016koa da azken datu eskuragarria) biztanleriaren %23,4, hots, EBko 117,5 milioi herritar, Europa 2020 Estrategian ezarritako irizpideen arabera. Estrategia horri "AROPE tasa" deritzo (population at risk of poverty and exclusion). 2015aren aldean, 3 hamarren egin du behera Batasunerako batez besteko tasak (eraginpeko 1,200.000 lagun), eta, beraz, intzidentzia EBko 7 herrialdetan besterik ez da handitu. Espainian, 2016ko ratioa %27,9 zen, Europako batez bestekoa baino 4,5 puntu handiagoa (eraginpeko ia 13 milioi lagun baino gehiago), eta 7 hamarreneko murriztapena izan du aurreko urtearen aldean.

EAEn, biztanleriaren %15,9 (EUROSTAT eta EINen metodologiaren arabera) pobrezia eta bazterketa arriskuaren eraginpean zegoen 2016an, bestela esanda, 350.000 lagun (ez dago talde horren banaketari buruzko sexuaren araberako informaziorik), 2015ean baino %1,7 gutxiago. Intzidentzia %13,9koa zen krisiaren hasieran (2008ko datua). Nahikoa maila apaletan eusten zaio Europan, gora egin badu ere, hain zuzen Herbeherearen edo Danimarkaren parean.

EAEren egoera on erlatibo horri buruzko ñabardurak egin daitezke AROPE tasako hiru osagai bakoitzari dagokionez:

1. Adierazle horren osagaiei dagokienez, batetik, 2016an EBko biztanleen %17,2 pobrezia-arriskuan zegoen gizarte-transferentzien ondoren (moneta-pobrezia); egoera horretan daude, zehazki, diru-sarreren kontsumo-unitateko banaketaren herrialde bakoitzeko medianaren %60tik (pobrezia-atalasea deritzonetik) beherako diru-sarrerak dituztenak. Ehuneko horrek hamarren bat egin du behera 2015aren aldean, eta bost pertsonatik bat baino gehiago dago egoera horretan Errumanian (%25,3), Bulgarian (%22,9), Espainian (%22,3). EAEn, %9ko tasa zen 2016an, eta azken urtean %1,9ko jaitsiera izan du eta hamarren batekoa krisia hasi zenetik hona.
2. Europako populazioaren %7,5eko oinarrizko baldintzak eskuratzeko muga larriak zituen 2016an, zeren eta oinarrizko baliabiderik ezak eragindako bizi-baldintzak baitituzte hala nola fakturei aurre egiteko ahalmenik eza (familien ohiko gastuei dagokienez), etxea bero mantentzeko edo urtean astebeteko oporraldia gozatzeko ezintasuna. Ratio hori 8 hamarren murriztu da azken urtean, eta dagoeneko 2008an zuen %8,5aren azpitik dago. Batasunean, gabezia horren intzidentzia asko aldatzen da herrialdeen artean: Suedian %0,8 dago edo Luxenburgon %1,6, eta beste muturrean Bulgaria, %31,9 edo Errumania, %23,8. Gehienetan, ordea, emaitza hobeak izan dira azken urtean. 2008aren aldean, gabezia larria dutenen proportzioa hazi egin da horretarako datuak dauden 9 herrialdetan, eta behera egin du 16 herrialdetan. Espainiak %5,8ko tasa du (2015ean baino 6 hamarren gutxiago), eta EAEk %4,2 (%4,6 2015ean). 2008-2016 aldia aztertuta ikusten denez, bilakaera negatiboa izan da, %3,4tik %4,2ra, baina beti eutsi zaie %5etik beherako mailei.

3. EBko biztanleriaren %10,4 lan-intentsitate oso txikiko etxeetan bizi zen 2016an. Hala deritzo familiako 59 urtetik beherako helduek azken urtean beren lan-gaitasunaren %20 erabiltzen dutenean (2015ean baino 2 hamarren gutxiago eta 2008an baino %1,2 gehiago). Grezia (%17,2), Espainia (%14,9) eta Belgika (%14,6) daude Batasuneko rankingeko buruan. Estonian eta Polonian, berriz, %6an inguruan dabiltza. EAEko datua %13,7 da, EBko batez bestekoa baino handiagoa (%10,4). Hortaz, AROPE tasaren dimentsio horretan bakarrik dago gure Erkidegoa Europako batez bestekoaren azpitik, baina 6 hamarreneko igoera izan da aurreko urtearen aldean, krisia hasi zeneko %6,5etik oso urruti.

Hobekuntzaren ildo beretik, Eusko Jaurlaritzaren PGDIren 2016ko azken datuen arabera, jaitsiera gertatu da EAEko pobrezia eta prekarietate arriskua 2014aren aldean, baita eraginpeko pertsonen kopuruan ere, baina oraindik ez dira berreskuratu krisiaren aurreko ongizate mailak. Joera orokor on horretan, PGDIk darabiltzan desberdintasun-adierazleek

desberdintasunaren jaitsiera antzematen dute EAEn. Hala ere, berriro ez da berreskuratu krisiaren aurreko egoera (gainera, nahikoa maila txikiko errenten desberdintasun mailak dira, bai Estatu mailan, bai Europa mailan):

- ✓ Gini[25] indizeak beste norabide bat hartu du EAEn azken bi urtekoan: 2012ra arte etengabe behera egin ondoren, 1996ko 28,0tik 2008ko 25,2ra eta 25,3ra 2012an, gora egin zuen 2014an 27,1era. 2016an, aldiz, 25,8raino murriztu da koefiziente hori, eta beraz, 2008-2012ko aldiko zenbakiak baino handiagoak ez diren mailetan kokatu da.
- ✓ EAEko %20 aberatsenen sarrerak eta %20 pobreenen sarrerak erlazionatzen dituen ratioak (S80/S20) behera egin zuen 1996 eta 2008 bitartean, eta berriz ere gora egin zuen 2012an eta nabarmenago 2014an, 4,2raino. 2016an, 3,9raino jaitsi zen ratioa, eta berriz ere 2008-2012ko kopuruak baino ez dira gainditzen.
- ✓ Bestalde, dinamikarik kezkagarriena, 2014ra arte, EAEko baliabide gutxien dituzten pertsonen %10ari dagokion biztanleriaren guztizko diru-sarreren zatiaren adierazlea da. 2000ko %3,55etik 2008ko %3,8rra igo ondoren, adierazleak behera egin zuen 2012an, %3,75eraino, eta %3,41eraino 2014an. 2016an, berriz, %3,48raino igo da, eta 2014an gertatu zen bezala, 1996-2012ko datuen azpitik eutsi dio.

Bestalde, EINen "*Bizi-baldintzei buruzko Inkesta*"ko kopuruek, aurreko urtean moduan, bilakaera desberdina erakusten dute EAEko familien gabezia-adierazleetan:

- Bilakaera ona izan duten adierazleen artean, 2015ean gertatu bezala, behera egin du hilaren amaierara iristeko zailtasunak dituztela dioten familien ehunekoak (%42,1etik %39,9ra), baita etxebizitza tenperatura egokian mantentzeko gai ez direla diotenenak ere (%7,7tik %7,3ra), "pobrezia energetikoa" deritzona. Hobekuntza hori aitorturiko batez besteko errentekin ere gertatu da: familia errentan nahiz errenta pertsonalean, gora egin du azken urtean EAEn (+%3 eta +%3,7 hurrenez hurren), eta nahiko handiak izatean jarraitzen dute Estatuko gainerakoen aldean.
- Haatik, gora egin du etxebizitzen ordainketetan atzerapenak dituzten familien ehunekoak (%4,6tik %5,3ra), urtean astebeteko oporraldia ezin har dezaketenenak (%20,3tik %22,4ra), baita ezusteko gastuei aurrera egiteko modurik ez dutenenak ere (%18,5etik %19ra).

Bestalde, nahiz eta fenomeno berria ez den, krisi ekonomikoak gaurkotasuneko gaia bihurtu du bizitegi-bazterketa larria, baita horrek eraginpeko pertsonen herritartasun eskubideetan duen eragina ere. Europar Batasunak onartu duenez, lehentasunezko arazoa da pobreziaren eta gizarte bazterketaren kontrako borrokarekin loturiko agenda politikoan Europako 2020 Estrategiaren baitan.

EAEn bizi diren eta bizitegi bazterketa larria bizi duten pertsonen kopurua zehazteko, haien ezaugarri soziodemografiko garrantzitsuenak, bizi-baldintzak eta bizi-ibilbideak zein diren jakiteko, Eusko Jaurlaritzak 2016an "EAEn bizitegi bazterketa larria bizi duten pertsonen inguruko III. azterlana" egin zuen. Horri esker, aurreko bi azterlanetako emaitzak eguneratu ahal izango dira, 2012an eta 2014an eginikoak, eta Memoria honen 2015eko edizioen aurkeztuak. Hona hemen emaitza nagusiak:

- EAEn etxerik gabe ikusitako pertsonen profila 2016an, funtsean, hau da: 45 urtetik gorako gizonezkoa eta espainiar nazionalitatekoa (kasuen %22,1ean), eta bigarrenik ere gizonezkoa izango litzateke, baina gazteagoa (30 urtetik beherakoa) eta atzerritar nazionalitatekoa (kasuen %20,8an). 2012aren aldean, arestian esan dugunez, nolabaiteko zahartze-prozesua antzematen da taldean, baita atzerritar jatorriko biztanleen pisuaren beherakada ere.
- Ikasketa mailak apenas izan du aldaketarik ondoz ondoko zenbaketetan. Ia %60k ez du ikasketarik edo gehienez oinarrizko ikasketak lortu ditu (%58k 2016an). %34k, berriz, bigarren mailako ikasketak ditu, eta %5ek besterik ez goi-mailako titulazioak.
- Etxerik ez dutenen egoeraren iraupena dela-eta, bilakaeraren datuek agerian uzten dutenez, igoera izan da etxerik gabekoen ibilbide luzeetan: inkestaturiko pertsonen %28k 5 urte edo gehiago daramatza etxerik gabe, 2012an baino ehuneko 6 puntu gehiago. Hala ere, nahikoa egonkor eusten dio bizitegi bazterketan dauden pertsonen ehunekoak orain dela urtebete baino gutxiagoko tartean (%30).

[25] *Hauxe neurtzen du Gini indizeak: sarrerak banakoen edo familien artean ekonomia baten barruan banantzea zein neurritaraino urruntzen den banaketa ekitatiborako eredutik, halako moldez non 0 indizea ekitate perfektoa baita, eta 100 indizea ekitate perfektua.*

- Etxerik gabeko pertsonen lan-egoerari dagokionez (ez dugu beste urte batzuetako daturik), langabezia-tasa %83,9an kokatzen da (%12,6 biztanleria osoan, 2016ko laugarren hiruhilekoko BJAren arabera), eta nahitaez pertsona horien erdia landuntzat jotzen diren (%49,8), %8k bakarrik du enplegu erregularra (biztanleria osoaren %49,3). Sarrera-iturri nagusia laguntza publikoak dira (%53,8), eta DBE da neurri handiagoan jasotzen duten diru-laguntza (%21,5). Hala ere, %32k ezagutzen ditu laguntzok, baina ez ditu inoiz eskatu, eta %20k ez ditu ezagutzen. Beste sarrera-iturri batzuk dira honako hauen ondoriozkoak: lanekoak (%18,6), laguntzako gizarte-sarekoak eta hirugarren sektoreko erakundeetakok (%14,7 kasu bietan). Aldi berean, %8,3k dio sarrera-iturri nagusia eskean ibiltzeari dagokiola (askotariko erantzuna). Horrez gain, etxerik gabeko 10 pertsonatik ia 2k ez du diru-sarrerarik eta %63,9 pobrezia larrian dago (tasa orokorra %4,9 da).
- Bizitegi bazterketak dakartzan kasuak aztertzean, faktore estrukturalak nagusi direla esan beharra dago (inkestaturikoen %56,3k aipatua, askotariko erantzunen galdetegian), laneko arazoak, ekonomikoak… eta arazo pertsonalak (%28) –adizioak, osasuna, etab.-.
- Azkenik, kalean lo egiteak arrisku handiagoa dakarkie era guztietako irainak, lapurretak eta erasoak jasateko, eta emakumeak dira kaltetuenak. Sexuaren araberako diferentzia nagusiak sexu-erasoetan izaten dira: inkestaturiko emakumeen %20k jasan ditu horrelakoak. Galdetegiari erantzun dioten gizonen %2k besterik ez du horrelakorik pairatu, baina eraso fisikoak oro har nahikoa ugariak dira, emakumeen (%30) nahiz gizonen (%20) artean.

Bestalde, EAEko familia-sistemen tipologia asko aldatu da azken hamarkadetan, demografia, gizarte eta kultura prozesuen ondorioz. Aldaketa nabarmenen artean, hauek daude: etxe-moten aniztasun gehiago; batez besteko tamainaren murrizketa; aldaketa handiak etxe horietako erreferentziazko pertsonen profilean; etxean dauden adingabeen proportzioaren murrizketa eta menpekotasun-egoeren areagotzea. Aldaketak gorabehera, familiak pertsonen bizitzaren ardatza izateari eusten dio. Eusko Jaurlaritzaren Ikerketa Soziologikoko Kabinetearen 2012ko edizioko "*Familia EAEn*" txostenak erakusten zuenez, elkarrizketaturiko pertsonen %96k uste zuen familia oso edo nahikoa garrantzitsua dela, beste alderdi batzuen gainetik adibidez aisialdia (%93), lagunak (%92) edo lana (%91).

Azken urteotan, familian izandako eraldaketek eta ugalkortasun-tasetan izan duten inpaktuak interes publiko handiagoa piztu dute, horrek dakartzan ondorioak direla medio. Seme-alabak izateko adinik ugarienak eta lanean sartzeko eta promozionatzeko adinak bat datozenez gero, emakume gazteak oso egoera zailean daude seme-alabak izateko erabakia hartzeari begira. 2016ko Soziometroaren arabera, elkarrizketaturikoen %44k uste du seme-alabak izateak nahikoa oztopatzen duela emakumearen ibilbide profesionala (%45ek 2014an), eta %26k "asko" oztopatzen duela deritzo (%22k 2014an). Aitzitik, gizonezkoen artean, galdetutako pertsonen %13k baino ez du nahiko oztoporik edo oztopo askorik ikusten ibilbide profesionalean seme-alabak izateagatik.

Halaber, EUSTATek "*Lana eta bizitza pertsonala eta familia bateratzeari buruzko inkesta*" egiten du (LBI), eta 2016ko emaitzetan nabarmentzen denez, lehenik eta behin, etxetik kanpora lan egiten duten emakumeek, gainera, egunean %40-45 ordu gehiago ematen dituzte seme-alaba adingabeak eta mendetasunean bizi direnak zaintzeko gizonezkoek baino, eta %67 denbora gehiago etxeko lanetan. Gizonezkoek, ordea, 3,3 ordu erabiltzen dituzte egunean-egunean adin txikikoak zaintzeko; emakumezkoek, ordea, 4,7 ordu. Alde hori handiagoa da (%45) menpeko pertsonen zaintza kontsideratzen badugu; izan ere, gizonek egunean 1,1 ordu ematen dute jarduera horretan eta emakumeek, berriz, 2,7 ordu. Horrez gain, etxeko lanetan, emakumeek 2 ordu ematen dituzte batez beste egunean, eta gizonek, berriz, 1,2 ordu.

Beren gain hartutako kargen inguruko desberdintasun horrek ondorioak dakartza etxeko lanen banaketarekiko gogobetetasunean, zeren eta emakumeek, batez beste, 6,3ko gogobetetasun-maila adierazten baitute 10etik, ezkontideak edo bikotekideak etxean egiten dituen lanen gainean; gizonezkoen kasuan, berriz, 7,7koa da.

Azaldutako egoera horiek arintzeko, familiei laguntzeko planak abiarazi zituen Eusko Jaurlaritzak 2002an, zertarako- eta familiek seme-alaba kopurua askatasunez erabakitzea galarazten duten eragozpen ekonomikoak eta gizarte eta laneko eragozpenak gainditzeko. Hala, Familiei Laguntzeko Legea onetsi zuen 2008an, markoari lerrun juridiko handiagoa emateko eta familia politika integralerako oinarriak ezartzeko, betiere familien eta familiako kideen ongizatea eta bizi-kalitatea hobetze aldera. Familientzako zuzeneko laguntzak 2002an hasi ziren I. Familia Planarekin. Harrezkero, 2015era

arte, 640 milioi euroko gastuak izan dira laguntza horietan, gutxi gorabehera erdibana banatuta jaiotza, adopzio edo aurre-adopzioko harrerarako laguntzen eta bateratzeko laguntzen artean.

III. Familia Planaren indarraldia bukatuta (2011-2015), Lan eta Gizarte Politiketako Sailak, 2017an eginiko ebaluazioan aitortzen duenez, aurrerapen gutxi izan da Planeko neurrien betetze-mailan. Eta emandako laguntzen kopuru zehatzei dagokienez, planaren indarraldian 133,3 milioi euro erabili dira seme-alaben jaiotzagatik eta mantenuagatik, hain zuzen ere guztira 157.738 espedientetan. Uztartzeko laguntzek, bestalde, 136,3 milioi euroko gastua ekarri dute, eta guztira 97.086 onuradun izan dira. Espedienteen aldetik nahiz gastuaren aldetik, adingabeak zaintzeko bateratze-laguntzei dagokie %96 eta, beraz, presentzia txikia dakar berekin beste bi lerroetan (menpekoak zaintzeko bateratze-laguntzak eta zaintzaileak kontratatzeko laguntzak). Laburbilduz, azterturiko familientzako laguntzen bi lerroetan, 2011-2015 aldian 270 milioi euroko gastua izan da, gutxi gorabehera %50a bakoitzean.

Era berean, nabarmendu behar da ezen, plana indarrean izan den aldian, emakumeak %90 baino gehiago direla adingabeak zaintzeko laguntzetan eta %80tik gora mendekoak zaintzeko laguntzak direnean.

Ebaluazio hori abiapuntua izan da familien gaineko politikei buruzko gogoeta prozesuan, hain zuzen plan berria egite aldera. Familiaren Euskal Kontseiluak, 2017ko abenduan, "*Familien eta Haurren Aldeko Ituna*" adostu zuen, eta ondoren, 2018ko urtarrilean, EAEko administrazioen multzoak izenpetu zuen. Diagnostiko partekatuan dago oinarrituta ituna, non funtsezko bi fenomeno estruktural antzematen diren: familia-proiektua abiaraztea eta nahi duten seme-alaba kopurua izatea zailtzen duten eragozpenek bere horretan jarraitzea eta, familien gabezia ekonomikoen ondorioz, desberdintasunak belaunaldi batetik bestera igarotzeko prozesua hausteko zailtasunak. Itun hori zehaztu egingo da gobernua lantzen ari den "*Familiei Laguntzeko V. Plana*" deritzonean.

3.1.2. Gizarte babesa

Hasteko eta bat, EUSTAT erakundearen 2016ko "EAEko Gizarte Babesari buruzko Kontua" delakoaren arabera, Euskadin helburu horretako guztira erabili ziren baliabideak 17.260 milioi eurokoak izan ziren lehen aipatutako urtean, hau da, 2015ean baino % 1,9 gehiago. Esandako kopurua urte horretako BPGaren % 24,4 izan zen (%4,6ko hazkundea 2008ko urtearen aldean), behin-behineko datuen arabera. Gizarte babesaren gastuak etengabe egin du gora eskuragarri dugun urteetako seriean, eta biztanleko gastua 6.402€ izan zen 2008an. 2016an, berriz, 7.940 (+%24). Horrez gain, EUROSTATen azken datuak izanik, 2015ean gizarte babeseko per capita gastua EAEn, erosteko ahalmenaren parekotasunean neurtua, 8.519 euro izan zen, EBko batez bestekoaren gainetik (7.937 euro 2014an, eskuratu dugun azken datu banakatua), baita Estatukoaren gainetik ere (6.263 euro).

Bigarrenik, 2017. urtean, milioi erdi pertsona baino gehiago (555.287, lehen zenbatespenaren arabera) Gizarte Segurantzaren pentsio-sistemaren onuradun izan ziren gure autonomia erkidegoan (kontribuziozkoak eta ez-kontribuziozkoak). Kopuru hori aurreko urtekoa baino % 1,4 gehiago da, eta aurreko urtean ere % 1,3 hazi zen.

Azken urteetan gertatu den bezala, hazkuntza hori kotizaziopeko pentsioen onuradunak diren pertsonen bilakaeragatik izan da; izan ere, beste modalitateetan oro har murrizteko joera izan du. Hala, Gizarte Segurantzak emandako prestazio ekonomikoak jasotzen dituzten EAEko biztanleen ehunekoa 25,5era heldu zen.

Kotizaziopeko pentsioei dagokienez (prestazioen %97,7 eta gastuaren %99,3 dira), onuradunen batez besteko kopurua 543.700 izan zen (+%1,3) 2017an, eta urteko gastua 8.501,7 milioikoa, 2016an baino %3,4 gehiago. Bestalde, kotizaziopekoak ez diren pentsioek 11.587 lagunen gastua estaltzen zuten 2017an, guztira 59,5 milioi inguruko gastuak. Azken batean, gora egin zuen pentsioen gastuak EAEn 2017an, behin-behineko datuekin, orotara 8.561,2 milioi euro, hots, %3,4ko igoera 2016aren aldean, halako moldez hamarren batean jaitsi baita BPGan duen portzentajea, %11,6raino hain zuzen.

Gizarte Segurantzaren pentsioen ziozko gastua Euskal Autonomia Erkidegoan eta Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiaren kuoten bilketaren zenbatekoak erkatzen baditugu 2016. urteari dagokienez horixe baita aipatutako bi datuak eskura ditzakegun azken urtea gure zenbatespenen arabera, gastua 8.223 milioi eurokoa izan zen; sarrerak, berriz,

6.592,8 milioi eurokoak. Beraz, saldoa negatiboa izan zen, 1.630,2 milioi eurokoa eta aurreko urtean ere negatiboa izan zen, 1.460,4 milioi eurokoa 2015ean.

Bestalde, Diru-sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren funtsezko prestazioa Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta (DSBE) izenekoa da, Gizarteratzeko eta Diru-sarrerak Bermatzeari buruzko abenduaren 23ko 18/2008 Legeak ezarritakoari jarraiki.

DSBEren bizikidetza-unitate hartzaileen kopurua, 2017an, 60.405 da (abenduko datua, hots, 108.524 onuradun). Hala, 15 urtez etengabeko hazkundea izan ondoren (1999 eta 2014 bitartean), hirugarren urtez behera egin du, azkenean %5,3.LANBIDEren 2017ko espediente aktiboen fitxari esker, jakin badakigu %42,9 gizonezkoak zirela eta %57,1 emakumezkoak.

Onuradun gehien biltzen dituen adin-tartea 40-59 urte bitartekoa da (guztizkoaren %37,4), eta nabarmentzekoa da ere 4.631 jasotzailek 30 urte baino gehiago dituztela.

Bizikidetza-unitate hartzailea den pertsona titularraren profila hauxe da: espainiar nazionalitateko emakumea, 40 urtetik gorakoa eta oinarrizko ikasketak dituena. Prestazioa jasotzen duten atzerritarrak guztien %27,3 dira (%27,7 2016an), eta hartzaile titularren %25,7 pentsiodunak dira (%24,8 2016an). Horrez gain, unitate hartzaileen %19,9 DSBE jasotzen dute soldata-errenten osagarri gisa (EPO), 27.917 bizikidetza-unitatek jasoa, guztien %46,2k. Aldi berean, 9.338 lagunek guraso bakarrak izatearen ziozko osagarria jasotzen dute (%15,5).

2017ko maiatzean, eta "Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta hobetzeko oinarrizko dokumentua"ren baitan, Eusko Jaurlaritzak prestazio horri buruzko inkesta baten emaitzak argitaratu zituen, herritarrek diru-sarrerak bermatzeko sistemari buruz duten irudipena zein den jakiteko egina. Lehenik eta behin nabarmendu behar da euskal herritar gehienek ezagutzen duten prestazioa dela (%86k izan du horren berria), baina datu hori ez dator bat laguntza eskatu beharko luketen tokia zein den dakitenen portzentaje txikiarekin; izan ere, inkestaturikoen %24,8k besterik ez daki nora jo beharko luketen diru premia izanez gero. Horrez gain, kontsultaturiko pertsonen %41ek ez daki DSBEren egungo onuradunen kopurua handiagoa edo txikiagoa izan daitekeen.

Errenta osagarriei dagokienez, kontsultaturiko pertsona gehienak -%82 eta %90 hurrenez hurren- soldata edo pentsio txikia jasotzen dutenei DBSE ematearen alde agertu dira. Horrez gain, kontsultaturiko pertsonen %41ek ez daki DSBEren egungo onuradunen kopurua handiagoa edo txikiagoa izan daitekeen.

2010ean, Etxebizitzaren Prestazio Osagarria (EPO) abian jarri zen, arestian aipatu dugun 18/2008 Legea garatzeko. Haren helburua Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaren osagarri diren prestazio ekonomikoen sistema egituratzea da, biztanleriako talderik ahulenek etxebizitzaren inguruko gastuak ordaindu ahal izan dezaten. Indarraldiko lehen urtean (2010), guztira 50 milioitik gorako gastua izan zuen EPOk, eta urtez urte joan da handitzen gastua, 2016ko 91 milioi euroraino (orain arteko handiena).

2017an 86,72 milioi euro erabili ziren prestazio horretarako, aurreko urtean baino %4,7 gutxiago. Titular hartzaileen kopuruari dagokionez, 2017ko abenduan DSBEren 27.917 bizikidetza-unitate onuradunek gainera EPO jaso zuten (aurreko urtean baino %5,2 gutxiago).

Era berean, EPO abian jarri ondoren, Gizarte Larrialdiko Laguntzak (GLL), Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren hirugarren tresnak, bere jatorrizko helburua berreskuratu zuen (hau da, oinarrizko beharrizan espezifikoei aurre egitea, batez ere etxebizitzarekin zerikusia dutenak, gizarte bazterketako egoerak prebenitzeko, ekiditeko edo leuntzeko gastuei aurre egiteko baliabide nahikorik ez daukaten pertsonei egoera zehatzetan sortzen zaizkienak) eta bere aurrekontu partida nabarmen murriztu zen: 2016. urtean (informazio kontsolidatua daukagun azken urtea) laguntza horretarako 33,35 (+19,9 2015aren aldean) milioi euro bideratu ziren. 2017an guztira 28.882 kontsumo-unitate hartzaile zenbatu ziren, 2016an baino %6,6 gutxiago, eta orotara 43.813 laguntza eman ziren hainbat kontzepturengatik, hala nola oinarrizko beharrak (9.157 laguntza), alokairua (8.469) edo interesen amortizazioa (1.347), hots, laguntza bakoitzeko batez besteko zenbatekoa 761 euro da (+%13 2015aren aldean

Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemak, 2017an, 501,8 milioi euro gastatu zituen orotara, aurreko urtean baino %4,6 gutxiago. Honelaxe daude banatuta: 381,71 milioi DSBEri dagozkio (guztien %76,1, eta 2016an baino %4,9 gutxiago), 86,72 milioi EPOrako (guztien %17,3 eta 2016an baino %4,7 gutxiago), eta eginiko zenbatespenen arabera, Sistemaren gastu agregatua kalkulatze aldera, 2016an GLLrako emandako 33,4 milioiei eutsi egin zaie 2017an (Sistemako guztien %6,7), laguntzari buruzko datu ofizialak izan arte..

Konparazioa egite aldera, Osasun, Gizarte Politika eta Berdintasun Ministerioaren "Gizarteratzeko Gutxieneko Errenten Txostena"ri esker, autonomia erkidegoetako sarrerak bermatzeko sisteman kopuru handien konparaziozko segimendua egin daiteke, betiere era askotako araudiak eta sistemak garatzeko maila ezberdinak daudela kontuan izanik.

2015eko txostenaren arabera (ezin izan da eguneratu 2016ko gure memoriako informazioa), aurten gure Erkidegoak urteko 6.075,42 euroko gastua zuen prestazio horien titular bakoitzeko. Estatuko batez bestekoa, berriz, 3.575,52 da (%70 gehiago), eta 36,71ko estaldura-tasa mila biztanleko (Estatuko batez bestekoa 7,75 da). Azterlanaren arabera, gure Erkidegoak 2015ean Estatuan prestazio horietarako emandako funts guztien %35,9 erabili zuen DSBErako gehi EPO, autonomia erkidegoen arabera. Euskal biztanleriak Estatu osoan duen pisuaren arabera egokitu beharko litzaiokeena baino askoz portzentaje handiagoa da; izan ere, %4,7koa da aipaturiko urtean.

Aldi berean, pobreziaren eta bazterketaren kontrako ondoz ondoko planak egin izan ditu Gobernuak, pobreziaren eta gizarte bazterketaren kontrako borrokaren oinarriak finkatzeko eta araudi hori garatzeko abiarazi beharreko neurriak eta helburuak egituratzeko. 2017an, Gobernuak *2012-2016ko Gizarteratze Aktiborako III. Plana* ebaluatu du, IV. Plana egiteko abiapuntua den aldetik. Ondorioztatu duenez, ez dira helburuak bete, baina haren neurrietako asko garatu egin dira eta eragin ona izan da pobreziaren prebentzioaren eta gutxipenaren aldetik. Alabaina, III. Plana ez da nahikoa izan gizarteratzeko politiken erakundeen arteko artikulazioaren ikuspegitik. 2017-2021eko Gizarteratze Plan berrian lau helburu zehaztu dira:

- ✓ Enplegua: enpleguaren prekarizazio prozesuari aurre egitea eta aurrezaintza lana egitea, gazteen edo lana aurkitzeko zailtasun handienak dituzten pertsonen laneratzea bultzatzea eta enplegurako euskal sistemaren hobekuntzan aurrera egitea.
- ✓ Sarreren bermea: diru-sarrerak bermatzeko euskal eredua zaintzea eta hobetzea, gizartean duten legitimitatea eta iraunkortasun ekonomikoa bermatuz.
- ✓ Gizarte zerbitzuak: Gizarte Zerbitzuen Legearen garapena bultzatzea, halako moldez non eraginkorra izango baita herritar guztiek gizarte zerbitzuak eskuratzeko duten eskubide subjektiboa, gizarte zerbitzuen sistema Planean aipaturiko oinarrietara egokitzea kontzeptuen aldetik eta gizarteratzeko programa berriak bultzatzea herritarren eta gizartearen partaidetzaren ikuspegitik.
- ✓ Etxebizitza: gizartean baztertuta edo arrisku horretan daudenek etxebizitza eskuratzeko modua erraztea, etxebizitza izateko eskubide subjektiboa garatuz eta bizitegi bazterketako egoerei aurre egitea eta aurre-zaintza lana egitea.

IV. Gizarteratze Plana abiarazteko, 4.000 milioi euroko aurrekontua dago, eta horren jarraipena egingo da Memoria honen geroko edizioetan.

Bestalde, Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak gizarteratzea bultzatzeko eginiko ekimenen barruan, Hirugarren Sektoreko jarduerak sustatzeko diru-laguntzen programa burutzen da gizarteko esku-hartzearen eremuan. Horretarako, 2016an (informazioa dugun azken urtea) diru-laguntzak eman ziren hirugarren sektoreko jarduerak sustatzeko gizarteko esku-hartzearen eremuan, orotara 4,34 milioi euro, aurreko urtean baino %7,7 gutxiago. Laguntza horietatik 3,74 milioi, %86,2, "gizarteko esku-hartze" lerrorako erabili ziren eta gainerako %13,8 (600.000 euro inguru), "elkartegintza indartzeko".

2007ko Mendetasunaren Legea ezartzeari dagokionez, IMSERSOren 2017ko abenduaren 31ko azken datuek erakusten dutenez, aipaturiko data horretan, EAEk 99.245 balorazio-eskabide zituen erregistraturik Mendekotasunaren Arretarako Sisteman. Horietatik (gainerako erkidegoetan bezala) gehienak mendekotasun-gradua aintzatesteko berrikuspenei dagozkie. Eskabideen kopuruak EAEko biztanleriaren %4,52ko ratioa du (+0,11 puntu aurreko urtearen aldean. Eskabide horiek, gainera, Estatuan erregistraturikoen %5,8 dira, noiz-eta gure Erkidegoko biztanleria %4,71

denean. Hurrengo adin-talderik handiena emakumearena da (%64,3), 80 urte edo gehiagoko adinarekin (eskabideen %54,3). Eskatzailearen profila emakumea da (%64,3), 80 urte edo gehiagokoa (eskabideen %54,3). Hurrengo adin-talde nagusia 65 eta 79 urte bitartekoena da, eskabide guztien %20,8. Erregistraturiko 99.245 irizpen-eskabideetatik %99,34k irizpena jasota zuten ordurako (%92,98 batez beste Estatuan) eta 76.344 lagunek, irizpena jasotako kasuen %77,73k, prestaziorako eskubidearen aintzatespena jaso zuten.

Halaber, aipaturiko datuan, 76.543 prestazio egin ziren (+%10,5 2016aren aldean), eta horietatik %43,52 Senideak Zaintzearen ziozko Prestazio Ekonomikoari dagozkio (Estatuko batez bestekoa baino handiagoa den ratioa, %32,7koa baita), %16,65 Egoitzako Arretari, %12,14 telelaguntzako zerbitzuari, %9,36 eguneko/gaueko zentroetako zaintzei eta %8,86 etxez etxeko laguntza zerbitzuari, prestazio eta zerbitzurik garrantzitsuenak aipatzearren. Prestazio horiek 62.070 onuradunei dagozkie (1,23ko prestazioko ratioa dago pertsonako, zeren eta pertsona batek zerbitzu edo prestazio bat baino gehiago jaso baititzake), aintzatetsitako prestazioa jasotzeko eskubidea duten 76.344 lagunen %81,3 (%77,5 2016an).

Kopuru horien osagarri, *"Mendekotasunaren Espainiako Behatokia"*ren (Gizarte Zerbitzuetako Zuzendarien eta Gerenteen Espainiako Elkarteko kideek osatua) txostenei esker, mendekotasunaren arretarako sistema hedatzeko lanbide-balorazioaren jarraipena egin daiteke Mendekotasunaren Legea oinarri hartuta, autonomia erkidegoen arabera. Azkenak erakusten duenez, 2017ko abenduko datuekin, EAEk garapen handiagoa du beste autonomia erkidego batzuek baino, baloraturiko pertsonen ehunekoaren aldetik nahiz emandako prestazioen aldetik.

Behatokiak IMSERSOren informazioa oinarri hartuta 2017rako egiten duen ebaluazioan nabarmentzen duenez, EAEn hobetu egin da sistema azken hiru urteetan, onuradun gehiagoren kopurua handituta, Estatu mailako hazkundearen ildotik. Alabaina, eskainitako arreta berrien ardatza kostu txikiko zerbitzuak izan delako kritika egin da hala nola telelaguntza eta senideak zaintzeko prestazio ekonomikoa. Hala, hazkunde-tasa oso txikiak izan dira, ordezpen-tasa hutsak, kostu handiagoko gainerako prestazioak hala nola eguneko zentroak edo II eta III. Graduetako egoitzetako plazak. Zerbitzuen zorroan, etxez etxeko laguntza guztizkoaren %9 besterik ez da (%16 Estatuko batez bestekoa). Laguntza pertsonalerako prestazio ekonomikoa, aldiz, %8rainokoa da haren zerbitzuen zorroan (Estatuan, berriz, %1 besterik ez da.

Bukatzeko, EAEko borondatezko gizarte aurreikuspenen sistemaren bilakaeraren balantze gisa, hauxe aipatu behar da: Eusko Jaurlaritzako Ogasun eta Finantza Sailak jakinarazi duenez, 2017ko abenduaren 31n (behin-behineko datuak) EAEk 80 BGAE zituen, horietatik 45 banako BGAEak dira, 33 banakoak eta 2 elkartuak. Elkartuetakoen erdia baino gehiagok, %59k, banako BGAE zuen, eta ondoren enplegukoak, elkarturikoen %40,8 hain zuzen ere. Ondareari dagokionez, %50ean banantzen da bi modalitateen artean, baina ordaindutako prestazioak gehienbat enplegu erakundeetan metatzen dira (guztizkoaren %65,5), eta bigarren tokian banakoak (%34,5). Kuotak, azkenean, gehienbat banako BGAEei dagozkie (guztizkoaren %60,3), eta gainerakoa enplegukoei (%39,6).

Kuotak edo ekarpenak 2017an 675,16 milioi euro izan ziren orotara, eta %0,5 egin dute gora 2016aren aldean. Bestalde, atxikipenak, 1,127 milioi, jaitsi egin dira azken urtean, gutxi bada ere (-%0,8). Aldi berean, ordaindutako prestazioak 620 milioi eurotik gorakoak dira, hots, 2016an baino %4,4 gutxiago. Halaber, 2017an orotara 161,7 milioi euro erreskatatu ziren; aurreko urtean, berriz, 181,4 milioi euro eta, beraz, %10,9ko jaitsiera da

3.2. GOGOETAK

3.2.1. Bizi-baldintzak

Lehenik eta behin nabarmendu nahi dugu ezen, azken urtean, EAEko bizi-baldintzen adierazle nagusiek bilakaera ona izan dutela. Hala, AROPE tasan 1,7 puntuko jaitsiera izan da, biltzen dituen hiru eremuetan hobetuta. Batez besteko errentek gora egin dute, bai familiako, bai per capita kopuruetan, eta murriztu egin dira familien baldintza materialei buruzko beste adierazle batzuk, hala nola pobrezia energetikoa edo hilaren bukaerara iristeko zailtasunak. Halaber, PGDIren azken kopuruek erakusten dutenez, behera egin du errentaren banaketaren desberdintasunak 2014aren aldean, eta itxuraz, geldiarazi egin da adierazle horiek krisiaren hasieran izandako beherakada. Horiek aldagai guztiek, beste urtez batez, egoera oso onean jartzen dute gure Erkidegoa Estatu mailan eta Europa mailan.

Alabaina, ez da ahaztu behar ageriko hobekuntza horiek ez dutela ekarri krisiaren ondorioz galdutako ongizate maila berreskuratzea, zeren eta aipaturiko adierazleak, oro har, oraindik ez baitira itzuli 2008aren aurreko kopuruetara. Horrez gain, azken urtean ere bai, bilakaera txarreko aldagaiek diraute, hala nola etxebizitzarekin loturiko ordainketetan atzerapenak dituzten familien ehunekoa, edo ezusteko gastuei aurre egiteko modurik ez dutenen ehunekoa, bietan igoerak izan direlako.

Ildo horretan, pobreziaren eta bazterketaren guneen osaerako aldaketa kualitatiboei erreparatu beharko diegu. Aldaketa horiek arrisku multzoan sartzen dira, besteak beste, “ezohikoak” diren biztanle sektoreak eta EAEko gizarte-ekoizpen sarean txertatuta daudenak.

Datu horiek ikusita, gure ustez, bide onetik aurrera egin bada ere, beharrezko ahaleginak egin behar dira joera horiek finkatzeko, bizi-baldintzen hobekuntzak gizarteko maila guztietara irits daitezen eta krisiaren aurreko ongizate mailak berreskura daitezen. Halaber, dirudienez hobetzeko bidetik joatearen kontra ageri diren aldagaiei erreparatu behar diegu aurrerantzean ere.

Etxerik gabeko pertsonen fenomenoari dagokionez, esan behar dugu ezen, pertsona kopuru txikiari eragiten dion arren, bazterketa prozesuen ondorio tristeenetako bat dela, eta eragina izan dezakete pertsonengan. Eusko Jaurlaritzak 2016an eginiko hirugarren zenbaketari esker, taldearen eta horren ezaugarritzearen gaineko jarraipena egin dezakegu: Jakin badakigu zahartzen ari dela eta funtsean laguntza publikoei esker dirauela bizirik, eta ez dutela ia lan-merkatuan sartzerik. Hori dela eta, pertsona horiek benetan gizarteratu ahal izateko, etxebizitza izateko duten eskubidea aitortu beharra dago, baina laneratzea ere bultzatu beharra dago gizarteratzeko modu naturala den aldetik.

Halaber, laneratzeko modua izan arte, gizarte laguntzak funtsezkoak direla nabarmendu nahi dugu. Horregatik, kezka agertu behar dugu pertsona horien zati handi batek ez dituelako laguntzak eskatzen edo ez duelako horien berri.

Bestalde, ikusi denez, familiak toki nagusia betetzen jarraitzen du eta, beraz, oso kontuan hartzekoak dira familia-unitate motetan gertatzen ari diren aldaketak eta aldaketa horien ondorioak; izan ere, botere publikoen lehentasunezko arreta eskatzen dute

EAEko familiek hainbat laguntza dituzte Eusko Jaurlaritzaren Familia Planen bidez 2002. urtetik hona. Kezkagarri iruditzen zaigu ikustea azken planaren ebaluazioari buruzko txostenean, 2011 eta 2015 urteetan indarrean egon zen horretan, honako hau aitortzea: planak biltzen zuen ekimen multzo zabala, funtsean, familientzako diru-laguntzetara murriztu dela.

Egia da eginkizun garrantzitsua betetzen dutena, baina gure ustez, diru-laguntza nahikoak emateaz gain, funtsezkoa da zerbitzuen eta ekipamenduen nahikoa eskaintza zabala finkatzea, hain zuzen ere familiek nahi dituzten seme-alabak izan ditzaten eta bizitzako eremuak egoki uztartzeko modua izan dezaten.

Ildo beretik, kezkagarria da aurrerapenik ez izatea emakumeen eta gizonen arteko baterako erantzukizunaren arloan etxeko lanetan eta zaintza-lanetan, EUSTATen Lana eta Bizitza Pertsonala eta Familia Bateratzeari buruzko Inkestako azken datuetan ikusten denez. Ez da garrantzi gutxiko gaia, zeren eta ondorio sakonak baititu eremu garrantzitsu askotan: emakumeen garapen profesionalerako eta pertsonalerako posibilitateetan eta beren ahalmenak ez aprobetxatzean, baita emakumeen bizi-kalitatean eta bilakaera demografikoan ere.

"Familiei Laguntzeko IV. Plana" deritzonean zehaztuko den "Familien eta Haurren Aldeko Itunak" dakarren estrategia berriak bultzada handia izan behar du, bide egokian aurre egitea ahalbidetzeko, betiere zeharkakotasuna eta erakundeen arteko lankidetza oso aintzat hartuta. Horretarako, adierazpenetatik jardun publikoetara egin beharko da aurrerapausoa itunak dakartzan eremuetan, non administrazioko maila guztiek parte hartze irmoa eta koordinatua izango duten. Ezinbestekoa izango da, gainera, gure gizartean ahalik eta ongizate mailari handiena lortzeko lanean diharduten gizarte eragile guztien jarduketetan parte hartzea, aldaketa sakona bultzatuz, zeinaren ondorioz berdintasun, ekitate eta bizi-kalitate handiagoak izango baitira.

Aurreikusitako epealdiaren amaieran ahalegin horren emaitzak ebaluatzea ezinbestekoa izango da familiari buruzko geroko politikak bideratzeko. Eta horretarako, berebiziko eta berehalako arreta jarri beharko zaie hori ahalbidetzeko adierazleak sortzeari eta zehazteari, hain zuzen ere "EAEko familiei laguntzeko erakundeen arteko III. Plana"ren ebaluazioari buruzko txostenarekin gertatu bezala, Eusko Jaurlaritzako Lan eta Gizarte Politiketako Sailak eginiko ebaluazioa funtsean kualitatiboa izan ez dadin. Adierazle baliagarrien sistema behar dugu, kalitatezkoa, jarraipena egiteko, eta horri esker, balorazio zehatzagoa egin ahal izango dugu.

3.2.2. Gizarte babesa

Kapitulu honetan emandako datuei esker egiaztatzen denez, EAEko gizarte babeseko sistemak maila onargarria du Europako herrialde nagusiekin alderatuta, eta Estatukoa baino hobea da.

Diru-sarrerak Bermatzeko Sistemari dagokionez -funtsezko baliabidea baita gure ongizate sistema bermatzeko-, 2017an lehen aldiz gertatu zen eginiko gastuaren beherakada, eta horrekin batera, hirugarren urtez jarraian murriztu da DSBEren hartzaileen kopurua (Sistemaren prestazio nagusia da DSBE). Bilakaera hori alderagarria da aurreko ataldean egiaztaturiko pobrezia eta bazterketa tasen hobekuntzarako joerarekin, eta bizi baldintzak berreskuratzen ari direla esan genezake, baina, hala ere, aurreko atalean ohartarazi genuenez, oraindik ez gara itzuli krisiaren aurreko egoerara.

DSBEri dagokionez, gizarteratzea bermatzeko duen garrantzia azpimarratu nahi dugu, eta aldi berean, haren eginkizuna aldatzen ari dela ikusi dugu, gizarte estalduratik gizarte estaldura osagarrira, gastuaren banaketa eta bizikidetza-unitate hartzaileen beharrak ikusita.Bestalde, positibotzat jotzen dugu Eusko Jaurlaritzak bere burua behartzea gizarte babesaren moduko bai batean, halaxe islatu baita Eusko Jaurlaritzaren IV Gizarteratze Planak bizi baldintzei buruz berriki amaitu den bilakaerari buruzko balorazio negatiboan. Beraz, babes sistemak hutsuneak dituela esan daiteke. Espero dezagun Gizarteratze Plan berriak, 2017-2021era zehaztuak, hutsune horiek konpondu eta, halaber, III. Planean ezinezkoa izan den ebaluazio kuantitatiboa ahalbidetzea. Ildo horretan, beharrezkotzat jotzen dugu EAEko gizarte babeseko sistema indartzen jarraitzea.

Gizarte Segurantzaren pentsioen sistemari dagokionez, beste urte batez kezkagarri zaizkigu gure Erkidegoan dagoen defizit saldoak, gizartearen zahartzearen ingurumari demografikoan, langileen eta pentsiodunen arteko proportzioa ez aurrera ez atzera egotea eta lan-merkatuaren eraldaketa sakonak. Hortaz, premiazkoa da administrazioek eta gizarte eragileek pentsioen sistema publikoari eusteko beharrezko mekanismoak aintzat hartzea eta eztabaidatzea.

Azkenik, eta mendekotasunaren arretari dagokionez, sistema finkatzeko aurrerapenak izan dira, estaldura areagotuta eta erreferentziako adierazleak hobetuta hala nola itxaronzerrendak. Gure gizartea zahartzearen ondorioz, gero eta handiagoak dira mendekotasunaren arretarako beharrak eta, beraz, sistema garatzeak gizarte aukera eta enplegua eta aberastasuna sortzeko modua dakar. Ildo horretan, teknologia berriek posibilitate handiak ematen dituzte mendekotasunean diren pertsonen arreta hobean eta eraginkorrean aurrera egiteko. Horregatik, egokitzat jotzen dugu

herri administrazioak inbertsioa eta ikerkuntza bultzatzea arlo horretan. Hortaz, beste urte batez, balorazio positiboa egin beharra dago.

Egoera hori ikusita, beharrezkotzat jotzen dugu gizarte babeseko sistema hobetzea, iraunkortasuna bermatzeko eta prestazioak gizarte errealitate eta behar berrietarako egokitzeko. Horrek erronka handiak dakartza berekin, gure ekonomiaren susperraldian eta, aldi berean, denbora eta ahaleginak egin beharko dira, baina premiazkoa da horiei ekitea.

V. KAPITULUA

Bizi-kalitatea EAEn

1. HEZKUNTZA ETA KULTURA

Pertsonen eta gizarteen aurrerapenean eta aurrerabidean gehien eragiten duten faktoreetako bat da hezkuntza. Jakintza sustatzeaz gain, hezkuntzak kultura, espiritua, balioak eta gizaki egiten gaituzten ezaugarri guztiak aberasten ditu. Hezkuntza beharrezkoa da gizarte ongizatearen eta hazkunde ekonomikoaren mailarik onenetara iristeko; gizarte kohesio mailarik handienak lortzeko; gizarte harremanak indartzeko; zientzia, teknologia eta berrikuntza bultzatzeko, etab. Garrantzitsua izan da beti garapen ekonomikorako eta sozialerako, baina gaur egungo munduan, neurri batean zientziaren aurrerapenak eta horren aplikazioek eragindako eraldaketa sakonak bizi garen munduan, gero eta garrantzi handiagoa hartu du, baita garapen motelagoa ez duten IKTen garapenak eragindako eraldaketengatik ere.

"*V. Bizi-kalitatea EAEn*" deritzon kapitulu hau bi epigrafetan dago banatuta. Alde batetik, Hezkuntza aztertuko da, eta bestetik, Kulturarekin loturiko zenbait alderdi. Hezkuntzaren gaineko epigrafean, unibertsitatez kanpoko irakaskuntzetan eta unibertsitateko irakaskuntzetan matrikulaturiko eta graduaturiko ikasleen bilakaera azterturtuko da, baita hiru bloke handitan ezaugarrituriko zenbait hezkuntza-adierazle ere: eskolaratzea eta hezkuntza ingurunea, hezkuntzako gastua eta hezkuntzako emaitzak. Azkenik, unibertsitateko adierazleen azterketa izango da.

Bestalde, memoria honetako Kultura epigrafearen barruan, Eusko Jaurlaritzako Kulturaren Euskal Behatokiak argitaraturiko "Arte eta kulturako industriei buruzko estatistikak" biltzen dituen zenbait adierazle aztertuko dira; bigarrenik, Estatuaren Administrazio Orokorrak, Administrazio Autonomikoak eta tokiko erakundeek eginiko kulturaren arloko gastu publikoa aztertuko da. Azkenik, urteko ekitaldi/inguruabar garrantzitsuari buruzko atala emango dugu, aurten Guggenheim Bilbao Museoaren XX. urteurrena.

1.1. UNIBERTSITATEZ KANPOKO IRAKASKUNTZAK

1.1.1. 2017/2018 ikasturteko datuen aurrerapena

EUSTATen Eskola-jardueraren Estatistikaren datuen aurrerapenaren arabera[1], unibertsitatekoa ez den araubide orokorrean matrikulaturiko 218.680 ikaslek hasi zuten 2017/18 ikasturtea EAEn (helduentzako hezkuntza alde batera utzita), hots, %0,5eko beste hazkunde bat (aurreko ikasturtean baino 1.984 ikasle gehiago) Hezkuntza Berezia (arteak eta ofizioak, hizkuntzak eta musika) barne hartzen badugu.

Hezkuntza Berezi a alde batera utzita ditugun matrikulazioko datuei helduta eta mailen arabera bereizita, hauxe ikusten dugu: mailarik baxuenetan (haur eta lehen hezkuntza) 218.680 ikasle daude matrikulatuta (88.191 ikasle Haur Hezkuntzan (-%3,2) eta 128.093 ikasle Lehen Hezkuntzan (+%0,9%), Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan 79.486 (+%3) eta Oinarrizko Lanbide Hezkuntza berrian, aurreko Hasierako Lanbide Prestakuntza Programa (HLPP) tokia hartu duen horretan, 4.137 ikasle.

Matrikulazio datuei dagokienez, baina Hezkuntza Berezia alde batera utzita eta mailen arabera bereizita, hauxe ikusten da: behe mailetan (haur eta lehen hezkuntzak) 218.680 ikasle daude matrikulatuta, 88.191 Haur Hezkuntzan (-%3,2, aurreko aldietan izandako jaitsieren ildotik) eta 130.489 Lehen Hezkuntzan (+%0,7, aurreko ikasturtean ere igoera izanda), Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan 83.286 (+%2,3) eta Oinarrizko Lanbide Heziketan[2], 2015/2016 ikasturtean aurreko Hasierako Lanbide Prestakuntzako Programen (HLPP) lekua hartu zuen horretan, 4.584 ikasle (+%4,5).

---

[1] *Zentsukoak eta urtekoak dira Unibertsitate Estatistikako (UE) eta Eskola-jardueraren Estatistika (EJE) eragiketak, eta horiei esker, hezkuntza sistema ezagutzeko modua dago, baita goi-mailako ikasketetan (hirugarren gradua) nahiz aurretiazko ikasketetan (lehen eta bigarren hezkuntza) izan den bilakaera ere, hurrenez hurren. Eusko Jaurlaritzaren Ikastetxeen Erregistroan sartuta dauden eta irakaskuntza arautua ematen duten zentro guztiak hartzen dira aintzat.*

[2] *Abenduaren 9ko 8/2013 Lege Organikoa, hezkuntzaren kalitatea hobetzeari buruzkoa.*

Oinarrizko Lanbide Prestakuntzako tituluari esker, Hezkuntza Sisteman aurrera egin daiteke, eta lanbidea prestatuta gauzatzeko modua dago;hartara, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako Graduatuko tituluak enplegu publikoa eta pribatua eskuratzeko dituen ondorio berak ditu.

Derrigorrezko Irakaskuntzaren Ondorengoari dagokionez, Batxilergoan 30.574 pertsona matrikulatu dira eta 14.827 pertsona gradu ertaineko LHn. Gradu ertaineko LHn izandako hazkundea (%2,7) Batxilergoan erregistraturikoa baino handiagoa da (%1,1).

Komeni da gogoratzea Lanbide Heziketaren irakaskuntza-sisteman 16 urterekin sartzen direla ikasleak gradu ertainean Batxilergoaren aukeratzat eta 18 urterekin goi-mailako graduan, betiere hezkuntza tertziarioaren edo goi-mailako irakaskuntzaren baitan.

Bestalde, goi-mailako graduko LHn 22.065 lagun matrikulatu dira, aurreko ikasturtean baino %5 gehiago.

V.1.1. TAULA. EAE-KO IKASLEAK TITULARTASUNAREN ETA MAILAREN ARABERA (1)

	2012/13	2013/14	2014/15	2015/16	2016/17	2017/18 b.b.	Ald. 2015/16-2016/17	Ald. 2016/17-2017/18
GUZTIRA	**359.618**	**363.206**	**368.619**	**370.042**	**373.455**	**375.439**	**0,9**	**0,5**
Haur Hezkuntza	96.713	95.483	94.433	93.318	91.103	88.191	-2,4	-3,2
Lehen Hezkuntza	122.139	124.276	127.001	128.198	129.521	130.489	1,0	0,7
Hezkuntza Berezia (Haur eta Lehen Hezk.)	473	476	470	486	510	487	4,9	-4,5
Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza (DBH)	73.940	75.161	77.169	79.374	81.389	83.286	2,5	2,3
Hezkuntza Berezia (DBH)	234	263	288	294	321	370	9,2	15,3
Hasierako Lanbide Prestakuntzako Progr. (HLPP)	4.484	4.076	4.238					
Oinarrizko Lanbide Heziketa				4.083	4.385	4.584	7,4	4,5
Atazen ikaskuntza (Hezkuntza Berezia)	457	465	480	528	544	566	3,0	4,0
Batxilergoa	29.444	29.607	29.988	30.045	30.231	30.574	0,6	1,1
Gradu ertaineko LH	12.718	13.442	13.938	13.993	14.439	14.827	3,2	2,7
Goi graduko LH	19.016	19.957	20.614	19.723	21.012	22.065	6,5	5,0

(I) Unibertsitatez kanpoko erregimen orokorreko irakaskuntzak. Ez da sartzen Helduen Hezkuntza Iraunkorra, ezta erregimen bereziko irakaskuntza ere (arteak eta ofizioak, hizkuntzak eta musika.
***Iturria*: EUSTAT. Eskola-jardueraren Estatistika**

1.1.2. Lanbide Heziketako Prestakuntza-zikloak: matrikulaturiko ikasleak

V.1.1. taulako datuek erakusten dutenez, 2016-17 eta 2017-18 ikasturte artean, %2,7 hazi zen matrikulaturiko ikasleen kopurua gradu ertaineko LHn (14.439tik 14.827ra) eta %5 goi gradukoan (21.012tik 22.065era.

Jarraian, lanbide-adarren arabera aztertuko ditugu datuak, argitaraturiko azken datuak 2016-17 ikasturtekoak direla kontuan hartuta.

Horien arabera, berriz ere hona hemen 2016-17 ikasturteko ikasleen kopururik handiena bildu duten maila ertaineko lanbide-adarrak: Osasuna (%16), Fabrikazio Mekanikoa (%14,1), Elektrizitatea eta Elektronikoa (%9,2), Ibilgailuen garraioa eta mantentzea (%8,3), Administrazioa eta Kudeaketa (%7,5). Hona hemen aurreko urtearen aldean izandako bilakaera: Osasunean %8,2 hazi da, %9,1 Fabrikazio Mekanikoan eta %2,1 Administrazioan eta kudeaketan. Bestalde, aldakuntza negatiboa da Elektrizitatean eta Elektronikan (-%2,6), Ibilgailuen garraioan eta mantentzean (-%2,2) eta Instalazioan eta mantentzean (-%2,3).

Goi-mailako tituluen artean, hauexek nabarmentzen dira matrikulazioen kopuruaren aldetik: Fabrikazio Mekanikoa (%13,9), Elektrizitatea eta Elektronika (%11,6), Administrazioa eta Kudeaketa (%11,3), Gizarte-kulturako zerbitzuak eta erkidegoarentzako zerbitzuak (%10,7), Informatika eta Komunikazioak (%8,9), Osasuna (%6,7) eta Instalazioa eta mantentzea (%6,4). Hona hemen aurreko ikasturtearen aldean izandako bilakaera: Fabrikazio mekanikoa (+%16,7), Elektrizitatea eta Elektronika (+%12,7), Administrazioa eta Kudeaketa (+5%), Gizarte-kulturako zerbitzuak eta erkidegoarentzako zerbitzuak (-%2,7), Informatika eta Komunikazioak (+%10,1), Instalazioa eta Mantentzea (+%5,7) eta Osasuna (+%1,1).

V.1.2. TAULA. LANBIDE HEZIKETAKO IKASLEAK GRADUAREN ETA LANBIDE-ARLOAREN ARABERA. EAE

	GRADU ERTAINA				GOI-GRADUA			
	GUZTIRA		Bertik. % 2016-17	Bi ikast. aldakuntza	GUZTIRA		Bertik. % 2016-17	Bi ikast. aldakuntza
	2015-16	2016-17						
GUZTIRA	**13.993**	**14.439**	**100,0**	**3,2**	**19.723**	**21.012**	**100,0**	**6,5**
Jarduera fisikoak eta kirolekoak	271	256	1,8	-5,5	245	246	1,2	0,4
Administrazioa eta kudeaketa	152	117	0,8	-23,0	774	790	3,8	2,1
Nekazaritzakoa	165	190	1,3	15,2	238	247	1,2	3,8
Arte grafikoak	1.055	1.077	7,5	2,1	2.259	2.373	11,3	5,0
Merkataritza eta marketina	245	273	1,9	11,4	246	256	1,2	4,1
Eraikuntza eta obra zibila	382	394	2,7	3,1	1.027	1.093	5,2	6,4
Elektrizitatea eta elektronika	69	46	0,3	-33,3	463	549	2,6	18,6
Energia eta ura	113	94	0,7	-16,8	371	335	1,6	-9,7
Fabrikazio mekanikoa	1.368	1.332	9,2	-2,6	2.159	2.433	11,6	12,7
Ostalaritza eta turismoa		-	0,0		115	120	0,6	4,3
Irudi pertsonala	1.869	2.039	14,1	9,1	2.499	2.917	13,9	16,7
Irudia eta soinua	887	869	6,0	-2,0	994	1.032	4,9	3,8
Elikagaien industria	854	887	6,1	3,9	368	392	1,9	6,5
Informatika eta komunikazioak	156	160	1,1	2,6		12	0,1	
Zura, higiezinak eta kortxoa	880	935	6,5	6,3	1.696	1.867	8,9	10,1
Ekoizpenerako mantentzea eta zerbitzuak / Instalazioa eta mant.	255	252	1,7	-1,2	57	75	0,4	31,6
Itsasoko arrantza	1.230	1.203	8,3	-2,2	522	550	2,6	5,4
Kimika	1.033	1.009	7,0	-2,3	1.274	1.346	6,4	5,7
Osasuna	81	85	0,6	4,9	443	462	2,2	4,3
Segurtasuna eta ingurumena	2.134	2.309	16,0	8,2	1.393	1.408	6,7	1,1
Gizarte-kulturako zerbitzuak eta erkidegoarentzako zerbitzuak		-	0,0		158	151	0,7	-4,4
Ehungintza, joskintza eta larrugintza	794	912	6,3	14,9	2.309	2.246	10,7	-2,7
Garraioa eta ibilgailuen mantentzea		-	0,0		113	112	0,5	-0,9

Iturria: EUSTAT. Eskola-jardueraren Estatistika

Emakumeen partaidetza oso handia da lanbide-adar hauetan: Irudi pertsonala (%94,1 gradu ertainean eta %96,7 goi-mailakoan), Ehungintza, joskintza eta larrugintza (%88,4 goi-mailako graduan), Kultura Zerbitzuak eta Erkidegoarentzako zerbitzuak (%77, gradu ertainean eta %78,3 goi-mailako graduan), Osasuna (%74,9 eta %73,7, hurrenez hurren), Elikagaien industriak (%61,9 eta %66,7) eta Administrazioa eta Kudeaketa (%60,4 eta %62,9). Eta gizonaren parean Merkataritzan eta marketinean (%53 eta % 47) eta Kimikan (%52,9 eta %50,9).

Alabaina, emakumeek lanbide ikasketetan duten partaidetzaren batez bestekoa txikiagoa da oraindik ere gizonena baino (gradu ertainean %35,1 da eta goi graduan %35,6, eta gizonenak, berriz, %64,9 eta %64,4). Halaxe gertatzen da emakumeen matrikulazioa oso txikia delako profil teknikoagoko lanbide-adarretan. Gainera, laneratze hobea duten lanbideak izaten dira. Hala, emakumeen matrikulazioa %10 besterik ez da kasurik onenean Elektrizitatean eta elektronikan, Fabrikazio mekanikoan, Ibilgailuen garraioan eta mantentzean eta Instalazioan eta mantentzean.

V.1.3. TAULA. LANBIDE HEZIKETAKO IKASLEAK GRADUAREN ETA LANBIDE-ARLOAREN ARABERA

	GRADU ERTAINA				GOI-MAILAKO GRADUA			
	GUZTIRA		Emakumeen %a (horizontalen %)		GUZTIRA		Emakumeen %a (Horizontalen %)	
	2015-16	2016-17	2015-16	2016-17	2015-16	2016-17	2015-16	2016-17
GUZTIRA	**13.993**	**14.439**	**34,6**	**35,1**	**19.723**	**21.012**	**37,6**	**35,6**
Jarduera fisikoak eta kirolekoak	271	256	18,8	19,5	245	246	17,1	16,7
Administrazioa eta kudeaketa	152	117	23,0	29,1	774	790	20,4	19,9
Nekazaritzakoa	165	190	3,0	3,2	238	247	3,8	5,7
Arte grafikoak	1.055	1.077	60,6	60,4	2.259	2.373	63,1	62,9
Merkataritza eta marketina	245	273	37,1	38,1	246	256	57,3	53,9
Eraikuntza eta obra zibila	382	394	57,3	53,0	1.027	1.093	47,7	47,0
Elektrizitatea eta elektronika	69	46	46,4	15,2	463	549	26,1	28,2
Energia eta ura	113	94	15,9	28,7	371	335	33,2	35,8
Fabrikazio mekanikoa	1.368	1.332	3,1	4,0	2.159	2.433	6,3	5,8
Ostalaritza eta turismoa					115	120	11,3	12,5
Irudi pertsonala	1.869	2.039	2,6	3,1	2.499	2.917	11,0	9,8
Irudia eta soinua	887	869	36,0	35,2	994	1.032	51,3	49,2
Elikagaien industriak	854	887	95,4	94,1	368	392	96,2	96,7
Informatika eta komunikazioak	156	160	50,6	61,9		12		66,7
Zura, altzariak eta kortxoa	880	935	8,4	6,7	1.696	1.867	13,3	12,2
Ekoizpenerako mantentzea eta zerbitzua / Instalazioa eta mant.	255	252	4,7	5,6	57	75	17,5	17,3
Itsasoko arrantza	1.230	1.203	2,6	3,1	522	550	2,1	3,5
Kimika	1.033	1.009	2,4	2,5	1.274	1.346	6,6	5,9
Osasuna	81	85	49,4	52,9	443	462	51,7	50,9
Segurtasuna eta ingurumena	2.134	2.309	76,4	74,9	1.393	1.408	75,4	73,7
Gizarte-kulturako zerbitzuak eta erkidegoarentzakoak					158	151	35,4	33,1
Ehungintza, joskintza eta larrugintza	794	912	79,7	77,2	2.309	2.246	80,2	78,3
Garraioa eta ibilgailuen mantentzea					113	112	86,7	88,4

Iturria: EUSTAT. Eskola-jardueraren Estatistika

1.2. UNIBERTSITATEKO IRAKASKUNTZAK

a) Unibertsitateko matrikulazioa

EUSTATen Unibertsitate Estatistikaren arabera, 2015-16 ikasturtean 66.830 ikasle zeuden matrikulatuta EAEko unibertsitateetan, hots, 0,3ko jaitsiera aurreko ikasturtearen aldean.

V.1.4 TAULA. MATRIKULATURIKO IKASLEEN BILAKAERA IKASKETEN ARABERA. EAE.

	2013/14	2014/15	2015/16		Aldak. %		
			Guztira	Bertik. %	2012/13-2013/14	2013/14-2014/15	2014/15-2015/16
GUZTIRA	**67.395**	**67.060**	**66.830**	**100**	**0,7**	**-0,5**	**-0,3**
1 eta 2. zikloetan matrik.	7.750	2.915	1.085	1,6	-51,0	-62,4	-62,8
Gradua	50.951	54.413	55.766	83,4	17,3	6,8	2,5
Graduatu-ond. matrik.	8.694	9.732	9.979	14,9	13,5	11,9	2,5
Master ofizialak	4.919	5.555	5.782	8,7	12,1	12,9	4,1
Doktoretza	3.775	4.177	4.197	6,3	15,4	10,6	0,5

Iturria: EUSTAT. Unibertsitateko estatistika

Gorantz jarraitzen du graduetan matrikulaturiko ikasleen kopuruak, baina aurreko ikasturtean baino neurri txikiagoan (+%2,5, aurreko ikasturteko +%6,8aren aldean), dagoeneko finkatuta baitago Bologna Planeko ikasketen egitura berria. Bestalde, jaitsiera dakar aurreko planeko lehen eta bigarren zikloko ikasketak egiten dituztenen kopuruan (lizentziaturak, arkitekturak eta ingeniaritzak, diplomatura eta arkitektura eta ingeniaritza teknikoak. Horrela, %1,6 1. eta 2. zikloko ikasketetan zeuden matrikulatuta eta %83,4 graduko ikasketetan, %8,7k master ofizialak egin zituen eta %6,3 Doktoretza egiten ari zen.

V.1.1. GRAFIKOA. IKASKETEN ARABERA MATRIKULATURIKO IKASLEEN BILAKAERA



Iturria: EUSTAT. Unibertsitate Estatistika

Bi ikasketa-planak, 1. eta 2. zikloko ikasketak eta Goi-mailako Hezkuntzaren Europako Eremuaren (GHEE) ondoriozko gradu-ikasketak aintzat hartuta, ikasle guztien kopurua 57.328 da, hots, %0,8ko beste murrizpen bat aurreko ikasturtearen aldean.

Zentroen titularitatearen araberako bereizketa eginda, 2015-2016 ikasturtean bezala, ikasleen %75,2 unibertsitate publikora doa; unibertsitate pribatuan, berriz, %24,8 matrikulatzen da. Zentro publikora doanen proportzioa %75ekoa edo handiagoa da ikasketa mota guztietan, Master Ofizialetan izan ezik, non Unibertsitate Publikoaren matrikulazioen proportzioa txikiagoa izan zen, %59,6koa hain zuzen.

Bestalde, unibertsitateko ikasgeletan dagoen sexuaren araberako banaketak emakumearen aldeko diferentzia islatzen du unibertsitatean sartzeari dagokionez (%52,7 emakumeak dira). Joera bera gertatzen da ikasketa maila gehientsuenetan: Emakumeak %53,2 direneko graduak, Masterretan %50,6koa eta doktoretzetan %52,3.

V.1.5. TAULA. MATRIKULATURIKO IKALEAK, IKASKETA-ADARRAREN ETA SEXUAREN ARABERA. 2015/16

	Guzt.	Horizontalak (%)	
		Gizonak	Emak.
Guztira	**66.830**	**47,3**	**52,7**
Arteak eta giza zientziak	6.361	38,3	61,7
Zientziak	4.059	47,5	52,5
Osasunaren zientziak	8.729	25,4	74,6
Gizarte eta lege zientziak	31.344	42,6	57,4
Ingeniaritza eta arkitektura	16.027	71,7	28,3
Ez dago	310	55,2	44,8

Iturria: Eustat.Unibertsitate estatistika

Alabaina, Lanbide Heziketako matrikulazioan gertatzen denez, emakumeek unibertsitateko adar teknikoetan (Ingeniaritza eta arkitektura) duten partaidetza txikiagoa da gizonena baino (%28,3 eta %71,7).

V.1.6. TAULA. EAE-N MATRIKULATURIKO IKALEAK, IKASKETEN, SEXUAREN ETA UNIBERTSITATE TITULUAREN ARABERA

	2013-14			2014-15			2015-16		
	Guztira	Emakumeen %	Ikastetxe publik. %	Guztira	Emakumeen %	Ikastetxe publik. %	Guztira	Emakumeen %	Ikastetxe publik. %
Guztira	**67.395**	**52,7**	**76**	**67.060**	**52,6**	**76,2**	**66.830**	**52,7**	**75,2**
1. eta 2. zikloan matrikulatuak	7.750	48,5	94	2.915	49,6	96,5	1.085	41,7	96,9
Graduan matrikulatuak	50.951	53,0	75	54.413	52,7	76,4	55.766	53,2	75,5
Graduatu-ondokoetan matrikulatuak	8.694	88,5	61	9.732	53,1	68,8	9.979	39,0	70,7
Master ofizialak	4.919	54,4	55	5.555	53,2	59,2	5.782	50,6	59,6
Doktoregoa	3.775	53,7	68	4.177	52,9	81,7	4.197	52,3	86,0

Iturria: EUSTAT. Unibertsitate estatistika

Zehazkiago, EUSTATen arabera, graduko matrikulen erdia ikasketa hauetan bildu zen: Enpresen administrazioa eta zuzendaritza (5.664), Lehen hezkuntza (3.708), Zuzenbidea (3.453), Psikologia (2.759), Ingeniaritza mekanikoa (2.305), Haur hezkuntza (2.050), Medikuntza (1.877), Erizaintza (1.537), Teknologia industrialeko ingeniaritza (1.378), Gizarte hezkuntza (1.369) eta Gizarte lana (1.177).

Gizonen artean, erdia 11 karreratan banatu zen, eta horietatiko lau ingeniaritzak dira: Enpresen administrazioa eta zuzendaritza (2.808), Ingeniaritza mekanikoa (1.925), Lehen H. (1.614), Zuzenbidea (1.383), Teknologia industrialeko ingeniaritza (986), Ingeniaritza elektroniko industria eta automatikoa (953), Ingeniaritza informatikoa (754), Psikologia (666), Jarduera fisikoaren eta kirolaren zientziak (646), Negozioen kudeaketa (604) eta Medikuntza (567).

Emakumeen erdiak, berriz, zortzi titulazio hauek erabaki zituen: Enpresen administrazioa eta zuzendaritza (2.856), Lehen hezkuntza (2.094), Psikologia (2.093), Zuzenbidea (2.070), Haur hezkuntza (1.795), Medikuntza (1.310), Erizaintza (1.274) eta Gizarte hezkuntza (1.013).

b) Unibertsitateko graduazioa

2015-16 ikasturtean, guztira 13.654 lagun graduatu ziren, hots, %2,7ko hazkundea aurreko ikasturtearen aldean. Guztien %55,2 emakumeak ziren (egonkor eusten zaio ehuneko horri nolabait).

Ikasketa motari dagokionez, lehen eta bigarren zikloko titulua eskuratu zuten 929 lagunek (-%47,5 aurreko ikasturtearen aldean), 8.709k graduetan (%7,9), 3.1722k master ofizialetan (+%8,1) eta 844k doktore gradua eskuratu zuten (+%59,8).

Graduko ikasketetan antzeko banaketa ageri da. Ikaslerik gehienak Gizarte eta Zuzenbide Zientzien arloko ikasketetan graduatu ziren (%50,4), eta ondoren Ingeniaritza eta Arkitekturakoetan (%21,6). Neurri txikiagoan, hauetan: Osasunaren Zientziak (%14,1), Arteak eta Giza Zientziak (%8,2) eta Zientziak (%53,7). Ez zen titulazio bikoitzik izan.

Ikasketa mailari dagokionez (Doktorea), 844 lagunek eskuratu zuten doktoretza, eta horietatik %51,8 emakumeak ziren. Onarturiko tesien igoera nabarmena gertatu da aurreko ikasturtearen aldean (%59,8), 316 doktore gehiago, neurri batean aurreko planak desagertu direlako.

Lehen eta bigarren zikloak eta gradua gehituta, guztira 9.638 graduatu ziren, hots, %2ko jaitsiera aurreko ikasturtearen aldean.

Sexu desberdintasunak ageri dira ikasketa-adarra aukeratzean: emakumeek gehienbat Zientziak, Osasunaren Zientziak eta Gizarte eta Lege Zientziak biltzen dituzten programak nahiago dituzte irakaskuntza teknikoen aldean.

EUSTATen arabera, gaztexeago gainditzen dituzte emakumeek unibertsitate hezkuntzako mailak gizonezkoek baino. Graduatu titulua lortu zuten pertsonen batez besteko adina 23,5 urtekoa zen. Emakumeek gaztexeago lortu zuten titulua gizonek baino (23,2 eta 23,9 urte). Masterra gainditu zuten pertsonen batez besteko adina 26,5 urtean kokatu zen. Emakumeen kasuan, gazteagoak izan ziren gizonak baino (26,3 eta 26,7 urte).

Bestalde, doktoreen batez besteko adina 38,3 urte da; emakumeek 37,5 urterekin lortzen dute titulua, eta gizonek, berriz, 39,2 urterekin.

V.1.7. TAULA. EAE-N GRADUATURIKO IKASLEEN BILAKAERA

	2011/12	2012/13	2013/14	2014/15	2015/16			
					Guztira	Bertikalen % (graduat. 1. eta 2. zikloak bereizita)	Graduaturiko emakumeen % guztizkoarekiko (horizontala)	Aldak. 2013/14-2014/15
1 eta 2. zikloetan graduatuak	**8.791**	**6.661**	**4.084**	**1.768**	**929**	**100,0**	**41,2**	**-47,5**
Osasunaren Zientziak	555	371	424	376	36	3,9	75,0	-90,4
Zientzia Esperimentalak	439	320	209	56	11	1,2	72,7	-80,4
Gizarte eta Zuzenbide Zientz.	4.597	3.226	1.429	453	49	5,3	49,0	-89,2
Irakaskuntza Teknikoak	2.439	2.021	1.749	734	821	88,4	38,6	11,9
Giza Zientziak	761	723	273	149	12	1,3	58,3	-91,9
Graduak	**762**	**3.333**	**6.607**	**8.068**	**8.709**	**100,0**	**57,4**	**7,9**
Arteak eta Giza Zientziak	.	164	486	680	714	8,2	66,2	5,0
Zientziak	51	73	245	406	498	5,7	56,4	22,7
Osasunaren Zientziak	.	470	644	828	1231	14,1	78,4	48,7
Gizarte eta Lege Zientziak	.	1.668	3.662	4281	4389	50,4	61,9	2,5
Ingeniaritza eta arkitektura	232	958	1.570	1873	1877	21,6	29,8	0,2
1. eta 2. zikloa eta graduak guzt.	**9.553**	**9.994**	**10.691**	**9.836**	**9.638**			**-2,0**
Titulazio bikoitzak			**66**					
Master ofizialak	**2.278**	**2.456**	**2.662**	**2.933**	**3.172**		**54,4**	**8,1**
Doktorego tesiak	**420**	**500**	**500**	**528**	**844**		**51,8**	**59,8**
GUZTIRA	**12.251**	**12.950**	**13.919**	**13.297**	**13.654**		**55,2**	**2,7**

Iturria: EUSTAT. Unibertsitate Estatistikak

1.3. HEZKUNTZA-ADIERAZLEAK[3]

Epigrafe honen oinarria ondoren emango den Hezkuntza-adierazleen Estatuko Sistemaren Mapa da. Memoria Sozioekonomikoan ohikoa denez, zenbait adierazletan urteko jarraipena egiten da; beste batzuk, aldiz, bi edo hiru urterik behin aztertzen dira, beste adierazle batzuei tokia uzteko. Aldi berean, informazio berria dagoenean aztertzen diren beste adierazle batzuk biltzen dira (PISA txostenaren kasua).

Bestalde, epigrafeen amaieran, Hezkuntza-adierazleen Estatuko Sistemaren Mapan bilduta ez dauden Unibertsitate Sistemako beste adierazle batzuk bildu dira.

V.1.8. TAULA. ADIERAZLEEN SAILKAPENA (HEZKUNTZA-ADIERAZLEEN ESTATUKO SISTEMA)

Eskolaratzea eta hezkuntza ingurunea	• Eskolaratzea eta biztanleria • Eskolaratze-tasak nahitaezkoak ez diren mailetako adin teorikoetan (HNSN 0, 3, 4 eta 5) • Ikasle atzerritarrak • Ikasleak taldeko eta irakasleko ✓ Ikasleak hezkuntza-taldeko ✓ Ikasleak irakasleko • Lanbide Heziketa • Irakaskuntza iraunkorrean parte hartzea.
Hezkuntzaren finantzaketa	• Guztizko gastua hezkuntzan ✓ Hezkuntzako guztizko gastua BPGarekiko. ✓ Hezkuntzako gastu publikoa ✓ Kontzertuetarako gastu publikoa • Hezkuntzako gastua ikasleko.
Hezkuntza emaitzen adierazleak	• Oinarrizko gaitasunak Lehen Hezkuntzako laugarren ikasturtean • Oinarrizko gaitasunak DBHko bigarren ikasturtean • Funtsezko gaitasunak 15 urterekin (PISA) ✓ Irakurriaren ulermena ✓ Matematikarako gaitasuna ✓ Zientzietarako gaitasuna ✓ Bizitza errealeko arazoak konpontzeko gaitasuna • Egokitasuna irakasleen adinean. • Hezkuntzaren eta prestakuntzaren uzte goiztiarra • Graduazio-tasak ✓ Graduazio-tasa gordina DBHn ✓ Graduazio-tasa gordinak bigarren etapako ikasketetan ✓ 30-34 urtekoen tituludunen ehunekoa eta graduazio-tasa gordinak goi-mailako ikasketetan ✓ Zientzietako, Matematikako eta Teknologiako goi-mailako graduatuen tasa • Helduen ikasketa maila • Jarduera- eta langabezia-tasa prestakuntza mailaren arabera • Laneko diru-sarreren diferentzia prestakuntza mailaren arabera • Atzerriko hizkuntzetarako gaitasuna • Matematika irakasleen prestakuntza • Helduen gaitasun maila (HGM)

[3] *Kontuan hartu behar da epigrafe honetan Hezkuntzako Nazioarteko Sailkapen Normalizatuak (HNSN 2011), kategoria hauek ezarri dituela:*
HNSN 0 maila – Hasierako hezkuntza edo maila txikiagokoa
HNSN 1 maila – Lehen hezkuntza
HNSN 2 maila – Bigarren hezkuntzako maila txikia
HNSN 3 maila – Bigarren hezkuntzako maila gorena
HNSN 4 maila – Bigarren hezkuntzaren ondorengoa, ez tertziarioa
HNSN 5 maila – Ziklo laburreko hezkuntza tertziarioa
HNSN 6 maila – Hezkuntza tertziarioko gradua edo maila baliokidea
HNSN 7 maila – Maisutza, espezilzazioa edo baliokidea
HNSN 8 maila – Doktoretza maila edo baliokidea

1.3.1. Eskolaratzea eta hezkuntza-ingurunea

Eskolaratze-tasa (adin esanguratsuetan)

Prestakuntza arautuan parte hartzen duen biztanleriak adin-talde bakoitzean duen portzentajea da.

Memoria Sozioekonomikoaren aurreko edizioetan adierazi izan dugunez, bi emaitza ageri dira. Alde batetik, guztiz bete dira helburuak nahitaezko irakaskuntzetan edota orokorretan eta lanbide hastapenekoetan (%100, 6-15 urtekoen artean eta %98 inguru 16-17 urtekoen artean), eta bestetik, adin aurreratuetan prestakuntza arautuaren sisteman jarraitzen duten gazteen ehuneko altua. Emaitza horiek bat datoz eskola uzte goiztiarraren tasan eta hirugarren mailako ikasketen tasan (30-34) lorturikoekin (geroago aztertuko dira).

V.1.9. TAULA. HEZKUNTZA ETA PRESTAKUNTZA SISTEMAKO DBH ONDORENGO ADINETAKO ESKOLATZE-TASA GARBIAK (1)

	16 urte		17 urte		18 urte	
	2010-11	2015-16	2010-11	2015-16	2010-11	2015-16
SEXU BIAK						
Estatua	96,0	95,5	87,6	89,6	75,2	80,3
EAE	99,3	99,2	99,1	97,9	96,7	90,6
GIZONAK						
Estatua	95,1	94,9	85,6	88,2	72,3	78,6
EAE	99,1	99,4	99,0	98,4	94,4	93,0
EMAKUMEAK						
Estatua	96,9	96,1	89,6	91,1	78,3	82,0
EAE	99,5	99,0	99,2	97,4	99,2	87,9

(1) Hauek barne: Unibertsitateko eta unibertsitatez kanpoko araubide orokorra Irak., Araubide Bereziko Irak. (Arte Plastikoak eta Diseinua, Kirol Irak., Musika eta Dantzako Lanbide Irak. (16 urte +), Hizkuntza maila aurreratuan (presentziazkoa) eta Goi-maila. Arte Irak.), Helduen Irak. (Hasierako eta Bigarren Mailako Irak.) eta beste Irak, batzuk (Profesionaltasun-ziurtagiriak, Polizia eta Osasun Prestakuntza). Iturria: Espainiako Hezkuntza zenbakietan. 2018ko edizioa. HKKM

Horrenbestez, adin esanguratsuetako eskolaatze-tasen azterketa izango dugu ardatz, hots, 16-18 urtekoena.

Hezkuntza, Kultura eta Kiroleko Ministerioaren (hemendik aurrea HKKM) Espainiako Hezkuntzaren Zenbakiak delakoaren 2018ko edizioaren arabera, 16, 17 eta 18 urteko adin esanguratsuetako eskolaratze-tasak, 2015-2016an, handiagoak ziren EAEn estatuko batez bestekoak baino: 16 urterekin (%99,2 eta %95,5), 17 urterekin (%97,9 eta %89,6) eta 18 urterekin (%90,6 eta %80,3).

Generoari erreparatuta ikusten denez, tasa handiagoak dira gizonen artean emakumeen artean baino, eta alderantziz gertatzen da estatuan.

28ko EBko estatu kideekin alderatuta, EUROSTATen datuen arabera, EAE bosgarren tokian dago eskolaratze-tasan 16 urtetan, Suediaren, Danimarkaren, Irlandarren eta Poloniaren atzetik; eta 17 eta 18 urtetan, zortzigarren tokian. 17 urterekin Danimarkaren, Erresuma Batuaren, Suediaren, Poloniaren, Errumaniaren, Irlandaren eta Luxenburgoren atzetik; eta 18 urterekin, Errumania, Eslovakiar Errepublika, Holanda, Erresuma Batua, Irlanda, Danimarka eta Hungaria ditu aurretik.

V.1.10. TAULA. ESKOLARATZE-TASA GARBIAK ADIN ESANGURATSUETAN (1). 2014-15 IKASTURTEA

	16 urte	17 urte	18 urte
28KO EB	-	-	-
ALEMANIA	97,6	97,0	88,1
AUSTRIA	88,8	85,9	81,6
BELGIKA	98,0	95,6	89,4
BULGARIA	95,1	90,8	86,8
ZIPRE	97,0	93,3	82,9
KROAZIA	96,5	93,7	90,0
DANIMARKA	103,0	100,5	92,9
ESLOVENIA	92,9	96,5	73,1
ESPAINIA	**95,4**	**90,0**	**80,0**
ESTONIA	94,2	91,8	77,6
FINLANDIA	98,5	92,2	70,7
FRANTZIA	95,1	92,4	81,2
GREZIA	93,2	91,1	38,2
HUNGARIA	98,8	95,6	90,8
IRLANDA	99,8	98,3	94,8
ITALIA	88,8	83,5	68,6
LETONIA	93,5	89,7	80,2
LITUANIA	84,5	74,2	59,3
LUXENBURGO	99,0	97,9	89,9
MALTA	91,2	89,3	74,9
HOLANDA	95,8	96,1	95,4
POLONIA	99,7	98,9	81,3
PORTUGAL	80,9	77,5	76,7
ERRESUMA BATUA	98,0	100,0	95,3
TXEKIAR ERREP.	93,5	89,3	82,1
ESLOVAKIAR ERREP.	95,9	95,7	95,4
ERRUMANIA	99,2	98,3	96,0
SUEDIA	107,5	99,5	60,9
EAE (2015-16 ikast.)	**99,2**	**97,9**	**90,6**

Iturria: EUROSTAT Espainiako Hezkuntzaren zenbakiak. 2018ko edizioa. HKKM

Irakasle bakoitzeko ikasle kopurua, lanaldi osoaren pareko lanaldiarekin.

Lanaldi osoaren pareko lanaldia duten irakasleak zati ikasleen batez besteko kopurua egin behar da kalkulua egiteko, hezkuntza maila bakoitzean.

HKKMren datuen arabera, lanaldi osoaren pareko lanaldia duen irakasle bakoitzeko ikasleen batez bestekoa txikiagoa da EAEn estatuan baino (12,1 eta 12,5) 2014-2015 ikasturtean unibertsitatetik kanpoko araubide orokorreko irakaskuntzetan. Mailetan banakatuta ageri denez, EAEko ratioak txikiagoak dira Haur eta Lehen Hezkuntzako eta Batxilergoko edota LH-ko ikastetxeetan, baina DBH ematen duten ikastetxeetan eta Hezkuntza Bereziko ikastetxeetan ratiorik txikiena Estatuari dagokio.

Azterketak desberdintasunak erakusten ditu ikastetxearen titulartasunaren arabera, estatuan nahiz EAEn. Hala, irakaskuntza horien batez bestekoa 9,3 ikaslekoa da herri ikastetxeetan EAEn; ikastetxe pribatuetan, berriz, 18rainokoa da (8,7 ikasle gehiago). Alderik handiena Lehen Hezkuntzako, DBHko eta Batxilergo/LHko ikastetxeetan dago (8,7 ikasle gehiago), eta ondoren Lehen Hezkuntzako eta DBHko ikastetxeak datoz (7,8 ikasle gehiago).

V.1.11. TAULA. LANALDI OSOAREN PAREKO LANALDIKO IKASLE BKOITZEKO BATEZ BESTEKOA*, IKASTETXE ETA TITULARTASUN MOTEN ARABERA. UNIBERTSITATEZ KANPOKO ARAUBIDE OROKORREKO IRAKASKUNTZAK.

	GUZTIRA		Haur H. ikastetxeak		Lehen H. ikastetxeak		Lehen eta Bigarren H. ikastetxeak		Batxilergo edota LHko ikastetxeak		Lehen, Big. H. eta Batx./LHko ikastetxeak		H. Bereziko ikastetxeak	
	2013-4	2014-5	2013-4	2014-5	2013-4	2014-5	2013-4	2014-5	2013-4	2014-5	2013-4	2014-5	2013-4	2014-5
Estatua. Ikastetxe guztiak	**12,7**	**12,5**	**9,6**	**9,3**	**13,3**	**13,1**	**14,5**	**14,9**	**11,1**	**10,7**	**16,3**	**16,7**	**4,0**	**4,1**
Estatua. Publikoak	11,8	11,5	9,0	8,8	13,3	13,1	9,3	9,6	10,9	10,5	8,9	8,9	3,5	3,7
Estatua. Pribatuak	15,1	15,3	10,4	10,0	14,6	14,2	15,8	16,2	14,0	13,8	16,4	16,7	4,6	4,5
Pribatuen eta publikoen dif.	3,3	3,8	1,4	1,2	1,3	1,1	6,5	6,6	3,1	3,3	7,5	7,8	1,1	0,8
EAE. Ikastetxe guztiak	**12,0**	**12,1**	**4,1**	**5,6**	**11,1**	**11,0**	**15,7**	**15,9**	**8,8**	**9,0**	**19,3**	**19,7**	**3,9**	**4,4**
EAE. Publikoak	9,1	9,3	4,0	5,6	11,0	10,9	8,8	9,1	7,8	8,0	11,3	11,2	2,0	2,3
EAE. Pribatuak	17,6	18,0	-	-	15,5	15,3	16,4	16,9	15,7	15,2	19,4	19,9	4,2	4,7
Pribatuen eta publikoen dif.	8,5	8,7			4,5	4,4	7,6	7,8	7,9	7,2	8,1	8,7	2,2	2,4

(*) Lanaldi osoaren parekoa.
Iturria: HKKM. Espainiako Hezkuntzaren zenbakiak. 2016ko eta 2018ko edizioa.

Datu-iturri beraren arabera, baina ELGAren metodologia erabiliz konparazioa egite aldera, Espainiak ELGAko batez bestekoak baino ratio txikiagoa du, lehen hezkuntzan 13,7 ikasle irakasleko, bigarren hezkuntzako 1. etapan 11,9, bigarren hezkuntzan 2. etapan 11,1 eta goi-mailako hezkuntzan 12,7. Zehazkiago: Ehuneko 1,5 gutxiago lehen hezkuntzan, 1,1 bigarren hezkuntzako 1. etapan, 2 bigarren hezkuntzako 2. etapan eta 3,1 goi-mailako hezkuntzan.

Herrialde hauetan izan dira ratiorik txikienak: Aurre-lehen Hezkuntzan: Alemanian, Suedian, Eslovenian eta Finlandian; Lehen Hezkuntzan, Lituanian, Luxenburgon eta Polonian; Bigarren Hezkuntzako 1. etapan, Maltan, Lituanian eta Letonian; Bigarren Hezkuntzako 2. etapan, Lituanian, Maltan eta Portugalen eta Goi-mailako hezkuntzan Maltan, Suedian eta Danimarkan.

Ikaskuntza iraunkorrean parte hartzea

Etengabeko ikaskuntzako ekintza batean parte hartzen duten 25 eta 64 urte bitarteko biztanleen ehunekoa bezala definitzen da, adin bereko biztanleria osoaren gainetik. Europar Batasunak 2020rako helburu bezala ezarri du 25-64 urteko helduen % 15ek, gutxienez, hartuko duela parte etengabeko ikaskuntzako jardueraren batean.

2016ko Memoria Sozioekonomikoaren edizioan bildutako datuek erakusten dutenez, EAEko ratioa handiagoa zen 2015ean estatuko eta EBko batez bestekoa baino, baina ez da iritsi 2020rako helburura.

V.1.12. TAULA. IKASLEEN BATEZ BESTEKO KOPURUA IRAKASLEKO. 2014/15 IKASTURTEA

	Aurre-lehen H. (HNSN)	Lehen H. (HNSN 1)	Bigarren H.ko 1. etapa (HNSN 2)	Bigarren H.ko 2. etapa (HNSN 3)	Goi-mailako H. (HNSN 5-8)
ELGA-ko b.b.	..	15,2	13,0	13,1	15,8
28KO EB	..	15,1	12,6	12,9	15,6
ALEMANIA	9,7	15,4	13,3	13,0	12,0
AUSTRIA	13,5	11,8	8,7	10,1	14,4
BELGIKA	15,1	12,8	9,5	9,9	22,8
BULGARIA	12,7	17,8	12,8	12,2	12,9
ZIPRE	14,0	12,2	10,3	10,1	17,2
KROAZIA	12,0	14,3	9,0	9,7	74,5
DANIMARKA	..	..	..	..	11,2
ESLOVENIA	9,3	15,9	8,5	13,4	17,1
ESPAINIA	14,9	13,7	11,9	11,1	12,7
ESTONIA	..	13,3	9,5	15,2	14,0
FINLANDIA	10,2	13,6	9,0	16,5	15,1
FRANTZIA (5)		19,0	15,1	10,4	18,6
GREZIA	..	..	..	..	..
HUNGARIA	12,5	11,2	10,6	11,5	14,6
IRLANDA (1)	..	16,2	..	13,9	20,4
ITALIA	13,2	12,4	11,5	12,5	20,2
LETONIA	10,2	11,6	7,7	9,7	18,7
LITUANIA	10,6	10,3	7,3	8,1	16,5
LUXENBURGO	10,8	10,7	11,0	10,8	..
MALTA	12,9	13,6	6,9	8,9	9,8
HOLANDA	16,3	16,6	16,0	18,0	15,4
POLONIA	15,1	11,1	9,7	10,3	14,9
PORTUGAL	17,4	13,7	10,0	9,7	13,9
ERRESUMA B. (4)	..	18,4	14,3	26,1	15,9
TXEKIAR ER.	13,5	19,0	11,8	11,1	23,3
ESLOVAKIAR ER.	12,4	17,2	11,6	13,5	13,0
ERRUMANIA	16,0	19,1	11,9	14,3	18,7
SUEDIA	6,4	12,8	12,3	14,4	10,4

(1) EBko 21 herrialdeak barne, 19 ELGAren barrukoak eta 2 elkartu (Eslovenia eta Estonia).
(2) Soilik Estatuaren menpeko erakunde publikoak edo pribatuak
(3) Zuzendaritza-taldeari buruzko datuak barne
(4) Hezkuntza maila batzuk beste batzuetan daude sartuta
Iturria: Espainiako Hezkuntzaren zenbakiak. 2016ko eta 2018ko edizioa. HKKM

1.3.2. Hezkuntza finantzaketa.

Hezkuntzako gastu publikoa administrazio motaren arabera

HKKMren datuen arabera, Hezkuntzako gastu publikoa, 2016an, 47,189,7 milioi eurokoa izan zen Estatuan (finantza-kapituluak kenduta eta, horri esker, gorabeherak kendu eta nazioarteko konparazioa egin daiteke), hots, BPGaren %4,1 (2015ean: %4,2).

HKKMren "*Espainiako Hezkuntzaren zenbakiak. 2018ko edizioa*" deritzon txosteneko datuen arabera, hezkuntzako gastu publikoa, 2015ean, BPGaren %5,1 izan zen 28ko EBn, estatuko %4,2koaren gainetik. Honatx ratiorik handienak dituzten herrialdeak: Suedia (%7,2), Finlandia (%6,8), Belgika (%6,5), Zipre eta Malta (%6,1 bakoitza), Erresuma Batua (%5,9), Frantzia eta Holanda (%5,5) eta Austria (%5,4).

Gastua administrazioen arabera aztertuta ikusten denez, espero zitekeen bezala, zatirik handiena hezkuntza administrazioei dagokie, hots, Hezkuntza Ministerioari (HKKM) eta Hezkuntza Sailburutzei eta Sailei edota AA.EE.etako unibertsitateei.

Hala, Estatu osoan, hezkuntza administrazioen gastua 41.386 milioi euro izan zen 2016an (40.580 milioi 2015ean), hots, BPGaren %3,6. EAEn, gastu hori 2.642,2 milioi eurokoa da (2.602,5 aurreko urtean), hau da, BPGaren %3,8, estatuko ratioa baino bi hamarren gehiago (%3,6) eta 2015ekoa baino hamarren bat gutxiago).

Europako eta erreferentziako herrialdeetako batez bestekoarekin konparatzeko, guztizko gastuak izan ditugu aintzat (administrazioen multzokoak), hiru lerroalde gorago aipatuak. Horrenbestez, EAEko eta Europako batez bestekoak (lurralde gehiago izateagatik) ez dira zuzenean konparagarriak, baina nahikoa hurbilketa zuzena ematen digute, eta horiek oinarrituta esan dezakegu gure Erkidegoak gastu publiko txikiagoa duela BPGaren gainean arloko erreferentziako herrialdeek baino.

V.1.13. TAULA. HEZKUNTZAKO GASTU PUBLIKOAREN BILAKAERA ADMINISTRAZIO MOTAREN ARABERA (MILA €). GASTU PUBLIKOA, FINANTZA-KAPITULUAK ALDE BATERA UTZITA

	GASTUA				GASTUAREN % BPG-AREKIKO			
	2013	2014	2015	2016b	2013	2014	2015	2016b
ESTATUA GUZTIRA	**44.475.396**	**44.461.690**	**46.262.400**	**47.189.680**	**4,3**	**4,1**	**4,2**	**4,1**
HKKM ETA HEZKUNTZA ESKUMEN GUZTIAK BEREN GAIN HARTUTAKO AAEE-ETAKO HEZKUNTZA ADMIN.	**38.943.143**	**38.927.925**	**40.580.035**	**41.385.904**	**3,8**	**3,6**	**3,7**	**3,6**
Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioa	1.767.473	1.942.320	2.029.720	2.037.294				
Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioa AA.EE.ri transferiturikoak kenduta.	1.535.807	1.695.287	1.721.908	1.678.729				
AA.EE.en hezkuntza administrazioak	**37.407.336**	**37.232.638**	**38.858.127**	**39.707.175**				
Andaluzia	7.218.465	7.161.777	7.443.699	7.604.793	5,3	5,2	5,2	5,1
Aragoi	1.048.319	1.032.566	1.061.406	1.119.802	3,2	3,2	3,2	3,3
Asturias	783.301	768.387	798.283	798.838	3,8	3,8	3,8	3,7
Illes Balears	756.944	760.890	816.627	861.135	3,0	2,9	3,0	3,0
U. Kanariarrak	1.496.533	1.531.986	1.541.196	1.592.699	3,8	3,9	3,8	3,8
Kantabria	524.270	536.021	543.749	570.031	4,5	4,5	4,5	4,6
Gaztela-Leon	1.988.964	2.002.480	2.071.630	2.096.544	3,9	3,9	3,9	3,8
Gaztela-Mantxa	1.492.290	1.463.865	1.556.836	1.562.327	4,1	4,1	4,2	4,1
Katalunia	5.712.740	5.545.939	6.018.679	6.139.980	3,0	2,8	3,0	2,9
Valentzia	3.970.805	4.012.180	4.169.774	4.300.411	4,4	4,3	4,2	4,1
Extremadura	955.890	967.939	1.028.176	1.016.417	5,7	5,8	5,9	5,7
Galizia	2.213.234	2.180.438	2.258.297	2.317.044	4,2	4,1	4,0	4,0
Madril	4.656.413	4.618.275	4.772.701	4.849.327	2,5	2,4	2,4	2,3
Murtzia	1.273.129	1.249.007	1.302.807	1.339.958	4,8	4,7	4,6	4,6
Nafarroa	579.220	586.497	598.310	620.376	3,3	3,3	3,2	3,2
EAE	**2.489.223**	**2.560.561**	**2.602.480**	**2.642.160**	**4,0**	**4,0**	**3,9**	**3,8**
Errioxa	247.596	253.828	273.479	275.333	3,3	3,3	3,5	3,5
BESTE UNIBERTSITATE BATZUK	**3.286.705**	**3.118.303**	**3.142.321**	**3.283.059**				
ADMINISTRAZIOAK BANATU EZ DUEN GASTUA	4.433.000	4.464.000	4.536.000	4.487.000				
Egoitzako gizarte kotizazioak	-353.210	-305.898	-211.545	-211.219				
DOIKUNTZA-PARTIDAK	-1.834.243	-1.742.640	-1.784.411	-1.755.063				
AA.EE.ek tokiko erakundeei eginiko transferentziak	44.475.396	44.461.690	46.262.400	47.189.680				
Unibertsitateko hezkuntzaren barruko finantzaketa pribatua	38.943.143	38.927.925	40.580.035	41.385.904				

Iturria: Hezkuntzako gastuaren estatistika. 2016. urtea. Behin-behineko emaitzak (2018ko martxoa) HKKM eta geuk eginikoa

Unibertsitate-hezkuntza eta unibertsitatez kanpoko hezkuntza bereizita, EAEn, BPGaren gaineko hurrenez hurreneko ratioak % 3,1ekoa eta % 2,7koa izan ziren, estatuan baino handiagoak Unibertsitatetik kanpoko hezkuntzan, baina ez Unibertsitateko Hezkuntzako esfortzuan (%0,6 eta %0,8).

V.1.14. TAULA. UNIBERTITATEZ KANPOKO ETA UNIBERTSITATEKO HEZKUNTZAKO GASTU PUBLIKOAREN BILAKAERA (MILA €)

	GASTUA				GASTUA/BPG (%)			
	2013	2014	2015	2016	2013	2014	2015	2016
UNIBERTSITATEZ KANPOKO HEZKUNTZA								
GUZTIRA, ESTATUA	31.091.749	30.958.882	32.455.325	33.432.753	3,0	2,9	2,9	2,9
HKKM eta hezkuntza eskumen guztiak dituzten AA.EE.etako hezkuntza administrazioak	28.949.155	28.814.398	30.161.084	31.024.517	2,8	2,7	2,7	2,7
EAEko Hezkuntza Administrazioa	2.036.766	2.056.838	2.098.399	2.139.695	3,3	3,2	3,2	3,1
UNIBERTSITATEKO HEZKUNTZA								
GUTIRA, ESTATUA	9.173.286	8.889.702	9.142.266	9.004.902	0,9	0,8	0,8	0,8
HKKM eta hezkuntza eskumen guztiak dituzten AA.EE.etako hezkuntza administrazioak	9.160.337	8.875.718	9.126.826	8.988.599	0,9	0,8	0,8	0,8
EAEko Hezkuntza Administrazioa	435.211	435.435	434.328	425.795	0,7	0,7	0,7	0,6

Iturria: Hezkuntzako gastuaren estatistika. 2016. urtea. Behin-behineko emaitzak (2018ko martxoa) HKKM eta geuk eginikoa

Hezkuntzan ikasleko egindako gastuaren konparazioa

EUROSTATen arabera, 2014an, ikasle bakoitzeko gastua 6.133 euro izan zen estatuan, hezkuntza erakunde publikoetan eta pribatuetan, eta 6.687 eurokoa erakunde publikoetan. Bi gastu horiek hauexetakoak baino txikiagoak dira: Zipre, Frantzia, Finlandia, Malta, Alemania, Belgika, Holanda eta Erresuma Batua, eta oso urruti Austriakotik eta Luxenburgokotik.

HKKMren arabera, zentro publikoen ikasle bakoitzeko gastu publikoa Unibertsitatez kanpoko irakaskuntzan, Lan Heziketa alde batera utzita, 6.437 eurokoa izan zen EAEn 2015. urtean. Beraz, berriz ere dugu gure Erkidegoan ikasle bakoitzeko gasturik handiena, baina berriro ere behera egin du zatidurak aurreko urtearen aldean. Estatuko batez bestekoa 4.743 euro zenez gero, ikasle bakoitzeko gastua %35,7 handiagoa izan zen EAEn Estatuan baino.

Unibertsitatez kanpoko irakaskuntzako ikastetxe publikoetako ikasle bakoitzeko gastu publikoa 8.973 euro izan zen 2015ean, eta berriz ere kokatzen da gure Erkidegoa ikasleko gasturik handiena dutenen lehen tokian. Estatuko batez bestekoa 5.436 euro izan zen. Beraz, EAEko ikastetxe publikoetako ikasleko batez beteko gastua Estatukoa baino %65,1 handiagoa izan zen.

V.1.15. TAULA. GASTUA IKASLEKO (PPS ERABILIZ BIHURTURIKO EUROAK. 2014

	Erakunde publiko eta pribatuak	Erakunde publikoak
28KO EB	7.509	7.068
ALEMANIA	8.599	8.038
AUSTRIA	10.109	10.432
BELGIKA	8.774	9.378
BULGARIA	3.084	2.989
ZIPRE	8.229	9.357
KROAZIA	4.284	4.337
DANIMARKA	..	..
ESLOVENIA	7.021	7.044
ESPAINIA	**6.133**	**6.687**
ESTONIA	..	..
FINLANDIA	8.270	8.401
FRANTZIA	7.783	8.106
GREZIA	..	..
HUNGARIA	..	..
IRLANDA	7.287	7.380
ITALIA	6.503	6.709
LETONIA	5.010	4.572
LITUANIA	4.600	4.599
LUXENBURGO	16.668	17.431
MALTA	8.431	8.361
HOLANDA	8.879	8.297
POLONIA	5.291	5.453
PORTUGAL	6.045	5.797
ERRESUMA BATUA	9.950	8.670
TXEKIAR ERR.	5.335	5.449
ESLOVAKIAR ERR.	5.150	5.194
ERRUMANIA	2.307	2.308

Iturria: EUROSTAT HKKM. Espainiako Hezkuntzaren zenbakiak 2018ko edizioa

Deigarria da ikasle bakoitzeko kostuaren aldea sareko guztizkoaren artean eta sare publikoaren artean EAEn, gastuaren % 39,4ra heltzen dena. Beste autonomia erkidegoek, Nafarroak izan ezik, ez dute % 20ko aldea gainditzen.

V.1.16. TAULA. UNIBERTSITATEZ KANPOKO IRAKASKUNTZAN EGINIKO GASTU PUBLIKOA IKASLEKO (1) AUTONOMIA ERKIDEGOEN ARABERA

	Ikasle publiko eta itunpeko ikasle bakoitzeko gastua (eurotan)					Ikasle publiko bakoitzeko gastua (eurotan)				Publiko, pribatu eta itunpekoaren dif. ratioa			
	2010	2013	2014	2015	Ald. % 2010/15	2010	2013	2014	2015	2010	2013	2014	2015
ESTATUA	5.515	4.569	4.537	4.743	-14,0	6.470	5.231	5.169	5.436	17,3	14,5	13,9	14,6
ANDALUZIA	4.763	4.110	4.042	4.220	-11,4	5.351	4.595	4.510	4.735	12,3	11,8	11,6	12,2
ARAGOI	5.490	4.775	4.707	4.891	-10,9	6.513	5.516	5.372	5.631	18,6	15,5	14,1	15,1
ASTURIAS	6.647	5.667	5.530	5.747	-13,5	7.996	6.615	6.435	6.679	20,3	16,7	16,4	16,2
U. BALEARRAK	6.068	4.817	4.808	5.102	-15,9	7.372	5.623	5.592	5.917	21,5	16,7	16,3	16,0
U. KANARIARRAK	5.167	4.527	4.539	4.627	-10,5	5.816	5.031	5.017	5.102	12,6	11,1	10,5	10,3
KANTABRIA	6.292	5.534	5.623	5.644	-10,3	7.573	6.474	6.539	6.595	20,4	17,0	16,3	16,8
GAZTELA-LEON	5.986	5.124	5.109	5.372	-10,3	7.412	6.117	5.981	6.399	23,8	19,4	17,1	19,1
GAZTELA-MANTXA	5.902	4.335	4.295	4.545	-23,0	6.427	4.624	4.591	4.885	8,9	6,7	6,9	7,5
KATALUNIA	5.409	4.237	4.198	4.580	-15,3	6.481	4.876	4.746	5.197	19,8	15,1	13,1	13,5
VALENTZIAKO E.	5.609	4.383	4.449	4.628	-17,5	6.438	4.880	4.995	5.246	14,8	11,3	12,3	13,4
EXTREMADURA	5.771	5.220	5.276	5.595	-3,0	6.529	5.815	5.881	6.255	13,1	11,4	11,5	11,8
GALIZIA	6.499	5.560	5.404	5.585	-14,1	7.670	6.421	6.241	6.460	18,0	15,5	15,5	15,7
MADRIL	4.630	3.908	3.857	3.957	-14,5	5.573	4.505	4.443	4.593	20,4	15,3	15,2	16,1
MURTZIA	5.417	4.438	4.352	4.545	-16,1	6.183	4.939	4.841	5.074	14,1	11,3	11,2	11,6
NAFARROA	7.131	5.739	5.692	5.731	-19,6	9.058	6.955	6.866	6.951	27,0	21,2	20,6	21,3
EAE	**7.359**	**6.475**	**6.448**	**6.437**	**-12,5**	**10.592**	**9.175**	**8.976**	**8.973**	**43,9**	**41,7**	**39,2**	**39,4**
ERRIOXA	5.739	4.733	4.827	5.004	-12,8	7.024	5.530	5.649	5.863	22,4	16,8	17,0	17,2

(1)) Ikasleko gastu publikoa hezkuntza sistemako unibertsitatez kanpoko irakaskuntzetan eta, beraz, lan heziketa alde batera utzita. Lanaldi osoaren parekeko lanaldia, nazioarteko estatistikan erabilitako metodologiaren arabera.
Iturria: HKKM. Espainiako Hezkuntzaren zenbakiak. 2018ko edizioa eta aurreko urteak

Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailaren gastua

Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailaren gastua (hezkuntzaren arloa soilik), 2016an, 2.588,8 milioi eurokoa izan zen. Hots, %1,1eko igoera aurreko ekitaldiaren aldean. Eusko Jaurlaritzaren guztizko gastuan duen partaidetza %25ekoa izan zen, aurreko urtekoaren antzekoa (%25,2). Ikasle bakoitzeko hezkuntzako gastua (ikasle guztiak, hau da, Araubide Orokorrekoak[4] nahiz Berezikoak[5]) gora egin zuen 2014 eta 2015 bitartean: 5.259 eurotik 5.328 eurora .

Bestalde, 2017ko aurrekontuetan, Hezkuntza Sailak soilik hezkuntzara bideraturiko partidan, 2.578,8 milioi euro izan ziren. Hots, %1,9ko gehikuntza aurreko urteko aurrekontuko gastuaren aldean. Hona hemen Eusko Jaurlaritzaren gastuen aurrekontuan duen partaidetza-ehunekoa: %23,3. Hau da, EAEko BPGaren %3,5eko gastua. 2016an, berriz, %3,57koa zen.

V.1.17. TAULA. EUSKO JAURLARITZAK HEZKUNTZAN LIKIDATURIKO/AURREKONTUAN JASOTAKO GASTUAREN BILAKAERA

Urteak	Mila euro	Gobernuarena, guztira (mila euro)	EJk likidaturiko gastu guztiarek. %	BPG mila €	BPGarekiko %	Oinarria: 2008=100	Ikasleak guztira (1)	Ikasleko gastua eurotan
Aurrekontuko likidazioekin								
2012	2.553.288	10.246.437	24,9	65.763.202	3,88	100	470.755	5.424
2013	2.405.343	9.579.464	25,1	64.923.009	3,70	94	479.061	5.021
2014	2.513.394	10.053.537	25,0	66.378.235	3,79	98	480.859	5.227
2015	2.560.630	10.161.474	25,2	68.496.577	3,74	100	486.870	5.259
2016	2.588.781	10.364.639	25,0	70.857.296	3,65	101	485.858	5.328
Aurrekontuekin								
2016	2.530.062	10.933.299	23,1	70.857.296	3,57	99		
2017	2.578.779	11.059.662	23,3	73.642.960	3,5	101		

(1) Ikasle guztien artean erregimen orokorreko ikasleak eta erregimen bereziko ikasleak sartzen dira. Erregimen orokorreko ikasleen artean unibertsitateaz kanpoko ikasleak –zeinen artean hezkuntza bereziko ikasleak eta helduen hezkuntza iraunkorrekoak sartzen baitira- eta unibertsitateko ikasleak daude. Erregimen bereziko ikasleen artean arte plastiko eta diseinuko, hizkuntzetako, musikako, dantzako, kiroleko eta diseinuko goi-mailako ikasketetako ikasleak sartzen dira.
Iturria: EUSTATen datuekin geuk egina, EAEko Kontu Orokorrak, eta azken urterako aurrekontuak.

[4] *Unibertsitatekoa eta unibertsitatez kanpokoaa.*

[5] *Artes Plastikoak eta diseinua, Hizkuntza, Musika, Dantza, Kirola eta Diseinuko goi-mailako ikasketak.*

Bestalde, 2016-17 ikasturtean, EAEko Herri Administrazioak emandako beken eta laguntzen zenbatekoa 54 milioi euro izan zen, eta guztira, 126.644 ikasle izan ziren onuradunak, guztien %31. Beken partida, gehienbat, Araubide Orokorreko Irakaskuntzetarako erabili zen (%99,8), eta Lehen Hezkuntza (%47), Haur Hezkuntza (%22) eta DBH (%19) nabarmentzen dira. Irakaskuntza espezializatuetarako, berriz, 130.000 euro eman ziren. Ikastetxe publikoek laguntzen bi heren jaso zituzten, hezkuntza goiztiarra eta oinarrizkoa laguntzeko. Ikastetxe pribatuetan matrikulaturiko ikasleentzako bekak, berriz, 19 milioikoak izan ziren.

1.3.3. Hezkuntza-adierazleak

Egokitasuna ikasleen adinean

Ikasleen adinaren egokitasuna hezkuntza-sistemaren emaitzen neurketa garrantzitsua da. Neurketa horrek erakusten digu zer ikasle-tasak egiten duen aurrera modu egokian derrigorrezko eskolaldiaren barruan, hau da, zenbatek ikasten duen ikasleari dagokion mailan.

Datuak ikusita berretsi egiten da arreta berezia jarri behar dela lehen adinetan, zeren eta eskolako atzerapenak eta, ondorioz, ezegokitasunak, gora egin eta metatu egin baitira urteetan.

HKKMren Espainiako Hezkuntzaren zenbakiak txostenaren 2017ko edizioaren arabera, 2015-16 ikasturtean, EAEko 8 urteko ikasleen %94,6 Lehen Hezkuntzako 3. mailan zegoen matrikulatuta, adin horretako kurtso teorikoan; 10 urterekin, etapa horretako 5.eko ikasleen tasa %3,6 txikiagoa zen (%91). DBHko adinetan, egokitasun-tasek behera egiten dute adinean gora egin ahala. Hala, 12 urteko ikasleen %87,8 hezkuntza etapa horretako 1. mailan zebilen; 14 urteko ikasleen %79,2 hirugarren mailan eta 15 urtekoen %74,2 laugarren mailan zegoen matrikulatuta. Ratio horiek estatuko batez bestekoak baino handiagoak dira, V.1.18. taulan ageri denez.

Generoaren ikuspegitik, emakumeen egokitasun-tasak gizonezkoenak baino handiagoak dira, eta aldea handituz doa adinean gora egin ahala. EAEko kasu zehatzean, 2015-16 ikasturtean, hauexek dira diferentziak: 2,1 emakumeen alde 8 urterekin, 3 puntukoa 10 urterekin, 3,5 puntu 12 urterekin, 8,2 puntu 14 urterekin eta 10,6 puntu 15 urterekin. %

V.1.18. TAULA. EGOKITASUN-TASAK 8, 10, 12, 14 ETA 15 URTETAN.

	8 urte		10 urte		12 urte		14 urte		15 urte	
	2005-06	2015-16	2005-06	2015-16	2005-06	2015-16	2005-06	2015-16	2005-06	2015-16
BI SEXUAK-ESTATUA	94,3	94,0	90,2	90,3	84,2	86,1	66,0	73,1	57,7	65,6
BI SEXUAK-EAE	95,5	94,6	92,2	91,0	87,9	87,8	77,2	79,2	71,1	74,2
GIZONAK-ESTATUA	93,4	93,2	88,7	89,1	81,5	84,2	60,2	69,0	51,5	60,7
GIZONAK-EAE	94,9	93,6	91,5	89,6	86,0	86,1	72,4	75,3	64,4	69,1
EMAKUMEAK-ESTATUA	95,2	94,9	91,7	91,7	87,1	88,2	72,2	77,3	64,1	70,8
EMAKUMEAK-EAE	96,0	95,7	92,9	92,5	90,0	89,6	82,4	83,5	78,0	79,7
Emak.-gizona dif. ESTATUA	1,8	1,8	3,0	2,5	5,6	4,1	12,0	8,3	12,6	10,1
Emak.-gizona dif. EAE	1,1	2,1	1,4	3,0	4,0	3,5	10,0	8,2	13,6	10,6

Iturria: Espainiako Hezkuntzaren zenbakiak. 2017ko edizioa

Kataluniak du egokitasun-tasarik onena azterturiko adin guztietan, eta EAE hobetuz doa adin teorikoa handitu ahala, honekin batera doan taulak dakarrenez (V.1.19.).

V.1.19. TAULA. EAE-K ADIN ESANGURATSUEN EGOKITASUNAREN ARLOKO RANKINEAN DUEN TOKIA. 2015-16 IKASTURTEA

8 urte		10 urte		12 urte		14 urte		15 urte	
Katalunia	96,3	Katalunia	94,3	Katalunia	92,4	Katalunia	83,4	Katalunia	77,9
Kantabria	96,0	Kantabria	92,5	Errioxa	88,9	EAE	79,2	EAE	74,2
Melilla	96,0	Asturias	91,8	Kantabria	87,9				
Galizia	95,1	Galizia	91,5	EAE	87,8				
Asturias	94,8	Errioxa	91,3						
EAE	94,6	EAE	91,0						

Eskola- eta heziketa-uzte goiztiarra

Gehienez bigarren hezkuntzako lehen etapa edo aurreko hezkuntza duten (HNSN 0, 1 eta 2) eta ezelako hezkuntzarik edo prestakuntzarik jarraitzen ez duten 18-24 urte bitarteko pertsonen portzentajea da.

HKKMk argitaraturiko informazioaren arabera, beheranzko joera du gure Erkidegoan hezkuntzaren eta prestakuntzaren uzte-tasak, eta 2016an %7,9an kokatu zen, 28ko EBko batez bestekoaren (%10,7) eta estatuko batez bestekoaren (%19) azpitik.

Hala, askoaz gainditu du gure EAEk EBk 2020rako hartutako %10eko helburua. Gogoratu behar da Espainian, tasa handia duela-eta, %15etik beherakoa izatea proposatu dela.

Hona hemen dagoeneko helburua lortu duten herrialdeak: Kroazia (%2,8), Lituania (%4,8), Eslovenia (%4,9), Polonia (%5,2), Luxenburgo (%5,5), Grezia (%6,2), Irlanda (%6,3), Txekiar E. (%6,6), Austria (%6,9), Danimarka (%7,2), eta Eslovakiar E. eta Suedia (bietan % 7,4), Zipre (%7,6), Finlandia (%7,9, EAEko ratio bera), Holanda (%8), Frantzia (%8,8) eta Letonia (%10).

V.1.20. TAULA. ESKOLA- ETA HEZIKETA-UZTE GOIZTIARRA EB-KO KIDEAREN ETA SEXUAREN ARABERA

	GUZTIRA			GIZONAK			EMAKUMEAK		
	2006	2011	2016	2006	2011	2016	2006	2011	2016
28KO EB	**15,3**	**13,4**	**10,7**	**17,4**	**15,3**	**12,2**	**13,2**	**11,5**	**9,2**
Alemania	13,7	11,6	10,3	14,0	12,5	11,0	13,4	10,7	9,5
Austria	10,0	8,5	6,9	10,3	9,0	7,7	9,8	8,0	6,0
Belgika	12,6	12,3	8,8	15,1	14,9	10,2	10,0	9,7	7,4
Bulgaria	17,3	11,8	13,8	17,7	11,2	13,7	17,0	12,6	13,9
Kroazia	14,9	11,3	7,6	22,5	15,1	11,4	8,2	8,1	4,3
Zipre	4,7	5,0	2,8	5,3	5,9	3,5	4,1	4,0	2,0
Danimarka	9,1	9,6	7,2	10,5	12,1	8,5	7,7	7,0	5,9
Eslovenia	5,6	4,2	4,9	7,1	5,7	6,7	4,0	2,5	3,1
Espainia	**30,3**	**26,3**	**19,0**	**36,7**	**31,0**	**22,7**	**23,6**	**21,5**	**15,1**
Estonia	13,4	10,6	10,9	19,5	12,8	14,3	6,9	8,4	7,4
Finlandia	9,7	9,8	7,9	11,8	11,2	9,0	7,8	8,4	6,9
Frantzia	12,7	12,3	8,8	14,6	14,1	10,1	10,8	10,4	7,5
Grezia	15,1	12,9	6,2	19,6	15,9	7,1	10,6	10,0	5,3
Hungaria	12,5	11,4	12,4	13,7	12,3	12,9	11,3	10,6	11,8
Irlanda	12,2	10,8	6,3	15,2	12,8	7,8	9,1	8,8	4,6
Italia	20,4	17,8	13,8	23,8	20,6	16,1	17,0	14,9	11,3
Letonia	15,6	11,6	10,0	19,3	15,8	13,7	11,5	7,5	6,2
Lituania	8,8	7,4	4,8	11,5	10,0	6,0	6,0	4,6	3,6
Luxenburgo	14,0	6,2	5,5	17,6	7,6	6,8	10,4	4,8	4,2
Malta	32,2	22,7	19,7	36,1	28,8	22,9	28,1	16,3	16,3
Holanda	12,6	9,2	8,0	15,1	11,1	10,1	10,1	7,2	5,8
Polonia	5,4	5,6	5,2	6,9	7,4	6,4	3,9	3,7	3,9
Portugal	38,5	23,0	14,0	46,1	28,1	17,4	30,7	17,7	10,5
Txekiar E.	11,2	14,9	11,2	12,3	16,1	12,7	10,2	13,8	9,5
Eslovakiar E.	5,1	4,9	6,6	5,4	5,4	6,6	4,9	4,4	6,6
Erresuma B.	6,6	5,1	7,4	7,3	5,4	7,6	5,8	4,6	7,2
Errumania	17,9	18,1	18,5	17,8	19,1	18,4	18,0	17,2	18,7
Suedia	8,6	6,6	7,4	10,1	7,8	8,2	7,1	5,4	6,4
EAE	**14,6**	**13,8**	**7,9**	**20,3**	**14,2**	**10,7**	**8,7**	**13,4**	**5,0**

Iturria: EUROSTAT Espainiako Hezkuntzaren zenbakiak. 2018ko edizioa. HKKM

Sexuaren aldetik, uzte-tasak handiagoa izaten jarraitzen du gizonen artean emakumeen artean baino, herrialderik gehienetan. EAEn, 2016an, gizonezkoen tasa 5,7 puntu handiagoa zen emakumeena baino (%10,7 eta %5). Hots, emakumeek lorturiko emaitza onagatik lortzen da Europako helburua gure Erkidegoan.

25-34 urtekoen goi-mailako hezkuntzako prestakuntza

Goi-mailako prestakuntza maila lortu duten 25-34 urtekoen ehunekoa da (goi-graduko Lanbide Heziketa edo unibertsitateko ikasketak).

Gure Memoria Sozioekonomikoaren aurreko edizioetan eta edizio honetako Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako kapituluan azaldu izan denez, toki nabarmena du adierazle honek EAEn. Zehazkiago, %53,8 da hirugarren mailako hezkuntza duten 25-34 urtekoen ehunekoa. 28ko EBn, berriz, %38,2 da, Europako Berrikuntzako Adierazleen Panelaren arabera (European Innovation Scoreboard (EIS), 2017.

1.3.4. Unibertsitate adierazleak

a) Unibertsitate-adierazleen estatistika, HKKM, 2017

Hezkuntza, Kultura eta Kiroleko Ministerioak urtero argitaratzen duen *Unibertsitate-adierazleen Estatistikak* laburpen-informazioa ematen du Espainiako unibertsitate-sistemari dagokionez. Espainiako unibertsitate guztiek, publikoek zein pribatuek, definitzen dute Estatistikaren esparruan, baita Espainiako Estatuan dauden zentro guztiek ere, berezkoek zein atxikitakoek, titulu ofizialak eman eta igortzeko egoeran daudenek, alegia.

Errendimendu, eskola-uzte, aldaketa eta egokitasun tasak: graduko ikasleak

EAEn, graduko ikasleen **errendimendu-tasa** (gainditutako kredituen eta matrikulatutakoen arteko harremana), 2015-16 ikasturtean, % 80,7koa izan zen, unibertsitate guztien batez bestekoa baino gehiago (% 77,7). Zehazki, gure erkidegoa autonomia erkidegoen rankingeko zazpigarren postuan dago, hauen atzetik: Nafarroa (% 86,7); Katalunia (% 83,6); Valentziako Erkidegoa (% 82,2); Madril (% 81,5); Gaztela-Leon (%81,2) eta Errioxa (% 81,1). Emakumeen tasak gizonezkoenak baino handiagoak dira autonomia erkidego guztietan. EAEren kasuan, emakumeek gizonak gainditzen dituzte ehunekozko 11,4 puntutan (% 84,6 % 74,3ren aurrean).

Graduko ikasleen ikasketen lehen urteko uzte-tasa %15,2 izan zen 2013-14 ikasturtean sartu ziren ikasleen artean, unibertsitate guztietako batez bestekoaren azpitik (%21,8), baina aurreko urtean sartu ziren ikasleen inguruan bildutakoa baino tasa handiagoa (%13,8). Hala, EAEk bosgarren tasarik txikiena du, hauexen atzetik: Gaztela-Leon (%12,3), Nafarroa (%14,8), Gaztela-Mantxa (%14,9) eta Madril (%15,1).

2013-14 ikasturtean sartu ziren **ikasleen graduko ikasketen lehen urteko aldaketa-tasa** %7,3 izan zen, unibertsitate guztietako batez bestekoaren azpitik (%8,3), baina aurreko urteko ikasturteko ikasleei dagokien tasa baino pixka bat txikiagoa (%6,2). Gure Erkidegoak laugarren tasarik txikiena du Errioxaren (%4,5), Gaztela-Leonen (%6,1) eta Gaztela-Mantxaren (%7) atzetik.

Beste era batera esanda, gure erkidegoko graduko ikasleak ez dira ikasketez gehiago aldatzen dutenak, ezta gehien uzten dituztenak ere, beste autonomia erkidego batzuetan antzemandako jokabidearekin alderatzen bada; baina bilakaeraren aldetik, hazkundea ageri da ratio horietan.

Azkenik, graduko ikasleen **egokitasun-tasa** %44,4 izan zen lau urteko graduko ikasleetan, 2012-13 ikasturtean hasi ziren ikasleetan, eta %33,3koa bost urteko graduetan matrikulaturiko ikasleetan (2011-2012 ikasturtean hasi zirenak). Ehuneko horiek, hurrenez hurren, unibertsitateen multzoko batez bestekoaren gainetik daude lehen kasuan (%44,4 eta %34,9) eta txikiagoa bigarrenean (%33,3 eta %34,9), non jaitsiera ikusten den hain zuzen ere.

V.1.21. TAULA. GRADUA, ERRENDIMENDU-TASA, UZTE-TASA 1. URTEAN ETA ALDAKETA-TASA 1. URTEAN ETA EGOKITASUN-TASA AUTONOMIA ERKIDEGOKA.

	Errendimendu-tasa 2015-2016 ikasturtea			Uzte-tasa lehen urtean (guztizkoak)		Aldaketa-tasa lehen urtean (guztizkoak)		Egokitasun-tasa			
								Lau urteko graduko ikasleak		Bost urteko graduko ikasleak	
	Guzt	Gizonak	Emak.	2012/13 ikast. sartuak	2013/14 ikast. sartuak	2012/13 ikast. sartuak	2013/14 ikast. sartuak	Hasiera: 2011/12	Hasiera: 2012/13	Hasiera: 2010/11	Hasiera: 2011/12
GUZTIRA	77,7	72,5	81,9	20,5	21,8	7,5	8,3	33,2	34,9	36,5	34,9
ANDALUZIA	76,8	70,4	81,9	17,2	19,2	8,8	9,7	30,0	30,7	31,9	31,7
ARAGOI	79,8	74,5	84,3	16,5	17,3	8	7,5	34,4	34,7	29,8	52,6
ASTURIAS	75,0	69,5	79,6	19,0	22,5	8,9	11,5	27,3	26,9	..	..
U. BALEARRAK	76,9	70,8	81,2	23,2	28,8	10,1	14,9	28,5	29,1	.	.
U. KANARIARRAK	75,0	69,7	78,8	22,7	24	8,9	10,1	26,1	26,9	19,1	25,8
KANTABRIA	78,0	73,2	82,4	15,1	18,8	6,7	9,9	27,7	31,2	.	.
GAZTELA-MANTXA	79,0	72,9	83,8	19,9	14,9	8,9	7	27,8	30,3	37,7	34,5
GAZTELA-LEON	81,2	75,6	85,5	11,7	12,3	6,1	6,1	41,7	42,5	42,5	33,9
KATALUNIA	83,6	79,1	87,3	18,4	19,2	8,3	8,5	38,7	40,9	47,8	47,1
VALENTZIAKO E.	82,2	77,8	85,7	16,9	19,1	6,6	7,8	37,7	39	36,9	35,2
EXTREMADURA	79,2	73,1	84,2	14,4	22,1	3,9	8,6	29,2	32,3	30,9	29,6
GALIZIA	73,9	66,3	79,8	15,5	17,8	7,7	9,5	33,6	34,2	40,5	32,7
MADRIL	81,5	76,3	85,8	14,5	15,1	7,1	7,8	35,3	35,9	36,1	33,2
MURTZIA	76,3	70,7	80,6	16,1	16,3	7,8	8,7	33,8	34,4	18,8	22,5
NAFARROA	86,7	82,0	90,6	13,7	14,8	7,8	7,8	49,1	48,6	54	27,3
EAE	**80,7**	**74,6**	**86,0**	**13,8**	**15,2**	**6,2**	**7,3**	**43,4**	**44,4**	**42,1**	**33,3**
ERRIOXA	81,1	74,3	84,6	22,5	17,6	5,2	4,5	30,7	28		

Iturria: Unibertsitate-adierazleen urtekaria 2017, HKKM

Errendimendu-, uzte, aldaketa- eta egokitasun-tasak: masterreko ikasleak

EAEn, masterreko ikasleen **errendimendu-tasa** % 93,4koa izan zen 2015-16 ikasturtean, graduko ikasleen errendimendu-tasa baino ratio handiagoa (%80,7). Unibertsitate guztien batez bestekoarekin alderatuta, EAEren ratioa ere handiagoa da (% 93,4 eta % 89,1). Hala, EAE hirugarren tokian dago AA.EE.en rankingean, Nafarroaren (%98,1) eta Gaztela-Leonen (%95,6) atzetik eta Asturiasen parean. Emakumeen tasak handiagoak dira gizonezkoak baino autonomia erkidego guztietan, Madrilen eta Nafarroan izan ezik. EAEn, emakumeak gizonezkoak baino gehiago dira, 2,1 puntuko aldearekin (%94,4 eta %92,3).

Titulazio jakin batean hasi eta lehen urtean ikasteari utzi dioten ikasleen ehunekoa neurtzen du **masterreko lehen ikasketa urteko uzte-tasak**, eta %8,4 izan zen 2013-14 ikasturteko ikasleentzat, unibertsitate guztien batez bestekoaren azpitik (%13,3), baina 2012/13 sartu zirenetan izandakoaren gainetik (%7,2). Hala, EAEk laugarren uzte-tasarik txikiena du Gaztela-Leonen (%6,2), Asturiasen (%6,3) eta U. Kanariarren (%6,4) atzetik.

Masterreko ikasketen lehen urteko **aldaketa-tasa** %2,2koa izan zen, unibertsitate guztietako batez bestekoaren gainetik (%2) eta 2012-13 ikasturteko ikasleei dagokienaren antzekoa (%2,3). EAEko adierazle horretan, okerrera egin du autonomia erkidegoen rankingean aurreko urtearen aldean.

Izan ere, tasa handia du, soilik Balearren (%6,3) eta Kataluniaren (%3,4) atzetik eta Madrilen eta Aragoiren parean.

Azkenik, 2014-15 ikasturtean hasi ziren masterreko **ikasleen tasa** %81ekoa da urtebeteko masterretan eta %88,9koa bi urteko masterretan matrikulaturiko ikasleen kasuan. Ehuneko horiek unibertsitateen multzorako batez bestekoaren gainetik daude, %73,4 eta %70,5. Urtebeteko masterreko ikasleen egokitasuna (2015-16 ikasturtean hasi zirenak) gora egin du aurreko epealdiaren aldean (%81etik %82,9ra).

V.1.22. MASTERRA. ERRENDIMENDU-TASA, UZTE-TASA LEHEN URTEAN ETA ALDAKETA-TASA LEHEN URTEA ETA EGOKITASUN-TASA AA.EEN ARABERA

	Errendimendu-tasa 2015-2016 ikasturtean			Uzte-tasa lehen urtean (guztizkoak)		Aldaketa-tasa lehen urtetan (guztizkoak)		Egokitasun-tasa			
								Urtebeteko masterreko ikasleak		Bi urteko masterreko ikasleak	
	Guzt.	Gizonak	Emak.	2012/13 ikast. sartuak	2013/14 ikast. sartuak	2012/13 ikast. sartuak	2013/14 ikast. sartuak	2014/15 ikast. sartuak	2015/16 ikast. sartuak	2014/15 ikast. sartuak	2015/16 ikast. sartuak
GUZTIRA	89,1	88,1	89,9	16,2	13,3	2,9	2,0	73,4	72,7	70,5	.
ANDALUZIA	90,4	89,0	91,5	14,3	11,9	2,2	1,7	74,4	76,1	72,2	.
ARAGOI	92,1	90,7	93,3	11,8	13,2	1,6	2,2	82,7	78,9	69,5	.
ASTURIAS	93,4	91,2	95,3	5,5	6,3	0,8	0,8	87,7	87,3	80,4	.
U. BALEARRAK	88,5	86,1	89,8	8,1	13,8	0,8	6,3	60,3	63,5	94,1	.
U. KANARIARRAK	92,2	90,4	93,7	7,4	6,4	0,8	1,1	71,8	74,5	72,5	.
KANTABRIA	92,9	91,5	94,4	11,4	9,0	3,7	1,2	73,4	68,7	57,6	.
GAZTELA-MANTXA	91,3	90,3	92,2	9,6	9,6	1,4	1,5	78,5	79,6	79,7	.
GAZTELA-LEON	95,6	95,1	96,1	13	6,2	9,2	0,9	89,2	88,0	48,0	.
KATALUNIA	89,0	88,2	89,7	18,3	18,2	2,7	3,4	75,1	67,2	67,6	.
VALENTZIAKO E.	91,9	90,3	93,2	19,4	10,2	3,7	1,2	80,6	79,5	66,2	.
EXTREMADURA	91,0	89,2	92,4	25,2	15,0	3	1,9	61,2	64,2	68,3	.
GALIZIA	90,4	88,6	91,7	7,4	8,6	1,2	1,6	75,8	72,9	78,5	.
MADRIL	86,1	86,4	85,8	18	16,6	2,3	2,2	65,9	68,5	73,1	.
MURTZIA	89,7	86,7	92,2	9,7	9,0	1,8	1,8	75,2	74,4	75,1	.
NAFARROA	98,1	98,2	97,8	7,4	8,8	0,6	0,6	88,5	89,3	90,5	.
EAE	**93,4**	**92,3**	**94,4**	**7,2**	**8,4**	**2,3**	**2,2**	**81,0**	**82,9**	**88,9**	**.**
ERRIOXA	89,2	86,5	91,2	28,2	13,2	4,1	0,5	70,1	70,4	64,7	.

Iturria: Unibertsitate-adierazleen urtekaria 2017,HKKMD

Nazioartekotzea: Espainiako Unibertsitate Sisteman (EUS) sartzea eta irtetea

Kontuan hartu behar dugu:

- Mugikortasun motei dagokionez, definizio hauek:
    - ***Nazioarteko ikaslea:*** EUSn sartzen dena, presentziazko unibertsitatean, ohiko bizilekua atzerriko herrialdea izanik.
    - ***Credit mobility (mugikortasun programak):*** atzerriko unibertsitatean matrikulaturiko ikasleei dagokie, aldi jakin batean Espainiako presentziazko unibertsitatean parte hartua mugikortasun programa baten bidez, baina helburua ez da titulua Espainian eskuratzea.
    - ***Degree mobility (matrikula arrunta):*** Espainiako presentziazko unibertsitatean matrikula arrunta duten ikasleei dagokie, familiaren bizilekua atzerriko herrialdea izanda.

- Sarreretan degree mobility eta credit mobility zenbatzen dira, eta gainera, datuak eskuratu ditugun azken ikasturtetik (2015-2016), doktoregoan matrikula arrunta duten nazioarteko ikasleak sartu dira eta, beraz, guztizko datuak ezin erka daitezke aurreko ikasturtekoekin.

- Ikasleen irteeretan soilik hartzen dira kontuan mugikortasun programa baten bidez mugitzen direnak (credit mobility), eta ez dira sartzen doktoregoko ikasleak.

2015-16 ikasturtean, nazioarteko 2.736 ikaslek ikasi zuten 2015-16 ikasturtean EAEko unibertsitateren batean. %55,8 emakumeak izan ziren eta %44,2 gizonak, eta gehienak (guztien %53,4) unibertsitate publikoan matrikulatu zen eta %46,6 pribatuan; ratio horiek ez datoz bat Estatuko batez bestekoekin (%75 publikoetan eta %25 pribatuetan).

V.1.23. TAULA. MATRIKULATURIKO (presentziako unibertsitateetan) IKASLE ATZERRITARRAK, SEXUAREN ETA UNIBERTSITATE MOTAREN ARABERA. 2015/16

	GUZTIRA	SEXUA (horizontalen %)		UNIBERTSITATE MOTA (horizontalen %)	
		Gizonak	Emak.	Unib. Publ.	Unib. Pribat.
ESTATUA	94.962	42,6	57,4	75,0	25,0
EAE	**2.736**	**44,2**	**55,8**	**53,4**	**46,6**

Iturria: Unibertsitate-adierazleen 2017, HKKM

Jatorriko herrialdeari dagokionez, 28ko EBkoak nabarmentzen dira EAEn nahiz Estatuan (guztien %47,3 EAEn eta guztien %49 estatuan), baita Latinoamerikakoak ere. (%38,4 EAEn eta %30,1 Estatuan).

Jarraian, sartzen diren eta irteten diren ikasleen kopuruen arteko zatidura kalkulatuko dugu, betiere irteerei buruz eskuratu ditugun gastuetan soilik mugikortasun programa (credit mobility) baten bidez mugitzen direnak biltzen direla kontuan izanik, baita doktoretzako ikasleak sartzen ez direla ere.

V.1.24. TAULA. MATRIKULATURIKO (presentziako unibertsitateetan) IKASLE ATZERRITARRAK, NAZIONALITATEAREN ARABERA. 2015/16

	ESTATUA		EAE	
	Guzt.	Bertik. %	Guzt.	Bertik. %
GUZTIRA	**94.962**	**100,0**	**2.736**	**100,0**
28KO EB	46563	49,0	1295	47,3
EUROPAKO GAINERAKOAK	4009	4,2	124	4,5
AEB ETA KANADA	7725	8,1	96	3,5
AMERIKA LAT. ETA KARIBEA	28551	30,1	1051	38,4
AFRIKAKO IPARRALDEA	1594	1,7	24	0,9
AFRIKAKO GAINERAKOAK	529	0,6	7	0,3
ASIA ETA OZEANIA	5991	6,3	139	5,1

Iturria: Unibertsitate-adierazleen 2017, HKKM

Mugikortasun programa dela-eta euskal unibertsitatean sartzen diren atzerriko unibertsitatean matrikulaturiko ikasleen ehunekoa (doktoregoko ikasleak barne) %3 izan zen (estatuko batez bestekoa %3,9 da). Ratiorik handienak Katalunian (%5), Madrilen (%4,4) eta Andaluzian (%4) daude.

Bestalde, EAEko unibertsitatean matrikulaturik dauden eta mugikortasun programa dela-eta atzerriko unibertsitatera doazen ikasleen ehunekoa (doktoregoko ikasleak sartu gabe) %5 izan zen (estatuko batez bestekoa: %2,9), Estatuko ratiorik handiena.

Sartzen diren eta ateratzen diren ikasleen kopuruaren arteko kozienteak erakusten du, Estatuan, ateratzen diren 100 ikasle bakoitzeko 140 sartzen direla; EAEn, aldiz, egoera aurkakoa da. Izan ere, ateratzen diren 100 ikasle bakoitzeko 70 sartzen dira soilik eta hori ratiorik baxuena da Nafarroaren atzetik.

V.1.25. EUS-N SARTZEN ETA IRTETEN DIREN IKASLEEN EHUNEKOA MATRIKULATURIKO GUZTIEKIKO AA.EE.N ARABERA 2015/16 IKAST.

	EUSn mugikortasun programa baten bidez sartzen diren nazioarteko ikasleak matrik. guztiekiko AA.EE.en arabera (%) (1)	EUStik mugikortasun programarekin irteten diren ikasleak matrik. guztiekiko AA.EE.en arabera (%) (2)	Sarreren eta irteeren zatidura
GUZTIRA, ESTATUA	**3,9**	**2,9**	**1,4**
ANDALUZIA	4,0	2,9	1,0
ARAGOI	2,9	3,1	1,1
ASTURIAS	3,6	3,6	1,5
U. BALEARRAK	2,7	1,9	1,3
U. KANARIARRAK	2,7	2,1	1,1
KANTABRIA	3,6	3,5	2,9
GAZTELA-LEON	3,0	1,1	1,3
GAZTELA-MANTXA	3,7	3,0	1,8
KATALUNIA	5,0	3,0	1,4
VALENTZIAKO E.	3,9	2,9	0,8
EXTREMADURA	1,9	2,4	1,2
GALIZIA	3,4	2,9	1,8
MADRIL	4,4	2,5	1,3
MURTZIA	2,4	2,0	0,9
NAFARROA	3,9	4,5	0,6
EAE	**3,0**	**5,0**	**0,7**
ERRIOXA	2,5	3,5	1,4

(1)Atzerriko unibertsitatean matrikulaturiko ikasleen %, aldi jakin batean Espainiako presentziazko unibertsitatean mugikortasun programa baten bidez, baina helburua ez da titulua Espainian eskuratzea. Doktoregokoak barne.
(2)EUStik mugikortasun programa batekin atzerriko unibertsitatera irteten diren ikasle matrikulatuen %. Adi baterako egonaldia da,EUStik kanpora titulua lortzeko asmorik gabe: Ez dira sartzen doktoregoko ikasleak
Iturria: Unibertsitate-adierazleen urtekaria 2017, HKKM

b) Shangaiko Unibertsitate Rankinga. Academic Ranking of Word Universities (ARWU)

ARWU rankingak Nobel sariak, Fields medailadunak, sarri aipatutako ikerlariak edo Nature edo Science bezalako aldizkarietan argitaratutako artikuluak dituzten unibertsitateak hartzen ditu kontuan. Gainera, Science Citation Index-Expandedek (SCIE) eta Social Science Citation Indexek (SSCI) indexatutako artikulu asko dituzten unibertsitateak sartzen dira. Guztira, 1.300 unibertsitate baino gehiago daude sailkatuta eta 500 onenak webgunean argitaratzen dira. 2017tik, 501 eta 800 postuen artean kokatzen diren unibertsitateak Top500 ARWU Worlderako hautagai gisa argitaratzen dira.

Unibertsitateak jarduera akademikoko edo ikerketako zenbait adierazleren bidez daude sailkatuta, Nobel sariak eta Fields medailak irabazten dituzten, sarri aipatutako ikertzaileak diren, Nature eta Science aldizkarian argitaratutako lanak dituzten eta aipuen indize nagusietan indexatutako artikuluak dituzten ikasle ohiak eta langileak barne. Hala, erakunde baten per capita jarduera akademikoa ere kontuan hartzen da[6].

V.1.26. TAULA. SHANGAIKO UNIBERTSITATE RANKINGA: ADIERAZLEAK ETA PISUAK

Irizpidea	Adierazlea	Kodea	Pisua
Hezkuntzaren kalitatea	Nobel sariak eta Fields dominak irabazi dituen erakundeko ikasleak	Alumni	*10*
Fakultatearen kalitatea	Nobel sariak eta Fields dominak irabazi dituen erakundeko pertsonala	Premio	20
	21 kategoria tematikotan sarri aipaturiko zientzialariak	HiCi	20
Ikerketaren emaitzak	Nature and Science* delakoan argitaraturiko artikuluak	N&S	20
	Dokumentu indexatuak Science Citation Index-Expanded (SCIE) eta Social Science Citation Index (SSCI) argitalpen.	PUB	20
Per capita errendimendua	Erakunde baten per capita errendimendua	PCP	10
Guztira			100

** Giza eta Gizarte Zientzietan adituak diren erakundeentzat, hala nola London School of Economics, N&S ez da aintzat hartzen, eta N&Sren pisua beste adierazleetara ekarri da*

2017ko rankingean, 20 unibertsitaterik onenen artean unibertsitate gehien dituzten herrialdeak hauek dira: Estatu Batuak (20tik 16); Erresuma Batua (3 20tik) eta Suitza (biek dituzte 1 20tik).

Lehen bostak AEBetan eta Erresuma Batuan daude, eta hauexek dira: Harvard (AEB), Stanford (AEB), Cambridge (Erresuma Batua), Massachuset Institute of Technology-MIT (AEB) eta Kalifornia, Berkeley (EEUU).

Espainiak 11 unibertsitate zituen 2017an TOP 500 rankingean (2016an 12 izan ziren). Lehenengoa Pompeu Fabra da, mundu mailako TOP 300 rankingaren barruan. Ondoren, Bartzelonako Unibertsitatea eta Granadako Unibertsitatea daude, horiek ere TOP 300 rankingaren baitan.

UPV-EHU berriz ere agertu zen 2017an TOP500 rankingean. Zehazki hamargarren tokia du estatuko rankingean. Oraingoan aurretik ditu: Pompeu Fabra, Bartzelonako U., Granadakoa, Bartzelonako Autonomoa, Madrilgo Autonomoa, Madrilgo Complutense, Santiago de Compostelakoa, Valentziako Politeknikoa eta Jaume I.

2016an, Bartzelonako Unibertsitatea izan zen lehena, TOP 200 rankingean mundu mailan. Ondoren, Madrilgo Unibertsitate Autonomoa eta Granadako Unibertsitatea daude, biak TOP 300 rankingean mundu mailan.

[6] *Adierazle bakoitzeko puntu gehienak dituen erakundeari 100 puntu esleitzen zaizkio eta beste erakunde batzuenak kalkulatzeko, puntuaziorik altuenaren ehunekora jotzen da. Adierazle bakoitzaren datuei buruzko banaketa aztertzen da, edozein desitxuraketa ondorio esangarri antzemateko; estatistika teknika estandarrez baliatzen da beharrezkoa izanez gero, adierazlea doitzeko. Adierazle bakoitzaren puntuak V.1.26. taulan adierazitako moduan haztatzen dira, erakunde baten azken puntuazio orokorrera iritsi arte. Puntu gehienak lortzen dituen erakundeari 100 puntu ematen zaizkio, eta beste erakunde batzuenak puntuazio altuenetik abiatuta ehunekoetan kalkulatzen dira. Erakundearen tarteak horren gainetik kokatzen diren erakundeen kopurua islatzen du.*

V.1.27. TAULA. ARWU ESTATISTIKA HERRIALDEKA. UNIBERTSITATE KOPURUA 2016							
	TOP20	**TOP100**	**TOP200**	**TOP300**	**TOP400**	**TOP500**	**501-800**
AEB	16	48	70	99	119	135	55
ERRESUMA BATUA	3	9	20	28	34	38	12
SUITZA	1	5	7	7	7	8	2
…							
ESPAINIA	**—**	**—**	**—**	**3**	**7**	**11**	**15**
				Pompeu Fabra U. Bartzelonako Unibertsitatea Granadako U.	**Bartzelonako U. Autonomoa Madrilgo U. Autonomoa Madrilgo Complutense Santiago de Compostelako U.**	**Valentziako U. Politeknikoa Jaume I U. UPV-EHU Valentziako U.**	
…							
GUZTIRA	**20**	**100**	**200**	**300**	**400**	**500**	**300**
Iturria: ARWU.Geuk egina.							

1.4. KULTURA

1.4.1. Arte eta kulturako industriei buruzko estatistika

Eusko Jaurlaritzako Kulturaren Euskal Behatokiak *txosten bat argitaratu zuen 2017ko ekainean, 2015eko* arte eta kulturako industriei buruzko estatistikako eragileen profilak aurkeztu dituena, ondoko taulan bildurikoa hain zuzen ere.

V.1.28. TAULA, ARTE ETA KULTURAKO INDUSTRIEI BURUZKO ESTATISTIKAREN ERAGILEEN PROFILA. 2015. EZAUGARRI NAGUSI INTERESGARRIAK.		
Arte eszenikoen ekoizleak	• Antzerkia • Dantza	• %83 antzerkiko arte eszenikoen konpainiak dira eta %17 dantzakoak. • Diru-sarreren %50 7 konpainiatan daude bilduta. • Diru-sarrerekin ez bezala, enpresa txikiek biltzen dute enpleguaren pisurik handiena.
Arte eszenikoen programatz.	• Aretoak • Jaialdiak	• %70 aretoak eta gainerakoak jaialdietakoak • Aretoen erdiak 100.000 eurotik beherako diru-sarrerak ditu, baina diru-sarreren %9,5 besterik ez dira. 4 aretok biltzen dute sektoreko diru-sarreraren ia erdia eta ikusleen %39.
Argitaletxeak		• Gora egin du sarrera handienak dituzten eragileen taldeak: 8 argitaletxetik 11ra. Sarreren %86 biltzen dituzten, 9,6 langile eragile bakoitzeko.
Liburu dendak	• Independenteak • Kateak	• %82,5 liburu-denda independenteak dira eta gainerakoak kateetakoak. • Behera egin du kateko liburu-denden pisuak, eragileen kopuruaren aldetik nahiz salmenten eta lanpostuen aldetik
Zuzeneko musikako programatzaileak	• Programtz, publikoak • Sustatzaile pribatuak • Kontzertu aretoak • Orkestrak • Musika bandak eta txistulariak	• %57 programatzaile publikoak dira, %17 sustatzaile pribatuak, %16 kontzertu-aretoak eta %7,5 musika bandak eta txistulariak dira. • Programatzaile publikoak: diru-sarreren %53,8 5 eragileren eskuetan dago (programatzaile publiko guztien %7,2). Alabaina, beste dinamika bat dute ikusleek, 5 eragilek ikusle guztien %28,6 baino ez baitute biltzen. • Sustatzaile pribatuak: eragileen %28,6k ematen dute diru-sarreren %87,5. • Kontzertu-aretoak: diru-sarreren %70,3 4 aretotan biltzen dira. Areto txikienek (sektorearen %58) diru-sarreren %15 eta ikusleen %63 biltzen dituzte.
Disko-etxeak eta diskoaren merkataritza		• %12 disko-etxeak dira eta gainerakoak disko dendak. • Datuen babesa dela-eta, ez dira aztertu disko-etxeen emaitzak. • Diskoaren merkataritzan, eragileen eta diru-sarreren aldetik, kateetako eragileak dira nagusi, baina lanpostuen batez betekoak ez du desberdintasunik kateetako denden eta denda independenteen artean.
Ikusizko arteen erakusleak	• Ekoizpen-guneak • Erakusketa-guneak	• Disko-etxeekin gertatzen den bezala, ez da ekoizpen-guneei buruzko daturik eman, 2 eragile besterik ez baitaude. • Arte galeriek osatzen dute erakusketa-guneen %14, eta erakusketa-aretoek %30.
Ikus-entzunezkoen industria. Ikus-entzunezkoen ekoiztetxeak.		• Ikus-entzunezkoen ekoiztetxeak barne, baina EITB ez da sartzen, bere pisu handiagatik eta sektorean duen berezitasunagatik.
Iturria: Arte eta kulturako industriei buruzko estatistikaren eragileen profila 2015. 2017. KULTURAREN EUSKAL BEHATOKIA		

Bestalde, eta kulturari dagokionez, Eusko Jaurlaritzak bi urterik behin argitaratzen duen *Arte eta Kulturako Industriaren Estatistika* delakoaren azken edizioak (2017ko ekaina) euskal kulturaren errealitatearen erretratua ematen du bilakaeraren ikuspegitik.

Datu horien arabera, hauexek osatzen zuten sektorea 2015ean: 397 eragile pribatuk (irabazteko asmoarekin eta hori gabe), 2013an baino 27 eragile gehiago. Eragile horiek gehienak liburu-dendak (guztien %27,5, 13 eragile gehiago 2013 eta 2015 bitartean), ikus-entzunezko ekoiztetxeak (guztien %22,7, 16 eragile gehiago 2013 eta 2015 bitartean), arte eszenikoen ekoizleak (%18,9, 9 eragile gehiago 2013 eta 2015 bitartean) eta argitaletxeak dira (guztien %10,6, eta 6 eragile gehiago).

V.1.29. TAULA. INDUSTRIAREN TAMAINA. ERAGILE PRIBATUEN KOPURUAREN BILAKAERA

	2011-15EKO BILAKAERA				
	Eragile kop.				2013-15 dif.
	2011	2013	2015		
			Guztira	Bertik. %	
Arte eszenikoen ekoizleak	79	66	75	18,9	9
Argitaletxeak	38	36	42	10,6	6
Liburu dendak	98	96	109	27,5	13
Musika sustatzaile pribatuak	29	28	21	5,3	-7
Kontzertu aretoak	23	23	19	4,8	-4
Disko-etxeak	5	5	3	0,8	-2
Diskoaren merkataritza	26	21	20	5,0	-1
Arte galeriak	26	21	18	4,5	-3
Ikus-entzunezkoen ekoizleak	78	74	90	22,7	16
GUZTIRA	**404**	**370**	**397**	**100,0**	27

Iturria: Arte eta kulturako industrien estatistika 2017, KULTURAREN EUSKAL BEHATOKIA

397 eragile horiek guztira 184.936,8 mila euro fakturatu zituzten 2015ean. Gehienak liburu-dendak ziren (guztien %30,1), eta ondoren ikus-entzunezkoen ekoizleak (%25,6), argitaletxeak (%16,9) eta musika-sustatzaile pribatuak (%15,6). 2013 eta 2015 bitartean, guztizko fakturazioak %15,7 egin zuen gora 2013aren aldean.

Eragile bakoitzeko batez besteko sarrerari dagokionez, lehenik eta behin musika-sustatzaile pribatuak zeuden (1.341,1 mila euro eragileko); ondoren argitaletxeak (743,1 mila euro eragileko) eta ikus-entzunezkoen ekoiztetxeak (526,6 mila euro eragileko). Nabarmentzekoa da 2011 eta 2015 bitartean lehenbizikoek izandako igoera (913,8 eurotik 1.371,1 eurora eragileko).

V.1.30. TAULA. KULTURAKO INDUSTRIAREN FAKTURAZIOA, ERAGILEEN ARABERA

Eragile kop.	Diru-sarrerak					Batez besteko diru-sarrerak (mila €)		
	2011 (mila €)	2013 (mila €)	2015		2013-15 ald.	2011	2013	2015
			Mila €	Bertik. %				
Arte eszenikoen ekoizleak	10.588,7	9.738,1	12.380,1	6,7	27,1	134,01	47,5	165,1
Argitaletxeak	34.963,6	28.810,3	31.208,3	16,9	8,3	920,1	800,3	743,1
Liburu dendak	54.299,1	46.708,1	55.727,5	30,1	19,3	554,1	486,5	511,3
Musika sustatzaile pribatuak	26.499,9	25.335,1	28.877,3	15,6	14,0	913,8	905,6	1.371,1
Kontzertu aretoak	4.685,1	3.338,9	3.254,3	1,8	-2,5	187,4	145,2	171,3
Disko-etxeak	2.148,0	1.617,3	644,6	0,3	-60,1	429,6	323,5	214,9
Diskoaren merkataritza	4.059,3	3.519,6	2.982,4	1,6	-15,3	156,1	167,6	149,1
Arte galeriak	2.309,8	1.636,4	2.437,2	1,3	48,9	88,8	77,9	135,4
Ikus-entzunezkoen ekoizleak	60.834,9	39.080,2	47.425,1	25,6	21,4	779,9	528,1	526,9
GUZTIRA	**200.388,4**	**159.807,1**	**184.936,8**	**100,0**	15,7	**496,9**	**431,9**	**465,8**

Iturria: Arte eta kulturako industriei buruzko estatistika 2017, KULTURAREN EUSKAL BEHATOKIA

Enpleguari gagozkiola, kultur industriek 2.814 lagunei ematen zieten lana 2015ean (lanaldi osoko lanpostuetan neurtuta). Gehienek ikus-entzunezko ekoiztetxeetan (1.255,6 langile) egiten zuten lan; urrutiago zeuden liburu-dendak (301,7 lagun), arte eszenikoen programatzaileak (224,1 lagun), arte eszenikoen ekoizleak (204,8 lagun) eta orkestrak eta bandak (oro har, 367,2 lagun).

2013 eta 2015 bitartean, kultur industrien enpleguak %5,2 egin zuen gora.

V.1.31. TAULA. LOL ENPLEGUA				
	2011	2013	2015	2013-15 ald.
Arte eszenikoen ekoizleak	186,4	173,6	204,8	18,0
Arte eszenikoen programatz.	232,9	210,6	224,1	6,4
Argitaletxeak	167,6	126,1	168,5	33,6
Liburu dendak	307,8	263	301,7	14,7
Orkestrak	214,2	206,2	202	-2,0
Musika sustatzaile publikoak	71,1	67,4	77,4	14,8
Musika sustatzaile pribatuak	133,2	125,5	93,5	-25,5
Kontzertu aretoak	61,5	38	31	-18,4
Bandak		101,3	165,2	63,1
Disko-etxeak	16,5	16,1	6,4	-60,2
Diskoaren merkataritza	34,5	28,6	21,3	-25,5
Ikusizko arteen ekoizleak	24	23,2		
Ikusizko arteen erakusketak	49,8	34,9	33	-5,4
Arte galeriak	36,9	30,5	29,5	-3,3
Ikus-entzunezkoen ekoizleak	1.396,7	1.230,5	1.255,6	2,0
GUZTIRA	**2.933,1**	**2.675,5**	**2.814**	5,2

Iturria: Arte eta kulturako eta industrien estatistika 2017, KULTURAREN EUSKAL BEHATOKIA

1.4.2. Finantzaketa gastua kulturan

Kulturaren sektoreak EAEko ekonomian eta gizartean duen pisua zenbatesteko, zeharkako iturriak erabiltzen dira, hain zuzen ere Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioak argitaratzen duen "*Kultura Estatistiken Urtekaria*" delakoaren bidez[7].

Kultura Ministerioaren Urtekari horrek kulturako gastu publikotzat hartzen du "*herri administrazioek, aintzatetsitako obligazioen aldian, kulturarako erabilitako gastu likidatua eta, beraz, finantza-emailearen arabera izango da gastu publikoa edo pribatua, eta ez hartzailearen arabera".* Ez dira kentzen kultura erakunde publiko jakin batzuk eduki ditzaketen jatorri pribatuko sarrerak, adibidez museoek eduki ditzaketenak. Enpresek babesengatik, dohaintzengatik, etab. izan ditzaketen zerga desgrabazioak ere sartzen dira kulturako gastu gisa, kultur erakunde publikoei eginikoak

Euskal Autonomia Erkidegoak, 2015ean, kulturan likidatutako gastua, Kultura Ministerioaren datuen arabera, 107,4 milioi eurokoa izan zen, 2014an baino 13,5 milioi gutxiago. Horrek esan nahi du %11,2 jaitsi dela. Gastu horrek Estatuko Administrazio Autonomikoek, 2015ean, kulturan likidatu zuten gastu osoaren %8,9 hartu du (%8,5 aurreko urtean) eta Eusko Jaurlaritzak urte horretan egindako gastu osoaren %9,9 (%11,7 aurreko urtean). Gainera gure erkidegoko BPGaren %1,06 da (%1,2 aurreko urtean). Horrez gain, gure Erkidegoko BPGaren %0,16 da, autonomia erkidego guztietako batez besteko ratioaren gainetik. Adierazle honetan buruan ageri diren erkidegoak Extremadura, EAE eta Nafarroa dira, betiere, dituzten ezaugarri bereziengatik, Ceuta eta Melilla kanpoan utziz gero. Biztanleko egin den gastuari dagokionez, EAEn kopuru hori 49,6 eurora iritsi zen 2015ean, 2014an baino 6,2 gutxiago, eta kopuru hori Estatu osoko batez bestekoa baino altuagoa da (23,3 €).

[7] *Hona hemen ikerketa honen eremuan sartutako kultur sektoreak: Kultur ondasunak eta zerbitzuak (Monumentu historikoak, museoak, aztarnategi arkeologikoak, artxiboak eta liburutegiak); Arte plastikoak eta eszenikoak (Erakusketak, argazkigintza, musika, dantza eta antzerkia); Liburuak eta ikus-entzunezkoak (Zinema, bideoa eta musika grabatua); arloen artekoa (Kulturaren sustapena eta zabalkundea, administrazioa eta zerbitzu orokorra, hizkuntza politika).*

V.1.32. TAULA. ADMINISTRAZIO AUTONOMIKOEK KULTURAN LIKIDATURIKO GASTUA, AUTONOMIA ERKIDEGOKA.										
	Balio absolutuak (milioi €)		Estatuko kulturan likidat. gastuaren %		AA.EEn likid. guztizko gastuaren %-a		BPGaren %		Biztanleko batez besteko gastua (€)	
	2014	2015	2014	2015	2014	2015	2014	2015	2014	2015
Estatua, guztira	**1.035,5**	**1.080,9**	**100**	**100**	**0,57**	**0,60**	**0,10**	**0,10**	**22,3**	**23,3**
Andaluzia	162,1	169,8	15,7	15,7	0,55	0,58	0,12	0,12	19,3	20,2
Aragoi	15,2	16,6	1,5	1,5	0,29	0,32	0,05	0,05	11,4	12,5
Asturias	22,3	22,0	2,2	2,0	0,58	0,57	0,11	0,10	21,1	20,9
Balearrak	13,3	16,3	1,3	1,5	0,31	0,38	0,05	0,06	11,9	14,5
U. Kanariarrak	18,3	15,5	1,8	1,4	0,25	0,21	0,05	0,04	8,6	7,3
Kantabria	15,9	15,6	1,5	1,4	0,71	0,70	0,13	0,13	27,1	26,7
Gaztela Leon	56,5	57,9	5,5	5,4	0,59	0,60	0,11	0,11	22,6	23,4
Gazt.-Mantxa	24,7	29,9	2,4	2,8	0,31	0,37	0,07	0,08	11,9	14,5
Katalunia	245,4	255,2	23,7	23,6	0,72	0,75	0,12	0,12	33,1	34,5
Valentziako E.	79,4	82,9	7,7	7,7	0,41	0,43	0,08	0,08	16,0	16,8
Extremadura	38,9	46,9	3,8	4,3	0,82	0,99	0,23	0,27	35,5	43,0
Galizia	62,2	83,4	6,0	7,7	0,61	0,82	0,12	0,15	22,6	30,5
Madril	80,2	81,5	7,7	7,5	0,37	0,37	0,04	0,04	12,6	12,8
Murtzia	28,2	25,2	2,7	2,3	0,58	0,52	0,11	0,09	19,3	17,2
Nafarroa	31,6	32,8	3,0	3,0	0,83	0,86	0,18	0,18	49,6	51,5
EAE	**120,9**	**107,4**	**11,7**	**9,9**	**1,20**	**1,06**	**0,19**	**0,16**	**55,8**	**49,6**
Errioxa	8,1	8,9	0,8	0,8	0,57	0,63	0,11	0,11	25,8	28,3
Ceuta	3,4	4,1	0,3	0,4	1,07	1,31	0,22	0,26	39,9	48,6
Melilla	8,9	9,0	0,9	0,8	4,00	4,02	0,64	0,62	106,4	106,1
Iturria: Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioa. Kultura Estatistiken Urtekaria 2017										

1.4.3. Familien gastua kulturaren kontsumoan

Kultura Ministerioaren datuen arabera, euskal etxeek kultura ondasun eta zerbitzuetan egindako gastua, 2016. urtean, 707,4 milioi eurokoa izan zen, 2015ean baino 19,7 milioi euro gehiago. Horrek %2,9ko igoera ekarri zuen. Gastu hori EAEko ondasun eta zerbitzuetan eginiko gastuaren %2,3 da, autonomia erkidego guztien batez besteko portzentaje bera. Adierazle honen buruan kokatzen diren erkidegoak Ceuta eta Melilla (%3,1) eta Aragoi eta Murtzia (bietan %2,9).

Familia bakoitzeko batez besteko gastuari dagokionez, zortzigarren postuan dago EAE 2016an, 783 eurorekin (aurreko urtean baino +%2,7), Ceuta eta Melillaren (932,7), Madrilen (885,5), Nafarroaren (828,5). Kataluniaren (826,4). Balearren (820,3), Murtziaren (814,1) eta Aragoiren (811,1) atzetik.

Pertsona bakoitzeko batez besteko gastuari dagokionez, EAEn kopuru hori 329,3 eurora iritsi zen 2016. urtean, 2015. urtean baino % 7,4 gehiago, eta EAE jartzen du gehien gastatzen duen seigarren tokian erkidegoen sailkapenean, Madrilen, Aragoiren, Nafarroaren, Kataluniaren eta Asturiasen atzetik.

V.1.33. TAULA. FAMILIEK KULTUR ONDASUNETAN ETA ZERBITZUETAN EGINIKO BATEZ BESTEKO GASTUA AA.EE.N ARABERA								
	Balio absolutua (milioi €)		Ondasun eta zerbitzu guztien gastuaren %-as		Etxeko batez bestekoa (euroak)		Pertsonako batez bestekoa (euroak)	
	2015	2016	2015	2016	2015	2016	2015	2016
Estatua, guztira	**11.941,6**	**14.098,9**	**2,4**	**2,7**	**651,4**	**764,4**	**260,4**	**306,7**
Andaluzia	1.737,8	2.288,2	2,2	2,8	545,5	714,9	208,3	274,2
Aragoi	358,8	436,3	2,5	2,9	665,9	811,1	275,9	336,9
Asturias	320,8	342,0	2,6	2,8	700,2	748,1	309,8	332,7
Balearrak	322,5	366,3	2,5	2,6	723,8	820,3	287,7	324,3
U. Kanariarrak	518,4	587,9	2,7	3,0	635,1	716,9	244,8	277,8
Kantabria	162,7	167,3	2,4	2,5	676,8	695,6	281,3	290,3
Gaztela Leon	536,7	727,5	2,1	2,7	547,8	707,4	233,3	303,5
Gazt.-Mantxa	452,9	525,8	2,3	2,7	576,1	669,0	223,4	260,7
Katalunia	2.347,3	2.452,1	2,6	2,7	795,8	826,4	320,8	334,1
Valentziako E.	1.233,8	1.475,6	2,5	2,8	616,8	739,1	251,6	301,5
Extremadura	164,2	261,7	1,7	2,6	379,9	605,2	152,6	244,1
Galizia	635,8	696,5	2,2	2,4	587,7	640,6	235,0	258,4
Madril	1.893,7	2.274,4	2,4	2,7	744,7	885,5	299,4	357,2
Murtzia	275,6	437,6	2,0	2,9	514,6	814,1	189,3	300,1
Nafarroa	199,2	211,1	2,5	2,6	786,1	828,5	317,3	335,8

EAE	**684,7**	**704,4**	**2,3**	**2,3**	**762,2**	**783,0**	**320,2**	**329,3**
Errioxa	69,8	95,3	2,1	2,7	539,7	735,1	225,8	309,1
Ceuta eta Mel.	26,9	49,0	1,9	3,1	535,1	932,7	161,0	292,9

Iturria: Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioa. Kultura Estatistiken Urtekaria 2017

V.1.34. TAULA. FAMILIEK KULTURA ONDASUNETAN ETA ZERBITZUETAN EGINIKO GASTUA, GASTU-TALDEAREN ARABERA, AUTONOMIA ERKIDEGOOEN ARABERA 2016 (EUROAK)

	Guztira	Liburuak eta aldizkako argitalpenak	Kultur zerbitzuak*	Euskarriak, ekipoak eta osagarriak ikus-entzunezk	Telebista kuotak, informazioaren trataera eta internet
Estatua, guztira	**764,4**	**169,7**	**124,4**	**104,3**	**366,1**
Andaluzia	714,9	101,6	92,2	100,4	420,7
Aragoi	811,1	171,3	173,2	96,8	369,8
Asturias	748,1	181,1	67,4	95	404,5
Balearrak	820,3	182,5	109,2	102,4	426,3
U. Kanariarrak	716,9	143,2	91,8	98,2	383,7
Kantabria	695,6	173,9	125,4	82,1	314,2
Gaztela Leon	707,4	187,6	133,4	73,9	312,5
Gazt.-Mantxa	669	129,8	99,1	98,5	341,5
Katalunia	826,4	208,5	149	107,8	361,2
Valentziako E.	739,1	157,4	112,6	115,5	353,6
Extremadura	605,2	109,6	99,6	61	335
Galizia	640,6	137,4	69,1	94,2	339,9
Madril	885,5	222,9	201,5	122,5	338,6
Murtzia	814,1	181,3	92,9	107,4	432,4
Nafarroa	828,5	225,4	119,9	117,5	365,6
EAE	**783**	**224**	**113,2**	**119,1**	**326,7**
Errioxa	735,1	173,6	116,4	111,5	333,5
Ceuta eta Mel.	932,7				

**Ikuskizunak eta beste kultur zerbitzu batzuk.*
Iturria: Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioa. Kultura Estatistikako Urtekaria. 2017

Gastu-taldeari dagokionez (liburuak eta argitalpenak; kultur zerbitzuak; informazioa tratatzeko euskarriak, ekipamenduak eta banako osagarriak); eta telebistako kuotak, interneteko informazioaren trataera, familiako gastaturiko 783 euroen %28,6 liburuetarako eta aldizkako argitalpenetarako erabili zen 2016an, %14,5 kultur zerbitzuetarako (ikuskizunak eta bestelako kultur zerbitzuak barne), %15,2 informazioa tratatzeko euskarrietarako, ekipamenduetarako eta banako osagarrietarako, eta %41,7 telebista kuotetarako, interneteko informazioa tratatzeko. Aldeak erakusten ditu estatuko batez bestekoen azterketak. Hala, EAEn gutxiago gastatzen da Estatuan baino kultur zerbitzuetan (%14,5 eta %16,3) eta telebistako kuotetan, interneteko informazioaren trataeran (%41,7 eta %47,9); eta gehiago liburuetan eta aldizkako argitalpenetan (%28,6 eta %22,2) eta informazioa tratatzeko euskarrietan, ekipamenduetan eta banako osagarrietan (%15,2 eta %13,7).

Ez da desberdintasunik antzematen familiako eta pertsonako batez besteko gastuaren banaketan gastu-taldearen arabera autonomia erkidegoka (liburuak eta argitalpenak; kultur zerbitzuak; informazioa tratatzeko euskarriak, ekipamenduak eta banako osagarriak; eta telebistako kuotak, interneteko informazioaren trataera).

1.4.4. *"Guggenheim Museoaren XX. urteurrena"*. Balantzea

Guggenheim Bilbao Museoak argitaraturiko informazioaren arabera, XX. urteurrena ospatzeko urtea, 2017. urtea, aparta izan zen Museorako, publikoaren erantzun handiari esker.

Bisitarien mailan, marka historikoa gainditu zen, 1998koa ere (Museoaren lehen urte osoa) gainditu zuen kopurura iritsita, hedabideetako oihartzuna apartekoa izan zenean.

Bestalde, 300.000 lagunek baino gehiago gozatu zuten zuzenean "*Reflections*" ikuskizuna. Horren bidez, Frank Gehryren eraikina mihise bihurtu zen lau gauetan, Museoaren eta hiriaren historian zentzumenen bidezko bidaia batean. Bertan ikusi zuen publikoaz gain (biral bihurtu zen gizarte sareetan), mundu osoko milioika lagunek ikusi ahal izan zuten hedabideetan. Urteurrenaren inguruan eginiko jarduerez beteriko urtearen bukaera bikaina izan zen: herritarrek ez ezik hainbat arlotako (artea, kultura, merkataritza, komunikazioa) tokiko eragilek ere izan zuten parte-hartze handia.

Errekonozimenduen atalean, besteak beste, abenduan Museoa "Bilbo Hiribilduko Enbaxadore" izendatu zen; azaroan, "European Cultural Brand of the Year" saria jaso zuen Berlinen, Cultural Brands erakundeak emana, eta "Premio Cambio

16 a las Artes" saria; irailean hirugarren urtez jarraian "Estatuko museorik gardenena" saria jaso zuen Konpromisoa eta Gardentasuna Fundazioaren eskutik, eta ekainean diseinuko bi Laus sari jaso zituen, horietako bat XX. urteurrenaren webagatik.

Berriz ere **bisitariak** aztertuta ikusten denez, 1,3 milioi bisita erregistratu ziren, hots, %13,1eko igoera 2016aren aldean (aldi berean, historiako bigarren urterik onena izan zen), eta 153.207 bisitari gehiago izan ziren 2016an baino. Halaber, 1998an baino 15.411 bisitari gehiago etorri ziren (ordura arte urterik arrakastatsuena izan zen).

Pertsona horien jatorria kontuan hartuta, aurreko urteetan bezala, atzerritarren ehuneko handiari eutsi zitzaion (guztizkoaren %62). EAEko publikoa %21 izan zen, aurreko urtean baino 10 puntu gehiago; Estatuko gainerako bisitarien portzentajea %17 izan zen (%4 Madrilgoa eta %4 Kataluniakoa).

V.1.35. TAULA. BISITARIEN BANAKETA JATORRI GEGORAFIKOAREN ARABERA (bertikal. %)

	2016	2017
EAE GUZT. (absolutua)	**1.169.404 (%100)**	**1.322.611 (%100)**
EAE	11	21
BIZKAIA	9	19
ARABA	1	1
GIPUZKOA	1	1
ESTATUA, GAINERAK.	23	17
MADRIL	4	4
KATALUNIA	5	4
ATZERRITARRAK	66	62

Iturria: Bilbao Guggenheim Museoa

Atzerriko bisitari gehienak Frantziatik (guztien %16), Britainia Handitik (%7), Alemaniatik (%5), Estatu Batuetatik (%5), Italiatik (%4) eta Japoniatik (%1) etorritakoak izan ziren.

Testuinguru horretan, Bizkaiko Foru Aldundiak sustaturiko "Lurraldera zabaltzea" ekimena nabarmendu behar da. Horren bidez, Bizkaiko adineko egoiliarrek gonbidapena jaso zuten Museoa dohain bisitatzeko urrian; 113.966 lagunek baliatu zuten aukera.

Museoaren jarduera erakargarri nagusia XX. urteurrenerako sortutako arte egitaraua izan zen 2017an bisitarientzat. Hala, 710.995 lagunek ikusi zuten *Bill Viola: Retrospectiva* uztailetik urrira bitartean, eta bisitarien eguneko bigarren batez bestekorik onena izan zen Museoaren historian, bakarrik 1998an eginiko *Txina: 5.000 urte* zelakoaren atzetik. Bestalde, 569.673 lagunek gozatu zuten *Paris Mendearen amaiera. Signac, Redon, Toulouse - Lautrec eta haren garaikideak* maiatza eta iraila bitartean, eta 534.221 bisitari izan zuten *George Baselitz: Heroiak* erakusketak, *Bill Violarekin* aldi berean izan zena uztailetik urrira. Nabarmentzekoa da *Expresionismo Abstraktua* erakusketan izandako bisitari kopurua, 356.641 lagun, otsaila eta maiatza bitartean; izan ere, kopuru handia da aldi horretarako.

Arlo digitalean, **guggenheim-bilbao.eus** web guneak orotara 2.693.178 bisita izan zituen 2017an (aurreko urtean baino %18 gehiago), eta sare sozialetan gero eta erkidego handiagoa du Museoak, 274.000 jarraitzaile Facebook-en, 355.000 Twitter-en eta 241.000 Instagram-en.

Hezkuntza programei dagokienez, 257.506 lagunek hartu zuten parte Museoak eskainitako presentziazko jardueretan eta on-line jardueretan. Urteko arrakastarik nagusiena TopARTE ekimena izan zen. Izan ere, horren bidez, Museoko guneak zabaldu zitzaizkien Euskadiko kulturako beste eragile eta erakunde batzuei XX. urteurrenaren karira, hainbat arlotako (musika, zinema, bideoa, dantza, performancea, antzerkia eta gastronomia) egitarau aberatsa emanez, eta 17.450 lagunek hartu zuten parte.

Museoko **banako kideei** dagokienez, 27.551 lagunek osatu zuten Community, Museoak 2017an artearen eta kulturaren inguruan sortutako erkidego berria. Taldetan banakatuta ikusten denez, Museoaren 16.646 lagunek osatuta dago, aurreko urtean baino gehiago, eta gure inguruko gizartean duen jarraipen zabala erakusten du. Horrez gain, 8.764 jarraitzaile ditu, Museoarekin harremanetan izateko doako modalitate berria, eta Erdu Programak 2.141 onuradun izan zituen 2017an, langabeak Museoan doan sartzeko erraztasunak emateko.

Bestalde, **enpresek** Guggenheim Museoan 2017an izan zuten partaidetzaren ondorioz, 124 kide korporatibo bildu ziren (2016an baino 4 gehiago), erakundea finantzatzeko oinarrizko zutabea baitira; horiek ere Community-aren barruan daude.

Azkenik, **eragin ekonomikoa** dela-eta, Guggenheim Bilbao Museoaren funtzionamenduaren emaitzek erakusten dutenez, aurreko emaitzak gainditu ziren 2017an, eta honako hauek izan ziren:

- Museoaren jarduerak EAEn sortutako eskaria, orotara, 495,5 milioi euro izan zen.
- 443,7 milioi euroko ekarpena egin zion BPGari.
- Kopuru horien bidez, 67,2 milioi euroko diru-sarrera gehiago sortu ziren Euskal Ogasun Publikoentzat.
- 9.282 lanposturi eusteko lagungarria izan zen Museoaren jarduera.

Beste urte batez, Guggenheim Bilbao Museoa liderra da Europako kultur erakundeetan autofinantzaketa mailan; 2017an %70aren inguruan kokatu zen.

ITURRIAK:

1. **EUSTAT.** Eskola-jardueraren estatistika. 2017/18 ikasturtea. Datu orokorren aurrerapena. Urterokoa. Estrukturala
2. **EUSTAT.** Eskola-jardueraren estatistika. 2016/17 ikasturtea. Urterokoa. Estrukturala.
3. **EUSTAT.** Eskola-jardueraren estatistika. 2015/16 ikasturtea. Urterokoa. Estrukturala.
4. **Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioa.** Hezkuntzaren kopuruak Espainian. 2015-2016 ikasturtea. 2018ko edizioa. Urterokoa. Estrukturala.
5. **Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioa**. Iturria: Hezkuntzako gastu publikoaren estatistika. 2016. Urtea. Behin-behineko datuak. 2018ko edizioa. Urterokoa. Estrukturala.
6. **EIN.** Espainiako Eskualde Kontabilitatea. Urterokoa. Koiunturala.
7. **EUSTAT.** Ekonomia Kontuak. Urterokoa. Koiunturala.
8. **Eusko Jaurlaritza.** EAEko Kontu Orokorrak eta EAEko Aurrekontuak. Koiunturala.
9. **Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioa**. Unibertsitate adierazleen urtekaria. 2017ko abenduko edizioa. Urterokoa. Estrukturala.
10. **Academic Ranking of Word Universities (ARWU).**Shangaiko Unibertsitate Rankinga. 2017ko datuak. Urterokoa. Estrukturala.
11. **Eusko Jaurlaritza. Kulturaren Euskal Behatokia.** Arteen eta industria kulturalen estatistikako agenteen profila 2015. 2017ko edizioa Unekoa Estrukturala.
12. **Eusko Jaurlaritza. Kulturaren Euskal Behatokia.** Arteen eta industria kulturalen estatistikak. Oinarrizko adierazleak. 2017ko edizioa. Bi urterik behingoa. Estrukturala.
13. **Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioa**. Kultura Estatistiken Urtekaria. 2017ko edizioa. Urterokoa. Estrukturala.
14. **MUSEO GUNGGENHEIM BILBAO. Prentsa Saila.** Guggenheim Bilbao Museoak bere historiako urterik onena bizi du XX. Urteurrenean. 2018ko urtarrilaren 2ko prensa-oharra. Unekoa.

2. EAE-KO INGURUNE NATURALAREN EGOERA

Ingurumenaren garrantzia bi faktoretan datza: alde batetik, izaki guztiak bertan eta ez beste leku batean garatzea; eta, beste aldetik, ingurumenak guri natur baliabideek ematea. Hori dela eta, haren zainketa eta babesa giza ekintzaren funtsezko elementuetako bat izan beharko litzateke.

Garapen ekonomikoak eta sozialak bizi-kalitatea eta erosotasuna ematen dizkiote gizarteari alderdi askotan, baina, aldi berean, presio handia dakarte ingurumenaren gainean, hainbat ukipen sorrarazten dituena.

Zorionez, gaur egun gero eta kontzientzia nabarmenagoa dago ukipen horien garrantziaren gainean, eta, herritarrak ez ezik, gobernuak eta enpresak ere hasi dira ingurumena babesteko edo horren gaineko kaltea mugatzeko helburua daukaten jarduerak garatzen.

Kapitulu honen helburua da EAEn ingurumenari lotutako gai nagusien errealitatea eta orain dela gutxiko bilakaera ezagutzea. Horretarako, erkidego honetako ingurumen adierazle nagusiak aztertu dira. Honako hauek dira, zehatz-mehatz: airearen kalitatea, ur gezaren kontsumoa, hondakinen sorrera eta kudeaketa, eta manufaktura-industriaren ingurumen babesa.

2.1. AIREAREN KALITATEA

Herritarrei airearen kalitatearen berri modu argian eta errazean emateko balio du airearen kalitate indizeak (AKI), eta airearen kalitatearen egoera sailkatzen duten 5 kategoriatan dago banatuta, hala nola: Oso ona, Ona, Hobetu daiteke, Txarra eta Oso txarra.

Indizea kalkulatzeko, AKI bat ezartzen da kutsatzaile eta estazio bakoitzeko, azken hori kutsatzaile guztietatik txarrenak definitua.

Eguneroko AKI kalkulatzeko, hauexek erabiltzen dira: NO2 eguneko batez besteko gehienekoak, CO eta O3 zortzi orduko batez bete mugikorren gehienekoak eta SO2, PM10 eta PM2,5 eguneko batez bestekoak. Kontzentrazio-lerrunak ezartzeko, 102/2011 EDaren I. eranskinean finkaturiko balioak izan dira kontuan. Honekin batera doan taulan ageri dira eguneko AKIren lerrunak. Zonalde horretarako estazioetan ikusitako baliorik txarrena izango da zonalde bakoitzari esleituriko eguneko balioa.

Airearen kalitatearen egoera	NO2	SO2	CO	O3	PM10	PM2,5
Oso ona	0-50	0-50	0-5	0-60	0-25	0-16
Ona	50-100	50-85	5-7	60-100	25-50	16-33
Hobetu daiteke	100-200	85-125	7-10	100-140	50-65	33-39
Txarra	200-400	125-200	10-15	140-160	65-85	39-50
Oso txarra	>400	>200	>15	>160	>85	>50

Aldi berean, EAEko lurraldea eremuka banatzen da, indarreko araudiaren eskakizunen arabera. Zonalde horiek ondoko taulan ageri dira.

V.2.1. TAULA. ZONIFIKAZIOA, AIREAREN KUTSATZAILEAK EBALUATZEKO
Enkarterria-Nerbioi Garaia
Nerbioi Beherea
Kostaldea
Donostialdea
Ibaizabal Garaia – Deba Garaia
Goierri
Arabako Lautada
EAEko Erribera

Iturria: Ingurumen, Lurralde eta Etxebizitza Saila

Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailak emandako informazioaren arabera, hobekuntza nabarmena gertatu da EAEko airearen kalitatean azken urteetan.

Hala ere, argitaraturiko azken datuen arabera, batez besteko iraunkortasun adierazlea %99 da, 2015eko ratioa baino pixka bat txikiagoa (%99,2). Adierazle hori hauen arteko erlazioaren bidez lortzen da: "*Oso ona", "Ona" eta "Hobetu daiteke"* kalifikazioa duten eguneko kopurua gehi urteko egun kopurua. Kopuru agregatuetan, kalitate oso oneko edo oneko egunen ehunekoa urtean % 83,4tik % 82ra igaro da 2015 eta 2016 bitartean.

V.2.2. TAULA. AIREAREN KALITATE-INDIZEA MAILEN ETA URTEEN ARABERA EAE-N (urteko egunen %-a)

	2014	2015	2016
Oso ona	5,7	5,3	4,5
Ona	72,7	78,1	77,5
Hobetu daiteke	20,4	15,8	17,0
Txarra	0,9	0,8	0,7
Oso txarra	0,3	0,0	0,3

Iturria: Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila

Airearen kalitate txarra edo oso txarra izan deneko egunen kopuruak gora egin du aurreko urtearen aldean, 24tik 28ra. Bestalde, hobetu daitekeen airearen kalitateko egun kopuruek ere gora egin dute: 461 egunetik 497 egunera. Nabarmentzekoa da EAEko Erribera, airearen kalitate txarreko 7 egunekin eta airearen kalitate oso txarreko egun batekin; Donostialdean, airearen kalitate txarreko 5 egunekin eta Ibaizabal Garaia-Deba Garaian, berriz, kalitate txarreko 3 egunekin eta oso txarreko egun 1ekin.

V.2.3. TAULA. AIREAREN KALITATEARI DAGOZKION EGUNEN KOPURUA (HOBETU DAITEKE, TXARRA ETA OSO TXARRA) ETA IRAUNKORTASUN ADIERAZLEA ZONALDEKA ETA URTEKA EAE-N

	2015				2016			
	Hobetu daiteke	Txarra	Oso txarra	Iraunkortasun adierazlea (%)(1)	Hobetu daiteke	Txarra	Oso txarra	Iraunkortasun adierazlea (%)
Enkarterria-Nerbioi Garaia	31	2	0	99,5	35	1	0	99,7
Nerbioi Beherea	44	1	0	99,7	60	3	0	99,2
Kostaldea	42	0	0	100,	44	1	2	99,2
Donostialdea	83	6	1	98,1	87	5	0	98,6
Ibaizabal Garaia-Deba Garaia	38	1	0	99,7	68	3	1	98,9
Goierri	46	3	0	99,2	45	0	3	99,2
Arabako Lautada	72	5	0	98,6	72	0	1	99,7
EAEko Erribera	105	5	0	98,6	86	7	1	97,8
Egunen guzt. kop., airearen kalitatearen arabera	461	23	1	99,2	497	20	8	99,0
Egunen %-a, airearen kalitatearen arabera	%15	0,8	0,0		17	0,7	0,3	

(1) Urteko iraunkortasun adierazlea = ("oso ona" kalifikazio egun kop. + "ona" kalifikazio egun kop. + "hobetu daiteke" kalifikazio egunen kop. / urteko egun guztien kop.
Iturria: Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila

2.2. UR GEZA BILTZEA ETA KONTSUMITZEA

Datu berririk ez dagoenez, 2014ko egoerari buruzko azterketa laburra aurkeztuko dugu ondoren, eta argibide gehiago nahiz izanez gero, begiratu gure 2016ko Memorian.

EINen "*Uraren hornidurari eta trataerari buruzko inkesta*"ko datuen arabera, 2014an, guztira, 184,8 Hm^3 ur erregistratu eta banatu ziren EAEn herri hornidurarako (- %3,9 2013aren aldean). Horietatik 184,8 Hm^3, %79,3, erregistraturiko ur bolumenak izan ziren (gainerakoak, zenbatetsiak). Erregistraturiko bolumen horretatik, %62,7 etxeak hornitzeko erabili zen, %30,8 sektore ekonomikoetarako eta %6,6 udal kontsumoetarako.

Itxurazko galeren eta benetako galeren artean banakatzen da erregistratu gabeko ura. Azken horiek hazi ziren eta, 2014an, eskuragarri zegoen guztizko kopuruaren % 8,9 izan ziren, 2013an erregistratutako % 6,5a baino gehiago eta Estatuan zenbatetsitako % 15,2a baino gutxiago.

Uraren kontsumoa per capita, EAEn, estatuko batez bestekoa baino txikiagoa izan zen berriz ere, 116 eta 132 litro/biztanle/egun, hurrenez hurren. Hala, % 5,7ko jaitsiera egon zen 2013 eta 2014 bitartean. Uraren unitate-balioa 1,75 euro izan zen, eta hazkundeko segidako bi urte pilatu dira. Hala ere, Estatuan erregistratutako balioa baino gutxiago izaten jarraitzen du (1,89 euro/m^3). Izan ere, Estatuan igo egin da.

2.3. HONDAKINEN SORRERA ETA KUDEAKETA

2.3.1. Hiriko hondakinak

EINek *"Hondakinen bilketari eta trataerari buruzko estatistika. Hiriko hondakinak: 2010-2015eko seriea"* egin du, eta agerian uzten duenez, 2015ean, hiriko hondakinen enpresa kudeatzaileek 965.155 Tn hiriko hondakin bildu zituzten 2015. urtean, aurreko urtean baino %11,3 gehiago. Nahastuak eta gaika bildutakoak bereiziz, gehienak (%70.6) hondakin nahastuak izan ziren. 2014ko datuen aldean, lehenbizikoetan %16,2ko igoera izan zen, eta gaikoetan, berriz, %1. Estatuan, bestalde, beherakada %1,8koa eta %2,5ekoa izan zen, hurrenez hurren.

V.2.4. TAULA. HIRIKO HONDAKINEN SORRERA (Tonak)

	ESTATUA				EAE			
	2013	2014	2015	2014-15 aldak.	2013	2014	2015	2014-15 aldak.
Hiriko Hondakinak (HH)	21.785.683	21.328.307	21.646.294	1,5	1.146.581	850.148	946.155	11,3
HH nahastuak (1)	17.852.826	17.530.077	17.753.549	1,3	801.449	574.947	668.201	16,2
Gaika bildutako HHak	3.932.857	3.798.230	3.892.745	2,5	345.132	275.201	277.954	1,0

(1) Hondakin nahastuen barruan, etxeko hondakinak eta antzekoak eta etxeko hondakin handi nahastuak sartzen dira.
Iturria: Hondakinen bilketari eta trataerari buruzko EIN estatistikak

V.2.5. TAULA. HIRIKO HONDAKINAK APARTE BILTZEA

	EAE				ESTATUA			
	2014		2015		2014		2015	
	Kantitatea (Tm)	Guztizko arekiko %-a	Kantitatea (Tm)	Guztizko arekiko %-al	Kantitatea (Tm)	Guztizkoarekiko %-a	Kantitatea (Tm)	Guztizkoarekiko %-a
06 Metal hondakinak	435	0,2	430	0,2	22.598	0,6	22.430	0,6
07.1 Beira hondakinak	56.119	20,4	58.948	21,2	733.864	19,3	755.608	19,4
07.2 Paper eta kartoi hondakinak	122.104	44,4	117.879	42,4	976.896	25,7	1.008.959	25,9
07.4 Plastiko hondakinak	1.411	0,5	1.398	0,5	39.807	1,0	39.453	1,0
07.5 Zur hondakinak	10.015	3,6	9.920	3,6	88.498	2,3	87.765	2,3
07.6 Ehun hondakinak	12.068	4,4	11.907	4,3	41.329	1,1	40.767	1,0
08.2 eta 08.43 Botatako ekipamendu elektrikoak eta ekipamendu elektronik. osagaiak	3.968	1,4	4.776	1,7	52.582	1,4	63.338	1,6
08.41 Pila eta metagailu hondakinak	91	0,0	109	0,0	3.061	0,1	3.687	0,1
09. Animalia eta landare hondak.	6.888	2,5	8.509	3,1	781960	20,6	789.919	20,3
10.21 Ontzi mistoak eta bilgarri nahastuak	36.020	13,1	38.244	13,8	565736	14,9	592.353	15,2
11 Lohi arruntak (lehorrak)	0	0,0	0	0,0	0	0,0	0	0,0
12 Mea hondakinak (eraikuntzako eta eraispeneko hondakinak)	22.623	8,2	22.408	8,1	433.444	11,4	430.561	11,1
18 Bete batzuk (1)	3.459	1,3	3.426	1,2	58.455	1,5	57.905	1,5
GUZTIRA	275.201	100,0	277.954	100,0	3.798.230	100,0	3.892.745	100,0

Erabili ez diren medikamentuak, kautxu hondarrak eta hondar sanitarioak eta biologikoak '18 beste batzuk' kategorian dauden sartuta.
Iturria: EIN. Hondakinen bilketari eta trataerai buruzko estatistika. Hiriko hondakinak

Gaika bildutako hiriko hondakinei dagokienez, hauexek nabarmendu ziren bolumenaren aldetik: papera eta kartoia (117.879 Tm, guztien %42,4), beira (58.948 Tm, %21,2), ontzi mistoak eta bilgarri nahastuak (38.244 Tm, %13,8) eta mea-hondakinak –horien artean sartzen dira eraikuntzakoak eta eraispenekoak- (22.408 Tm, %8,1). Estatuan, hauexek nabarmendu behar dira: papera eta kartoia (guztien %25,9), animaliak eta landareak (%20,3), beira (%20,3), ontziratze mistoak eta bilgarri nahastuak (%15,2) eta mea-hondakinak –horien artean sartzen dira eraikuntzakoak eta eraispenekoak- (%11,1).

Per capita kopuruetan, EAEn biztanleko 437,4 kg hiriko hondakin bildu ziren 2015ean, hots, 2014rako kalkulatzen zena (392,6 kg/biztanle), baina Estatuko batezbestekoa baino txikiagoa (466,4). Autonomia erkidegoen arabera, Balear Uharteak (800,6), Kanariar Uharteak (594,1), Kantabria (532,6) eta Asturias (519,4) izan ziren per capita baliorik handienak izan zituztenak.

V.2.6. TAULA. HIRIKO HONDAKINEN BILKETA AA.EE.EN ARABERA (Kg biztanleko)

	2013	2014	2015
Andaluzia	544,0	546,3	504,6
Aragoi	410,9	363,6	427,9
Asturias	489,4	514,2	519,4
U. Balearrak	727,4	671,1	800,6
U. Kanariarrak	571,4	630,1	594,1
Kantabria	523,2	487,0	532,6
Gaztela eta Leon	406,5	459,8	433,2
Gaztela-Mantxa	433,7	387,9	457,0
Katalunia	488,1	497,4	480,7
Valentziako E.	431,2	387,9	443,6
Extremadura	40,4	479,4	457,9
Galizia	393,3	313,0	419,4
Madril	365,9	392,4	363,8
Murtzia	453,9	475,1	464,5
Nafarroa	437,2	415,5	465,6
EAE	528,2	392.6	437,4
Errioxa	410,2	259,1	405,7
Ceuta eta Melilla	-	-	-
Estatua	467,6	459,1	466,4

Iturria: EIN. Hondakinen bilketari eta trataerari buruzko estatistikak. Hiriko hondakinak

Hiriko hondakinen kudeaketa aztertzeko eta EINek erkidegoen araberako informaziorik ematen ez duenez gero, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailaren "*EAEko Hiriko Hondakinei buruzko Estatistika*" erabiliko dugu. Horren arabera, 2015ean biztanleko 502 Kg hiriko hondakin bildu ziren EAEn (Estatuan 437,4 zenbatetsi ziren) eta biztanleko 515 Kg 2016an. Hala, 2014 eta 2015 bitartean behera egin zuen sortutako hiriko hondakinen per capita bolumenak (511 kg-tik 502 kg-ra biztanleko), 2015 eta 2016 bitartean hazkundea izan zen, biztanleko 515 Kg zenbatu zirelako.

515 Kg/biztanle horietatik, 111 energiaren aldetik balioztatu eta errautsi ziren, 173 birziklatu eta 24 konpostari dagozkio (ongarri organikoa). Gainerakoa, hau da, 171, zabortegira joan ziren.

2015ekoaren aldean, energiaren aldetik balioztaturiko eta erraustutako hondakinen kopurua jaitsi egin zen, 10 kg biztanleko, birziklatuetan 10 kg behiago biztanleko eta ongarri organikoetan 3 kg gehiago bildu dira biztanleko. Bestalde, zabortegira eramandakoetan 10 kg-ko hazkundea izan da biztanleko.

V.2.7. TAULA. EAE-N SORTUTAKO HIRIKO HONDAKINEN KUDEAKETA (unitateak: Kg/biztanle/urte)

		2012	2013	2014	2015	2016	2015-16 aldak. (difer.)
Sortutako eta kudeatutako hiriko hondakinak, guztira		501	498	511	502	515	13
Berreskuratzeko eragiketak	Energia balorizazioa eta errausketa	93	93	113*	121*	111*	-10
	Birziklatzea	159	191	163	163	173	10
	Konposta (ongarri organiko bihurtzea)	9	11	18	21	24	3
Desagerrarazteko eragiketak	Hondakindegian uztea	240	202	189	161	171	10

** 2014tik hasita, energia balorizazioa ere sartzen da*
Iturria: Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila

Lurralde Historikoen araberako analisiak alde batzuk agertzen ditu.

- Berreskuratzeko eragiketei dagokienez:
  - Egonkor eusten dio energiaren aldetik balioztatzeko eta errausteko eragiketak Araban eta Gipuzkoan, baina behera egin du Bizkaian. Araban 15 Kg biztanleko eta Gipuzkoan 35 Kg biztanleko. Bizkaian, berriz, 187 Kg biztanleko.

- Birziklatzeak gora egin du Araban eta Bizkaian (110 eta 186 kg/biztanle, hurrenez hurren). Gipuzkoan, berriz, behera egin du, biztanleko 184 kg-tik 180 kg-ra.
- Ongarri organiko bihurtzeak gorakada izan du hiru Lurralde Historikoetan, baina maila txikietan jarraitzen du, Gipuzkoan izan ezik. 12 Kg/biztanle Araban, 6 Bizkaian eta 59 Gipuzkoan.

- Hondakin gutxiago eraman dira zabortegira Araban, eta gehiago Bizkaian eta Gipuzkoan: 161, 120 eta 254 kg biztanleko.

V.2.8. TAULA. EAE-N SORTUTAKO HIRIKO HONDAKINEN KUDEAKETA (unitateak: Kg/biztanle/urte)

	2015				2016				2015-16 aldak. (diferentzia)			
	EAE	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	EAE	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	EAE	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
Sortutako eta kudeaturiko hiriko hondakinak, guztira	502	423	504	533	515	419	526	535	13	-4	22	2
Energia balorizazioa eta errausketa	121	15	204	35	111	15	187	35	-10	0	-17	0
Birziklatzea	163	101	167	184	173	110	186	180	10	9	19	-4
Konposta	21	9	5	53	24	12	6	59	3	3	1	6
Hondakindegian uztea	161	186	96	253	171	161	120	254	10	-25	24	1

Iturria: Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila

2.3.2. Hondakin arriskutsuak eta ez arriskutsuak

Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailaren datuen arabera, 2015 eta 2016 bitartean, %6,4 egin zuen behera kudeaturiko hondakin ez arriskutsuen guztizko kopuruak. Arriskutsuenak, berriz, %1,4 egin zuen gora 2014-2015 aldian (ez dago 2016ko daturik). Gauzak horrela, 2016an, guztira, 3.307.978 Tm bildu ziren eta arriskutsuak 327.766 Tm izan ziren 2015ean, hots, hondakin arriskutsuak guztien %8,5 zen urte horretan. Ez arriskutsuena, berriz, %91,5.

V.2.9. TAULA. EAE-N SORTUTAKO HONDAKIN ARRISKUTSUEN ETA EZ ARRISKKUTSUEN BILAKAERA HEZ KODEEN ARABERA* (Tonak).

	2014		2015		2016		Aldakuntza	
HEZ	Arriskutsuak	Ez arriskutsuak	Arriskutsuak	Ez arriskutsuak	Arriskutsuak	Ez arriskutsuak	Arriskutsuak 2014-15	Ez arriskutsuak 2015-16
01-Meategiak eta harrobiak	0	5.093	0	7.063		7.884		11,6
02-Nekaz., hortikultura, akuikult.	20	75.123	11	84.026		68.553	-45,0	-18,4
03-Zurgintza eta papergintza	0	438.879	5	392.781		274.051		-30,2
04-Larrugintza eta ehungintza	0	470	0	29		105		262,1
05-Petrolio fintzea	2.326	1.730	2.522	2.921		1.281	8,4	-56,1
06-Ind. Kimiko ezorganikoa	1.217	13.736	1.907	17.125		18.275	56,7	6,7
07-Ind. Kimiko organikoa	6.910	58.824	3.447	65.367		49.504	-50,1	-24,3
08-Margoak, bernizak eta tinduak	5.143	4.691	5.850	1.532		7.796	13,7	408,9
09-Argazkigintza	201	257	200	96		159	-0,5	65,6
10-Prozesu termikoen ind.	147.074	1.269.134	161.663	1.179.791		981.123	9,9	-16,8
11-Metalen tratam. eta estalketa	48.720	11.722	50.712	6.879		5.099	4,1	-25,9
12-Metalen mekanizatuaren ind.	21.908	696.520	20.345	807.330		788.191	-7,1	-2,4
13-Olio erabiliak	30.075	0	32.358	0		0	7,6	
14. Disolbatzaile erabiliak	2.407		2.651				10,1	
15-Ontziak eta zapiak	9.458	157.315	9.284	190.871		199.450	-1,8	4,5
16-Beste hondakin batzuk	12.384	137.844	11.146	148.287		159.080	-10,0	7,3
17. Eraikuntza eta eraispena	17.268		5.910				-65,8	
18-Mediku zerbitzuak, albaitariak...	1.562	3.378	1.518	3		35	-2,8	1066,7
19-Hondakinen tratamend. ind.	10.675	708.357	11.162	631.875		747.392	4,6	18,3
20-Udalekoak eta antzekoak	6.049		7.076				17,0	
Guztira	**323.398**	**3.583.072**	**327.766**	**3.535.977**		**3.307.978**	**1,4**	**-6,4**

**HEZ: Hondakinen Europako Zerrenda*
Iturria:Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila

2016an kudeatu ziren hondakin ez arriskutsuen artean, hauexek nabarmentzen dira: prozesu termikoetako industriako hondakinak (hondakin ez arriskutsu guztien %29,7), metalen mekanizatuko hondakinak (hondakin ez arriskutsu guztien %23,8), hondakinen tratamenduko industriako hondakinak (%22,6), zurgintzako eta papergintzako industriako hondakinak (%8,3) eta ontziak eta zapiak (%6).

2015ean kudeaturiko hondakin arriskutsuen artean, hauexek nabarmentzen dira: prozesu termikoetako industriako hondakinak (hondakin arriskutsu guztien %49,3), metalen tratamenduko eta estalketako hondakinak (%15), olio erabiliak (%9,9), metalen mekanizatuko industriako hondakinak (%6,2) eta hondakinen tratamenduko industriako hondakinak (%3,4).

Hondakin horien kudeaketari dagokionez, 2016an, hondakin ez arriskutsu guztien %54,3 birziklatu edo konposta egin ziren (aurreko urtean %53,3), %3,4 energiaren aldetik balioztatu zen (aurreko urtean %3,9) eta gainerako %42,3a desagerrarazi zen (%42,8 aurreko aldian).

Bestalde, hondakin arriskutsu guztietatik (2015eko datuak), %67,7 birziklatu edo konposta egin zen (%66,6 2014an), %1,8 energiaren aldetik balioztatu zen (2014an %1), %0,6 errautsi (%0,8 2014an) eta gainerakoa %29,9 desagerrarazi zen (%31,5 2014an).

V.2.10. TAULA. EAE-N SORTUTAKO HONDAKIN ARRISKUTSUEN ETA EZ ARRISKUTSUEN KUDEAKETA

		2014		2015		2016	
		Arriskutsuak (Guztizko bertikal.%-a)	Ez arriskutsuak (Guztizko bertikal. %-a)	Arriskutsuak (Guzt. bertik.%-a)	Ez arriskutsuak (Guzt. bertikal. %-a)	Arriskutsuak (Guzt. bertikal.%-a)	Ez arriskutsuak (Guztizko bertikal. %-a)
Hondakinak, guztira		**323.398**	**3.583.072**	**327.766**	**3.535.977**		**3.307.978**
Berreskuratzeko eragiketak	Energia balorizazioa eta errausketa	1,0	3,4	1,8	3,9	nd	3,4
	Birziklatzea+berrerabiltzea+konposta	66,6	56,3	67,7	53,3	nd	54,3
Desagerrarazteko eragiketak	Erraustea	0,8	0,0	0,6	0,0	nd	0,0
	Desagerraraztea	31,5	40,3	29,9	42,8	nd	42,3

Iturria: Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila.

2.4. INGURUMENAREN BABESA ETA MANUFAKTURA-INDUSTRIA

Epigrafe honen xedea manufaktura-industriek ingurumena babesteko egiten duten gastua aztertzea da.

EINek egindako *"Industria-enpresek ingurumen babesean izandako gastuaren inkesta"*ri buruzko azken datuen arabera, 2015ean EAEn enpresa horiek ingurumen babesean izandako gastua (gastu arrunta eta inbertsioa), guztira, 175,9 milioi eurokoa izan zen, 2014an izandakoa baino %0,6 txikiagoa. Hala hiru urtez jarraian metatu dira jaitsierak.

Gastua BPGd-aren portzentaje bezala neurtuta, 2015ean murrizketa txiki bat (0,28tik %0,26ra) ikusten da, 2014koaren aldean. Ratio hori, baina, Estatuko batez bestekoa baino handiagoa da (%0,19).

V.2.1. GRAFIKOA. MANUFAKTURA-ENPRESEK INGURUMENA BABESTEKO EGINIKO GASTU KORRONTEA ETA INBERTSIOA BPGd-arekiko, AUTONOMIA ERKIDEGOEN ARABERA. 2015. EHUNEKOAK



Iturria: INE

Hala, EAEk zazpigarren tokia izan zuen 2015ean, honako hauen atzetik: Asturias eta Nafarroa (bietan % 0,41), Gaztela-Mantxa (%0,38) eta Kantabria (%0,33), Errioxa (%0,28) eta Murtzia (%0,27).

V.2.11. TAULA. MANUFAKTURA-INDUSTRIEK INGURUMENA BABESTEKO EGINIKO GASTU KORRONTEA ETA INBERTSIOA

	Gastu korrontea eta inbertsioa (€)				BPGd-arekiko ehunekoa**			
	2012	2013	2014	2015	2012	2013	2014	2015
ANDALUZIA	274.241.103	264.402.878	285.856.680	276.698.066	0,20	0,19	0,21	0,19
ARAGOI	82.608.445	94.532.022	80.165.161	82.907.096	0,25	0,29	0,24	0,25
ASTURIAS	73.417.239	96.055.447	83.196.012	87.141.618	0,34	0,46	0,40	0,41
U. BALEARRAK	7.191.958	5.609.727	7.261.152	5.880.140	0,03	0,02	0,03	0,02
U. KANARIARRAK	40.871.648	30.734.659	25.504.808	21.638.364	0,10	0,08	0,06	0,05
KANTABRIA	41.982.812	44.240.043	39.776.229	40.017.192	0,35	0,38	0,33	0,33
GAZTELA ETA LEON	120.367.890	123.943.872	135.139.173	123.675.671	0,23	0,24	0,26	0,23
GAZTELA-MANTXA	117.735.595	114.798.036	132.438.251	140.852.513	0,31	0,31	0,37	0,38
KATALUNIA	542.294.327	562.127.294	517.139.213	497.103.579	0,28	0,29	0,26	0,24
VALENTZIA	210.029.050	168.510.822	193.645.316	184.044.581	0,22	0,18	0,20	0,18
EXTREMADURA	12.958.589	15.311.895	14.680.815	16.914.226	0,08	0,09	0,09	0,10
GALIZIA	121.233.871	131.610.393	151.351.428	121.306.620	0,22	0,25	0,28	0,22
MADRIL	101.815.023	86.914.104	101.071.846	91.167.100	0,05	0,05	0,05	0,04
MURTZIA	66.648.072	79.744.699	73.227.896	74.577.959	0,25	0,30	0,28	0,27
NAFARROA	69.395.368	69.979.993	71.245.584	75.950.400	0,39	0,40	0,40	0,41
EAE	**195.502.883**	**183.980.409**	**176.839.587**	**175.860.177**	**0,31**	**0,29**	**0,28**	**0,26**
ERRIOXA	20.213.533	21.877.198	20.641.770	21.761.388	0,26	0,29	0,27	0,28
ESTATUA*	2.098.507.406	2.094.373.491	2.109.180.921	2.037.496.690	0,20	0,20	0,20	0,19

Estatuko BPGd-aren barruan, Ceuta Melilla eta Extra-Regio daude. 2010eko oinarria.
Iturria: EIN

ITURRIAK:

1. **EUSKO JAURLARITZA**. Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila. Airearen kalitatearen indizea. 2016ko datuak. Urterokoa. Estrukturala.
2. **EIN**. Uraren hornidurari eta saneamenduari buruzko inkesta. 2014ko datuak. Urterokoa. Estrukturala.
3. **EIN**. Hondakinen bilketari eta trataerari buruzko estatistika. Hiriko hondakinak. 2015eko datuak. Urterokoa. Estrukturala.
4. **EUSKO JAURLARITZA.** Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila. Hiriko Hondakinei buruzko estatistika. 2016ko datuak. Urterokoa. Estrukturala.
5. **EUSKO JAURLARITZA.** Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila. Hondakin Arriskutsuei buruzko Estatistika. 2015eko datuak. Urterokoa. Estrukturala.
6. **EUSKO JAURLARITZA.** Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila. Hondakin ez arriskutsuei buruzko estatistika. 2016ko datuak. Urterokoa ausazko datuak erabiliz. Estrukturala.
7. **EIN**. Industriak ingurumena babesteko eginiko datuari buruzko inkesta. 2015eko datuak. Urterokoa. Estrukturala.

3. OSASUNA ETA OSASUN SISTEMA

OMEk[8] honelaxe definitzen ditu "Osasunaren faktore determinanteak": banakoen edo populazioen osasun egoera dakarten norberaren, gizartearen, ekonomiaren eta ingurumenaren inguruko faktoreen multzoa.

Beraz, faktore askoren araberakoa da "osasuna", gehienbat ingurumenaren, bizimoduaren, osasun sistemaren eta giza biologiaren araberakoa.

1974an "A new perspective on the health of canadians" deritzona argitaratu zen Kanadan, Lalonde Txostena izenekoa[9], osasuneko politiken gaineko planteamendu berrietarako oinarria izan dena. Txostenaren ondorioetarako bat hauxe da: honekin batera doan IV.3.1. grafikoak erakusten duen moduan eragiten zaiola osasunari, hots, hauexen arabera, gizarte sistema (%50), osasun sistema eta gaixotasunaren arreta (%25), faktore biologikoak (%15) eta giro fisikoa (%10).

V.3.1. GRAFIKOA: OSASUNAREN FAKTORE DETERMINANTEAK



Iturria: Canadian Institute for advance research eta geuk Egina

Kapitulu honetan zehar, lehenik eta behin biztanleriaren osasun egoerara hurbiltzea ahalbidetzen duten zenbait adierazle aztertuko dira hala nola bizi-itxaropena, mendetasuna eta heriotza. Bigarrenik, osasunaren zenbait determinante ez medikoren azterketa konparatua egiten da, bereziki, tabakoaren eta alkoholaren kontsumoa eta gain-pisua eta obesitatea. Ondoren, labur-labur aztertuko da Osakidetzak eskainitako laguntzaren jarduera. Herritarrei osasun arreta integrala eskaintzen dien erakunde autonomoa da, eta aurrekontu publikoekin finantzatzen da. Laugarrenik, osasun pribatuaren adierazle nagusien bilakaera aurkeztuko da.

3.1. OSASUN EGOERA

3.1.1 Bizi itxaropena

a) Bizi itxaropena (BI) eta 65 urterekin (BI_{65})

X adineko bizi itxaropena x adin horretako banako batek ustez biziko duen batez besteko urte kopurua da, adinaren araberako berariazko heriotza-tasetan egungo joerek iraunez gero10. Batez besteko hori biztanleria osoari dagokio eta ez banakako jakin bati, hark bizi-itxaropenak adierazitakoa baino gehiago bizi dezakeelako edo, alderantziz, dagokion itxaropena baino lehenago hil.

Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasun Ministerioak 2017ko ekainean argitaraturiko Osasun Sistema Nazionalaren 2016ko Urteko Txostenaren arabera, BI Euskadin, 2001 eta 2014 bitartean, 3,5, urtetan hazi da, eta 2014an 83,9 urtera iritsi zen, Estatuan ikusitako bera, baina Madrilen (85), Gaztela eta Leonen eta Errioxan (bietan 84,1) izandakoa baino txikiagoa.

2001 eta 2014 bitartean, BI 3,5, urtetan igo zen Estatuan (EAEko kopuru bera), eta autonomia erkidego guztietan hazi zen. U. Kanariarrak izan ziren, 4,3 urterekin eta ondoren Madril (4,2 urte) eta Valentziako Erkidegoa eta Murtzia (3,9 urte) hazkunderik handienak izan zituzten erkidegoak.

[8] *Osasunaren sustapena. Glosategia, OME eta Osasun Ministerioa*

[9] *Lalonde, M. (1974). A New Perspective on the Health of Canadians. A working document. Ottawa: Welfare.*

[10] *Alda daitezke, jakina, denborarekin aldaketak izanten baitira.*

Bestalde, 65 urterekin (BI_{65}), euskaldunek, 2014an, urtean 22 bizitza urte izatea espero zuten, eta BI_{65} handiena duen hirugarren autonomia erkidegoa da, hain zuzen Madrilen (22,9) eta Gaztela eta Leonen (22,3) atzetik eta Nafarroaren pare (22).

V.3.1. TAULA. BIZI ITXAROPENAREN BILAKAERA JAIOTZEAN (BIj) ETA 65 URTEREKIN (BI_{65}), 2001-2014

	BIj		BI_{65}	
	2014	2001-2014 aldea	2014	2001-2014 aldea
ANDALUZIA	82,1	3,5	20,4	2,4
ARAGOI	83,2	2,8	21,5	1,9
ASTURIAS	82,5	2,8	21,1	1,9
BALEARRAK	83,0	3,7	21,1	2,5
U. KANARIARRAK	82,5	4,3	21,0	2,8
KANTABRIA	83,1	2,6	21,4	1,8
GAZTELA ETA LEON	84,1	3,8	22,3	3,1
GAZTELA-MANTXA	83,7	2,3	21,7	1,2
KATALUNIA	83,6	3,6	21,8	2,5
VALENTZIAKO E.	82,9	3,9	21,1	2,7
EXTREMADURA	82,7	3,3	21,0	2,3
GALIZIA	83,4	3,4	21,8	2,1
MADRIL	85,0	4,2	22,9	3,1
MURTZIA	82,9	3,9	21,0	2,6
NAFARROA	83,9	2,6	22,0	1,9
EAE	**83,9**	**3,5**	**22,0**	**2,4**
ERRIOXA	84,1	3,3	22,1	**1,9**
CEUTA ETA MELILLA	80,7	2,3	19,6	1,4
ESTATUA	**83,2**	**3,5**	**21,5**	**2,4**

Iturria: Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasun Ministerioa. Osasun Sistema Nazionalaren Urteko Txostena, 2016 (2017ko ekainean argitaratua)

b) Bizi urte osasuntsuak (BUOn) jaiotzean eta 65 urterekin (BUO_{65})

Herri garatu gehienetan, bizi itxaropenaren behin-behineko bilakaera goranzkoa da; hala ere, horrek ez du esan nahi adierazlea handitu deneko bizi urte guztiak osasun egoera oneko urteak direnik, jendeak gaixotasunak eta osasun arazoak paira ditzakeelako eta hori dela-eta, berehala hil ez arren, bizi kalitatea gal baitaiteke. Horren ondorioz, heriotza-tasak pixkanaka balioa galdu du osasunaren egoeraren adierazle gisa.

Eztabaidatu egiten da ea etorkizunean itxaropenaren hazkundearekin batera gaixotze-tasa ere haziko den, gaitz kronikoek eta buruko gaitzek gora egingo duten, edo bizitza luzeagoa osasun onez igaroko den, medikuntza aurrerapenei eta gaitzen prebentzioari eske. Hori dela-eta, egun ohiko hilkortasun neurriak ez dira nahikoa osasun egoera ebaluatzeko, osasun egoera horretan berehalako hilkortasuna ez dakarten gaitz eta osasun arazo kronikoak ugariak direlako.

Beraz, gaitzak euren ondorioen bidez neurtu behar dira, besteak beste, jarduera ***murrizketaren edo ezintasunaren*** bidez. Beraz, gaitzak euren ondorioen bidez neurtu behar dira, besteak beste, jarduera murrizketaren edo ezintasunaren bidez (BUO). Hilkortasunean eta ezintasunean oinarritua, gaixotasun kronikorik gabeko bizi itxaropena (GKGBI) edo osasun oneko bizi itxaropena (OOBI[11]) egiteak, neurri bakar batean, iraupena ez ezik bizi kalitatea ere laburbiltzea ahalbidetzen du, ezintasunik gabeko bizi itxaropena, etab. direla-eta, neurri bakarrean bildu daiteke, ez bakarrik iraupena, baizik eta bizi-kalitatea ere bai[12].

[11] *BUOrekiko duen diferentzia hauxe da: pertsonek beren osasun egoerari buruz duten irudipen subjektiboagatik haztatzen dira, jarduera egiteko mugagatik izan beharrean.*

[12] *Jardueraren adierazle globaletik dator BUO kalkulatzeko erabilitako jardueraren mugaren neurria (ingeleseko GALI siglak), hain zuzen Europako herrialdeetako osasunari buruzko inkesta gehienetako galdetegietan sartu izan dena. GALI ezintasun subjektiboko indize bakuna da, galdera bakarrean lau dimentsio atzeman nahi dituena: jardueraren mugaren presentzia, jendeak normalean egiten dituen jardueretarako muga denean, baldin eta, muga hori egonik, osasun arazoengatik bada eta gutxienez 6 hilabeteko iraupena badu. Hona hemen 2011ko osasunari buruzko inkestan helduen GALI neurtzeko erabilitako galdera: "Gutxienez azken 6 hilean, zein neurritan egon zara mugatuta jendeak egin ohi dituen jarduerak egiteko osasun arazoa dela-eta?: Larriki mugatuta; Mugatuta baina ez larriki; Mugarik bat ere ez". Informazio horren arabera, edozein muga mailari eta mugari larriari buruzko bi adierazlea osatzen dira. Espainian, galdera hori 2007ko osasunari buruzko nazio inkestako galdetegian sartu zen, eta berriz ere 2011koan.*

X adineko EGBIk x adin horretako pertsona bati hil arte ezintasunik gabe bizitzeko geratzen zaizkion batez besteko urteak adierazten ditu. Kalkulua egiteko, heriotzari buruzko datuez gain, jarduera mugatzeari buruzko datuak behar dira.

Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasun Ministerioak 2017ko ekainean argitaraturiko Osasunaren Sistema Nazionalaren 2016ko Urteko Txostenaren arabera, EAEn nahiz Estatuan, jaiotzako BUO horretan goranzko joera ageri da. 2006 eta 2014 bitartean, 5,3, eta 4 urtetan handitu ziren hurrenez hurren, eta 68,7 eta 66,9 urtetan kokatu ziren.

Horrela, 2014an, seigarren tokian zegoen EAE jaiotzean bizitza osasuntsuko urte gehien zituzten autonomia erkidegoen rankingean, honako hauen atzetik: Aragoi, 72,6 urte; Kantabria, 72,3 urte; Nafarroa, 70,5 urte; Gaztela-Mantxa, 70,1 urte eta Gaztela eta Leon, 69,8 urte. U. Kanariarrak, 58,2 urterekin, eta ondoren Ceuta eta Melilla, 62,5 urterekin eta Asturias, 63,5 urterekin, izan ziren jaiotzean bizitza urte osasuntsuen kopururik txikiena izan dutenak.

Bestalde, 65 urterekin (BUO_{65}), euskaldunek, 2014an, 15,8 urte bizitza osasuntsu izatea espero zuten artean, eta BUO_{65}. gehien dituen autonomia erkidegoa da. 2006tik izandako bilakaera dela-eta, Errioxak, 5,5 urterekin, Gaztela-Mantxa (4,4) eta gure Erkidegoak (3,9) izan zituzten igoerarik handienak BUO_{65} horietan.

V.3.2. TAULA BIZI-ITXAROPEN OSASUNGARRIAREN BILAKAERA JAIOTZEAN (BUOj) ETA 65 URTEREKIN (BI_{65}), 2006-2014

	BUOj		BUO_{65}	
	2014	2006-2014 aldea	2014	2006-2014 aldea
ANDALUZIA	65,5	2,5	10,6	-0,8
ARAGOI	72,6	5,4	13,2	0,4
ASTURIAS	63,5	4,9	11,2	1,2
BALEARRAK	66,0	5,0	11,9	2,2
U. KANARIARRAK	58,2	-5,2	9,3	-2,2
KANTABRIA	72,3	4,5	13,3	0,8
GAZTELA ETA LEON	69,8	1,1	12,3	-0,7
GAZTELA-MANTXA	70,1	2,8	15,6	4,4
KATALUNIA	66,7	6,0	12,7	1,5
VALENTZIAKO E.	66,7	7,3	13,2	2,2
EXTREMADURA	67,8	4,0	11,3	-0,6
GALIZIA	64,8	5,7	11,6	1,5
MADRIL	68,5	1,2	12,9	-0,7
MURTZIA	65,7	5,8	10,9	2,8
NAFARROA	70,5	7,8	13,1	2,2
EAE	**68,7**	**5,3**	**15,8**	**3,9**
ERRIOXA	67,5	8,7	12,6	5,5
CEUTA ETA MELILLA	62,5	9,8	9,2	3,3
ESTATUA	**66,9**	**4,0**	**12,4**	**1,0**

Iturria: Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasun Ministerioa. Osasun Sistema Nazionalaren Urteko Txostena, 2016 (2017ko ekainean argitaratua)

3.1.2. Buruko osasuna. Depresio sintomatologia

Depresioa buruko ohiko gaitza da, eta horren ezaugarri nagusiak tristezia iraunkorra eta pertsonek normalean gozatzen dituzten jarduerekiko interesik eza dira. Horrekin batera, eguneroko jardunak burutzeko ezintasuna izaten da, 14 egunez edo denbora luzeagoz.

Osasunaren Munduko Erakundearen (OME) arabera, depresioa da osasun eta ezintasun arazoen kausa nagusia mundu osoan.

V.3.3. TAULA. 15 URTE ETA GEHIAGOKOEN DEPRESIO SINTOMATOLOGIA AA.EE.EN ARABERA, 2014

	GUZTIRA		GIZONAK		EMAKUMEAK	
	Ez oso larria	Larria	Ez oso larria	Larria	Ez oso larria	Larria
ANDALUZIA	2,9	1,7	2,0	0,9	3,7	2,6
ARAGOI	1,3	1,2	0,7	1,2	2,0	1,2
ASTURIAS	2,5	3,7	0,8	3,3	4,1	4,1
BALEARRAK	2,6	0,7	2,0	0,5	3,1	0,9
U. KANARIAR.	2,2	2,5	2,5	1,5	2,0	3,4
KANTABRIA	2,1	1,4	1,0	1,1	3,1	1,7
GAZTELA ETA LEON	1,0	0,7	0,7	0,1	1,4	1,3
GAZTELA-MANTXA	1,3	0,5	0,5	0,4	2,2	0,5
KATALUNIA	1,8	0,9	1,1	0,6	2,4	1,1
VALENTZIAKO E.	1,3	0,8	0,8	0,7	1,8	0,8
EXTREMADURA	1,1	0,1	0,7	0,0	1,5	0,2
GALIZIA	1,6	0,3	1,3	0,3	1,9	0,3
MADRIL	1,3	0,7	0,8	0,5	1,8	0,9
MURTZIA	2,2	1,0	1,4	0,7	3,0	1,4
NAFARROA	2,3	1,4	2,1	1,1	2,4	1,8
EAE	**1,4**	**0,7**	**1,1**	**0,4**	**1,7**	**1,0**
ERRIOXA	0,8	0,5	0,4	0,4	1,2	0,6
CEUTA ETA MELILLA	0,9	1,3	0,0	0,4	1,9	2,3
ESTATUA	2,1	0,3	1,5	0,0	2,7	0,6
GUZTIRA	**1,8**	**1,1**	**1,2**	**0,7**	**2,4**	**1,4**

Iturria: Osasunaren Europako Inkesta Espainian, 2014, Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasun Ministerioa. Osasun Sistema Nazionalaren Urteko Txostena, 2016 (2017ko ekainean argit.)

Bere zenbatespenen arabera, 300 milioi lagun baino gehiago bizi dira depresioarekin, hain zuzen ere %18tik gorako gehikuntza 2005 eta 2015 bitartean. Buruko gaitzak dituzten pertsonentzako laguntzarik eza eta estigmatuak izateko beldurra direla-eta, askok ezin dute eskuratu bizitza osasuntsuak eta produktiboak izateko behar duten tratamendua.

Osasunaren Europako Inkestak Espainiari buruz emandako datuen arabera (2017ko ekainaren 17an argitaratu zen Osasunaren Sistema Nazionalaren 2016ko Urteko Txostenean bilduak), EAEn, 2014an, %0,7 zen depresio gaitz larria izan zuten 15 urte eta gehiagokoen portzentajea, Estatu osoan izandakoa baino txikiagoa (%1,1). Ez hain gaitz larria dutenak kontuan hartzen baditugu, ratioa %2,1 da, hori ere estatuko batez bestekoaren azpitik (%2,9).

Autonomia erkidegoen arabera, depresio gaitz larria edo ez hain larria izan zuten 15 urte eta gehiagokoen biztanleriaren ratiorik handiena zuen gure Erkidegoak (%2,1), eta ondoren, Madril (%2), Galizia (%1,9), Gaztela-Mantxa (%1,8), Gaztela eta Leon (%1,7), Errioxa (%1,3) eta Extremadura (%1,2) daude, baina zorionez ez zituen izan beste batzuen portzentajeak: Kantabria (%3,5), Nafarroa (%3,7), Andaluzia (%4,6), U. Kanariarrak (%4,7) eta Asturias (%6,2).

V.3.4. TAULA. 15 URTE ETA GEHIAGOKOEN DEPRESIO SINTOMATOLOGIA EZ OSO LARRIA ETA LARRIA 2014 (sexuaren arabera prebalentzia maila handiena duenetik txikienera)

GIZONAK		EMAKUMEAK	
ASTURIAS	4,1	ASTURIAS	8,2
U. KANARIARRAK	4	U. KANARIARRAK	6,3
NAFARROA	3,2	NAFARROA	5,4
ANDALUZIA	2,9	ANDALUZIA	4,8
BALEARRAK	2,5	BALEARRAK	4,4
KANTABRIA	2,1	KANTABRIA	4,2
MURTZIA	2,1	MURTZIA	4,2
ARAGOI	1,9	ARAGOI	4
GUZTIRA	1,9	GUZTIRA	3,8
KATALUNIA	1,7	KATALUNIA	3,5
GALIZIA	1,6	GALIZIA	3,3
VALENTZIAKO E.	1,5	VALENTZIAKO E.	3,2
EAE	**1,5**	**EAE**	**2,7**
MELILLA	1,5	MELILLA	2,7
MADRIL	1,3	MADRIL	2,7
GAZTELA-MANTXA	0,9	GAZTELA-MANTXA	2,7
ERRIOXA	0,8	ERRIOXA	2,6
GAZTELA ETA LEON	0,8	GAZTELA ETA LEON	2,2
EXTREMADURA	0,7	EXTREMADURA	1,8

Iturria: Osasunaren Europako Inkesta Espainian, 2014, Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasun Ministerioa. Osasun Sistema Nazionalaren Urteko Txostena, 2016 (2017ko ekainean argit.)

Sexuen arabera, gizonen prebalentzia emakumeena baino txikiagoa izan zen. EAEn, %2,7 izan zen, 2014an, gaitz larria edo ez hain larria izan zuten 15 urte eta gehiagoko emakumeen portzentajea. Gizonena, berriz, %1,5. Estatuan, %3,8 izan zen lehen kasuan eta %1,9 bigarrenean.

3.1.3. Heriotza-tasa

a) Heriotzak

Heriotza tasa gordina eta umeen heriotza tasa asko erabili ditu nazioarteko komunitateak biztanleriaren osasun adierazle gisa eta, zeharka, garapen sozioekonomikoaren adierazle gisa.

Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasun Ministerioaren arabera, AAEE guztietan[13] murriztu dira heriotza tasak azken urteetan, eta 2015ean, adinaz doituriko 100.000 biztanleko heriotza-tasa txikiagoa da EAEn Estatuko batez bestekoa baino (437,5 eta 461). Beste AAEE batzuekin erkatuta ikusten denez, EAEk emaitza ona du. Hala, Madrilen, Nafarroan, Gaztela eta Leonen eta Errioxan baino ez daude tasa txikiagoak.

Heriotzen zatirik handiena, EUSTATen *"Heriotzen Estatistika"*ren arabera, goranzko joera ageri da, eta handiagoa emakumeen artean. Izan ere, 2016an, batez besteko adina 80 urtetan kokatzen da (76,8, gizonentzat eta 83,4 emakumeentzat).

V.3.2. GRAFIKOA: HERIOTZA-TASA OROKORRA, ADINAZ DOITUA, 1.000 BIZTANLEKO, 2015



Iturria: Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasun Ministerioa

V.3.3. GRAFIKOA. EAE-N HILDAKO PERTSONEN BATEZ BESTEKO ADINAREN (URTEAK) BILAKAERA



Iturria: Eustat. Heriotzen Estatistika

Heriotzetako asko adin handienetako tarteetan gertatzen dira, prebentzioan eta gaitzen tratamenduan egindako aurrerapenen ondorioz.

---

[13] *Tasa gordina populazioaren gaineko esperientziaren laburpen erarik errazena eta zuzenena da. Heriotza-tasa orokorrak oso lotura estua du adinarekin, halako moldez non oso ezberdinak izango baitira adinaren araberako heriotza-tasa espezifikoak. Tasa gordinak sortzen duen "batez besteko balio" horren atzean, adin-estratuaren araberako heriotza-tasa espezifikoen heterogeneotasuna dago.*
Gaia bereziki garrantzitsua da biztanlerien edo epealdi desberdinen arteko tasak erkatzen direnean, zeren eta, biztanlerien osaera ezberdina bada, balizko ezberdinen zati bat behintzat estratuen arteko aldeengatik izan baitaiteke.
"Doikuntza" eta "estandarizazio" terminoak erabiltzen dira, biak ala biak, laburpen-neurriak taldeen artean erkatzeko modua errazteko; hartara, talde artifizialak egiten dira prozedura matematikoen bidez.
Hala, adinaren araberako heriotza-tasa estandarizatua (HTE) lurralde batean erregistraturiko heriotza kopuruari dagokio (100.000 biztanleko adierazita) heriotza tasaren arabera, sexuka eta adinka banatuta, eta biztanleria tipo edo estandarreko adinen araberako egitura erabiliz.
Zuzeneko estandarizazio deritzon metodo horrek heriotza tasen batez besteko haztatua kalkulatzen du adin-taldeen arabera, non haztapen-koefizientea erreferentzia estandarreko biztanleria den.

2016. urtean, heriotzen %65,3 80 urtetik gorakoen artean gertatu zen, aurreko urteko ratio bera hain zuzen ere. Hala, 80-89 urtekoen taldeko heriotza kopurua 8.16 da5; 90-99 urtekoetan, 5.394; 99tik gorakoetan, berriz, 294 (emakumeen artean %84,4 zen).

Heriotzaren eragileak direnaz bezainbatean, hainbat estatistika-iturritan ageri denez, EAEn nahiz gure ingurune sozioekonomikoko herrialdeetan, heriotzarik gehienak transmititzen ez diren eritasunen ondorioz gertatzen dira, gehienbat gaixotasun kardiobaskularrek eta tumoreek eraginda. Berez, EUSTATen datuen arabera, 2007tik hasita, heriotza gehienak tumoreen ondoriozkoak izan dira eta zirkulazio sistemako gaixotasunen ondoriozkoak ondoren, aurreko urteetan ez bezala; zirkulazio sistemako gaixotasunek eragiten zuten heriotza gehien. 2016an, heriotza guztien %29,8 ziren tumoreek eragindakoak, eta zirkulazio-aparatuaren gaixotasunena, berriz, %27. Hirugarren tokian, arnasa-aparatuko eritasunak ageri dira (guztizkoaren %9,7).

V.3.5. TAULA. HERIOTZEN BILAKAERA ADINIK HANDIENEKO TARTEETAN, EAE-N

Adina	2012	2013	2014	2015	2016
GUZTIRA	20.281	19.692	20.157	21.509	21.222
>=80	12.462	12.128	12.675	14.047	13.853
80-89	7.845	7.569	7.830	8.509	8.165
90-99	4.328	4.291	4.519	5.194	5.394
100-109	289	267	323	344	294
>=110	0	1	3	0	0
>=80 guztizkoarekiko (%)	61,4	61,6	62,9	65,3	65,3

Iturria: EUSTAT. Heriotzen Estatistika

Azkenik, nerbio sistemaren eritasunak daude, %6,8arekin. Azken hamarkadan, aldaketak izan dira. Izan ere, tumoreek eragindako heriotzetan igoera izan da, %13,3 hain zuzen; gaixotasun kardiobaskularrek eragindakoek, berriz, %2 egin dute gora, arnas aparatuenak %18,2 eta nerbio sistemarenak %52,9.

V.3.6. TAULA. HERIOTZAK KASUAREN ARABERA

	EAE									
	2008	2009	2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016 (bb)	
									n	%
Guztira	**19.437**	**19.624**	**19.357**	**19.832**	**20.281**	**19.692**	**20.157**	**21.509**	**21.222**	
Tumoreak	5.811	5.950	6.021	6.261	6.149	6.143	6.360	6.379	6.320	29,8
Zirkulazio sistema	5.692	5.799	5.675	5.655	5.736	5.408	5.388	5.788	5.727	27,0
Arnas sistema	1.941	1.841	1.691	1.758	1.915	1.869	1.868	2.119	2.055	9,7
Digestio sistema	979	940	898	946	956	942	948	677	933	4,4
Kanpoko kasuak (Nerbio sist.)	711	677	653	683	715	740	1.291	976	784	3,7
Gainerako eritasunak	4.303	4.417	4.419	4.529	4.810	4.590	4.302	5.570	5.403	25,5
Heriotza kausarik ohikoenen arteko ehunekoen banaketaren bilakaera:										
Tumoreak	29,9	30,3	31,1	31,6	30,3	31,2	31,6	29,7		29,8
Zirkulazio sistema	29,3	29,6	29,3	28,5	28,3	27,5	26,7	26,9		27,0

(bb) Behin-behineko datuak.
Iturria: EUSTAT. Heriotzen estatistika.

b) Heriotza goiztiarra. Galdutako balizko bizitza urteak (GBBU)

GBBU neurri ona da osasun publikoan, heriotzak gazteenen heriotzak eragindako inpaktua islatzeko eta, hala, heriotzak ahal den neurrian saihestu ahal izateko.

Zenbait irizpide komun dituzten eta behaketa epidemiologiko prospektibo baten barruan dauden pertsonen talde batekin egiten da, behar baino lehen hildako (70 urte bete baino lehen) pertsonek bizi ez dituzten bizitza-urteak oinarri hartuta (heriotza gertatu deneko adinaren eta 70 urteko adinaren arteko diferentziatik metaturiko batura).

Eusko Jaurlaritzaren Osasun Sailaren arabera, hona hemen gizonetan heriotza goiztiarraren bost kausa nagusiak (2008-2016ko datuak): trakea, bronkio eta birikako minbizi gaiztoa, kardiopatia iskemikoak, suizidioak eta nork bere buruari eragindako zauriak, motordun ibilgailuen trafiko istripuak eta zirrosia eta gibelaren gaixotasun kronikoak. Ondoren, bestelako kausak ditugu hala nola burmuin eta hodietako eritasunak eta piskofarmakoek eta drogek eragindako

nahigabeko pozoitzeak. Bestalde, gibelarekin lorturikoak (zirrosia eta gibelaren gaixotasun kronikoak) aurreko urteetan baino gutxiago izan dira.

Emakumeen kasuan, epe bera aztertuta, ikusten da hilkortasuneko hiru kausa nagusiak hauek izaten direla: bularreko tumore gaiztoak; trakeako, bronkioetako eta birikako tumore gaiztoak eta suizidioak eta autolesioak. Gaixotasun zerebrobaskularrak edo zirrosia ez dira aurreko urteetan bezain ohikoak izan eta, aldiz, antzeman da emakumeen hilkortasun goiztiarra areagotu egin dela koloneko, obarioko eta enzefaloko tumore gaiztoengatik.

V.3.7. TAULA. GALDUTAKO BALIZKO BIZITZA URTEAK, SEXURAEN ETA KAUSA NAGUSIEN ARABERA EAE-N *(Tasa estandarizatuak adinaren arabera)*

Gizonak 2008		**Emakumeak 2008**	
	Tasa		**Tasa**
Trakea, bronkio eta birikako minbizi gaiztoak	4,74	Bularreko tumore gaiztoa	2,15
Kardiopatia iskemikoa	2,93	Trakea, bronkio eta birikako minbizi gaiztoak	1,67
Suizidioak eta nork bere buruari eragindako zauriak	2,18	Gaixotasun zerebrobaskularrak	0,82
Motordun ibilgailuen trafiko istripuak	2,47	Suizidioak eta nork bere buruari eragindako zauriak	0,78
Zirrosia eta gibelaren eritasun kronikoak	1,45	Zirrosia eta gibelaren eritasun kronikoak	0,55
Gaixotasun zerebrobaskularrak	1,04	Koloneko tumore gaiztoa	0,52
Gizonak 2010		**Emakumeak 2010**	
Trakea, bronkio eta birikako minbizi gaiztoak	4,01	Trakea, bronkio eta birikako minbizi gaiztoak	1,86
Kardiopatia iskemikoa	3,06	Bularreko tumore gaiztoa	1,66
Suizidioak eta nork bere buruari eragindako zauriak	1,84	Koloneko tumore gaiztoa	0,63
Motordun ibilgailuen trafiko istripuak	2,05	Gaixotasun zerebrobaskularrak	0,67
Zirrosia eta gibelaren eritasun kronikoak	1,50	Zirrosia eta gibelaren eritasun kronikoak	0,49
Ezpain, aho eta faringeko tumore gaiztoa	0,84	Umetokiko tumore gaiztoa	0,48
Gizonak 2012		**Emakumeak 2012**	
Trakea, bronkio eta birikako minbizi gaiztoak	3,76	Bularreko tumore gaiztoa	1,85
Kardiopatia iskemikoa	2,82	Trakea, bronkio eta birikako minbizi gaiztoak	1,51
Suizidioak eta nork bere buruari eragindako zauriak	1,98	Suizidioak eta nork bere buruari eragindako zauriak	0,61
Zirrosia eta gibelaren eritasun kronikoak	1,39	Gaixotasun zerebrobaskularrak	0,49
Motordun ibilgailuen trafiko istripuak	1,39	Motordun ibilgailuen trafiko istripuak	0,72
Psikofarmakoek eta abusuzko drogek nahigabe eragindako pozoitzea	1,05	Urdaileko tumore gaiztoa	0,41
Gizonak 2014		**Emakumeak 2014**	
Trakea, bronkio eta birikako minbizi gaiztoak	3,67	Bularreko tumore gaiztoa	1,84
Kardiopatia iskemikoa	2,69	Trakea, bronkio eta birikako minbizi gaiztoak	1,62
Suizidioak eta nork bere buruari eragindako zauriak	2,18	Suizidioak eta nork bere buruari eragindako zauriak	1,08
Koloneko tumore gaiztoa	1,01	Koloneko tumore gaiztoa	0,71
zirrosia eta gibelaren eritasun kronikoak	0,94	Umetokiko tumore gaiztoa	0,59
Gaixotasun zerebrobaskularrak	0,82	Pankreako tumore gaiztoa	0,53
Gizonak 2015		**Emakumeak 2015**	
Trakea, bronkio eta birikako minbizi gaiztoak	3,04	Trakea, bronkio eta birikako minbizi gaiztoak	1,86
Kardiopatia iskemikoa	2,21	Bularreko tumore gaiztoa	1,53
Suizidioak eta nork bere buruari eragindako zauriak	2,59	Suizidioak eta nork bere buruari eragindako zauriak	0,79
Koloneko tumore gaiztoa	1,74	Koloneko tumore gaiztoa	0,58
zirrosia eta gibelaren eritasun kronikoak	0,88	Entzefaloko tumore gaiztoa	0,70
Gaixotasun zerebrobaskularrak	0,97	Umetokiko tumore gaiztoa	0,46
Gizonak 2016		**Emakumeak 2016**	
Trakea, bronkio eta birikako minbizi gaiztoak	3,40	Bularreko tumore gaiztoa	1,75
Kardiopatia iskemikoa	2,41	Trakea, bronkio eta birikako minbizi gaiztoak	1,45
Suizidioak eta nork bere buruari eragindako zauriak	2,08	Suizidioak eta nork bere buruari eragindako zauriak	0,88
Motordun ibilgailuetako trafiko istripuak	1,46	Umetokiko tumore gaiztoa	0,57
Gaixotasun zerebrobaskularrak	0,92	Koloneko tumore gaiztoa	0,49
Drogen nahigabe eragindako pozoitzea	0,90	Pankreako tumore gaiztoa	0,44

Iturria: Heriotzen Erregistroa. Plangintza, Antolamendu eta Osasun Ebaluazioko Zuzendaritza. Osasun Saila

3.2. OSASUN FAKTORE ERABAKIGARRI EZ MEDIKOAK

Arestian aipatu bezala, osasun sistemak eta gaixotasunerako arretak bakarrik ez, gizarte sistemak, faktore biologikoek eta ingurune fisikoak ere badute eragina pertsonen osasunean.

Elikadura orekatua eta bestelako ohitura osasungarriak (esaterako, ariketa fisikoa, beharrezko ordu kopurua lo egitea, tabakorik ez erretzea, edari alkoholdunak neurrian hartzea, besteak beste) lagungarriak dira gaitz ugariren kontrako aurrezaintzan (bihotz-hodietakoak, minbizi motaren bat, obesitatea, metabolismo gaitzak, txantxarra, osteporosia eta immunitate sistemaren zenbait gaitz).

Aldi berean, OMEren arabera, osasuna "erabateko ongizate fisikoa, mentala eta soziala da, ez bakarrik minik edo gaitzik ez izatea", eta buruko ongizatearen osagaiarekin zuzenean edo zeharka loturiko jarduera-sorta zabala hartzen du bere gain buruko osasunak; izan ere, ongizatearen sustapenarekin, buruko gaitzen aurrezaintzarekin eta gaitz horrek ukituriko pertsonen tratamenduarekin eta errehabilitazioarekin du zerikusia.

Horren guztiaren ondorioz, bizitzeko ohiturak, hots, norberaren jokabideak eta jarrerak erabakigarriak izango dira osasunean, horiek guztiak osasuntsuak izatearen arabera.

EAEn, estatistika ofizialaren barruan, hiru informazio iturri daude, gure gizarte eta osasun errealitatearen ezaugarriak aztertzen dituztenak, eta bost urtean behin argitaratzen dira. Horien artean, osasun inkestak aipa daitezke.

EAEren 2013ko Osasun Inkestaren (EAEOI) [14] emaitzak Memoria honen aurreko edizioetan bildu ziren. 2013ari dagokionez: alkoholaren eta tabakoaren kontsumoa, eta 2014koan: antsietate eta depresio sintomen prebalentzia, elikadura ohiturak eta gorputzaren masa-indizea, gain-pisua eta obesitatea.

Edizio honetan, Osasunaren Europako Inkestak (2014)[15] Espainian izan dituen emaitzak oinarri hartuta, azterketa konparatua egingo dugu. Izan ere, emaitza horiek Osasun Sistema Nazionalaren Urteko Txostenean daude jasota (2017ko ekainean argitaratua).

V.3.8. TAULA. 15 URTE ETA GEHIAGOKOEN EGUNEROKO TABAKO KONTSUMOAREN PREBALENTZIA, AA.EE.EN ARABERA, 2014

	TABAKOA		
	Sexu biak	Gizonak	Emakumeak
ANDALUZIA	24,4	20,0	19,9
ARAGOI	23,9	27,6	20,4
ASTURIAS	19,1	21,9	16,6
BALEARRAK	23,0	29,3	16,9
U. KANARIARRAK	22,7	29,5	16,0
KANTABRIA	21,4	25,5	17,5
GAZTELA ETA LEON	21,6	25,8	17,5
GAZTELA-MANTXA	23,4	28,2	18,6
KATALUNIA	23,7	29,8	17,8
VALENTZIAKO E.	22,0	26,4	17,7
EXTREMADURA	25,6	31,8	19,5
GALIZIA	19,1	23,7	14,9
MADRIL	23,2	25,5	21,1
MURTZIA	25,6	27,7	23,5
NAFARROA	23,2	27,7	18,8
EAE	**22,8**	**28,5**	**17,4**
ERRIOXA	21,8	25,7	17,9
CEUTA	22,8	27,4	17,6
MELILLA	15,3	19,7	11,4
GUZTIRA	**23,0**	**27,6**	**18,6**

Iturria: Osasunaren Europako Inkesta Espainian, 2014, Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasun Ministerioa. Osasun Sistema Nazionalaren Urteko Txostena, 2016 (2017ko ekainean argit.)

a) Helduen tabako kontsumoa

Osasunaren Europako Inkestaren Espainiako datuen arabera (2014), EAEn, urte berean, 15 urte eta gehiagokoen %22,8k egunero erretzen zuen, Estatuan baino portzentaje txikiagoa (%23).

Sexuen arabera, egunero erretzen zuten gizonen portzentajea handiagoa zen emakume erretzaileena baino, bai gure Erkidegoan (%28,5 eta %17,4), bai Estatuan (%27,6 eta %18,6).

Datuek erakusten dutenez, EAEko tabakoaren eguneroko kontsumoaren prebalentzia txikiagoa -Estatukoarekin alderatuta- gertatzen da euskal emakumeen kontsumoaren prebalentzia txikiagoa delako Estatuko emakumeen batez

[14] *5 urterik behin argitaratzen da.*

[15] *Azken eskuragarria.*

bestekoaren aldean (%17,4 eta %18,6), zeren eta euskal gizonen kontsumoa handiagoa izan baitzen (%28,5 EAEn eta %27,6 Estatuan).

Alabaina, sexuaren araberako azterketa eginez gero ikusiko dugunez, gizonek bosgarren prebalentziarik handiena dute, hauexen atzetik Extremadura (%31,8), Katalunia (%29,8), U. Kanariarrak (%29,5) eta Balearrak (%29,3).

Autonomia erkidegoen arabera, EAEk erdiko posizioa zuen autonomia erkidegoen rankingean, eta egunero tabakoa kontsumitzen dutenen ratiorik handienak Extremaduran eta Murtzian (bietan %25,6), Andaluzian (%24,4) eta Aragoin (%23,9) daude, eta txikienak, %21etik behera, Melillan, Galizian eta Asturiasen.

V.3.9. TAULA. 15 URTE ETA GEHIAGOKOEN EGUNEROKO TABAKO KONTSUMOAREN PREBALENTZIA, AA.EE.EN ARABERA (alkoholdun edarien kontsumoa azken 12 hilean)

	Sexu biak	Gizonak	Emakumeak
ANDALUZIA	64,1	77,4	51,3
ARAGOI	73,4	81,4	65,6
ASTURIAS	72,7	84,3	62,2
BALEARRAK	71,6	77,4	65,8
U. KANARIARRAK	59,2	69,4	49,4
KANTABRIA	77,0	86,4	68,0
GAZTELA ETA LEON	64,1	77,2	51,3
GAZTELA-MANTXA	62,6	74,8	50,4
KATALUNIA	71,1	79,2	63,5
VALENTZIAKO E.	71,6	80,3	63,2
EXTREMADURA	64,3	79,7	49,3
GALIZIA	68,7	78,4	59,6
MADRIL	63,3	73,0	54,6
MURTZIA	67,2	72,9	61,6
NAFARROA	66,5	78,4	54,7
EAE	**76,6**	**84,2**	**69,6**
ERRIOXA	60,6	71,7	49,8
CEUTA	38,7	46,3	30,1
MELILLA	38,	47,6	31,1
GUZTIRA	**67,3**	**77,5**	**57,7**

Iturria: Osasunaren Europako Inkesta Espainian, 2014, Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasun Ministerioa. Osasun Sistema Nazionalaren Urteko Txostena, 2016 (2017ko ekainean argit.)

b) Helduen alkohol kontsumoa

Osasunaren Europako Inkestako Espainiako 2014ko datuen arabera, 15 urte eta gehiagokoen %76,6k alkohola edan zuen inoiz aipaturiko urtean. Hala, gure Erkidegoak alkoholdun edarien bigarren kontsumo tasarik handiena zuen, Kantabriaren atzetik (%77), eta Estatuko batez bestekoa baino 9,3 gehiago zituen (%67,3). Tasarik txikienak Ceutan (%38,7), Melillan (%38,9), U. Kanariarretan (%59,2) eta Errioxan (%60,6) ageri ziren.

Sexuen arabera, edaten zuten gizonen portzentajea emakumeena baino handiagoa zen, bai gure Erkidegoan (%84,2 eta %69,6), bai Estatuan (%77,5 eta %57,7).

Gainerako autonomia erkidegoen aldean, nabarmentzekoa da euskal emakumeen kontsumo handia, prebalentziarik handiena baitzuten (%69,6), eta ondoren Kantabriako emakumeak (%68), Balearretakoak (%65,8) eta Aragoikoak (%65,6) zeuden.

Bestalde, euskal gizonek hirugarren prebalentziarik handiena zuten (%84,2), eta atzetik zeuden kantabriarrak (%86,4) eta asturiarrak (%84,3).

Osasun Sistema Nazionalaren 2016ko Urteko Txostenaren arabera, Estatu osoko datu hauek ditugu:

- Sexuaren araberako aldeak ikusten dira adin guztietan, baina txikiagoak dira gazteenen artean.
- Edaleen prebalentzian sexuen arabera dauden aldeek hezkuntza eta lan arloko gradienteekin dute zerikusia. Kontsumoaren prebalentzia handiagoa da gradienterik handienetan, batez ere emakumezkoetan. Goi mailako ikasketak dituzten emakumeen %74,9k alkohola edan zuten azken urtean. Oinarrizko ikasketak edo txikiagoak dituzten emakumeen portzentajea, berriz, txikiagoa da, %45,2 hain zuzen: adin-talde guztietan ageri da aldea.

c) Helduen obesitatea eta gain-pisua

Obesitatea (30 kg/m2-ko gorputz-masaren indizea edo handiagoa) osasun arazo eta egoera kroniko askoren arrisku faktore nagusienetakoa da, eritasun hauek barne: bihotzekoa, zerebrobaskularra, diabetes mellitusa, la hipertentsio arteriala eta minbizi mota batzuk.

Osasunaren Europako Inkestako Espainiako datuen arabera, gure Erkidegoan, 18 urte eta gehiagokoen %13k obesitatea zeukan 2014. urtean (Estatuko batez bestekoa baino %3,9 gutxiago -%16,9-). Autonomia erkidegoen rankingean, bigarren obesitate-tasarik txikiena zeukan. Soilik Nafarroak zuen tasa txikiagoa (%11,7). Ratiorik handienak Galizian, Andaluzian eta Gaztela-Mantxan ageri dira.

V.3.10. TAULA. 15 URTE ETA GEHIAGOKOEN OBESITATEAREN ETA GAINPISUAREN PREBALENTZIA, AA.EE.EN ARABERA , 2014

	GUZTIRA		GIZONAK		EMAKUMEAK	
	Gainpis.	Obesitatea	Gainpis.	Obesitatea	Gainpis.	Obesitatea
ANDALUZIA	37,1	19,9	44,6	19,4	29,7	20,4
ARAGOI	38,2	16,6	48,5	18,6	27,4	14,5
ASTURIAS	37,9	18,6	49,5	16,0	27,3	21,0
BALEARRAK	33,4	13,2	42,3	13,8	24,4	12,7
U. KANARIARRAK	35,4	19,3	43,7	19,6	27,1	18,9
KANTABRIA	37,0	15,1	42,7	17,7	31,7	12,6
GAZTELA ETA LEON	37,1	15,5	45,9	16,4	28,4	14,5
GAZTELA-MANTXA	35,3	19,7	40,0	19,2	30,6	20,2
KATALUNIA	35,3	15,0	43,9	15,1	26,7	14,9
VALENTZIAKO E.	36,5	17,3	43,3	15,9	29,8	18,6
EXTREMADURA	37,8	16,8	43,5	18,9	31,6	14,5
GALIZIA	38,0	20,7	46,4	20,7	29,6	20,6
MADRIL	31,9	14,6	39,8	15,9	24,8	13,4
MURTZIA	37,9	17,3	44,6	18,9	31,1	15,7
NAFARROA	37,1	11,7	47,2	13,2	26,9	10,3
EAE	**33,4**	**13,0**	**40,4**	**14,2**	**26,8**	**11,9**
ERRIOXA	34,9	14,4	43,6	15,7	26,1	13,1
CEUTA	35,0	18,2	47,9	15,0	20,5	21,8
MELILLA	46,8	19,4	59,0	16,2	36,3	22,2
GUZTIRA	**35,7**	**16,9**	**43,6**	**17,1**	**28,1**	**16,7**

gain-pisua (25 KG/M2 <=GMI < 30 KG/M2)
OBESITATEA (GMI >= 30 KG/M2)
Iturria: Osasunaren Europako Inkesta Espainian, Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasun Ministerioa. Urteko Txostena, 2016 (2017ko ekainean argit.)

gain-pisua ere aintzat hartuz gero, %46,4k obesitatea edo gain-pisua zuen (Estatuko batez bestekoa baino 6,2 puntu portzentual gutxiago -%52,6-). EAEk zuen tasarik txikiena, eta ondoren Madril (%46,5), Balearrak (%46,6) eta Nafarroa (%48,8) zeuden. Ratiorik handienak Melillan, Galizian eta Andaluzian daude.

Sexuaren arabera, euskal gizonen %14,2k obesitatea zeukan eta emakumeena, berriz, %11,9koa zen. gain-pisua ere kontsideratuz gero, %54,6 eta %38,7 ditugu.

Bilakaeraren aldetik, Osasun Sistema Nazionalaren 2016ko Urteko Txostenaren arabera, 2001 eta 2014 bitartean, obesitatearen prebalentziak, EAEn, %4,4ko igoera izan zuen. 2001ean, 18 urte eta gehiagoko euskal herritarren %8,7k zeukan 30 kg/m2-ko edo handiagoko gorputz-masaren indizea. 2014an, berriz, %13 zen. Epealdi berean, gora egin zuen obesitatearen prebalentziak Estatuan: %13,2tik %16,9ra (+3,7 puntu portzentual).

3.3. OSAKIDETZAREN LAGUNTZA JARDUERA

a) Baliabideak erabiltzea: Batez besteko egonaldia eta txandakatze-indizea

Batez besteko egonaldia eraginkortasuneko adierazletzat hartzen da, jardunbide kliniko erabakigarriaren garapenarekin lotutakoa. Hala, batez besteko egonaldia murrizteak, txandakatze-indizea haztearekin batera, ospitalizazio-arloko produktibitatea handiagoa dela adierazten du.

Osakidetzak emandako datuen arabera, 2016an, batez besteko egonaldiak 5 egunekoa izateari eusten dio. Batez bestekoaren oso gainetik daude errehabilitazioa (33,9), psikiatria (14,2) eta zainketa aringarriak (13,8).

Bestalde, sareko batez besteko okupazio-indizea globalak behera egin zuen 2015ekoaren aldean, eta %77an kokatzen da. Aurreko urtean, berriz, %78,8 izan zen. Hotsa, eskaria pixka bat jaitsi egin da.

Hala, % 100a gainditzen da eta, beraz, berriz ere kokatzen dira batez besteko horren gainetik, zerbitzu medikoetan, honako espezialitateak: pneumologia (%148,4), barne medikuntza (%122,53) eta digestio-aparatua (%104,3); eta kirurgiako zerbitzuetan: Kirurgia kardiobaskularra (%114,2) eta urologia (%103,9). %100aren azpitik baina batez

bestekoaren gainetik ditugu gainerako zerbitzu medikoak, eta kirurgiako gainerako zerbitzuak, kirurgia plastikoa (%60,7), kirurgia baskularra (%696) eta kirurgia orokorra (%72,4).

V.3.11. TAULA. BALIABIDE PUBLIKOEN ERABILERA ESPEZIALITATEEN ARABERA (BATEZ BESTEKO EGONALDIA ETA OKUPAZIO INDIZEA) OSAKIDETZAN

ZERBITZUAK	Batez besteko egonaldia (egunak)								Okupazio indizea (%)							
	2009	2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2009	2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016
MEDIKUNTZA ZERBITZUAK																
Barne medikuntza	8,1	8,1	8,2	7,9	7,6	7,2	7,1	6,9	97,8	97,2	112,2	125	124,3	121,4	125,3	122,5
Kardiologia	5,3	4,9	4,7	4,7	4,8	4,7	4,6	4,4	90	80,3	92,1	97,1	96,2	94,4	93,3	87,7
Digestio apar.	7,2	7,3	7,2	7,2	7,2	6,8	6,8	6,5	119,9	104,6	112,2	111,6	110,4	108,7	107,0	104,3
Hematologia	10,1	10,1	8,8	9,3	10,2	9,5	8,5	7,7	92,9	90,7	81,7	86,5	96,7	89,4	86,2	77,8
Pneumologia	6,6	6,5	6,4	6	5,6	6,0	6,1	5,9	91,6	90,1	127,3	139,9	128,9	139,0	156,9	148,4
Psikiatria	15,5	15,1	14,3	15	14,5	14,6	14,0	14,2	94,7	90,1	141	109,4	100,3	98,8	98,1	99,0
Errehabilitazioa	28	29,3	29,3	27,9	26,9	29,4	32,9	33,9	82,7	75,9	91,9	83,5	76,5	76,3	80,5	84,5
Zaintza aringarriak	15,4	15	14	12,7	14,0	13,6	13,4	13,8	81,6	78,8	87,5	71,2	86,7	88,9	92,2	92,0
KIRURGIA ZERBITZUAK																
Kirurgia orok.	4,9	4,6	4,3	4,3	4,1	3,9	3,7	3,6	62,7	69,5	81	83,5	82,5	79,3	75,0	72,4
Kirurgia plast.	5,4	5,3	4	4,1	4,3	4,3	3,7	3,6	67,5	66,4	57,8	49,9	58,2	62,7	56,1	60,7
Kirurgia kard.	4,3	3,9	4	3,8	3,6	4,1	3,9	4,2	91,2	90,5	90	93,2	84,9	111,6	108,3	114,2
Kirurgia bask.	6,1	5,5	4,9	5,3	5,0	4,8	4,4	4,9	75,8	71,5	71,7	78,6	76,7	69,4	65,2	69,6
Toraxeko kir.	4,4	4,7	4,4	4,2	3,9	4,1	4,2	4,1	77,1	79,6	78,6	74,8	72,0	78,0	81,0	91,6
Neurokirurgia	6,5	6,3	6,1	5,9	5,1	5,1	5,1	5,0	89,1	80,9	86,6	84,9	82,3	87,0	86,5	84,1
Traumatologia	5,4	5	4,5	4,4	4,4	4,3	4,2	4,1	78,4	75,3	82,2	83,5	86,6	87,1	83,4	83,0
Urologia	4,5	4,2	4	3,9	4,0	3,9	3,8	3,8	84	79,8	95,3	93,9	103,8	101,8	103,2	103,9
GLOBALA	**5,8**	**5,6**	**5,5**	**5,4**	**5,23**	**5,1**	**5,0**	**5,0**	**81,1**	**79,6**	**79,8**	**79,14**	**77,8**	**77,7**	**78,8**	77,0

Iturria: Osakidetza, Akutuen Ospitalea + Egonaldi Ertain eta Luzeko Ospitaleak

b) Itxaronzerrendak kanpoko kontsultetan eta kirurgia programatuan

Kopuru absolutuetan, kanpoko kontsultetako itxaronzerrendetako pazienteen kopuruak gora egin zuen, 91.124tik 97.709ra. Zerrendetan paziente kopururik handiena duten espezialitateak, 2016an, berriz ere aurreko urteetako berdinak dira, eta ordena berean: traumatologia (18.152), oftalmologia (13.81), dermatologia (11.438), errehabilitazioa (8.734) eta ginekologia (6.509).

V.3.12. TAULA. KANPOKO KONTSULTEN ITXARONZDERRENDAK (paziente gehien dituzten espezialitateak) OSAKIDETZAN

	Paziente kop.						Aldakuntzak (%)				
	2011	2012	2013	2014	2015	2016	11-12	12-13	13-14	14-15	15-16
Alergologia	2.107	2.554	2.507	3.380	2.712	3.026	21,2	-1,8	34,8	-19,8	11,6
Kardiologia	2.842	2.659	2.542	2.822	2.954	3.094	-6,4	-4,4	11,0	4,7	4,7
Dermatologia	12.094	13.303	13.429	11.537	9.941	11.438	10,0	1,0	-14,1	-13,8	15,1
Digestio aparatua	3.931	4.019	3.396	3.410	3.146	3.212	2,2	-15,5	0,4	-7,7	2,1
Endokrinologia	1.780	2.247	1.809	2.148	1.518	1.876	26,2	-19,5	18,7	-29,3	23,6
Neurologia	4.388	4.690	4.224	3.467	3.551	3.833	6,9	-9,9	-17,9	2,4	7,9
Errehabilitazioa	4.806	5.017	4.956	6.325	7.255	8.734	4,4	-1,2	27,6	14,7	20,4
Kirurgia orokorra	3.108	2.371	2.839	2.787	2.422	2.805	-23,7	19,7	-1,8	-13,1	15,8
Oftalmologia	14.735	15.367	12.543	12.381	13.293	13.813	4,3	-18,4	-1,3	7,4	3,9
ORL-otorrinolaringologia	5.561	4.968	3.973	4.393	5.920	5.919	-10,7	-20,0	10,6	34,8	0,0
Traumatologia	13.514	14.179	16.169	18.232	18.360	18.152	4,9	14,0	12,8	0,7	-1,1
Urologia	3.381	3.307	3.761	2.835	2.922	3.573	-2,2	13,7	-24,6	3,1	22,3
Ginekologia	9.523	8.728	6.671	6.133	6.102	6.509	-8,9	-23,6	-8,1	-0,5	6,7
Beste batzuk	11.334	11.598	10.470	11.741	11.028	11.725	2,3	-9,7	12,1	-6,1	6,3
GUZTIRA	**93.104**	**95.007**	**89.289**	**91.591**	**91.124**	**97.709**	**2,0**	**-6,0**	**2,6**	**-0,5**	**7,2**

Iturria: Osakidetza, Akutuen Ospitalea + Egonaldi Ertain eta Luzeko Ospitaleak

Berandutze aldiari dagokionez, 2015 eta 2016 artean hilabetetik gora itxaroten duten biztanleen portzentajea %39,3 da (aurreko urteko antzeko ratioa. Gainerako %60,7ak hilabete baino gutxiago itxaroten du.

V.3.13. TAULA. KANPOKO KONTSULTEN ITXARONZERRENDAK ETA BERANDUTZE-DENBORAK (%) OSAKIDETZAN

	2011	2012	2013	2014	2015	2016
< hilabete	68,2	66,5	63,9	61,8	60,6	60,7
> hilabete	31,9	33,5	36,2	38,2	39,4	39,3

Iturria: Osakidetza, Akutuen Ospitalea + Egonaldi Ertain eta Luzeko Ospitaleak

Datu horiek eta *Osasun Sistema Nazionalaren itxaronzerrendei buruzko Informazio Sistemak (SISLE-OSN)* ematen dituen datuak alderatzen baditugu oinarrizko espezialitateetan eta 2016ko datuekin, hauxe ikusiko dugu: itxaronzerrendan 1.000 biztanleko dauden pazienteen kopurua txikiagoa da EAEn Estatuan baino espezialitateotan, baina oso hurbil dago hauexetan: Ginekologian (2,8 eta 2,9), Kardiologian (1,4 eta 1,5), ORLn (2,6 eta 2,9) eta Traumatologian (7,9 eta 8,2. Gainerako oinarrizko espezialitateetan, handiagoa da EAEren aldeko diferentzia (paziente gutxiago itxaronzerrendetan): Oftalmologia (6 eta 8,1), Dermatologia (5 eta 6,1), Digestio aparatua (1,4 eta 2,4), K. Orokorra eta Digestio A. (1,2 eta 1,9), Neurologia (2,6 eta 2,9), Urologia (1,6 eta 2).

Artatuak izateko hilabetetik gora itxaroten duten pazienteen ehunekoari dagokionez, nahiz eta adierazleak zuzenean ezin konpara daitezkeen, badirudi agerian uzten dutela Estatuko egoera ez dela hain ona. Izan ere, 60 egunetik gorako itxaronaldirako egiten da neurketa, eta hori baino denbora luzeagoa itxaroten duten pertsonen ehunekoa %40tik gorakoa da, are gehiago, eta batez besteko globala %46,4 izan da.

V.3.14. TAULA. OINARRIZKO ESPEZIALITATEETAKO KANPOKO KONTSULTEN ITXAROENZERRENDEN EGOERA OSAKIDETZAN ETA OSASUN SISTEMA NAZIONALEAN

	2015				2016			
	Osasun sistema nazionalean (OSN) (2)			OSAKIDETZA (1)	Osasun sistema nazionalean (OSN) (2)			OSAKIDETZA (1)
	Osasun txartela duten pazienteen kop. 1.000 biztanleko	60 urtetik gorako data ezarrita dutenen %	Batez besteko egonaldia (egunak)	Osasun txartela duten pazienteen kop. 1.000 biztanleko	Osasun txartela duten pazienteen kop. 1.000 biztanleko	60 urtetik gorako data ezarrita dutenen %	Batez besteko egonaldia (egunak)	Osasun txartela duten pazienteen kop. 1.000 biztanleko
Guztira	43,4	42,4	58	39,7	45,7	46,4	72	42,7
Ginekologia	2,7	42,5	58	2,7	2,9	45,5	71	2,8
Oftalmologia	7,2	47,2	68	5,8	8,1	54,2	90	6,0
Traumatologia	7,5	53,4	61	8,0	8,2	55,1	82	7,9
Dermatologia	5,4	44,6	58	4,3	6,1	52,4	70	5,0
ORL	2,6	27,9	44	2,6	2,9	34,6	59	2,6
Neurologia	1,9	42,8	57	1,5	2,2	44,2	69	1,7
K. Orok. eta dig. ap.	1,5	23,3	45	1,1	1,9	31,1	63	1,2
Urologia	1,7	38,8	47	1,3	2,0	38,5	71	1,6
Digestio aparatua	2,5	43,9	59	1,4	2,4	45,4	65	1,4
Kardiologia	1,5	35,8	49	1,3	1,7	36,5	62	1,4

Iturria: (1) Osakidetza, (2) Itxaronzerrendei buruzko informazioa Osasun Sistema Nazionalean (SISLE-OSN) eta geuk eginikoa

Kirurgiako itxaronzerrendei dagokienez, horietako pazienteen kopuruak berriz ere egin zuen behera EAEn 2016an; jada bost urtez jarraian izan da jaitsiera. Zehazki, 2015 eta 2016 urte bitartean 17.725 pertsona izatetik 17.343 pertsona izatera, hots, 7,7 pazientetik 7,6 pazientera osasun-txartela duten mila biztanleko; Estatuko 13,7ko batez bestekoaren azpitik dago ratio hori. Itxaronaldi luzeenak traumatologian (60 egun) eta otorrinolaringologian (52,8 egun) daude.

Pixka bat behera egin du batez besteko berandutze-egunen kopuruak (50,6 egunetik 50,3 egunera), Estatuan izandakoa baino txikiagoa (115 egun).

Bestalde, ebakuntza egiteko 3 hilabete baino gehiago itxaron behar duten pazienteen portzentajeak behera egin du, %15etik %14,3ra, baina 2013an eta 2014an ikusitako ratioetatik goitik jarraitzen du.

V.3.15. TAULA. KIRURGIAKO ITXARONZERRENDEN BILAKAERA ETA BATEZ BESTEKO BERANDUNTZEA OSAKIDETZAN							
	2010	**2011**	**2012**	**2013**	**2014**	**2015**	**2016**
Paziente kop.	16.377	17.763	18.611	18.123	17.760	17.725	17.343
B. b.ko berandutzea (egunak)	48,2	51,8	52,1	49,7	50,0	50,6	50,3
Paziente kop. > 3 hilabete	1.903	2.815	2.972	2.398	2.406	2.657	2.484
Pazienteen % > 3 hilabete	11,6	15,9	16	13,2	13,5	15,0	14,3

Iturria: Osakidetza.

V.3.16. TAULA. KIRURGIAKO ITXARONZERRENDAK ETA BATEZ BESTEKO BERANDUNTZEA OSAKIDETZAN ETA OSASUN SISTEMA NAZIONALEAN						
	OSAKIDETZA (1)			OSASUN SISTEMA NAZIONALA (2)		
	2014	2015	2016	2014	2015	2016
Paziente kop.	17.760	17.725	17.343	511.923	549424	614101
Osasun txartela duten paziente kop. 1.000 biztanleko	7,8	7,7	7,6	11,4	12,2	13,7
Batez besteko berandutzea (egunak)	50	50,6	50,3	87	89	115
Paziente kop. > 3 hilabete	2.406	2.657	2.484	-	-	
Pazienteen % > 3 hilabete	13,5	15	14,3	-	-	
Pazienteen % > 6 hilabete	-	-	0	9,3	10,6	18,9

Iturria: (1) Osakidetza, (2) Osasun Sistema Nazionaleko itxaronzerrendei buruzko informazioa (SISLE-SNS) eta geuk eginikoa

Osakidetzak 122.791 ebakuntza kirurgiko egin zituen, eta horietatik %62 (ospitaleratu barik) anbulatorioan. Ospitaleko larrialdietan ia milioi bat pertsona artatu ziren (2015ean baino 30.000 gehiago).

Oinarrizko arreta zentroetako kontsultak, guztira, 15.330.755 izan dira Familia Medikuntzan, Pediatrian eta Erizaintzan. Arreta espezializatuan, guztira, 4.257.000 kontsulta egin dira. Ospitaleko alta kopuruari dagokionez, 3.116 paziente gutxiago izan dira, eta 3.116 paziente ospitaleratu dira; 2015ean, berriz, 253.579 izan ziren.

3.4. OSASUN PRIBATUKO ARRETAKO ESTATISTIKA: ASEGURU LIBREKO ERAKUNDEAK

Jo beza irakurleak Memoria honen 2016ko ediziora, datu berririk ez dagoenez gero.

3.5. OSASUN SISTEMAREN FINANTZAZIOA ETA GASTUA

3.5.1. Osasunaren kontua

EUSTATen "*Osasunaren Kontua*" eragiketaren xedea da EAEko sektore instituzionalek guztira osasunean eginiko gastua zenbatzea, haien finantzabidea eta gastu horri eusteko azpiegituretan eginiko inbertsioa. Hartara, Ospitaleko estatistika eta Ospitalez kanpoko estatistika publikoak hartzen ditu informazio-iturri, besteak beste. Beste helburu bat osasunaren sektoreko makromagnitude nagusiak egitea da, ELGAko Osasunaren Kontuen Sistemako oinarri metodologikoei jarraituz. Horiei esker, Euskal Autonomia Erkidegoko ekonomikoan duen eragina aztertu eta nazioartearekiko erkaketa egin daiteke.

Argitaraturiko azken datuak 2011-2012koak direnez gero, jo beza irakurleak gure 2013ko Memoriaren ediziora.

3.5.2. Eusko Jaurlaritzaren Osasun Sailaren gastua

Eusko Jaurlaritzaren 2016ko aurrekontuko likidazioaren datuen arabera, Osasunaren atalak (ez da Kontsumoa sartzen), 3.514 milioi euro izanik, lehen tokian jarraitzen du baliabideen portzentajean, hots, guztizko gastuaren %33,9 da, non programa nagusia Osakidetzaren transferentziei dagokien eta BPGd nominalaren 4,96 den, aurreko urteko portzentajetik behera pixka bat. Kopuru absolutuetan, 2015 eta 2016 bitartean, likidaturiko gastua 91 milioi euro handiagoa da.

Osasuneko Finantzazioa eta Kontratazioa eta Farmazia programak ia likidaturiko guztizko gastu osoa dira (%98,2). Zehazki, Osasuneko Finantzazioa eta Kontratazioak %83,7 eta Farmaziak %14,6.

Aurrekontuan jasotakoaren eta 2016an benetan betearazitakoaren arteko desbideratzeari dagokionez, likidaturiko gastua aurrekontuan jasotakoa baino handiagoa da (93.122 mila euro gehiago aurrekontuan jasotako gastua baino). Desbideratze horren jatorria *Osasuneko Finantzazio eta Kontratazio* gastu-partidetan da (82,365 mila euro gehiago), eta *Farmazian* (+20.681 mila euro).

Bestalde, berariaz osasunekoak diren 2017. urterako partiden gastuen aurrekontua 3.452,7 milioi euro zen (+%3,54 2016an likidaturiko gastuaren aldean). Gastu hori BPGd nominalaren %4,81, 2016an izandako ratioa baino pixka bat txikiagoa.

V.3.17. TAULA. EUSKO JAURLARITZAREN OSASUN SAILAREN GASTUAREN BANAKAPENA
(programaren arabera maila eurotan)

	2012	2013	2014	2015	2016			2017	Aldakuntza (%)
	Aurrekontuko likidazioak				Hasierako aurrekontua	Likidazioa	Diferentzia (L-P)	Hasierako aurrekontua	2016-17
Egitura eta laguntza	15.375	13.997	14.919	14.009	17.788	15.090	-2.698	17.636	-0,86
Osasuneko finantzazioa eta kontratazioa	2.764.487	2.731.004	2.784.932	2.859.674	2.858.198	2.940.563	82.365	2.967.082	3,81
Osasun publikoa	29.063	27.503	32.889	36.593	41.341	36.244	-5.097	41.796	1,10
Osasuneko ikerketa eta plangintza	6.716	5.927	7.380	7.840	7.723	6.320	-1.403	8.068	4,47
Farmazia	536.869	511.793	492.569	500.909	491.649	512.330	20.681	503.552	2,42
Adizioak	5.316	3.799	3.907	4.405	5.045	4.319	-726	4.582	-9,17
Osasuna guztira	3.357.826	3.294.023	3.336.596	3.423.430	3.421.744	3.514.866	93.122	3.542.717	3,54
EJ GASTUA GUZT.	10.246.438	9.579.465	10.053.538	10.161.474	10.933.299	10.364.639	-568.660	11.059.662	1,16
BPGd	65.763.202	6.423.009	66.378.235	6.846.577	70.857.296	70.857.296		73.642.960	
Osas. % GUZTIZK.	32,8	34,4	33,2	33,7	31,3	33,9		32,0	
Osas. % BPGdarek.	5,11	51,28	5,03	50,00	4,83	4,96		4,81	

Iturria: EAEko Kontu Orokorrak eta Aurrekontua, EUSTAT eta geuk egina

V.3.18. TAULA. DIRU-BALIABIDEAK. HASIERAKO AURREKONTUAK AUTONOMIA ERKIDEGOEN ARABERA.
Euroak biztanleko* 2017ko urtarrilean eguneratua

	2009	2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2017 (b)
AAEE	1.278,2	1.290,0	1.233,4	1.210,9	1.141,8	1.144,8	1.176,9	1.219,8	1.264,1
Andaluzia	1.196,5	1.187,5	1.125,7	1.124,4	1.009,7	978,1	1.007,0	1.050,3	1.109,0
Aragoi	1.399,6	1.419,2	1.375,5	1.381,7	1.210,8	1.205,8	1.206,6	1.366,9	1.441,4
Asturias	1.448,5	1.522,6	1.442,3	1.444,4	1.391,7	1.402,4	1.425,4	1.463,5	1.586,6
Illes Baleares	1.175,1	1.085,5	1.077,6	1.110,6	1.057,7	1.071,0	1.171,7	1.226,0	1.297,0
U. Kanariarrak	1.446,5	1.397,0	1.230,5	1.249,3	1.224,6	1.233,0	1.238,6	1.237,8	1.261,7
Kantabria	1.357,3	1.352,4	1.234,4	1.272,3	1.310,4	1.338,7	1.347,6	1.383,3	1.385,7
Gaztela eta Leon	1.337,2	1.381,3	1.360,0	1.351,6	1.289,1	1.282,3	1.321,9	1.348,0	1.431,1
Gaztela-Mantxa	1.380,4	1.400,1	1.340,6	1.237,8	1.166,5	1.151,8	1.174,7	1.286,4	1.291,8
Katalunia	1.269,2	1.324,9	1.227,9	1.165,8	1.108,4	1.117,9	1.144,7	1.141,1	1.192,8
Valentziako E.	1.136,2	1.146,4	1.103,2	1.096,4	995,4	1.084,4	1.112,0	1.198,0	1.232,9
Extremadura	1.569,1	1.540,8	1.426,2	1.370,4	1.190,8	1.208,0	1.286,6	1.453,7	1.453,1
Galizia	1.361,2	1.344,9	1.279,0	1.273,8	1.238,0	1.202,0	1.247,1	1.291,7	1.333,3
Madril	1.125,6	1.111,0	1.115,8	1.116,2	1.108,6	1.094,5	1.142,1	1.159,7	1.179,1
Murtzia	1.285,7	1.365,5	1.386,8	1.233,7	1.071,8	1.110,4	1.126,1	1.190,9	1.206,3
Nafarroa	1.445,8	1.558,8	1.525,6	1.429,0	1.340,6	1.403,2	1.466,7	1.550,5	1.635,8
EAE	1.631,2	1.665,6	1.606,1	1.597,4	1.607,2	1.586,0	1.602,4	1.616,1	1.670,3
Errioxa	1.256,9	1.286,2	1.204,4	1.140,6	1.090,2	1.113,6	1.127,1	1.169,6	1.200,0

** Estatistika Erakunde Nazionalak argitaraturiko erroldari dagozkion biztanleen datuak.*
Iturria: Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasun Ministerioa

Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasun Ministerioaren arabera, EAEn osasunean biztanleko[16] eginiko gastu publikoak goranzko joera izan zuen 2007 eta 2011 bitartean. Izan ere, urte horretan, gorabeherak hasi ziren gertatzen ratioan krisi ekonomikoaren ondorioz. 2015etik hasita, berriz ere hazkundea ageri da.

Horrenbestez, EAE da azterturiko aldi osoan (2007-2017) biztanleko gasturik handiena egiten duena. Zehazki, 2017an, behin-behineko datuen arabera, 1.670,3 euro guztira. EAEren kopuruetatik hurbil daude Nafarroa (1.635,8 euro), Asturias (1.586,6), Extremadura (1.453,1), Aragoi (1.441,4) eta Gaztela eta Leon (1.431,1).

3.5.3 Osakidetzaren gastua

EAEko Kontu Orokorrak oinarri hartuta Osakidetzak egiten duen aurrekontuko likidazioak erakusten duenez, erakundeak 2016an eginiko gastua 2.736 milioi euro izan zen. Hots, berriz ere handitu da gastua, zehazkiago %1,5 2015 eta 2016 urte artean. Hau da, BPGd nominalaren %3,9 da, aurreko urteko ratio bera. Hazkunde hori ustiapen gastuen igoeragatik gertatu da, inbertsioek behera egin baitute berriro.

Likidaturiko guztiaren %97,6 Ustiapen Gastuei dagokie eta %2,4 Inbertsioei.

Likidaturiko ustiapen gastuak 2.670 milioi euro dira, hots, %1,9ko igoera 2015eko likidazioaren aldean.

- Langileria gastuak (soldatak eta ordainsariak gehi kotizazio sozialak), ustiapen gastuen %67,5 dira, guztira 1.810,7 milioi euro dira, eta %2,3 hazi da aurreko urtearen aldean.
- Funtzionamendu gastuak 853 milioi euro izan ziren, hots, %11,8ko igoera aurreko aldiarekiko. Funtzionamendu gastuen %81,1 hornidurei dagokie, %2,5 hazi ondoren.

Bestalde, likidaturiko kapital-aurrekontua 65,7 milioi euro da; 2015ean likidaturikoa baino %11 gutxiago, hots, bi urtez jarraian jaitsierak izan dira.

V.3.19. TAULA. OSAKIDETZAKO GASTUEN LIKIDAZIOA (mila eurotan)

	2013*	2014	2015	2016	Ald. (%) 2015-16
Kapital-aurrekontua betearaztea: INBERTSIOAK	**79.866**	**85.259**	**73.839**	**65.742**	**-11,0**
Ustiapen aurrekontua betearaztea: USTIAPEN GASTUAK	**2.453.706**	**2.538.081**	**2.621.373**	**2.670.293**	1,9
Pertsonal gastuak	1.689.603	1.735.152	1.761.493	1.801.678	2,3
Funtzionamendu gastuak	760.081	766.928	837.822	853.021	1,8
Hornikuntzak	603.271	611.656	683.519	700.740	2,5
Bestelako funtzionamendu gastuak	156.810	155.272	154.303	152.281	-1,3
Beste batzuk (finantza gastuak, diru-lag. eta egin beharreko transf…)	4.022	36.001	22.058	15.594	-29,3
GUZTIRA, INBERTSIOEN ETA GASTUEN BETEARAZPENA	**2.533.572**	**2.623.340**	**2.695.212**	**2.736.035**	**1,5**
BPG	65.906.376	66.378.235	68.496.577	70.857.296	
BPGaren gaineko gastua (%)	3,8	4,0	3,9	3,9	

***Kontabilitate berrira egokitu zen urtea**
Iturria: Geuk Egina, EAEko Kontu Orokorrak oinarri hartuta

[16] *Datuek osasuneko aurreko aurrekontuak islatzen dituzte, autonomia erkidego bakoitzaren mailan bateratuak, hain zuzen autonomia erkidegoek beren aurrekontu bateratuetan sartutako erakundeei dagozkienak. Beraz, baztertuta gelditzen dira fundazioak, partzuergoak, enpresa publikoak eta osasunaren arloan jarduerak egiten dituen eta gutxi gorabeherako aurrekontua duen beste edozein erakunde publiko.*
Biztanleriaren datuak EINek argitaraturiko erroldari dagozkio.

Aurrekontuan jasotako diru-kopuruaren eta 2016an benetan betearazitakoaren arteko desbideratzeari dagokionez, likidaturiko gastua pixka bat handiagoa da aurrekontuan jasotakoa baino (29,1 milioi euro gehiago aurrekontuko gastua baino), eta inbertsioei (+12.952 milioi euro) eta ustiapen gastuei (+16.164) dagokie.

V.3.20. TAULA. OSAKIDETZAKO GASTUEN AURREKONTUAK ETA LIKIDAZIOA (mila eurotan)

	2014			2015			2016		
	Aurrek. aldatua	Likidaz.	Diferentz. (L-P)	Aurrek. aldatua	Likidaz.	Diferentz. (L-P)	Aurrek. aldatua	Likidaz.	Diferentz. (L-P)
INBERTSIOAK	**49.516**	**85.259**	**35.743**	**62.060**	**73.839**	**11.779**	**52.790**	**65.742**	**-12.952**
USTIAPEN GASATUAK	**2.507.180**	**2.538.081**	**30.902**	**2.588.035**	**2.621.373**	**33.338**	**2.654.129**	**2.670.293**	**-16.164**
Pertsonal gastuak	1.736.047	1.735.152	-895	1.763.431	1.761.493	-1.938	1.802.000	1.801.678	322
Funtzionamendu gastuak	766.783	766.928	145	819.192	837.822	18.630	846.735	853.021	-6.286
Beste batzuk (finantza gastuak, diru-lag. eta egin beharreko transfer.)	4.350	36.001	31,651	5.412	22.058	16.646	5.394	15.594	-10.200
OROTARA	**2.556.696**	**2.623.340**	**-66.644**	**2.650.095**	**2.695.212**	**-45.117**	**2.706.919**	**2.736.035**	**-29.116**

Iturria: Geuk Egina, EAEko Kontu Orokorrak oinarri hartuta

3.6. 2013-2020KO OSASUN PLANAREN EBALUAZIOA

2013-2020ko Osasun Plana lehentasunezko 5 arlotan dago egituratuta, eta horietako bakoitzean, helburuak, ekintzak eta harekin loturiko adierazleak ezarri dira.

- 1. ARLOA: Osasuna eta osasuneko berdintasuna politika publiko guztietan txertatzea eta berdintasunezko eta kalitatezko euskal osasun sistema indartzea
- 2. ARLOA: Biztanleriarekin jardutea gaixotasunak eragindako heriotza-tasa eta populazioarengan eragin handiena duten gaixotasunen mendetasuna gutxitzeko.
- 3. ARLOA: Zahartze osasuntsua sustatzea.
- 4. ARLOA: Haurren eta gazteen osasun baldintzak eta aukerak hobetzea.
- 5. ARLOA: Ingurune eta bizimodu osasuntsuak, sektoreen arteko lankidetzaren, tokiko lanaren eta gizarte-lanaren bidez. 1. eta 5. arloak zeharkakoak dira, eta 2, 3 eta 4. arloak, berriz, biztanle talde espezifikoei dagozkie.

V.3.21. TAULA. 2013-2020KO OSASUN TAULA. LEHENTASUNEZKO ARLOAK ETA HELBURUAK				
1.ARLOA: BERDINTASUNA ETA ERANTZUKIZUNA	**2. ARLOA: GAIXOAK**	**3. ARLOA: ZAHARTZE OSASUNTSUA**	**4. ARLOA. HAUR ETA GAZTEEN OSASUNA**	**5. ARLOA. INGURUNE ETA JOKABIDE OSASUNTSUAK**
1.1. Osasuna politika guztietan	2.1 Arreta sozio-sanitario osoa, integratua eta pertsonengana bideratua	3.1. Zahartze aktiboa	4.1 Haurren osasuna	5.1. Jarduera fisikoa
1.2. Berdintasuna	2.2 Botiken erabilera egokia	3.2. Laguntza sozio-sanitarioa	4.2. Arreta goiztiarra	5.2. Osasuna eta elikadura
1.3. Determinante estrukturalak eta osasunean eta osasuneko desberdintasunetan eragina duten bitartekoak	2.3 Segurtasun klinikoa	3.3.Ahalmen funtzionala eta autonomia	4.3. Haurren eta gazteen obesitatea	5.3. Sexu eta ugalketa osasuna
1.4. Pertsonen partaidetza eta jabekuntza	2.4. Egoera terminala eta arintze-zaintzak	3.4. Teknologia berriak	4.4. Nerabeak eta gazteak	5.4. Adizioak
1.5. Genero-indarkeria	2.5. Minbizia	3.5.Etxeko arreta		5.5. Buruko osasuna
1.6 Osasuneko desberdintasunen monit.	2.6 Gaixotasun kardiobaskularrak			5.6 Ingurunea
1.7. Ikerketa eta berrikuntza	2.7. Diabetesa eta sindrome metabolikoa			5.7. Lan ingurunea
	2.8. Obesitatea			
	2.9. Biriketako buxadura kronikoko gaixotasuna (BBKG)			
	10. Buruko gaixotasuna			
	11. Sexu-transmisioko infekzioak			
	12. Beste eritasun garrantzitsu batzuk			

2013-2020ko Osasun Planaren emaitzen urteko txostenak dakartzan datuen arabera, plana ezarri den hirugarren urtean (2016) proposaturiko helburuen %31 eta ekintzen %31 dagoeneko abiarazita daude; helburuen %49 eta ekintzen %52 abiarazita daude, eta helburuen %20 eta ekintzen %16 ez dira abiarazi.

27 adierazle	**Helburua lortu da edo helburu betetzeko joera**
17 adierazle	Oinarrizko egoera hobetu da, baina egungo joerarekin, ez da aurreikusten helburua 2020rako betetzea
1 adierazle	Aldaketarik ez oinarrizko egoerarekiko
15 adierazle	**Egoera okertu da oinarrizko egoerarekiko**

Ondoko taulak erakusten duenez, adierazleetatik 60 adierazleren informazio eguneratua dugu, guztizkoaren %55 (aurreko urtean 57 adierazle izan ziren). 60 helburu horietatik, 2020ko helburua beteta dago, edo helburua betetzeko joera ageri da 27 adierazletan; 17k hobekuntza dute oinarrizko egoerarekiko, baina egungo joerarekin, ez da aurreikusten helburua 2020rako betetzea; 1ek ez du aldaketarik oinarrizko egoerarekiko eta 15etan egoera okerragoa dago oinarrizko egoerarekiko.

V.3.22. TAULA. 2013-2020 OSASUN PLANA. EMAITZEI BURUZKO URTEKO TXOSTENA 2016						
Zk.		Adierazlea	Hasierako egoera	Eguneratzea 2016	2020 helburua	Iturria
1	1	Osasun Plana Zuzentzeko Batzordea eta Osasun Batzorde Teknikoa eratzea eta martxan jartzea politika guztietan		Beteta	2013 abendua/ 2014 martxoa	Eusko Jaurlaritza
8	8	Desberdintasunak osasun zerbitzuak eskuratzean. <=28 eguneko berandutzea duten eta ebakuntzarako itxaronz. dauden paziente onkologik. %. Gizonak	98,2[17]	98,09	Pixkanaka hobetuz	Osakidetza
	8bis	Desberdintasunak osasun zerbitzuak eskuratzean. <=28 eguneko berandutzea duten eta ebakuntzarako itxaronz. dauden paziente onkologik. Emak.	98,7[8]	98,89	Pixkanaka hobetuz	Osakidetza
	8bis2	Desberdintasunak osasun zerbitzuak eskuratzean. <=80 eguneko berandutzea duten eta ebakuntzarako itxaronz. dauden paziente kardiak. Gizonak	96,2[8]	97,79	Pixkanaka hobetuz	Osakidetza
	8bis3	Desberdintasunak osasun zerbitzuak eskuratzean. <=80 eguneko berandutzea duten eta ebakuntzarako itxaronz. dauden paziente kardiak. Emak.	96,8[8]	97,96	Pixkanaka hobetuz	Osakidetza
	8bis4	Desberdintasunak osasun zerbitzuak eskuratzean. <=55 eguneko berandutzea duten eta kirurgia orok. ebakuntzarako itxaronz. dauden pazienteak. Gizonak	51,7 dias[8]	51,6 egun	Pixkanaka murriztea	Osakidetza
	8bis5	Desberdintasunak osasun zerbitzuak eskuratzean. <=55 eguneko berandutzea duten eta kirurgia orok. ebakuntzarako itxaronz. dauden pazienteak. Emak.	52,1 dias[8]	52,1 egun	Pixkanaka murriztea	Osakidetza
10	10	Gazteen langab.-tasa (16-24 urte) gizonak ()	35,1	21,2	15	Eustat. PRA
	10bis	Gazteen langab.-tasa (16-24 urte) emak. ()	30,4	28,7	15	Eustat. PRA
11	11	Pobrezia arriskua. Errenta pertsonaleko Gini indizea	0,533	0,529 (2014)	↓0,5	Eustat. Errenta perts. eta familiarraren azterlana
12	12	Pobrezia errealean dauden familiak, erreferentziako pertsonaren arabera, giz. ()	3,7	4,0	↓10	Lan eta Gizarte Politika Saila. Pob. eta gizarte desb.. Inkesta 2014
	12bis	Pobrezia errealean dauden familiak, erreferentziako pertsonaren arabera, emak. ()	11,1	9,9	↓10	Lan eta Gizarte Politika Saila. Pob. eta gizarte desb. Inkesta 2014
14	14	Eskola behar baino lehen uztea (18-24 urte) giz. ()	8,3	7,7 (2014)	↓10	Eustat. Biztanleria jarduerari dagokionez
	14bis	Eskola behar baino lehen uztea (18-24 urte) emak. ()	7,1	6,6 (2014)	↓10	Eustat. Biztanleria jarduerari dagokionez
17	17	Osasuneko Euskal Sistemako pazienteen eta erabiltzaileen eskubide eta betebeharren karta berria berrikusi eta argitaratzea.	--	EHAAn argitaratua[18]		Osasun Saila
18	18	Osakidetzako berdintasun politikak bultzatu eta koordinatzeko adminis.-unitatea sortzea	--	Bai [19]	2015	Osakidetza
22	22	Indexdun argitalpenak	722	1.153	↑40	Bioef

[17] *Ez zegoen informaziorik abiaputunko egoeran. Adierazleak 2014ko ebaluazioan zuen balioa islatzen du datuak.*

[18] *Uztailaren 21eko 147/2015 Dekretua, Euskadiko osasun sistemako pertsonen eskubideei eta betebeharrei buruzko adierazpena onetsi duena https://www.euskadi.eus/r47-bopvapps/es/bopv2/datos/2015/08/1503424a.shtml*

[19] *Genero-berdintasuneko plaza sortuta Osakidetzako erakunde nagusian.*

V.3.22. TAULA. 2013-2020 OSASUN PLANA. EMAITZEI BURUZKO URTEKO TXOSTENA 2016						
25	25	Preskribatze partekatuko prozesu ezarria	--	Ezarrita[20]	2015	Osakidetza Osasun Saila
27	27	Zerbitzu/OSI guztietako unitate/eskualdeetako gorabeherak jakinarazteko sistemaren erabilera-maila ()	5	17	20	Osakidetza-Segurtasun klinik.
28	28	Pazienteak bakarka identifikatzeko sistema/protokoloa ezartzea ()	75	100	100	Osakidetza-Segurtasun klinik.
29	29	Osasun Erakunde Integratuetan aplikaturiko arintze-zaintzen plana[21]	--	100	100	Osakidetza
30	30	Aurretiazko borondateari buruzko adierazpena duten biztanleak, gizonak ()	0,06[12]	0,7	>15	Osasun Saila
	30bis	Aurretiazko borondateari buruzko adierazpena duten biztanleak, emak. ()	0,12	1,3	>15	Osasun Saila
32	32	Minbiziak 65 urtetik beherako gizonengan duen intzidentzia (tasa/100.000)	246,52 (263,5)[13]	270,2	↓10	Minbizien Erregistroa
	32bis	Minbiziak 65 urtetik beherako emakumeengan duen intzid. (tasa/100.000)	203,02 (215,5)[22]	236,4	↓10	Minbizien Erregistroa
33	33	Minbiziak hildako 65 urtetik beherako gizonak (tasa/100.000)	99,25	80	↓10	Heriotzen Erregistroa
	33bis	Minbiziak hildako 65 urtetik beherako emakumeak (tasa/100.000)	55,37	54,8	↓10	Heriotzen Erregistroa
34	34	Biriketako minbiziak 65 urtetik beherako gizonengan duen intzidentzia (tasa/100.000)	30,24 (37,8)[13]	36,7	↓10	Minbizien Erregistroa
	34bis	Biriketako minbiziak 65 urtetik beherako emakumeengan duen intzid. (tasa/100.000)	12,98 (16,5)[13]	19,9	Goranzko joera geldiaraztea	Minbizien Erregistroa
35	35	Biriketako minbiziak hildako 65 urtetik gorako gizonak (tasa/100.000)	29,91	22,7	↓10	Heriotzen Erregistroa
	35bis	Biriketako minbiziak hildako 65 urtetik beherako emakumeak (tasa/100.000)	11,46	13,4	Goranzko joera geldiaraztea	Heriotzen Erregistroa
36	36	Kolon, ondeste eta uzkiko minbiziaren intzidentzia (tasa /100.000) gizonak	89,12 (90,9)[13]	93	↓10	Minbizien Erregistroa
	36bis	Kolon, ondeste eta uzkiko minbiziaren intzidentzia (tasa /100.000) emakumeak	39,06 (39,8)[13]	44	↓10	Minbizien Erregistroa
37	37	Kolon, ondeste eta uzkiko minbiziak hildako gizonak (tasa /100.000)	30,9	26,5	↓10	Heriotzen Erregistroa
	37bis	Kolon, ondeste eta uzkiko minbiziak hildako emakumeak (tasa /100.000)	13,6	14,3	↓5	Heriotzen Erregistroa
38	38	Gizonen kolon-ondesteko minbiziaren detekzio goiztiarreko programan parte hartzea () 1. itzulia	62	63	↑10	kolon-ondesteko minbiziaren behaketa-progr.
	38bis	Emakumeen kolon-ondesteko minbiziaren detekzio goiztiarreko programan parte hartzea () 1. itzulia	68	67	↑10	kolon-ondesteko minbiziaren behaketa-progr.
39	39	Bularreko minbiziaren intzidentzia (tasa /100.000)	95,34 (94,8)[13]	98,6	↓5	Minbizien Erregistroa
40	40	Bularreko minbiziaren heriotza tasa (tasa /100.000)	18,1	15,5	↓10	Heriotzen Erregistroa

[20] 2015eko abenduan, Presbide (medikazioa bateratzeko aplikazio informatikoa – historia farmakoterapeutiko bakarra-) Osakidetzako erakunde guztietan zegoen hedatuta. Presbide ia erabat dago erabilgarri Oinarrizko Arretan eta Osasun Mentaleko Sarean. Arreta Espezializatuan, berriz, %85 inguruan dago. Erakunde guztiek ezarri dituzte bateratze-programak.

[21] Metodologia aldatua eta oinarrizko egoeraren zifrak berriz kalkulatuak. Hasieran, bizitzako azken erabakiak aurretik planifikatzen zituzten pazienteak zenbatu dira, formalki erregistraturiko agiria aurkezten ez deneko kasuak barne. Gaur egun, erabaki horiek Osasun Saileko Aurretiazko Borondatearen Erregistroan aurretik adierazitako borondatearen bidez erregistratu dituzten pertsonak zenbatzen dira bakarrik. Oinarrizko egoeraren datuak beherantz zuzendu ziren hasieran argitaraturiko %1,2etik argitaraturiko %0,06ra gizonezkoetan, eta hasierako %1,1etik hasierako %0,12ra emakumezkoetan. Adierazlea kalkulatzeko, zenbatzailean hauteskunde-zentsuko datuak erabiltzen dira, soilik 18 urtetik gorakoak sartzeko, legez gaituta daudenak hain zuzen.

[22] Minbizien Erregistroak martxan jarraitzen duenez gero, datu gehiago identifikatu dira Osasun Planeko abiapuntuko egoeraren atalean argitaraturiko datutik. Parentesi artean dagoen zifrak abiapuntuko urteko intzidentzia tasa eguneratua adierazten du (2010) 2016ko urtarrilera arte sartutako kasu berriekin.

V.3.22. TAULA. 2013-2020 OSASUN PLANA. EMAITZEI BURUZKO URTEKO TXOSTENA 2016						
41	41	Emakumeen eta gizonen baskularizazioa sindrome koronario akutuan	0,67	0,75[23]	>0,8	Osakidetza
42	42	Bihotzeko errehabilitazio programan artaturiko biztanleria. Gizonak (%)	--	43,5[15]	>75	Osakidetza
	42bis	Bihotzeko errehabilitazio programan artaturiko biztanleria. Emakumeak (%)	--	25,5[15]	>75	Osakidetza
43	43	Miokardio infartu akutuaren ziozko heriotza goiztiarrak (IAM) [24] (25-74 urte) Gizonak (tasa/100.000)	47,74	39,5	↓10	Heriotzen Erregistroa
	43bis	IAMren ziozko goiztiarrak[21] (25-74 urte) emakumeak (tasa/100.000)	7,05	7,6	Tasa egonkortzea	Heriotzen Erregistroa
44	44	Istripu zerebrobaskularra (IZB) izan ondoren errehabilitazio goiztiarreko plan pertsonalizatu duten gizonak ()	19,8	30,3[14]	>75	Osakidetza
	44bis	Istripu zerebrobaskularra (IZB) izan ondoren errehabilitazio goiztiarreko plan pertsonalizatua duten emakumeak ()	20,2	31,5[14]	>75	Osakidetza
45	45	Hemoglobina glikosilatua <%7 diabetes mellitusa duten gizonengan (%)	42,63	43,13	>50	Osakidetza
	45bis	Hemoglobina glikosilatua <%7 diabetes mellitusa duten emakumeengan (%)	42,35	45,17	>50	Osakidetza
47	47	Giltzurruneko gutxiegitasun larria, diabetesarekin lotua, milioi pertsonako, giz.	19	17,5	↓10	Osakidetza
	47bis	Giltzurruneko gutxiegitasun larria, diabetesarekin lotua, milioi pertsonako, emak	6	8,7	↓10	Osakidetza
49	49	Diabetes mellitusak[22] (25-74) eragindako heriotza goiztiarra(tasa /100.000) gizonak	7,6	5,5	↓10	Heriotzen Erregistroa
	49bis	Diabetes mellitusak[25] (25-74 urte) eragindako heriotza goiztiarra (tasa /100.000) emak.	2,5	2,4	↓10	Heriotzen Erregistroa
53	53	30 egunera berriz ingresatzea BBKG duten pazienteekin, gizonak ()	20	21[15]	↓15	Osakidetza
	53bis	30 egunera berriz ingresatzea BBKG duten pazienteekin, emakumeak ()	17	19[15]	↓15	Osakidetza
55	55	Buruko gaixotasunen ziozko heriotza tasa (100.000 biztanleko) gizonak	21,1	20,1	↓10	Heriotzen Erregistroa
	55bis	Buruko gaixotasunen ziozko heriotza tasa (100.000 biztanleko) emakumeak	18,8	19,7	↓10	Heriotzen Erregistroa
57	57	Suizidioaren ziozko heriotzak (100.000 biztanleko) gizonak	9,5	10	↓10	Heriotzen Erregistroa
	57bis	Suizidioaren ziozko heriotzak (100.000 biztanleko) emakumeak	3,4	3	↓5	Heriotzen Erregistroa
58	58	DHD antsiolitikoen kontsumoa[26]	54	94,2	Goranzko joera geldiaraztea	Osasun Saila – Farmazia Zuzendaritza
	58bis	DHD antidepresiboen kontsumoa	61	62,5	Goranzko joera geldiaraztea	Osasun Saila – Farmazia Zuzendaritza
59	59	VIHren infekzio gehiagoren kop. (gizonak)	132	126	↓10	HIES eta ITS Plana
	59bis	VIHren infekzio gehiagoren kop. (emak.)	29	32	↓10	HIES eta ITS plana
60	60	VIHren infekzioren diagnostiko berankorreko tasa, gizonezkoak (%)	43	54	↓30	HIES eta ITS plana
	60bis	VIHren infekzioren diagnostiko berankorreko tasa, emakumeak (%)	59	46,9	↓30	HIES eta ITS plana
61	61	Gizonengan deklaraturiko sifilis kasuak	147	100	↓30	Osasun Saila - SIMCAPV
	61bis	Emakumeengan deklaraturiko sifilis kasuak	41	5	↓30	Osasun Saila - SIMCAPV
62	62	Gizonengan deklaraturiko gonokozia kasuak	159	326	↓30	Osasun Saila - SIMCAPV

[23] *2016an, CIE-9-MC kodetik CIE-10 –MC koderako aldaketa egin zen Osakidetzako ospitaleetan. Aldaketa horrek berekin dakar 2016 urte osoko informazioa -kode berriarekin- eskuragarri ez egotea txosten hau egin denean. Emandako datuak 2015ekoak dira.*

[24] *Heriotza-tasa kardiopatia iskemikoari dagokio (CIE10:I20-I25), miokardio-infarto akutua barne.*

[25] *Mellitusak eragindako heriotza guztiak barne (CIE10:E10-E14).*

[26] *DED: definituriko eguneko dosiak 1.000 biztanleko eta eguneko. DED neurketako unitate teknikoa da, eta helduengan dosi jakin baterako indikazio naugsirako mantentze-dosiari dagokio.*

V.3.22. TAULA. 2013-2020 OSASUN PLANA. EMAITZEI BURUZKO URTEKO TXOSTENA 2016						
	62bis	Emakumeengan deklaraturiko gonokozia kas.	32	82	↓30	Osasun Saila - SIMCAPV
63	63	Giltzurruneko dialisia duten pazienteak milioi pertsonako (PMP) [27]gizonak		81,4	↓5	Osakidetza-UNIPAR
	63bis	Giltzurruneko dialisia duten pazienteak milioi pertsonako (PMP) emakumeak		29,9	↓5	Osakidetza-UNIPAR
64	64	Gaixotasun arraroen erregistroa		Sortuta		Osasun Saila – Erregistro Zerbitzua
65	65	"Nagusien lagunak diren hiriak" programa duten hirietan bizi diren biztanleak	37	52	>75	Eudel Osasun Saila Eustat
67	67	60 urtetik gorako gizon elkartekideen portzentajea	10	27,6	↑15	Eustat
	67 bis	60 urtetik gorako emakume elkartekideen portzentajea	14	22,2	↑15	Eustat
69	69	75 urtetik gorako gizonak hilabeteren buruan berriz ospitaleratzea (%)	--	68	100	Osakidetza
71	71	75 urtetik gorako emakumeak hilabeteren buruan berriz ospitaleratzea (%)	--	5	100	Osakidetza
73	73	Jaiotzean pisu txikia duten haurtxoak (%)	10,49	10,23	↓20	Jaioberriaren baheketarako programa
	73bis	PADIren estaldura (%)	7,8	7,94	↓20	PADI
74	74	Txantxarrik gabeko haurrak 12 urterekin (%CAOD=0)	7	7,8	↓10	PADI
76	76	Arreta goiztiarreko ereduan sartutako osasun erakundeak/eskualdeak	66	67	>75	Osakidetza
77	77	Mutilen (15-29 urte) trafiko istripuen ziozko heriotzak (tasa/100.000)	74	71	80	Heriotzen Erregistroa
78	78	Nesken (15-29 urte) trafiko istripuen ziozko heriotzak (tasa/100.000)	1	11	GUZTIAK[28]	Heriotzen Erregistroa
83	83	Mutilen (15-29 urte) suizidioaren ziozko heriotzak (tasa/100.000)	6,7	10	↓20	Heriotzen Erregistroa
	83bis	Nesken (15-29 urte) suizidioaren ziozko heriotzak (tasa/100.000)	2	0,0	↓20	Heriotzen Erregistroa
84	84	Haurdunaldia nahita etetea (HNE) 20 urtetik beherakoen artean (tasa x1000)	7,1	10,3	↓20	HNE Erregistroa
	84bis	Episiotomia erditze eutozikoan (%)	1,6	3	↓20	Osakidetza
85	85	Haurdunaldia nahita etetea (HNE) tasa x 1.000 adin emankorren dauden emakumeak	10,02	7,42	↓50	HNE Erregistroa
94	94	Tabakismoari buruzko osasun aholkua Oinarrizko Arretan (%)	36	25,7[14]	<15	Osakidetza
95	95	Tabakoa gainditzeko fasean dauden gizon erretzaileak (%)	9,9	9,09	↓50	Osakidetza
98	98	Tabakoa gainditzeko fasean dauden emakume erretzaileak (%)	33,7	52,91	>60	Osakidetza
99	99	<50 µg/l tratamenduko azpiproduktuak dituen kontsumoko ura jasotzen duen biztanleria	1,9	0,7	↑15	Osasun Saila EKUIS
	99bis	Lanbide-gaixotasunaren intzidentzia tasa gizonengan	2,5	1,0	↑15	OSALAN
107	107	Lanbide-gaixotasunaren intzidentzia tasa emakumeengan	47	53	>95	OSALAN
108	108	Lan-istripu hilgarrien intzidentzia tasa gizonengan (tasa/100.000)	4,16‰	3,59	↓10	OSALAN
	108 bis	Lan-istripu hilgarrien intzidentzia emakumeengan (tasa/100.000)	1,51‰	1,74	↓10	OSALAN
109	109	Lan-arriskuko aurrezaintzako zerbitzuak babestutako enpresak	8,7	6,09	↓10	OSALAN
	109 bis	Heriotza eragin duten lan istripuen tasa emakumeetan (tasa/100.000)	0,9	0,29	↓10	OSALAN
110	110	Lan-arriskuko aurrezaintzako zerbitzuak babestutako enpresak	54,30	60	>95	OSALAN

Iturria: Eusko Jaurlaritza. **OSASUN PLANA 2013-2020. Emaitzen urteko txostena, 2016, 2017an argitaratua**

[27] *Ordezko giltzurruneko tratamenduan dauden pazienteen intzidentzia; milioi pertsonak*

[28] *2016an, 16 dira OSI, Oinarrizko Arretako Eskualdeak, Akutuentzako Ospitaleak eta Osasun Mentaleko Sareak. Arreta goiztiarreko eredua Osasun Mentaleko hiru saretan dago finkatuta. Bizkaian, Osakidetzako Zerbitzuetako Erakunde guztietan dago finkatuta arreta goiztiarreko eredua, Gipuzkoan Bidasoako eta Donostialdeko OSIetan eta Osasun Mentaleko Sarean. Araban, Arabako OSIn.*

KAPITULUKO ITURRIAK:

1. **Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasun Ministerioa.** OSNren 2016ko Urteko Txostena. 2017an argitaratua. Urterokoa. Koiunturala.
   Osasunari buruzko Europako Inkesta Espainian 2014. Bost urtean behingoa. Estrukturala.
2. **EUSTAT**: Heriotzen Estatistika (HE). 2016. Urterokoa. Koiunturala.
3. **EUSKO JAURLARITZA.** Heriotzen erregistroa**.** 2016ko datuak. Urterokoa. Koiunturala.
4. **EUSKO JAURLARITZA.** Osasunari buruzko Inkesta. 2013. Bost urtean behingoa. Estrukturala.
5. **OSAKIDETZA**: Berariazko eskaerak. 2016ko datuak. Urterokoa. Koiunturala.
6. **Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasun Ministerioa.** SISLE-OSNren itxaronzerrendei buruzko informazio sistema. Urterokoa. Koiunturala.
7. **EUSTAT**: Osasun Arreta Pribatuaren Estatistika. 2015eko datuak. Aldizkakotasun ezezaguna.
8. **EUSKO JAURLARITZA**. Aurrekontuak eta aurrekontuko likidazioak. Urterokoa. Koiunturala.
9. **Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasun Ministerioa.** Baliabide ekonomikoak. 2015eko datuak. Urterokoa. Koiunturala.
10. **OSAKIDETZA**. Aurrekontuko likidazioak. Urterokoa. Koiunturala.
11. **EUSKO JAURLARITZA**. Osasun Planaren Ebaluazioa. Aldizkakotasun ezezaguna.

4. ETXEBIZITZA

Ondoren, EAEko 2017ko etxebizitzaren egoerari buruzko zifra nagusiak aurkeztuko dira, eskaintzaren aldetik (etxebizitzen stocka eta prezioak), nahiz eskariaren aldetik (eskuratu, aldatu eta birgaitu beharra, eta etxebizitza babestuaren eskaria ere bai). Era berean, eraikuntzaren urteko jarduerari eta salerosketei buruzko datu nagusiak emango dira, eta azkenik Eusko Jaurlaritzak Etxebizitza Planaren bitartez eta foru aldundiek ohiko etxebizitzagatiko PFEZn kenkariak aplikatuz garatzen duten etxebizitza politikaren ebaluazioa azalduko da[29].

EAEko higiezinen merkatuaren bilakaeraren ezaugarri nagusia, 2017an eta Eusko Jaurlaritzaren Higiezinen Eskaintzaren Inkestako emaitzen arabera, etxebizitzaren eskaintzaren %17,1eko jaitsiera izan zen, aurreko urteko %10eko jaitsieraren ondoren.

Bestalde, etxebizitza eskariak edo beharrak 2015eko azken datuaren arabera, %11,5 handitu zen 2013aren aldean, baina oraindik ez dira berreskuratu 2011ko mailaka[31].



4.1. ETXEBIZITZA ESKAINTZA

Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza Sailaren "Higiezinen Eskaintzaren Estatistikak"[32](HEE) adierazi du, lehenik eta behin, azken urtean %17,1 jaitsi dela (2016an -%10) etxebizitzaren guztizko eskaintza (salgai eta alokagai daudenak), eta guztira 27.798 etxebizitza biltzen ditu laugarren hiruhilekoan.Lagin hori, prezioen estatistikaren oinarria izanda, honela dago osatuta: %94,6 saltzeko eskainitako etxebizitzak dira eta %5,4 alokairukoak. Salgai dauden etxebizitzen %11,2 etxebizitza berriak dira eta %88.8 erabilitako etxebizitzak, eta etxebizitza berrien %41,1ek babes ofizialen bat du. Alokairuko etxebizitzetatik % 63,8 libreak dira eta % 37,2, berriz, babestuak.

Datuotatik ondorioztatzen denez, hiru urtez jaitsiera handiak izan ondoren (2011tik 2013ra), 2014an jaitsiera eten eta aurreko beherakadaren zati bat berreskuratu zen, eta berriz ere behera egin du harrezkero: 2015ean (-%7,8), 2016an (-%10) eta berriz ere 2017an (-%17,1). Azken urte horretan, 2015ean eta 2016an bezala, etxebizitza mota guztien eskaintza murriztu da, alokairu babestuarena izan ezik (+%42,6). Nolanahi ere, eskaintza guztiaren %2 beterik ez da.

[29] *Memoria Sozioekonomikoaren edizio honetan, ez da sartu EAEko etxebizitza hutsaren egoerari dagokiona atala, zeren eta "EAEko etxebizitza hutsaren zenbaketari eta ezaugarritzeari buruzko bi urterik behingo inkesta" oinarri hartuta egiten baita. Eskuratu ditugun azken datuak, 2015ekoak, 2016ko Memoria Sozioekonomikoan sarturikoak izan ziren, eta horretara jo beza irakurleak.*

30Grafikoan azaltzen den eskariak eskuratzeko behar diren etxebizitzen kopurua erakusten du; eskaintza higiezinen sustatzaile eta agenteek emandakoa da; prezioak eurotan adierazita daude salgai dauden etxebizitza libreko (berriak nahiz erabiliak) m2 erabilgarri bakoitzeko).

[31] *Grafikoan irudikaturiko eskariak etxebizitza eskuratzeko beharrezko etxebizitza kopurua biltzen du; higiezinen agenteek eta sustatzaileek adierazitakoa da eskaria; salgai dagoen etxebizitza libreko (berria eta erabilia) m² erabilgarritan dago adierazita prezioa).*

[32] *5 etxebizitza baino gehiagoko sustapenak dituzten 118 sustapen-enpresei eta higiezinen 177 agentziari eginiko inkestaren bidez lorturiko datuak eta, beraz, ez da eskaintza osoa biltzen. Inkesta honen emaitzen alderdirik interesgarriena, datu absolutuak baino, bilakaera da.*

Azken hamarkadan gertatu denari erreparatuta ikusten denez, etxebizitza errealean erregistratu da eskainitako etxebizitza tipologiaren hazkunde proportzionalik handiena. Horrela, 2017an salgai zegoen parke guztiaren %84 erabiltzen da; 2007an, berriz, %50eko proportzioa zen. Gainera, nabarmendu beharra dago alokairu libreko etxebizitzaren kopuruan 2014az gero izandako beherakada, %60etik gora jaitsi baita.

IV.4.1. TAULA. EAE-KO ETXEBIZITZAREN ESKAINTZAREN BILAKAERAREN LABURPENA

	GUZT.	ETXEBIZITZAK SALGAI					ALOKAIRUKO ETXEBIZITZAK		
		SALMENTA	ETXEBIZITZA BERRIAK			ETXEBIZITZA	ALOIRUA,	LIBREA	BABESTUA
		GUZTIRA	GUZTIRA	BABESTUAK	LIBREAK	ERABILIAK	GUZTIRA		
2011	44.643	42.276	12.394	6.845	5.549	29.882	2.367	1.602	766
2012	39.542	36.902	9.918	4.180	5.738	26.985	2.640	2.013	627
2013	34.029	31.762	8.126	3.860	4.266	23.636	2.267	1.974	293
2014	40.400	37.755	4.731	2.268	2.463	33.024	2.645	2.505	140
2015	37.259	35.510	3.519	1.545	1.974	31.991	1.749	1.570	179
2016	33.535	32.137	3.049	1.283	1.766	29.089	1.398	1.006	392
2017	27.798	26.295	2.933	1.206	1.727	23.363	1.503	944	559
Ald. % 15/16	-10,0	-9,5	-13,4	-17,0	-10,5	-9,1	-20,1	-35,9	119,5
Ald. % 16/17	-17,1	-18,2	-3,8	-6,0	-2,2	-19,7	7,5	-6,2	42,6

Iturria: EUSKO JAURLARITZA. Higiezinen Eskaintzari buruzko Estatistika.

Prezioak direla eta (zehazki aztertuko dira hurrengo epigrafeetan) salgai dagoen etxebizitza librearen (berria eta erabilia) batez besteko balioa, 2017an, 2.789,7 euro/m^2 zen, eta %0,4ko jaitsiera izan zuen 2015aren aldean. Aurreko urtean ere %4,4ko jaitsiera gertatu zen. Etxebizitza berriaren merkatuari dagokionez, prezioek %1,3 egin zuten gora, eta bigarren eskuko etxebizitzenak, berriz, %0,8ko jaitsiera izan zuen. Bestalde, babestutako etxebizitza berriaren batez besteko prezioa %0,4 igo da azken urtean (alokairu libreko batez besteko errenta, ordea, %7,3). Bestetik, babestutako etxebizitzen alokairuko batez besteko errenta 329,4 eurokoa izan zen, aurreko urtean baino %22,9 gehiago.

Azkenik, azpimarratu behar dugu higiezinen enpresek etxebizitza bat saltzeko behar duten denbora, batez bestez, 2016an (eskuratu dugun azken datua) 5,8 hilabete zirela, aurreko bi urteetan 4,6 ziren bitartean.

4.1.1. Salgai dauden etxebizitzen eskaintza eta prezioak

(a) Etxebizitza berria

Lehenik eta behin, salgai dauden etxebizitza libre berrien eskaintza, 2017ko laugarren hiruhilekoan, 1.727 etxebizitzakoa izan zen, 2015ean baino %2,2 gutxiago. Honelakoa da lurraldez lurraldeko banaketa: Bizkaiak %46,9 hartzen du, Gipuzkoak %42,8 eta Arabak gainerako %10a.

V.4.2. GRAFIKOA. SALGAI DAGOEN ETXEBIZITZAREN ESKAINTZAREN BILAKAERA EAE-N.



Iturria: EUSKO JAURLARITZA. Higiezinen Eskaintzaren Estatistika.

Etxebizitza libre berrien batez besteko prezioa, guztira, 253.500€-an kokatu zen 2017an; 2015ean, berriz, 258.700 eurokoa zen, hots, %2ko igoera gertatu zen. 2016an 253,500 zen. Metro koadroko eurotan, 3.222 €/m^2 da, 2016ko batez bestekoa baino %1,3 gehiago. Lurraldez lurraldeko azterketaren arabera, batez bestekorik txikiena Araban dago (2.492,6 €/m^2); Bizkaian eta Gipuzkoan, berriz, 3.286,7 €/m^2 eta 3.309,18 €/m^2 dira hurrenez hurren.Bilakaerako Kopuruetan, Arabak eta Bizkaian%1,4ko jaitsiera izan zuten. Gipuzkoan, berriz, %5,1ko igoera izan da metro koadroan.

Merkatu babestuari dagokionez, gogoratu behar da 2006tik ez dagoela salgai dauden etxebizitza sozialen eskaintzarik, eta etxebizitza horiek soilik alokairuan eskaintzen dira. 2017ko laugarren hiruhilekoan, BOEren eskaintza 1.206 unitatera iritsi da, aurreko urtean baino %6 gutxiago (azken hamarkadan %76,3 murriztu da).

V.4.3. GRAFIKOA. SALTZEKO ETA ALOKATZEKO ETXEBIZITZA BABESTUAREN ESKAINTZAREN BILAKAERA EAE-N



Iturria: EUSKO JAURLARITZA. Higiezinen Eskaintzaren Estatistika

Saltzeko eskainitako BOEren batez besteko prezioa 1.750,2/m2 zen 2017an, aurreko urtean baino %0,4 gehiago. Saltzeko eskainitako BOEren batez besteko prezioa 1.750,2/m2 zen 2017an, aurreko urtean baino %0,4 gehiago. Zenbait alde ikus daitezken lurraldeen arabera: Bizkaiak Gipuzkoak du preziorik handiena (1.784,8 €/m^2), eta ondoren Bizkaiak (1.780,1 €/m^2). Kontrako bilakaera du, zeren eta batez besteko prezioak %1,3 egin baitu gora lehenengoan eta %0,9 jaitsi baita bigarrenean.Bestalde, Arabak batez besteko prezio txikiagoa du (1.552,8 €/m^2), eta haren bilakaera negatiboa da, %1,3 gutxitu baita.

IV.4.2. TAULA. EAE-N SALGAI DAUDEN ETXEBIZITZEN PREZIOAREN BILAKAERA. €/M^2 ERABILGARRI.

	ETXEBIZITZA LIBREA				ETXEBIZITZA BABESTUA
	GUZTIRA LIBREA*	ERABIL.	BERRIA	ETXEBIZ. TIPOA**	
2011	3.830,3	3.841,6	3.769,5	3.447,7	1.532,2
2012	3.595,8	3.564,7	3.742,1	3.378,1	1.585,4
2013	3.226,4	3.171,7	3.486,2	3.095,1	1.625,0
2014	3.079,8	3.058,2	3.338,9	2.960,2	1.682,1
2015	2.943,1	2.922,9	3.273,7	2.843,1	1.674,2
2016	2.802,0	2.778,9	3.180,7	2.862,9	1.744,1
2017	2.789,7	2.758,1	3.222,0	2.917,3	1.750,2
Ald. % 15/16	-4,8	-4,9	-2,8	0,7	4,2
Ald. % 16/17	-0,4	-0,8	1,3	1,9	0,4

** Etxebizitza berrien eta erabilien batez besteko prezioa*
***Etxebizitza librea, kolektiboa, araubide librekoa, sustatzaileak zuzenean eskainia, akabera maila arruntekoa eta 60 eta 90 m-2ko bitartekoa*
Iturria: EUSKO JAURLARITZA. Higiezinen Eskaintzari buruzko Estatistika.

Bestalde, 2007. urtearen amaieraz geroztik, oso bolumen txikietan bada ere, babes erregimenen bat daukaten bestelako etxebizitza tipologiak hasi ziren agertzen: babes ofizialeko etxebizitza tasatuak eta udal etxebizitza tasatuak. Etxebizitza horiek etxebizitza babestuak baino zerbait garestiago eskaintzen dira, baina etxebizitza librearen preziora iritsi gabe. Ez dago haien prezioen informazio zehatz eguneraturik.

(b) Etxebizitza erabilia

Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza Sailaren datuetan ikusten dugu 2017an guztira bigarren eskuko 23.363 etxebizitza eskaintzen direla, aurreko urtean baino %0,8 gutxiago. Etxebizitza horiek ondoko banaketa daukate lurraldez lurralde: Bizkaian %63,2, Araban %16,9 eta Gipuzkoan gainerako %20a[33].

EAEko bigarren eskuko etxebizitza salgaien batez besteko prezioa 2.758,1 /m2 zen 2017an, aurreko urtean erregistratutako batez bestekoa baino %0,8 gutxiago. Lurraldeka, Bizkaian eta Araban -%1,2ko eta -%3,7ko jaitsierak izan ziren prezioetan hurrenez hurren. Gipuzkoan, berriz, %4,2 jaitsi ziren. Ondorioz, hona hemen prezioak: Bizkaiko 2.865,7 €/m^2-tik Arabako 2.329,2ra. Gipuzkoan, berriz, bitarteko posizioan dago, batez beste 2.756,9 €/m^2. Etxebizitzako prezioetan, EAEko batez bestekoa 234.700 € da (-%0,5 2016ekoaren aldean; urtea hartan batez besteko prezioa 238.600€ zen): handiena Bizkaian, 253.000€, eta txikiena Araban, 191,100. Gipuzkoa beste bien artean dago berriro ere: 224,700 euro etxebizitza bakoitzeko.

[33] *Eskaintza nabarmen txikitu da Araban (-%46), higiezinen bi agentziak eskaintzan eginiko eguneratze nabarmenagatik. Horren eraginez, nabarmen aldatu dira haztapenak, eta horrek eragina du batez besteko prezioen jaitsieraren ratioetan: hiru lurraldeetan handiagoak dira EAEko batez bestekoa baino.*

IV.4.3. TAULA. SALGAI DAUDEN ETXEBIZITZA ERABILIAK, BATEZ BESTEKO PREZIOA M² ERABILAGARRI BAKOITZEKO (€) ETA BATEZ BESTEKO PREZIOAK (MILA €), LURRALDE HISTORIKOAREN ARABERA.

	EAE			ARABA			BIZKAIA			GIPUZKOA		
	Kop.	Prezioa m²	Prezioa /etxebiz	Kop	Prezioa m²	Prezioa/etxeb	Kop	Prezioa m²	Prezioa/etxebiz.	Kop	Prezioa m²	Prezioa/ etxeb.
2011	29.882	3.841,6	340,2	5.500	3.232,8	269,1	16.006	3.766,4	344,3	8.376	4.395,3	379,4
2012	26.985	3.564,7	309,5	4.571	2.960,7	242,2	16.626	3.600,3	314,2	5.788	3.966,0	352,4
2013	23.636	3.171,7	271,8	4.672	2.713,2	220,8	13.688	3.243,3	285,2	5.276	3.420,7	286,5
2014	33.024	3.058,2	251,1	6.974	2.611,6	207,9	19.062	3.165,4	264,6	6.988	3.192,6	255,2
2015	31.991	2.922,9	246,0	7.677	2.527,2	204,6	17.323	3.017,9	261,2	6.991	3.111,5	253,3
2016	29.089	2.778,9	238,6	7.303	2.417,9	198,1	15.856	2.900,7	258,6	5.930	2.879,0	233,6
2017	23.363	2.758,1	237,4	3.943	2.329,2	191,1	14.754	2.865,7	253,0	4.666	2.756,9	224,7
Ald % 15/16	-9,1	-4,9	-3,0	-4,9	-4,3	-3,2	-8,5	-3,9	-1,0	-15,2	-7,5	-7,8
Ald % 16/17	-19,7	-0,8	-0,5	-46,0	-3,7	-3,5	-7,0	-1,2	-2,2	-21,3	-4,2	-3,8

Iturria: EUSKO JAURLARITZA. Higiezinen Eskaintzari buruzko Inkesta.

4.1.2. Alokairuko araubidea

2017ko laugarren hiruhilekoari buruzko higiezin eskaintzaren inkestaren arabera, 1.503 etxebizitza eskaini dira alokairurako, aurreko urtean baino %7,5 gehiago. Libreei dagokienez (eskaintzaren % 62,8) % 6,2 txikitu da: 1.006 etxebizitzatik 944 etxebizitzara; alokairuko etxebizitza babestuek, aldiz, % 42,6 egin dute gora. Beraz, babesturiko alokairuak gora egin du 2016ko % 28tik 2017ko % 37,2ra.

IV.4.4. TAULA. ESKAINITAKO ALOKAIRUKO ETXEBIZITZA LIBREAK ETA HILEKO BATEZ BESTEKO ERRENTA. €.

	Etxebizitzak				Hileko errenta (€)			
	EAE	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	EAE	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
2011	1.602	413	797	392	896,3	830,7	882,3	993,8
2012	2.013	332	1.233	448	856,0	790,3	865,8	879,7
2013	1.974	251	1.383	340	825,4	743,9	838,8	821,6
2014	2.505	178	1.885	442	844,7	729,4	861,0	818,5
2015	1.570	168	1.124	278	871,1	740,4	880,1	911,5
2016	1.006	69	770	167	879,9	773,8	889,4	868,6
2017	944	114	679	151	944,3	709,7	955,5	1.028,0
Ald. % 15/16	-35,9	-59,0	-31,5	-39,8	0,9	4,5	1,1	-4,7
Ald. % 16/17	-6,2	65,7	-11,9	-9,9	7,3	-8,3	7,4	18,3

Iturria: EUSKO JAURLARITZA. Higiezinen arloko eskaintzari buruzko estatistika.

Alokairuko etxebizitza babestuen batez besteko errenta (aldatu egiten da etxebizitzen pertsona esleipendunen diru-sarreren arabera) asteko 329,4€-koa izan zen 2017an, aurreko urtean baino %22,9 gehiago.

Bestetik, 2017ko laugarren hiruhilekoan alokairurako eskainitako etxebizitza libreen lagina, esan dugunez, 944 unitatekoa zen. Lurralde banaketa honelakoa da: Bizkaian %71,9, Araban %12,1 eta gainerako %16a Gipuzkoan.

IV.4.5 TAULA EAEn ALOKAIRURAKO ESKAINITAKO ETXEBIZITZEN ERRENTAREN BILAKAERA. (€/H).

	MERKATU BABESTUA	MERKATU LIBREA
2011	279,2	896,3
2012	345,1	856,0
2013	333,1	825,4
2014	326,3	844,7
2015	345,2	871,1
2016	268,0	879,9
2017	329,4	944,3
% 15/16	-22,4	0,9
% 16/17	22,9	7,3

Iturria: EUSKO JAURLARITZA. Higiezinen eskaintzari buruzko estatistika.

Batez bestez, partikularrenak diren eta higiezin jabetzaren agenteen bidez alokatzeko eskaintzen diren etxebizitzek hilean 944,3 euroko errenta zeukaten 2017an, aurreko urtean baino %7,3 gehiago beraz. Lurralde historikoen arabera, Gipuzkoak du preziorik altuena (1.028 € hilean); ondoren Bizkaiak, 955,5 € hilean, eta azkenik Arabak (709,7 € hilean). Eboluzioa aztertuta ikusten denez, bereziki igoera handia dago Gipuzkoan (%18,3) eta neurri txikiagoan Bizkaian (+%7,4). Araban, berriz, %8,3 egin du behera batez besteko errentak.

4.1.3. Etxebizitzaren prezioen erkaketa, autonomia erkidegoen arabera

EIN 2008an hasi zen "Etxebizitzaren Prezioen Indizea" (EPI) egiten. Hiru hilean behingo adierazle horrek, 2007ko oinarriarekin, prezio libreko etxebizitzen (berriak nahiz bigarren eskukoak) salerosketa prezioen mailaren bilakaera neurtu nahi du denboran. EPI Europar Batasunaren estatistika harmonizatuen produkzioaren eremuan planteatutako informazio eskaerari dagokio; beraz, haren helburuetako bat estatu kideak alderatzeko tresna izatea da, etxebizitza librearen prezioen bilakaerari dagokionez. Horren eremutik kanpo daude, hortaz, etxebizitza babestuak, haien prezioak araututa daudelako eta ez direlako merkatuaren ohiko mekanismoen bidez arautzen.

Notarioen Kontseilu Nagusiak emandako datu-baseetako informazioa darabil EPIk, Egiaztapenerako Notarioen Agentziaren bitartez. Administrazio-erregistroak erabilita, batetik biztanleria guztiaren informazio osoa dago eskuragai, eta horri esker, ez dago zertan laginketara jo; bestetik, edozein salerosketako informazioa gertatzen den unean sar daiteke indizearen kalkuluan: funtsezkoa da hori adierazle koiunturala izan nahi duen indize batean.

IV.4.6. TAULTA. ETXEBIZITZAREN PREZIOEN INDIZEA: LAU HIRUHILEKOETAKO URTEKO ALDAKUNTZA-TASAK.

	2014	2015	2016	2017
ESTATUKO B.B.	1,7	4,2	4,5	7,2
ANDALUZIA	1,8	3,0	2,1	4,5
ARAGOI	0,1	0,7	2,3	3,1
ASTURIAS	-0,3	1,3	1,9	2,4
BALEARS, ILLES	0,7	7,0	5,7	9,8
U. KANARIARRAK	0,5	3,6	3,3	6,0
KANTABRIA	1,8	2,0	2,3	4,4
GAZTELA ETA LEON	0,8	0,9	0,8	2,3
GAZTELA MANTXA	0,4	2,1	0,0	0,4
KATALUNIA	2,2	5,9	7,4	10,2
VALENTZIAKO E.	2,8	3,0	1,7	4,1
EXTREMADURA	-0,7	2,6	0,8	0,2
GALIZIA	1,0	1,7	2,1	2,9
MADRIL	2,9	7,3	9,0	11,9
MURTZIA	2,7	1,8	0,7	1,9
NAFARROA	-4,2	1,8	1,9	2,1
EAE	**0,0**	**1,7**	**1,2**	**7,1**
ERRIOXA	0,2	1,5	0,3	3,6
CEUTA	1,0	6,3	5,1	8,0
MELILLA	1,3	5,7	3,2	7,7

Iturria: EIN eta EPI.

Inkestako emaitzek erakusten dutenez, prezioek 2008-2013 epealdian behera egin ostean, neurri desberdinekin, 2014an lehen igoerak izan ziren Estatu mailan (+%1,7 batez beste), eta bilakaera askoz orekatuagoa da EAEn (izan ere, aldakuntza nulua izan zen).

2015ean, erkidego guztiek izan zituzten tasa positiboak, eta joera hori 2106an berretsi zen eta are indar handiagoarekin 2017an.

2017ko laugarren hiruhilekoari dagokionez, EAEk %7,1eko aldakuntza du, Estatuko batez bestekoaren antzekoa (%7,2koa da). Aldea dago datuetan: ia hazkunderik ez Extremaduran (+%0,2), eta %11,9 Madrilgo Erkidegoan edo +%10,2 Katalunian.

4.1.4. Eraikuntza eta etxebizitza

Lehenik eta behin, Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitzaren Behatokiak jakinarazi duenez, EAEn ***hasitako etxebizitzen*** guztizko kopurua negatibo bihurtu zen 2010 eta 2011ko bi urtekoan kontrakoa izan zen, hazkunde nabarmena izanik, 2008an eta 2009an igoera handia izan ondoren. 2012 eta 2015 bitartean, ordea, behera egin izan du hasitako etxebizitzen kopuruak, neurri desberdinean, hain zuzen ere %15 aldiko azken urtean. 2016an (eskuratu dugun azken datua), %89,6 hazi ziren hasitako etxebizitzak aurreko urtearen aldean. Etxebizitza horietatik %77 libreak ziren eta %23 babestuak.

IV.4.7. TAULA. ERAIKUNTZA EAE-N: HASITAKO ETA BUKATURIKO ETXEBIZITZAK

	HASITAKO ETXEBIZITZAK			BUKATURIKO ETXEBIZITZAK		
	LIBREA	BABESTUA*	GUZT.	LIBREA	BABESTUA	GUZT.
2012	2.743	1.869	4.612	4.757	3.835	8.592
2013	2.029	1.610	3.639	3.994	1.842	5.836
2014	2.181	1.379	3.560	2.560	2.440	5.000
2015	2.094	932	3.026	3.611	1.957	5.568
2016	4.407	1.331	5.738	1.869	1.729	3.598
2017	:	1.443	:	3.380	285	3.665
% 15/16	110,5	42,8	89,6	-48,2	-16,0	-36,9
% 16/17	:	8,4	:		-83,5	1,9

Iturria: EUSKO JAURLARITZA. Etxebizitzaren Behatokia.
** Etxebizitza babestuen figura berriak sartzen dira hemen: etxebizitza tasatuak eta dotazio alojamenduak.*

Badakigu zein diren hasitako etxebizitza babestuei buruzko 2017ko zifrak (ez dago merkatu libreari buruzko informaziorik): guztira 1.443 hasi ziren, 2015ean baino %8,43 gehiago. 2010ean izan ezik, hasitako etxebizitza babestuak behera egin zuen 2007tik 2015era, eta berriz ere gora egin zuen azken urte horretan.

IV.4.8. TAULA. EAE-N HASITAKO ETXEBIZITZEN BILAKAERA, MOTAREN ARABERA.

	EJ-REN KALIFIKAZIOAREN PEAN DAUDENAK			EJ-REN KALIFIKAZIOA EZ DUTENAK		GUZT.
	BOE	SOZIALAK	TASAT.	ZUZKIDURA-ALOJAMEND.	UDAL ETXEBIZITZA TASA(JABETZA)	
2011	2.613	101	81	110	240	3.145
2012	1.324	60	304	177	4	1.869
2013	1.302	191	18	47	52	1.610
2014	1.239	0	40	55	45	1.379
2015	514	185	80	0	153	932
2016	808	17	159	154	193	1.331
2017	702	284	207	160	90	1.443
% 15/16	57,2	-90,8	98,8	-	26,1	42,8
% 16/17	-13,1	1.570,6	30,2	3,9	-53,4	8,4

Iturria: Geuk Egina EUSKO JAURLARITZAREN datuekin. Etxebizitzaren Behatokia.

Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza Plana 2006-2009 abian jarri zenetik, etxebizitza babestuen merkatuan figura berriak sortu dira. Horrek ekarri du, oraingoz, dotazio alojamenduak eraikitzen hastea 2006az geroztik, 2007az geroztik udal etxebizitza tasatuak (saltzeko eta alokatzeko) eta 2009az geroztik etxebizitza autonomiko tasatuak. 2015ean (urte horretakoa da informazioa eskuratu dugun azkena) ez zen etxebizitza-dotazioko alojamendurik hasi, ezta alokairuko udal etxebizitza tasatuena ere. 2017an, dotazioko 160 alojamendu eraikitzen hasi ziren (2017an baino %3,9) baita udalaren 90 etxebizitza tasatu jabetzan ere (-%53,4 2016aren aldean) (ez dago alokairurako udal etxebizitza tasatuen eraikuntzari buruzko informaziorik.). Halaber, Eusko Jaurlaritzaren kalifikazioaren menpeko etxebizitzei dagokienez, 702 BOE hazi ziren (-%13,1 2016aren aldean), 284 etxebizitza sozial (2016an 17 besterik ez) eta 207 etxebizitza tasatu (+%30,2 2016aren aldean).

IV.4.9 TAULA. EAE-KO OBRA NAGUSIEN LIZENTZIA KOPURUAREN BILAKAERA, MOTAREN ARABERA

	GUZT.L	BERRIA	BIRGAIKUNTZA	ERAISPENA
2011	2.883	660	2.174	49
2012	2.380	447	1.909	24
2013	2.145	351	1.746	48
2014	2.585	390	2.133	62
2015	2.744	444	2.240	60
2016	3.145	518	2.567	60
2017	3.087	459	2.563	65

Iturria: EUSKO JAURLARITZA. Eraikuntzari eta Etxebizitzari buruzko Azterlana.

Bestalde, EAEn 2017an ***amaitutako etxebizitzak*** 3.665 ziren, aurreko urtean baino %1,9 gehiago, amaitutako etxebizitza libreen beherakadaren (-%83,5) eta babestutakoen igoeraren (+%80,8) baturak emanda. Horren ondorioz, aurten murriztu egin da etxebizitza babestuak EAEko eraikuntzako jardueran duen partaidetza, zeren eta bukaturiko etxebizitzen artean behera egin baitzuen, 2016ko %48,1etik 2017ko %7,8ra.

V.4.10. TAULA. EAE-KO OBRA NAGUSIEN LIZENTZIA KOPURUAREN BILAKAERA, MOTAREN ETA LURRALDE HISTORIKOEN ARABERA. 2013-2017.

		2013	2014	2015	2016	2017
EAE	**GUZTIRA**	2.145	2.585	2.744	3.145	3.087
	BERRIA	351	390	444	518	459
	BIRGAIKUNTZA	1.746	2.133	2.240	2.567	2.563
	ERAISPENA	48	62	60	60	65
ARABA	GUZTIRA	691	693	718	810	786
	BERRIA	110	113	129	137	128
	BIRGAIKUNTZA	565	558	572	659	644
	ERAISPENA	16	22	17	14	14
BIZKAIA	GUZTIRA	1.062	1.404	1.449	1.646	1.695
	BERRIA	150	179	178	243	202
	BIRGAIKUNTZA	891	1.203	1.244	1.380	1.462
	ERAISPENA	21	22	27	23	31
GIPUZKOA	GUZTIRA	392	488	577	689	606
	BERRIA	91	98	137	138	129
	BIRGAIKUNTZA	290	372	424	528	457
	ERAISPENA	11	18	16	23	20

Iturria: EUSKO JAURLARITZA. Eraikuntzari eta Etxebizitzari buruzko Azterlana.

Bestalde, Etxebizitzaren Euskal Behatokiak 2015eko laugarren hiruhilekoko bere "*Eraikuntzari eta Etxebizitzari buruzko estatistika*"-n nabarmentzen duenez, finkatu egin da aurten eraikuntzako obren tipologien joeraren aldaketa, gero eta gehiago birgaikuntzara bideratuta, krisia hasi zenetik ikusi izan denez.

2017an, EAEko udalek, guztira, obra nagusiko 3.087 lizentzia eman zituzten (etxebizitza berrietako, birgaikuntzako eta eraispeneko lizentzien batura), 2016an baino %1,8 gutxiago. 2017ko 3.145 lizentzietatik %14,9 etxebizitza berrietarako lizentziei dagokie, %2,1 eraispenari eta %83 eraikinak birgaitzeko dira (%81,6 016an), hots, 10etik 8. 2003. urtea baino lehenagoko urteetan, berriz, ez ziren lizentzia

guztien %50era iristen.Lurraldez lurralde, lizentzien %55 Bizkaian eman ziren, %25,5 Araban eta gainerako %19,5a Gipuzkoan. Lizentzia motari dagokionez, Bizkaian birgaitzeko lizentzien pisu handiagoa nabarmentzen da (lizentzien %86,3, eta batez bestekoa %83 da). Ratiorik txikiena, berriz, Gipuzkoan dago (%75,4), non eraispenen lizentziak %3,3raino iristen diren (EAEko batez bestekoa %2,1 da).

2006-2017ko epealdian gertaturikoa hartzen badugu kontuan, %14,7 murriztu da obra nagusiko lizentzia kopurua, eta etxebizitza berriak eraikitzeko lizentzien jaitsiera nabarmentzen da: %72,2 egin zuen behera. Bigarren tokian, eraispenekoak %36,3 jaitsi ziren. Zaharberrikuntzarako lizentziek, berriz, %376 egin zuten gora.

4.2. ALOKAIRUA EAE-N. ESTATUAREKIKO ETA EB-REKIKO ERKAKETA

Etxebizitzaren Euskal Behatokiak "*EAEko alokairuari buruzko txostena, Estatuarekiko eta EBrekiko erkaketa*" egin zuen 2017an. EINen Bizi-kalitateei buruzko Inkestako eta EUROSTATen estatistikako datuei esker, gure Erkidegoak alokairuko etxebizitzaren merkatuan duen posizio erlatiboa eta bere eginkizun soziala kokatu daitezke.

Lehenik eta behin, Behatokiak nabarmentzen du Estatuko alokairu librearen pisu erlatiboak igoera handia izan duela krisia hasi zenetik. Izan ere, etxebizitza eskuratzeko araubidearen araberako biztanleriaren %14,2 izatetik 2008an %16,3 izatera igaro zen 2016an, hots, EAEko ratioa baino %4,7 handiagoa (EAEn %11,6 izan zen urte horretan, baina %8,8 zen 2008an). Merkatuko (librea) prezioko alokairuko pisuaren rankinean, autonomia erkidegoen arabera, azkenen taldean izateari eusten dio EAEk, soilik Galiziaren, Murtziaren, Gaztela-Leonen, Extremaduraren eta Aragoiren gainetik. Alokairuan bizi diren biztanleen ratiorik handienak Balearretan, Melillan eta Madrilgo Erkidegoan daude.

V.4.4. GRAFIKOA. ALOKAIRUAN BIZI DEN BIZTANLERIAREN EHUNEKOA. 2008-2016



Iturria: ETXEBIZITZAREN EUSKAL BEHATOKIA, EINren datuekin eginikoa. Bizi-baldintzei buruzko Inkesta

EBko erreferentziako zenbait herrialderen analisian, alokairuak EAEn eta Espainian duen askoz garrantzi erlatibo txikiagoa islatzen du EUROSTATek. Biztanleriaren %30,7 alokairuko araubidean bizi da (estatistikaren barruan sartzen da doako lagapena alokairuarekin batera) EB osoan (2016ko datuak), Espainian baino 8 puntu gehiago. Herrialde nabarmenen artean, Alemania dago, non biztanleriaren ia erdia alokairuan bizi den (edo doako lagapenean).

EUROSTATek bereziki baliagarria den analisia ematen du, alokairua eskuratzea diru-sarrera mailarekin lotua. Horri esker ikusten denez, alokairuak (lagapena barne) pisu nabarmen handiagoa du diru-sarrera gutxien dituzten biztanle-taldeetan. Zehazkiago, Espainian, batez besteko diru-sarreraren %60tik beherako diru-sarrerak dituzten biztanleen artean alokairuak duen pisu erlatiboa %39,5 zen 2016an. %60 horren gainetik dauden diru-sarrerak dituztenen artean, berriz, %17,2 da. Bi taldeetan, gainera, ratio horiek pixka bat gora egin zuten 2008 eta 2016 bitartean.

Europar Batasunean, errenta txikiak dituzten pertsonen ia %50 (batez bestekoaren %60tik beherakoak) alokairuan edo etxebizitza lagata bizi da, eta ratio horiek %70aren ingurukoak dira Alemanian (%73,4), Danimarkan (%68,5) eta Holandan (%67,9).

V.4.11.TAULA. ALOKAIRUAK (EDO DOAKO LAGAPENA) EB-KO ERREFERENTZIAKO HERRIALDEETAN DUEN PISU ERLATIBOAREN BILAKAERA

	2008	2012	2016	Ald. 2008/16
EUROPAR BATASUNA	D.E.	29,5	30,7	-
DANIMARKA	33,5	34,0	38,0	4,5
ALEMANIA	S.D.	46,7	48,3	-
ESPAINIA	19,8	21,1	22,2	2,4
FRANTZIA	37,9	36,3	35,1	-2,8
ITALIA	27,2	25,8	27,7	0,5
HOLANDA	32,5	32,5	31,0	-1,5
PORTUGAL	25,5	25,5	24,8	-0,7
ERRESUMA BATUA	27,5	33,3	36,6	9,1

Iturria. ETXEBIZITZAREN EUSKAL BEHATOKIA, EUROSTATen datuekin

Eta nahiz eta EAErako konparagarria den informaziorik ez dagoen, Etxebizitzaren Behatokiak alokairurako laguntzen eta programen estaldura eta intzidentzia balioesten ditu bere txostenean. Honako hau nabarmentzen du: alokairu libreko etxebizitzetan bizi diren 10 familiatik 4k prestazio edo laguntza motaren bat jaso zuela 2016an, 100 milioi eurotik gorako aurrekontuko inbertsio nabarmenaren bidez. Prestazioen multzoan, Etxebizitzarako Prestazio Osagarria (EPO) nabarmentzen da, Diru-sarrerak Bermatzeko Errentarekin (DSBE) lotua, 35.000 familia hartzaile baino gehiago 2016an. [34]

V.4.12. TAULA. ALOKAIRUAREN (EDO DOAKO LAGAPENAREN) PISU ERLATIBOAREN BILAKAERA EB-KO ERREFERENTZIAKO HERRIALDEETAN BATEZ BESTEKO DIRU-SARREREN ARABERA

	BATEZ BESTEKOAREN < %60KO DIRU-SAR.		BATEZ BESTEKOARENB> %60KO DIRU-SAR.	
	2008	2016	2008	2016
EUROPAR BATASUNA	47,3 (2011)	49,8	26,0 (2011)	26,8
DANIMARKA	55,8	68,5	30,5	33,9
ALEMANIA	73,7 (2010)	73,4	41,8 (2010)	43,3
ESPAINIA	38,8	39,5	15,1	17,2
FRANTZIA	68,0	66,5	33,6	30,2
ITALIA	42,2	47,4	23,7	22,6
HOLANDA	62,1	67,9	29,1	25,6
PORTUGAL	35,5	38,0	23,3	21,7
ERRESUMA BAT.	48,0	55,3	22,7	33,0

Iturria. ETXEBIZITZAREN EUSKAL BEHATOKIA, EUROSTATen datuekin.

V.4.13. TAULA. EAE-N DIRU-LAGUNTZA JASO DUEN ALOKAIRUKO PARKEA, LAGUNTZA MOTAREN ETA GUZTIZKO GASTUAREN ARABERA. 2016.

	HARTZAILEAK (LAGUNTZAK)	ALOKAIRUKO PARKEAREK. %	GASTUA (MILA €)
EMANTZIPAZIOKO OINARRIZKO ERRENTA	192	0,2	346,8
ETXEBIZITZARAKO PRESTAZIO OSAGARRIA	35.493	32,6	90.971,3
GIZARTE LARRIALDIRAKO LAGUNTZAK	8.469	7,8	11.665,7
ETXEBIZITZA PRESTAZIO EKONOMIKOA	22	-	38,0
GUZTIRA	**44.176**	**40,6**	**102.983,8**

Iturria. ETXEBIZITZAREN EUSKAL BEHATOKIA .

[34] *Prestazioei buruzko argibide gehiago nahi izanez gero, ikus beza irakurleak Memoria honetako "IV Kapitulua. Bizi-baldintzak eta gizarte babesa EAEn" (2.3. atala. Pobreziaren eta bazterketaren kontrako neurriak EAEn).*

4.3. ETXEBIZITZA ESKARIA

4.3.1. Etxebizitza beharrak eta eskaria[35]

a) Eskuratzeko beharra

V.4.14. TAULA. EAE-N LEHEN ETXEBIZITZA ESKURATZEKO BEHARRAREN BILAKAERA (GURASOEKIN EDO TUTOREEKIN BZI DIREN 18-44 URTEKOAK)

	2011		2013		2015	
	KOP.	BERT. %	KOP.	BERT. %	KOP.	BERT. %
ESKURATU BEHARRA DUTENAK*	88.128	31,1	65.346	24,5	72.836	25,9
DIRU-SARRERARIK GABEKO PERTSONAK	147.881	52,2	141.120	52,8	119.782	42,6
DIRU-SAR. EZ NAHIKOAK EDO EZEGONKORRAK	14.446	5,1	27.287	10,2	17.154	6,1
BADUTE ETXEBIZITZA	21.934	7,7	9.206	3,4	21.970	7,8
BEHARRIK EZ	7.815	2,8	14.100	5,3	33.243	11,8
BESTELAKO EGOERAK	2.981	1,1	10.197	3,8	16.097	5,7
GURASOEKIN BIZI DIREN 18-44 URTEKOAK	**283.185**	**100,0**	**267.256**	**100,0**	**281.082**	**100,0**

** eta nahiko diru-sarrerarekin*
Iturria: EUSKO JAURLARITZA. EBEI 2015.

Gurasoekin edo tutoreekin bizi diren 18-44 urteko pertsonek lehenbiziko etxebizitza eskuratzeko duten beharrari buruzko hurbilketan, hauxe egiaztatu da Eusko Jaurlaritzaren 2015eko "Etxebizitzaren beharrei eta eskariari buruzko inkesta"-n (EBEI): etxebizitza eskuratzeko prozesua finantzatzen pentsatzeko adinako diru-sarrerak dituzten 72.836 pertsonak adierazten dutela behar hori. 2013aren aldean, %11,5 igo da kopuru hori; aurreko inkestetan beherakada nabarmenak izan zituen: %25,9 2011 eta 2013 bitartean eta %18,5 2010 eta 2011 bitartean.

72.836 pertsona talde hori gurasoekin edo tutoreekin bizi diren 18 eta 44 bitarteko pertsonen %25,9 da, baina pisu hori asko aldatzen da adinaren arabera (guztira 281.082): proportzioa %7,8 besterik ez da 25 urtetik beherakoen artean, eta %40,4raino igotzen da 25-34 urte bitartekoetan eta %30,9raino jaisten da 35-44 urte bitartekoetan. Sexuaren arabera, ratioa %25,4koa da emakumeentzat eta pixka bat handiagoa emakumeentzat eta pixka bat handiagoa gizonentzat, %26,3 hain zuzen ere.

Gurasoekin edo tutoreekin bizi eta beren diru-sarrerak edo errentak dituzten 18 eta 44 urte arteko pertsona guztiei dagokienez, guztira 161.300 dira (281.082 horietatik diru-sarrerarik gabeko 119.782 pertsona kenduta, ikusi IV.5.11), eta etxebizitza eskuratzeko taldea %72,3 da (%51,8 2013an). Alabaina, diru-sarrerak izan arren nahikoak edo ezegonkorrak dauzkaten pertsonak kentzen baditugu talde horretatik, taldean 144.146 lagun leudeke, guztizkoaren %51,3, eta horietatik eskuratu beharra dutenak (72.836 lagun) %50,5 dira.

V.4.5. GRAFIKOA. LEHEN ETXEBIZITZA ESKURATZEKO BEHARRA: ETXE GUZTIEKIKO EHUNEKOA



Iturria: EUSKO JAURLARITZA. EEBI

[35] *Txosten honen edukia ezin izan da eguneratu, 2016ko Memoria Sozioekonomikoan bildua. Azterturikoa laburbilduta eman da, eta Memoria horretara jo bedi xehetasun handiagoa izateko.*

Egungo etxebizitza nagusi guztiei dagokienez (familiak), lehen bizitzaren beharrak gora egin du: 2013an %6,8 izatetik (59.318 etxebizitza) 2015ean %7,4 izatera (64.290). Beraz, 0,6 puntu hazi da, 2010 (2009an, berriz, daturik altuena bildu zen, %13,2) eta 2013 bitarteko jaitsierak izan ondoren.

Eskariari dagokionez, familiaren emantzipazioa aipatzen du %73,8k zio nagusi gisa, eta %24k, berriz, soilik bikotekidearekin bizitzearekin du lotura. Gainerako %2,2 lantokia tokiz aldatzearekin edo bestelako zioiekin dago lotuta.

Lehen etxebizitza eskatzen duten pertsonen profila aztertuta, talderik garrantzitsuena 25 eta 34 urte bitartekoen multzoan dago: %68,2. 35 eta 44 urte bitartekoei %19,8 dagokie eta 25 urtetik beherakoei, berriz, %11,9. Gizonezkoak eskatzaileen %57,5 dira, eta emakumeak %42,5. Ikasketa mailari dagokionez, %44,9k unibertsitateko titulua du, %35,2k lanbide ikasketak eta %8,5ek bigarren mailakoak. Lehen mailako ikasketak dituztenak %11,4 dira. Gainera, lehen etxebizitza eskatzen dutenek, kasuen %37,7an, inoren konturako lana eta kontratu finkoa dituzte, eta %44,7tik gora aldi baterako kontratua. Bere kontura lan egiten duten langileak %13,3 dira, eta %3 langabezian dago. Etxebizitza moten gaineko preferentziei dagokienez, %55ek alokairua lehenesten du. %22,6k, berriz, jabetza aukeratzen du.

b) Aldatzeko beharra

2015. urtean, 53.132 euskal familiak zioen etxebizitza aldatu beharra zuela, guztizkoaren %6,2k. Hots, %1,38ko jaitsiera 2013aren aldean. Izan ere, urte horretan guztizkoaren %7,1 ziren etxebizitza horiek. Epe luzerako ikuspegiaren arabera, 2005etik izandako mailarik handienetako batean kokatzen da 2015eko beharraren indizea, baina denboran gertaturiko bilakaera oso irregularra izan da.

V.4.6. GRAFIKOA. EAE-N ETXEBIZITZA ALDATZEKO BEHARRAREN BILAKAERA



Iturria: EUSKO JAURLARITZA: EEBI 2015

Etxebizitza aldatu behar duten 53.132 familietatik, %28,5ek baino ez du aurreikusten (16.540) hurrengo urtean aldaketari aurre egiteko moduan egotea, hots, 8 puntuko igoera 2013ko %20,5aren aldean. Gainera, familien % 44k bi urte epean etxebizitza aldatzeko dela adierazi du (25.508 familia) eta gainerako %64,6ak ez du uste 4 urte baino lehen aldaketa egiteko moduan izango denik

Etxebizitzaren tamaina desegokia da orain ere etxebizitza aldatzeko arrazioa; izan ere, hala aipatzen du %32,4k, eta ondoren irisgarritasuna (%17,1) eta egoera txarra (%11,8). Ondoren, alokairu merkeagoa bilatzea (%9,8) eta egungo etxebizitzaren kokapen txarra (%7,6); horiexek dira arrazoirik ohikoenak.

c) Birgaitu beharra

EBEIren zenbatespenen arabera, 58.017 euskal familiak behar dute etxebizitza birgaitzeko jarduketa 2015ean. Hala, magnitude hori EAEko famili etxebizitza parkearen %6,7 da. Bilakeraren aldetik, etxebizitza birgaitzeko beharrak behera egin zuen 2013aren aldean, bai familien bolumenean (-%35,6), bai behar horren intzidentzia erlatiboan (-3,6 puntu portzentual gehiago). Epe luzeari begira, etxebizitza birgaitzeko beharra duten familien ehunekoaren beheranzko joera berriz nagusitu dela esan nahi du, 2009tik hasitako joera hain zuzen (urte horretan, birgaikuntza behar zuten etxebizitzen gehieneko kopurua erregistratu zen: 142.099 etxebizitza), 2013an unean uneko hazkundearen ondotik.

Beharrezko birgaikuntzaren ezaugarriei dagokienez, familien erdiarentzat gutxi gorabehera (%44,3), familia-etxebizitzetako elementu pribatuak dira beharraren ardatza (komunak, lurra, berokuntza instalazioa, leihoak aldatzea, etab.)%25ek etxebizitzaren barruan nahiz eraikineko eremu komunetan egin behar ditu birgaikuntza lanak, eta gainerako %30,7a soilik eraikineko eremuetako birgaikuntzari dagokio.

V.4.7. GRAFIKOA. EAE-N ETXEBIZITZA BIRGAITZEKO BEHARRAREN BILAKAERA



Iturria: EUSKO JAURLARITZA. EEBI 2015

4.3.2. Familien finantza-ahalegina

EAEko familiek etxebizitzak ordaintzeko egin behar duten finantza-ahaleginari dagokionez, Eusko Jaurlaritzako Etxebizitzaren Behatokiak erakutsi du, Higiezinen Erregistro Estatistikako datuak erabilita, finantza-ahalegin hori hileko batez besteko hipoteka kuotaren eta soldata kostuaren arteko harremanaren ikuspuntutik aztertuz gero, % 26,69koa izan da 2017ko laugarren hiruhilekoan, hau da, aurreko urtean baino 0,19 puntu portzentual gutxiago ditu.

V.4.8. GRAFIKOA. BATEZ BESTEKO HILEKO HIPOTEKAKO KUOTAREN ETA SOLDATEN KOSTUAREN ARTEKO ERLAZIOAREN BILAKAERA EAE-N ETA ESTATUAN. IV HIRUHILEKOAK. DATUAK %-ETAN



Iturria: JABETZAREN ERREGISTATZAILEEN ELKARGOA
Higiezinen Erregistroari buruzko Inkesta

Estatu mailan, ibilbide orekatuagoa da: ahalegin hori batez besteko soldata kostuaren %29,24 zen 2017ko amaieran. 2016ko laugarren hiruhilekoan, berriz, %27,60 zen (+1,6 puntu portzentual), eta beheranzko joera du 2013tik.

4.3.3. ETXEBIDEn erregistraturiko etxebizitza babestuaren eskaria 2016an

Etxebizitzaren Euskal Behatokiak bere *"2013-2016ko Etxebizitza Politikei buruzko ebaluazio osoaren txostena"* delakoak erakusten duenez, egonkor eutsi zitzaion zerbitzu horretan 2016an erregistraturiko etxebizitza babestuaren eskariari EAEn, 2015ean gertatu bezala (inskribaturiko eskabideen kopurua %0,5 murriztuta bi urteetan), 2014an jaitsiera izan ondoren (-%37,6), hain zuzen ere eskabidea bi urterik behin berritu beharra dakarren Agindua 2013an indarrean sartu izanaren ondorioz.

Zehazkiago, Eusko Jaurlaritzaren etxebizitza babestuaren eskatzaileen erregistroan zenbatu denez, 2016ko amaieran 53.327 eskabide inskribatu ziren EAEn (-%0,5), Araban espediente kopuruak behera egin izanaren ondorioz (-%2,4) eta, gutxiago, Gipuzkoan (-%1,2) eta Bizkaian (%0,3). Hortaz, Bizkaiak eskabideen %56,2 du, Gipuzkoak %31,3 eta Arabak %12,6.

Eskaturiko etxebizita motari dagokionez, inskribaturiko biztanleriak alokairua edo erosketa aukeratu behar du 2013tik hona, eta alokairuko etxebizitzan 43.733 eskabide zenbatu dira (%82) eta 9.594 jabetzako etxebizitzan (%18). Bilakaeraren aldetik, azken urtean nabarmentzekoa da berriz ere egin duela gora alokairuko etxebizitzaren eskariak (+3,3 puntu azken urtean, eta +23,9 2013. urtetik, noiz-eta "bata zein bestea" eskaria egiteko aukera desagertu zenean) jabetzapeko etxebizitzaren aldean. Eta 2006-2016 aldian gertaturikoa kontuan hartzen badugu, alokairuaren aukera hondarrekoa izatetik (%23,7) gaur egun aukera nagusia izatera igaro da (%82), hots, hirukoiztu egin da pisua.

Etxebibiden izena emandako pertsonen ezaugarritzea analisiaren ardatz hartuta, 2015ekoak dira eskuratu ditugun azken datuak. Diru-sarrera mailari erreparatuta ikusten denez, EAEko etxebizitza babestuaren eskariaren %48,7k 9.000 eta 25.000 euro bitarteko urteko diru-sarrera haztatu ditu. Bestalde, %22,2k 9.000 eurotik beherako diru-sarrerak ditu eta %9,9k, berriz, 25.000 eurotik gorakoak. Halaber, %19,2 ez du diru-sarrerarik edo ez du horrelakorik egiaztatzen.

V.4.9. GRAFIKOA. EAE-N ETXEBIZITZA BABESTUAREN ESKARIAREN BILAKAERA LURRALDE HISTORIKOEN ARABERA



Iturria: Etxebizitza Sailaren datuekin eginikoa. EUSKO JAURLARITZA

V.4.10. GRAFIKOA. ETXEBIDEN IZENA EMANDA DAUDEN PERTSONEK ESKATURIKO ETXEBIZITZA MOTAREN BILAKAERA.



Iturria: ETXEBIDE. EUSKO JAURLARITZA
**2013tik alokairua eta erosketa aukeratu behar da*

V.4.11. GRAFIKOA. ETXEBIDEN IZENA EMANDA DAUDEN BIZNTALEEN BANAKETA ADINAREN ARABERA. 2015



Iturria: EUSKO JAURLARITZA. ETXEBIDE.

Inskribaturiko pertsonen adinari dagokionez, betidanik gazteak nagusi izan badira ere, gaur egun %45ek 40 urte baino gehiago ditu. 30 urtetik beherakoak, berriz, %16,5 dira.

Lan-egoera dela-eta, eskatzaileen %38,4 lan-kontratu finkoarekin ari dira lanean, eta %5,3k bere kontura egiten du lan. Gainera, %18,3k dio langabezian dagoela, eta %30ek aldi baterako lana dauka.

IV.4.15. TAULA. ETXEBIDEN INSKRIBATURIKO BIZTANLEEN EZAUGARRI SOZIODEMOGRAFIKO NAGUSIAK. 2015.

		2013	2015
SEXUA	EMAKUMEA	55,1	51,9
	GIZONA	44,9	48,1
	GUZTIRA	100,0	100,0
SARRERA	SARRERAK FROGATU BARIK	10,5	19,2
	GEHIENEZ 9.000 €	20,1	22,2
	9.001 - 25.000 €	52,8	48,7
	25.001 - 39.000 €	14,6	8,7
	39.001 - 50.000 €	2,0	1,1
	50.000 € BAINO GEHIAGO		0,1
	GUZTIRA	100,0	100,0
LAN EGOERA	BERE KONTURA LANEAN	8,0	5,3
	LANDUNA/FINKOA	40,8	38,4
	LANDUNA/ALDI BATERAKOA	21,6	30,0
	LANGABEA	25,5	18,3
	BESTE EGOERA BAT	3,6	8,0
	GUZTIRA	100,0	100,0

Iturria. ETXEBIDE.EUSKO JAURLARITZA.

4.4. HIGIEZINEN ARLOKO JARDUERA: ETXEBIZITZEN SALEROSKETA

Gure Erkidegoko etxebizitzaren eskaintza eta eskaria azalduta, 2017ko higiezinen arloko jardueraren dinamikari buruzko kopuru nagusiak emango dira jarraian.

Sustapen Ministerioak Notariotza Estatistikatik jasotako datuen arabera, EAEn notarioaren aurrean 20.981 etxebizitza-salerosketa formalizatu ziren guztira 2017. urtean (behin-behineko datuak), hots, %11,5eko hazkundea 2016ren aldean (+%16,3 erregistratu zen epealdi berean, Estatuan, non guztira 532.367 transakzio erregistratu baitziren).

V.4.12. GRAFIKOA. EAE-KO ETXEBIZITZEN SALEROSKETAREN BILAKAERA MOTAREN ARABERA



Iturria: SUSTAPEN MINISTERIOA
**2017ko datuak behin-behinekoak dira*

Transakzioen kopuruaren bilakaera desberdina da etxebizitza motaren arabera: etxebizitza librearen transakzioak, guztira 2.323 izan ziren (guztizkoaren %11,1), 2016an baino %8,3 gutxiago.

Bigarren eskuko etxebizitzen transakzio kopuruari dagokionez (transakzioen %83,3), 2017an guztira 17.400 transakzio gauzatu ziren. Hala, magnitude hori 2016koa baino %20,3 handiagoa da, hots, transakzio guztizkoaren %+11,5ekoa baino handiagoa.

Etxebizitza babestuak, aldiz, bilakaera negatiboa du: 2017an 1.168 salerosketa gauzatu ziren, 2016an baino %32,6 gutxiago. Beraz, etxebizitzaren tarte horrek pisua galdu du transakzioen guztizko kopuruan: 2016ko %9,3tik 2016ko %5,6ra.

Bilakaera horren lurraldez lurraldeko azterketan ageri denez, bereziki nabaria da Araban (%24,1eko hazkundea). Batez bestekoaren gainetik (+%11,5) Gipuzkoan %13,4 hazi da. Bizkaian, berriz, azpitik hazi da, %7,5 Bilakaera horren ondorioz, Bizkaiak du salerosketa gehien (%52,4), eta ondoren Gipuzkoa (%33,3) eta Araba (guztien %14,3).

V.4.13. GRAFIKOA. EAE-KO ETXEBIZITZAREN SALEROSKETAREN BILAKAERA LURRALDE HISTORIKOEN ARABERA



Iturria: SUSTAPEN MINISTERIOA

4.5. ETXEBIZITZA POLITIKA

4.5.1. Eusko Jaurlaritzaren etxebizitza politika

A) Eginiko gastua

Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza Sailak betearazitako gastua nabarmen handitu zen azken urteetan, eta 2009an 207,4 milioi eurokoa zen. 2015ean, berriz erdira murriztu zen (99,8 milioi euroraino).

V.4.14. GRAFIKOA. EUSKO JAURLARITZAKO ETXEBIZITZA SAILAREN GASTUAREN BILAKKAERA KAPITULUKA. MILIOI EUROTAN



Iturria. EUSKO JAURLARITZA

2016an, informazioa dugun azken urte horretan, eginiko gastua berriz hazi da, 108,1 milioi euroraino (+%8,3), hots, EAEko BPGaren %0,15, aurreko urteko ratio bera, gastuaren bilakaeraren eta ekonomiaren hazkundearen ondorioz.

V.4.16. TAULA. EUSKO JAURLARITZAKO ETXEBIZITZA SAILAK LIKIDATURIKO GASTUAREN BILAKAERA ETA BPG-AN DUEN PISUA.

	ETXEBIZITZA SAILAREN GASTUA		EAE-REN BPG-A PREZIO ARRUNTETAN		SAILAREN % BPG-AREN G.
	Mil. euro	Igoera %	Mil. euro	Igoera %	
2010	182,5	-12,0	65.419	1,9	0,28
2011	123,0	-32,6	65.684	0,9	0,19
2012	145,0	17,9	66.776	-1,9	0,22
2013	125,6	-13,3	65.906	-1,3	0,19
2014	107,1	-14,7	66.378	0,7	0,16
2015	99,8	-6,8	68.497	3,2	0,15
2016	108,1	8,3	70.857	3,4	0,15

Iturria: Eusko Jaurlaritzako Etxebizitzaren Behatokiaren eta EUSTATen datuekin egina.

b) 2013-2016ko Etxebizitza Planaren Balantzea

2010eko ekitaldian Eusko Jaurlaritzaren etxebizitza politika Etxebizitza Plan Zuzentzaile berriak ezarritako ildo estrategikoetarantz zuzendu zen, 2010-2013 aldirako diseinatu zen, eta helburua alokairuko etxebizitzaren parke publikoa handitzea eta hiri zaharberritze eta eraberritze politika berria

bultzatzea da, irtenbide eraginkor eta iraunkorra izateko. Halaber, lurzorua kudeatzeko politika aktiboari eutsi nahi dio, etxebizitza berriaren eraikuntzaren sektorea dinamizatzeko eta lurralde banaketa orekatuagoa lortzeko xedearekin, betiere etxebizitza politikaren zerbitzurako baliabideen erabileran eraginkortasun handiagoa izateko testuinguruan, baina kontuan hartuta etxebizitzaren merkatua errotik aldatu dela finantza-krisiagatik eta higiezinen burbuila lehertu izanagatik. Hori guztia, gainera, ekonomiaren eta enpleguaren gaineko krisian gertatu da; izan ere, merkatuaren hazkundea nabarmen gelditu da horren ondorioz.

Hona hemen haren 2013-2016ko Etxebizitza Planaren eginkizun nagusia: "*Merkatu librean etxebizitza eskuratzerik ez duten pertsonei etxebizitza duina, egokia eta irisgarria eskuratzen laguntzea da, bereziki krisi ekonomikoaren ondorioz gizarte beharra dutenei. Hartara, alokairua sustatuko du epe ertainera eta epe luzera, etxebizitza publikoaren lehentasunezko esleipen gisa. Lehentasunezko jarduna izango du hori eraikitako parkearen aurretik, eta hiriko birgaikuntza, berrikuntza eta birsorkuntza bultzatuko ditu, hori guztia etxebizitzaren sektorean diharduten erakunde eta eragile guztiekin koordinatuta eta adostuta*". Orotara 440,6 milioi euroko inbertsioa aurreikusten zuen, V.4.14. taulatik ondorioztatzen denez, eta alokairuaren sustapenari (aurrekontu guztiaren %25) eta birgaikuntzari (%21) dagozkie partida garrantzitsuenak.

Etxebizitza Sailaren gastu agregatua 440,6 milioi euro izan zen Plan horren indarraldian, V.4.14 Taulan ageri denez. Eta Etxebizitza Talde osoa hartuz gero (Saila gehi VISESA eta ALOKABIDE), gastu bateratua 768,3 milioi euro izan zen 2013-2016 aldian.

Jarraian, Plan horretatik Etxebizitza Sailak eginiko jarduketen ebaluazioaren laburpena emango da, 2018-2020 aldirako Plan Zuzendariaren baitan, 2018ko lehen hileetan martxan jarriak:

V.4.17. TAULA. 2013-2016KO ETXEBIZITZA PLAN ZUZENDARIAREN HELBURU KUANTITATIBOAK ETA BETETZE-MAILA.

		HELBURUA	ERAGIKETAK	BETETZE-MAILA
ETXEB. BERRIA SUSTATZEKO JARDUKETAK	SUSTAPEN BERRIAREN HELBURUA	8.000	5.708	71,4
	- Alokairua	3.950	941	23,8
	- Salmenta	4.050	4.767	117,7
	SUSTATZAILEAK EGINA			
	- Saila	1.150	476	41,4
	- VISESA	2.450	1.687	68,9
	- Udalak eta udal sozietateak	1.000	3.545	80,6
	- Pribatuak	3.400		
ETXEB. BESTE JARDUERA BATZUK	Bizigune programa	5.750	4.499	78,2
	ASAP programa	2.330	254	10,9
	Alokairurako etxebizitza erostea	650	0	0,0
	Etxebizitza hutsa alokairurako birgaitzea	650	0	0,0
	Birgaikuntza eta hiri-birsorkuntza prozesuetan sortutako etxebizitza berria	2.950	2.760	93,6
	Etxebizitza Prestazio Osagarria	106.100	113.180	106,7
BIRGAIKUNTZAK	BIRGAIKUNTZAKO LAGUNTZAK	73.480	50.778	69,1
	- Birgaikuntza osoa	3.400	4.522	133,0
	- Birgaikuntza bakana	69.000	45.684	66,2
	- Irisgarritasunerako birgaik.	1.080	572	53,0
LURRAREN GAINEKO JARDUKETAK	LURRAREN HELBURUA, GUZT.	3.000	495	16,5
	- Saila	2.000	442	22,1
	- VISESA	1.000	53	5,3
JARDUKETAK, GUZTIRA		202.910	177.674	87,6

Iturria: EUSKO JAURLARITZA. 2018-2020ko Etxebizitzaren Plan Zuzendaria.
Oharra: Betetze-mailaren koloreen gaineko sailkapena geuk egina da.

- Lehenik eta behin, etxebizitza berria sustatzeko jarduketetan antzeman denez, balantze positiboa dago erostekoa den etxebizitzan (%117,7), baina zailtasun nabarmenak daude alokairuko etxebizitzan, non ez baitira lortu 1.000 eragiketak, 3.950 aurreikusita bazeuden ere (%23,8ko betetze-maila).
- Etxebizitza erabilia mugitzeko programetan (Bizigune eta ASAP), alokairuko etxebizitza berriaren ekoizpen-defizita estali nahi da. Bizigune programari dagokionez, mugitutako ia 4.500 etxebizitzako parkea zuen alokairuko araubidean 2016ko amaieran. Kopuru hori ez da iritsi Planak aldiaren bukaeran planteatzen zuen 5.750 etxebizitzako helburura eta, beraz, %78koa da betetze-maila. Esan behar da aurreko aldietan Bizigune programak %100aren inguruko betetze-mailak lortu

zituela, baina etxebizitzaren jabeek jaso dezaketen gehieneko errentaren murriztapenak (600 eurotik 450 eurora hilean) eragina izan du programa honek etxebizitza erakartzeko ahalmen txikiagoan. Ildo horretan, parke horren igoera aurreikusten da gehieneko zenbatekoa hilean 600 euroraino igota.

- Bestalde, babesturiko errentamendurako etxebizitzak erakartzeko aukera garrantzitsutzat jotzen zen ASAP programa, helburu handizalearekin: 2.330 etxebizitza Planaren 4 ureetan. Alabaina, alokairuko merkatuko bitartekotza programa hori oso urruti gelditu da igurikapenetatik, zeren eta 245 etxebizitza baino ez baitira erakarri (%11ko betetze-maila). Emaitza horiek ikusita, programari buruzko gogoeta egin beharra dago.

- Birgaikuntza izan da Planak bultzaturiko etxebizitza politiken beste oinarrietako bat. Betetze-maila %69an kokatu da birgaikuntzarako diru-laguntzen programen onura jaso duten etxebizitzen kopuruaren aldetik. Ekonomiaren aldetik, laguntza horietarako aurreikusitako aurrekontuaren %92 betearazi da. Nabarmentzekoa da birgaikuntzaren eragin handia: eragin ekonomikoa BPGaren aldetik eta sortutako enpleguaren aldetik, eta gizarte mailan, pertsonen bizi-kalitatea hobetu baita. Horrez gain, energia-eraginkortasunerako programak ezartzea lagungarria izan da 2020ko iraunkortasuneko estrategiaren helburuak lortzeko.

- Etxebizitza babestuak eraikitzeko lur berriak erakartzeko helburua 3.000 etxebizitzakoa zen, baina 4 urtean 500 etxebizitza ingururako lurra baizik eta da erosi. Aldi horretan, lurraren arloan, bi jarduketa-ildotan egin izan da lan. Alde batetik, eskuragarri dauden lurrak aprobetxatzea eta, bestetik, lurrak ekartzeko formula berriak bilatzea.

- Familientzako prestazio osagarriak ematen dira alokairua ordaintzeko, eta Etxebizitza Sailburuordetzaren politiketako jarduketen zati garrantzitsua izaten jarraitzen du. 2013-2016 aldian, 113.180 laguntza eman ziren.

- Lege berria 2015ean onestea izan da ezaugarri nagusia aldi horretan, baita lege horrek dakartzan oinarrizko bi alderdi ere: etxebizitzarako eskubide subjektiboa aitortzea eta etxebizitzaren gizarte eginkizuna betetzea. 2016an, etxebizitzarako eskubide subjektiboa aitortzeko 847 espediente izan ziren; 633 praktikan jarri ziren.

2018an, arestian esan denez, 2018-2020ko Etxebizitza Plan Zuzendari berria jarri da martxan, 6 ardatz estrategikoren inguruan zehaztua (alokairuko etxebizitza parkea bultzatzea, etxebizitza babestuen parkearen kudeaketa eraginkorrean aurrera egitea, etxebizitza esleitzeko eta eskuratzeko beharkizunetarako prozedurak berrikustea eta aldatzea, etxebizitzaren berrikuntzan aurrera egitea eta lankidetza-sareak sortzea arloko politikak hobeto kudeatzeko eta uztartzeko). Haren gaineko jarraipena egingo da Memoria Sozioekonomiko honen geroko edizioetan. Aurreikuspenen arabera, 1.119 milioi euroko gastua izango da.

c) Birgaikuntza

Eusko Jaurlaritzaren birgaikuntza politika 2013-2016ko Planaren ardatz estrategikoetako bat izan da, birgaikuntza eredu iraunkor, sozial, ekonomiko eta integratzaile berria bultzatuta. Plan Zuzentzailearen guztizko aurrekontutik (460,4 milioi euro), %21 helburu horretara erabiltzen da, esana dugunez, epealdi bera duen “Etxebizitza birgaitzeko Renove plana”ren bidez. Eginiko zenbatespenen arabera, 81,5 milioi euro emango dira diru-laguntzetan, eta ekimen publiko horren bidez 859,5 milioi euro mobilizatuko direnez gero, guztira 940 milioi euro izango dira.

Planaren indarraldia bukatuta, ebaluazio txostenak erakusten duenez, lehenik eta behin emandako laguntzen zenbatekoa 74,9 milioi euro da, eta horiek beste 1.077,4 milioi euro mugiarazi dituzte, hots, orotara 1.152,3 milioi euroko baliabideak erabili dira birgaikuntzarako. Hots, laguntzetarako aurreikusitako aurrekontu publikoaren %92 betearazi beharra dago. Mugiarazitako baliabideen guztizko bolumenari dagokionez, aurreikusitako funtsen %124 dira[36].

V.4.15. GRAFIKOA. EAE-N BIRGAITURIKO ETXEBIZITZEN ETA DIRU-LAGUNTZEN ZENBATEKOAREN BILAKAERA



Iturria: EUSKO JAURLARITZA. ETXEBIZITZAREN BEHATOKIA

V.4.16. GRAFIKOA. ETXEBIZITZA BIRGAITZEKO DIRU-LAGUNTZEN BANAKETA MOTAREN ARABERA. MILIOI EURO.



Iturria. EUSKO JAURLARITZA. ETXEBIZITZAREN BEHATOKIA

2016ko eragiketei dagokienez (eskuratu dugun azken datua), Etxebizitzaren Behatokiak eginiko zenbatespenen arabera, urtean emandako diru-laguntzak lagungarriak izan dira orotara 12.655 etxebizitza birgaitzeko EAEn (+%1,2 2015aren aldean), guztira 15,78 milioi euro (+%8,2). Bilakaeraren aldetik, diru-laguntzen zenbatekoa eta birgaituriko etxebizitzen kopurua nabarmen txikitu dira 2009 maximo historikoa izan zenetik: orduan 20.534 etxebizitza (22,4 milioi euro) birgaitzeko laguntzak eman ziren. 2016ko datuen arabera, batez besteko diru-laguntza 1.247€ etxebizitzako, aurreko ekitaldian baino %7 gehiago. 2016ko datuei erreparatuta ikusten denez, batez besteko diru-laguntza 1.247€ izan zen etxebizitzako, aurreko ekitaldian baino %7 gehiago.

Norbanakoak edo jabeen erkidegoak eska ditzake diru-laguntzak, eta partikularrek diru-laguntzak eska ditzateke elementu pribatuak edo komunak berritzeko. Emandako diru-laguntza gehienak erkidegoaren elementuak birgaitzeko erabiltzen dira (guztizkoaren %97,3), %2,7 baino ez etxebizitzen barrualdeko lanak egiteko.

d) Alokairua

Alokairuko etxebizitzen sustapena bultzatzeko xedea izanik, Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza Sailak, etxebizitza babestuaren zuzeneko sustatzaile gisa jarduteaz gain, diru-laguntzen gaineko politikari eusten dio, eta beste eragile publiko eta pribatu batzuentzako laguntzak ematen ditu alokairu araubidea sustatzeko.2013an ikusi zenez, behera egin zuten horrelako laguntzek, eta zati batez 2014an berreskuratu zen. 2015ean ez da arlo horretako diru-laguntzarik aitortu (ezta subsidiorik ere), ez delako proiekturik izan. Alabaina, alokairuko etxebizitza babestu berria sustatzeko maileguak gauzatu dira, guztira 3,7 milioi euro, 2014aren aldean. Izan ere, urte horretan ez zen jarduketarik izan arlo horretan.

[36] *Memoria honen 2016ko edizioak "Renove" Planaren ebaluazioaren xehetasunak ematen ditu, eta berau ikus bedi xehetasun handiagoa nahi izanez gero.*

2016an (eskuratu ditugun azken datuak), 8 milioi euro eman ziren diru-laguntzetan eta 7,7 milioi subsidioetan, kasu bietan alokairua sustatzeko. Orotara, 15,7 milioi izan ziren.

V.4.17. GRAFIKOA. ALOKAIRUA SUSTATZEKO LAGUNTZEN BILAKAERA. MILIOI EURO



Iturria: EUSKO JAURLARITZA. ETXEBIZITZAREN BEHATOKIA

Bestalde, Etxebizitza Sailaren "*Bizigune*" egitarauko laguntzen xedea EAEko etxebizitza hutsa baliagarri bihurtzea da alokairu babestuaren bidez. Egitarau horretan, 2015ean, orotara 19,27 milioi euroko laguntzak eman ziren (2014ko zenbateko bera), eta horren ondorioz, urtearen amaieran 4.589 etxebizitzatan izan zen eragina (aurreko urtean baino 1 gutxiago).Bilakaera horren ondorioz, batez besteko diru-laguntza 4.199,9 eurokoa da etxebizitzako.

V.4.18. TAULA. EUSKO JAURLARITZAREN BIZIGUNE PROGRAMAREN LAGUNTZEN BILAKAERA

	ERAKARRITAKO ETXEB.	DIRU-LAG. (MILIOI €)	EURO/ETXEB.	ALD. %
2010	4.741	22,29	4.701,5	1,1
2011	4.802	23,15	4.820,9	2,5
2012	5.102	23,02	4.511,7	-6,4
2013	5.174	20,49	3.959,6	-12,2
2014	4.590	19,27	4.199,0	+6,0
2015	4.589	19,27	4.199,9	0,0
2016	4.499	19,50	4.334,3	3,2

Iturria: EUSKO JAURLARITZA. Etxebizitzaren Behatokia

Bestalde, Etxebizitza Sailaren *"Bizigune"* programaren laguntzen xedea EAEko etxebizitza hutsa erabilgai jartzea sustatzea da, alokairu babestuaren bidez. 2016an, orotara, 19,5 milioi euro eman ziren diru-laguntzetan (2015ean baino %1,2 gehiago), eta horren ondorioz, urtearen amaieran, mobilizaturiko etxebizitza bolumena 4.499 zen (aurreko urtean baino 90 gutxiago). Bilakaeraren eraginez, batez besteko diru-laguntza 4.334,3 euro/etxebizitza da, 2015ean baino %3,2 gehiago.

V.4.19. TAULA. "ASAP" ALOKAIRUKO BITARTEKOTZA PROGRAMA. EMAITZA NAGUSIAK

	ETXEBIZITZA INSKRIBATUAK	SINATURIKO ERRENTAMENDU KONTR.
2013	54	23
2014	110	68
2015	233	145
2016	254	221

Iturria: EUSKO JAURLARITZA. ETXEBIZITZAREN BEHATOKIA.

"*Alokabidek*" kudeatzen ditu etxebizitza horiek. Izan ere, sozietate horrek kudeatzen ditu honako hauek, Sailaren beraren alokairuko etxebizitza parkeaz gain (guztizkoaren %27,3): berezkoak (%31,8) eta Biziguneren bitartez hartutakoak (%37,5), EAEko udalen alokairuko parkea (%1,3) eta ASAP egitarauko etxebizitzen beste %1 bat.2015ean, guztira 11.767 etxebizitza kudeatu ziren, hau da, aurreko urtean baino %4,3 gehiago. Hala, goranzko joerari eutsi zaio jarduera hasi zenetik (2002an, alokairuko 230 etxebizitza kudeatu zituenean) 2013ra arte, urte horretan pixka bat egin baitzuen behera (%0,6).

Azkenik, Eusko Jaurlaritzak, partikularren arteko errentamendu araubidea bultzatu beharra zegoela-eta, alokairu libreko merkatuan bitartekaritza lana egiteko egitarau berria abiarazi zuen 2002an "*ASAP egitaraua*" (Alokairu Segurua Arrazoizko Prezioa); Bizigune egitarauak arrakasta izan badu ere, kostu handia dakarkio Sailari. 2015ean 145 errentamendu-kontratu formalizatu ziren. Halaber, Etxebizitzaren Behatokiak nabarmentzen du Egitarauak 233 etxebizitza dituela inskribatuta, 2016an baino 123 gehiago.

4.5.2. Foru Aldundien etxebizitza politika

Eusko Jaurlaritzak garatu duen etxebizitza politikaz gain, interesgarria da gastu fiskalen kopuru handiak ezagutzea, foru aldundiek etxebizitza gaietan esku-hartze publikoa egiteko tresna gisa erabiltzen dituztelako.L2015eko ekitaldikoa da eskuragarri dugun azken informazioa, Etxebizitzaren Euskal Behatokiak egindako "*EAEko etxebizitzarekin loturiko*

zerga politika" txostena oinarri hartuta, betiere hiru foru aldundien 2010 eta 2015 urte bitarteko PFEZaren ziozko likidazioetako datuen arabera[37].

V.4.18. GRAFIKOA. ETXEBIZITZAREN ZIOZKO PFEZ-KO KENKARIEN



Iturria: EUSKO JAURLARITZA. Zergak Koordinatzeko Organoa eta Etxebizitzaren Behatokia. Geuk egina.

Nabarmentzekoa da ohiko etxebizitzaren ziozko kenkarien zenbatekoa (alokairua eta inbertsioa), hain zuzen ere bigarren kenkaria izan ohi dena kopuruaren aldetik familien eta norbanakoaren kenkarien atzetik, 375,55 milioi eurokoa izan zen 2015ean, 2014an baino %1 gehiago. Hala, badirudi eten egin dela ekitaldi horretan 2008an hasitako beherako joera. Kenkari horiek PFEZaren guztizko bilketaren %8,5 dira eta zerga-bilketa osoaren batuaren %3, baita EAEko urte horretako BPGaren %3 ere, behin-behineko datuen arabera.Halaber, Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza Sailak 2015ean betearazitako gastuaren (99,8 milioi euro) %376 da, aurreko atalean ikusi den legez.

Horrez gain, 375,55 milioi euroez gain, gehienak, 306,24 (%81,5), etxebizitza eskuratzearen ziozko kenkariei dagozkie (erosketa/birgaikuntza), eta gainerako %18,5 (69,3 milioi) alokairuko kenkariei.Behatokiak nabarmentzen duenez, azken urteetan gastu fiskala murrizteko prozesu motela gertatu da, etxebizitzaren erosketarekin lotuta. Alokairukoa, ordez, hazi egin da, askoz pisu txikiagoa badu ere.

ITURRIAK

- EUSKO JAURLARITZA.Higiezinen Eskaintzari buruzko Estatistika.2017ko IV. Hiruhilekoa. Hiruhilekoa.Koiunturala.EIN.Etxebizitzaren Prezioen Indizea.2017ko IV. Hiruhilekoa. Hiruhilekoa.Koiunturala.
- EUSKO JAURLARITZA.Eraikuntzari buruzko estatistika.2017ko IV. Hiruhilekoa. Hiruhilekoa.Koiunturala.ETXEBIZITZAREN EUSKAL BEHATOKIA. EAEkko alokairuari buruzko txostena, Estatuarekiko eta EBrekiko konparaziozko analisia. Unean unekoa.
- EUSKO JAURLARITZA.Etxebizitza Beharrei buruzko inkesta. 2015. Bi urtekoa.Estrukturala.
- JABETZAREN ERREGISTRATZAILEEN ELKARGOA.Higiezinen Erregistroari buruzko Estatistika.2017ko IV. Hiruhilekoa. Hiruhilekoa.Koiunturala.
- ETXEBIDE.Etxebizitzaren Euskal Zerbitzuaren Ebaluazioaren txostena. 2015. Urtekoa.Estrukturala.
- SUSTAPEN MINISTERIOA.Etxebizitzen salerosketei buruzko estatistika.2016ko IV. Hiruhilekoa. Hiruhilekoa.Koiunturala.
- EUSKO JAURLARITZA.EAEko etxebizitza hutsen kuantifikazioari eta ezaugarritzeari buruzko bi urterik behingo inkesta. 2016. Bi urterik behingoa.Estrukturala.ETXEBIZITZAREN EUSKAL BEHATOKIA. 2013-2016ko etxebizitza politikei buruzko ebaluazio osoaren txostena.
- EUSKO JAURLARITZA. 2018-2020ko Etxebizitzaren Plan Zuzendaria.
- ETXEBIZITZAREN EUSKAL BEHATOKIA (2017). Etxebizitzarekin loturiko zerga politika EAEn.Gastu fiskalaren norainokoa eta eragina.Unekoa.
- EUSKO JAURLARITZA.ZERGAK KOORDINATZEKO ORGANOA (2016). Euskal Ogasunaren urteko txosten integratua 2014. Urtekoa.Koiunturala.

[37] *Txosten honen edukia ezin izan da eguneratu, 2016ko Memoria Sozioekonomikoan bildua. Azterturikoa laburbilduta eman da, eta Memoria horretara jo bedi xehetasun handiagoa izateko.*

5. BIZI-KALITATEA

5.1. LABURPENA

5.1.1. Hezkuntza eta kultura

EUSTATen arabera, 375.439 ikasle matrikulatu dira EAEn unibertsitatekoa ez den araubide orokorreko irakaskuntzan (helduentzako hezkuntza eta araubide bereziko irakaskuntzak kanpo utzita), 2017/18 ikasturtean. Horrek esan nahi du % 0,5eko hazkundea egon dela aurreko ikasturtearekiko.

Hezkuntza Berezia alde batera utzita dugun matrikulazioko datuei helduta eta mailen arabera bereizita, hauxe ikusten dugu: mailarik baxuenetan (haur eta lehen hezkuntza) 218.680 ikasle daude matrikulatuta: 88.191 ikasle Haur Hezkuntzan (-%3,2) eta 130.489 ikasle Lehen Hezkuntzan (+%0,7, aurreko urtean izandako hazkundeari gehituta; Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan 83.286 (+%2,3) eta Oinarrizko Lanbide Hezkuntza berrian, 2015/16 ikasturtean Hasierako Lanbide Prestakuntza Programa (HLPP) tokia hartu zuen horretan, 4.584 ikasle (+%4,5).

Derrigorrezko Irakaskuntzaren Ondorengoari dagokionez, Batxilergoan 30.574 pertsona matrikulatu dira eta 14.827 pertsona gradu ertaineko LHn. Gradu ertaineko LHn izandako hazkundea (%2,7) Batxilergoan erregistraturikoa baino handiagoa da (%1,1). Bestalde, goi-mailako graduko LHn 20.065 lagun matrikulatu dira, aurreko ikasturtean baino %5 gehiago.

Lanbide heziketetan sakonduta, EUSTATen arabera, hona hemen 2016-17 ikasturtean ikasleen kopururik handiena bildu duten gradu ertaineko lanbide-taldeak: Osasuna (%16), Fabrikazio Mekanikoa (%14,1), Elektrizitatea eta Elektronika (%9,2), Garraioa eta Ibilgailuen Mantentzea (%8,3), Administrazioa eta Kudeaketa (%7,5) eta Instalazioa eta Mantentzea (%7). Goi-mailako tituluen artean, hauexek nabarmentzen dira: Fabrikazio Mekanikoa (%13,9), Elektrizitatea eta Elektronika (%11,6), Administrazioa eta Kudeaketa (%11,3), Gizarte-kulturako Zerbitzuak eta Komunitatearen Aldekoak (%10,7), Informatika eta Komunikazioak (%8,9), Osasuna (%6,7) eta Instalazioa eta Mantentzea (%6,4).

Emakumeen partaidetza oso handia da honako hauetan: Irudi pertsonala (%94,1 maila ertainean eta %96,7 goi-mailakoan), Ehungintza, ebaketa eta larrugintza (%88,4 goi-mailakoan), Kultu zerbitzuak eta Gizarte zerbitzuak (%77,2 maila ertainean eta %78,3 goi-mailakoan), Osasuna (%74,9 eta %73,7, hurrenez hurren), Elikagaien industriak (%61,9 eta %66,7) eta Administrazioa eta Kudeaketa (%60,4 eta % 62,9). Eta gizonaren parekoa Merkataritzan eta marketinean (%53 eta %47) eta Kimikan (%52,9 eta %50,9). Emakumeek lanbide-ikasketetan duten partaidetzak gizonezkoenak baino txikiagoa izaten jarraitzen du (maila ertainean %35,1ekoa da eta goi-mailakoan %35,6koa). Gizonezkoenak, berriz, %64,9 eta %64,4 dira. Halaxe gertatzen da emakumeen matrikulazioa oso txikia delako profil teknikoagoko lanbide-adarretan. Hala, Elektrizitatean eta elektronikan, Fabrikazio mekanikoan, Garraioetan eta Ibilgailuen mantentzean eta Instalazioan eta mantentzean %10 besterik ez da emakumeen matrikulazioa kasurik onenean.

Unibertsitateko ikasketei dagokienez, 2015-16 ikasturtean 66.830 ikasle zeuden matrikulatuta EAEko unibertsitateetan, hots, %0,3ko jaitsiera aurreko ikasturtearen aldean. Ikasleen %75,2 unibertsitate publikora doa eta %24,8, berriz, unibertsitate pribatuan matrikulatu da. Bestalde, sexuaren araberako banaketak emakumearen aldeko diferentzia erakusten du unibertsitatean (%52,7 emakumeak dira). Alabaina, Lanbide Heziketako matrikulazioan gertatzen den bezala, emakumeek unibertsitateko adar teknikoetan (Ingeniaritza eta arkitektura) duten presentzia txikiagoa da gizonezkoena baino (%28,3 eta %71,7).

Unibertsitateko graduazioaren arloan, %2,7ko igoera erakusten dute datuek, orotara 13.654 lagun, eta horietatik %55,2 emakumeak dira.

Graduko ikasketei dagokienez[38], ikasle gehienek Gizarte Zientzien eta Zuzenbide Zientzien adarrean graduatu ziren (%50,4), eta ondoren %21,6arekin Ingeniaritzan eta Arkitekturan. Neurri txikiagoan hauexetan: Osasunaren Zientziak (%14,1), Arteak eta Giza Zientziak (%8,2) eta Zientziak (%5,7). Ez dago titulazio bikoitza duen graduaziorik. Sexuaren araberako diferentziak ageri dira ikasketa-arloa aukeratzean, eta emakumeek gehienbat Gizarte eta Zuzenbide Zientzien barruko programak nahiago dituzte ingeniaritzakoen aldean, Osasunaren Zientziak eta Gizarte Zientziak irakaskuntza teknikoen aldean.

Hezkuntza-adierazleei dagokienez[39]:

- Eskolaratze-tasa:

  EUSTATen datuek erakusten dutenez, alde batetik, ia erabatekoa da eskolaratzea nahitaezko irakaskuntzetan edo orokorretan eta lanbide hastapenekoetan (%100 6-15 urtekoen artean eta %98 ingurukoa 16-17 urtekoetan). Bestalde, oso handia da prestakuntza arautuko sisteman jarraitzen duten gazteen portzentajea adin aurreratuetan, baina ratioa jaitsi egiten da adinean gora egin ahala.

  "HKKMren Espainiako hezkuntza zenbakitan. 2018ko edizioa" deritzon txostenaren arabera, 16, 17 eta 18 urtekoen eskolaratze-tasak handiagoak dira 2015-16 ikasturtean EAEn estatuko batez bestekoak baino. 16 urterekin (%99,2 eta %95,5), 17 urterekin (%97,9 eta %89,6) eta 18 urterekin (%90,6 eta %80,3). 28ko EBko estatu kideekin erkatuta, EUROSTATen arabera, EAE bosgarren tokian dago 16 urtekoen eskolaratze-tasan, Suedia, Danimarka, Irlanda eta Poloniaren atzetik, eta 17 eta 18 urtekoetan, berriz, zortzigarren tokian. 1 7 urterekin, hauexen atzetik: Danimarka, Erresuma Batua, Suedia, Polonia, Errumania, Irlanda eta Luxenburgo; eta 18 urterekin, Errumania, Eslovakiar Errepublika, Holanda, Erresuma Batua, Irlanda, Danimarka eta Hungariaren atzetik.

- Irakasle bakoitzeko ikasle kopurua, lanaldi osoaren pareko lanaldiarekin.

  HKKMren arabera, 2014-15 ikasturtean, EAEko unibertsitatez kanpoko araubide orokorreko lanaldi osoaren pareko lanaldiko irakasle bakoitzeko ikasleen batez besteko kopurua alderatzen badugu, ratio txikiagoa zen EAEn estatuan baino (12,1 eta 12,5) Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako, Batxilergoko eta/edo LHko eta Hezkuntza Bereziko zentroetan, baina DBH ematen den ikastetxeetan eta hezkuntza berezietan ratiorik txikiena Estatuari zegokion.

  Iturri beraren arabera, Espainiako ratioa ELGAko batez bestekoak baino txikiagoa da hauexetan: 13,7 ikasle irakasleko Lehen Hezkuntza, 11,9 Bigarren Hezkuntzako 1. etapan, 11,1 Bigarren Hezkuntzako 2. etapan eta 12,7 Goi Mailako Hezkuntzan.

- Hezkuntzako gastu publikoa administrazio motaren arabera.

  HKKMren datuen arabera, Hezkuntzako gastu publikoa, 2016an, 47,189,7 milioi eurokoa izan zen Estatuan (finantza-kapituluak kenduta eta, horri esker, gorabeherak kendu eta nazioarteko konparazioa egin daiteke), hots, BPGaren %4,1.

  Hezkuntzako gastu publikoa, 2015ean, BPGaren %5,1 izan zen 28ko EBn, estatuko %4,2koaren gainetik. Honatx ratiorik handienak dituzten herrialdeak: Suedia (%7,2), Finlandia (%6,8), Belgika (%6,5), Zipre eta Malta (%6,1 bakoitza), Erresuma Batua (%5,9), Frantzia eta Holanda (%5,5) eta Austria (%5,4).

---

[38] *Graduko ikasketak hartzen dira erreferentziatzat Bolognako Planeko ikasketen egitura nahikoa finkatuta baitago.*

[39] *Hezkuntza-adierazleen bilakaeraren laburpena honako erreferentziak iturri nagusitzat hartuta egin da:*
- Hezkuntzaren egoera. ELGA adierazleak
- EUSTATen irakaskuntza estatistika.
- Espainiako hezkuntzaren kopurua, HZM.
Xehetasun gehiago nahi izanez gero, kapitulu honetako atal egokira jo daiteke.

Hezkuntza administrazioen gastua, estatuan, 41.386 milioi eurokoa izan zen 2016an (BPGaren %3,6). EAEn, gastu hori 2.642 ,2 milioi eurokoa da (aurreko urtean 2.602,5 milioikoa), hots, BPGaren %3,8, estatuko ratioa baino bi harreman gehiago (%3,6) eta 2015ekoa baino %0,1 gutxiago.

Europako eta erreferentziako herrialdeetako batez bestekoarekin konparatzeko, guztizko gastuak izan ditugu aintzat (administrazioen multzokoak). Horrenbestez, EAEko eta Europako batez bestekoak (hedaduraz, herrialdeak) zuzenean konparagarriak ez badira ere, hurbilketa egitea ahalbidetzen digute, zeren eta gasturik handiena hezkuntza administrazioei baitagokie, eta horiek oinarri hartuta, gure Erkidegoak BPGarekiko duen gastu publikoa arlo horretan erreferentziako herrialdeena baino txikiagoa dela esan daiteke.

Unibertsitate-hezkuntza eta unibertsitatez kanpoko hezkuntza bereizita, EAEn, BPGaren gaineko hurrenez hurreneko ratioak % 3,1ekoa eta % 2,7koa izan ziren, estatuan baino handiagoak Unibertsitatetik kanpoko hezkuntzan, baina ez Unibertsitateko Hezkuntzako esfortzuan (%0,6 eta %0,8).

Aldi berean, Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailaren gastua (soilik hezkuntza arloa) 2.588,8 milioi euro izan zen 2016an. Hots, %1,1eko igoera aurreko ekitaldiaren aldean. Eusko Jaurlaritzaren guztizko gastuan duen partaidetza %25ekoa izan zen, aurreko urtekoaren antzekoa (%25,2). Gastu hori EAEko BPGaren %3,65 da, 2015ean izandakoa baino pixka bat txikiagoa (%3,74).

Bestalde, 2017ko aurrekontuetan, Hezkuntza Sailak soilik hezkuntzara bideraturiko partidan, 2.578,8 milioi euro izan ziren. Hots, %1,9ko gehikuntza aurreko urteko aurrekontuko gastuaren aldean. Hona hemen Eusko Jaurlaritzaren gastuen aurrekontuan duen partaidetza-ehunekoa: %23,3. Hau da, EAEko BPGaren %3,5eko gastua. 2016an, berriz, %3,57koa zen.

- Hezkuntzako gastua ikasle bakoitzeko.

EUROSTATen arabera, 2014an, ikasle bakoitzeko gastua 6.133 euro izan zen estatuan, hezkuntza erakunde publikoetan eta pribatuetan, eta 6.687 eurokoa erakunde publikoetan. Bi gastu horiek hauexetakoak baino txikiagoak dira: Zipre, Frantzia, Finlandia, Malta, Alemania, Belgika, Holanda eta Erresuma Batua, eta oso urruti Austriakotik eta Luxenburgokotik.

HKKMren arabera, zentro publikoen ikasle bakoitzeko gastu publikoa Unibertsitatez kanpoko irakaskuntzan, Lan Heziketa alde batera utzita, 6.437 eurokoa izan zen EAEn 2015. urtean. Beraz, berriz ere dugu gure Erkidegoan ikasle bakoitzeko gasturik handiena, baina berriro ere behera egin du zatidurak aurreko urtearen aldean. Estatuko batez bestekoa 4.743 euro zenez gero, ikasle bakoitzeko gastua %35,7 handiagoa izan zen EAEn Estatuan baino.

Ikastetxe publikoko ikasle bakoitzeko gastu publikoa Unibertsitatez kanpoko irakaskuntzan, hor ere Lanbide Heziketa alde batera utzita, 8.973 euro izan zen EAEn, eta berriz ere du gure Erkidegoak ikasleko gasturik handiena. Estatuko batez bestekoa 5.436 euro izan zen, eta, beraz, EAEko ikastetxe publikoetako ikasle bakoitzeko gastua Estatukoa baino %65,1 handiagoa da.

Bestalde, Eusko Jaurlaritzako aurrekontuko likidazioaren arabera, hezkuntzan ikasleko eginiko gastuak (ikasle guztiak, hau da, Araubide Orokorrekoak[40] nahiz Araubide Berezikoak[41]), gora egin zuen berriz ere 2014 eta 2015 artean, 5.259 eurotik 5.328 eurora hain zuzen.

[40] *Unibertsitatekoa eta unibertsitatetik kanpokoa.*

[41] *Arte Plastikoak eta Diseinua, Hizkuntzak, Musika, Dantza, Kirola eta Diseinuko Goi-mailako Ikasketak.*

- Egokitasuna ikaslearen adinean.

  HKKMren arabera, EAEko urteko ikasleen %4,6 Lehen Hezkuntzako 3. mailan zeuden matrikulatuta 2015-16 ikasturtean, adin horri dagokion ikasturtean; 10 urterekin, 5. mailako ikasleen tasa %3,6 txikiagoa da (%91 hain zuzen ere). DBHko adinetan, egokitasun-tasak jaitsiz doaz adinean aurrera egin hala. Hala, 12 urteko ikasleen %87,8 etapa horretako 1. mailan dabil; 14 urteko ikasleen %79,2, hirugarren mailan, eta 15 urtekoen %74,2 laugarrenean dago matrikulatuta. Ratio horiek estatuko batez bestekoak baino txikiagoak dira. Kataluniak du egokitasun-tasarik onena azterturiko adin guztietan, eta EAE hobetuz doa adin teorikoak aurrera egiten duen heinean.

  Genero-ikuspegitik, emakumeen egokitasun-tasak gizonezkoenak baino handiagoak dira, eta alde handiagoa da adinean gora egin ahala. EAEko kasu zehatzean, 2015-16 ikasturtean alde hauek izan ziren: 2,1 puntu emakumeen aldea 8 urterekin, 3 puntu 10 urterekin, 3,5 puntu 12 urterekin, 8,2 puntu 14 urterekin eta 10,6 puntu 15 urterekin.

- Eskola- eta trebakuntza-uzte goiztiarra.

  HKKMren arabera, eskola- eta trebakuntza-uzte goiztiarraren tasak beheranzko joera du gure Erkidegoan, eta 2016an %7,9an kokatu zen, 28ko EBko batez bestekoaren (%10,7) eta estatukoaren (%19) azpitik. Hala, EBk 2020rako ezarritako %10eko helburua lortu du EAEk.

- Unibertsitate-adierazleak.

  <u>Errendimendu-, uzte-, aldatze- eta egokitasun-tasak</u>

  EAEko graduko ikasleen *errendimendu-tasa,* 2015-16 ikasturtean, %80,7 izan zen, unibertsitate guztietako batez bestekoaren gainetik (%77,7). Gure Erkidegoa zazpigarren tokian dago AA.EE.en rankingean, Nafarroaren (%86,7), Kataluniaren (%83,6%), Valentziaren (%82,2), Madrilen (%81,5), Gaztela-Leonen (%81,2) eta Errioxaren (%81,1) atzetik. Emakumeen tasak gizonezkoenak baino handiagoak dira autonomia erkidego guztietan. EAEn, %84,6 da, eta besteetan %74,3.

  Masterreko ikasleen %93,4 izan zen. Beraz, graduko ikasleen tasa baino handiagoa (%80,7). Unibertsitate guztien batez bestekoarekin erkatuta, EAEko ratioa handiagoa da (%93,4 eta %89,1). EAE hirugarren tokian dago AA.EE.en rankingean, Nafarroaren (%98,1) eta Gaztela-Leonen (%95,6) atzetik eta Asturiasen parean. Emakumeen tasak handiagoak dira gizonezkoak baino autonomia erkidego guztietan, Madrilen eta Nafarroan izan ezik. EAEn, %94,4 eta %92,3.

  Graduko ikasleen *ikasketen lehen urteko uzte-tasa* %15,2 izan zen 2013-14 ikasturtean sartu ziren ikasleen artean, unibertsitate guztietako batez bestekoaren azpitik (%21,8), baina aurreko urtean sartu ziren ikasleen inguruan bildutakoa baino tasa handiagoa (%13,8). Hala, EAEk bosgarren tasarik txikiena du, hauexen atzetik: Gaztela-Leon (%12,3), Nafarroa (%14,8), Gaztela-Mantxa (%14,9) eta Madril (%15,1).

  Masterreko lehen urtean, %8,4 izan zen 2013-14 ikasturteko ikasleetan, unibertsitate guztietako batez betekoaren azpitik (%13,3), baina 2012-13 ikasturtean sartu zirenenaren gainetik (%7,2). EAEk laugarren tasarik txikiena du Gaztela-Leonen (%6,2), Asturiasen (%6,3) eta Kanaria Uhartearen (%6,4) atzetik.

  2013-14 ikasturtean sartu ziren ikasleen *graduko ikasketen lehen urteko aldaketa-tasa* %7,3 izan zen, unibertsitate guztietako batez bestekoaren azpitik (%8,3), baina aurreko urteko ikasturteko ikasleei dagokien tasa baino pixka bat txikiagoa (%6,2). Gure Erkidegoak laugarren tasarik txikiena du Errioxaren (%4,5), Gaztela-Leonen (%6,1) eta Gaztela-Mantxaren (%7) atzetik.

  Masterreko ikasketen lehen urteko aldaketa-tasa %2,2koa izan zen, unibertsitate guztietako batez bestekoaren gainetik (%2) eta 2012-13 ikasturteko ikasleei dagokienaren antzekoa (%2,3). EAEko adierazle horretan, okerrera egin

du autonomia erkidegoen rankingean aurreko urtearen aldean. Izan ere, tasa handia du, soilik Balearren (%6,3) eta Kataluniaren (%3,4) atzetik eta Madrilen eta Aragoiren parean.

Graduko ikasleen *egokitasun-tasa* %44,4 izan zen lau urteko graduko ikasleetan, 2012-13 ikasturtean hasi ziren ikasleetan, eta %33,3koa bost urteko graduetan matrikulaturiko ikasleetan (2011-2012 ikasturtean hasi zirenak). Ehuneko horiek, hurrenez hurren, unibertsitateen multzoko batez bestekoaren gainetik daude lehen kasuan (%44,4 eta %34,9) eta txikiagoa bigarrenean (%33,3 eta %34,9), non jaitsiera ikusten den hain zuzen ere.

2014-15 ikasturtean hasi ziren masterreko ikasleen tasa %81ekoa da urtebeteko masterretan eta %88,9koa bi urteko masterretan matrikulaturiko ikasleen kasuan. Ehunek horiek unibertsitateen multzorako batez bestekoaren gainetik daude, %73,4 eta %70,5. Urtebeteko masterreko ikasleen egokitasuna (2015-16 ikasturtean hasi zirenak) gora egin du aurreko epealdiaren aldean (%81etik %82,9ra).

Nazioartekotzea: Espainiako Unibertsitate Sisteman (EUS) sartzea eta irtetea.

2015-16 ikasturtean, nazioarteko 2.736 ikaslek ikasi zuten 2015-16 ikasturtean EAEko unibertsitateren batean. %55,8 emakumeak izan ziren eta %44,2 gizonak, eta gehienak (guztien %53,4) unibertsitate publikoan matrikulatu zen. Estatuan %75eko ratioa dago. Jatorriko herrialdeari dagokionez, 28ko EBkoak nabarmentzen dira EAEn nahiz Estatuan (guztien %47,3 EAEn eta guztien %49 estatuan), baita Latinoamerikakoak ere. (%38,4 EAEn eta %30,1 Estatuan).

Mugikortasun programa dela-eta euskal unibertsitatean sartzen diren atzerriko unibertsitatean matrikulaturiko ikasleen ehunekoa (doktoregoko ikasleak barne) %3 izan zen (estatuko batez bestekoa %3,9 da). Bestalde, EAEko unibertsitatean matrikulaturik dauden eta mugikortasun programa dela-eta atzerriko unibertsitatera doazen ikasleen ehunekoa (doktoregoko ikasleak sartu gabe) %5 izan zen (estatuko batez bestekoa: %2,9), Estatuko ratiorik handiena alegia Sartzen diren eta ateratzen diren ikasleen kopuruaren arteko kozienteak erakusten du, Estatuan, ateratzen diren 100 ikasle bakoitzeko 140 sartzen direla; EAEn, aldiz, egoera aurkakoa da. Izan ere, ateratzen diren 100 ikasle bakoitzeko 70 sartzen dira soilik eta hori ratiorik baxuena da Nafarroaren atzetik.

- Shangaiko Unibertsitate-rankinga.

Espainiak 11 unibertsitate zituen 2017an TOP 500 rankingean (2016an 12 izan ziren). Lehenengoa Pompeu Fabra da, mundu mailako TOP 300 rankingaren barruan. Ondoren, Bartzelonako Unibertsitatea eta Granadako Unibertsitatea daude, horiek ere TOP 300 rankingaren baitan.

UPV-EHU berriz ere agertu zen 2017an TOP500 rankingean. Zehazki hamargarren tokia du estatuko rankingean. Oraingoan aurretik ditu: Pompeu Fabra, Bartzelonako U., Granadakoa, Bartzelonako Autonomoa, Madrilgo Autonomoa, Madrilgo Complutense, Santiago de Compostelakoa, Valentziako Politeknikoa eta Jaume I.

Bestalde, eta kulturari dagokionez, Eusko Jaurlaritzak bi urterik behin argitaratzen duen *Arteen eta Kultur Industriaren Estatistika* delakoaren azken edizioak (2017ko ekaina) euskal kulturaren errealitatearen erretratua ematen du bilakaeraren ikuspegitik. Datu horien arabera, hauexek osatzen zuten sektorea 2015ean: 397 eragile pribatuk (irabazteko asmoarekin eta hori gabe), 2013an baino 27 eragile gehiago. Eragile horiek gehienak liburu-dendak (guztien %27,5, 13 eragile gehiago 2013 eta 2015 bitartean), ikus-entzunezko ekoiztetxeak (guztien %22,7, 16 eragile gehiago 2013 eta 2015 bitartean), arte eszenikoen ekoizleak (%18,9, 9 eragile gehiago 2013 eta 2015 bitartean) eta argitaletxeak dira (guztien %10,6, eta 6 eragile gehiago).

397 eragile horiek guztira 184.936,8 mila euro fakturatu zituzten 2015ean. Gehienak liburu-dendak dira (guztien %30,1), eta ondoren ikus-entzunezkoen ekoizleak (%25,6),argitaletxeak (%16,9) eta musika-sustatzaile pribatuak (%15,6). 2013 eta 2015 bitartean, guztizko fakturazioak %15,7 egin zuen gora 2013aren aldean.

Eragile bakoitzeko batez besteko sarrerari dagokionez, lehenik eta behin musika-sustatzaile pribatuak daude (1.341,1 mila euro eragileko); ondoren argitaletxeak daude (743,1 mila euro eragileko) eta ikus-entzunezkoen ekoiztetxeak (526,6

mila euro eragileko). Nabarmentzekoa da 2011 eta 2015 bitartean lehenbizikoek izandako igoera (913,8 eurotik 1.371,1 eurora eragileko).

Enpleguari gagozkiola, kultur industriek 2.814 lagunei ematen zieten lana 2015ean (lanaldi osoko lanpostuetan neurtuta). Gehienek ikus-entzunezko ekoiztetxeetan (1.255,6 langile) egiten zuten lan; urrutiago zeuden liburu-dendak (301,7 lagun), arte eszenikoen programatzaileak (224,1 lagun), arte eszenikoen ekoizleak (204,8 lagun) eta orkestrak eta bandak (oro har, 367,2 lagun).

2013 eta 2015 bitartean, kultur industrien enpleguak %5,2 egin zuen gora. Bestalde, Euskal Autonomia Erkidegoak kulturan 2015ean likidaturiko gastuak %11,2 egin zuen behera 2014aren aldean HKKMren arabera. Gastu horiek gure Erkidegoaren BPGaren %0,16 da, autonomia erkidego guztietako batez bestekoaren gainetik (%0,1). Biztanleko gastua, EAEn, 49,6€ zen 2015ean, 2014an baino %6,2 gutxiago, eta handiagoa da Estatuko batez bestekoa baino (23,3€).

Bestalde, euskal etxeek ondasunetan eta zerbitzu kulturaletan egindako gastua, 2016an, 707,4 milioi eurokoa zen, hau da, % 2,9ko igoera egon da.

Familiako batez besteko gastua 783 euro izan zen (+%2,8 aurreko urtearen aldean). Pertsonako batez besteko gastua 329,3 eurokoa izan zen, 2015ean baino %2,8 gehiago, eta Estatuko batez bestekoa baino %7,4 handiagoa. Hortaz, EAE seigarren erkidegoa da gehien gastatzen dutenen rankignean, Madrilen, Aragoiren, Nafarroaren, Kataluniaren eta Asturiasen atzetik.

5.1.2. Ingurune Naturalaren egoera

Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailak emandako informazioaren arabera, hobekuntza nabarmena gertatu da EAEko ***airearen kalitatean*** azken urteetan. Hala ere, argitaraturiko azken datuen arabera, batez besteko iraunkortasun-adierazlea %99 da, 2015eko ratioa baino txikiagoa (%99,2). Adierazle hori bi hauen arteko erlazioaren bidez lortzen da: "*Oso ona", "Ona" eta "Hobetu daiteke"* kalifikazioa duten eguneko kopurua gehi urteko egun kopurua. Termino agregatuetan, kalitate oso oneko edo oneko egunen ehunekoa urtean % 83,4tik % 82ra igaro zen 2015 eta 2016 bitartean.

Hondakinen sorreraren eta kudeaketaren arloan, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailaren datuen arabera, 2016an biztanleko 515 Kg hiriko hondakin bildu ziren EAEn, 2015erako zenbatetsitakoa baino gehiago (502 Kg/biztanle). 515 Kg/biztanle horietatik, 111 energiaren aldetik balioztatu eta errautsi ziren, 173 birziklatu eta 24 konpostari dagozkio (ongarri organikoa). Gainerakoa, hau da, 171, zabortegira joan ziren. 2015ekoaren aldean, energiaren aldetik balioztaturiko eta erraustutako hondakinen kopurua jaitsi egin zen, 10 kg biztanleko, birziklatuetan 10 kg gehiago biztanleko eta ongarri organikoetan 3 kg gehiago bildu dira biztanleko. Bestalde, zabortegira eramandakoetan 10 kg-ko hazkundea izan da biztanleko.

Lurralde Historikoen araberako analisiak alde batzuk agertzen ditu.

- Berreskuratzeko eragiketei dagokienez:
    - Egonkor eusten dio energiaren aldetik balioztatzeko eta errausteko eragiketak Araban eta Gipuzkoan, baina behera egin du Bizkaian. Araban 15 Kg biztanleko eta Gipuzkoan 35 Kg biztanleko. Bizkaian, berriz, 187 Kg biztanleko.
    - Birziklatzeak gora egin du Araban eta Bizkaian (110 eta 186 kg/biztanle, hurrenez hurren). Gipuzkoan, berriz, behera egin du, biztanleko 184 kg-tik 180 kg-ra.
    - Ongarri organiko bihurtzeak gorakada izan du hiru Lurralde Historikoetan, baina maila txikietan jarraitzen du, Gipuzkoan izan ezik. 12 Kg/biztanle Araban, 6 Bizkaian eta 59 Gipuzkoan.
- Hondakin gutxiago eraman dira zabortegira Araban, eta gehiago Bizkaian eta Gipuzkoan: 161, 120 eta 254 kg biztanleko.

Hondakin arriskutsuak eta arriskutsuak ez diren bereiziz, 2015 eta 2016 bitartean, %6,4 egin zuen behera kudeaturiko hondakin ez arriskutsuen guztizko kopuruak. Arriskutsuenak, berriz, %1,4 egin zuen gora 2014-2015 aldian (ez dago 2016rako daturik). Gauzak horrela, 2016an, guztira, 3.307.978 Tm bildu ziren eta arriskutsuak 327.766 Tm izan ziren 2015ean. hots, hondakin arriskutsuak guztien %8,5 zen urte horretan. Ez arriskutsuena, berriz, %91,5 ziren.

2016an, hondakin ez arriskutsu guztien %54,3 birziklatu edo konposta egin ziren (aurreko urtean %53,3), %3,4 energiaren aldetik balioztatu zen (aurreko urtean %3,9) eta gainerako %42,3a desagerrarazi zen (%42,8 aurreko aldian). Bestalde, hondakin arriskutsu guztietatik (2015eko datuak), %67,7 birziklatu edo konposta egin zen (%66,6 2014an), %1,8 energiaren aldetik balioztatu zen (2014an %1), %0,6 errautsi zen (%0,8 2014an) eta gainerakoa %29,9 desagerrarazi zen (%31,5 2014an).

Bukatzeko, EINek egindako *"Industria-enpresek ingurumen babesean izandako gastuaren inkesta"*ri buruzko azken datuen arabera, 2015ean EAEn enpresa horiek ingurumen babesean izandako gastua (gastu arrunta eta inbertsioa), guztira, 175,9 milioi eurokoa izan zen Hori 2014an egondakoa baino %0,6 txikiagoa da. Hala hiru urtez jarraian metatu dira jaitsierak. Intentsitatearen aldetik, jaitsiera txikia ikusten da 2015ean 2013koaren aldean, %2koa hain zuzen, eta %0,26an kokatzen da. Hala ere, Estatuko batezbestekoa baino handiagoa da, %0,19koa baita bertan. Hala, EAEk zazpigarren tokia izan zuen 2015ean, honako hauen atzetik: Asturias eta Nafarroa (bietan % 0,41), Gaztela-Mantxa (%0,38) eta Kantabria (%0,33), Errioxa (%0,28) eta Murtzia (%0,27).

5.1.3. Osasuna eta Osasun Sistema

Hasteko, zenbait adierazle aurkeztuko ditugu, herritarren osasun-egoerara hurbiltzea ahalbidetzen digutenak, besteak beste, **menpekotasuna, buruko osasuna (depresio sintomatologia) eta hilkortasuna.**

Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasun Ministerioaren arabera, **bizi esperantzan jaiotzean** (BIj) Euskadin, 2001 eta 2014 bitartean, 3,5, urtetan hazi da, eta 2014an 83,9 urtera iritsi zen, Estatuan ikusitako bera, baina Madrilen (85), Gaztela eta Leonen eta Errioxan (bietan 84,1) izandakoa baino txikiagoa, eta Nafarroan 83,9 da. Aldi bereko hazkundea Estatuan EAEkoa bezalakoa da, hots, 3,5 urtekoa, eta autonomia erkidego guztietan egin zuen gora.

Hala eta guztiz ere, jaiotzako bizi itxaropenaren hazkunde horrek ez du esan nahi adierazle hori igotzen den bizitzako urte horietan guztietan osasun-egoera ona izango denik. Izan ere, pertsonek bizitza-kalitatea galtzea eragin dezaketen gaixotasunak eta osasun-arazoak jasan ditzakete, heriotza berehala eragiten ez badute ere. Horren ondorioz, heriotza-tasak pixkanaka balioa galdu du osasunaren egoeraren adierazle gisa, eta gaixotasuna bere ondorioen bidez neurtu beharra dago, hala nola jarduera egiteko muga edo ezintasuna.

Datu-iturri beraren arabera, EAEn nahiz Estatuan, **Bizi Urte Osasuntsuak** jaiotzean, goranzko joera ageri da. 2006 eta 2014 bitartean, 5,3, eta 4 urtetan handitu ziren hurrenez hurren, eta 68,7 eta 66,9 urtetan kokatu ziren. Horrela, 2014an, seigarren tokian zegoen EAE jaiotzean bizitza osasuntsuen urte gehien zituzten autonomia erkidegoen rankingean, honako hauen atzetik: Aragoi, 72,6 urte; Kantabria, 72,3 urte; Nafarroa, 70,5 urte; Gaztela-Mantxa, 70,1 urte eta Gaztela eta Leon, 69,8 urte.

Bestalde, 65 urterekin (BI_{65}), euskaldunek, 2014an, urtean 22 bizitza urte izatea espero zuten, eta BI_{65} handiena duen hirugarren autonomia erkidegoa da, hain zuzen Madrilen (22,9) eta Gaztela eta Leonen (22,3) atzetik eta Nafarroaren pare (22). Eta adin horretan bertan 2014an, euskaldunek bizitza osasuntsuko 12,4 urte izatea espero zuten (BUO_{65}), eta BUO_{65} kopururik handiena duen autonomia erkidegoa da.

Orain, **depresio sintomatologiari buruzko** datuak aztertuko ditugu. Osasunaren Europako Inkestaren Espainiako datuen arabera (2017ko ekainaren 17an argitaratu zen Osasunaren Sistema Nazionalaren 2016ko Urteko Txostenean bilduak), EAEn, 2014an, %0,7 zen depresio gaitz larria izan zuten 15 urte eta gehiagokoen portzentajea, Estatu osokoa baino txikiagoa (%1,1) Ez hain gaitz larria dutenak kontuan hartzen baditugu, ratioa %2,1 da, estatuko batez bestekoaren azpitik (%2,9). AA.EE.en arabera, depresio gaitz larria edo ez hain larria izan zuten 15 urte eta gehiagokoen biztanleriaren ratiorik handiena zuen EAEk (%2,1), eta ondoren, Madril (%2), Galizia (%1,9), Gaztela-Mantxa (%1,8), Gaztela eta Leon (%1,7), Errioxa (%1,3) eta Extremadura (%1,2) zeuden, baina zorionez ez zituen izan beste batzuen portzentajeak: Kantabria (%3,5), Nafarroa (%3,7), Andaluzia (%4,6), U. Kanariarrak (%4,7) eta Asturias (%6,2).

Sexuen arabera, gizonen prebalentzia emakumeena baino handiagoa izan zen. EAEn, %2,7 izan zen, 2014an, gaitz larria edo ez hain larria izan zuten 15 urte eta gehiagoko emakumeen portzentajea. Gizonena, berriz, %1,5 izan zen. Estatuan, %3,8 izan zen lehen kasuan eta %1,9 bigarrenean.

Heriotza-tasari dagokionez, Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasun Ministerioaren arabera, AAEE guztietan murriztu dira heriotza-tasak azken urteetan, eta 2015ean, adinaz doituriko[42] 100.000 biztanleko heriotza-tasa txikiagoa da EAEn Estatuko batez bestekoa baino (437,5 eta 461). Beste AAEE batzuekin erkatuta ikusten denez, EAEk emaitza ona du. Hala, Madrilen, Nafarroan, Gaztela eta Leonen eta Errioxan baino ez daude tasa txikiagoak.

Adinari dagokionez, heriotzen zatirik handiena, EUSTATen "*Heriotzen Estatistika"*ren arabera, goranzko joera ageri da, eta handiagoa emakumeen artean. Izan ere, 2016an, batez besteko adina 80 urtetan kokatu zen (76,8, gizonentzat eta 83,4 emakumeentzat). Berez, urte beretan, heriotzen %65,3 80 urtetik gorakoen artean gertatzen zen. Hala, 80-89 urtekoen taldeko heriotza kopurua 8.165 da; 90-99 urtekoetan, 5.394, eta 99tik gorakoetan, berriz, 294.

Heriotzen kausei dagokienez, hainbat estatistika-iturrik erakusten dutenez, EAEn nahiz gure ingurune sozioekonomikoko herrialdeetan, gehienak transmititzen ez diren eritasunen ondorioz gertatzen dira, gehienbat eritasun kardiobaskularrengatik eta tumoreengatik. Hala, EUSTATen arabera, gertaturiko heriotza gehienak, 2007tik hona, tumoreengatik gertatu dira. Aurreko urteetan, aldiz, zirkulazio sistemaren gaixotasunek eragin zuten heriotza gehien. 2016an, tumoreek eragindako heriotzak guztizkoaren %29,8 izan ziren, eta zirkulazio aparatuko eritasunen ondoriozkoak %27. Hirugarrenik, arnas sistemako eritasunak daude (eritasun guztien %9,7).

Galdutako bizitzako balizko urteen azterketatik, hilkortasunak herritar gazteenengan duen eragina islatzen duen neurrian heriotzak ahal den neurrian prebenitze aldera, ondorioztatzen da, Eusko Jaurlaritzaren Osasun Sailaren datuen arabera, gizonen kasuan, heriotza goiztiarreko bost kausa nagusiak hauek direla (2008-2016 epeko datuak): trakeako, bronkioetako eta birikako tumore gaiztoak; kardiopatia iskemikoak; suizidioak eta norberak egindako lesioak; trafiko-istripuak motordun ibilgailuekin eta zirrosia eta gibeleko gaixotasun kronikoak. Ondoren, bestelako kausak ditugu hala nola burmuin eta hodietako eritasunak eta piskofarmakoek eta drogek eragindako nahigabeko pozoitzeak. Bestalde, gibelarekin lorturikoak (zirrosia eta gibelaren gaixotasun kronikoak) aurreko urteetan baino gutxiago izan dira. Emakumeen kasuan, epe bera aztertuta, ikusten da hilkortasuneko hiru kausa nagusiak hauek izaten direla: bularreko tumore gaiztoak; trakeako, bronkioetako eta birikako tumore gaiztoak eta suizidioak eta autolesioak. Gaixotasun

---

[42] *Tasa gordina populazioaren gaineko esperientziaren laburpen erarik errazena eta zuzenena da. Heriotza-tasa orokorrak oso lotura estua du adinarekin, halako moldez non oso ezberdinak izango baitira adinaren araberako heriotza-tasa espezifikoak. Tasa gordinak sortzen duen "batez besteko balio" horren atzean, adin-estratuaren araberako heriotza-tasa espezifikoen heterogeneotasuna dago.*

Gaia bereziki garrantzitsua da biztanlerien edo epealdi desberdinen arteko tasak erkatzen direnean, zeren eta, biztanlerien osaera ezberdina bada, balizko ezberdinen zati bat behintzat estratuen arteko aldeengatik izan baitaiteke.

"Doikuntza" eta "estandarizazio" terminoak erabiltzen dira, biak ala biak, laburpen-neurriak taldeen artean erkatzeko modua errazteko; hartara, talde artifizialak egiten dira prozedura matematikoen bidez.

Hala, adinaren araberako heriotza-tasa estandarizatua (HTE) lurralde batean erregistraturiko heriotza kopuruari dagokio (100.000 biztanleko adierazita) heriotza-tasaren arabera, sexuka eta adinka banatuta, eta biztanleria tipo edo estandarreko adinen araberako egitura erabiliz.

Zuzeneko estandarizazio deritzon metodo horrek heriotza-tasen batez besteko haztatua kalkulatzen du adin-taldeen arabera, non haztapen-koefizientea erreferentzia estandarreko biztanleria den.

Metodo horri zuzeneko estandarizazioa deritzo, eta adin-taldeko heriotza-tasen batez besteko haztatua kalkulatzen du, non hatazpen-koefizienteak erreferentzia estandarrako biztanleria den.

zerebrobaskularrak edo zirrosia ez dira aurreko urteetan bezain ohikoak izan eta, aldiz, antzeman da emakumeen hilkortasun goiztiarra areagotu egin da koloneko, obarioko eta enzefaloko tumore gaiztoengatik.

Bizitzako ohiturak determinanteak dira osasunean, osasuntsuagoak edo ez hain osasuntsuak diren neurrian. Hori dela-eta, orain osasunean eragina duten zenbait **determinante ez mediko** aztertuko ditugu. Zehazki, tabako kontsumoa, alkohol kontsumoa eta obesitatea.

Tabako kontsumoari dagokionez, Osasunaren Europako Inkestaren Espainiako datuen arabera (2014), hain zuzen Osasun Sistema Nazionalaren 2016ko Urteko Txostenean bilduak, EAEn, urte berean, 15 urte eta gehiagokoen %22,8k egunero erretzen zuen, Estatuan baino portzentaje txikiagoa (%23). Sexuen arabera, egunero erretzen zuten gizonen portzentajea handiagoa zen emakume erretzaileena baino, bai gure Erkidegoan (%28,5 eta %17,4), bai Estatuan (%27,6 eta %18,6). Datuek erakusten dutenez, EAEko tabakoaren eguneroko kontsumoaren prebalentzia txikiagoa -Estatukoarekin alderatuta- gertatzen da euskal emakumeen kontsumoaren prebalentzia txikiagoa delako Estatuko emakumeen batez bestekoaren aldean (%17,4 eta %18,6), zeren eta euskal gizonen kontsumoa handiagoa izan baitzen (%28,5 EAEn eta %27,6 Estatuan).

Autonomia erkidegoen arabera, EAEk erdiko posizioa zuen autonomia erkidegoen rankingean, eta egunero tabakoa kontsumitzen dutenen ratiorik handienak Extremaduran eta Murtzian (bietan %25,6), Andaluzian (%24,4) eta Aragoin (%23,9) daude, eta txikienak, %21etik behera, Melillan, Galizian eta Asturiasen. Alabaina, sexuaren araberako azterketa eginez gero ikusiko dugunez, gizonen bosgarren prebalentziarik handiena dute, hauexen atzetik Extremadura (%31,8), Katalunia (%29,8), U. Kanariarrak (%29,5) eta Balearrak (%29,3).

Alkohol kontsumoari dagokionez, datu-iturri beraren arabera, 15 urte eta gehiagoko euskaldunen %76,6k alkohola edan zuen inoiz urte horretan. EAEk alkoholdun edarien 2. kontsumo tasarik handiena zuen, Kantabriaren atzetik (%77), eta Estatuko batez bestekoa baino 9,3 gehiago zituen (%67,3). Sexuen arabera, edaten zuten gizonen portzentajea emakumeena baino handiagoa zen, bai gure Erkidegoan (%84,2 eta %69,6), bai Estatuan (%77,5 eta %57,7).

Gainerako autonomia erkidegoen aldean, nabarmentzekoa da euskal emakumeen kontsumo handia, prebalentziarik handiena baitzuten (%69,6), eta ondoren Kantabriako emakumeak (%68), Balearretakoak (%65,8) eta Aragoikoak (%65,6) zeuden. Bestalde, euskal gizonen hirugarren prebalentziarik handiena zuten (%84,2), eta atzetik zeuden kantabriarrak (%86,4) eta asturiarrak (%84,3).

Osasun Sistema Nazionalaren 2016ko Urteko Txostenaren arabera, Estatu osoko datu hauek ditugu:

- Sexuaren araberako aldeak ikusten dira adin guztietan, baina txikiagoak dira gazteenen artean.
- Edaleen prebalentzian sexuen arabera dauden aldeek hezkuntza eta lan arloko gradienteekin dute zerikusia. Kontsumoaren prebalentzia handiagoa da gradienterik handienetan, batez ere. Goi mailako ikasketak dituzten emakumeen %74,9k alkohola edan zuten azken urtean. Oinarrizko ikasketak edo txikiagoak dituzten emakumeen portzentajea, berriz, txikiagoa da, %45,2 hain zuzen: adin-talde guztietan ageri da aldea.

Obesitatea (30 kg/m2-ko gorputz-masaren indizea edo handiagoa) osasun arazoen eta egoera kroniko askoren arrisku faktore nagusienetakoa da, eritasun hauek barne: bihotzekoa, zerebrobaskularra, diabetes mellitusa, hipertentsio arteriala eta minbizi mota batzuk.

Osasunaren Europako Inkestako Espainiako datuen arabera, gure Erkidegoan, 18 urte eta gehiagokoen %13k obesitatea zeukan 2014. urtean (Estatuko batez bestekoa baino %3,9 gutxiago -%16,9-). Autonomia erkidegoen rankingean, bigarren obesitate-tasarik txikiena zeukan. Soilik Nafarroak zuen tasa txikiagoa (%11,7). Ratiorik handienak Galizian, Andaluzian eta Gaztela-Mantxan ageri dira. gain-pisua ere aintzat hartuz gero, %46,4k obesitatea edo gain-pisua zuen (Estatuko batez bestekoa baino 6,2 puntu portzentual gutxiago - %52,6-).

EAEk zuen tasarik txikiena. Sexuen arabera, edaten zuten gizonen portzentajea emakumeena baino handiagoa zen, bai gure Erkidegoan (%84,2 eta %69,6), bai Estatuan (%77,5 eta %57,7). Sexuaren arabera, euskal gizonen %14,2k obesitatea zeukan eta emakumeena, berriz, %11,9. gain-pisua ere kontsideratuz gero, %54,6 eta %38,7 ditugu.

Bilakaeraren aldetik, Osasun Sistema Nazionalaren 2016ko Urteko Txostenaren arabera, 2001 eta 2014 bitartean, obesitatearen prebalentziak, EAEn, %4,4ko igoera izan zuen. 2001ean, 18 urte eta gehiagoko euskal herritarren %8,7k zeukan 30 kg/m2-ko edo handiagoko gorputz-masaren indizea. 2014an, berriz, %13 zen.

Orain, Euskadiko **laguntzako baliabideen eta jardueraren** gaineko zenbait adierazle azalduko ditugu, Osakidetzaren datuak baliatuz.

Datu horien arabera, 2016an, pixka bat behera egin du eskariak. Hala, sareko **batez besteko okupazio-indize** globalak behera egin zuen 2015ekoaren aldean, eta %77an kokatzen da. Aurreko urtean, berriz, %78,8 izan zen.

Hala, % 100a gainditzen da eta, beraz, berriz ere kokatzen dira batez besteko horren gainetik, zerbitzu medikoetan, honako espezialitateak: pneumologia (%148,4), barne medikuntza (%122,53) eta digestio-aparatua (%104,3); eta kirurgiako zerbitzuetan: Kirurgia kardiobaskularra (%114,2) eta urologia (%103,9). %100aren azpitik baina batez bestekoaren gainetik ditugu gainerako zerbitzu medikoak, eta kirurgiako gainerako zerbitzuak, kirurgia plastikoa (%60,7), kirurgia baskularra (%696) eta kirurgia orokorra (%72,4).

Batez besteko egonaldiak 5 egunekoa izateari eusten dio. Batez bestekoaren oso gainetik daude errehabilitazioa (33,9), psikiatria (14,2) eta zainketa aringarriak (13,8).

Itxaronzerrendei dagokienez, kanpoko kontsultetako itxaronzerrendetako pazienteen kopuruak gora egin zuen, 91.124tik 97.709ra. Zerrendetan paziente kopururik handiena duten espezialitateak, 2016an, berriz ere aurreko urteetako berdinak dira, eta ordena berean: traumatologia (18.152), oftalmologia (13.81), dermatologia (11.438), errehabilitazioa (8.734) eta ginekologia (6.509). Berandutze aldiari dagokionez, 2015 eta 2016 artean hilabetetik gora itxaroten duten biztanleen portzentajea %39,3 da (aurreko urteko antzeko ratioa). Gainerako %60,7ak hilabete baino gutxiago itxaroten du.

Datu horiek eta Informazio Sistemak Osasun Sistema Nazionalak (SISLE-OSN) itxaronzerrendei buruz ematen dituen datuak alderatzen baditugu oinarrizko espezialitateetan eta 2016ko datuekin, hauxe ikusiko dugu: itxaronzerrendan 1.000 biztanleko dauden pazienteen kopurua txikiagoa da EAEn Estatuan baino espezialitateotan, baina oso hurbil dago: Ginekologian (2,8 eta 2,9), Kardiologian (1,4 eta 1,5), ORLn (2,6 eta 2,9) eta Traumatologian (7,9 eta 8,2. Gainerako oinarrizko espezialitateetan, handiagoa da EAEren aldeko diferentzia (paziente gutxiago itxaronzerrendetan): Oftalmologia (6 eta 8,1), Dermatologia (5 eta 6,1), Digestio aparatua (1,4 eta 2,4), K. Orokorra eta Digestio A. (1,2 eta 1,9), Neurologia (2,6 eta 2,9), Urologia (1,6 eta 2). Artatuak izateko hilabetetik gora itxaroten duten pazienteen ehunekoari dagokionez, nahiz eta adierazleak zuzenean ezin konpara daitezkeen, badirudi agerian uzten dutela Estatuko egoera ez dela hain ona.

Kirurgiako itxaronzerrendei dagokienez, horietako pazienteen kopuruak berriz ere egin zuen behera EAEn 2016an; jada bost urtez jarraian izan da jaitsiera. Zehazki, 2015 eta 2016 urte bitartean 17.725 pertsona izatetik 17.343 pertsona izatera, hots, 7,7 pazientetik 7,6 pazientera osasun-txartela duten mila biztanleko; Estatuko 13,7ko batez bestekoaren azpitik dago ratio hori. Itxaronaldi luzeenak traumatologian (60 egun) eta otorrinolaringologian (52,8 egun) daude. Pixka bat behera egin du batez besteko berandutze egunen kopuruak (50,6 egunetik 50,3 egunera), Estatuan izandakoa baino txikiagoa (115 egun).

Bestalde, ebakuntza egiteko 3 hilabete baino gehiago itxaron behar duten pazienteen portzentajeak behera egin du, %15etik %14,3ra, baina 2013an eta 2014an ikusitako ratioetatik goitik jarraitzen du.

Kapitulu hau amaitzeko, **Osasun Sistemaren gastua** aztertuko dugu. Eusko Jaurlaritzaren 2016ko aurrekontuko likidazioaren datuen arabera, Osasunaren atalak (ez da Kontsumoa sartzen), 3.514 milioi euro izanik, lehen tokian jarraitzen du baliabideen portzentajean, hots, guztizko gastuaren %33,9 da, non programa nagusia Osakidetzaren transferentziei dagokien eta BPGd nominalaren 4,96 den, aurreko urteko portzentajetik behera pixka bat. Kopuru absolutuetan, 2015 eta 2016 bitartean, likidaturiko gastua 91 milioi euro handiagoa da.

Osasuneko Finantzazioa eta Kontratazioa eta Farmazia programak ia likidaturiko guztizko gastu osoa dira (%98,2): Zehazki, Osasuneko Finantzazioa eta Kontratazioa %83,7 eta Farmaziak %14,6.

Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasun Ministerioaren arabera, EAEn osasunean biztanleko[43] eginiko gastu publikoak goranzko joera izan zuen 2007 eta 2011 bitartean. Izan ere, urte horretan, gorabeherak hasi ziren gertatzen ratioan krisi ekonomikoaren ondorioz. 2015etik hasita, berriz ere goranzko bidetik doa.

Horrenbestez, EAE da azterturiko aldi osoan (2007-2017) biztanleko gasturik handiena egiten duena. Zehazki, 2017an, behin-behineko datuen arabera, 1.670,3 euro guztira. EAEren kopuruetatik hurbil daude Nafarroa (1.635,8 euro), Asturias (1.586,6), Extremadura (1.453,1), Aragoi (1.441,4) eta Gaztela eta Leon (1.431,1).

Osakidetzaren aurrekontu-likidazioak, EAEren Kontu Orokorretatik abiatuta egindakoak, erakusten du erakundeak 2016an egindako gastua 2.763 milioi eurokoa izan zela (+% 1,5 2015arekin alderatuta). Hori BPGd nominalaren % 3,9 da, 2015eko ratio berbera. Igoera hori egon da ustiakuntza-gastuak hazi direlako, inbertsioak murriztu baitira.

Zehazki, likidatutako ustiakuntza-gastuak 2.670 milioi eurokoak izan dira; horietatik, 1.801,7 milioi euro langileen gastuei dagozkie (ustiakuntza-gastuen % 67,5, % 2,3ko hazkundearekin aurreko urtearekiko).

Bestalde, likidaturiko kapital-aurrekontua 65,7 milioi euro da; 2015ean likidaturikoa baino %11 gutxiago, hots, bi urtez jarraian jaitsierak izan dira.

Azkenik, 2013-2020ko Osasun Planaren emaitzen urteko txostenak dakartzan datuen arabera, plana ezarri den hirugarren urtean (2016) proposaturiko helburuen %31 eta ekintzen %31 dagoeneko abiarazita daude; helburuen %49 eta ekintzen %52 abiarazita daude, eta helburuen %20 eta ekintzen %16 ez dira abiarazi.

Adierazleetatik 60 adierazleren informazio eguneratua dugu, guztizkoaren %55 (aurreko urtean 57 adierazle izan ziren). 60 helburu horietatik, 2020ko helburua beteta dago edo helburua betetzeko joera ageri da 27 adierazletan, 17k hobekuntza dute oinarrizko egoerarekiko, baina egungo joerarekin, ez da aurreikusten helburua 2020rako betetzea; 1ek ez du aldaketarik oinarrizko egoerarekiko eta 15etan egoera okerragoa dago oinarrizko egoerarekiko.

5.1.4. Etxebizitza

Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza Sailaren "Higiezinen Eskaintzaren Estatistikak" adierazten du, lehenik eta behin, azkenengo urtean etxebizitzaren guztizko eskaintza (salmenta gehi alokairua) % 17,1 erori dela (-%10 2016an); laugarren hiruhilekoan 27.798 unitate batuz. 2017an eta aurreko urtean bezalaxe, etxebizitza mota guztien eskaintza murriztu zen, babestutako alokairua izan ezik, guztizko eskaintzaren % 2 dena.

Etxebizitza motaren arabera, datu hauek nabarmendu behar ditugu:

- Salgai gauden etxebizitza libre berrien eskaintza %2,2 txikitu da , eta horren prezioa metro koadroko eurotan, 3.222 €/m^2 da, 2016ko batez bestekoa baino %1,3 gehiago. Lurraldeen araberako azterketaren arabera, batez bestekorik txikiena Araban dago (2.492.6 €/m^2); Bizkaian eta Gipuzkoan, berriz, 3.286,7 €/m^2 eta 3.309,1 €/m^2 dira hurrenez hurren.
- Saltzeko eskainitako BOEren batez besteko prezioa 1.750 €/m2 zen 2017an, aurreko urtean baino %0,4 gehiago. Eskaintza 2017ko laugarren hiruhilekoan 1.206 etxebizitzakoa zen, aurreko urtean baino %6 gutxiago

[43] *Datuek osasuneko aurreko aurrekontuak islatzen dituzte, autonomia erkidego bakoitzaren mailan bateratuak, hain zuzen autonomia erkidegoek beren aurrekontu bateratuetan sartutako erakundeei dagozkienak. Beraz, baztertuta gelditzen dira fundazioak, partzuergoak, enpresa publikoak eta osasunaren arloan jarduerak egiten dituen eta gutxi gorabeherako aurrekontua duen beste edozein erakunde publiko. Biztanleriaren datuak EINek argitaraturiko erroldari dagozkio.*

- Eskaintzan dauden bigarren eskuko etxebizitzen stockean %19,7ko jaitsiera dago eta haien batez besteko prezioa 2017an 2.758 /m2 zen, aurreko urteko batez bestekoa baino %0,8 gutxiago. Lurraldez lurralde, hiruretan batez bestekoaren azpitik jaitsi dira prezioak (-%3,7 Araban, -%1,2 Bizkaian eta -%4, Gipuzkoan), inmobiliariek Araban eskaintzaren gaineko eguneratze handia burutu dutelako (%46 murriztuta) eta ondorengo doikuntza izan delako haztapenetan.
- Alokairuan eskainitako 1.503 etxebizitzako eskaintza zenbatu da, aurreko urtean baino %7,5 gehiago. Libreei dagokienez (eskaintzaren %62,8), berriz, %6,2 jaitsi da: 1.006 etxebizitzatik 944 etxebizitzara, alokairuko etxebizitza babestuetan %42,6 egin du gora. Beraz, babesturiko alokairuak gora egin du: alokairuaren %28 2016an eta %37,2 2017an. Bestalde, EAEko alokairuko etxebizitza babestuen batez besteko errenta, 2017an, 329,4 euro zen hilean, aurreko urtean baino % 22,9 gehiago.
- Azkenik, alokairuan eskainitako etxebizitza libreen laginak 944,3 euroko batez besteko errenta du hilero 2017an, urtebete lehenago baino % 7,3 gehiago. Lurralde historikoen artean, Gipuzkoak du preziorik altuena (1.028 € hilean); ondoren Bizkaia dator, 955,5 € hilean, eta azkenik Araban (709,7 € hilean).

Eraikuntzaren jarduerari dagokionez, Etxebizitzaren Euskal Behatokiak agerian utzi duenez, hasitako etxebizitzen guztizko kopurua, 2008an eta 2009an nabarmen jaitsi ondoren, goranzko bidean hasi zen 2010-2011 biurtekoan, nabarmen hazita betiere. 2012 eta 2015 bitartean, ordea, %15 egin zuen behera hasitako etxebizitzen kopuruak. 2016an (eskuratu dugun azken datua), hasitako etxebizitzen kopurua %89,6 igo zen aurreko urtearen aldean. Hasitako etxebizitzetatik %77 libreak ziren eta %23 babestuak. Badakigu zein diren hasitako etxebizitza babestuei buruzko 2017ko zifrak (ez dago merkatu libreari buruzko informaziorik): guztira 1.443 hasi ziren, 2016an baino %8,43 gehiago. 2010ean izan ezik, hasitako etxebizitza babestuak behera egin zuen 2007tik 2015era, eta berriz ere gora egin zuen azken urte horretan.

Bestalde, EAEn 2017an *amaitutako etxebizitzak* 3.665 dira, aurreko urtean baino %1,9 gehiago, amaitutako etxebizitza libreen beherakadaren (-%83,5) eta babestutakoen igoeraren (+%80,8) baturaren emaitza. Horren ondorioz, aurten murriztu egin da etxebizitza babestuak EAEko eraikuntzako jardueran duen partaidetza, zeren eta bukaturiko etxebizitzen artean behera egin baitzuen, 2016ko %48,1etik 2017ko %7,8ra.

Bestalde, Etxebizitzaren Euskal Behatokiak txosten bat egin zuen 2017an, eta bertan nabarmentzen denez, alokairu librearen pisuak nabarmen egin du gora krisia hasi zenetik. Izan ere, etxebizitza eskuratzeko araubideko biztanleriaren %14,2 izatetik 2008an %16,3 izatera 2016an, hots, EAEko ratioa baino %4,7 gehiago, %11,6koa baita urte horretan (%8,8koa zen 2008an). Bestalde, alokairuak baliabide gutxien duten familien artean duen pisu handia nabarmentzen da, erreferentziako Europako herrialdeetan artean.

EAEn, alokairu libreko etxebizitzetan bizi diren 10 familietatik 4k prestazio edo laguntza motaren bat jaso zuen 2016an, aurrekontuko inbertsio nabarmenaren bidez. Izan ere, 100 milioi eurotik gorakoa izan zen. Beraz, agerian gelditzen da garrantzizkoak direla alokairurako laguntzak eta laguntza programak familia behartsuenen artean. Alokairu libreko etxebizitzetan bizi diren familiei emandako prestazioen multzoan, Diru-sarrerak Bermatzeko Errentarekin (DSBE) loturiko Etxebizitza Prestazio Osagarria (EPO) nabarmentzen da, 35.000 familia hartzaile baino gehiago 2016an.

Etxebizitzaren eskariari dagokionez, gurasoekin edo tutoreekin bizi diren 18-44 urteko pertsonek lehenbiziko etxebizitza eskuratzeko duten beharrari buruzko hurbilketan, hauxe egiaztatu du Eusko Jaurlaritzaren 2015eko "Etxebizitzaren beharrei eta eskariari buruzko inkestak" (EBEI): etxebizitza eskuratzeko prozesua finantzatzen pentsatzeko adina diru-sarrerak dituzten 72.836 pertsonak adierazten dute behar hori. 2013aren aldean, %11,5 igo da kopuru hori; aurreko inkestetan beherakada nabarmenak izan zituen: %25,9 2011 eta 2013 bitartean eta %18,5 2010 eta 2011 bitartean. Bestalde, EAEko 53.132 familiak zioen etxebizitza aldatu beharra zuela, guztien %6,2k. Hau da, %13,8ko jaitsiera 2013aren aldean: urte horretan guztizkoaren %7,1 ziren etxebizitza horiek. Halaber, EBEIren zenbatespenen arabera, 58.017 euskal familiak behar dute etxebizitza birgaitzeko jarduketa 2015ean. Hala, magnitude hori EAEko familia-etxebizitza parkearen %6,7 da. Bilakeraren aldetik, etxebizitza birgaitzeko beharrak behera egin zuen 2013aren aldean, bai familien bolumenean (-%35,6), bai behar horren intzidentzia erlatiboan (-3,6 puntu portzentual gehiago).

EAEko familiek etxebizitzak ordaintzeko egin behar duten finantza-ahaleginari dagokionez, Eusko Jaurlaritzako Etxebizitzaren Behatokiak erakutsi du, Higiezinen Erregistro Estatistikako datuak erabilita, finantza-ahalegin hori hileko batez besteko hipoteka kuotaren eta soldata kostuaren arteko erlazioaren ikuspuntutik aztertuz gero, % 26,69koa izan zela 2017ko laugarren hiruhilekoan, hau da, aurreko urtean baino 0,19 puntu portzentual gutxiago ditu, aurreko urtean bi puntu baino gehiago jaitsi ondoren. Estatu mailan, kontrako ibilbidea da: ahalegin hori batez besteko soldata kostuaren %29,24 zen 2017ko amaieran. 2016ko laugarren hiruhilekoan, berriz, %27,60 zen (+1,64 puntu portzentual), eta beheranzko joera du 2013tik.

Sustapen Ministerioak Notariotza Estatistikatik jasotako datuen arabera, EAEn notarioaren aurrean 20.891 etxebizitza-salerosketa formalizatu ziren guztira 2017. urtean (behin-behineko datuak), hots, %11,5eko hazkundea 2016aren aldean (+%16,3 erregistratu zen epealdi berean, Estatuan, non guztira 523.367 transakzio erregistratu baitziren).

Etxebizitza politikari dagokionez, Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza Sailak betearazitako gastua nabarmen handitu zen azken urteetan, eta 2009an 207,4 milioi eurokoa zen. 2015ean, berriz, erdira murriztu zen. Informazioa dugun azken urte horretan, betearazitako gastua 99,8 milioi euroraino jaitsi zen. 2016an (eskuratu dugun azken datua), berriz ere egin zuen gora gastuak, 108,1 milioi euroraino (+%8,3), hots, EAEko BPGaren %0,15.

Eusko Jaurlaritzaren 2013-2016ko Etxebizitzaren Plan Zuzendaria bukatuta (zenbatespenen arabera, guztira 460,38 milioi euro ordainduko ziren), Etxebizitza Sailak aldi horretan eginiko gastu agregatua 440,6 milioi eurokoa izan da eta, Etxebizitza Talde osoa aintzat hartuta (Saila gehi VISESA eta ALOKABIDE), gastu finkatua, orotara, 768,3 milioi eurokoa da epealdi horretan. Eusko Jaurlaritzaren birgaikuntza politika Planaren ardatz estrategikoetako bat da, eta guztizko aurrekontutik %21 helburu horretarako erabiltzen da, esana dugunez, epealdi bera duen "Etxebizitza birgaitzeko Renove plana"ren bidez. Planaren indarraldia bukatuta, ebaluazio txostenak erakusten duenez, lehenik eta behin emandako laguntzen zenbatekoa 74,9 milioi euro da, eta horiek beste 1.077,4 milioi euro mugiarazi dituzte, hots, orotara 1.152,3 milioi euroko baliabideak erabili dira birgaikuntzarako.

Bukatzeko, Etxebizitzaren Euskal Behatokiak egindako "*EAEko etxebizitzarekin loturiko zerga politika*" txostenak, betiere hiru foru aldundien 2010 eta 2015 urte bitarteko PFEZren ziozko likidazioetako datuak oinarri hartuta, hauxe nabarmentzen du: ohiko etxebizitzaren ziozko kenkarien zenbatekoa (alokairua eta inbertsioa), hain zuzen ere bigarren kenkaria izan ohi dena kopuruaren aldetik familien eta norbanakoaren kenkarien atzetik, 375,55 milioi eurokoa izan zen 2015ean, 2014an baino %1 gehiago. Hala, badirudi eten egin dela ekitaldi horretan 2008an hasitako beherako joera. Kenkari horiek PFEZren guztizko bilketaren %8,5 dira eta zerga-bilketa osoaren batuaren %3, baita EAEko urte horretako BPGaren %3 ere, behin-behineko datuen arabera. Halaber, Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza Sailak eginiko gastuaren %376 dira (99,8 milioi euro).

5.2. BIZI-KALITATEA

5.2.1. Hezkuntza eta kultura

Aurreko urteetan bezala, azpimarratu beharreko egitate bat dela uste dugu EAE hezkuntza-adierazle batzuetan lehenengo postuetan egotea, Europako beste estatu batzuekin eta autonomia erkidegoekin alderatuta.

Hala, EAEk emaitza onak lortu izan ditu unibertsitatekoa ez den hezkuntza, oso adierazlea garrantzitsuetan hala nola eskolaratze-tasetan, lanaldi osoko irakasleko kopurua, eskola-uztean edo ikasleen adinaren egokitasunean. Ez da gauza bera gertatzen Unibertsitate Hezkuntza eta, beraz, komenigarria izango litzateke hurren Unibertsitate Planean beharrezko emaitzak lortzeko neurrietan asmatzea.

Hala ere, beste adierazle batzuetan, emaitzak ez dira hain onak eta horrek esan nahi du aztertu beharreko alderdiak daudela, hausnartze eta hobetze aldera. Horretarako, uste dugu arreta berezia jarri behar dela honako kontu hauetan:

Lanbide Heziketako matrikulazioen gehikuntza nabarmendu beharra dago eta, batik bat, lan-merkatuan bereziki eskaturiko zenbait lanbide-adarretan. Zentzu horretan, uste dugu beharrezkoa dela esfortzuak bikoiztea, arlo horiek indartzeko beharrezkoa izan daitezken estadio guztietan. Horrek berekin dakar ospea erakunde eta gizarte mailan finkatzen jarraitzea prestakuntza aukeratzat.

Lanbide heziketan nahiz unibertsitateko ikasketetan generoaren aldetik dagoen segmentazio garrantzitsuaz ohartarazi behar dugu. Emakumeen gizarte desberdintasunaren kontra egiteko eta desberdintasun hori laguntzeko den hezkuntza sistema behar dugu, eta hori gizarte adostasunaren eta hezkuntza komunitatearen baitan dago, hezkuntza legerian beren beregi jasota dagoenez.

Hezkuntza sistemak, hura dagoen gizartea islatuz, kultur jarraibideak errepikatzen ditu, eta ez dago gizarte jokaera nagusietatik aparte sexuaren arabera. Horrek eragina du ikasleen ikasketen aukeraketetan; izan ere, “sexuari dagozkionak” hartzera bultzatzen dituzte.

Hezkuntza sistemak, oro har, bikoiztu egin behar du bere partaidetzan emakumeen desberdintasun hori gainditzeko, bere garapen osoari buruzko alderdien beharrezko plangintzaren bidez eta, zehazkiago, balioetako hezkuntza eta sexismoa zalantzan jarrita eta sexuen arteko berdintasuna sustatuta.

Errealitate hori zalantzan jartzen duten profesionalak oinarri hartuta, hezkuntza jardun eraldatzaileen etsenpluak gero eta gehiago izan arren, ezin esan daiteke orokorra denik.

Hezkuntza etapa guztietan, baterako hezkuntza-jarduna behar da pertsonak osotasunean trebatzeko, sexua edozein delarik ere, berdintasunezko hezkuntzaren bidez, hierarkia maskulinorik gabe. Hezkuntzaren arloko orientazioa eremu zehatza eta espezifikoa da, non hezkuntza sistemak, zentroek eta irakasleek eurek ahaleginak bateratu beharko lituzketen ikasleak nahita aukeratzen laguntzeko, baita aukeraketa estereotipatuetara bideraturiko mekanismoak desagerrarazten erre.

Kulturari dagokionez, gogorarazi behar dugu berez aberastasuna sortzen duela kulturak, baina, horrez gain, harago doa eta eragin erabakigarria du beste arlo batzuetan. Hala, gure turismo sektoreak hobetzeko, kultura eskaintza indartu beharra dago, baina eskaintzak, berez, gizarteratzeko eta batuagoa lortzeko ahalmena balioetsi beharra dago.

Ildo horretan, kezka agertu nahi dugu Kulturan likidaturiko gastuaren murriztapenagatik, zeren eta horrek eragina baitu jarduera ekonomikoan bertan.

5.2.2. Ingurune naturalaren egoera EAE-n

Batzorde honek adierazi izan duenez, hobetzeko marjina duten eremuak daude.

Hala, airearen kalitateak azken urteetan nabarmen hobera egin badu ere, deigarria da 2015 eta 2016 bitartean izandako okertzea. Horregatik, lurralde antolamenduko, hirigintza plangintzako eta trafikoko kudeaketako politiketan txertatu behar da airearen kalitatea.

Gustagarria da ikustea hondakinak gero eta gutxiago desagerrarazten direla (arriskutsuak eta ez arriskutsuak) berreskuratzeko eragiketen mesederako (birziklatzea, konposta edo energiaren aldetik balioztatzea). Alabaina, kezkagarria iruditzen zaigu hiriko hondakinen kasu zehatzean berreskuratzeko eragiketek gora egin izana berreskuratzeko eragiketen kalterako.

Bestalde, hobetzeko marjina ikusten dugu enpresek ingurumenaren babesean eginiko gastuaren etengabeko jaitsieran edo uraren unitate kostuaren bilakaeran (horrek ondorioak dakartza familien ekonomian), baina sakondu egin beharko litzateke bi aldagai horietarako azaldutako bilakaeren atzean dagoena.

Horregatik, Euskadiko EGABek uste du beharrezkoa dela herritarrak sentsibilizatzeko lanean jarraitzea eta ekoizpen-prozesu garbiagoak martxan jartzea ahalbidetzea, ingurumenaren, gizartearen eta ekonomiaren hiru aldagaiak egoki uztartu ahal izateko.

Horregatik guztiagatik, garrantzizkoa da ikuspegi sistemikoa duten politika publikoak sakontzea, iraunkortasunarekin bateragarriagoak diren eskaintzaren eta eskariaren eraldaketa sustatzeko eta zeharkako egintzak bultzatzeko, ekoberrikuntza esaterako.

5.2.3. Osasuna eta Osasun Sistema

Ikusten dugunez, aurreko urteetan bezala, EAEko biztanleriak osasun oneko adierazleak ditu, eta hobetuz doaz (bizi itxaropen handiak eta goranzkoak eta osasun oneko bizitzakoak…), baina OMEk dioenez, osasuna *"ongizate fisiko, mental eta sozial osoko egoera da, ez bakarrik gaitzik edo gaixotasunik eza"*, eta Osasunaren Europako Inkestak EAErako depresio sintomatologiari buruz erakusten duenez, alde batetik osasun mentalari eta detekzio goiztiarrari buruzko ikuspegiak berraztertu behar dira, zeren eta depresiorik larriena ere gainditu egin baitaiteke tratamendu egokiarekin; eta bestalde, emakumearen egoera berezia hartu beharko da kontuan, depresio sintomatologia handiagoa delako emakumeengan gizonezkoengan baino.

Bestalde, berriz ere nabarmendu nahi dugu heriotza gero eta adin aurreratuagoetan gertatzen dela, eta horrek ondorioak dakartza morbilitatearen, mendekotasunaren eta, hedaduraz, gastu soziosanitarioaren aldetik. Horrenbestez,

- Azaldu izan dugun bezala, herritarrak jabetuago egon beharko lirateke prebentzioaren eta norberaren autonomiaren sustapenaren arloan, norbanakoaren aldetik nahiz talde gisa. Eta ez soilik osasun ikuspegitik hertsiki, baizik eta gero eta behar handiagoak dituen osasun sistema publikoaren iraunkortasunaren aldetik ere bai, baliabide egokiak eta nahikoak izateari kalterik egin gabe, diru baliabideak eta giza baliabideak, osasun publikoa bete-betean eskuratzea bermatuko dutenak hain zuzen ere.

- Zaintzaileen lan eta familia bizitzak bateratzeko politiken arloko neurriak hobetu beharko lirateke, baita Lurralde Historikoetan dauden esperientzia arrakastatsuen konparazioak egin ere, foru aldundiek kudeatzen duten Mendekotasunaren Legean bildutako jarduketa-ildoak berriz aztertzera eta hobetzera bideratuta betiere.

Tabako eta alkohol kontsumoaren gaineko ohiturez eta obesitateaz ohartarazi behar dugu.

- Alde batetik, tabako kontsumoaren prebalentzia euskal gizonengan handiagoa dela ikusten dugu Estatu mailako gizonen aldean, baina joera hori ez da emakumeengan antzematen.

- Bestalde, gure erkidegoak 2. alkohol kontsumo tasarik handiena du, eta gainera, gizonen kontsumoa handiagoa da emakumeena baino. Alabaina, beste autonomia erkidego batzuen aldean, nabarmentzekoa da euskal emakumeen alkohol kontsumo handia, eta kontuan izan behar dugu, autonomia erkidegoen araberako daturik ez badugu ere, kontsumoaren prebalentzia handiagoa dela hezkuntza eta lan gradiente handienetan, eta bereziki emakumeengan.

- Azkenik, eta obesitateari dagokionez, Estatuko mailarik baxuenetan badago ere, azken urteetan izandako bilakaeraz ohartarazi behar dugu, goranzko joera baitu argi eta garbi, eta horrexegatik, neurriren bat abiarazi beharko litzatekeela pentsatu beharra dago.

Batzordeak adierazi izan duen bezala, gizarte osoa kezkatzen duen balio partekatu bat da euskal osasun sistemaren etorkizuneko iraunkortasuna. Eusko Jaurlaritzak osasunean likidaturiko gastuak eta Osakidetzak likidaturiko gastuak gora egiten jarraitzen dute kopuru absolutuetan. Gainera, osasunean eginiko gastua Estatuko handiena da per capita kopuruetan, eta goranzko joerari eusten dio. Horrek guztiak erakusten du gure gizarteak osasun kolektiboari eusteko borondate handia duela.

Beste urte batez, beharrezkotzat jotzen dugu indarreko osasun planaren emaitzak arreta handiz jarraitzea, konpromiso sendoa baitugu eginiko ahaleginak isla egokia izan dezan eraginkortasunaren aldetik, hori guztia osasun sistemaren beraren iraunkortasuna lortze aldera.

Iraunkortasun horrek, beste faktore batzuekin batera, erlazio zuzena du gizartearen pixkanakako zahartzearekin eta lurraldean aberastasuna sortzeko lehiarako ahalmenarekin. Ildo horretan, komenigarria izango litzateke herritarrek osasun publikoarekin duten konpromiso maila handitzea, baita baliabideetan sakontzea ere, hala nola teknologia berriak sartzea (e-osasuna), besteak beste, sistemak eraginkortasunez funtzionatzeko modua izan dezan.

5.2.4. Etxebizitza

EGABen ustez, etxebizitzaren arloko ekimen publikoak eutsi egin behar dio parkea birgaitzeko eta alokairu babestuko eskaintza handiagoa merkatuan jartzeko apustuari, etxebizitza errazago eskura dezaten horretarako zailtasun handienak dituzten taldeek. Izan ere, alokairuko eskaintza urriak errentak igoarazten ditu, jada handiak horrelako pertsonentzat, eta horrek eragina izango du alokairua eskuratzean. Horrek guztiak berekin dakar etxebizitza parke iraunkorra izatea, bereziki alokairukoa, baita etxebizitza hutsa gehiago erakartzea lortzea ere.

Ildo horretan, berriki bukatu diren 2013-2016 Plan Zuzendariaren eta Renove Planaren balantzeetan, Batzorde honek partekaturiko jarduketak ezarri dira lehentasunezko ardatz, baina oso urruti daude zenbait helburu betetzetik, bereziki etxebizitzaren eskaintza handiagoari dagokionez, batik bat alokairukoa. Helburu horietatik benetan bete den bakarretako bat, dirudienez, Etxebizitzaren Prestazio Osagarriari dagokiona da, Gizarte Babesaren barruan sartzen dena benetako etxebizitza politikakoa baino.

Ildo horretan, kezka agertu nahi dugu babesturiko alokairuko batez besteko errentan azken urteetan izandako igoeragatik (%22,9). Gure ustez, diru-sarrera gutxien dituzten biztanle-taldeei eragiten die (EUROSTATen analisian egiaztaturik gelditu den bezala).

Horrez gain, berriz diogu bereziki beharrezkoa dela oraindik ere alokairuan antzemandako beharrak betetzeko politikak sakontzea, gero eta urriagoak baitira. Bereziki beharrezkoa da hori gazteen kasuan, zeinen emantzipazio beharrak eragozpena baitu horretan (EGABek 2017an gazteen enplegugarritasunari buruz eginiko Bere Ekimeneko Azterlanean agerian gelditu zen moduan), eta gainera ondorioak ditu demografian.

VI. KAPITULUA

Araugintza EAEn

EAErentzako Autonomia Estatutuaren abenduaren 18ko 3/1979 Lege Organikoak azaltzen du EAEren eskumena dela gai jakin batzuetan legeria garatzea eta bere lurraldearen barruan estatuaren oinarrizko legeria betearaztea. Era berean, lege horrek adierazten du EAEko botereak Legebiltzarraren bidez, Eusko Jaurlaritzaren bidez eta lehendakariaren bidez gauzatuko direla, eta lurralde historikoek beren foru erakundeak estatutuan xedatutakoaren arabera edukiko eta antolatuko dituztela.

EAEko autogobernurako erakundeak indarrean sartzean, ezinbestekoa suertatu zen, Autonomia Estatutuan ezarritakoarekin bat etorriz, Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzaren antolaketari eta eskumenei buruzko legeak eta erakunde komunen eskumen maila eta lurralde historikoen eskumen maila arautzeko legeak onestea.

Eusko Jaurlaritzaren egitura, haren eskumenak eta Legebiltzarrarekin dituen harremanak finkatzeko helburuarekin, Gobernuari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legea onetsi zen. Besteak beste, legearen arabera, Gobernuak eskumen hauek ditu: legeak egiteko ekimena, lege proiektuak onetsiz eta Legebiltzarrari bidaliz; legegintzarako eskuordetzea, legegintzako dekretuen bidez; eta araudiak egiteko ahalmena, dekretuen eta aginduen bidez.

Gerora, Autonomia erkidegoko erakunde komunen eta bertako lurralde historikoetako foru organoen arteko harremanei buruzko azaroaren 25eko 27/1983 Legea aldarrikatu zen. Lege horrek Eusko Legebiltzarra izendatzen du lege maila duten arauak onesteko gaitasuna daukan erakunde bakar autonomi erkidego osoan, baldin eta lege horien gaia Autonomia Estatutuaren arabera autonomi erkidegoari badagokio eta estatutuan lege honek edo ondorengo legeek ez badiete gaia lurralde historikoetako foru organoei esleitzen. Tradizio historikoarekin bat etorriz, lurralde historikoetako foru organoak Batzar Nagusiak eta Foru Aldundiak dira.

Era berean, lurralde historikoetako eskumenak arautzen ditu. Ezartzen duenez, beraien bakarreko eskumenekoak diren gaietan lurralde historikoei dagokie arauak egiteko ahalmena, bakoitzaren Batzar Nagusien foru arauen bidez betiere.

Legegintza Botereak eginiko araua da legea zentzu hertsian, hots, Parlamentuak eginikoa. Zenbait kasutan, oso espezifikoetan, gobernuak onetsitako lege lerruneko arauak onartzen dira: legegintza dekretuak (EEren 82.-85. artikuluak) eta lege dekretuak (EEren 86. artikulua).

Legegintzako ekimena, hau da, prozedura legegilea martxan jartzeko gaitasuna, honako hauek proposa dezakete:

- Legebiltzarreko taldeak, edo legebiltzarkide bat, beste lauren sinadura jasoz gero.
- Gobernua.
- Lurralde historikoak ordezkatzen dituzten erakundeak.
- Legegintzako herri-ekimena, EAEko 30.000 herritarren sinadurekin.

Ekimena Eusko Jaurlaritzarena denean “lege proiektua” izena jasotzen du; gainerako kasuetan, “lege proposamena” da.

Eusko Legebiltzarrak, legeak egiteko bere eginkizuna betez, guztira 5 lege eta 2 legegintza dekretu onetsi ditu 2017an:

1. *1/2017 Legegintzako Dekretua, apirilaren 27koa, Larrialdiak Kudeatzeko Legearen testu bategina onetsi duena.*
2. *1/2017 Legea, otsailaren 16koa, Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Erakundea sortzeari buruzko azaroaren 27ko 4/2014 Legea aldatu duena.*
3. *2/2017 Legegintzako Dekretua, urriaren 19koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Kontrol Ekonomikoaren eta Kontabilitatearen testu bategina onetsi duena.*
4. *2/2017 Legea, apirilaren 11koa, 2017ko ekitaldirako Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu orokorrak onesten dituena.*
5. *3/2017 Legea, azaroaren 2koa, 2017ko ekitaldirako Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu orokorrak onetsi zituen Legea aldatzen duena.*
6. *4/2017 Legea, azaroaren 2koa, Sustapenerako eta Industri Birmoldaketarako Sozietatea sortzeari buruzko ekainaren 10eko 5/1981 Legea aldatu duena.*
7. *5/2017 Legea, abenduaren 22koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorrak onetsi dituena 2018ko ekitaldirako.*

Bestalde, **Eusko Jaurlaritzak** urtero onesten du araugintza plan bat, non sail bakoitzak aurreikustako araugintzako ekimenak biltzen diren. Hala, arauak egiteko bere ahalmena baliatuz, 2017an guztira 277 dekretu onetsi zituen. Horietatik 96 dekretu, horien garrantzia ikusita, Gobernuak aurreikusitako “*Araugintzako Urteko Plana*” (AUP) delakoaren barruan

zeuden. 96 horietatik 37 urtean onetsi ziren, eta izapidetzen ari zen balantzea (2018ko otsaila) aurkezteke zain zeuden gainerako 59 horietatik 44. 15 dekretu hasi gabe zeuden artean (ikusi VI.1 taula).

VI.1. TAULA. EUSKO JAURLARITZAREN 2017KO ARAUGINTZAKO URTEKO PLANA. BETEARAZPEN MAILA.

	PROIEKTU KOP.	ONARTUAK	IZAPIDETZEA	HASI GABEAK	2018KO AUP-EN SARTUAK
LEHENDAKARITZA	6	2	3	1	4
GOBERNANTZA PUBLIKOA ETA AUTOGOBERNUA	7	3	3	1	4
GARAPEN EKONOMIKOA ETA AZPIEGITURAK	12	4	7	1	5
ENPLEGUA ETA GIZARTE POLITIKAK	6	4	2	0	2
INGURUMENA, LURRALDE PLANGINTZA ETA ETXEBIZITZA	8	1	4	3	7
OGASUNA ETA EKONOMIA	5	3	0	0	2
HEZKUNTZA	19	6	13	2	13
OSASUNA	12	3	6	3	8
TURISMOA, MERKATARITZA ETA KONTSUMOA	6	1	3	2	3
KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA	5	3	1	1	0
SEGURTASUNA	7	6	1	0	1
LANA ETA JUSTIZIA	3	1	1	1	2
GUZTIRA	**96**	**37**	**44**	**15**	**51**
			59		

Iturria: LEHENDAKARITZA. 2017ko Araugintzako Urteko Planaren betearazpenaren memoria.

Halaber, Eusko Jaurlaritzaren XI. Legealdiko 2016-2020 urteetarako Legegintzako Egitaraua ezagutu da, hain zuzen ere Gobernu Kontseiluak 2017. urteko maiatzaren 9an onetsitakoa. Hainbat lege proiektu onetsi dira 2017. urtean (letra lodiz eta atzealde urdinarekin nabarmenduta daudenak), eta izapidetzeak aurrera jarraitzen du Eusko Legebiltzarrean (VI.2. taula).

VI.2.. TAULA.XI. LEGEALDIA (2016-2020). LEGEGINTZAKO EGITARAUA ETA BALANTZEA 2017KO ABENDFUAREN 31N.

SAILA	AURREIKUSITAKO ARAUA	EGAB-EN IRIZPENA	GOBERNU KONTSEILUA ONESPEN-DATA	LEGEBILTZARRA ONESPEN-DATA
LEHENDAKARITZA	Emakumeen kontrako indarkeria desagerrarazteko legea			
	EAEko kultur zentroen Legea	3/2012 IRIZPENA		
GOBERNANTZA PUBLIKOA ETA AUTOGOBERNUA	Xedapen orokorrak egiteko prozeduraren legea aldatzeko Legea			
	EAEko administrazio publikoen zigor-ahalmenari buruzko 2/1998 legea aldatzeko legea			
	Enplegu publikoaren legea	9/2015 IRIZPENA		
	EZPren gardentasunari, herritarren partaidetzari eta gobernu onari buruzko legea	12/2015 IRIZPENA		
	EZPren antolamenduari eta funtzionamenduari buruzko legea	13/2015 IRIZPENA		
GARAPEN EKONOMIKOA ETA AZPIEGITURAK	**Administrazio publikoen energia-iraunkortasunari buruzko legea**	**-**	**17/06/27**	
	Mugikortasun iraunkorrari buruzko legea	1/2012 IRIZPENA		
	Landa garapenari buruzko apirilaren 8ko 10/1998 legea aldatzeko legea			
	EAEko portuen eta itsasoko garraioaren legea	**8/2015 IRIZPENA**	**17/06/13**	
ENPLEGUA ETA GIZARTE POLITIKAK	Enpleguko euskal sistemaren legea			

	Sarrerak bermatzeko eta gizarteratzeko legea aldatzeko legea			
	Haurren eta nerabeen arretarako eta babeserako 3/2005 lege aldatzeko legea			
OGASUNA ETA EKONOMIA	2017-2021eko ekarpenen legea			
	EAEko aurrezki kutxen eta banku fundazioen legea	5/2015 IRIZPENA		
	Diru-laguntzen araubideari buruzko legea			
	2018-2021eko Estatistikako Euskal Planaren Legea			
HEZKUNTZA	Lanbide Heziketaren Legea	15/2015 IRIZPENA		
	Hezkuntzari buruzko euskal legea			
KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA	**Kultur ondarearen euskal legea**	**19/2015 IRIZPENA**	**17/07/18**	
	EAEko Kirolari buruzko 14/98 Legea eguneratzeko Legea			
	Kiroleko dopatzearen kontrako legea aldatzeko legea	**10/2011 IRIZPENA**	**17/07/04**	
	Euskadiko kudeaketa dokumental osoari buruzko legea	8/2012 IRIZPENA		
	Euskadiko kirol lanbideak eskuratzeari eta erabiltzeari buruzko legea	**11/2015 IRIZPENA**	**17/11/07**	
SEGURTASUNA	EAEk poliziaren legea aldatzeko legea			
LANA ETA JUSTIZIA	Euskadiko kooperatiben legea	21/2015 IRIZPENA		

Iturria: Gobernu Kontseiluaren 2017ko maiatzaren 9ko Erabakia eta Euskal Herriko Aldizkari Ofiziala oinarri hartuta egina.
** Oharra: Baliteke EGABen irizpenak arau horien bertsio desberdinen gainean egin izana, aurreko legealdietakoei baitagozkie.*

Lurralde Historikoetako Batzar Nagusiei dagokienez, hona hemen 2017an izan duten araugintza jarduera, onetsitako Foru Arauak oinarri hartuta neurtu dena: Araban 22 foru arau onetsi dira, 2016an baino hiru gehiago; Gipuzkoan 3 foru arau onetsi dira, 2016an berretsitakoak baino 5 gutxiago; eta Bizkaian 2017an 4 arau onetsi dira, aurreko urtean baino pixka bat gutxiago (7 izan ziren).

VI. GRAFIKOA. LURRALDE HISTORIKOETAKO BATZAR NAGUSIEK ONETSITAKO FORU ARAUAK. 2013-2017



Iturria: Geuk egina, Bizkaiko, Arabako eta Gipuzkoako Lurralde Historikoetako aldizkari ofizialak oinarri hartuta.

VI. GRAFIKOA. EUSKO LEGEBILTZARRAREN ETA JAURLARITZAREN LEGEGINTZA JARDUERA 2013 ETA 2017 BITARTEAN



Iturria: Geuk egina, EHAA oinarri hartuta.

Azkenik, Euskadiko **EGABek,** erakunde aholku-emailea den aldetik, zortzi irizpen eman ditu 2017an:

- 1/2017 IRIZPENA, krisian dauden enpresak berregituratu eta bultzatzera bideraturiko diru-laguntzen inguruko Bideratu Berria programa arautzeko Agindu Proiektuari buruzkoa.
- 2/2017 IRIZPENA, EAEn behi-aziendaren okelaren eta behi-aziendaren okelakien etiketatze fakultatiborako sistema aplikatzeko neurriak araupetu dituen azaroaren 21eko 235/2000 Dekretu indargabetu duen Dekretu Proiektuari buruzkoa.
- 3/2017 IRIZPENA, 2017-2020ko Industrializazio Planari buruzkoa.
- 4/2017 IRIZPENA, 2017-2020rako Enplegu Plan Estrategikoari buruzkoa.
- 5/2017 IRIZPENA, Euskadiko osasun-zentro eta –zerbitzuetako pazientearen segurtasunerako batzordeak garatzeko Agindu Proiektuari buruzkoa.
- 6/2017 IRIZPENA, elikadura enpresa eta establezimenduen osasun baimen eta jakinarazpenerako araubidea arautu eta Euskal Autonomia Erkidegoko elikadura establezimenduen erregistroa (EAEEEE) arautzeko Dekretu Proiektuari buruzkoa.
- 7/2017 IRIZPENA, zientzia, teknologia eta berrikuntzaren euskal sarearen osaera arautu eta eguneratzeko ekainaren 23ko 109/2015 Dekretua aldatzeko Dekretu Proiektuari buruzkoa.
- 8/2017 IRIZPENA, Euskadin kokatuak dauden osasun zentro eta zerbitzuetan gorabeheren jakinarazpen sistema garatzeko Agindu Proiektuari buruzkoa.

DEFINIZIOEN GLOSARIOA

EKOIZPEN-SEKTOREAK

- EJSNek lau mailatan egituratzen ditu (atalak, multzoak, taldeak eta klaseak)

	EJSN 93	EJSN 99
Atalak (kode alfabetikoa)	17 atal	21 atal
Multzoak (bi digitudun zenbakizko kodea)	60 multzo	88 multzo
Taldeak (3 digitudun zenbakizko kodea)	222 talde	272 talde
Klaseak (4 digitudun zenbakizko kodea)	512 klase	629 klase

Ondoren, ESJN 2009 azalduko da multzoen araberako kategorizazioraino

A	**Nekazaritza, abeltzaintza, basogintza eta arrantza**
01	Nekazaritza, abeltzaintza, ehiza eta horiekin loturiko zerbitzuak
02	Basogintza eta basoko ustiapena
03	Arrantza eta akuikultura
B	**Erauzketa-industriak**
05	Antrazita, harrikatz eta lignitoaren erauzketa
06	Petrolioaren eta gas naturalaren erauzketa
07	Metal mineralen erauzketa
08	Beste erauzketa-industria batzuk
09	Erauzketa-industriak sustengatzeko jarduerak
C	**Manufaktura-industria**
10	Elikagaien industria
11	Edarien fabrikazioa
12	Tabakoaren industria
13	Ehungintza
14	Jantzigintza
15	Larrugintza eta oinetakoen industria
16	Zuraren eta kortxoaren industria, altzariak izan ezik; otzaragintza eta espartzugintza
17	Paperaren industria
18	Arte grafikoak eta euskarri grabatuen erreprodukzioa
19	Kokea eta petrolioaren fintzea
20	Industria kimikoa
21	Produktu farmazeutikoen fabrikazioa
22	Kautxuzko eta plastikozko produktuen fabrikazioa
23	Metalezkoak ez diren beste produktu mineral batzuen fabrikazioa
24	Metalurgia; burdina, altzairu eta burdina-aleazioen fabrikazioa
25	Metalezko produktuen fabrikazioa, makineria eta ekipamendua izan ezik
26	Produktu informatikoen, elektrikoen eta optikoen fabrikazioa
27	Material eta ekipamendu elektrikoen fabrikazioa
28	n.c.o.p. makineriaren eta ekipamenduaren fabrikazioa
29	Motordun ibilgailuen, atoien eta erdi-atoien fabrikazioa
30	Beste garraio material batzuen fabrikazioa
31	Altzarien fabrikazioa
32	Beste manufaktura-industria batzuk
33	Makineriaren eta ekipamenduen konponketa eta instalazioa
D	**Energia elektrikoaren, gasaren, lurrunaren eta aire egokituaren hornidura**
35	Energia elektrikoaren, gasaren, lurrunaren eta aire egokituaren hornidura
E	**Uraren hornidura, saneamendu jarduerak, hondakinen kudeaketa eta kutsadura kentzea**
36	Ura batzea, araztea eta banatzea
37	Hondakin-uren bilketa eta trataera
38	Hondakinak biltzea, tratatzea eta desagerraraztea; balorizazioa
39	Kutsadura kentzeko jarduerak eta hondakinak kudeatzeko beste zerbitzu batzuk
F	**Eraikuntza**
41	Eraikinen eraikuntza
42	Ingeniaritza zibila
43	Eraikuntza espezializatuko jarduerak
G	**Handizkako eta txikizkako merkataritza; motordun ibilgailuen eta motozikleten konponketa**
45	Motordun ibilgailuen eta motozikleten salmenta eta konponketa
46	Handizkako merkataritza eta merkataritzako bitartekariak, motordun ibilgailuenak eta motozikletenak izan ezik
47	Txikizkako merkataritza, motordun ibilgailuenak eta motozikletenak izan ezik
H	**Garraioa eta biltegiratzea**
49	Aireko eta hodietako garraioa
50	Itsasoko eta barne-bide nabigagarrietako garraioa
51	Aireko garraioa
52	Garraioarekin loturiko jarduerak eta biltegiratzea
53	Postako jarduerak

I	**Ostalaritza**
55	Ostatua emateko zerbitzuak
56	Janari eta edari zerbitzuak
J	**Informazioa eta komunikazioak**
58	Edizioa
59	Zinematografia, bideo eta telebista programetako jarduerak eta soinu-grabaketako eta musika-edizioko jarduerak
60	Irrati eta telebistako programazio eta emisio jarduerak
61	Telekomunikazioak
62	Programazioa, aholkularitza eta informatikarekin loturiko beste jarduera batzuk
63	Informazio zerbitzuak
K	**Finantzen eta aseguruen arloko jarduerak**
64	Finantza zerbitzuak, aseguruak eta pentsio-fondoak izan ezik
65	Aseguruak, berraseguruak eta pentsio-fondoak, nahitaezko Gizarte Segurantza izan ezik
66	Finantzen eta aseguruen arloko zerbitzuen jarduera osagarriak
L	**Higiezinen arloko jarduerak**
68	Higiezinen arloko jarduerak
M	**Jarduera profesionalak, zientifikoak eta teknikoak**
69	Lege eta kontabilitatearen arloko jarduerak
70	Egoitza nagusien jarduerak; enpresa kudeatzeko aholkularitza jarduerak
71	Arkitektura eta ingeniaritza zerbitzu teknikoak; entsegu eta analisi teknikoak
72	Ikerketa eta garapena
73	Publizitatea eta merkatuko azterlanak
74	Bestelako jarduera profesionalak, zientifikoak eta teknikoak
75	Albaitaritza jarduerak
N	**Administrazio jarduerak eta zerbitzu osagarriak**
77	Alokairu jarduera
78	Enpleguarekin loturiko jarduerak
79	Bidaia agentzien, turismo operadoreen eta erreserba zerbitzuen jarduerak eta horiekin loturiko jarduerak
80	Segurtasun eta ikerketa jarduerak
81	Eraikin eta lorezaintzarako zerbitzuak
82	Bulegoko administrazio jarduerak eta enpresentzako bestelako jarduera osagarriak
O	**Administrazio publikoa eta defentsa; nahitaezko Gizarte Segurantza**
84	Administrazio publikoa eta defentsa; nahitaezko Gizarte Segurantza
P	**Hezkuntza**
85	Hezkuntza
Q	**Osasun jarduerak eta gizarte zerbitzuetakoak**
86	Osasun jarduerak
87	Egoitzetako laguntza
88	Ostaturik gabeko gizarte zerbitzuetako jarduerak
R	**Arte, jolas eta aisialdi jarduerak**
90	Sorkuntza eta arte jarduerak eta ikuskizunak
91	Liburutegi, artxibo eta museo jarduerak eta bestelako kultur jarduerak
92	Ausazko jokoen eta apustuen jarduerak
93	Kirol, jolas eta entretenimendu jarduerak
S	**Beste zerbitzu batzuk**
94	Elkartegintzako jarduerak
95	Ordenagailuen, norberaren gauzen eta etxean erabiltzeko tresnen konponketa
96	Norberaren beste zerbitzu batzuk
T	**Etxeetako jarduerak etxeko langileen enplegatzaile gisa; etxeko jarduerak norberaren erabilerarako ondasunen eta zerbitzuen ekoizle gisa**
97	Etxeko jarduerak etxeko langileen enplegatzaile gisa
U	**Lurraldez kanpoko erakundeen jarduerak**
99	Lurraldez kanpoko erakundeen jarduerak

- **EUSTAT-EN INKESTA INDUSTRIALA**

EJSN 2009aren arabera, **atal** hauek biltzen ditu:

- B: Ateratze-industriak
- C: Manufaktura-industria
- D: Energia elektrikoaren, gasaren, lurrunaren eta aire egokituaren hornidura
- E: Ur-hornidura, saneamendu jarduerak eta hondakinen kudeaketa

Hala ere, bere sailkapena du, EJSNrekiko baliokidetasunak ezartzen badira ere.

SEKTOREKAKO SAILKAPENA (A3, A6, A17, A31, A60, A84)

A3	A6	A17	A31	A60	A84	IZEN LABURTUA / DENOMINACIÓN ABREVIADA	
	1					Agropesquero	Nekazaritza eta arrantza
		1	1			Agropecuario	Nekazaritza eta abeltzaintza
				1		Agricultura y ganadería	Nekazaritza eta abeltzaintza
					1	Agricultura	Nekazaritza
					2	Ganadería	Abeltzaintza
				2	3	Selvicultura	Basogintza
		2	2			Pesca y acuicultura	Arrantza eta akuikultura
1				3	4	Pesca y acuicultura	Arrantza eta akuikultura
						Industria y construcción	Industria eta eraikuntza
	2					Industria	Industria
		3				Industrias extractivas	Ateratze-industriak
			3			Extracción de petróleo y gas	Petrolioa eta gasa ateratzea
				4	5	Carbones	Ikatzak
				5	6	Extracción de petróleo y gas	Petrolioa eta gasa ateratzea
				6	7	Extracción de uranio	Uranioa ateratzea
			4			Min. metálicos y no metálicos	Metalezko eta ez-metalezko meak
				7	8	Minerales metálicos	Metalezko meak
				8	9	Minerales no metálicos	Ez-metalezko meak
		4				Industria manufacturera	Manufaktura-industria
			5			Industria de la alimentación	Elikagai-industria
				9		Industria de la alimentación	Elikagai-industria
					10	Industrias cárnicas	Okela-industriak
					11	Industrias lácteas	Esne-industriak
					12	Conservas de pescado	Arrain-kontserbak
					13	Pan y molinería	Ogia eta errotaritza
					14	Otras alimenticias	Bestelako elikagai-industriak
					15	Bebidas	Edariak
				10	16	Industria del tabaco	Tabakoaren industria
			6			Textil y confección	Ehungintza eta jantzigintza
				11	17	Industria textil	Ehunaren industria
				12	18	Confección y peletería	Jantzigintza eta larrugintza
			7			Industria del cuero y calzado	Larruaren eta oinetakoen ind.
				13	19	Industria del cuero y calzado	Larruaren eta oinetakoen ind.
			8			Industria de la madera	Zurgintza
				14	20	Industria de la madera	Zurgintza
			9			Papel, edición y gráficas	Papera, argitalpena eta grafikoak
				15	21	Industria del papel	Papergintza
				16	22	Edición y artes gráficas	Argitalpena eta arte grafikoak
			10			Refino de petróleo	Petrolioa fintzea
				17	23	Refino de petróleo	Petrolioa fintzea
			11			Industria química	Kimika-industria
				18		Industria química	Kimika-industria
					24	Química básica	Oinarrizko kimika
					25	Química industrial	Industri kimika
					26	Química final	Azken kimika
			12			Caucho y plástico	Kautxua eta plastikoak
				19		Caucho y plástico	Kautxua eta plastikoak
					27	Caucho y neumáticos	Kautxua eta pneumatikoak
					28	Artículos de plástico	Plastikozko artikuluak
			13			Industria no metálica	Ez-metalezko industria
				20		Industria no metálica	Ez-metalezko industria
					29	Industria del vidrio	Beiragintza
2					30	Cemento, cal y yeso	Zementua, karea eta igeltsua

					31	Otras no metálicas	Bestelako ez-metalezkoak
			14			Metalurgia y artíc. metálicos	Metalgintza eta metalezko artik.
				21		Metalurgia	Metalgintza
					32	Siderurgia	Altzairugintza
					33	Metalurgia no férrea	Ez-burdinazko metalgintza
					34	Fundición	Galdategiak
				22		Artículos metálicos	Metalezko artikuluak
					35	Construcción metálica	Metalezko eraikuntza
					36	Forja y estampación	Forja eta estanpazioa
					37	Ingeniería mecánica	Ingeniaritza mekanikoa
					38	Artículos metálicos	Metalezko artikuluak
			15			Maquinaria	Makineria
				23		Maquinaria	Makineria
					39	Máquina-herramienta	Makina erreminta
					40	Aparatos domésticos	Etxeko aparatuak
					41	Otra maquinaria	Bestelako makineria
			16			Material eléctrico	Material elektrikoa
				24	42	Maq. oficina y eq. informático	Bulego-mak. eta informatika-tres.
				25	43	Material eléctrico	Material elektrikoa
				26	44	Material electrónico	Material elektronikoa
				27	45	Material de precisión	Doitasun handiko materiala
			17			Material de transporte	Garraio-materiala
				28	46	Automóviles y sus piezas	Automobilak eta horien piezak
				29		Otro material de transporte	Bestelako garraio-materiala
					47	Construcción naval	Ontzigintza
					48	Otro material de transporte	Bestelako garraio-materiala
			18			Otras manufactureras	Bestelako manufaktura-ind.
				30		Fabricación de muebles	Altzarigintza
					49	Fabricación de muebles	Altzarigintza
					50	Otras manufactureras	Bestelako manufaktura-ind.
				31	51	Reciclaje	Birziklatzea
		5	19			Energía eléctrica, gas y agua	Energia elektrikoa, gasa eta ura
				32		Energía eléctrica y gas	Energia elektrikoa eta gasa
					52	Energía eléctrica	Energia elektrikoa
					53	Gas y vapor de agua	Gasa eta ur-lurruna
				33	54	Agua	Ura
	3	6	20			Construcción	Eraikuntza
				34	55	Construcción	Eraikuntza
						Servicios	Zerbitzuak
	4					Comercio, hostelería y transp.	Merkataritza, ostalaritza eta garra.
		7	21			Comercio y reparación	Merkataritza eta konponketa
				35	56	Venta y reparación automóviles	Automobilak saldu eta konpontzea
				36	57	Comercio al por mayor	Handizkako merkataritza
				37	58	Comercio al por menor	Txikizkako merkataritza
		8	22			Hostelería	Ostalaritza
				38	59	Hostelería	Ostalaritza
		9	23			Transporte y comunicaciones	Garraioa eta komunikazioak
				39		Transporte terrestre	Lehorreko garraioa
					60	Transporte ferroviario	Burdinbide-garraioa
					61	T. mercancías carretera	Errepidezko zama-garraioa
					62	Otro transporte terrestre	Lehorreko bestelako garraioa
				40	63	Transporte marítimo	Itsasoko garraioa
				41	64	Transporte aéreo	Aireko garraioa
				42	65	Anexos al transporte	Garraioari erantsiak
				43	66	Comunicaciones	Komunikazioak
	5					Banca, seguros y ser. Empresas	Bankuak, aseguruak eta enp.-zer.
		10	24			Banca y seguros	Bankuak eta aseguruak
				44	67	Banca	Bankuak
				45	68	Seguros	Aseguruak
				46	69	Auxiliares financieros	Finantza-laguntzaileak
		11	25			Servicios a empresas	Enpresentzako zerbitzuak
				47	70	Actividades inmobiliarias	Onibar-jarduerak
				48	71	Alquiler de maquinaria	Makineria alokatzea
				49	72	Actividades informáticas	Informatika-jarduerak
				50	73	Investigación y desarrollo	Ikerketa eta garapena
				51	74	Otras actividades empresariales	Enpresen bestelako jarduerak
3	6					Otras actividades de servicios	Bestelako zerbitzu-jarduerak

12	26			Administración Pública	Herri-administrazioa
		52	75	Administración Pública	Herri-administrazioa
13	27			Educación	Hezkuntza
		53	76	Educación	Hezkuntza
14	28			Sanidad y servicios sociales	Osasuna eta gizarte-zerbitzuak
		54		Sanidad y servicios sociales	Osasuna eta gizarte-zerbitzuak
			77	Sanidad	Osasuna
			78	Servicios sociales	Gizarte-zerbitzuak
15	29			Servicios personales	Gizabanakoentzako zerbitzuak
		55	79	Saneamiento público	Guztiontzako saneamendua
		56	80	Actividades asociativas	Elkarte-jarduerak
		57	81	Act. recreativas y culturales	Jolas- eta kultur jarduerak
		58	82	Servicios personales	Gizabanakoentzako zerbitzuak
16	30			Servicio doméstico	Etxeko zerbitzua
		59	83	Servicio doméstico	Etxeko zerbitzua
17	31	60		Organismos extraterritoriales	Lurraldez kanpoko erakundeak
			84	Organismos extraterritoriales	Lurraldez kanpoko erakundeak

ZIENTZIA, TEKNOLOGIA ETA BERRIKUNTZA

- Enpresa berritzailea izango da inkestan kontuan hartutako tartean berrikuntzaren bat sartu duen enpresa.

- Berrikuntzatzat hartuko da produktu (edo zerbitzu) berria nahiz zeharo hobetua, prozesu berria, komertzializazio-metodo berria edo antolakuntza-metodo berria sartzea enpresaren barne-praktiketan, lantokiaren antolakuntzan edo kanpoko harremanetan. Berrikuntza guztien ezaugarri komuna zera izango da, aldaketa horiek dagoeneko sartuta egon beharko direla enpresaren lanean, hau da, merkatura atereak.

  Definizio hori kontuan hartuta, bi berrikuntza mota bereiz daitezke: berrikuntza teknologikoa eta berrikuntza ez teknologikoak. Berrikuntza teknologikoa produktu bat (ondasun bat edo zerbitzu bat, berria edo nabarmenki hobetua denean eta merkatuan sartuta dagoenean) edo prozesu bat (establezimenduan bertan prozesu berria edo nabarmenki hobetua ezartzea) izan daiteke, eta berrikuntza ez teknologikoak antolakuntzaren edo komertzializatzeko moduaren berrikuntzek osatzen dituzte.

- Jarduera berritzaileak dituen enpresa inkestan aztertutako urteetan berrikuntza-jarduerak garatu dituen enpresa da, abian diren berrikuntzak eta bertan behera utzitako berrikuntzak dituzten enpresak barne.

- Europako Berrikuntza Adierazleen Panel berria etengabe berrikusten den adierazle-panela da, berau osatzen duten adierazleei eta kalkulua egiteko formulari dagokienez nahiz urtero herrialdeen daturik eguneratuenak sartzen direlako. Horren ondorioz, seriea osoa kalkulatu beharra dago berriz.

  2015eko Europako Berrikuntza Adierazleen Panel berria herrialdeen ekonomiek berrikuntza-jarduerak egiteko zenbaterainoko gaitasuna duten eta zenbateraino garatzen dituzten neurtzen saiatzen da.

  Panela hiru multzo nagusitan dago egituratuta, eta multzo horietan 8 dimentsio eta 25 adierazle daude.

BLOKEAK	DIMENTSIOAK	ADIERAZLEAK
BIDERATZAILEAK	**Giza baliabideak**	• Doktore graduatu berriak (‰, 25-34 urtekoen taldea) • Hezkuntza tertziarioa duten 30-34 urteko biztanleen portzentajea • Gutxienez goi-mailako bigarren hezkuntza gainditu duten 20-24 urteko gazteen portzentajea
	Ikerketa sistema	• Nazioarteko baterako argitalpen zientifikoak milioi bat biztanleko • Nazioarte mailan gehien aipatu diren Top-%10 argitalpenen artean zientifikoak diren argitalpenak herrialdeko argitalpen guztien % gisa • EBtik kanpoko doktoreak herrialdeko doktore guztien % gisa
	Finantzaketa eta laguntza	• I+G-ko gastu publikoa BPGd-ren % gisa • Arrisku-kapitala BPGd-ren % gisa

ENPRESA JARDUERAK	**Enpresa inbertsioa**	• I+G-ko gastua BPGd-ren % gisa • I+G-koa ez den berrikuntzako gastua negozio zifra osoaren % gisa
	Enpresa ekimeneko loturak	• Barne berrikuntza duten ETEak ETEen % gisa • Beste batzuekin elkarlanean diharduten ETE berritzaileak ETEen % gisa • Baterako argitalpen publiko-pribatuak milioi bat biztanleko
	Aktibo intelektualak	• PCT patenteen eskabideak BPGd-ko bilioi bakoitzeko (EAP eurotan) • Gizarte erronken PCT patenteen eskabideak BPGd-ko bilioiko (EAP eurotan) • EBren marka komertzialak BPGd-ko bilioi bakoitzeko (EAP eurotan) • EBren diseinuak BPGd-ko bilioi bakoitzeko (EAP eurotan)
OUTPUT-AK	**Berritzaileak**	• Produktu edo prozesuko ETE berritzaileak ETEn % gisa • Marketin edo antolamenduko ETE berritzaileak ETEen % gisa • Hazkunde handiko enpresa berritzaileak
	Ondorio ekonomikoak	• Jakintza intentsiboko jardueretako enplegua guztizko enpleguaren % gisa • Teknologia ertain eta altuko produktuen esportazioak produktuen esportazio guztien % gisa • Jakintza maila handiko zerbitzuen esportazioak esportazio guztien % gisa • Merkatu eta enpresarako produktu berrien salmentak negozio zifraren % gisa • Lizentzien eta patenteen ondoriozko atzerriko sarrerak BPGd-ren % gisa

LAN-MERKATUA

PRA (EUSTAT), EPA (INE) ETA LFS-i (EUROSTAT) BURUZKO DEFINIZIOAK

- Lanaren Nazioarteko Erakundearen arabera (LNE), ondasunak eta zerbitzuak ekoizteko lana egiten duten pertsona guztiak dira, eta une honetan lanik ez dutenak, lan bila ari direnak eta lanean hasteko prest daudenak. LNE Populazio Landunarekin eta LNE Populazio Langabetuarekin dago osatuta.

- Jardunean ez den biztanleria LNE. LNEren arabera, Populazio Aktiboa ez den populazioa da. Talde hauetan sailkatzen dira: Etxeko lanak egiten dutenak, ikasten ari direnak, erretiroan daudenak, pentsiodunak, errenta dutenak eta ezinduak.

- Landun biztanleria LNE. Ordaindutako lana duten, aparteko jarduera egiten duten eta lanean ari diren pertsona guztiek osatzen dute landunen populazioa, edo bestela, lanarekin lotura formala dutenak, edo opor, gaixotasun, laneko gatazka, gorabehera tekniko, eta abar direla eta lanean ez daudenak.

- Langabetuak LNE. LNEren arabera, soldatapeko lanik edo lan independenterik ez dutenak dira, egun lan bila ari direnak eta lan egiteko prest daudenak.

  2002. urteaz gero, aldatu egin da definizio hori egingarri egiteko era, Europar Batzordearen 1897/2000 Araudiari jarraiki. Urte hartatik hona, langabetzat hartzen dira, aurreko baldintzak betetzeaz gain, aurreko lau asteetan araudi horretan aktibotzat jotako lan-bilaketarako kudeaketaren bat egiten duten pertsonak. Ez da bilaketa aktibotzat jotzen lan eskaera berritzeko izapidea edo prestakuntza ikastaroak direla-eta enplegu bulego publikoarekin kontaktatzea.

- Jarduera-tasa. Talde baten jarduera-tasa populazio aktiboaren barruan dauden talde horretako pertsonen proportzioa da.

  16 urtekoen eta gehiagokoen gainean (urteak eginak) kalkulatzen dira P.R.A.n.

$$\textit{Jarduera-tasa} = \frac{\sum \textit{aktiboak}}{\textit{16 urte eta gehiagokoak}} \times 100$$

- Okupazio-tasa LNE. Talde bateko okupazio-tasa adin horretako guztizko populazioaren gaineko pertsona landunen proportzioa da.

- Bi adin-talderako kalkulatu ohi da tasa hori P.R.A.n.
  Lehenik eta behin, 16-64 urte bitartekoen (urteak eginak) populazioaren gainean kalkulaturiko okupazio-tasa eskaintzen du web orriak bere tauletan, halako moldez non Eurostatek darabilen definizioarekin alderatu daitekeen.

  $$\text{Okupazio-tasa} = \frac{\sum \text{landunak}}{\text{16 – 64 urtekoak}} \times 100$$

  Bigarrenik, Datuen Bankuak 16 urte eta gehiagokoen (urteak eginak) gainean kalkulaturiko okupazio-tasa eskaintzen du.

  $$\text{Okupazio-tasa} = \frac{\sum \text{landunak}}{\text{16 urte eta gehiagokoak}} \times 100$$

- Alabaina, Europa 2020 helburuari begira, 20-64 urtekoen tartea da.

- Langabezia-tasa. Langabezian daudenen talde horretako pertsona aktiboen proportzioari deritzo talde jakin bateko langabezia-tasa.

  P.R.A.n, 16 urte (urteak beteta) eta gehiagokoen gainean kalkulatzen dira:

  $$\text{Langabezia-tasa} = \frac{\sum \text{langabeak}}{\text{aktiboak}} \times 100$$

LAN-KOSTUEI BURUZKO HIRUHILEKO INKESTA (INE): LAN EGINDAKO DENBORA ETA LAN EGIN GABEKO DENBORA

1. Lan egindako orduak

- Benetan lan egindako orduak: Egiaz lan egindako orduak dira, laneko ohiko aldietan nahiz aparteko lanaldian, lantokiak galdutako orduak barne; egiazko denbora da indarreko araudia dela bide.Hitzartutako orduen (hitzarmenen, hitzezko akordioaren edo banako kontratuaren bidez ezarritakoak) eta aparteko orduen edota ordu osagarrien batura da, ken lan egin gabeko orduak (horietatik aparte gelditzen dira lantokian galdutako orduak, benetan lan egindako ordutzat hartzen baitira). Laburbilduz, lan egindako orduak dira (ohiko lanaldian edo apartekoan) ken lan egin gabeko orduak.
- Lanaldi itundua: langilearen eta enpresaren artean ahozko akordioaren, banako kontratuaren edo hitzarmen kolektiboaren bidez legez ezarritako orduak dira.
- Aparteko orduak: itundutako lanalditik gorako orduak dira, nahitaez egin beharrekoak (aparteko ordu estrukturalak) edo borondatezkoak (estrukturalak ez diren aparteko orduak).
- Ordu osagarriak: lanaldi partzialeko kontratuan itundutako orduak dira ohiko orduen osagarri gisa. Ohiko ordu gisa ordaintzen eta kotizatzen dira.

2. Lan egin gabeko orduak

2.1. Lan egin gabeko orduak eta ordainduak. Arrazoi hauengatik lan egin gabeko orduak sartzen dira:

- Oporraldiak eta hilean izandako jaiegunak.

- Aldi baterako ezintasun bajako egunak.

- Amatasun, adopzio eta norberaren arrazoiengatiko baimen egunak.

- Aparteko orduengatiko konpentsazioan emandako atsedenaldiak.

- Ordezkaritza sindikaleko orduak, ezinbesteko betebeharra betetzekoak eta azterketetara eta medikuaren bisitetara joatea, besteak beste.

- Arrazoi teknikoak, antolakuntzakoak edo ekoizpenekoak direla-eta lan egin gabeko orduak edo egunak dira: langileak zerbitzua emateari edo ondasunak ekoizteari aldi batez uztea (etenaldi egunak) edo lanaldi murrizketak (murrizpen orduak), enpresen krisialdiak gainditzeko xedearekin.

- Lantokian galdutako orduak: ez langileari ez enpresaburuari ezin egotz dakizkiokeen arrazoiengatik lan egin gabeko orduak dira, adibidez lanera lantzean behin ez azaltzea, makinak haustea, lehengairik eza, ezbehar atmosferikoak, mugimendu-indarra edo bestelako ezinbesteko kausak. Lan egin gabeko orduok berreskuratzea ahalbidetzen du legeak, egunean ordu bat lan eginda, aurretik jakinarazpena egin bada eta kontrako akordiorik ez badago. Berreskuratu gabeko orduak baizik ez dira biltzen osagai honetan eta, beraz, benetan lan egin gabeko ordutzat har daitezke.

2.2. Lan egin gabeko eta ordaindu gabeko orduak. Hauexek sartzen dira:

- Lan-gatazka: Grebengatik galdutako guztizko ordu kopurua da, greben toki, sektore edo enpresa eremukoak diren edo greba osoak edo partzialak diren aintzat hartu gabe. Ez da zenbatzen ondoren berreskuraturiko denbora.

–Absentismoa; legezko zaintza; ugazaben itxiera.

Ugazaben itxieran, enpresaburuak lantokia ixten du talde-gatazkagatik, indarkeria edo kalte arriskuak daudenean, lantokia legez kanpo hartzen denean edo ekoizpenaren ohiko prozesua galarazten duten irregulartasunak direnean.

Legezko zaintza lanaldi murrizketa da berau eskatzen duten langileentzat, bere zaintzape zuzenean 6 urtetik beherako adingabea edo lanik egiten ez duen ezindu fisikoa edo psikikoa duelako.

HEZKUNTZA

- Lanbide heziketa.

  Lanarekin eta lan-merkatuarekin lotuago dauden ikasketen multzoa da Lanbide Heziketa, eta gaur egun, pertsonaren bizitza aktiboan gauzaturiko prozesutzat hartzen da. Izan ere, Lanbide Heziketa da eskolarako adinean dauden gazteentzako berezko “heziketa arautua” nahiz lanean ari diren langileentzako “enplegurako prestakuntza” edo lanbide “gaitasunaren aintzatespena”.

  Honelaxe dago antolaturik hezkuntza sistemako Lanbide Heziketako irakaskuntza: Hasierako lanbide prestakuntzako programen (HLPP) lanbide modulu espezifikoak, gradu ertaineko prestakuntza zikloak, goi mailako graduko prestakuntza zikloak eta, etorkizunean, espezializazio ikastaroak.

  Lan-merkatuan arrakasta nabarmena duten 140 titulazio biltzen ditu Lanbide Heziketak. Tituluak 26 edo ARLOtan sailkatzen edo taldekatzen dira. ARLO bakoitzak eremu teknologiko ekonomikoa dakar, arloko zikloak partekatuta. 26 lanbide arlo bakoitzean, maila ertaineko eta goi-mailako prestakuntza zikloak daude, TEKNIKARI eta GOI-MAILAKO TEKNIKARI titulua ematen dutenak, hurrenez hurren.

GIZARTE BABESA

- **Adin-bereizkeria.**
  Adin-bereizkeria, ingelesezko “ageism” ere deritzona (aldi berean, Europar Batasunak «edaismo» itzuli du termino hori) adinaren ziozko pertsonen estereotipifikazioa eta diskriminazioa da. Pertsonak adinaren arabera diskriminatzea zuritzeko sinesmenak, arauak eta balioak biltzen ditu.

- **Gizarte Babesko kontua**[1].

SEEPROS Eskuliburuaren arabera, Gizarte Babesaren kontzeptuan ezarritako zenbait arrisku edo behar izateak familientzat eta norbanakoentzat dakarren zama arintzeko erakunde publikoek edo pribatuak egin dituzten jarduketa guztiak biltzen dira, betiere aldi baterako, elkarrekiko edo banakako akordiorik ez badago". Banakako akordiorik ez izateak berekin dakar arriskuaren estaldura, kontingentzia edo beharra taldeka egitea, eta horrek alde batera uzten ditu banakoen, partikularren edo familien ekimenetatik eratorritako gastuak, soilik haien alde hartuak. Hortaz, Gizarte Babesaren definizio zabala da.

Gizarte babesaren arloko estatistika horien aurrean, hala nola Lanaren Nazioarteko Bulegoarena esaterako (soilik Gizarte Segurantzako Sistemen barruko erakundeek buruturiko ekintzak sartzen ditu soilik), **SEEPROS metodologian,** definizio orokorreko beharkizunen arabera gizarte babeserako ekintzak burutzen dituen edozein erakunde publikori nahiz pribaturi aplika dakioke behaketaren arloa.

Hona hemen gizarte babesaren kontzeptuaren barruko estaldura duten **kontingentziak**:

•**Gaixotasuna / Osasun arretaren funtzioa**: funtzio horretan, bi prestazio mota sartu behar dira:

•Gaixotasunaren ziozko sarrera galera ordezteko eskudiruzko prestazioak.

•Osasun arretako prestazioa, prestazioa eragin zuena edozein delarik ere. Irizpide horren arabera, funtzio honetan sartzen da baliaezintasunaren edo amatasunaren ziozko laguntza, baliaezintasunaren edo familiaren ziozkoan sartu beharrean, hurrenez hurren. Langileari enpresan emandako osasun laguntza, aldiz, ez da bildu, prozesu produktiboan beharrezko input dela iritzita; enpresaburuak etekina lortzen du horri esker.

•**Baliaezintasunaren funtzioan**: bi mota handitan sailka daitezkeen prestazioak biltzen ditu funtzio honek:

•Alde batetik, lan jarduera egiteko ezintasunagatiko galera osoa edo zatizkoa dela-eta sarreretan izandako murriztapenaren ordaina onuradunei emateko prestazioak, legerian ezarritakoaren arabera.

•Bestalde, errehabilitazio zerbitzuak eta beste batzuk, gaixotasuna/osasun arretaren funtzioan zenbatzen den osasun laguntzakoak izan ezik.

Garrantzizkoa da zehaztea funtzio honetan soilik zenbatzen direla erretirorako adinera heldu ez diren onuradunek jasotako baliaezintasun-pentsioak. Adin hori gaindituta, zahartzaro funtzioari egozten zaio prestazioa. Era berean, laneko ezintasuneko aldiko prestazio ekonomikoak eta laguntzakoak (legean ezarritako irizpideekin bat etorrita) ez dira hemen sartzen, gaixotasuna/osasun arretaren funtzioan baizik.

•**Zahartzaroaren funtzioa**: zahartzaroaren ondorioak arintzeko sortutako prestazioen multzo osoa hartzen du, hauexek barne: sarreren galera, ohiko jarduerak egiteko autonomiaren galera edo gizarte jardueraren murriztapena. Horrenbestez, pentsioak nahiz bestelako laguntza-prestazioak sartzen dira funtzio honetan.

ESSPROS Eskuliburuan (2008) ezarritakoaren arabera, erretiroko eta zahartzaroko pentsioak eta baliaezintasuneko pentsioak biltzen ditu funtzio honek, 65 urte edo gehiago dituztenenak hain zuzen.

•**Bizirik dirautenen funtzioa.** funtzio honetan, senideren bat edo haien euskarri ekonomiko nagusia zen pertsona galdu duten pertsonei emandako prestazio ekonomiko guztiak biltzen dira. ESSPROS Eskuliburuan (2008) ezarritakoaren arabera, bizirik irauteari dagozkion pentsio guztiak biltzen ditu. Era berean, heriotzak eragindako zamak estaltzeko zenbait konpentsazio biltzen dira, hala nola hiletak eragindako gastuak.

•**Familia / seme-alabak funtzioa**: seme-alaben jaiotzak eta hazkuntzak dakarten zama arintzeko eta familiako beste kide batzuk mantentzeko familiei emandako diru-laguntzak sartzen ditu. Erditu baino lehen edota ondoren emakume langileen errentari eustea sartzen da funtzio honetan.

Halaber, familia eta bereziki seme-alabak babesteko erabilitako gizarte zerbitzu guztiak sartzen dira funtzio honetan, hala nola zentro espezializatuetan edo etxe partikularretan ostatua ematea, edota haurtzaindegiko zerbitzuak.

---

1 http://www.eustat.eus/estadisticas/tema_94/opt_0/tipo_5/ti_Cuenta_de_la_Proteccion_Social/temas.html

•**Langabeziaren funtzioa**: SEEPROS Eskuliburuan (1996) funtzio hau biltzen da, enplegu politiketako ohiko sailkapenaren arabera, alde batetik, neurri pasiboak, hots, ordaindutako lanik ez izatearen ondorioak arintzeko direnak -bereziki nahikoa sarrera-iturria ez izatearen ondoriozkoa- eta, bestetik, neurri aktiboak, langabeziaren prebentziorako edo murriztekoak direnak.
Hortaz, honako hauek osatzen dute funtzio hau: langabezia subsidioak (partziala edo osoa), bizirik irauteko errentak edo erretiro aurreratuko pentsioak, betiere erretiroa hartzeko zioa lan-merkatuaren egoera bada, baina lanbide heziketako subsidioak eta onuradunaren egungo eta geroko enplegu posibilitateak hobetzeko era guztietako laguntzak eta prestazioak ere sartzen dira. Horrez gain, Gizarte Segurantzarako kotizazioak zenbatzen dira, INEMek bere karguan dauden langabetuei zenbait onura jasotzea ziurtatzeko eginikoak hain zuzen ere.

•**Etxebizitzaren funtzioa**: kasu honetan, etxebizitza gastuei aurre egiteko emandako laguntzak dira. Etxean bizi direnentzako laguntzak dira, etxebizitzaren jabeak izan nahiz alokairuan izan, eta ez eraikitzaileentzat edo beren etxebizitzetan bizi ez diren jabeentzat. Laguntzak, funtsean, alokairuen kostuak gutxitzeko edo hipoteken interesen ordainketak egiteko transferentzia arruntak izan ohi dira laguntzak emateko erak.
Aurreko edizioen aldean, edizio honetako funtzio honetan Eusko Jaurlaritzak etxebizitzaren arloan dituen eskumenak betetzearen ziozko gastuak sartzen dira. Ildo horretan, aldatu egin da serie osoa, emaitzek denboraren aldetik duten homogeneotasunari eusteko. Metodologia dela-eta, etxebizitza erosten dutenentzako mesedegarriak diren zuzeneko diru-laguntzen eta interesen subsidioen ondoriozko zenbatekoak zenbatu dira soilik, baita alokairurako etxebizitza sustatzen eta erosten dutenentzako laguntzak ere.

•**Beste inon sailkatu ez diren Gizarte Bazterkeriaren funtzioa**: funtzio honek garrantzi txikia du SEEPROS Eskuliburuan (1996) planteatzen den funtzio-eskemaren barruan. Beste ezein funtziotan sartzen ez diren eta arriskuekin eta beharrekin lotuta dauden prestazioak biltzen dira. Prestazioen serie heterogeneoa dakar funtzioak, jakina, eta horren ezaugarri nagusia diru-baliabide urriarekin lotutako gizarte bazterkeria ekiditeko edo zelanbait arintzeko ahaleginak egitea da, edo osasunaren, hezkuntzaren edo enpleguaren inguruko arazoetan.

Bestalde, hona hemen **sistemak eta sistema-taldeak Euskal Autonomia Erkidegoko Gizarte Babeseko Kontuan**:

•**Gizarte Segurantzako sistema**. Gizarte Segurantzako erregimenek osatzen dute. Erregimen horiek kudeatzen dituzte Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalak, Itsasoko Gizarte Institutuak eta laneko istripuen eta gaixotasun profesionalen mutualitateek.

Sistema espezifiko honetan, gizarte segurantzaren familia-babesa biltzen da. Gizarte Segurantzaren Konpentsazio-funtsa fikziozko sistema da, transferentzia-konpentsazio gisa dihardu gizarte segurantzan superabita eta defizita duten araubideen artean. Izan ere, araubide horietan bana ezin daitezkeen gastuak eta sarrerak egoztean zaizkio sistema horri.

•**Enpleguko Nazio Erakundea:** talde independentea da, berez, eta langabeziaren zizoko gizarte babesean duen garrantziagatik nabarmentzen da.

•**Funtzionario publikoen araubideak:** epigrafe honetan, Funtzionario Publikoen Araubide Bereziaren menpeko gizarte babesaren horniduraren gaineko gastuak eta diru-sarrerak biltzen dira. Honako hauek jasotzen ditu: oinarrizko prestazioak edo klase pasiboen araubidea eta epealdian indarrean dauden funtzionarioen hiru mutualitatek ordaindutako administrazioko mutualismoari dagozkionak, hots, Estatuko Funtzionario Zibilen Mutualitatea (MUFACE), Indar Armatuen Gizarte Erakundea (ISFAS) eta Mutualitate Orokor Judiziala (MUGEJU). Horrez gain, herri administrazioek soldatak eta ordainsariak mantentzeko kontzeptuan ordaindutako diru-kopuruen zenbatespena sartzen da talde honetan langileei eragiten dieten aldi baterako ezintasunari eta amatasunari dagozkien kasuetan.

•**Gizarte Babeseko beste sistema batzuk:** askotariko sistemek eta erakundeek emandako gizarte babesak hartzen duen hondarra da, eta hori dela-eta, talderik heterogeneoena da. Hona hemen biltzen dituen sistemarik garrantzitsuenak:

•**Osasun sistema publikoa:** euskal administrazioen jarduketak biltzen ditu, osasunaren arloan dituzten eskumenak direla bide.

•**Gizarte zerbitzuen sistema publikoa:** EAEko administrazioko maila ezberdinek gizarte zerbitzuen arloan dituzten erantzukizunak biltzen ditu.

Langileek enplegatzaileengandik zuzenean jasotzen dituzten prestazioak, bi sistematan banatuak prestazioen nahitaezkotasunaren arabera.

•**Segurantza fenomenoak**: gizarte aseguruaren definizioari dagokio, Kontuen Europako Sistema arabera (SEC-95); bereziki Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundeen (BGAE) jarduketaren zati bat, horrela katalogatu daitekeena.

•**Herri erakundeen egintza:** helburu espezifikoa du gizarte babesaren arloan, hala nola Soldatak Bermatzeko Funtsa (FOGASA).

•**Irabazteko asmorik gabeko erakunde pribatuen jarduketa,** gizarte zerbitzuen arlokoa.